

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBVA Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



PENTSAMENDU  
ILUSTRATUA: IDAZLAN  
HAUTATUAK II



IMMANUEL KANT  
EDMUND BURKE  
VOLNEY  
CONDORCET

# Pentsamendu ilustratua: Idazlan hautatuak II



Euskaratzailea: *Haritz Monreal*  
Berrikuslea: *Lorea Arrieta Zubillaga*  
Hitzaurregilea: *Demetrio Castro*

Lehen argitalpena: 2005eko abenduan

© Itzulpenarena: Haritz Monreal  
© Klasikoak, 2005

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo  
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia

2005-XII-13

Obra osoarena: ISBN: 84-96455-00-9  
Liburuarena: 84-96455-13-0  
Lege gordailua: BI.-3218-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.  
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.  
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.  
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

# ZER DA ILUSTRAZIOA? ITAUNARI ERANTZUNA

IMMANUEL KANT

Ilustrazioa da gizakiak berak eragindako heldugabetasunetik irtetea. Heldugabetasuna da beste norbaiten laguntzarik gabe bakoitza bere ulermena erabiltzeko gai ez izatea. Heldugabetasun hori *norbe - rak eragiten* du, horren kausa ez denean ulermen gabezia, baizik eta beste norbaiten laguntzarik gabe erabiltzeko kemen eta kuraia falta. «*Sapere aude!* Izan ezazu kuraia zure ulermena erabiltzeko!», hori da, hortaz, Ilustrazioaren lema.

Alferkeria eta koldarkeria dira kausa bizitzan zehar gizaki gehienak, baita naturak gidaritza arrotz batetik aldendu (*naturaliter maiorennes*) dituenean ere, heldugabetasunean pozik mantentzeko; eta horiek direla eta, halaber, hain erraza izan da beste batzuk haien tutore bilakatzea. Hain eroso da heldugabea izatea! Baldin badaukat liburu bat nire ulermena ordezkatzeko duena, aholkulari espiritual bat nire ordezkantzia izanen duena, doktore bat dieta jartzen didana, eta abar, ez dut batere ahaleginik egin beharko. Ez dut pentsatu behar, ordain dezakedan artean; beste batzuek egingo dute lan neketsua nire partez. Gidaritzaz hain adeitsuki arduratzen diren tutore horiek kontu hartuko dute gizateriaren zatirik handienari (sexu ederraren kasuan denei) heldutasunerako urratsa irudi dakien ez soilik zaila, baita arriskutsua ere. Lehenik, etxeko abereak mantsotu ondoren, eta arretaz kontu hartuta animalia otzan horiek ez daitezen ausartu lotuta daramatzatzen bridarik gabe urratsik egiten, orduan erakusten diete zein

den gidaritzarik gabe, bakarrik, ibiltzearen arriskua. Aitzitik, arrisku hori ez da benetan hain handia, zenbait aldiz erori ostean azkenik ibiltzen ikasiko bailukete; baina mota horretako etsenpluak ikara eragiten du, eta, orokorrean, beste saiakera batzuetarako kikiltzen du bat.

Horrela, zaila da gizabanako bakoitzarentzat ia norbere natura bilakatu den heldugabetasun horretatik irtetea. Hartara ohituta, gustu hartu dio, eta ezinezkoa zaio jada bere ulermenaren erabiltzea, ez baitzaio inoiz laga hura erabiltzen. Dogmak eta formulak, bere dohain naturalen erabilpen –edo, hobeto, deserabilpen– arrazionalerako instrumentu mekanikoak, bere behin betiko heldugabetasunerako oin-bilurrak dira. Norbaitek horiek kentzea lortuko balu, oraindik ere ezgai izanzen litzateke zangarik estuenaren gainetik ere salto egiteko, ez bailitzateke ohitua egongo mota horretako mugimendu askeetarako. Hortaz, soilik gutxi batzuek –nork bere adimenak landuz– erdietsi dute heldugabetasunetik aske izatea eta euren bidean ausarki jarraitzea.

Baina litekeena da publiko oso batek bere burua ilustratzea; ia saihestezina da, publiko hori aske uzten bada. Beti egongo baitira gutxi batzuk euren kabuz pentsatzen dutenak, baita jendetza arruntaren zaindari izendaturiko horien artean ere, horiek –heldugabetasunaren uztarria gainetik kendu ondoren– zabaldu egingo lukete norberaren balioaren errespetu arrazionalaren eta norberak bere kabuz pentsatzeko betebeharraren espiritua. Baina zerbait azpimarragarria gertatzen da: uztarpean ezarritako publiko horrek, zaindari batzuk ilustraziorako ezgai direlarik, gainontzekoak ere haren menpe ezarriko dituela. Hortaz, zeharo arriskutsua da aurreiritziak zabaltzea, azkenik mendekua iritsiko baitzaie hasieran sustatu zituzten horiei, edo aurreiritzior sortzaile ziren sustatzaile horien aitzindariari. Horrela, soilik pixkanaka lortuko du publikoak ilustrazioa. Iraultza batek beharbada amaituko du despotismo autokratikoa edo zapalkuntza harrapari eta menderatzailea, baina ez du inoiz pentsatzeko eran benetako erreforma bat eragingo; aldiz, aurreiritzi berriek, zaharrek legez, balioko dute pentsatzen ez duen masa handi horrentzako uhal moduan.

Askatasuna da soilik beharrezko ilustrazio honetarako; eta kalte txikiena egiten duen askatasuna: gauza guztietarako norbere arazoimenaren erabilera publikoa egitekoa. Baina alde guztietarik honako oihua dantzut: «Ez arrazoitu», dio ofizialak, «ez arrazoitu, egin!». Zerga-biltzaileak: «Ez arrazoitu, ordaindu!». Apaizak: «Ez arrazoitu,



sinistu!» (Munduan soilik agintari batek esaten du: «arrazoi ezazue nahi duzuen guztia eta nahi duzuenari buruz, baina obeditu!») Honek guztiak leku orotan askatasunaren murrizpena esan gura du. Baina zein mugapen motak oztopatuko du ilustrazioa, eta, aldiz, zeinek sustatuko du?

Honakoa ihardetsiko dut: gizaki baten arrazoimenaren erabilera beti izan behar da aske, eta soilik horrek ekarriko du ilustrazioa gizakion artean; arrazoimenaren erabilera pribatua sarritan murriztua izan daiteke, hargatik ilustrazioaren aurrerakuntzari oztoporik jarriko ez zaiolarik. Erabilera publikoa diodanean esan nahi dut gizaki batek, pertsona jakintsua den heinean, publiko irakurle osoarengana zuzentzean egiten duen erabilera. Erabilera pribatua deitzen diot, eman zaion postu edo kargu batean pertsona batek egin dezakeenari. Erkidegoaren interesei eragiten dieten eginkizun batzuetan beharrezkoa da mekanismo jakin bat, horren bidez erkidegoko zenbait kidek soilik pasiboki jardungo dute, horrela, osotasunak artifiziaalki hala erabakita, gobernuak helburu publikoetara zuzen ditzan (edo behintzat helburu horiek zaputuz ez ditzaten). Kasu horietan ez da zilegi arrazoitzea, beharrezkoa da obeditzea. Baina makinaren zati bezala jarduten duen gizabanako bat zein beste kontsideratzen den artean, batetik, erkidego oso baten kide –baita erkidego kosmopolita batekoa– eta, hortaz, bestetik, bere idazkien bidez publiko bati –berorren zentzurik benetakoe-nean– zuzen dakioken pertsona jakintsu, orduan arrazoi dezake, kalterik egin gabe taldeko kide legez aldi batzuetan pasiboki egiten dituen aferei. Horrela, oso kaltegarria litzateke gainekoengandik manu bat jasotzen duen ofizialak, zerbitzuan dagoen artean, agerian eztabaidatuko balu aginduaren egokitasuna edo erabilgarritasuna; obeditu behar du. Baina ezin zaio zentsuratu pertsona jakintsu legez zerbitzu militarren gainean akatsak ohartzea eta horiek publikoaren jakinean jartzea, honek juzga ditzan. Hiritarrak ezin dio uko egin ezartzen zaizkion zergak ordaintzeari, halako zergak arranditsuki kritikatzea –ordaintzea eskatzen zaionean– zigor daiteke, desobedientzia orokorrera daraman eskandalu den artean. Aitzitik, hiritarrak ez ditu bere betebeharrak zibilak urratzen, gizabanako jakintsu legez, publikoki aireratzen badu neurri fiskal horien injustiziaz edo egokitasun ezaz pentsatzen duena. Modu berean, apaiza behartuta dago bere katekumenoak eta kongregazioa heztera hark zerbitzatzen duen elizaren

dotrinaren arabera, baldintza horrekin aukeratua izan baitzen. Baina jakintsu bezala, zeharo aske –eta baita behartua ere– da publikoari bere intentzio oneko pentsamendu ongi hausnartuak aditzera emateko, dotrina horren akatsen gainean, eta erlijio zein eliza aferen antolakuntzaren hobekuntza ekarriko duten aholkuak emateko. Horretan ere ez dago ezer kontzientzia nahastuko duenik. Apaizak bere funtzioa betetzean irakasten duena –elizaren eginkizunen zerbitzari bezala diharduenean– aurkezten du berak nahi bezala irakats ez dezakeen zerbait bezala, modu preskribatuan eta besteren izenean adierazteko bidalia baita. Honakoa esango du: «Gure elizak hau edo beste hori irakasten du, eta hauek dira darabiltzan argumentuak». Ondoren bere kongregazioarentzat ahalik eta balio handiena ateratzen saiatuko da prezeptuetatik; apaiza horiekin konbikzio osoz bat ez datorren arren, ager ditzake; izan ere, ez da guztiz ezinezkoa haietan egiarik egotea. Nolanahi ere, erlijioaren esentziaren aurkakoa denik ez da agertuko dotrina horretan. Ezen, apaizak usteko balu hartan halako zerbait dagoela, ezin izanen luke bere betebeharrak ofizialak kontzientzia onarekin bete eta karguari uko egin beharko lioke. Hortaz, dotrina irakasten duen pertsona batek arrazoimenarekin egiten duen erabilera soilki pribatua da, ezen kongregazioa, den handia delarik ere, ez baita inoiz bilera etxetiar bat baizik. Hori ikusita, hura ez da eta ezin daiteke izan aske apaiz bezala, kanpotik inposaturiko mandatua betetzen baitu. Aldiz, bere idazkien bidez benetako publikoari (hau da, munduari) zuzentzen zaion jakintsu moduan, apaizak bere arrazoimena publikoki erabiliz mugarik gabeko askatasuna du bere arrazoimen propio hori erabili eta norbere izenean hitz egiteko. Gai espiritualetan herriaren zaindariak heldugabetasunean mantentzea absurdoa da, era berean absurdokeriak behin betiko egiten dituenak.

Baina, ez al litzateke zilegi apaizen kidego batek –esaterako, eliz sinodo batek edo *classis* ohoragarri batek (herbeheretarrek deritzen moduan)– aukera izatea norbere buruari zinarazteko dotrina aldaezin bat, kide bakoitzarekiko zaindaritza ziurtatuta edukitzearren, eta kide horien bitartez jendearena? Erantzuten dut hori zeharo ezinezkoa dela. Mota horretako kontratua, gizateriaren etorkizuneko ilustrazio orori betirako aurre egiteko neurri bezala pentsatua, erabat ezdeusa eta hutsa da, baita onesten badu botere gorenak, dieta inperialak edo bake hitzarmenik solemneenak ere. Aro batek ezin du aliatu

eta zin egin ondorengo aroari ezartzeko egoera bat, horrela azken horrek ezin izanen duelarik ezagutza hedatu eta zuzendu, bereziki gai garrantzitsu batzuetan, edo ezingo duelarik ilustrazioan inongo aurrerakuntzarik egin. Hori giza naturaren aurkako krimena litzateke, berorren jatorrizko helburua aurrerakuntza horretan oinarritzen baita. Beranduagoko belaunaldiek, beraz, halako hitzarmenak autoritaterik gabeak eta kriminalak kontsidera ditzakete. Ikusteko neurri partikularren bat herri baten lege kontsidera daitekeen, soilik beharrezkoa zai- gu itauntzea herri horrek bere buruari lege hori inposa diezaiokeen. Hori zilegi litzateke denboraldi baterako, ordena apur bat ezartzearen, irtenbide hobeagoren bat aurkitzeke. Horrek esan nahi luke, halaber, hiritar bakoitzak –bereziki apaizek– askatasun osoa lukeela jakintsu moduan publikoki –hau da, norbere idazkietan– komentatzeko uneko erakundeen akatsak. Bitartean, ezarri berria litzatekeen ordenak irau-ngo luke, harik eta gai horien inguruan publikoak lukeen ulermenak aurrera egin eta kreditua lortu arte, eta adostasun orokorrek (aho batez ez bada ere) koroari proposamen bat helaraztea dagoenera arte. Horrekin bilatzen da ulermen goragoko baten nozioaren arabera euren erlijio erakundea aldatzea nahi luketen kongregazioak, esaterako, babestea; baina ez litzateke oztopoa izanen gauzak leudekeen moduan uztea nahi luketenentzat. Baina erabat onartezina da adostea, baita soi-lik bizitza baterako bada ere, behin betiko erlijio egoera bat, inork eztabaida ezin dezakeena publikoki. Horrek zeharo deuseztatuko bai- luke gizateriaren aurrerakuntzarako fase bat, horrela ondorengo belau- naldientzat antzu eta baita kaltegarri ere eginez. Pertsona batek bere buruarentzat, eta soilik denboraldi mugatu baterako, atzera lezake norbera ilustratzea jakin beharko lituzkeen gaietan. Baina halako ilus- trazioari erabat uko egitea, bere buruari dagokionez eta are gehiago etorkizuneko belaunaldien kasuan, gizateriaren eskubide sakratuak urratzea eta zapaltzea da. Baina jendeak bere buruari inposa ez die- zaiokeen zerbait are gutxiago inposa diezaioke monarka batek; herria- ren borondate kolektiboa berearekin batzean baitatza bere botere lege- gilea. Kontu hartzen duen artean ikusten ea hobekuntza benetako edo imajinaziozko guztiak ordena zibilarekin bateragarriak diren, bere menpekoei utz diezaike euren salbaziorako beharrezko iruditzen zaiena egiten, ez baita bere arazoa. Baina berari dagokio norbere sal- bazioa definitzeko eta sustatzeko ahalik eta hobekien diharduten horiek indarkeriaz oztopatzen dituztenak gelditzea. Izan ere, bere

maiestatea eskasten du arazo horietan sartzeak, gobernuaren ikuska-  
penaren menpe ezartzen dituenean erlijio ideiak argitzearren bere  
menpekoek idatzitakoak. Hori hala da bai bere iritzi sutsuen arabera  
egiten badu —eta kasu horretan honako gaitzespena irits dakioke: *Cae -  
sar non est supra grammaticos*—, baina are gehiago bere autoritate  
gorena degradatzen badu bere estatuko tirano gutxi batzuek gainon-  
tzeko menpekoenganako duten despotismo espiritualari laguntzeko.

Orain galdetzen bazaigu aro ilustratu batean bizi garen, hona-  
koa da erantzuna: ez, ilustrazio garaian bizi gara. Egun gauzak diren  
egoeran, oraindik bide luzea dugu kurritzeke gizakiok osotasun beza-  
la, kanpoko gidaritzarik gabe, erlijio gaietan gure ulermena konfian-  
tzaz eta ongi erabiltzeko posizioan egon arte (edo egoteko prest egon  
arte). Zantzu argiak ditugu, hala ere, bidea garbitzen ari dela norabide  
horretan aske jarduteko; gizakiak bere buruari inposatu dion helduga-  
betasunetiko irteerarako zein ilustrazio unibertsalerako oztopoak mai-  
laka-mailaka txikiagoak dira. Ikuspegi horretatik, gure garaia ilustra-  
zio garaia da, Friedrichen garaia.

Printze bat, ez duena kontsideratzen beheagotzen ari dela esa-  
teagatik bere eginkizuna dela, erlijio gaietan, bere jendeari ezer ez  
preskribatzea, baizik eta hari askatasun osoa ematea, printze bat *tole -  
rante* titulu arranditsua jasotzeko uko egiten diona, ilustratua izan  
behar da. Merezi du esker oneko mundu osoak eta etorkizunak ere  
lauda dezaten hura izateagatik lehen gizona gizateria heldugabetasu-  
netik (gobernuari dagokionez) askatu zuena, eta pertsona guztiak kon-  
tzientzia arazoetan euren arrazoimena erabiltzeko aske utzi zituena.  
Bere agintaritzapean, eliz dignatarioek, euren betebeharrak ofizialak  
gorabehera, jakintsu bezala askatasunez eta publikoki ezar ditzakete  
munduaren juzgapean euren epaitzak eta iritziak, baita horiek leku  
batean edo bestean dotrina ortodoxotik aldentzen badira ere. Hori are  
gehiago aplikatu daiteke eginkizun ofizialen mugarik ez duten horien  
kasuan. Askatasun espiritu hori atzerrira ari da hedatzen halaber, bai-  
ta euren funtzioa gaizki ulertzen duten gobernuak jarritako kanpo  
oztopoak topatzen dituzten lekuetara ere. Gobernu horiei orain etsen-  
plu distiratsua eskaintzen die eta lekuko dira nola askatasuna existi  
daitekeen, konkordia publikoa eta erkidegoaren batasuna arriskuan  
ezarri barik. Gizakiak euren kabuz basakeria egoeratik irteten dira, ez  
baldin badira neurri artifizialak hartzen haiek han mantentzeko.

Erlijio kontuak hartu ditut kontuan ilustrazioa –hau da, giza-kiak bere buruari inposaturiko heldugabetasunetik irteera– kontsiderazteko orduan puntu nagusi bezala. Hori hala izan da, lehenik, gure agintariek arte eta zientzietan ez daukatelako interesik euren zaindartzatza ezartzeko, eta, bigarren, erlijio alorrean heldugabetasuna guztiatarik kaltegarriena eta desohoragarriena delako. Baina arte eta zientzietan askatasuna sustatzen duen estatu-buru baten jarrera areago doa, eta ulertuko du ez dela ezta ere arriskurik, legeriari dagokionez, bere menpekoei lagatzen badie euren arrazoimenaren erabilera publikoa egiten eta, legeak egiteko, euren pentsamenduak publikoki agertzen, baita uneko legeriaren kritika zorrotza eragiten badu ere. Mota honetako etsenplu bikaina dugu gure aurrean, ezein monarkak ez baitu horretan gainditzen orain ohoratzen dugun hori.

Baina ilustratua den eta iluntasunari beldurrik ez dion agintari batek, eta, aldi berean, segurtasun publikoa ziurtatzeko gudaroste ongi diziplinatua eta ugaria duenak, esan dezake ezein errepublikak esateko ausardiarik ez lukeen hori: «Arrazoitu nahi duzuen beste eta gura duzuen beste, baina obeditu!». Horrek giza arazoen eredu espero gabea eta bitxia agertzen digu (horiek zentzurik zabalenean kontsideratzen baditugu, orduan, ia guztia paradoxikoa baita). Askatasun zibil maila altu batek abantailatsua dirudi jendearen askatasun intelektuale-rako; alabaina, askatasun horri muga gaindiezinak ezartzen dizkio halaber. Aitzitik, askatasun zibil maila txikiago batek askatasun zibilari leku nahikoa uzten dio bere irismen zabalenera heda dadin. Naturak goxotasun handienaz zaindu duen hazia, askatasunez pentsatzeko joera eta bokazioa, oskol gogorraren azpian garatu badu, horrek eragina du herriak pentsatzeko duen moduan, horrela mailaka askatasunez jarduteko gai izanen da; azkenik, gobernuen printzipioetan ere eragina izanen du, probetxugarri izanen baitzaie gizakia –makina bat baino gehiago den hori– dagokion duintasunaren arabera tratatzea<sup>1</sup>.

## *Oharrak*

<sup>1</sup> Irailaren 13ko *Büschingeko* astekarian, gaur, hilabete bereko 30ean, irakurtzen dudanez hilabete honetako *Berlinische Monatsschriften* iragarki bat agertzen da, bertan aipatzen delarik Mendelssohn jaunak itaun

honi berari emaniko erantzuna. Ez zait oraindik eskutara iritsi; osterantzean nirea atzeratuko nukeen, orain soilik balioko baitu ikusteko zein puntutaraino dakarren zoriak pentsamenduan adostasuna.

# BILTZAR NAZIONALEKO KIDE BATI GUTUNA BURKE JAUNAREN PARTEZ HONEK FRANTSES AFEREN GAINEAN

DAUKAN LIBURUARI EGINIKO ZENBAIT  
OBJEKZIORI BURUZ

1791

EDMUND BURKE

Jauna, zure gutuna jasotzeko ohorea izan nuen iragan den azaroaren 17an; bertan, zenbait salbuespenekin, iritzi faboragarria agertzen duzu nik frantses aferen gainean idatziriko gutunarekiko. Beti hartuko dut gozamen handiagoarekin pertsona jantziarengandik datorren edozelako onespén, goraipamen orokor eta hezkuntzarik gabeak baino. Azkenek soilik gure harrokeria puzteko balio dute; lehenek, jarraitzera bultzatzen gaituzten artean, gure aurrerakuntzan hobetzen lagun gaitzakete.

Argitaratu den nire gutunean aurkitzen dituzun zenbait huts benetan akats dira. Soilik bat iruditzen zait funtsezkoa. Zuri bidaltzeko askatasuna hartu dudán edizio egin berrian zuzendua da. Nire oharren zati bati aurki dakizkieken eragozpenei dagokienez, zuen egitura berriaren *mailaketen* inguruan eginikoei, zuzen azaltzen duzu ez dutela nire objektioen substantzian eraginik. Ordezkaritzaren eskaileran gutxi gorabehera maila bat gehiago edo gutxiago egotea, hartatik igotzen direlarik zuen langileak parrokiako tiraniatik anarkia federalera, eskala osoa faltua denean, ene irudiz garrantzi txikikoa da.

Egitura horren gainean nire hausnarketak argitaratu nituen nire herrikideak gai izan zitezen estimatzeko zein zuhurra den imitatzea eredugarri ei diren plan horiek. Iruditu zitzaidan egitasmo horien

benetako izaera hobeen sumatuko litzatekeela horiek prestatzeko hautaturiko batzordea nolakoa den erakutsiz. Uste nuen haien egikeraren eskema hobeto ulertuko litzatekeela, arkitektoen diseinua ikusita, igeltseroen jardunari erreparatuta baino. Ene irakurleak ez zuen merezi denbora galtzea arduratuz nola, aldaketa batzuen bidez, praktika trakets batek teoria absurdua zuzentzen duen. Halako ikerketa bat bukaerarik gabea litzateke: iragandako praktika ezintasunaren eguneroko esperientziak eraman ditu –eta etorkizuneko eguneroko esperientziak eramango ditu– gizaki horiek zaharrak lain zalantzarriak diren mekanismoetara; eta ez dutenak gainera behaketa merezi, ez bada egunero froga ematen dutelako haien promesen desitxaropenaz zein agindutakoaren faltsukeriaz. Aldaketa horiek guztiak jarraitu izan banitu, nire gutuna euren alde batetik besterako ibileraren albistegia baino ez zatekeen. Egunkaria litzateke, kontatzen duena, basamortu lehor eta etsigarri batean akatsetik akatsera egin duten ibilbidea, zeruko argiak gidari izan barik, edo zuhurtasunak argi horien lekua betetzeko asmatu duen trikimailuak gidatuta.

Zeharo sinetsita nago nazio oso bateko jatorrizko jaunak zein berorien jabegoak zapaltzeko, degradatzeko, txirotzeko, konfiskatzeko eta suntsitzeko saiakera ezin dela inolaz ere justifikatu, hartzen duen forma hartzen duelarik ere. Ezbairik gabe, ziur nago inperio handi bat sakristia bihurtzea, edo sakristia saldoa, eta hura gobernatzea parrokia-administrazioaren espirituarekin, zentzugabea eta absurdua dela, edozein modutan, edozein titulu dela medio. Estatuaren botere nagusiak ezartzea apaiz laguntzaile edo polizia kargutan, edo halako lanbideetan, abokatu auzizaleen eta agente juduen zuhurtziak gidatuta, eta kondiziorik behereneko emakume lotsagabeek, hotel, taberna eta burdel zaindarien, ikasle pertsonek, klerikoen, denda-mutilek, hile-apaintzaileek, biolin joleek, eta antzokiko dantzariak mugiarazita (zuen lako mankomunitate batean horiek menderatuko dute –jada menderatu duten moduan– lanbide probetxagarri baina neketsuetako behargin hezigabe eta baldar batzuen gaitasun falta neurritsu hori), hori guztia ez da inoiz izanen ezer, ez bada zoritxarrekoa eta suntsitzailea. Proiektu hori osoa, izatea asmo dukeena izanda ere, eta benetan ez balitz dozena erdi bat –beharbada gutxiago– politiko azpikaririk bitarteko lotsagarri baten bidez inposatu nahi duten nagusitasuna, halako azpikeria hain ergela, hain doilorra, hain intolerantea, duen



zuhurtasun faltagatik, eta nardagarria bere maltzurkeria dela-eta, ezen iruditzen zait hari jar dakizkiokeen neurri zuzentzaileak, hein batean egitasmoa bideragarri egin dezaketenak, hari jar dakizkiokeen objekzio berriak izanen direla.

Halako egoera tamalgarri batean, batzuk beldur dira zuen zori-gaiztoaren autoreak presaz has daitezkeela euren egitasmoarekin, bai euren sistemaren absurdotasuna, bai berorren atalen kongruentziarik eza, eta bai berorren printzipioekiko duen funsgabetasuna frogatzeko erabiltzen diren argumentuetan sumatzen dituzten seinaleengatik. Beldur dira, halaber, zuen nagusi horiek euren eskemak sendoagoak egin ditzaketela, are gaiztoagoak eginez. Barka iezadazu zure bihozberatasunagatik hartzera ausartzen naizen askatasuna, gaztigatzen badizut halako uzkurkeria batek gure ahalmenen burutzea galaraziko lukeela gizateriaren kausa handi honetan.

*Indarrera* presaz jotzea ezin da justifikatu benetako ahultasun egoera batean. Halako saiakerek zorigaitza dakarte; eta, huts egitera-koan, ahalegin arrazionalagoak etsiarazi eta nahasten dituzte. Baina *arrazoimenarekin* menturatu behar gara; arrazoiketa sofistikoek eta amarruek perbertitu dezaketen arren, arrazoimenak ezin baitezake pairatu galerarik ez lotsarik, eta ez du ekidingo etorkizuneko antolamendu egitasmo erabilgarriarik. Giza zuhurtasunaren neurri bakoitzean den segurtasun faltan –ondorioari dagokionez– ez dago antidoto seguruagorik iruzurraren pozoiauren aurka berori detektatzea baino. Aurkitu ondoren, badago iruzurra irenstea; eta beharbada sabelkeria handiagoaz irentsiko da detektaturiko iruzurra dela jakiterakoan. Gizakiek sarritan ohore kontua egiten dute erroretik atereak ez izatea, eta nahiago dute ehunka hutsetan erortzea bakarra egin dutela aitortzea baino. Baina bukaeran –gure printzipioek zein izaerak, edo talentuak ere, ez digutenean uzten errorea saihestea– gure arrazonamendurik onena erabili beharko dugu izaki arrazoidun izan beharko luketen horiekin, eta saiatu. Gizakien adimenean dauden anomalia horietan ezin dugu eragin. Ez dut uste halako gauzak asma ditzaketen gizakiak hobeak ala okerragoak egin daitezkeenik esaten zaien edozer dela eta. Arrazoimenaren kontra babestuta daude. Han eta hemen, hasiera batean intentzio indartsu eta on batek mugituak diren gizaki batzuek, lehen beroaldia iragan denean, ikuspegi lasaiago batekin har ditzakete hasiera bateko eskema tronpatuak. Horiengana soilik (eta penatzen

nau esateak ez direla asko izanen) jotzen dugu, esperantza apur batekin. Ezagutza ia absolututik gertu dagoen ziurtasun batetik esan dezaket ez dela ezer egin ez zegoenik hasieratik ere pentsatuta, estatuak bildu baino lehenago ere. «*Nulla nova mihi res inopinave surgit*». Hasieran ziren pertsona eta egitasmo berak dira, itxura aldatu duten arren. Hasieran beldar moduan arrastan egiten zuen animalia bera da, orain airean gora eguzkiari hegala zabaltzen dakusazun hori.

Hortaz, jarraitzen badugu, jarraitzera behartuak baikara, pertsona arrazionalei zuzentzen gatzaitziona hipotesipean, printzipio politiko faltsuak nola agertuko dira hobeto, ez bada frogatuz oinarri duten antolamenduarekin koherentziarik gabeko –eta oinarri hori iraultzen duten– ondoriotara daramatela? Ez bazaigu baimentzen halako frogapen bat, «*deductio ad absurdum*» deritzan arrazoimen prozesua, geometriaren zorrotasunak ere ez duena baztertzen, ezin liteke legegintzari dagozkion eztabaidetan erabili. Erokeriaren aurka daukagun armarik indartsuenetakoa, autoritatea erabiliz, galduko litzateke.

Badakizu, jauna, zure herrialdearen hondamendia saihesteko orduan zure aberkideen ahalmen bertutetsuek ere tratamendu hori izan dutela. Hemen, eta baita Frantzian ere, esan izan da orain agintean diren usurpatzaileek ez zutela euren tirania horren maila suntsitzailerara eramán izanen, ez balitz zuen oposizioaren laztasunak sustatu eta probokatu zuelako tirania hori. Gailentzen den bidegabekeria baten aurka egiten den oposizio orok, gauzen natura dela eta, dilema bati egin beharko dio aurre. Geldirik mantentzen bazara, konplize zara, zure isiltasunarekin baimenduriko neurrietan. Aurka egiten baduzu, gehiegikeria handiagora daraman botere suminkorraren probokatzailerara. Alderdi galtzailearen jarrera badirudi ez dela inoiz egokia; behintzat, ez du erdietsiko arrazoimen arruntentzat zuhertasun irizpide hutsezin bakarra dena: garaipena.

Frantziaren zapaltzaileen bihotzean damu izpiren bat, bertutearen aztarna ezkutatuak, badirela sinistarazi nahi dugun bihozberatasuna izan da erregearen eta herriaren hondamendi orokorra ekartzen lagundu duen kausetako bat. Ez da segurtasunik pertsona zintzoarentzat, ez bada, batetik, konturatuta gaizkileengandik gaitz oro espero daitekeela, eta, bestetik, bizkor, erabakitasunez eta trinko jardunda. Ongi oroitzen naiz, historia zoragarri honen garai orotan, arazo tragiko honen eszena bakoitzean, zuen usurpatzaile sofista horiek euren

printzipio maltzurak aurkezten –eta baita, berehalako erabakien bidez, aplikatzen– ari zirenean, ohizkoa zela esatea haiek ez zutela asmo ebazpen horiek zorrotasun osoz burutzea. Horrek jendea arduragabe egin zuen aurka egiteko orduan, eta hasieratik kontu hartzeko orduan. Esperantza faltsu horri eutsiz, iruzurtiek batzuetan pertsona mordoa engainatu zuten, besteetan talde bat; horrela, ez zitzaien aurka egin, iruzurrez prestatu zutena krudeltasunez burutu zutenean.

Kasu batzuetan pertsona bat ahalketzen da zerbait inposatu ez zaiolako. Gizakion arteko harremanetan beharrezkoa da konfiantza bat, hori gabe gizakiak sarritan gehiago mintzen ditu norbere susmoak, gainontzeko pertsonen maltzurkeriak baino. Baina doilor direla badakigun pertsonak inposatzen zaizkigunean, inozoak baino ergelagoak gara. Ezagutzen ditugularik, euren asmo onak mesfidantzarako arrazoi berriak bilakatzen zaizkigu. Bada kasu bat, izan ere, erokeria litzatekeena konfiantza osoa ez ematea pertsonarik iruzurtienari ere: guri areriotasuna argi adierazten digutenean.

Sumatzen dut pertsona batzuek beste esperantza batzuk dituztela, engainagarriak iruditzen zaizkidanak, hasiera batean horrenbeste jende iruzurtu eta desarmatu zuten horiek baino engainagarriagoak. Pertsona horiek pozten dira pentsatuz jendeak –euren erokeriak eragin dien miseria gorria dela eta– azkenik begiak irekiko dituela, behar bada agintariek ere. Beldur naiz ez ote den erabat alderantzizkoa izanen. Iruzur sistema horren agintariei dagokionez, badakizu iruzurti eta engainatzaileak ez direla inoiz damutzen. Iruzurtiak ez du iruzurra ez den beste baliabiderik. Ez dute euren dendan beste salgairik. Ez dute bertuterik edo zuhurtasunik euren adimenean, jukutriaren edo iruzurraren ondorio probetxugarrien porrota ematen bada, bertara erretretan egiteko. Iruzur zaharrak jada balio ez dienean berria asmatuko dute. Zoritxarrez, inozoen sineskortasuna xixkalari horien asmaketa gaitasuna bezain agortezina da. Ez diote jendeari inoiz ezer ematen, baina beti izanen dute haren zain. Zure estatuko doktoreek ez dute aldarrikatzen euren jardueratik onurarik etorri denik, edo gauza publikoek aurrera egin dutenik edonola ere euren kudeaketarekin. Nazioa gaixo dago, oso gaixo, hartzen dituen medizinak direla eta. Baina *engainatzaile kalakariak* esaten die: gertatua denak ez duela konponbiderik; edabea hartu dute, eta operazioa patxadaz itxoin behar dute; lehen efektuak ezatseginak dira, baina gaixotasunak berak frogatzen

du dosia ez dela operazio geldo baterako; gaixotasuna ezinbestekoa dela iraultza konstituzional guztietan; gorputza minduta egotetik igaro behar dela hobekuntzara; errezeta emaila ez dela esperientzia arruntan oinarritzen den enpirikoa, bere praktika artearen arau seguruetan funtsatzen duen norbait baino, ziurrenik ezin duena hutsik egin<sup>1</sup>. Irakurri duzu, jauna, Biltzar Nazionalaren azken agiria, edo iruzurtiaren adierazpena. Ikusi duzu euren kudeaketak izan dituen huts guztiek ez dutela gutxiagotu euren promesetako ausarkeria. Erka itzazu biltzarraren azken agiri hori eta zuen aferen egungo egoera, talde horren lehen konpromisoekin; konpromiso horiek –ez zutenez aski aditzera ematearekin– zin egin zituzten solemneki; indarrez zin eginenez, haiei laguntzen bazitzaien, herrialdea loriatsu eta zoriontsu egingo zutela; eta juzga ezazu halako gauzak idatz ditzaketenak, edo horiek irakurtzeko gai direnak, *eurak* ere ezar daitezkeen pentsamendu edo ekintza ibilbide zentzudun batean.

Herriari orokorrean dagokionez, ardi miserable horiek artaldea hautsi ostean, eta aske direnean, ez mugetatik, baizik eta mendekotasun legítimo baten eta autoritate naturalaren printzipioen babes naturaletik, engainatzaileen harrapakin natural bilakatzen dira. Iruzurtien zurikeria dastatu dutenean, ezin dute gehiago arrazoimena jasan, euren zentsura edo purrustada baino ez baitzaie iruditzen. Lazeria gorriak gizateriaren ezein zatiri ez dio oraindaino irakatsi eta munduak dirauen artean ez dio irakatsiko zentzuzko leziorik. Gizakiak berdin daude itsuturik miseria latza dela-eta zein sekulako oparotasuna dela eta. Halabeharrezko egoerek halabeharrezko kontseiluak eta halabeharrezko neurriak eragiten dituzte. Frantziako jendeari, ia orokorki, irakatsi zaio ordenatik, urritasunetik eta lan jardunetik ez datozen baliabideetara jotzea. Normalean armatuta doaz; eta asko espero ohi dute armen erabileratik. «*Nihil non arrogant armis*». Hortaz aparte, gizartearen ordena atzerakoiak badu zerbait gizateriaren joerei losintxaria zaiena. Abenturazaleen, jokalaria porrokatuen, ijitoen, eskaleen eta lapurren bizitza atsegina da. Neurria eta zentzutasuna behar dira gizakia ohitura horietan eror ez dadin. Beldurraren eta esperantzaren, ihesaren eta bilaketaren, arriskuaren eta salbazioaren korrante aldakorrak, basatiaren eta lapurraren gose eta tripakadak, denbora baten ostean, lanbide geldo, jarraitu, pixkanakako, aldagaitz orok zein lan jardun luze baten ostean kaskarkeria ertaineko saria espero izateak

azken muturreraino egiten ditu txepel, ilaun eta zaporegabeak. Bote-  
reak intoxikatu dituen horiek, eta hartatik edonolako ordain-saririk  
jasotakoek –urte betean soilik bada ere–, ez dute inoiz gogo onez utzi-  
ko. Larri egon daitezke botere osoa daukaten artean, baina lasaitzeko  
ez dute bilatuko boterea ez den beste zerbait. Noiz behartu du larrita-  
sunak printze bat bere autoritatetik abdikatzeraz? Eta zer efektu izanen  
du printzeen herria dela pentsarazia den jendearen artean?

Maila behereneko jende aktibo eta gogotsuenari arpilatzearen  
banaketa eta gobernua ematen zaizkiolarik, euren baliabideak erabili-  
ko dituzte udalerrri bakoitzean kide talde bat osatzeko. Agintari horiek  
eta euren kideek indar nahikoa izanen dute menperatzeko banaketa  
horretatik kanpo geratzeagatik kontent ez direnak. Iruzurrezko arpila-  
tze loteria horretan zoritxarreko abenturazaleak ziurrenik zolitasun  
gutxienekoak izanen dira, edo banda horretako motelenak eta zalan-  
tzatzenak. Atsekabeturik, mugitzea otuko balitzaie, euren anaia erre-  
boltariak bizkor suntsituko lituzkete mutinatu eta erreboltari bailiran.  
Tarte batez arpilatzearen hondakinekin eskaski elikatuak apurka-apur-  
ka erortzen joango dira; begi bistatik eta oroimenetik ezabatuak iza-  
nen dira: eta ilunean iraungiko dira, arratoiak bezala, zulo eta bazte-  
rretan.

Matxinatu baliabideen eta lapur sakabanatuen damu bortxatu-  
tik ez espero baliabiderik. Gobernua bera, ohoin horietariko ausart eta  
trebeenei muga jarri beharko liekeen hori, haien konplize da. Bere  
armak, bere altxorak, bere den-dena haien eskuetan da. Epailegoa,  
ezerk baino gehiago ikaratu beharko lituzkeen hori, haien sorkari eta  
instrumentua da. Iruditzen zait ez duela ezerk zuen barne egoera latza-  
goa egiten, zuen epailegoaren egoeraren zirkunstantzia horrek lain. Ez  
dira egun asko igaro zuen agintariak giza talde bat aurkeztu zutenetik  
eginkizun kritikoena betetzeko. Zeuen agintariak giza talde bat aur-  
keztu zuten, lurruna zeriena lan jardun gogorraren izerditik, guztiak  
ere beltz, konfiskazioaren eta lapurretaren forjako ke eta kedarra dela  
eta, «*ardentis massae fuligine lippos*»; aurkezturiko giza talde hori,  
frogaren –defentsarako eta erasorako– arma kolpatzaileen trukaketa  
trebaturikoa, etxe-lapur, eraile, traidore eta gaizkileen ekintzen lagun-  
tza eta babeserako; giza talde bat, kideek adimenak trebatuak dituzte-  
nak euren teoriak euren praktikara egokitzeko, aurretik ere jabego eta  
usukapioaz trufatzen zirenak, eta jurisprudentziaren funtsezko maxi-

ma guztiei men egin ez zietenak. Nazio honetako alderdi zintzoaren ikara eta harridurarako, eta baita lekuko diren nazio guztienarentzat ere, ikusi dugu, praktika eta printzipio horien izenean, eta horien ondorioak hobeto egikaritzeko, pertsona beroriek lehenago erresuma zen hiriburuko justiziaren aulki sakratuan eseriak izan direla. Ikusten dugu etorkizunean suntsituak izanen zaretela formaltasun eta erregulartasun handiagoarekin. Hori ez da bakea; euren areriotasunean nola-baiteko diziiplina ezartzea da. Euren tirania osotu egiten da euren justizian; eta euren urkak ez du eragiten euren epaitegiak eragiten duen beldurraren erdia.

Batek pentsa dezake, begirune komuna dela medio, biltzarrean aurkeztuko zituztela pertsona batzuk ez zirenak ohituak legea eta justizia zapaltzera; epaile moduan jarriko zituztela pertsona neutralak, edo behintzat neutral itxurakoak, zeuen biziak eta aberastasunez erabaki behar baitute.

Cromwellek, bere boterea legeztatu, eta konkistaturiko herrialdea ordena egoera batean ezarri nahi izan zuenean, ez zuen bere usurpaziorako instrumentu bezala justizia emaitzengana jo. Alderantziz. Hautaketa eta arreta handiz bilatu zituen –eta baita bere asmoetatik urrutien zegoen alderditik ere– pertsona baliotsuak eta adeitsuak, garaiko biolentziarekin zikinduak ez ziren pertsonak, eta konfiskazioarekin eta sakrifizioarekin zerikusirik ez zutenak: *Hale* hautatu zuen justizia nagusi moduan, nahiz eta hark zin zibila egiteari edo gobernuaren legezkotasuna onartzeari uko egin. Cromwellek legegizon handi horri esan zion, haren titulua onartzen ez zuenez, eskatzen zion bakarra zela –epailearen sentimendu puruen eta izaera orbangabearen arabera– litekeen moduan– administra zezala gizarteak bizitzeko beharrezko duen justizia hori: ez zela bere gobernu partikularra, ordena zibila baizik, epaile bezala laguntzea nahi zuena. Cromwellek bazekien nola bereizi bere usurpaziorako egokiak ziren erakundeak eta bere herrialdeko justizia publikoaren administrazioa. Cromwell gizon bat baitzen anbizioak ez zizkiona guztiz hondatu, soilik aldi baterako indargabetu, erlijio sentimenduak eta izen on eta ohoragarri batekiko maitasuna (bere egitasmoeekin bat egiten zuten heinean). Hortaz, hari zor diogu gure legeen mantentzea, eskubideen zapaltzaile zentzugabe batzuek –eskubideok feudaltasunaren eta basakeriaren aztarna balira bezala– suntsitzeaz ziren horiena. Bestalde, pertsona

haren hautaketarekin, bere garaia eta etorkizunekoei etsenplu bikaina eman zien nola pietate zintzo eta bero batek eskatzen duen justizia eta jurisprudentzia sakon bat<sup>2</sup>. Baina zeuen usurpatzaile filosofi-koek ez zioten Cromwelli horretan jarraitu.

Batek pentsa dezake, iraultza zintzo eta beharrezko baten ondoren, zeuen nagusiek (usteko balute sikiera haiena halakotzat jo litekeela) halako iraultza loriatsuetan buruzagi izan direnen politika bertutetsua imitatuko zutela. Burnett-ek dioenez, ez zuen ezerk horrenbeste lagundu ingeles nazioa William erregerekin berradiskidetzeko orduan errege horrek gotzain postu hutsak bete zitzaizuten hautaturiko gizonak baino, publikoaren estimua jaso baitzuten euren heziketa, elokuentzia, pietatea eta, batez ere, estatuan erakutsia zuten moderazioa dela eta. Zeuek aldiz, zeuen iraultza purifikatzaile horretan, nor aukeratu duzue Eliza erregulatzeko? Mirabeau jauna hizlari ona da, eta idazle ona, eta gizon oso-oso ona; baina hemen ez gintuen ezerk gehiago harritu hura eliza aferetako buru goren bezala ikustea baino. Gainontzekoa gauza jakina da. Zeuen biltzarrak manifestu bat azaltzen dio Frantziari, herriari ironia iraintzaile batekin esanez Eliza bere antzinako egoerara itzuli dutela. Gai batean haien adierazpena erabat egiazkoa da; txirotasun eta jazarpen egoera batean ezarri baitute. Zer espero daiteke honetatik? Ez al dute pertsona horiek (*pertsona* izena merezi badute), xede berri horrekin eta Elizaren buru direlarik, apezpiku kargua jaso atoen instrumentu izatearen beste meriturik gabe, haurren ogia zakurrei botatzea baino beste meriturik gabe? Eta kale bazterretan diren lukurari, txerpolari eta judu mailegu-emaile ibiltarien banda hori betekadaz asebetetzeko, ez al dituzte euren artalde kristau gaixoak, baita euren anaia artzainak ere, gosez hiltzen utzi? Ez al dituzte pertsona horiek gotzain egin, administra ditzaten tenplu batzuk, bertan (aberriarentzako dohaintzek ez badituzte jada tenpluok murkoez gabetu) elizako lagunkideek kontu hartu behar dute aldareko ontziteriaz, eta ezin dute haien esku sakrilegoetan kaliza utzi, juduek *assignatak* baitituzte elizen arpilatzean oinarritzen direnak, elizetatik ebatsitako zilarra trukean emango zaielarik?

Esan didatenez, artekari judu horien semeak berak gotzain egin dituzte, inolako superstizio *kristaua* izatetik susmagarri ez diren pertsonak, Autun-en prelatu sakraturako kide duinak, Gamaliel-en oinetan hazirikoak. Badakigu nork bota zituen tenplutik diru-trukatzaile-

ak. Ikusten dugu, halaber, nork ekarri dituen bueltan. Londresen badi-tugu nazio juduko oso pertsona errespetagarriak, mantenduko ditugu-nak, baina tribu berekoak baditugu ere beste izaera oso diferentekoak, etxe-lapurrak eta ebatsitako gaien jasotzaileak, diru faltsifikatzaileak, urka genitzakeenak baino gehiago. Frantziari presta diezazkiokegu, apezpikutza tronu berriak bete ditzaten: zin egiten ongi trebatuak diren pertsonak, eskrupulurik ez dutenak izanen zuen erreformatzai-leen jeinu oparoak asma dezakeen edozein juramentutarako.

Hain irrigarriak diren gaietan, zaila egiten da serio mantentzea. Ondorioak zeintzuk diren ikusita, ez da gizatasunezkoa gaiok arinke-riaz hartzea. Nolako soraiotasun egoera basati, ergel eta morroi bate-ra beheratu da zuen jendea, Elizan eta epailegoan halako jarduerak pairatzeko, une batez bada ere! Baina Frantziako jende engainatuak ero horiek bezalakoak dira, mirariz-edo, jasaten dutenak gosea, eta egarria, eta hotza, eta konfinamendua, eta zaindariaren kateak eta azo-tea, aldi berean imajinazioarekin eusten diotelarik, pentsatuz gudaros-teen jeneral, profeta, errege eta enperadore direla. Baina ezinezkoa iruditzen zait pentsamendu aldaketa bat pertsona horiengan, kontside-ratzen dutenengan doilorkeria ohore, degradazioa promozio, tirano baxuenganako esklabotasuna askatasun, eta euren nagusi goranahien eguneroko iseka eta irainak errespetu eta gorazarre zeinu. Ero horiek, sendatuak izan daitezen, lehenik, gainontzeko eroekin gertatzen den moduan, menperatuak izan behar dira. Erkidegoaren alderdi zentzu-duna –iruditzen zait handia izan beharko dela, baina inolaz ere han-diena– ustekabeen harrapatu dute, eta barreiatuta, kikilduta eta arma-rik gabe dago. Lehenik, erkidegoaren alderdi hori egoera hobean eza-rrri behar da, deliberazio edo konbentzitze arloan zerbait egiteko gai izanen bada. Botere ekintza bat izan beharko da, baita botere zuhurta-sunezkoa ere, abertzale gogor eta ausartek egina, tronpatuak eta traido-reak bereizi, eta gizatasunezko bihozberatasun zuhur eta hezi batekin estatua erregulatuko dutelarik (zorionekoak balira); sistemen beteka-daz eta indigestioaz purgatuak diren pertsonak, noizbait halako egin-kizunak euren ohitura balira; benetako erreforma baten oinarriak eza-rriko dituzten pertsonak, moralitatearen «*terra australis*»-ean aurki-kuntzak egin omen dituztenen filosofia horren aztarna oro ezabatuko dutenak; tinko eutsiko diotenak gure jabetza zahar, aspaldiko eta –espero dut– eternal diren moralaren eta politikaren oinarri horiei.



Halako botere bat, pertsona horientzat, *kanpotik* etorri beharko da. Gupidaz emana izan daiteke; argi dago beste ezein naziok ez due-la hain patetikoki eragin auzokide guztien urrikalmendua. Auzokide horiek eman dezakete, eurei ere segurtasuna dakarkien artean. Ez dut uste Europako herrialde bat ere seguru denik, erdian ezartzen denean estatu bat (hala dei badakioke) anarkiaren printzipioetan oinarritua, eta benetan, fanatiko armatuen unibertsitatea dena, erailketaren, lapurretaren, erreboltaren, iruzurraren, liskarraren, zapalkuntzaren eta bihozgabetasunaren printzipioak hedatzea xede duena. *Mahomak*, garai batean Arabiako hondarren muinean ezkutatua zegoelarik, erakutsi izan balu bere espiritua eta izaera, adimen zuhurrentzat kontu hartzeko objektu bilakatu izanen litzateke. Zer gertatu izanen litzateke kristau erlijioa suntsitzeko bere estandarte fanatikoa «*luce Asiae*»-en, orduan mundu zibilizatua zen eguerdiko argian, altxatu izan balu? Europako printzeek ongi egin zuten, mende honen hasieran, ongi egin zuten Frantziako monarkia ez toleratzen, gainontzekoak irentsi baitzitzakeen. Orain ez dute toleratu behar anarkia kontaminatu horrek irenstea monarkia eta erkidego guztiak. Oraingoz nahiko seguru daude, Frantziaren indarra konparatiboki nahiko txikia baita. Baina garaiek eta aukerek arriskua dakarte. Beste herrialde batzuetan barne arazoak sor daitezke. Bada botere bat beti zelatari izanen dena, arrakasta izan dezakeen bakoitzean, aukera oroz profitatzeko prest eta gertu dena, bere gaiztakeria printzipioak eta moduak ezartzeko. Zer bihozberatasun izanen lukete usurpatzaile horiek beste subirano batzuekin, edo beste nazio batzuekin, euren erregea halako gizatxarkeria paralelorik gabekoarekin tratatu, eta euren herria hain krudelki zapaltzen dutenean?

Prusiako erregeak, gure laguntzarekin, nobleki parte hartu zuen Holanda nahasmendutik salbatzeko. Botere berak, sorotsiriko Holandarekin eta Britainia Handiarekin batera, enperadorea ezarri du Herbeheretako agintari; eta, printze horrekin, segurtatu du –berriketa arbitrario orotatik salbu– probintzia horien antzinako, jaraunspenezko, egitura. Wetzlar-en ganberak Liege-eko Gotzaingoa berrezarri du, bidegabeki kendu baitzuen mendekoen errebolta batek. Prusiako erregea ez zuen lotzen tratatu batek, odolezko aliantza batek. Hark ez zuen ezta ere arrazoi partikularrik pentsatzeko enperadorearen gobernua turkoena baino gaiztoagoa edo giza naturarentzat zapaltzaileagoa

zenik; hala ere, politika arrazoiak direla medio printze hori bere indar guztiekin saiatu da turkoak ere arrano inperialaren hatzaparretatik ateratzen. Nazio basati baten alde egiten den gauza bada; ordena publikoa zeharo abandonatzen duen, gizateriarentzat kaltegarri den, izen kristauarekin areriotasunean den nazio baten mesedetan egiten bada; gutako inori bake agurra (Salam) esango ez dion nazio batekin; nazio kristauekin inolako pakturik –ez bada su-etena– egingo ez duenarekin; hori guztia turkoekin egiten bada; inpolitikoa, edo bidegabea, edo bihozgabea, izanen al da botere bera erabiltzea gatibutasunetik ateratzeko errege bertutetsu bat (Europaren kortesiaz kristauena kontsideratzen dena), ehun eta hirurogeita hamabost urteko tartearen ostean, bere herrialdeko erresumak deitu zituen abusua erreformatzera, gobernu aske bat eratuz, eta bere tronua indartzera; monarka bat, hasieratik ere, ez indarrez behartuta, ezta eskatuta ere, bere herriari eman ziona pribilegioen Magna Charta bat errege batek inoiz eman ez zuena? Otzanki jasan behar al dute euren menpekoak maite dituzten erregeek, edo erregeak maite dituzten menpekoek, monarka hori –eginiko ekintza horiek gorabehera– traidore eta asasino banda batek bere jauregitik ozarki eta krudelki aterea izatea eta une honexera arte kartzelan gordea izatea, haren izen erregetiarra eta izaera sakratua erabiliak direlarik legearen aginduz hark babestu behar dituen horien kalterako?

Zorigaiztoko monarka honek bere herriari eginiko hoben bakarra izan zen monarkiapean haiei egitura aske bat eskaintzea. Horregatik, munduan orain arte entzun ez den etsenplua emanez, kargutik bota zuten. Subiranoei kalte egin liezaieke bota duten tirano bati laguntzea. Harenganako elkartasun biziotsua izanen litzateke. Baina traidore eta erreboltariak –proskribatu, arpilatu, konfiskatu, eta hirikideak modu guztietan krudelki zapaltzen dituztenek– bota duten printze zuzen batekin kausa amankomuna ez egitea, nire ustez ahaztea da zer zor zaion ohoreari eta gobernu bertutetsu eta legezko baten eskubideei.

Iruditzen zait Frantziako erregeak merezi duela politika baten eta urrikalmenduaren objektu izatea, Grand Seigneur-ek eta bere estatuek beste. Ezin dut ulertu Frantziaren hondamen osoa (hori posible balitz) Europarentzat gauza desiragarria izatea; ezta haren arerioa den nazio batentzat ere. Abertzale zuhurrek ez zuten kontsideratu Erromarentzat ona izatea Kartagoren suntsipena. Greziar zuhurra zen

–zuhurra, greziarren interes amankomunentzat–, baita arerio lazedemoniar ausarta eta konkistatzaile eskuzabala ere, ez zuena nahi izan, Atenasen suntsitzearekin, Greziari begietako bat kentzea.

Hala ere, jauna, printze atzeritarren interferentziari buruz esan dudana iritzi pertsonala da; ez da adierazgarri ezein estaturena, ezta alderdi jakin batena ere; gizateriarentzat garrantzitsua den krisi baten aurrean askatasunez eta energiaz bere sentimenduak adierazteko beharra daukala sentitzen duen norbaitena baizik.

Ni ez naiz beldur, Frantziako errege-erreginen gainean askatasunez mintzatuz (zu beldur zaren moduan), haien aurka dauden asmo traidoreak burutzea bizkortuko dudarik. Zure ustez, jauna, usurpatzaileek edozein aitzakia har dezakete pozik, eta hartuko dute, errege baten izen ona zapuzteko: ez diot gaitzik opa zure erregeari, baina hobe beretzat ez bizitzea (agindu, ez du agintzen) tiraniaren eta usurpazioaren instrumentu bezala pasiboki bizi behar badu.

Egiazki saiatzan ari naiz erakusten, ahal dudan hobekien, hala-ko funtzionario exekutibo baten existentzia, haiena bezalako errepublika sistema batean, zeharo absurdoa dela. Baina hori frogatzerakoan –*haiei*, behintzat– ez naiz ari aurkikuntzarik egiten. Erregearen izena erabili dute soilik izen hori oraindik beneragarria zaien horiek harra-patzeko. Sentimendu horren iraupena kalkulatzan dute, eta bukatzeaz dela ikusten dutenean, ez dira arduratuko aitzakiarik bilatzen geratzen dena suntsitzeko, eta berdin gauza fisikoarekin. Erabili zuten zilborreste moduan euren haur ez naturalak erregetasunaren erraietatik elikatzeke. Orain munstroak bere kabuz egin dezakeenez aurrera, marka eramango du soilik, sorleku zuen umetokia suntsitu duelako ikur bezala. Tiranoek oso gutxitan behar dituzte aitzakiak. Iruzurra bidegabekeriaren ministro prestua da; eta antzezpen faltsuaren eta arrazonomendu sofistikoaren moneta euren egitasmoetarako beharrezko zen artean, ez zuten beharrezko nigana jotzea txanpon hori eskaini ez zaien. Baina aitzakiak eta sofismak agortu dira, eta euren lana egin dute. Usurpazioak ez du jada egiantzekotasunik behar. Nahikoa du boterearekin.

Nik esango dudan ezerk, edo zuk esango duzunik, ez ditu azkartuko, ezta ordubete ere, aspalditik pentsatua duten egitasmo baten burutzean. Euren adierazpen solemneak, euren diskurtso lasai-garriak, eta egin zein eginarazi dituzten zin zenbatezinak gorabehera,

erregea erailko dute haren izena jada euren interesei beharrezko ez zaienean; baina ez instante bat lehenago. Ziurrenik lehenik erregina erailko dute, halako erailketa baten mehatxu errepikatuak senar txeratsuairengan indarra galtzen duenean. Une honetan, haren biziarekin egiten dituzten eguneroko mehatxuak dira hark bizirik mantentzeko duen segurtasun bakarra. Euren subiranoa bizirik mantentzen dute, erakusteko helburuarekin soilik, feria baten erakusten den basapiztia bezala, kaiola batean Beyazid edukiko balute legez. Monarkia nardagarri egitea aukeratu zuten, erregerik onberena irragarri erakutsiz.

Ene ustez, euren ozarkeria euren krimenak baino gorrotagarriagoa da. Urriaren 4 eta 5eko izugarrikeriak ez dira uztailaren 14ko ospatzea bezain nardagarriagoak. Badira egoera batzuk (Jainkoak debeka bekita urriaren 5 eta 6koak egoera horien tartean direla kontsideratzea) gizakirik onenak gaiztoenekin konfunditzea eragin dezaketenak, eta iluntasun eta nahasmenduan, halako muturren pilaketa eta nahasturan, zaila egiten da bata bestetik bereiztea. Behin beharrak sortuta, intentzio txarrarekin den arren, desenkusa dakarte. Batzuek ahantz ditzakete, errudunek haien oroitzapena ez mantentzea erabakitzen dutenean, baina eginiko hobenen inguruan hausnartuz, eginikoe-tatik etsenplu hartzen dute, etorkizunean krimen berriak egiteko. Segurtasuna lasaitzen denean, oparotasuna hedatzen denean, bihotzak atseden hartzean eta bide ematen dionean ospatzeari eta plazerari, orduan ikusten da pertsona baten benetako izaera. Harengan onik badago, orduan agertuko da, edo inoiz ere. Baita otso eta tigreak ere, euren harrapakinez asebeteta, arriskugabeak eta otzanak dira. Halako uneetan askatzen dute adimen nobleek euren natura ona. Euren jeinua erabiltzen ahal dute neurrigabekeriarako, atsekabetuekin maitekor izateko, konkistatuekin eskuzabal; irainak saihesten eta kalteak barkatzen dituzte eta irabazitakoagatik gainetik ordaintzen dute. Duintasunez mukuru, guztien duintasuna errespetatzen dute, baina zorigaitzoko direnengan sakratu kontsideratzen dute. Orduan da, merezi ez den eguzki izpiaren zoriona gozatzean, arima behe, zikoitz, zeken eta narrasak puztu egiten direla metaturiko pozoiarekin; orduan erakusten dute haien distira higuingarria, eta dizdiz egiten du haien bilautasun eta maltzurkeriak distira osoz. Garai horretan ezin da ohore zentzua duen ezein pertsona haietako batekin nahastu. Halako garai batean, haientzat lasaitasun eta segurtasun politikokoa denean, nahiz eta euren

jendea gosetetik irten berria den, eta lazereiaren zein eskekotasunaren putzuan murgiltzeko prest direlarik, orduan, zuen jaun filosofikoek aukeratu zuten, luxu eta handitasun nabarmenarekin, asebetetzea jende kaskarin eta nagi kopuru harrigarria, munduko leku guztietarik artez eta nekez jasoa. Anfiteatro zabala eraiki zuten, bertan pikota moduko bat altxatuz<sup>3</sup>. Pikota horretan ezartzen dituzte euren errege eta erregina legitimoak, horien buruan figura iraingarri bat jarrita. Han agertzen dituzte jende on guztiarentzat erruki eta errespetuzko diren objektu horiek jendetza kaskarin eta printzipiorik gabeko batek irri egin dezan, jendailaren sentimendu irregular eta gutiziatsuan ohiokoa den samurtasun aldakor hori eragingo ez duelarik. Haien irain krudelak ez zezan zerbait bukatugabea izan osatua izateko, euren printzearen bizia arriskurik latzenez eta gizatzarkeriarik bilauenez jarri zuten eguna aukeratu zuten urteurrentzat; hau da, justu une hori baino lehen, aitortu gabe kontraturiko asasinok euren erregearen aurka armak altxatu, zaindariak usteldu, gazteluari eraso, goarnizioko zenbait soldadu gizagaixo akabatu, gobernaria erail, eta, piztia basatiek lege, hiriburuko magistratu nagusia –bere eginkizunarekin izaniko fideltasuna dela eta– txikitu egin zuten.

Munduan justizia esnatzen ez den artean, halako gauzek aurre-irra egingo dute, kritikarik gabe, eta probokaziorik gabe, muturreraino. Uztailaren 14ko erakustaldia egin dutenak edozein gaitz egiteko gai dira. Ez dituzte gaitzak egin egitasmoak betez; egitasmoak eratzen dituzte krimenak egin ahal izateko. Haietara eramaten dituenak ez da daukaten beharra, pertsona horien natura bera baizik. Filosofo modernoak dira; haiek aipatzen dituzunean esan nahiko duzu prestueza, basatia eta bihotz gogorrekoa den oro.

Egin dituzten antolakuntzetako espiritutik ikusten diren zeinu seguru horietatik aparte, badira ezaugarri jakin batzuk zeuen despotismo iskanbilatsu horren politika orokorrean, ene ustez, erakusten dutenak, zalantzarik gabe, ezin dela espero aldaketarik haien jokabidean. Aipatzen ditut, hazten ari den belaunaldia hezteko duten eskema, irakatsi nahi dituzten printzipioak, eta sentikorrena den garaian adimeneztan eratu nahi dituzten sinpatiak. Haien adimen gazteak formatu ordez gaitetasunaren grazia eta xarma diren esanekotasun eta umiltasunean, etsenplu ospetsuen miresmen horretan, harrotasunari, handiusteari eta norbera puzteari (bizitzako garai horretan desegokitasun haietarako

joera argia dago) hurbiltzen zaion ezerk nazkatzea eragin ordez, artifizialki sustatzen dituzte joera oker horiek, eta jarduerarako sorburu ere bilakatzen dituzte. Ezer ez litzateke gehiago aztertuagoa izan beharko autoritate publikoak gomendaturiko liburuak baino. Hala gomendatuak badira, adin bateko izaera ezartzen dute azkar. Erakunde bertutesu batean segurtasunik gabea da, izan ere, eraginkortasuna; mugatua da, izan ere, irismena. Baina hezkuntzak –bere sistemaren atalen batean bizioak hartzen badu– zalantzarik gabe energia handiaz eragingo du, eta mugarik gabe zabalduko da. Magistratuak, askatasunaren ize-nean publikazio mota oro pairatzera behartua ikusiko duelarik bere burua, zer nolako idazleak baimendu behar dituen erabakitzeko orduan ondo pentsatzeko betekizun gogorra du, eta berrespenik indartsuenarekin gomendatuko du, hau da, ohore eta sari publikoen bidez. Kontu handia hartu beharko du nola gomendatzen dituen moralitate anbiguo edo nahasiko autoreak. Norbere izaeraren ezaugarriekin bar-kaberak diren idazleak gazteen eskuetan ezartzeko beldur izan beharko luke, ez daitezen irakatsi irakaslearen umoreak, zientziaren printzipioen ordez. Beste ororen gainetik, kontu hartu behako luke ez gomendatzeko ulermen ero baten ezaugarriak agertzen dituen idazlerik; arrazoiaren osasuntsurik ez dagoenean ezin baita benetako bertuterik egon, eta erotasuna beti da biziotsua eta kaltegarria.

Biltzarrak horrekiko arras aurkakoak diren maximak darabil-tza. Biltzarrak moralitatean esperimentatzaile ausartien ikasketa gomendatzen die. Mundu guztiak daki eztabaida handia dela haien buruzagien artean, Rousseau delarik adibide aipagarriena. Egia esan, denek daukate haren antza. Haren odolaren transfusio egiten dute adi-men eta jokamoduetan. Hura ikasten dute; hari buruz hausnartzen dute; harengana jotzen dute eguneroko beharretatik –edo gaueko orgietatik– alden daitezkeen bakoitzean. Rousseau da euren kanona idazketa sakraturako; euren bizitzan hura da *Polycletus* kanona; hura da euren perfekzio estandarra. Gizon eta idazle horri, autore eta fran-tses eredu lege, Pariseko fundizioak estatuak egiten ari zaizkio, txi-roen kazolekin eta elizako kanpaiekin. Autore batek jeinu batek beza-la idatzi izan balu geometriari buruz, nahiz eta bere moral praktiko eta espekulatiboa zeharo biziotsua izan, balirudike, estatua bat eraikiz, behintzat geometra soilik ohoratzen zutela. Baina Rousseau moralista da, edo ez da ezer. Ezinezkoa da, hortaz, zirkunstantziak biltzea,

asmoa nahastea, hartan oinarrituta ikastaro bat gomendatu duten autorearen kasuan.

Daukaten arazorik handiena da bilatzea orain arte giza nahiera eta jarduera arautzeko erabili izan diren printzipio guztientzat ordeztzeko bat. Pentsatzen dute halako indar eta nolakotasun baten barnean badirela eragile batzuk, euren lako estatu batentzat, pertsonen egokitzeko zaizkienak moralitate zaharra baino askoz ere hobeto, eta euren boterea sostengatzeko eta arerioak suntsitzeko askoz ere eraginkorragoak izanen direnak. Hortaz bizio berekoi, balakari, erakargarri, arranditsu bat aukeratu dute, betebeharraren soilaren lekuan. Egiazki, sistema kristauaren oinarria, umiltasuna, benetako bertute ororen oinarri behearenkoa –baina sakona eta tinkoa– da. Baina berau, praktikan oso mingarria eta itxuraz gutxi inposatzen duena denez, alde batera utzi dute. Haien xedea sentimendu natural eta sozial oro banitate desordenatu batean biltzea da. Maila txikian, eta gauza txikiei dagokienean, banitateak ez du eragin handirik. Hazten denean, biziorik kaltegarriena da, eta batzuetan bizio guztion imitatzailerik ere. Gizakia osoki faltsu egiten du. Hartan ez du ezer zintzorik edo sinesgarrikerik lagatzen. Haren nolakotasunik onenak pozoitzen eta usteltzen ditu, eta okerrekin bezala jardunarazten. Zuen jaunek bazeuzkatenean idazle piloa estatuaren irudia osatzeko (Voltaire eta beste batzuk kasu), Rousseau hautatu zuten, ezen harengan bizio konkretu hori, haiek bertute agintari egin nahi zutena, harengan agerienez baitzen.

Ingalaterran izan dugu *banitatearen filosofiaren* irakasle eta sortzaile handi hori. Ia egunetik egunera bere jarduera ezagutzeko aukera ona izan nuenez, nigan argi geratu zen soilik printzipio bakar batek mugitzen zuela bere bihotza eta gidatzen bere ulermenak, *banitateak* hain zuzen. Bizio horrekin erotasunetik gertu zegoen egoera batera iritsia zen. Banitate ero eta eszentriko horrek bultzatu zuen Biltsar Nazionalen *Sokrates* zoro hori bere huts eroen konfesio bat egitera, eta loria mota berri bat lortzen saiatzera; argira ekarri zituen bizio ilun eta arruntak, eta horiek badakigu batzuetan goi-mailako talentuekin nahastuta datozela. Ez du banitatearen natura behatu, ez dakienak hura orojalea dela; ez duela aukerarik hartzen jateko orduan; laketa duela baita bere akats eta bizioez mintzatzea ere, lilura eta arreata eragiten dituen artean, kasurik okerrenean irekitasun eta lañotasun bezala agertzen baita.

Abusu eta okertze hori da, banitateak hipokresiarekin berarekin egiten duena, bultzatu duena Rousseau bizitza bat izatera, ez daukana gorabeherarik, ezta han edo hemen ere trazaren bat, bertuteak izateari edo ekintza on bakar bat egiteari dagokionez. Halakoa da gizateriari erakutsi nahi dion bizitza. Halakoa da, erronka basati bat legez, jaurtitzen diona bere Sortzaileari, ausartzat berau soilik daukalarik. Zure biltzarrak, badakielarik zenbat indartsuago den etsenplua araua baino, gizon hori aukeratu du (berak aitortzen duenez bertute bakar bat gabe) eredutzat. Hari eraiki diote lehen estatua. Harengandik hasten dira euren ohore eta sari sailak.

Bertute berri hori da –zeuen jaunek kanonizatzen duten– haien moralaren heroia behin eta berriro eraman zuena ongura uni-bertsalaren adierazpenerako bere erretolika boteretsuaren erreserba husterak; bere bihotza ezgai denean guraso maitasun izpi bakar baterako ere. Ongura espezie osoarenganako, eta irakasleak harekin harremana duen gizabanako bakoitzarenganako sentimendurik eza, hori da filosofia berriaren izaera osatzen duena. Independentzia asozial batean murgilduta, banitatearen euren heroi honek lan jardun arruntaren prezio bidezkoa ukatzen du, baita jeinuari oparotasunak zor dion saria ere, ordaintzerakoan, emaila eta jasotzailea ohoratzen dituen sari hori; eta bere eskekotasuna bere krimenentzat aitzakia bezala erabiltzen du. Goxotasunarekin urtzen da harekin harremanik urrutikoena dutenekin, eta, gero, batere minik gabe, hondakinak eta gorotz balira bezala, bere maitasun nazkagarrien errunaldia botatzen du, eta bere haurrak inklusa batera bidaltzen ditu. Hartz batek bere kumeak maitatzen, miazkatzen eta hezten ditu; baina hartzak ez dira filosofoak. Banitatea, aitzitik, eratzen da sentimendu naturalen ordena irauliz. Milaka pertsonak miresten dute idazle sentimental hori; aita txeratsua ia ez dute bere parrokian ezagutzen.

*Banitatearen etikan* hezitzaile filosofiko den pertsona honetan oinarrituta, Frantziar gizakiaren izaera morala berritzen saiatu dira. Estatu-gizonak, zeuek egun agintzen zaituztenak bezalakoak, existitzen dira faltsua, fikziozkoa eta gezurrezkoa den oro dela eta; pertsona bere etxetik hartu, eta oholtza batean ezartzen da –izaki artifiziala bihurtzen da, sentimendu makillatu eta antzerki-jitekoekin, kandela baten argiarekin ikusgarri egiteko modukoa, eta distantzia egokian behatua izateko modukoa–. Banitatea gudan guztiongan ezar daiteke



erraz, eta herrialde guztietan. Frantsesen hobekuntzarako ez dirudi beharrezkoa banitatea sistematikoki irakatsia izatea. Baina gauza argia da egungo errebolta haren errunaldia dela, eta errebolta horrek gupidatsu egunero elikatzen duela eguneroko subsidio baten bidez.

Biltzarrak gomendatzen duen hezkuntza sistema faltua eta antzerki-jitekoa bada, gobernu sistema izaera berekoa delako da. Hari, eta soilik hari, egokitzen zaio. Biak ere ulertzeko, legegileen politikarekin konektatu behar dugu moralak. Zeuen filosofo praktikokoak, sistematikoak gauza guztietan, zuhurki hasi dira iturburuarekin. Gurasoen eta haurren arteko harremana lehena denez moralitate arrunt eta natural batean<sup>4</sup>, estatuak altxatzen dizkiote aita basati, anker, ergel, bihotz-gogorrari, sentimendu orokor onekoari: bere kideen maitatzailea, bere sendikoen gorrotatzailea. Zeuen agintariak alde batera uzten dituzte haren harreman arruntak; askatasunaren aurkakoak bailiran; kontratu sozialean oinarrituko ez balira bezala; eta gizakien eskubideen arabera lotesle ez balira bezala; harreman hori ez baita, izan ere, *aukera librearen* ondorio; inoiz ere ez haurren kasuan, ez beti gurasoenean.

Rousseauri eskainiriko estatuekin lehenera ekartzen duten hurrengo erlazioa, aitarenaren hurrengo da santutasunean. Pentsalari zahartu horiengandik bereizten dira, pedagogoak pertsonaia single, maitagarriak eta gurasoen laguntzaile kontsideratzen baitzituzten horiek. Garai ilunetako moralistek, «*preceptorem sancti voluere parentis esse loco*», argien garai honetan, jendeari irakasten diote tutoreek galaien lekuan egon beharko luketela. Sistematikoki usteltzen dute arraza oso ustelkorra (garai batez, zuentzat, gogaikarritasunean handitzen doan zerbait); literato irtirin, buruiritziak, ezartzen dituzte, eta ez eginkizun egokiak eta zorrozki arrandiarik gabekoak burutzen dituzten pertsonak, baizik eta pertsonaia burutsu eta plazerzale bitxiak, militar xalant gazteak eta komunetan dabilzan gonazaleak. Frantzian hazten ari den belaunaldiari abentura eta fortuna maitale izatea eskatzen zaio, eta saiatzen dira belaunaldi horren sentibilitatea hurbiltzen sendiko konfiantza sakratuenak traditu eta ikasle emakumezkoak biziatzen dituzten pedagogoengana. Jendeari irakasten diote neskutsak –ia oraindik gurasoen eskuetan direnean– korronpitzten dituztenak, haien etxeetan barneko irakasle arriskugabe izan daitezkeela; baita zaindaria ere, legezko edo kontzientziazko lizen-

tziarik gabe, postua aurretik hartu dieten senar horienak, azken hauek modu legezkoan lortu arren.

Hala antolatzen dituzte sendi harreman guztiak, guraso eta haurrenak, senar eta emazteenak. Hezitzaile horren beraren bidez, morala usteltzeko darabilten horren bidez, gustua ere usteltzen dute. Gustua eta dotorezia, moralaren atalik txikienak edo bigarren mailakoak soilik kontsideratzen diren arren, ez dira makalak bizitzaren antolakuntzan. Gustu moralak ez du behartzen bizioa bertute bihurtzera; baina bertutea gomendatzen du plazeraren pizgarri moduko bat bezala; eta bizioaren gaitzak arintzen ditu zeharo. Rousseauk, indar eta bizitasun handiko idazle horrek, gustu gabezia osoa du hitzaren zentzu orotan. Zeuen nagusiei, haren ikasleak diren horiei, iruditzen zaie fintasun orok izaera aristokratikoa duela. Azkeneko garai honek bere botere osoa akitu du gure elkarren arteko apetituei grazia eta nobletasuna ematen, eta bazirudien apetitu horiek merezi zuten klase eta ordena goragoko batera igoarazi dituela. Rousseauaren bitartez, badirudi zeuen nagusiek aurreiritzi aristokratiko horiek suntsitu behar dituztela. Maitasuna deritzan pasioak hain eragin orokorra eta boteretsua dauka, norbaiten izaera moldatzen duen bizitzaren garai horretan hain du eragin handia aisialdian eta jardueran, ezen sinpatia erakarri eta imajinazio kitzikatzen duten maitasunaren modu eta printzipioek gizarte orotako moralaren eta jokabideetan garrantzi handienekoak dira. Zeuen agintariak argi dute hori; eta, euren politikara egokitzearen, zuen jokabideak aldatzeko duten sisteman ez zuten Rousseau baino ezer egokiagorik aurkitu. Haren bitartez filosofoek bezala maitatzen irakasten dute; hau da, pertsonen, frantsesei, galaitasunik gabeko maitasuna irakasten diete; bertuteen artean ez bada ere, bizitzaren ornamentuen artean ezartzen den maitasun hori gabe, gaztetasunaren eta adeitasunaren lore horretatik ezer ez duena. Graziarekin eta jokabideekin naturalki aliatzen den pasio horren ordean, euren gazteen artean pedanteria eta lizunkeria nahastura anker, ilun, mingots, fineziagabe, modatik urrundu bat sorrarazten dute: sentsualtasun baldarrena-ekin nahasturiko espekulazio metafisikoa. Halakoa da euren filosofo famatuarengan, galai limurtze filosofikoari buruzko bere *Nouvelle Éloise* lan ospetsuan, ediren den pasioen moralitatea.

Hezitzaileen galai limurtze horren aurkako hesia hausten denean, eta zuen familiak ez dituenan dezentziazko harrotasun batek eta

etxeko aurreiritzi osasuntsu batek jada babesten, urrats bakarra gera-  
tuko da ustelkeria beldurgarri baterako. Biltzar Nazionaleko aginta-  
riek espero dutena da Frantziako lehen sendietako emakumeak bihur-  
tzea harrapakin erraza dantzari trebeentzat, biolin joleentzat, diseina-  
tzaileentzat, ile-apaintzaileentzat, janzten laguntzen duten *valet de  
chambre*entzat, eta mota horretako beste hainbat hiritarrentzat, horiek  
zeuen etxeetan sarrera dute eta, beraien egoera dela-eta erdi etxekoi-  
tuak daudenez, zeuekin elkar daitezke harreman erregular eta irregu-  
larretan. Lege baten bidez jende hori beste horien maila bereko kide  
egin dituzte. Rousseauren sentimenduak eurenak eginez zeuen arerio  
egin dituzte. Modu horretan legegile handi horiek osatu dute jende  
guztia maila berean jartzeko egitasmoa, eta giza eskubideak oinarri  
tinko batean ezarri dituzte.

Ziur nago Rousseauren idazkiek zuzenean daramatela gaitz  
lotsagarri horretara. Sarritan galdetu diot nire buruari ea nola bilaka-  
tzen den hain miretsia eta jarraitua kontinentean, hemen gertatzen  
denarekin alderatuta. Beharbada bere hizkerak duen xarma sekretu  
batek izan dezake eragina horren diferentzia handian. Argi hautema-  
ten dugu, eta hein batean sentitu ere, idazle honengan estilo distiratsu,  
bizi, kartsu bat; aldi berean iruditzen zaigu traketsa, lausoa, eta idaz-  
teko orduan ez preseski gustu oneneko; bere piezetan atal guztiak  
nahiko berdin landuak eta zehaztuak izaten ohi dira, atalen artean hau-  
taketarik eta menderakuntzarik egin gabe. Normalean gehiegi luza-  
tzen da, eta bere estiloak ez du aldakuntza handirik. Ez diogu bere  
obra bati erreferentziarik egingo, nahiz eta eginiko oharrek lantzean  
behin giza naturari buruzko ikusmen zorrotza agertzen duten. Baina  
bere doktrinak, osotasunean, hain dira aplikaezinak benetako bizitzan  
eta bizimoduetan, ezin baitugu amets ere egin handik ateratzea lege-  
tarako edo jarrerarako araurik edo –bere iritziari erreferentzia eginez–  
ezer indartzeko edo ilustratzeko. Gudan paradoxa zaharragoen patu  
bera daukate,

Cum ventum ‘*ad verum est sensus moresque*’ repugnant, atque  
ipsa utilitas justī prope mater et aequi.

Beharbada espekulazio ausartak onargarriagoak zaizkizue,  
zuenean gurean baino berriagoak baitira, geu luzaroan egon baikara  
haietaz bapo. Guk azken bi aroetan –uste dut orain kontinentean egi-  
ten dena baino orokorrago– jarraitu izan dugu antzinatasuneko auto-  
reak irakurtzen. Horiek okupatzen gaituzte. Horiek ematen digute bes-

te gustu eta molde bat; eta ez gara gu aldi baterako baino egongo moralitate paradoxikoak liluratuta. Ez dut esan nahi idazle horri erabat falta zaizkiola nozio zuzenak. Bere irregulartasunen artean, onartu behar da idazle hori batzuetan morala dela, eta modu sublimeenean morala gainera. Baina bere lanen *espíritu eta joera orokorra* gaiztoa da; eta are gaiztoagoa nahastura hau daukalako: gaiztotasun perfektua ez da ezkongaitza elokuentziarekin; eta adimenak (ustelkorra den arren, ez baita naturaz biziotsua) arbuatuko luke, eta nazkaz alde batera bota, gaiztotasun puru eta nahasturarik gabeko ikasgai bat. Idazle horiek bertute ere egiten dute bizioari amore ematea.

Hala ere, iruditzen zait eragin txikiagoa duela autoreak, bere baliabideetan, biltzarraren sistemak baino. Aitortu behar dut horrek ia desesperantza sortzen didala haien jarraitzaileengana iristeko arrazoi-menaren, ohorearen edo kontzientziaren bidez. Zeuen tiranoen helburua Frantziako jaunak suntsitzea da; eta xede horretarako suntsitzen saiatzen dira –daukaten kemen osoarekin– pertsona garrantzitsuak boteretsu edo seguru egin ditzaketen harremanen efektu osoa. Ordena hori deuseztatzeko, erkidego osoa biziatzen dute. Haien tiraniaren aurka elkartzeko modurik egon ez dadin, *Nouvelle Éloise* en agertzen diren sinpatia faltsuekin etxeko konfiantzaren eta fideltasunaren printzipioak –bizitza sozialaren diziiplina osatzen dutenak– iraultzen saiatzen dira. Hedatzen dituzten printzipioen bidez, zerbitzari bakoitzak usteko du, ez bada bere betebeharra, behintzat bere pribilegioa dela nagusia traditzea. Printzipio horien bitartez familia bateko aita errespeta garri bakoitzak bere etxeko santutegia galtzen du. «*Debet sua cui - que domus esse perfugium tu tissimum*», esaten du legeak, zeuen lege-gileek horrenbeste neke hartu dutena lehenik zentsuratzeko, eta gero baliogabetzeko. Etxeko bizitzako lasaitasun eta segurtasun osoa suntsitzen dute; kartzela ilun bihurtuz etxeko babesa, bertan familia bateko aita existentzia dohakabea izanen du; itxuraz dauzkan segurtasunerako baliabideen arabera, arriskuan; bertan bakarti baino okerrago da zerbitzari saldoaren artean; kezka handiagoa sortzen diotelarik bere zerbitzari eta etxe barnekoek, hura urkamendira eramateko prest dagoen aterik gabeko banda kontratatu, odol-egarri horrek baino.

Horrela, eta xede bererako, saiatzen dira suntsitzen kontzientzia epaimahai hori, ediktu eta dekretuetatik independente existitzen den hori. Zeuen despotek terrorearen bidez gobernatzen dute. Badaki-

te Jainkoari beldur dietenek ez diotela beste ezeri beldurrik: horregatik erauzten dute adimenetik –haien Voltaire, Helvetius eta gainontze-ko banda doilor horren bidez– beldur mota hori, benetako ausardia sortzen duena. Haien helburua da haien hirikideek begiramenezko mendekotasunik ez izatea, ez bada ikerketa batzordearekiko eta urka-mendiarekiko.

Euren tiraniaren osaketarako abantaila aurkitu dutelarik erailketan, hartan konfiantza ezartzen dute tirania horri eusteko. Euren jardueraren aurka dagoen edonork bere biziarekin erantzun beharko du, edo bere emazte eta haurrekin. Erailketaren praktika anker, krudel eta koldarrari *errukior* deitzeko lotsagabekeria dute. Euren usurpazioa terrorearen bidez indarraren bidez baino gehiago hedatu izanaz harrotzen dira, baita zenbait eraile burutsuk bataila askoren odol isurketa aurrezteaz ere. Ez da zalantzarik urrikalmendu ekintza horiek egingo dituztela aukera ikusten duten bakoitzean. Beldurgarriak izanen dira, aitzitik, gudaren gaitzak saihesteko erailketaren politika errukiorra erabiltzearen ondorioak. Errudunaren zigor eraginkorrarekin, ez diote praktika hari uko egiten, ezta haren mehatxuari ere, euren politikaren parte bezala; noizbait printze atzerritar bat Frantziara sartuko balitz, eraile herrialde batean sartuko balitz bezala egin beharko du. Ez da praktikatuko guda zibilizaturik; eta egungo sisteman diharduten frantsesek ezin dute halakorik espero. Euren tiraniarekin pozik ez dagoen edonor erailtzeko eta arerio argi ororen soldaduak usteltzeko politika ageria duten horiek ezin dute espero areriotasunean aldaketarik. Guda oro, bataila ez dena, exekuzio militarra izanen da. Horrek mendeku ekintzak eragingo ditu zuengandik, eta mendeku bakoitzak beste mendeku bat sortzen du. Gudaren infernuko-zakurrak, alderdi guztietan, paregabeak eta mozalik gabeak izanen dira. Erailketa eta basakeria eskola berriak, Parisen ezarriak, suntsitu dituelarik (orain arte horretan datza) egundaino Europa zibilizatuaren oinarri izan diren bizimodu eta printzipioak, guda zibilizatuaren modua ere suntsituko du; ezerk baino gehiago, mundu kristaua bereiztu duen hori. Halakoa da datorren urrezko aroa, zeuen Biltzarreko Virgilio horrek bere Pollios-ei abestu diena!<sup>5</sup>

Zuen egoera hori, bai politikoa, zibila, bai moral sozial zein bizimodutakoa nolakoa den ikusita, nola min zaitzakete edozein eztabaidarako askatasunak? Kontuz ibiltzea, zerbait galtzeko duenarentzat

da. Nire burua justifikatzeko esan dudanak, ondorio latzik ez jasotze-arenak, legezko erregearen eta egitura usurpatuaren arteko harremana aske eztabaidatzeagatik, berdin balio du adierazi dudanerako armada-aren egoerari buruz, usurpazio sofistiko horren menpe. Egungo tirano-ek ez dute nahi argumenturik frogatzeko egunero sentitu behar dutena: armada on bat ezin dela haien printzipioak jarraituz existitu. Ez dute monitorerik behar haiei aholka diezaien armada zein erregea kendu beharraz, hori egiteko moduan direnean. Zer esperantza ezar daiteke- en zuen armadarengan zuen askatasunak berreskura ditzan, ez dakit. Egun, obediencia adieraztean errege baten balizko aginduei, berorrek –badakite ziurtasunez– ez daukalarik borondaterik eta ezin duelarik agindu bat eman –ez denik, zuzenean edo ondorioz, berorren suntsi- penerako baizik–, badirudi zuen armada anarkiaren morrontzarako lotura nagusia finkatzen ari dela, horren arabera usurpazio krudel batek loturarik gabeko jendea aldi berean makurtua eta nahastua du.

Itauntzen didazu Monk jeneralaren jarreraz. Nola eragiten dion zuen kasuari, ezin dut esan. Zalantza dut zuek ba ote duzuen, Fran- tzian, frantses monarkia defendatzeko gaitasuna duen norbait, Monk jeneralak Ingalaterrako monarkia defendatu zuen modu berean. Mon- kek agintzen zuen gudarostea Cromwellek eratu zuen, beharbada inoiz gainditua izan ez den diziplina perfekzioarekin. Bestalde, guda- roste hark osaera bikaina zuen. Soldaduak bihozberak ziren, profesio- naltasun handienekoak, eta bizimodu zorrotzekoak; ausartak gudu- zelaian, baina umilak, isilak eta esanekoak kuartelean; euren ofizialak edo beste edozein pertsona erailtzea higuin zuten pertsonak; eta (behintzat uharte honetan zerbitzatzen zutenak) jeneralenganako atxi- kimendu handikoak, haiek ongi tratatu eta trebetasunez agintzen bai- tzituen. Halako gudaroste batetaz, behin lortuta, fida daiteke bat. Zalantza handiak ditut, orain Monk bat aurki bazenezake, Monk horrek halako armada topako lukeenik Frantzian.

Ados nago zurekin diozunean gure egitura zor diogula monar- kia ingelesaren berrezartzeari. Monkek Ingalaterrari ekidin zion ego- era ez zen, garai hartan, inolaz ere eta inolako zentzutan zuek egun daukazuena –eta egungo mendekotasuna ikusita, izanen duzuena– bezalakoa. Cromwellek Ingalaterra anarkiaz libratu zuen. Haren gobernu- a, militarra eta despotikoa zen arren, profesionala eta ordena- tua ere bazen. Burdinapean, eta ingudepean, lurrak bere uzta ematen

zuen. Haren heriotzaren ostean, anarkiaren arriskuak gehiago izan ziren beldurra sortzekoak, benetan sentituak baino. Pertsona oro zen salbu bere etxe eta jabegotan. Onartu behar da, baina, Monkek nazio hau salbatu zuela, kontuan hartuta beldur handia eta bidezkoa zegoe-la, etorkizuneko nolabaiteko anarkia eta tirania posible batek eragin-da. Hark ezarri zuen erregea, egiazki, zeuen errege onberaren alde-rantzizkoa zen, honek bere menpekoei askatasunak eskaini nahi izan zizkion arren, kartzelan ilauntzen ari baita. Monkek ezarri zuen per-tsona, printze legez zeukan betebeharraren zentzurik ez zuen gizona zen; bere koroaren duintasunari miramendurik ez ziona; bere jendeari maitasunik ez ziona; libertinoa, faltsua, ustel erraza, eta inolako ezaug-arri onik gabea, ez badira bere izaera atsegina, eta bere gentleman moduak. Hala ere, monarkiaren berrezarpena, halako printzea gorabe-hera, den-dena izan zen guretzat; Monarkiarik gabe Ingalaterran, ziu-rrenik, ezin baikenuke inoiz bakeaz eta askatasunaz gozatu. Konbik-zio horrekin 1688ko Iraultzan hartu genuen lehen urratsa tronua bene-tako errege batekin betetzea izan zen; eta, hori bete baino lehen ere, nazioko buruzagiak ez ziren saiatu *interim* gobernu bat ezartzen. Segi-tuan eskatu zioten Orangeko Printzeari gobernu har zezan. Tronua ez zen hutsik egon ezta ordubete ere.

Zuen oinarritzko legeek, gureek bezala, monarkia eskatzen dute. Zure ahaleginak, jauna, egin duzun legez hain tinko eusteko, ez du soilik zure ohorearekiko eta fideltasunarekiko errespetu sakratua aditzera ematen, baita zure herrialdeko benetako ongizatearekiko eta askatasunekiko atxikimendu ongi oinarritua ere. Gaizki adierazi dut nire burua, arrazoirik eman badizut zuk imajinatzeko nik nahiago dudala bataila honetatik erretrata egin dutenen jarrera zurea baino, zeuk, ausardiaz eta ia naturaz gaindikoa den konstantzia batez, tira-niaren aurka egin baituzu, eta gudu-zelaian iraun duzu bukaerara arte. Ikus dezakezunez igortzen dizudan edizio berrian zuzendu dut objek-zio egin dakioken zatia. Izan ere, zeuena bezalako muturreko egoe-ratan, ez da erraza esatea, ikuspegi politiko batetik, zein den jarrerarik gomendagarriena. Halako egoera batean, ezingo nuke pertsona bat kondenatu: pertsona batzuek derrigorrean pairatu behar dituztenak legegintzako tronuan dauden horiek, justizia kriminaleko objektu iza-teko gai diren horiek. Nekeak, nazkak, narda jasangaitz batek, halako ikuskizun batetik aldentzen baditu, «*ubi miseriarum pars non minima*

*erat, videre et aspici*», ezin diet errua bota. Diamantea bezain gogorra izan behar du batek bihotza, ikusten badu traidore talde bat igota merezi ez duen ezusteko botere batean, errebolta doilor, gizatasun gabeko eta zital baten bidezko boterean, hirikideak *matxinatu* bezala hartzen dituztelarik, haien kontzientziak –berorren aginduak– ez baitzien lagatzen besteekin elkartzea, eta uko egin baitzioten haien hondamendiaren konplizitate aktiboa zin egiteari. Nola jasan lezake haragi eta odol arrunteko gizaki batek ikustea, pertsona haien gelaurrean ia ikusezin mantentzen ziren horiek, pertsona haiek ospetsuak zirelarik euren mailagatik, funtzio sakratukoak, izaera benegarrikoak, eta orain horiek mespretxuz iraintzen dituztenak, orain bizitzaren gainbeheran, euren aberastasunen urperatzearen artean igerian, nola jasan lezake makur horiek halako pertsoneri mespretxuz eta lotsagabe esatea, jabegoak lapurtu egin dizkieten ostean, nahikoa baino gehiago dela ez badituzte gose gorrian uzten! Eta gainontzeko pertsoneri dago kienez, euren ile urdinak goldearen gainean erortzen utzi behar dituzte, euren eskuen jardunarekin bizimodu urria edukitzeko! Azkenik, eta okerrean, nork paira lezake entzutea libertate deritzaten despotismo basati, ozar eta ez-natural horretaz? Distantzia honetatik, nire sutondoan isiltasunean eserita, ezin baditut dekretu eta mintzaldiak irakurri amorratu gabe, kondenatuko al ditut horre horiek zuzenean ez ikustearren eta entzutearren alde egin dutenak? Ez, ez! Gizateriak ez du eskubiderik eskatzeko haien erruaren eta lotsagabekeriaren esklabo izatea, edo haien partez haiek zerbitzatzea. Adimenek, minduta bertute irainduaren sentsazio atsekabegarriarekin, mespretxu handiaz lepo bilaukeria garailearen harrotasuna dela-eta, sarritan ez daukate posibilitaterik tinko eusteko. Haien egikerak (torturari ere aurre egin diezaieke) ezin du halako erronka bat jasan. Oso garaia den zerbaitek indartu behar ditu gizakiak halako proba baterako. Baina erkatzea eskatzen bazait, ez dut ezbairik izanen une batez ere hautatzeko gizaki horiek, heroi horiek, normalean desesperantzaren erdian esperantza dakarten ekintza guztiak burutzen dituztenak; euren sentimenduak euren betebeharren mende ezartzen dituztenak; gizateriaren, askatasunaren eta ohorearen kausarako, bizitzako atsegin guztiak abandonatu, eta, egunero prest, bizitza bera arriskuan jartzen dutenak. Sinets nazarue esaten badut ez dudala inoiz nahiago izanen asko eskatzen duen bertute bat (oraindik ere bertute), alderatzen badut haiek daukaten pazientzia gozo horrekin, pertseberantzia horrekin, pairatzen dituzte-



nean, euren herrialde eroaren ohe-alboan dakusatelarik, haren izen maite eta beneragarriarekiko maitasuna dela eta, euren ama etsiaren kolpe guztiak, atsekabe guztiak. Jauna, benetako martiri iruditzen zatzaizkirate; iruditzen zait jarduten duzuela gure Komandante nagusiaren –gure salbazioaren Kapitainaren– espirituarekin, zuek abandonatu zaituzteten horiek baino askoz ere gehiago; baina lehenik nire burua aztertu beharko dut sakonki, eta ikusi nik hobeto egin nezakeen, horiek zentsuratu baino lehen. Ziur diotsut, jauna, dakusadanean zure subiranoarenganako eta zure herriarekiko daukazu fideltasuna, agertzen duzun ausardia, indarra, eskuzabaltasuna, luzaroko pairamena, baita Maury abadearena, Cazales jaunarena, eta mota orotako hainbat pertsona baliotsurena ere, halako ezaugarri handien distirarekin, ahaztu egiten zait zuenean elokuentzia hain arrazionala, gizatasunezkoa eta konbentzigarria erakutsi izan dela, eta beharbada beste ezein herrialdetan inoiz garaitua izan ez dela. Baina zuen talentua ezabatu egiten da zuen bertuteek nigan sortzen duten miresmenaren aurrean.

Mounier jaunari eta Lally jaunari dagokienez, beti nahi izan dut haien gaitasunei, elokuentziari eta euren zioen purutasun orokorrari justizia egitea. Izan ere, hasiera hasieratik ere ikusi nituen haien intentzio onekin eta talentuarekin euren herrialdeari ekarriko zizkieten gaitzak, sistemetan zuten konfiantza dela eta. Baina haien gaitza gaixotasun epidemikoa zen. Gazteak eta esperientzia gabeak ziren; eta noiz ikasiko dute pertsona gazte eta esperientzia gabeek euren buruez kontu hartzen eta fio ez izaten? Eta gizakiek, gazte zein zahar, errege eta enperadore absolutuek daukatena baino botere askoz ere handiagoa ematen bazaie, noiz ikasiko dute moderazioa bezalako zerbait? Monarkek orokorrean errespetatzen dute gauzen ordena jakin bat, oinarritik aldatzea zaila gertatzen baitzaie, eta behartuak baitira hartara moldatzera, baita haien botererako muga adieraziak ez daudenean ere. Jaun hauei iruditu zitzaion aukeratuak izan zirela estatuari, eta baita gizarte zibilaren ordena osoari ere, molde berri bat emateko. Ez da harritzekoa *eurek* ikuspegi arriskutsuak izatea, baita erregearen ministroak ere, monarkiaren gordailu sakratuaren erantzule, hain infektatuak zirenean egitasmo eta sistemarekin (zaila iruditzen zait kontsideratzea aurrez pentsaturiko traizio beltz bat bezala), ezen publikoki adierazi zituzten gobernu plan eta eskemak, erre den ospi-

talea berreraikitzeaz balira legez. Zer egingo zuen horrek, ez bada jendearen espekulazio azkarregiko lehia eragin, imajinazio gartsu batek eta abentura espirituak gidatua izateko joera zuelarik jende horrek berez?

Mounier jaunaren eta Lally jaunaren hutsa oso handia izan zen; baina oso huts orokorra izan zen. Jaun horiek gelditu izan balira, erruaren eta miseria publikoaren putzuaren ertzean zeudenean, espekulazio ilun eta hondorik gabeko amildegia irekitzen baitzen haien aurrean, lehen hutsa barkatuko nieke; askotan erori ziren baina. Damu izateko aukera izan zuten.

Mounier eta Lally desertore kontsideratzen dituztenek euren buruak eraile eta traidoretzat jo beharko lituzkete: zertatik desertatu baitzuten ez bada erailketa eta traiziotik? Niri dagokidanez, ohoratu behar ditut errorea krimen ez bihurtzeagatik. Izan ere, pentsatuko banu esperientziak ez zituela sendatu; ez zirela konturatu estatua erreformatu behar zutenek erreformatu behar den benetako gobernu egitura euren gain hartu beharko zutela; ez badira erabat konbentzitu Frantzia lehenik beharrezkoa dela mota *orotako* ordena eta jabegoaren berrezartzearekin hasia, monarkiaren berrezartzearekin hasita, bakoitzak estatuan zuen bere antzinako bereizketa eta klasearekin; ez badute ikusten klase horiek ez direla nahastu behar, beranduago berpizteko eta bereizteko; ez badira konbentzitzen parrokia eta klub gobernu-eskema horrek estatua bide okerretik daramala, eta aparatu behe eta zentzugabea dela (konstituzio bakarra botere gorena egitea legez), orduan, ados nago lehen bizkortasun hori euren bizitzako azken unexera arte gogoratu beharko litzaiekeela.

Xumeki egiten didazu demanda, zeuen egoera latzaren deskribapena egiten dudan arren, ez dudalako konponbiderako planik ematen. Alajaina! Jauna, plan proposamen bat, zirkunstantziei begiratu gabe, ez behar guztien kausa da; eta ez nauzu inoiz topatuko, nire espekulazioak aurkeztuz, beste batzuen espekulazioek eragin dituzten gaitzak areagotzen. Zeuen gaixotasuna, gai horretan, betekadak dakarren desordena da. Ematen duenez, zuk uste duzu nire ideiatxoak neronen-tzat gordetzea atzerriko nazio –batzuetan arerio– baten axolagabetasunetik datorrela. Ez, jauna, zinez diotsut: nire diskrezioa ez dator hortik. Gutun hau, bigarren liburu bat osatzera arte handitu dena, antipatia nazionaleko zeinua, edo axolagabekeria nazionalaren, zeinu al

da? Halako arretaz jardungo nuke geurean egoera antzekoa balitz. Aholkuren bat eman beharko banu, edonola ere, nukeen onena litzateke. Aholkulari baten eginkizun sakratuak (ezin bortxatuzkoak) eramango ninduke, baita benetako arerioarekin ere, tartean den alderdia nire lagunik onentzat tratatzera. Baina ez naiz arriskatuko espekulazioak egiten orain daukadana baino zeuen aferen ikuspegi hobeari bat barik; hartzen dudak kontua ez dator ezaxolatik, zuen ongizatearekiko arduratik baizik. Soilik sortzen da aholkua begirunerik gabe emateak dakarkidan kezkatik.

Ez da, nire begi aurrean ekintza andana arraro horiek pasatu diren eran, ez naizela murgildu haien gaineko espekulazio politiko anitzetan. Baina ez denez betebeharrak adierazirik ez didanik lagako irizti bat niretzat gordetzen; ez didanez eskatzen botere agintari batek, naizen bezala autoritate eta konfiantza barik, gaizki jakingo nuke zer bilakatuko nintzatekeen, edo zertan egingo niekeen beste batzuei mesede, boluntarioki nire proiektu bat nazio bati inposatzerakoan, jakin barik haren zirkunstantziengatik hari aplikagarria ote zaion.

Lagaiezadazu esatea, halako konfiantza banu, nire ideia solte, orokorretan, zalantzati izan beharko nukeen lain, ez nintzatekeen inoiz ausartuko horiek agertzen, soilik zuen aferen zentrotik hogeilegoara. Nire begiekin ikusi behar dut, nolabait, nire eskuekin ikutu behar dut, ez soilik zirkunstantzia finkoak, baita unekoak ere, edonolako proiektu politikorik iradoki baino lehen. Ezagutu behar dut onartzeko, egikaritzeko, pertseberatzeko dagoen boterea eta gaitasuna. Lagungarri guztiak eta oztopo guztiak ikusi behar ditut. Ikusi behar ditut plana zuzentzeko baliabideak, zuzenketak behar diren lekuan. Gauzak ikusi behar ditut; pertsonak ikusi behar ditut. Horiek ez badiara planera adaptatzen edo egokitzen, proiektu espekulatiborik onena bilakatu liteke ez soilik alferrekoa, baita kaltegarria ere. Gizakientzat egin behar dira planak. Ezin ditzakegu gizakiak eta natura gure egitasmotara moldatu edo lotu. Jendeak distantzian gaizki neurtzen ditu gizakiak. Behin gerturatuta, ez diete erantzun lehenik zeukaten erreputazioari. Ez, perspektiba aldatzen da, eta pentsatzen zenuenaren alderantzizkoa erakusten dizu. Distantziazatik, zehaztasun gabe neurtzen baditugu pertsonak, okerrago neurtuko ditugu *aukerak*, etengabe aldatzen baitira forma eta kolorez, eta hodeiak legez pasatzen baitira. Ekialdeko politikoei ez dute inoiz ezer egiten astrologoek *une fortu* -

*natua* noiz den esan baino lehen. Eskubidea dute, hoberik ezin badute egin; patuaren iritzia garrantzitsua baita zerbait egiteko orduan. Aurrez ezagutze zentzudunagoa darabilten estatu-gizonek une fortunatua bilatzen dute halaber; baina ez dute bilatzen planeten konjuntzio eta oposaketetan, baizik eta gauzen eta pertsonen konjuntzio eta oposaketetan. Horiek osatzen dituzte euren almanakak.

Baliabideak eta zirkunstantziak kontuan hartzen ez dituen plan zuhur baten kaltegarritasuna erakusteko, ez da beharrezkoa zeuen duela gutxiko historiara jotzea baino. Frantziak duela hiru urte zeukan egoera, zer sistema proposa daiteke hobeto, zer gutxiago, teoria ausartean sartuta ere; zer egokiago exigentzia guztiak betetzeko, Estatu Orokorreko biltzarra baino, gobernuaren abusu guztiak erreformatzen ari zen artean? Uste dut ezin imajina daitekeela gauza hobeagorik. Baina zentsuratu dut, eta oraindik harrotzen naiz zentsuratzen dudalako, zeuen Parisko parlamentua, erregeari ez ziolako aholkatu honako neurri egokia zela neurri guztietarik kritikoena eta neketsuena; zentzutasun handienak eta arreta kopuru handienak zeharo beharrezko zituena. Gobernu batek bere egikeran konponketa –edo arrisku baten aurrean sorospena– behar duelako aitortenak berak haren erreputazio erdia galtzea eragiten du, eta hein handi batean indarraren erdia ere, erreputazio horren arabera baita. Hortaz, beharrezkoa zen, lehenik, gobernu arriskutik kanpo ezartzea, gobernu horrek halako ekin-tza bat nahita pairatzen zuelarik; eta ez, sendatzeko tresna arrazionalen jabe baino gehiago, gaixotasunaren zentzuaz gehiago beteta zeuden batzuek eginiko erreforma orokor bat.

Esan daiteke, arreta hori, kontu horiek, erregearen ministroen eginkizun naturala zirela, parlamentuarena baino. Hala ziren; baina pertsona bakoitzak kontu hartu behar du ematen duen aholkuaz; bere ideien arabera planak egikarituko ote dituen jakin gabe, norbaiten eskuetan jartzen badu neurrien burutzea. Lau ministrotik hiru ez ziren fidatzekoak frantses monarkiaren, ordena guztien, bereizketa guztien jarraipenarekin. Garai hartan Parisko jendeak zuen jitea ezagututa, zein da Versailles bezalako leku batean estatuak biltzea otutzen zaion norbaiten zuhertasuna?

Erregearengan konfiantza itsu hori sustatzea baino gauza okerragorik egin zuen Parisko parlamentuak. Ezen, izenak eta gauzak berdin balira legez, ez ziren konturatu (izan ere, aldiz, onartu egin

zituzten) gomendatu zituzten egitasmoetan antzinako benetako printzipioetatik ematen ari ziren desbideraketak. Desbideraketa horiek (erresumaren antzinako lege, usadio eta egituraren zaindari zen artean) Parisko parlamentuak ez zituen pairatu behar, tronuaurrean protestarik handienak egin barik. Nazio osoaren alarma piztu behar zuen, gauza infinituki garrantzi txikiagokoek eragin zuten bezala. Antzinako egitura berpizteko aitzakiarekin, parlamentuak berrikuntza ekintza indartsuenetako bat jasan zuen, eta ondorio eraginkorrenetako, euren begien aurrean gertatu zena; eta despotismoaren bitartez buruturiko berrikuntza; hau da, erregeen ministroek *Tiers État*aren ordezkapena –eta hein handi batean apaizgoarena ere– aldatu zuten, eta ordenen antzinako proportzioa suntsitu zuten. Zalantzarik gabe erregeak ez zuen aldaketa horiek egiteko eskubiderik; eta hor parlamentariak euren betebeharrean huts egin zuten, eta euren herriarekin batera huts horrengatik bizia galdu dute.

Zein huts kopuru handiak eraman duen ezbehar saldo horretara! Eta ia guztiak sorburu berekoak; hau da, maxima orokor jakin batzuk hartzea, zirkunstantziei, uneei, lekuei, aukerei eta eragileei jaramonik egin barik! Ez badiegu horiei guztiei arreta handiz jaramon egiten, gaurko medizina biharko pozoia bilakatzen da. Abstraktuki neurri bat bestea baino hobe izatekotan, hori, estatuak deitzea zen –*ea visa salus morientibus una*–. Benetan hala zirudien. Baina ikus ezazu zer ondorio duen une kritikoei jaramon ez egiteak, ez begiratzek gaixotasunak –baita egiturak, egikerak, eta umoreak ere– bereizten dituzten sintomak.

*Mox fuerat hoc ipsum exitio; furiisque refecti,  
ardebant; ipsique suos, jam morte sub aegra,  
discissos nudis laniabant dentibus artus*

Horrela, egitura indartzeko, bereizketak sendatzeko eta gizakien buruak osatzeko erabili zen edabea bilakatu zen ahultasunaren, eldarnioaren, desadostasunaren eta banantze osoaren sorburu.

Horrekin, beharbada, zuk eginiko beste galdera bati ihardetsi diot: ea egitura britainiarra gure zirkunstantziei egokitzen zaien. Egitura britainiarra laudatu nuenean, eta ongi ikasi izatea nahi nuela nioenean, ez nuen esan gura bere kanpotiko forma eta agerian den antolamendua zuentzat eredu bilakatu beharko zenik, edo ezein herrik

morroi antzean kopiatu behar zuenik. Hura sortzen zuten *printzipioak* gomendatu gura nituen, baita zuei zein guri amankomunak zaizkigun elementuak hobetzeko balio izan duen politika ere. Ziur nago nirea ez dela teoria ameslari bat. Nirea ez da nolabaiteko esperimendu baten kaltearen arriskuan ezartzen zaituzten aholkua. Uste nuen antzinako printzipioak zuhurrak direla aske den inperio handi baten kasuan. Iru-ditzen zitzaidan zuek gure printzipioak zenituztela zuen antzinako formetan, geuk geneukan perfekzio maila berean. Zuen estatuak egokitzten bazitzaizkien (eta hala zela iruditzen zait) zuen zirkunstantziei, zuentzat onenak ziren. Gurearen antzeko printzipiotan oinarritzen zen egitura zeneukatenez, nire ideia zen zeuk ere hobe zenitzaketela, guk egin dugun moduan, egokituz estatuari eta garaiko beharrei zein zuen herrialdeko jabegoak duen egoerari, jabego horren mantentzea, eta zuen monarkiaren oinarri substantziala, zuen erreforma guztien helburu nagusiak litezkeelarik.

Ez dizuet gomendatzen zuenean Lorden Ganbera bat izatea. Nobleziako ordezkariekin zenutena (zeuen zirkunstantzietan) erakunde hobia iruditzen zait. Badakit, zuenean, goi mailako pertsona talde batek traditu dituela euren hautesleak, ohorea, konfiantza, erregea eta herrialdea, eta euren lekaioen maila berean ezarri dituztela euren buruak, degradazio horrekin eurak naturalki haien berdinak direnen gainetik jartzearren. Horietako pertsona batzuek bazuten egitismo bat, horren bidez, halako saldukeria eta ustelkeria baten ordainean, hautatuak izanen zirelarik ordena berri bat ezartzeko, eta eurak Noble-en Ganbera batean ezarriak. Uste al duzu, egitura britainiarraren ize-nean, halako Jaunak gomendatzea asmo nuela, halako material batez eginikoak? Ez ditut barne sartzen, ordea, halako eskema baten zaleak diren guztiak.

Halako Noble-en Ganbera bat egin beharko bazenute orain, nire ustez, antza gutxi izanen luke gurearekiko bere jatorrian, izaeran edo helburuetan, eta aldi berean zuen benetako noblezia naturala suntsituko luke. Baina ez bazaudete Noble-en Ganbera bat sortzeko moduan, are gutxiago, ene ustez, birtualki eta substantzialki gure Komun-en Ganberaren antza (gobernu iraunkor eta erregular baten xederako) duen zerbait egiteko. Ganbera hori, berez, jendeak uste duena baino alderdien eta botereen konbinazio sotil eta artifizialagoa da. Egituraren gainontzeko atalekin zerk lotzen dituen; zerk egiten duen aldi

berean gobernurako laguntza eta kontrolerako baliabide handia; zerk bihurtzen duen monarkiarentzat hain zerbitzari miresgarria, hura mugatzen, ziurtatzen eta indartzen baitu, horrek guztiak diskurtso luzea eskatuko luke, behaketara dedikatzen den pertsona baten aisialdiari dagokiona, eta ez dagokio halako egitura baten onurak jendeari praktikoki komunikatzeko zeregina duen pertsona baten kargu.

Zuen *Tiers État* ez zen benetan eta substantzian Komunen Ganbera bat. Beste zerbaiten beharrean zeundeten zeharo, zuen Tiers Étata bezalako erakunde baten akats ageriak medeatzeko. Zuen egitura zaharra soilki eta pasiorik gabe begiratzuz gero, egungo zirkunstantzia guztiekin konektatuz, erabat sinetsia nengoen, Koroa, gauzak egon diren moduan (eta ziurrenik egongo diren moduan, monarkiarik izanen baduzue) ezgai zela eta dela, berez, ordena bien arteko balantza bati eusteko, eta aldi berean gobernu babesle baten barne eta kanpo helburuak egikaritzeko. Nire ustez, estatu baten erreforman, dau den materialak erabiltzea delarik printzipio gidaria, apaizteriaren ordezkaritza, ordena bereizi bezala, ordena bat zen besteekiko gertuago zegoena, besteak elkarren artean urrutiago baitzeuden; hau da, ordezkaritza hori egokia zen besteak konektatzeko, eta erkidego monarkiko zuhur batean leku bat merezi zuen. Zuen jatorrizko egitura aipatzen badut, eta iruditzen bazait substantzialki ona zela, ez naiz ari ez honetan, ez beste gauzetan, nire asmakuntzekin zuek dibertitzen. Garaiko gaitza da endelguaren nolabaiteko neurrigabekeria, baita beste hainbat gaitzen sorburua ere. Saiatuko naiz gaitz horrek ni ahalik eta gutxien uki nazan. Zeuen arkitektoek oinarririk gabe erakitzen dute. Esku lagungarri bat emango nioke edozein superregitura-ri, behin seguru finkatu denean –baina lehenik esan beharko nuke, do-<sup>9</sup>oustw-.

Iruditzen zaizu, jauna, eta bidezkoa da hala iruditzea, teoriaren lehen begiratuan, Frantziak daukan moduko kokapena eta erlazioak dituen inperio baten beharrak asetzeko, bere erregeak izan beharko lituzkeela botere batzuk Ingalaterrako erregeak gure egiturean dituenak baino askoz ere indartsuagoak. Estatuari beharrezko zaion botere maila oro, eta ez dena suntsitzailea gizabanakoen askatasun arrazional eta moralerako, nazioaren duintasunaren, zoriontasunaren, oparotasunaren eta kemenaren alde egiten duena, kontrol eza eta ministroen erantzukizun eza suposatzen ez duen botere oro,

Frantziako errege batek, zentzu onak dioenez, eduki beharko luke. Baina legearen idazkerak Britainia Handiko erregeari eskaintzen dion autoritatearen neurri zehatzek ea frantses monarkiaren barne edo kanpo helburuei erantzuten dieten, horren gainean ezin dut nik iritzirik eman. Hemen, bai emaniko boterean zein bere mugapenean, beti izan dugu zuhurki gure iritzi propioa. Gure egituraren atalak, mailaka, ia konturatu gabe, denbora tarte luze batean, batzuk besteei egokitu zaizkie, berorien helburu amankomun zein bereizietarako. Baina alderdi aurkarien egokitzapen hori, gurean gertatu ez den moduan, zuenean ere ez da inoiz gertatuko, ezta ezein herrialdetan ere, bat-bateko erregulazio soil baten bidez; eta senean dagoen inori ez zaio otuko hala egitea.

Uste dut, jauna, kontinentean askok nahastu egiten dutela Britainia Handiko erregearen kondizioa. Benetako erregea da, eta ez bigarren mailako agintaria. Ez dute arduratuko detaile hutsalek, eta ez du bere burua degradatuko liskartxoetan alderdi baten alde eginez; ziur nago, Britainia Handiko errege batek, errege bezala, edo interes publikoa eta norbere interesa konbinatzen dituen gizaki arrazional bezala dagokion orotan, ez daukala botere benetako, irmo eta zabala-gorik, iraultza miserable hori baino lehen Frantziako erregeak zuena baino. Ingalaterrako erregearen botere zuzena nahiko handia da. Zeharka duena, botere askoz ere ziurragoa, benetan handia da. Duintasunari dagokionez, ez dago ezeren faltan; ezeren faltan, distirari dagokionez; ezertan, autoritateari dagokionez; ezertan, atzerrian duen begiruneari dagokionez. Noiz behar izan du Ingalaterrako erregeak baliabiderik Europako estatu orotan errespetua, miresmena edo beharbada beldurra ere eragiteko?

Konbentzitua nago zuen estatuak –hiru ordenatan, 1614an zeukaten oinarriarekin– konbinazio egoki eta harmoniatsu batera iritsiko zirela errege autoritatearekin. Estatuen araberrako egitura hori Frantziako ordezkartza naturala zen, baita zuzena zen bakarra ere. Pertsonen ohiko baldintzetatik, harremanetatik eta elkarrekiko eskubideetatik sortu zen. Herrialdearen zirkunstantzietatik, eta jabegoaren egoetatik, sortu zen. Zeuen oraingo nagusien eskema maltzurra ez da jendearen egoerara moldatzen, baizik eta baldintzak zeharo suntsitu, harremanak hautsi, nazioaren egoera aldatu eta jabegoa hondatzen ditu, euren herrialdearen egoera egokitzearen euren teoriara.



Lan handi hori, indar aurkarien konbinazioa, «lan jardun luze-ko eginkizuna, laudorio amaigabeak jasotzekoa», praktikoki burutzea lortu baino lehen, errege boterearen murrizketan zuhurtasunik handiena erabili behar zen, botere hori soilik nahikoa baitzen zeuen estatutako masa heterogeneo hori elkarrekin bilduta mantentzeko. Baina egun kontsiderazio horiek guztiak beranduegikoak dira. Zer helbururekin eztabaida genitzake errege boterearen mugaketak? Zuen erregea kartzelan dago. Zertarako espekulatu askatasunaren neurri eta estandarri buruz? Zalantza handia dut, handia benetan, Frantzia gertu dagoen inolako estandarreko askatasunerako. Gizakiak gaituta daude askatasun zibilerako, euren gurariei kate moralak ezartzeko daukaten disposizioaren proportzioan; justiziarekiko daukaten maitasuna euren harrapakariaren gainetik dagoen heinean; euren ulermeneko zentzutasuna eta neurritasuna euren banitatearen eta arrandikeriaren gainetik dagoen heinean; zuhur eta on direnen aholkuak entzuteko jarrera duten artean, eta ez bilauen zurikeriak entzuteko. Gizartea ezin da existitu ez bazaie botere kontrolatzaile baten bidez nonbait muga ezartzen nahiera eta irritsei, batetik zenbat eta gutxiago, bestetik hainbat eta gehiago egongo da. Gauzen egitura eternalak agintzen du pertsona neurrigabea ez dela inoiz aske izanen. Bere pasioek eratzen dituzte bere kateak.

Aurrekoa egia da zure herrikide gehienentzat. Bazeukaten, duela ez larregi, askatasunetik gertukoa zen zerbait, monarkia aitatiar gozo bat. Bere ahultasuna dela eta mespretxatu zuten. Ongi prestatu-riko egitura bat eskaini zitzairen. Ez zen euren gustuaren edo tenperamenduaren araberakoa. Euren bidea egin zuten; alde egin, erail, lapurtu eta erreboltatu ziren. Arrakasta izan dute, eta euren herrian tirania ozar bat ezarri dute, nagusi krudel eta gupidagabeekin; eta horiek ere oraindaino munduan ezagutu ez diren mota batekoak. Arrakasta izateko erabilitako botere eta politikak ez dira estatu-gizon handienak, edo komandante militar handienak, baizik eta supiztaile, asasino, etxe-lapur, ebasle, berri faltsu hedatzaile, autoritateak emaniko manu egile edo faltsutzaile, eta beste delitugileenak; justizia arruntak badauka haien ezagutza. Horren arabera haien agintearen espiritua erabat egokitzen zaio erabilitako baliabideei. Gehiago egiten dute etxe batean lapurretan ibili diren ebasleak legez, nazio bat menderatu duten konkistatzaileak baino.

Horien aurkari, itxuran, baina soilik itxuran, beste banda bat agertzen da, euren buruak *moderatu* deritzatenak. Horiek, zuzen kontsideratzen badut euren jarrera, egitura berri osoa biziki onartzen dute, baina gogor egin nahi dute krimen krudelenen aurka, horien bidez lortu den arren euren egitura eder hori. Jende mota bat da itxuraz jarduten duena pentsatuz gizakiek engaina dezaketela iruzur egin gabe, lapurtu injustiziarik gabe, dena buruz behera jarri biolentziarik gabe. Euren herrialdeko gobernua dezentziaz eta moderazioz usurpa lezaketen pertsonak dira. Izan ere, hobeago edo txarrago, plan desesperatuetan dabiltzan adimen ahuleko pertsonak baino ez dira. Ez dira zintzoak, euren bidegabekeria ezgauza eta sistemarik gabeak dira soilik. Jukutria gaizto handietarako ez dute behar jarrerarik, baizik eta energia eta kementa. Ikusten dute halako egitasmo batean kasurik onenean bigarren mailakoak direla, eta beste batzuek hartzen diete lekua eta gidaritza usurpazioan, haiek ez baitira gai leku hori hartzeko edo mantentzeko. Bekaizti dira euren kideenganako, euren krimenen fruitu natural; haiekin elkartzen dira haiek botatzeko gizateria aztoratzen denean, elkarrekin eginiko haien erasoei aurka egingo baitiete; orduan hartu nahi izanen dute besteen lekua, besteekin batera eginiko proiekturik gaiztoena aurrera eramateko orduan erakutsitako neurriak ematen duen izena horretarako erabilita. Baina ekintza gaizto eta ausartetarako beharrezko den kementa eta ezagutza duten pertsonak naturalki mespretxatuko dituzte. Beheragoko mailan ezarriko dituzte, eta soilik erabiliko azpi instrumentu moduan. Zuen Cromwellen Fairfax izanen dira. Asmo zintzoak badituzte, zergatik ez dituzte indartzen pertsona zintzoen armak, haiei lagunduz euren gobernu zahar, legezko, zuhur eta askean, 1788ko udaberrian eman zitzairen horretan, azpijokoaren asmakuntzen eta ezjakintasunaren zein erokeriaren teoriaren aurka? Ez badute hala egiten, alderdi bietatik mespretxua jasoko dute; haien ikuspegia onartzen eta jarrera gaitzesten duten horientzat batzuetan instrumentu eta besteetan oztupo izanen dira. Tiranoen jostailu baizik ezin daitezke izan. Ez dute inoiz askatasuna lortu, edo komunikatuko.

Galdetzen didazu, halaber, ea behaketa komite bat dugun. Ez, jauna, Jainkoak debeka biezagu! Usurpazioak eta tiraniak beharrezko duten instrumentua da; eta, hortaz, ez naiz harritzen zuen jaunek bizkor ezartzea. Guk ez dugu nahi.

Barka luzaroan ez erantzuteagatik. Nahiko lanpetuta ibili naiz, zure gutuna jasotzeko ohorea izan nuenetik, eta ezin nezakeen inolaz ere erantzun, ez bada oporretan, aukera eman baitidate landetan aisialdiaz gozatzeko. Bazter nahi ez ditudan eta ezin ditzakedan betebeharrak deitzen naute. Ekialdean dauzkagun agindupeko lurretan sorturiko ustelkeria eta zapalkuntza liskarretara bueltatu beharko dut aurki. Frantziakoetatik aldendu beharko naiz osoki.

Inglaterra ezin dugu frantsesek bezain gogor lan egin. Beharrezkoa zaigu sarritan erlaxatzea. Zeuek normalean biziagoak zarete jardunean. Ez nekien zuen izaera nazionalaren jite hori 1773an Frantziara joan nintzenera arte. Egun, zuen lanerako joera hori handitu egin da txikiagotu baino. Zuen Biltzarrean ez duzue atsedean hartzen ezta igandeetan ere. Guk bi egun dauzkagu astean, jaietatik aparte; eta bestalde, bost edo sei aste uda eta udazkenean. Zuen Biltzarreko ahalgin jarrai etengabe hori da nire ustez sorturiko gaitzen kausetako bat. Beti lanean dabilzanek ezin dute juzgu zuzenik egin. Ez diezue zeuen buruei hozteko astirik ematen. Ezin duzue inoiz aztertu –egokia den ikuspegi batetik– amaitu duzuen lana, azken egikaritzea dekretatu baino lehen. Ezin da inoiz etorkizuna planifikatu iraganetik. Ez zarete inoiz zuen herrialdera joaten, neurritsuki eta pasiorik gabe zeuen neurriek euren objektuetan izan duten eragina ikusteko. Ezin duzue bereiztu zein heinean hobetu –edo okerragotu zein kaskartu– den jendearen egoera, egin duzuenagatik. Ezin duzue zeuen begiekin ikusi eragiten dituzuen sufrimendu eta minak. Distantzian baino ez dituzue ezagutzen, agintean den boterearekin beti zurikerian dabilzan horiek esandakoaren arabera, kexak aurkezten dituzten moduagatik, zapalduen aurka amorruan jartzen zaituzten horien arabera. Horiek dira, besteren artean, lan jardun etengabearen ondorioak, gizakiek euren arreta akitu, kandelak erre, eta ilunean geratzen direnean. *«Malo meorum negligentiam, quam istorum obscuram diligentiam».*

Beaconsfield,  
1791eko urtarrilaren 19an.

## Oharrak

<sup>1</sup> Esaten denez, Biltzar Nazionalak Frantziako herriari zuzenduriko azken diskurtso petrikilarian esan da ez dituztela euren antolakuntzak praktika arruntean oinarritu, baizik eta hutsik egin ez dezakeen teoria batean; edo antzeko zerbait.

<sup>2</sup> Ikus bedi Burnet-en *Life of Hale*.

<sup>3</sup> Ingalaterran pikota hori (*carca*) oso garaia egiten ohi da, Frantziako erregea erakusteko altxatu zena bezalakoa.

<sup>4</sup> Filiola tua te delectari laetor et probari tibi ~~usik~~<sup>usik</sup> esse ~~thap~~<sup>thap</sup> ~~pròz~~<sup>pròz</sup> ta: etenim, si haec non est, nulla potest homini esse ad hominem naturae adjunctio: qua sublata vitae societas tollitur. Valete Patron (Rousseau) et tui condiscipuli! (L'Assemblée Nationale.)—Cic. Ep. ad Atticum

<sup>5</sup> Mirabeau-k bake unibertsalari buruz eginiko hitzaldia.

# PALMIRAKO AURRIAK, EDO INPERIOEN IRAULTZEN GAINEKOHANUSNARKETAK

VOLNEY  
LAGUNTZA ESKE

Agurtzen zaituztet aurri bakartiak, horma sainduak, murru isilak! Zuengana jotzen dut laguntza eske, zuei zuzentzen dizkizuet ene erreguak. Bai! Zeuen itxurak jende arruntaren begirada izutua desbi-deratzen duenez, zuek begiratzearekin ene bihotzak sentimendu sako-  
nen eta pentsamendu garaien xarma aurkitzen du. Zenbat ikasgai era-  
bilgarri, zenbat hausnarketa interesgarri ez ote dizkiozue eskaintzen  
zuei kontsulta egiten dakien espirituari! Zeuek zineten, Lur osoa tira-  
noen aurrean morroituta mututzen zenean, tirano horiek gorroto dituz-  
ten egiak aldarrikatzen zenituztenak, eta erregeen aztarnak azken  
esklaboenarekin nahastuz, BERDINTASUNAREN dogma santuaren  
lekukotasuna ematen zenutenak. Zeuen eremuan ikusi dut nik,  
ASKATASUNAREN maitale bakarti honek, beronen jeinua, ez jende  
arruntak irudikatzen duen moduan, aitzo eta aizkoraz armatuta, baizik  
eta JUSTIZIAREN eite bikainarekin, eskuetan zeramatzalarik eterni-  
tatearen ateetan izaki hilkorren ekintzak pisatzeko erabiliko diren  
balantza sakratuak.

O hilobiok! Zenbat bertute gordetzen duzuen! Tiranoak uxa-  
tzen dituzue, ikara sekretu batekin pozoitzen dituzue euren atsegin  
narrasak. Zeuen itxura ustelezinetik alde egiten dute, eta koldar horiek  
zuengandik urrun eroaten dute euren jauregien urguilua. Zeuek zigor-  
tuko duzue zapaltzaile boteretsua; konkusioa egiten duen zikoitz horri  
urrea kendu eta hark bipildu duen biktima ahulari mendeku egingo

diozue. Zeuek konpentsatzen dituzue txiroaren gabeziak, aberatsaren arrandia kezka bidez ahulduz. Zeuek kontsolatzen duzue zorigaiztoko pertsona, azken aterpe bat eskainiz. Azkenik, zeuek ematen diozue arimari indarraren eta sentsibilitatearen arteko oreka hori, horretan baitatza jakinduria, bizitzarako zientzia. Kontuan hartuta dena itzuli behar zaizuela, pertsona zuhurra ez da saiatuko handitasun hutsalez eta aberastasun ezdeusez zamatzen; zuzentasunaren mugetan mantenduko du bihotza. Alabaina, bere karrerari elikagaia eman behar dienez, existentziaren une guztiak erabiliko ditu, eta eskaintzen zaizkion ondasunez baliatuko da. Horrela, kodiziaren eraso oldarkorrari galga osasuntsu bat ezarriko diozue; zentzumenak nahasten dituzten atseginen suhar erikorrak lasaitzen dituzue; arimari deskantsu ematen diozue pasioen borroka nekagarri horretan eta jendetza toleatzen duten interes bilau horien gainetik altxatzen duzue. Zeuen gailurretatik, herriek eta garaiek osatzen duten ikuskizun hori bilduz, espirituak maitasun handiak azaltzen ditu soilik, eta bertutearen eta loriaren ideia sendoak baino ez ditu sortzen. A! Bizitzaren ametsa bukatua denean, zertarako balio zuten asaldatze haiek, ez baldin badute erabilgarritasunaren trazarik utziko?

O aurriak! Zeuen ikasketak jasotzeko itzuliko naiz! Zeuen bakartasuneko bakean bermurgilduko naiz; eta, han, pasioen ikuskizun mingarri horretatik urruti, gizakiak maitatuko ditut euren oroitzapenaz baliatuta; euren zorionaz arduratuko naiz, eta aurre hartuaren ideiatik etorriko da ene zoriona.

# AURRIAK, EDO INPERIOEN IRAULTZEN GAINEKO HAUSNARKETA

## I. KAPITULUA BIDAIA

*Ahmed* turkiar enperadorearen semearen, *Abd-ul-Hamiden*, erreinaldiaren hamaikagarren urtean, errusiarrek, garaile, Krimea eurenganatu eta estandarteak Konstantinopla aurrean dagoen itsasbazterrean ezarri zituztenean, orduan, otomandarren inperioan zehar bidaiatzen ari nintzen, eta, Egipto eta Siria erresumak aspalditik inperioaren probintzia zirelarik, haietan barrena nenbilen.

Nire arreta osoa ezarriz egoera sozialean gizakien zorionari dagokion orotan, herrietan sartu eta azturak ikertzen nituen; jauregie-tan barneratu, eta gobernatzen zutenen jarrera behatzen nuen; soroe-tara hurbildu, eta nekazarien egoera aztertzen nuen; eta lapurreta eta hondamendia, tirania eta miseria baizik ez nituenez ikusten, tristurak eta sumindurak estutzen zuten ene bihotza.

Egunero topatzen nituen bidean soro abandonatuak, herriak hutsik, hiriak aurritan. Sarritan aurkitzen nituen antzinako monumen-tuak, tenpluen, jauregien eta gotorlekuen aztarnak, kolomenak, akue-duktuenak eta hilobienak. Ikuskizun horrek nire espiritua iragandako denboretara eramaten zuen, eta ene bihotzean pentsamendu benazko-ak eta sakonak eragiten zituen.

Hems-era iritsi nintzen, Oronto ertzeko herrira; eta, han, basamortuan kokatuta dagoen Palmiratik gertu nengoelarik, erabaki nuen nire kabuz ezagutzea dauzkan monumentu hain laudatuak. Mortu idor eta bakartitik hiru egunez martxan ibili ostean, leize eta hilobiz bete-

tako bailara bat zeharkatu ondoren, bat-batean, bailara horretatik irterakoan, nire aurrean zabaltzen zen lautadan aurrien ikuskizun liluragarriena topatu nuen: koloma bikain zenbatezin saldoa, gure parkeetako ibilbideetan bezala, lerro simetrikotan ezarriak zirenak. Koloma horien artean eraikin handiak zeuden, batzuk osorik, besteak erdi hondatuta. Alde guztietarik eremua antzeko aztarnez betea zegoen, erlaitz, kapitel, fuste, taulamendu eta pilastraz betea, denak ere marmol zurizkoak, bikainki landuak. Hiru ordu laurden neramatzanean aurrietan zehar ibiltzen, antzina eguzkiari sagaraturiko eraikin itzel baten barrutian sartu nintzen, eta tenpluaren zoruan bertan kanpadendak ezarriak zituzten arabiar txiro batzuen abegi ona jaso nuen. Horrenbeste eta egundokoak ziren obra horien edertasuna arretaz aztertzeko egun batzuez bertan geratzea erabaki nuen.

Egunero irteten nintzen, lautada estaltzen zuten monumentuetakoren bat bisitatzera, eta horietako egun batean, espiritua hausnarketatan arduratua nuelarik, Hilobien Bailarara iritsita, berau biltzen duten garaieretara igo nintzen, bertatik ikusmenarekin aurriak eta basamortuaren zabalera osoa menderatzen baitira: iluntzen ari zuen, baina oraindik lerro gorritzat batek eguzkiaren ibilbidea sumarazten zuen sartaldean, Siriako mendialde hurrunen artean; ekialdean, Eufratesek zeharkatzen zuen lautadaren gainetik, berriz, zeru urdinxkan gora egiten zuen hildeteak; oskarbi zegoen, airea nare; hiltzorian zegoen egunaren argiak ilunpeak eragindako izua baretzen zuen; jaiotzear zen gauaren freskotasunak lur kiskalia lasaitzen zuen; abeltzainek euren gameluak erretiratuak zituzten; begiak ez zuen sumatzen mugimendurik lautada monotono eta grisaxkan; basamortuan zehar isiltasun sakon bat zen agintari; soilik, aldian-aldian, gautxori batzuen eta txakalen intziri goibelak entzuten ziren... Iluntasuna handitzen zihoan, eta nire begiek arrastirian koloma eta hormen zuria baizik ezin zuten bereizi... Paraje bakarti haiek, gau trankil hark, ikuskizun handitsu hark, eragina izan zuten ene espirituan, eta bere baitan bildu zen erlijioetsuki. Hiri handi mortu baten itxurak, iragandako denboren oroitzapenak, egungo egoerarekin erkatzeak, horrek guztiak nire adimena burutapen gorenetera igorri zuen. Koloma batek osatzen zuen tronuan eserita, burua eskuaren gainean ezartzen nuela, nire begirada basamartuan zein aurrietan jarrita, meditazio sakon batean murgildu nintzen.



## II. KAPITULUA MEDITAZIOA

Hemen, nioen nik, hemen egin zuen gorantz hiri oparo batek, hemen zegoen kokatuta inperio boteretsu bat. Bai, orain hain mortu dauden leku hauetan bertan jendetza bizi batek eremu guztiak animatzen zituen; pertsona saldoa zebilen egun hain bakartiak diren ibilbide horietatik. Orain isiltasun beltzeko marmolezko horma horietan, arteen oihartzunak eta alaitasun eta festazko txilioek durunda egiten zuten. Marmol metatu horiek jauregiak ziren, koloma erori horiek, aldiz, tenpluei dotorezia ematen zieten, eta galeria hondatu horiek gune publikoak osatzen zituzten. Hemen, gurmeneri dagozkion beharrak betetzeko eta haren iraupenak eskatzen duen arreta eskaintzearen, jendetza ugaria biltzen zen; han, industria atsegin-sortzaile batek klima orotako aberastasunak erakartzen zituen; ikusiko genukeen nola aldatzen zuten Tiroko purpura Serikako hari preziatuaren truke<sup>1</sup>, Katxemirako ehun leunak<sup>2</sup> Lidiako tapiz ederren truke, Baltikoko anbarra perla eta lurrin arabiarren truke, Ofir-eko urrea Thule-ko eztainuaren ordeez.

Eta begira zer geratzen den hiri boteretsu horretatik, eskeleto triste bat baino ez! Hara zer gelditzen den dominazio zabal hartatik, oroitzapen ilun eta hutsala baizik! Arkupe horietan zebilen jardun burrunbatsuari, bakartasun hilkor batek jarraitu dio. Hilobien isiltasunak hartu du gune publikoen urrumaren lekua. Merkataria hiri baten oparotasuna txirotasun nardagarri bilakatu da. Erregeen jauregiak piztien aterpe bilakatu dira; abere taldeak tenpluen atarietan elikatzen dira, eta jainkoen santutegietan narrasti higuingarriak herrestatzen dira! A! Nola itzali den horrelako loria! Horrenbeste lan nola bilakatu den antzu! Halaxe zentzen dira gizakion obrak! Halaxe deuseztatzen dira nazio eta inperioak!

Iragandako garaian historia nire pentsamenduan argi berpiztu zen. Paraje horietan hogeit hamar herri famatu bizi izan ziren mendeez oroitzen nintzen. Gogoratu nintzen Tigrisen bazterretan bizi izan ziren asirioez, Eufratesenetan bizi izan ziren kaldearrez, Indotik Mediterraneoraino agindu zuten persiarrez. Oroitu nituen Damas eta Idumeako erresumak; Jerusalem eta Samaria, eta filistearren estatu oldarkorrak, eta feniziarren errepublika merkataria. Siriak, nioen, orain biztanlerik ia ez duenak, orduan ehun bat hiri biztanletsu zeuzkan. Lurralde

osoa hiriez, baserriez eta etxolez lepo zegoen. Alde guztietarik soro landuak, bidaia-ri ugariko ibilbideak, bizileku beteak...<sup>3</sup> A! Zer izan da bizitasun eta oparotasun garai haietaz? Zer izan da gizakiak eskuz eginitako horrenbeste sorkuntza bikain horietaz? Non dira Niniveko harresiak, Babiloniako murrak, Persepoliseko jauregiak, Balbek-eko eta Jerusalemeko tenpluak? Non dira Tiroko ontziteria, Arad-eko harrobiak, Sidongo tailerrak, eta marinel, pilotu, merkatari eta gerlari saldo hura? Eta laborari, uzta, abere talde horiek guztiak, eta Lurraren azalera osoa harrotzen zuen izaki biziko sorkuntza liluragarri hura? Ai! Nik kurrutu dut lurralde suntsitu hau! Bisitatu dut halako oparotasunaren antzezleku izan zena, eta abandonamendua eta bakartasuna aurkitu ditut soilik... Bilatu ditut antzinako herriak eta euren obrak, eta arrastoak baino ez ditut topatu, hautsez betetako bidean utzitako oinatzak bezalakoak. Tenpluak birrindu dira, jauregiak erori dira, kaiak galdu dira, hiriak deuseztatu dira, lurraldea biztanlez biluzi da, ez da hilobiz estalitako azalera bat baizik... Jainko handiak! Nondik dator iraulpen beltz hau? Zergatik aldatu da hainbeste eskualde hauen zoria? Zergatik deuseztatu dira horrenbeste hiri? Zergatik ez da biztanleria ugaldtu eta betikotu?

Horrela, ene meditazioan murgilduta nenbilela, nire espirituari burutapen berriak azaltzen zitzaizkion etengabe. Denak, jarraitzen nuen, nire arrazonamendua iluntzen du eta nire bihotza nahasmen-  
duan eta kolokan uzten du. Eskualde hauetan gizakiaren loria eta zoriona osatzen duen hori zegoenean, *jentilak* ziren bertan bizi zirenak: feniziarak, Molok-en sakrifikatzaile pertsona-erailtzaileak, hor-  
ma horien artean klima guztietako aberastasunak biltzen zituztenak; kaldearrak, suge baten aurrean belaunikatzen zirenak, hiri oparoak menperatzen zituztenak eta erregeen jauregiak zein jainkoen tenpluak bipiltzen zituztenak; persiarrak, sua gurtzen zutenak, ehun nazioaren zergak jasotzen zituztenak; hiri honetako bertako biztanleak, astroen adoratzaile zirenak, luxuzko hainbeste eraikin aberats egin zituztelarik... Abere talde ugariak, soro emankorrak, uzta oparoak, pietatearen saria izan beharko lukeen hori guztia idolatra horien esku zegoen; eta, orain, jende *fededun* eta *sainduak* betetzen dituenean lur hauek, ez dago bakartasuna eta antzutasuna baino. Lurrak, esku bedeinkatu horiek landuak, ez du ematen sasi eta sastrakak baizik. Gizakiak larrituta ereiten du, eta malkoak eta kezak baino ez ditu jasotzen; gudak,

goseak, eta izurriteak asaldatzen dute batak bestearen atzetik... Alabaina, ez al dira profeten seme-alabak? Mahometarra, kristaua, judua, ez al dira zeruak hautatutako herriak, grazia eta mirariz aseak? Zergatik ez dute arraza pribilegiatu hauek dohain beretaz gozatzen? Zergatik lur hauek, martirien odolak santifikatuek, ez dauzkate aurretik ematen ziren onurak? Zergatik dirudi hainbeste mende ondoren beste nazio batzuetara, beste herrialde batzuetara, erbesteratuak edo transferituak izan direla?

Eta, aurrekoa ikusi ostean, ene espirituak munduaren nagusitzak eroandako ibilbidea jarraitu zuen, gurmenek eta aztura diferenteko herri ezberdinetatik pasatuz, bata bestearen atzetik, antzinako Asiakoetatik hasi eta oraintsukoago Europakoetara. Nire jaiotzezko lurraldearen izenak berak aberriaren sentimendua piztu zuen nigan; eta, nire begirada harengana biratuz, alde egin nuenean zeukan egoeran ezarrituak pentsamendu guztiak.

Oroitu nintzen bere soro ederki laboratuez, ibilbide bikainki trazatuez, biztanleria ugari batek beteriko hiriez, itsaso guztietatik hedaturiko ontziteriaz, India bateko eta besteko dohainez hornituriko portuez, eta erkatuz merkataritzaren tamaina, ontziteriaren jarduera, monumentuen aberastasuna, biztanleen arteak eta industria –Egipto eta Siriak beste garai batean antzekoa izan zezaketen guztia– zeharo poztu ninduen Asiako iraganeko distira egungo Europan aurkitzeak; baina laster nire burutapenen xarma azken erkatze batek zapuztu zuen. Pentsatzerakoan zein izanen zen begiztatzen ari nintzen lekuen aktibitatea beste garai batean, nork daki –galdetu nion ene buruari– ez al den halakoa izanen egun batean geure eskualdeen abandonua? Nork daki Sena, Tamesis edo Zwiderzee ibaien bazterrean, orain horrenbeste gozamenen zirimola dela-eta bihotza eta begia ez direlarik nahi-koak halako sentsazio andana bat jasotzeko, nork daki ni bezalako bidaiari bat ez ote den aurri mutuen gainean eseriko, eta ez al duen negar egingo herri horien errautsen gainean, iraganeko handitasunaren oroitzapenarekin?

Aurrenekoagatik nire begiak malkoz bete ziren, eta, jantzita neraman kaparekin ene burua estaliz, giza arazoengatik inguruko burutapen tristeetan murgildu nintzen. «A! Gizaki zoritxarrekoa!», nioen erresuminduta, «Patu itsu batek haren etorkizuna moztu du! Halabehar ilun batek agintzen du menturaz gizakiaren zoria. Baina ez: justi-

zia zerutiar baten dekretuak dira betetzen direnak! Jainko misteriotsu batek bere epai ulergaitzak betearazten ditu! Zalantzarik gabe lur honen kontra anatema sekretu bat jaurti du; iraganeko arrazen mende-kuz, egungo arrazak makarikatu ditu. O! Nor ausartuko da dibinitate-aren ezkutapenak argitzen!<sup>4</sup>»

Eta mugiezin geratu nintzen, malenkonia sakon batean sorgor.

### III. KAPITULUA MAMUA

Bat-batean zarata batek nire belarria astindu zuen, hain zuzen, martxan dabilela belar lehor eta mugikorren gainean flotatzen duen jantzi batek ateratzen duen moduko hotsak. Urduri, kapa altxatu nuen, eta, alde guztietara begirada izutua zuzenduz, nire ezkerretara, ilar-giaren argilunean, alboan zegoen tenplu baten koloma eta aurrien tar-tetik, mamu zurixka bat ikusi nuela iruditu zitzaidan. Mantu ikaraga-rrri batek estaltzen zuen, hilobietatik irteten irudikatzen diren espek-troenak bezalakoak. Zeharo beldurtu nintzen, eta izuak nahastuta, zalantzan nengoelarik ospa egin ala benetan zer zen ziurtatu artean, ahots baxu eta sakon batek honako hitzaldia entzunarazi zidan:

«Noiz arte enbarazu egingo dio gizakiak zeruari funtsik gabe-ko kexu horrekin? Noiz arte, alferrikako aldarri horiekin, egotziko dizkio dauzkan gaitzak Patuari? Beti egongo al dira haren begiak argiari itxita, eta egiak eta arrazoiak iradokitzen diotenari zarratuta bihotza? Alde guztietarik agertzen zaio egia argitsu hori, eta ezin du ikusi! Arrazoimenaren garrasia belarrietara ozen iristen zaio, eta ez du ulertzen! Bidegabekeriazko gizakia! Instant batez zure zentzumenak ez balitu ilusioak sorginduko, zure bihotza gai balitz arrazoiaren len-goia ulertzeko, itaun egiezu aurri hauei! Irakur itzazu aurkezten diz-kizun ikasgaiak! Eta zuek, hogeie mende anitzen lekuko, tenplu san-tuok, hilobi ohoragarriok, aspaldi loriatsu zineten murrak! Ager zai-tezte natura beraren kausa horretan! Arrazonamendu zuzen baten tri-bunalean egiozue aurka akusazio bidegabe bati! Zatozte jakinduria faltsu baten edo urrikalmendu hipokrita baten adierazpenak deusezta-tzera, eta mendeka itzazue lurra eta zerua kalumniatzen dituzten giza-kiarengandik!

Nor da *Patu* itsu hori, *arau* eta *legerik* gabea, izaki hilezkorrez trufatzen dena? Nor da halabehar bidegabe hori, ekintzen, zuhurtasu-

naren eta erokeriaren emaitzak nahasten dituen? Zertan dautza eskualde hauen aurkako *anatema* zerutiar horiek? Non dago soro hauen hondamendia betikotzen duen madarikazio *zerutiar* hori? Min-tza zaitezte, iragandako garaien monumentuok! Zeruak berorren legeak, eta lurra bere ibilbidea aldatu al dituzte? Eguzkiak ortzian zehar bere sua zabaltzeari utzi al dio? Itsasoek ez al dituzte jada hodeiak altzarazten? Euria eta ihintza airean itsatsita geratzen al dira? Mendiek iturburuen jarioa atxikitzen al dute? Errekastoek ez al dute euren ibilbidea jarraitzen? Landareek ez al daukate hazi eta fruiturik? Erantzun ezazu, arraza bidegabe eta gezurtia! Jainkoak eten al du berorrek naturari eman zion ordena antzinako eta jarrai hori? Ukatu al dizkio Jainkoak lurrari, ala lurra gizakiei, lehenago ere eskaintzen zizkieten onurak? Ez bada sorkuntzan ezer ere aldatu, beti existitu diren bitartekoak oraindik ere hor badira, zelan esan daiteke egungo arrazak ez direla iraganekoak izan zirenak bezalakoak? A! Faltsuki akusatzen dituzue Patua eta Dibinitatea! Okerki egozten diozue Jainkoari zeuen zoritxarraren arrazoia! Esadazu, arraza zital eta hipokrita horrek! Alor horiek hondamendian badira, hiri boteretsuak leku mortu bakarti bilakatu badira, Jainkoa izan al da haien suntsipena eragin duena? Bere eskua izan al da harresi horiek bota dituen, tenplu horiek birrindu dituen eta koloma horiek ebaki dituen, ala, aldiz, gizakiarena? Jainkoaren eskua izan al da herrietara armak eta soroetara sua ekarri dituen, jendea hil eta uztak erre dituen, arbolak errotik atera eta laboreak erraustu dituen, ala gizakiaren eskua izan da? Eta uztak suntsituak direnean, eta gosetea iritsi denean, Jainkoaren mendekuak eragin al du, ala gizakiaren amorru zentzugabeak? Gosea heldu denean, herriari elikagai higuingarriak eman bazaizkio, izurriteak jarraitu badio, Jainkoaren haserrealdia izan da bidali duena, ala gizakiaren zuhurtasun falta? Gudak, goseteak eta izurriteak biztanleak akabatu dituen, lurra mortu geratu bada, Jainkoak despulatu al du? Haren askonahia al da laboraria ebasten duena, lur emankorra suntsitu eta berorren fruituak errausten dituen, ala gobernatzen dutenen handinahia da? Haren urguilua da guda hilgarriak sortzen dituen, ala erregeen eta berorien ministroen harrotasuna? Haren erabakien zikoizkeria al da sendien zoria zapuzten duena, ala lege organoen aberastasun zaletasuna? Azkenik, haren pasioak mila forma ezberdinetan al dira gizabanakoak eta herriak tormentatzen dituztenak, edo gizakien pasioak dira errudun? Eta euren gaitzak sortzen duen larritasu-

narekin ez badira gai konponbideak aurkitzeko, Jainkoaren ezjakintasunari egotzi behar al zaio, ala haienari? Utz iezaiozue, o hilkorrok, Patuaren halabeharra edo Jainkoaren erabakiak erruduntzat jotzeari! Jainko ona bada, zeuen oinazearen egilea izanen al da? Ez, gizakiaren kexua sortzen duen nabarmenkeria ez da Patuaren nabarmenkeria; gizakiaren arrazonamendua iluntzen duena ez da Jainkoaren iluntasuna; gizakiaren ezbeharren sorburua ez da zeruan bilatu behar, baizik eta berarengandik gertuago dago lurrean bertan; ez dago jainkotasunaren baitan, gizakiaren barnean dago, bihotzean darama.

Marmarka diozu: ‘Nola da posible herri fedegabeek zeruko eta lurreko onurez gozatu izana? Nolatan dira arraza sainduak fedegabeak baino dohakabeagoak?’ Gizaki burugogorra! Non da asaldatzen zaituen kontraesana? Non da zeruaren justiziari egozten diozun enigma hori? Zerorri emango dizut zigorren balantza, kausena eta ondorioena. Esadazu: fedegabe horiek zeruaren eta lurraren legeak betetzen zituztenean, euren lan burutsuak urtaroen ordenari eta astroen ibilbideari egokitzen zizkietenean, Jainkoak lurreko oreka nahastu behar al zuen, haien zuhertasuna zapuzteko? Haien eskuek soro hauek modu arretatsu eta neketsuan laboratzen zituztenean, ukatu behar al zizkien euriak eta ihintza ernagarriak, eta arantzak soilik sorrarazi? Zoru idor hau emankor bihurtzeko, haien jardunak akueduktuak erai-ki, kanalak sortu eta, mortuetan zehar, urrutiko urak ekartzen zituenean, mendietako iturburuak lehortu behar al zituen? Arteak haziriko uztak hondatu behar al zituen, bakean zeuden lurraldeak txikitu, lan jardunak bikain eginiko hiriak suntsitu, eta gizakiaren jakituriak osatzen zuen ordena zapuztu? Eta zer-nolako *sinesgabetasuna* da hori, zuhertasunaz inperioak sortu, adorearekin defendatu eta justiziarekin sendotzen zituena, hiri boteretsuak altxatu, portu sakonak sortu, padura kirasduak lehortu, itsasoa ontziz eta lurra biztanlez bete, eta espiritu sortzailearen antzera mugimendua eta bizia lurrean zehar hedatu zituena? Halakoa bada *fedegabetasuna*, zein da orduan *benetako fedea*? Suntsitzean al datza santutasuna? Airea hegatziz, lurra animaliaz eta urak narrastiz betetzen dituen Jainkoa, natura osoa bizitzen duen Jainkoa, hilobi eta aurrien Jainkoa al da? Hark eskatu al zuen omenaldi moduan suntsipena, eta sakrifizio moduan sutea? Gura al ditu auhenak himnotzat, asasinoak gurtzailatzat, eta mundu mortu eta suntsitu bat tenplutzat? Hara hor, arraza *santu eta sinestunak*, zeintzuk

diren zeuen obrak! Begira zeuen *pietatearen* fruituak! Herriak erail dituzue, hiriak erraustu, uztak hondatu, lurra bakartasun bilakatu, eta zeuen obrentzat saria eskatzen duzue! Zinez beharrezkoa izanen da mirariak egitea! Beharrezkoa lepoa ebaki diezuen laborariak berpiztea, bota dituzuen murrak berraltzea, suntsitu dituzuen uztak birsortzea, barreiatu dituzuen urak berbiltzea; lurreko eta zeruko lege guztiei aurka egitea, beraz, bere handitasuna eta bikaintasuna frogatzeko Jainkoak berak ezarritako lege horiei, kode guztien aurretik zeuden betiereko lege horiei, gizakion pasioak eta ezjakintasunak hondatu ezin ditzaketen lege aldagaitz horiei! Alabaina, horiek ezagutzen ez dituen *Pasioak*, kausak errespetatzen ez dituen *Ezjakintasunak*, bihotzetik datorkien ergelkeriagatik ondokoa esan dute: ‘Dena dator zoritik; halabeharitsu batek hedatzen ditu ongia eta gaitza lurrean zehar, zuhurtasunak edo jakinduriak ezer egin ez dezaketelarik’. Edo, mintzaera hipokrita bat erabiliz, hau esango dute: ‘Dena dator Jainkoarengandik; gustatzen zaio zuhurtasuna tronpatzea eta arrazoia nahastea...’. Eta Ezjakintasunak, bere maltzurkerian, bere burua txalotzen du. ‘Horrela’, esaten du, ‘iraintzen nauen jakinduriari berdin egiten natzaio; ezdeus egingo dut nekatzen eta gogaitzen nauen zuhurtasun hori’. Eta Kodiziak gaineratzen du: ‘Horrela nik ahula zapalduko dut, eta bere lanen fruitua irentsiko dut, eta hau esango dut: *Jainkoak hala agindu du, Patuak hala nahi izan du...*’. Baina neuk lurreko eta zeruko legeen gainea, eta giza bihotza zuzentzen dutenen gainea, zin egingo dut hipokritak ez duela bere bidegabekeria burutzea erdietsiko, ezta bidegabeak ere bere xede harraparia. Lehenago aldatuko du eguzkiak bere ibilbidea, gizakiari benetako gozamenak eskaini eta bere zorionaren oinarriak tinko ezartzeko orduan, ergelkeriak jakinduriari eta ulermenari aurea hartu, eta itsukeria zuhurtasunari gailendu baino lehen.»

#### IV. KAPITULUA AZALPENA

Hala mintzatu zen mamua. Halako diskurtsoak harrituta, eta pentsamendu diferenteek hunkituta bihotza, luzaroan geratu nintzen isilik. Azkenik, hitz egiteko adore hartu ostean, honakoa esan nion: «O, hilobien eta aurrien jeinua! Zure agerpenak eta zorrotzasunak nire zentzumenak nahastu dituzte; baina zure mintzaldiaren zulentasunak

ene arimari konfiantza ematen dio. Barka ezazu nire ezjakintasuna. Alajaina! Gizakia itsua bada, bere tormentua den horrek izan behar al du bere krimena ere? Beharbada arrazoimenaren ahotsa ez nuen eza-gutzen, baina ezagutu ostean ez dut mespretxatu. A! Nire bihotzean irakurtzen baduzu, ikusiko duzu zenbat desiratzten duen egia, ikusiko duzu pasioz bilatzen duela... Ez al da aurkikuntza horretan aurkitzen nauzula paraje bakarti hauetan? A! Lurrean zehar ibili naiz, soro eta hiriak bisitatu ditut, eta leku guztietan miseria eta hondamendia ikusi ondoren, nire kideak sumintzen dituzten gaitzak ikusita, nire arima zeharo atsekabetua da. Hasperenka, zera esan diot nire buruari: giza-kia estutasunerako eta minerako sortua izan al da? Eta ene espirituua gure gaitzei buruzko hausnarketa batean jardunarazi dut, konponbideak ediretearren. Hau esan dut: gizarte usteletatik aldenduko naiz; ase-betetzeaz arima galbideratzen den jauregietatik apartatuko naiz, baita miseriagatik okertzen den etxoletatik ere. Bakartasunera joango naiz aurrietara; monumentu zaharrei itaunduko diet antzinako garaietako jakinduriaz; hilobien muintetik saiatuko naiz ateratzen espiritu hori, Asian beste garai batean estatuei ospea eta herriei loria eman ziena. Legegileen errautsei galdetuko diet *ea zein den inperioen altxatzeen eta erortzeen eragilea; ea nondik sortzen diren nazioen oparotasuna eta hondamendia; zein oinarriren arabera finkatzen den bakea erki-degoetan eta zoriontasuna gizakien artean*».

Isildu nintzen; eta, begiak behera jaitsirik, jeinuaren erantzuna itxoin nuen: «Bakea», esan zuen, «eta zoriona justiziaz diharduenari datozkio. O, gizaki gaztea! Zure bihotzak zuzenki bilatzen duenez egia, zure begiek oraindik ezagut dezaketenez, aurreiritzien itsualdia gaindituz, zure erregutzea ez da hutsala izanen, erakutsiko dizut eskatzen duzun egia hori, aldarrikatzen duzun jakinduria hori azalduko diot zure arrazoimenari, hilobien jakinduria eta mendeetako zientzia errebelatuko dizkizut...». Orduan, niregana gerturatuz, eta buru gaine-an eskua ezarritz, ondokoa esan zuen: «Altxa zaitez izaki hilkorra, eta ken ezazu itsutzen zaituen hautsa zeure zentzumenetatik...». Bat-batean,ugar zerutiar bat barneratzen zitzaidalarik, lurrarekin dauzkagun loturak hausten ari zitzaizkidala sentitu nuen, eta lurrean arin bat bezala, jeinuaren hegaldiak altxatuta, sentitu nuen leku garaiagoetara garraiatua nintzela. Han, airean garai, nire begiak behera lurrera lerratzen nituelarik, ikuskizun berri bat sumatu nuen. Nire oinpean, espa-



zioan nabigatzen zuelarik, ilargiaren antzerako globo batek, baina txi-kiagoa eta ilunagoa zenak, bere aurpegietako bat erakusten zidan. Aurpegi horrek diskoaren eitea zuen, orban handiak zeuzkan, batzuk zurixkak eta hodeitsuak, besteak arreak, berdeak ala grisaxkak; eta orban horiek zer ziren asmatzen ahalegintzen nintzen bitartean: «Egia bilatzen duzun gizaki horrek», esan zidan jeinu gidariak, «bereizten al duzu ikuskizun hori?». «O, jeinua!», ihardetsi nuen, «bestaldean ez banu ilargiaren globoa ikusiko, esango nukeen berau zela, ezen planeta horren antza baitu, eklipsea denean horren itzala teleskopiotik hala ikusten baita; edonork esango luke orban horiek itsasoak eta kontinenteak direla.».

«Bai», erantzun zidan, «itsasoak eta kontinenteak dira, zu bizi zaren hemisferiokoak berberak».

«Zer?», egin nuen oihu, «hori al da izaki hilkorrak bizi garen Lurra?».

«Bai», errepikatu zuen, «diskoaren zati handi bat betetzen duen eremu lanbrotsu hori, ia alde guztietatik mugatzen duena, zeuek ozeano zabala deritzazuena da, Hego polotik hasita eta Ekuatoreraino, lehenik Indiako eta Afrikako golkoa osatzen du, ekialderantz zabal-tzen da, Malasiako uhartetatik igaro eta Tatariako azken mugetaraino, mendebaldetik, aldiz, Afrikako eta Europako kontinenteak biltzen ditu, Asiako iparralderaino.

Gure oinpean, eite karratuko uharte moduko hori arabiarren eskualde idorra da, ezkerretara, barnean ia biluzik, eta soilik kanpoal-dean berde den kontinente hori, beltzak bizi diren zoru kiskalia da<sup>5</sup>. Horren iparraldean, itsaso irregular, luze eta estu horren gainean<sup>6</sup>, Europako lurak daude, zelaietan eta soro laboratueta narak; eskuin-nera, Kaspio itsasoaren ondoren, Tatariako lautada landu gabe eta elurtsuak zabaltzen dira. Guregana itzuliz, eremu zurixka hori Gobi basamortu zabal eta triste da, Txina gainontzeko munduko lurretatik bereizten duena. Begira ezazu zeharka okertuta dagoen bailara horre-tako eremu ezkuak gordetzen duen inperioa. Haren bazterretan ikus-ten dituzun lur-mihi bereizi eta aldentutako puntu horiek, herri malaien penintsula eta uharteak dira, lurrin eta perfumeen jabe triste-ak. Itsasora luze hedatzen den hiruki hori aski ezaguna den Indiar penintsula da<sup>7</sup>. Begira egiezu Ganges ibaiaren ibilbide bihurriari, Tibeteko mendi zorrotzei, Katxemirako zorioneko bailarari, Persiako

basamortu gaziei, Eufrates eta Tigrisen ibai bazterrei, Jordan ibaiaren ibilbide sakonari eta Nilo bakartiaren kanalei...».

«O jeinua!», esan nuen haren mintzaldia moztuz, «izaki hilkor baten ikusmenak nagoen distantziatik ezin ditu objektu horiek bereizi...». Segituan begiak ikutu zizkidan, eta nire begiak arranoarenak baino zorrotzagoak bilakatu ziren; eta, hala ere, uhin-mugimendua zuten zintak iruditu zitzaizkidan oraindik ere ibaiak, ildaska malkartsuak mendiak, eta hiriak, aldiz, dama-jokoko antzerako konpartimentu txikitxoak.

Eta behatzarekin objektuak seinalatuz, jeinuak ondokoa esan zidan: «Nilo ibaiak emankor egiten duen bailara estu horretan dakus-kizun harri landuzko pilo horiek, antzinako Etiopia harrotzen zuten hiri aberatsen hezurdurak dira. Begira egiozu han ehun jauregiko Tebasi<sup>8</sup>, zientzia eta arteen lehen metropoliari, hala dela ez badakite ere, hainbat herri gobernatzen dituen ideien sorleku misteriotuari. Beherago, euren masak harridura sortu dizuten bloke koadratu horiek piramideak dira; haratago, muga duten ibai bazter horretatik, itsasotik eta mendi malkartsu horietatik urrunago, feniziarren bizilekua izan zen. Han izan ziren Tiro, Sidon, Askalon, Gaza eta Berites hiriak. Irtenbiderik ez duen ur haritxo hori Jordan ibaia da, arroka lehor horiek behin munduan entzutetsu izan ziren gertakizunen antzeztokiz izan ziren. Hara hor Horeb basamortua eta Sinai mendia, bertan jende arruntak ezagutzen ez duen modu batez, gizaki ausart eta azkar batek gizateriarengan eragin handia izan duten erakundeak sortu zituen. Alboan den hondartza idor horretan, argitasun aztarnarik ez duzu sumatuko, eta, hala ere, bertan aberastasunak metatzen ziren. Hor ziren idumenearen itsaso-portuak<sup>9</sup>, bertatik Arabiar penintsula inguraturaz, ontziteria feniziar eta judua Persiar golkora abiatzen ziren, Hevilako perlak jasotzeko, eta Saba eta Ofirreko urrea. Bai, han, Oman eta Bahreineko kostaldean izan zen luxuzko merkataritzaren mugimendu eta aldaketek antzinako herrien etorkizuna finkatu zuten. Hara iristen ziren Sri Lankako lurrinak eta harri bitxiak, Katxemirako xalak, Golkondako harri bitxiak, Maldivatako anbarra, Tibeteko musketa, Kotxingo aloea, Indiako kontinenteko tximino eta indioilarrak, Hadramant-eko intsentsua, Afrikako mirra, zilarra, urre hautsa eta bolia. Handik abiatuta, batzuetan Itsaso Gorrian zehar, Egipto eta Siriako itsasontzietan garraiatuta, objektu horiek jarraian elikatu

zuten Tebas, Sion, Menfis eta Jerusalemeko oparotasuna; bestetzuetan, Tigris eta Eufratesetik gora eginda, asiriar, mediar, kaldear eta persiarren nazioen jarduna sustatu zuten; eta aberastasun horiek, ongi erabili ala horiez abusatzen zelarik, herri haien dominazioa eragin ala eragotzi zuten. Han dago zuk orain bere kolomak antzeman dituzun Persepolisen handitasunaren iturburua; baita Ekbatana-ren ere, haren zazpigarren bilgunea suntsitua den hori; Babiloniarena, orain ez dauzkana iraungitako lur piloak baizik; Niniverena, bere izena baino ez delarik ia geratzen; Tapsakes-ena, Anatho-ren, Gerra-ren, Palmira hondatu honena. O betirako loriatsu izanen diren izenak! Eremu ospetsuak, eskualde gogoangarriak! Zenbat ikasgai sakon eskaintzen dituen zeuen egungo itxurak! Zenbat egia sublime idatziak diren lur honen azalean! Iragandako garaiei oroigarriak, zatozte ene oroimenera! Horrenbeste garaitan zehar gizakiaren bizitzaren lekuko izan zareten tokiok, erakutsi gizakiaren Patuaren iraulpenak! Esadazue zeintzuk izan ziren zioak eta bitartekoak! Esan gizakiaren arrakastaren ala porrotaren zergatia! Erakutsi iezaiozue hari bere gaitzen jatorria! Eginiko akatsak argituz zuzen ezazue! Azal iezaiozue daukan jakituria, eta iragandako belaunaldien esperientziak osa beza egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat ikasbidea eta zorionerako hazia!»

## V. KAPITULUA

### GIZAKIAREN EGOERA UNIBERTSOAN

Isilune baten ostean, honela mintzatu zen jeinua:

«Jada esan dizut, o egiaren lagun horri! Gizakiak alferrik egozten die bere zoritxarra *eragile ilun eta irudizkoei*; alferrik bilatzen du bere gaitzen iturria *kausa misteriotsuetan*... Unibertsoaren ordena orokorrean, ez dago zalantzarik gizakiaren egoera zenbait eragozpenek baldintzatzen dutela, ez dago zalantzarik existentzia *goreneko indar* batzuen mende dagoela; baina indar horiek ez dira Patu itsu baten dekretuak, ezta izaki fantastiko eta bitxi batzuen kapritxoak ere. Gizakia parte den mundu horretan bezala, harengan *lege natural* batzuek agintzen dute, daukaten ibilbidean erregularrak direlarik, kontsekuenteak euren efektuetan, aldagaitzak euren esentzian. Lege horiek, *onuren eta gaitzen iturri amankomun*, ez dira urrunean astroetan idatziak, edo kode misteriotsuetan ezkutatuak, aldiz, izaki lurterren naturaren baitakoak, haien existentziarekin identifikagarriak,

garai eta leku orotan aurkezten zaizkio gizakiari, haren zentzumene-tan eragiten dute, haren adimena pizten dute, eta ekintza bakoitzare-kin zigorra ala saria dakarkiote. Gizakiak ezagut bitza lege horiek, *uler beza inguratzen duten izakien natura, baita norberarena ere*, eta ezagutuko ditu bere zoriaren egileak, jakingo du zeintzuk diren bere gaitzaren kausak, eta zeintzuk izan daitezkeen konponbideak.

*Unibertsoari bizia ematen dion indar sekretu* horrek gizakia bizi den globo hori eratu zuenean, berau osatzen duten izakiei *propie-tate esentzial* batzuk eman zizkien, banakoen mugimenduen *arau* bilakatuko zirenak, elkarren arteko erlazioaren lotune eta osotasuna-ren harmoniaren kausa. Horrela, kausa eta efektuen, printzipio eta ondorioen ordena erregular bat osatu zuen, beronek, *itxuraz halabe-harrez* gertatzen dela badirudi ere, unibertsoa gobernatzen du eta munduaren oreka mantentzen du. Horrela, suari mugimendua eta akti-bitatea eman zizkion, aireari malgutasuna, materiari pisua eta dentsi-tatea, airea ura baino arinago egin zuen, metala lurra baino astunagoa, altzairua egurra baino gogorragoa, sugarrari igotzea eragiten dio, harriari jaistea, landareari begetatzea, gizakiari –aldi berean, hainbes-te izaki anitzen *lilura agertzea* eta *haren bizitza hauskorra* mantentzea nahi zuelarik– *sentitzeko* ahalmena eman zion. Ahalmen horren bidez, haren existentziarako kaltegarria den edozerk *gaitza* eta *mina* eragiten du, eta ekintza faboragarri orok *plazera* eta *ongizatea*. Sentsazio horien bitartez, gizakiak –batzuetan bere zentzumenak mintzen ditue-netik aldentzen delarik eta bestetzueta atsegin ematen dietenei hur-biltzen zaielarik– beharra dauka *maitatzeko* eta *bere bizitza manten-tzeko*. Beraz, *norberarenganako maitasuna, ongi izateko desira, mina-rekiko higuina*, dira NATURAK berak *gizakiari inposatu dizkion lege esentzial eta oinarrizkoak*, gizakia gobernatzeko indar ordenatzaileak –edozein delarik ere– ezarri dituenak, eta lege horiek, *mundu fisikoa-ren mugimenduarenaren antzekoak*, bilakatu dira *mundu moralean gertatu den orenen* printzipio sinple eta oparo.

Halakoa da gizakiaren egoera: alde batetik, inguratzen duten elementuen mende dago, saihestezinak diren gaitz anitzek lotua, eta printzipio honetan NATURA zorrotza baldin bada ere, bestetik, justua eta barkabera ere badelarik, gaitzak ez ditu onura positiboek orekatu soilik, gizakiari batzuk handitzeko eta besteak txikitzeko ahalmena ere eskaini dio, badirudielarik honakoa esaten diola: ‘Nire eskuen sor-

kuntza ahula, ez dizut ezer zor eta bizia ematen dizut; ezartzen zaitudan mundua ez zen zuretzat egina, eta, dena den, haren gozamena eskaintzen dizut; onura eta gaitzez nahastuta topatuko duzu: zuri dagokizu horiek bereiztea, zuri dagokizu zure urratsak lore eta arantza tarteko ibilbidean bideratzea. Zure zoriaren arbitroa zara, nik zure etorkizuna entregatzen dizut...'. Bai, ziurrenik gizakia bere etorkizunaren jabe bilakatu da; berorrek sortu ditu aldizka bere zoriaren garai-pen eta porrotak; eta berorren bizitza martirizatu duten min anitzak ikusita, badauka arrazoirik kexu izateko bere ahultasunez edo zuhurtasun faltaz; kontuan hartuta zein printzipiotatik abiatu den eta zer garaierara iritsi, beharbada oraindik eskubide handiagoa du bere indarraz eta adimenaz harro izateko.»

## VI. KAPITULUA GIZAKIAREN JATORRIZKO EGOERA

«Jatorriz gizakia *gorputzik eta espiriturik gabea* osatua izan zelarik, halabeharrez lur nahasi eta basatira jaurtia izan zen: sortu zuen *indar* ezezagun horrek umezurtz laga zuelarik, zentzumenetatik sortzen zitzaizkion *nahiei* buruz gaztigatuko zion *zerutik jaitsitako izakirik* ez zuen bere alboan aurkitu gizakiak, irakatsiko zizkionik bere *nahietatik* datozen *betebeharrak*. Beste gainontzeko animalien antzera, iraganaren esperientziarik gabea, etorkizunaren aurreikuspenik gabea, basoetan zehar noraezean zebilen, bere naturaren joerek soilik gobernatua eta gidatua: *Goseak sortzen duen minak*, elikagaie-tara eraman zuen, eta bere iraupenaz arduratu zen; *eguratsaren baldintza okerre* gorpuzta estali nahi izatea eragin zioten, eta jantzi egin zen; *atsegin indartsu baten botereak* bera lako izaki batengana erakarrri zuten, eta bere espeziea iraunaraztea eragin zuen...

Beraz, objektu bakoitzetik jasoriko *inpresioek* bere *ahalmenak* piztu zituzten, mailaz maila bere ulermena garatu zuten, eta bere ezjakintasun handia ezereztzen hasi zen. Beharrek jarduna eragin zuten, arriskuek bere ausardia handitu zuten, ikasi zuen landare erabilgarriak eta kaltegarriak bereizten, elementuei aurre egiten, ehizaki bat harra-patzen, norbere bizitza defendatzen, eta modu horretan bere miseria txikiagotu zuen.

Horrela, *norberarenganako maitasunak*, *minarekiko jasaneezina*, *ongi izateko desirak* izan ziren NATURAK laga zuen egoera

*basati eta barbaro* horretatik gizakia apartatzeko arrazoi sinple eta boteretsuak; eta bere bizitza atseginez betea topatu zuenean, egun bakoitza goxotasunen batez hornitua zenean, eskubidea izan zuen bere burua zoriontzeko eta ondokoa esateko: ‘Ni naiz inguratzen nauten onurak sortu dituen, ni naiz nire zorionaren egilea: egoitza ziurra, jantzi erosoak, elikagai ugari eta osasuntsuak, soro oparoak, mahasti emankorrak, inperio populatuak, dena da nire sorkuntza; ni gabe desordenan utziriko eremu hau ez litzateke padura satsu bat baino, oihan basati bat baizik, mortu ikaragarria’. Bai, *gizaki sortzailea*, jaso ezazu nire omenaldia! Zeruaren zabalera neurtu duzu, astroen masa kalkulatu duzu, hodeietatik harrapatu duzu tximista, itsasoa eta ekaitza bezatu dituzu, elementuak zure mende ezarri dituzu. A! Nola nahastu ote dira halako traza sublimeak horrenbeste okerbiderekin!»

## VII. KAPITULUA GIZARTEEN PRINTZPIOEZ

«Basoetan eta ibai bazterretan zehar, ehizaz eta arrantzaz arduraturik, lehen gizakiek, arriskuez inguraturik, arerioek erasota, goseak, narrastiek eta piztia izugarriek tormentatuta, *gizabanako bezala zeukaten ahultasuna* sumatu zuten, eta konturatu zirenez bazela *ziur-tasunerako behar amankomun bat* eta *gaitz berberak izatearen elkar-rren arteko sentimendu bat*, euren bitartekoak eta indarrak batu zituzten. Bat arriskuan zenean askok lagundu zioten, bati elikagaia falta zitzaionean beste batek beretik emango zion. Modu horretan gizakiek *elkartea sortu zuten euren existentzia ziurtatzeko, euren ahalmenak handitzeko, euren gozamenak areagotzeko, eta norberarenganako maitasuna gizartearen printzipioa* bilakatu zen.

Beranduago, ikasgai harturik akzidente anitzen froga etengabeak, alde batetik besterako bizitza nomada baten nekeak, ohiko goseak eragindako ezinegonak, gizonek hausnarketa egin zuten, eta ondokoa pentsatu: ‘Zergatik igaro behar ditugu gure egunak zoru xuhur batean zehar barreiaturiko fruituak bilatzen? Zergatik indarrak xahutu ibaie-tan eta basoetan alde egiten diguten ehizakiak harrapatzen saiatzen? Zergatik ez ditugu gure eskura biltzen elikatzen gaituzten animaliak? Zergatik ez ditugu haiek defendatzen eta ez gara saiatzen haiek ugai daitezen? Haien produktuez elikatuko gara, haien larruekin jantziko gara, eta eguneroko nekeez zein etorkizuneko ardurez libratuko gara’.

Eta gizakiek elkarri lagundu zioten, harrapatu zituzten antxume arina, ardi herabea, pazientzia handiko gamelua, zezen bezagaitza, zaldi oldarkorra, eta, euren jardueraz harrotuta, arimaren gozamenaz deskantsatu eta lasaialdiaz eta aisialdiaz gozatu zuten, eta *norberarenga - nako maitasuna* bilakatu zen *arte eta gozamen ororen eragile*.

Horrela, gizakiek egunak igaro ahal izan zituzten aisialdi luze-ekin eta euren pentsamenduak elkarri komunikatzen, euren jakin-mina eta hausnarketa lurrera, zeruetara eta euren existentzia berera zuzendu zuten. Aztertu zituzten urtaroen ibilbidea, elementuen akzioa, fruitu eta landareen propietateak, eta euren espiritua gozamenak ugaritzera eman zuten. Zenbait eskualdetan, konturatu ziren zenbait hazik bolumen txiki batean substantzia osasuntsu bat gordetzen zutela, egokia zena garraiatua eta kontserbatua izateko, naturaren prozedura imitatu zuten, lurrian zabaldu zituzten arroza, garagarra eta garia, espero zuten moduan fruitu eman zutelarik, eta erdietsi zutelarik *espazio txiki batean, eta lekuz aldatu barik, substantzia anitz eta luzarorako bizigaiak* lortzeko modua; *bizileku egonkorrak hartu zituzten*, eraiki zituzten etxeak, herriak, hiriak; herrialdeak eta nazioak osatu zituzten; eta *norberarenganako maitasunak* jeinuaren eta ahalmenaren garapenak ekarri zituen.

Horrela, bere ahalmenaren laguntza soilarekin, gizakiak bere kabuz erdietsi du egun daukan garaierara iristea: eta arras zorionsua zatekeen, bere izaerari lotua dagoen lege naturalari estuki jaramon egin izan balio! Alabaina, zuhurtziagabetasun malapartatu bat dela eta –batzuetan mugak ez zekizkielako, bestetzueta haratago joan zelako– errore eta zorigaizto labirinto batean sartu da, eta *norberarenga - nako maitasuna*, batzuetan *trakets*, bestetzueta *itsu*, kalamitate iturri emankor bilakatu da.»

## VIII. KAPITULUA

### GIZARTEEN GAITZEN JATORRIA

«Izan ere, gizakiek euren ahalmenak garatu eta segituan, *zen - tzumenei erakargarri* zaizkien *objektuek harrapatuta*, desira zoroak asetzeari ekin zieten. *Euren existentziara atxiki zitezen NATURAK* emandako *sentsazio goxoak, benetako beharrekin lotuta zeudenak*, ez zitzaizkien jada nahikoak: ez ziren kontentatzen lurra eskaintzen zizkien onurekin, edo euren jarduerak sortzen zituenarekin, gozamenak

metatzea nahi zuten, eta euren kideek zeuzkatenak irrikatzen zituzten. *Gizaki indartsua gizaki ahularen aurka altxatu zen* horren nekearen fruitua ebasteko, eta *ahulak beste ahul bat deitu zuen bortxari aurre egiteko*; eta bi indartsuk ondokoa pentsatu zuten: ‘Zertarako geure eskuak *kantsatu* ekoizteko ahulen eskuetan diren gozamenak? *Elkar gaitezen*, eta *luma ditzagun*; haiek gure partez nekatuko dira, eta geuk nekerik gabe gozatuko dugu’. Eta *indartsuak* jazarpenerako batu ziren, *ahulak*, berriz, *erresistentziarako*. Gizakiek elkarri tormentu eman zioten, eta lurrian kalapita orokor eta zorigaiztoko bat hedatu zen; pasioak milaka forma berritan bersortu zirelarik, kalamitate kate etengabe bat osatu zuten.

Beraz, *norberaganako maitasun* hori bera, *moderatua eta arn* -  
zoizkoa zen artean *zorion eta perfekziorako printzipio* zelarik, *orde* -  
*narik gabea eta itsua* bilakatu zen, pozoi usteltzaile bihurtu zen; eta *kodizia, ezjakintasunaren* alaba eta laguna, lurra deboilatzen duten *gaitz guztien kausa* bilakatu zen.

Bai, EZJAKINTASUNA eta KODIZIA! Hara gizakiaren tormentu guztien jatorri bikoitza! Haiei zor zaie –zorionaren ideia falsuak sortu dituztelarik– gizakiak *naturaren legeak ez ezagutzea edo lege horiek talka eginaraztea* gizakiak kanpoko objektuekin duen erlazioan, eta, norbere existentziarekin kontentagaitz, gizakiak *gizabana* -  
*koaren morala bortxatzea*. Haiek eraginda, gizakiak *errukiari zarratu dio bere bihotza*, baita ekitateari ere, bere kideak laidoztatu eta mindu ditu, eta *moral* soziala ere bortxatu du. *Ezjakintasuna* eta *kodizia* dela-eta armatu da gizakia gizakiaren aurka, sendiak sendien aurka, tribuak tribuen aurka, eta lurra diskordia eta lapurreta antzoki odoltsu bilakatu da. *Ezjakintasuna* eta *kodizia* dela-eta, gerra sekretu batek, estatu bakoitzaren muinean sortzen denak, bereiztu ditu hiritarrak elkarren artean, eta gizarteak, jazarle eta jazarrien arteko, jabe eta esklaboen arteko bereizketa egin du. Haiek direla eta, nazio bateko buruzagiak, batzuetan ozar eta lotsagabe, euren armak zuzendu dituzte euren menekoen aurka, eta handinahi mertzenario bat despotismo politikoa-  
ren iturria izan da; bestetzueta hipokrita eta maltzur, zerutik botere gezurtiak eta uztarri sakrilego bat jaisten zirela sinestarazi dute; eta kodizia sineskor batek erlijio despotismoa sortu du. Haiek direla eta, azkenik, desnaturaldu dira *ongiaren* eta *gaitzaren* ideiak, *zuzenarena* eta *okerrarena*, *bizioarena* eta *bertutearena*, eta nazioak errore eta



kalamitate labirinto batean galdu dira... Gizakiaren *kodizia* eta *ezja - kintasuna*! Hara lurra hondatu duten *jeinu gaiztoak*! Hara inperioak galbideratu dituzten *zoriaren dekretuak*! Hara antzina loriatsu ziren murru horiek behera bota dituzten anatema zerutiarrak, hiri populatu baten argitasuna bilakatu dutenak doluko bakartasun eta auri! Baina gizakiaren baitatik sortu badira suntsitu duten gaitz guztiak, bere baitatik irtengo dira ere konponbideak, bertan bilatu beharko dira.»

## IX. KAPITULUA

### GOBERNUEN ETA LEGEEN JATORRIA

«Laster gizakiek, elkarri egiten ari zitzaizkien gaitzek nekatuta, bakea irrikatu zuten; eta haien zorigaiztoaren kausaz hausnarketa eginez, ondokoa pentsatu zuten: ‘Elkarri kalte egiten diegu gure pasioak direla eta; bakoitzak guztia bereganatu nahi duelarik, inork ez du ezer: batek egun batean ebasten duena, hurrengo egunean kenduko diote, eta gure kodizia gure aurka bueltatzen da. Ezar ditzagun *arbitro* batzuk *erabakiko dutenak* gure aldarrikapenen gainean eta gure tirabirak baketuko dituztenak. Indartsuak ahularen kontra egiten duenean, arbitroak zigortuko du, eta gure laguntza izanen du bere esku indarkeria geldiarazteko. Gutako bakoitzaren bizia eta jabetzak amankomunean jagonak eta babestuak izanen dira, eta naturako onura guztiez gozatuko dugu’.

Gizarteen baitan zenbait *konbentzio* sortu ziren, bai *adieraziak* zein *adierazi gabeak*, horiek bilakatu zirelarik gizabanakoen *ekintzen arau*, *eskubideen neurria*, elkarren arteko harremanaren *legea*. Zenbait pertsona izendatu ziren horiek betearazteko, eta herriak pertsona horiei *eskubideak* neurtzeko *balantza* eskaini zien, baita *ezpata* ere, *urratzeak* zehatzeko.

Beraz, gizakien artean indarren eta ekintzen *oreka* zoriontsu bat ezarri zen, amankomuneko *seguritatea* bilakatu zena. *Ekitatearen* eta *justiziaren* izena aitortu zen eta Lurrean begirunea izan zitzaien. Gizaki bakoitzak, bere lanaren fruituez bakean gozatzen ahal zuelarik, arimaren manamenduei ekin zien osoki, eta jarduera horrek, errealitateak ala gozamenen esperantzak sustaturik, artearen eta naturaren aberastasun guztiak loratu zituen: soroak uztaz bete ziren, bailarak abereez, muinoak fruituez, itsasoa ontziez, eta gizakia Lurrean zoriontsu eta boteretsu izan zen.

Horrela, gizakiaren beraren jakituriak konpondu zuen zuhurga-betasunak sorturiko desordena, eta jakituria hori naturaren legeen ondorioa izan zen, naturak berak bere egitura antolatzen zuelarik. Norberaren gozamenak ziurtatzeko gainontzeko pertsonenak errespikatatu ziren, eta *kodiziaz* konponbide bat topatu zuen *norberarenganako maitasun argitsu horretan*.

Hortaz, *norberarenganako maitasuna*, gizabanako bakoitzaren eragile betiereko hori, elkarte orotarako beharrezko oinarri bilakatu zen; eta *lege natural* horren zaintzearen arabera izan da nazio ororen zoria. *Lege artifizial eta konbentziozkoak* haren helburura zuzendu al dira eta helburua betetzen al dute? Izaki bakoitzak, sen indartsu batek mugitua delarik, bere izatearen ahalmen guztiak erabili ditu: *zorion partikular bakoitzetik* osatzen da *zorion publikoa*. *Lege* horiek, aldiz, gizakiak norbere zorionerako duen joera moztu zutenean, gizakiaren bihotza, bere benetako eragileez gabetarik, makaldu egin da jarduera ezagatik, eta gizabanakoen *ahitzeak ahultasun publikoa* sortu du.

Alabaina, *norberarenganako maitasunak*, oldarkorra eta zuhurtasunik gabea bilakatu denean, etengabe bultzatzen ditu gizakiak elkarren aurka, eta, beraz, *gizartearen desordena* dakar. *Legeen* arteak eta berorren *eragileen* bertuteak *kodiziaren liskarrak lasaitu* behar ditu, indarren arteko oreka mantendu, bakoitzaren *ongizatea* bermatu, gizartearen arteko talkan kide bakoitzak *interes* bera izan dezan *kausa publikoaren* defentsan.

Inperioen handitasunak eta oparotasunak, beraz, barnealdean daramate, kausa eraginkor bezala, gobernuen eta legeen *ekitatea*; eta euren botereak kanpoaldean du, neurri edo muga bezala, interesen kopurua eta kausa publikoarekiko dagoen interes maila.

Bestalde, gizakien ugaltzeak elkarren arteko harremanak konplikatuagoak egin dituenek, euren eskubideen mugatzea zailago egin duenez, pasioen joko eternalak aurreikusi gabeko gorabeherak eragin ditu. Konbentzioak akastunak, eskasak edo ezdeusak izanik, *legeen* egileek euren helburuak ezkutatu edo ezagutu ez dituztelarik, eta ministroak, gainontzeko pertsonen kodizia saihestearren, norberera bultzatuak direlarik, arrazoi horiek guztiek gizarteetan nahasmena eta desordena eragin dute, eta *legeen* akatsak eta gobernuen *bidegabeke-riak, kodiziatik eta ezjakintasunetik* sortuak, jendearen gaitzen eta estatuen subertsioaren kausa bilakatu dira.»

## X. KAPITULUA

### ANTZINAKO ESTATUEN GORALDIAREN ARRAZOI OROKORRAK

«Jakinduriaren bila zabiltzan gazte hori: aurriak baizik ez diren antzinako herrialde horien iraulpenerako arrazoiak aipatutakoak izan dira! Nire begirada finkatzen dudan lekua edozein delarik, nire pentsamendua bertara daramadan garaia edozein delarik, leku guztietarik nire espirituari agertzen zaizkio hazkunderako ala hondamendirako, arrakastarako hala dekadentziarako printzipio berberak. Alde guztietarik, herri bat boteretsu bilakatzen bada, inperio batek aurrera egiten badu, *konbentziozko legeak* eta *naturazko legeak* elkarri egokitzen zaizkiolako izaten da; *gobernuak* pertsonen euren ahalmenak libreki erabiltzea uzten dietelako, *euren buruak* eta *euren jabegoak denentzat berdin ziurtatuta daudelako*. Aldiz, inperio bat hondatzen edo *aurri* bilakatzen bada, legeak akastunak edo inperfektuak direlako izaten da, edo gobernu ustel batek hausten dituelako. Lehenago zuhurrak eta zuzenak ziren gobernuak, beranduago usteldu egiten badira, hori hala izanen da gizakiaren bihotzaren naturan, giza joerei bide ematean, ezagutzaren aurrerakuntzan, zirkunstantzia eta gertakizunen konbinazioan dagoelako ongiaren eta gaitzaren alternatiba; hori frogatzen du espeziearen historiak.

Nazioen haurtzaroan, gizakiak oraindik basoetan bizi zirenean, denek ere behar berberak zituzten, ahalmen berberak, antzeko indarra, eta berdintasun hori zirkunstantzia oparoa eta probetxagarria izan zen gizartearen sorkuntzan. Hari esker gizabanako bakoitza independente zen besteei, inor ez zen besteren esklabo, inork ez zeukan besteren jabe izateko gogorik. Gizaki hasi berriak ez zuen morrontza edo tiraniarik ezagutzen; bere ongizaterako baliabide egokiak zituelarik, ez zuen gainontzekoenen beharrik. Ez zuenez ezer behar, ez zuenez ezer eskatu behar, gainontzeko pertsonen eskubideak norberarenean arabera juzgatu zituen, eta justiziaren ideia zehatza zeukan. Gozamenen artea ezagutzen ez zuenez, beharrezkoa zitzaiona baizik ez zuen ekoizten. Funtseskoa ez zena kenduta, kodizia lo zegoen: esnatzera ausartuko balitz, gizakiak, benetako beharretan murgildurik, biziki eutsiko zion, eta erresistentzia horren ideiak soilik zorioneko oreka bat sortzen zion.

Horrela, *jatorrizko berdintasunak*, *konbentzio* faltan, gizakion *askatasuna* mantentzen zuen, *jabegoen segurtasuna*, eta aztura onak

eta ordena sortzen zituen. Pertsona bakoitzak bere kabuz eta norberarentzat egiten zuen lan. *Gizakiaren bihotzak, okupatuta* zegoelarik, *ez zeukan desira errudunik*. Gizakiak gozamen gutxi zeuzkan, baina bere beharrak aseak ziren. Natura barkaberrak beharrak txikiagoak egin zituenenez horiek asetzeko indarrak baino, gizakiaren eskuek laster abundantzia ekarri zuten; abundantziak populazioa. Arteak garatu ziren, laborantza hedatu zen, eta lurra, biztanle ugari beteta, eremu ezberdinetan zatitu zen.

Gizakien arteko harremanak konplikatu egin ziren, gizartearen ordena mantentzen zailagoa gertatu zen. Denborak eta jarduerak aberastasuna sortu zuten, kodizia biziago egin zen, eta berdintasuna, gizabanakoen artean erraza zena, sendien artean mantentzen zaila zenez, oreka naturala hautsi egin zen: beharrezko egin zen oreka artifizial batekin ordezkatzeari; beharrezko egin zen buruzagiak hautatzea, legeak eratzea, eta, hasierako esperientzia falta harekin, kodiziak eraginda, haren izaera hartu zuten. Baina zenbait zirkunstantziek desordena leuntzen lagundu zuten, eta gobernuak bultzatu zituzten justu izatera.

Izan ere, hasiera batean estatuak ahulak zirelarik, kanpoko arerioen beldur izan behar ziren, buruzagiei euren mende ziren herri-tarrak ez zapaltzea garrantzitsua zitzaien: hiritarrek euren gobernuarekiko zuten *interesa* gutxituko balitz, erresistentziarako baliabideak ere txikiagotuko ziren, atzerritarren inbasioak erraztuko ziren, eta, gozamen ez funtsezkoak direla-eta, norbere existentzia arriskuan zegokeen.

Barne muinean, herrien izaerak tirania arbuiatzen du. Gizakiak antzinatek zuen independentziarako ohitura; oso behar gutxi zuen, eta norbere indarraren sentimendu nabarmena.

Estatuak txikiak zirenez, zaila zen elkar zapal zezaten hiritarrek bereiztea: aise komunikatzen ziren, eta euren interesak argiak eta sinpleak ziren. Gainera, gizaki oro zen laborari eta jabegodun, inork ez zuen beharrik norbera saltzeko, eta despotak ez zuen mertzenario-rik topatuko.

Tirabirak sortzen baziren, sendien artekoak izaten ohi ziren, fakzioen artekoak, eta interesak beti ziren amankomunak pertsona kopuru handi batentzat: liskarrak ziurrenik sutsuagoak izanen ohi ziren; baina atzerritarrenganako beldurrak konponduezinak apaltzen

zituen. Talde batek lortzen bazuen zapalkuntza finkatzea, lurra irekia eta zabala zenez, eta gizakiak oraindik singleak, leku guztietan abantaila berberak topatzen zituztelarik, zapalduko taldeak alde egiten zuen, eurekin zeramatarik nork bere independentzia.

Antzinako estatuek, hortaz, euren baitan zuten oparotasunera-ko eta botererako baliabide ugari: horrela gizaki bakoitzak bere ongi-zatea lortzen zuen bere herrialdearen egituraren baitan, haren mantentzean interes handia zuen. Atzerritar batek eraso egiten bazion, norbere hazienda eta etxea defendatzen zituen, borrokara kausa pertsonalaren pasioa zeraman, eta norberaren sakrifizioak aberriaren aldeko sakrifizioa zekarren.

Horrela, publikoarentzat probetxugarria zen ekintza orok estimua eta esker ona zekartzanez, denak saiatzen ziren probetxugarri izaten, eta *norberarenganako maitasunak* talentu eta bertute zibilak areagotzen zituen.

Lurra libre zegoenez, eta bere jabetza segurua eta erraza zenez, bakoitza lurjabea zen. Jabegoen azpi banaketak azturak mantentzea eragiten zuen eta luxuak eragozten zituen.

Bakoitzak bere kabuz landatzen zuenez, laborantza aktiboagoa zen, uztak oparagoak, eta aberastasun partikularrak oparotasun publikoa zekarren.

Produktuen ugaritasunak biziraupena errazten zuenez, azkarra eta handia izan zen populatzea, eta estatuak laster iritsi ziren euren goreneko mailara.

Ekoizpena kontsumoa baino handiagoa zenez, merkataritzarako beharra sortu zen, eta herritik herrira trukea gertatu zen, aktibitatea eta gozamenak areagotuz.

Izan ere, zenbait leku, zenbait garaitan, ondo gobernatuak izateaz gain zirkulazio aktiboenaren bide erdian kokatuak zirenez, goraka egin zuten merkataritza guneko eta dominazio puntu bilakatu ziren. Niloren eta Mediterraneoaren bazterretan, Tigris eta Eufratesenean, Indiako eta Europako aberastasunek, bertan bildurik, jarraian altxarazi zituzten ehunka metropoli euren mailarik gorenekoaraino.

Herriak aberastuta, euren baliabideen soberakina erabilpen publiko eta amankomuneko lanetarako erabili zuten. Hortik sortu zen, estatu bakoitzean, espiritua liluratzen duten handitasuneko obra

horiek: Tiroko putzuak, Eufrateseko dikeak, Mediako lurrazpiko pasabideak<sup>10</sup>, basamortuko gotorleku horiek, Palmirako akueduktuak, tenplu horiek, arkupe horiek... Eta nazioak ez ziren lanez gainezka izan eginkizun horiekin, gizabanako lehiatsu eta askeen indar berdina eta amankomunaren ekoizpena izan baitziren.

Horrela, antzinako estatuek aurrera egin zuten, horietan gizarteko erakundeak *naturaren* benetako legeen arabera izan zirelako, eta, gizakiek gozatzen ahal zutelarik *askatasunaz* eta *segurtasunaz*, ahalmen guztiak garatu ahal izan baitzituzten, baita norberarenganako maitasun osoa ere.»

## XI. KAPITULUA

### ANTZINAKO ESTATUEN HONDAMENDIAREN ETA IRAULTZEN KAUSA OROKORRAK

«Nolanahi ere, kodiziaz gizakien artean borroka etengabe eta unibertatsala eragin zuen, eta, gizartearen eta gizabanakoen elkarren arteko inbasioak sortuz, iraultza eta liskar jarraituak eta etengabeak sortu zituen.

Lehen gizakien egoera basati eta barbaroan, kodizia zangar eta anker horrek harrapakaria, biolentzia eta hilketak eragin zituen, eta zibilizazioaren aurrerakuntzak geldotuak izan ziren luzaroan.

Gizarteak eratzen hasi eta gero, ohitura okerrearen eragina lege eta gobernuetara igaro zen, erakundeak zein berorien helburua usteldu zituen, eta eskubide arbitrario eta artifizialak sortu ziren, herriengana justiziaren eta moralitatearen ideiak perbertitu zituztenak.

Horrela, gizaki bat bestea baino indartsuagoa zenez, desberdintasun hori, naturan akzidentala dena, lege bilakatu zen<sup>11</sup>. Indartsuak ahulari bizia ken diezaiokeelarik, ez zionez kendu, bere gain hartu zuen abusuzko eskubide bat, eta *gizabanakoen esklabotasunak* nazioen esklabotasuna prestatuko zuen.

Sendi buruak etxean autoritate absolutua ezar zezakeenez, bere jarriaren arau bakartzat zeuzkan bere gustu eta pasioak: ondasunak berdintasunetik zein justiziarik gabe, eman eta kentzen zituen, eta *despotismo paternalak despotismo politikoaren* oinarriak ezarri zituen<sup>12</sup>. Oinarri horietan osaturiko gizartearen —denborak eta lan jardunak aberastasunak ugaltu zituelarik— kodizia, legeek oztokatzen zutenaz,

tolesago bilakatu zen, horregatik aktiboago izateari utzi gabe. Batasunaren eta bake zibilaren itxura engainagarriarekin, kodiziak estatu bakoitzaren muinean barne-borroka eragiten zuen, eta hiritarrak –talde ezberdinetan bereizita, ogibide, klase eta familia ezberdinetan aurrez aurre– etengabe saiaturiko ziren, *botere gorenaren* izenean, euren gain hartzera dena euren pasioen mende jartzeko eta dena eurentzat hartzeko ahalmena: *inbasio* espiritu horrek –beti moztorturik, baina beti berdina helburu eta zioetan– ez dio nazioak tormentatzeari utzi.

Batzuetan kodiziak –gizarte hitzarmenaren aurka, edo jada existitzen zena suntsitzen zuelarik– herrialde bateko biztanleen arteko tirabira guztiek talka egitea eragiten zuen; eta *estatu deseginak*, *anarkia* dela medio, kide guztien pasioek tormentatu zituzten.

Beste batzuetan, norbere askatasunaren ardura zeukan herri batek, bere administrakuntza *ordezkari* batzuen esku utzi zuelarik, *ordezkari* horiek ahalmenen jabe egin ziren, horien zaindari baino ez zirenean. Fondo publikoak erabili zituzten hauteskundeak usteltzeko, haien aldekoak bereganatzeko, herria bera zatitzeko. Bitarteko horiekin, euren ordezkaritza behin-behineko izatetik betirako izatera pasatu zen, hautazko izatetik jaraunspenezko izatera; eta *demokratizaren* desegokitasun guztiek atsekabetu zuten estatua: pertsona askonahien azpikeriek nahasita, aberats erreboltaerien eskuzabaltasunagatik, erraz eros daitezkeen gizagaixo nagiegatik, hizlarien enpirismoagatik, gizaki maltzurren ausarkeriagatik, gizaki bertutedunen ahultasunagatik.

Herrialde batean, indar bereko buruzagiek elkarri beldur zioten, paktu lotsagabeak egin zituzten, asoziazio gaiztoak; elkarren artean partitu zituzten ahalmenak, karguak, ohoreak; euren buruei eman zizkieten pribilegioak, immunitatea; talde bereziak, klase diferenteak bilakatu ziren; elkarrekin herria zapaldu zuten; eta *aristokrazia* ize-naz, handiek eta aberatsek estatua tormentatu zuten.

Beste herrialde batean, helburu bera bitarteko ezberdinekin bilatzen zelarik, *iruzurti sakratu* batzuek jende ezjakinaren sineskortasunaz abusatu zuten. Tenpluen iluntasunean, aldareen errezelen atzetik, jainkoak mugiarazi eta mintzarazi zituzten, orakuluak esan zituzten, gauza miragarriak egin zituzten, *sakrifizioak* eskatu zituzten, ofrendak inposatu zituzten, *fundazioak* derrigortu zituzten, eta *teokra* -

*ziaren* eta *erlijioaren* izenean, apaizen *pasioek* estatuak tormentatu zituzten.

Beste batzuetan, desordenaz eta tiranoez nazkaturik, nazio batek bere gaitzen iturburua txikitzearen buruzagi baten mende ezartzen du bere burua. Orduan, printzearen boterea mugatzen bazuen, hark zabaltzea baino beste desirarik ez zuen izanen, eta absolutua emango balitzaio, haren esku emandako eskaintzaz abusatuko luke. *Monarkia* bezala ezagutzen den horrekin, *errege* eta *printzeen* pasioek tormentatu zituzten estatuak.

Bestetzuetan, erreboltariak, espirituen nahigabeaz profitatuz, buruzagi hobeago baten esperantzarekin lausengatu zuten *herria*; hobariak eta promesak banatu zituzten; despota bere lekutik kendu zuten ordezkaturia izan zedin; eta haien ondorengotzarako eta banaketarako eztabaidek estatuak tormentatu zituzten *gerra zibilen* nahasmendu eta deboilatzearekin.

Azkenik, aurkari horien artetik, trebeago edo zorionekoago zen batek autoritatea bere gain hartu eta beregan kontzentratuko zuen botere osoa: fenomeno arras bitxi bat dela-eta, gizaki bakar batek milioika kide azpian hartzen zituen, haien borondatearen aurka edo haien baimenik gabe; eta *tiraniaren* artea sortu zen *kodiziatik*. Izan ere, gizaki guztiak zatitzen dituen espiritu berekoi hori ikusita, gizaki askonahi horrek trebeki jakin zuen espiritu hori sustazen: baten banitate lausengatzen zuen, bestearen bekaizkeria pizten zuen, honen zekenkeria losintzen zuen, haren erresumina bizitzen eta denon pasioak sumintzen zituen; aurreiritziak eta interesak elkarren artean aurka jarritz, tirabirak eta ezinikusiak ereiten zituen, txiroari aberatsa lumatuko zutela agindu zion, aberatsari txiroaren morrontza, pertsona bat bestearekin mehatxatu zuen, klase bat beste klase batekin; eta, mesfidantza bitartez hiritar guztiak isolatuz, haien ahultasunetik lortzen zuen bere indarra, eta *iritzi* uztarri bat ezartzen zien, lotuneak elkarren artean estutzen zirelarik. Armadaren bitartez kontribuzioez bereganatu zen; kontribuzioekin armada bere mende zuen; aberastasunekin eta karguekin jokatz, herri osoa kateatu zuen lotura disolbaezin baten bidez; eta *despotismoarekin* ahitzen joan ziren estatuak astiro-astiro.

Hortaz, zio berak, berorren akzioa forma guztiekin aldatzen delarik, etengabe atakatu zuen estatuen sendotasuna, eta pasioen zirkulu eternal batetik goibehera zirkulu betiereko bat sortu zen.



Bekaizkeria eta usurpazio espiritu etengabe horrek bi ondorio berdinki deitoragarriak eragin zituen nagusiki: batetik, gizarteak zati txikienetan bereizten zirelarik etengabe, ahultasuna eta *desegitea* zekarrela; bestetik, boterea esku bakar batean kontzentratzen zelarik, estatu eta gizarteen *absortzioa* zekarrela<sup>13</sup>, haien bakerako eta existentzia amankomunerako gauza zeharo txarra.

Izan ere, estatu batean alderdi batek nazioa bereganatzen zuen moduan, beranduago familia batek alderdia, gizabanako batek familia, modu berean, estatu batetik beste estatu batera bereganatze hori bera gertatzen zen, *ordena politikoari* era zabalean ekartzen zizkiolarik *ordena zibilaren* gaitz guztiak. *Hiri* batek beste hiri bat menperatzen duenean, haren azpiko egiten du eta probintzia bat osatzen du. *Probintzia* bi bereganatzen direnean, *erreinu* bat osatzen da. Azkenik, erreinu bi konkistatzen direnean, zabalera izugarriko *inperioen* jaiotza dakusagu. Metaketa horretatik, estatuen indarra berorien masa handiatik areagotu ordez, alderantzizkoa gertatu zen, txikiagotzea gertatu zen; eta, herrien egoera zorionekoagoa bilakatu ordez, egunetik egunera zorigaiztokoagoa eta kaskarragoa bilakatu zen, gauzen naturatik datozen arrazoiak direla medio...

Estatuak zabalera handiagoa hartzen zihoazen eran, euren administrakuntza konplikatuagoa eta zailagoa bihurtzen zelako, masa horiek mugitzeko beharrezko suertatu zen botereari energia handiagoa ematea, eta galdu egin zen subiranoaren betebeharren eta ahalmenen arteko oreka.

Despotek, euren ahultasuna sentitzen zutelarik, beldur zioten nazioen indarra garatuko zuen edozeri, eta hura indargabetzen saiatu ziren.

Nazioek –ezjakintasun aurreiritziek zein gorroto biziek bananduta– gobernuen maltzurkeria faboratu zuten; eta herri sateliteez baliatu, eta horien esklabotza areagotu zuten.

Estatuen arteko oreka hautsi zelarik, indartsuenek aise zapaldu zituzten ahulagoak.

Azkenik, statuak bildu egin ziren heinean, herriek, euren legeez, ohiturez eta komeni zitzaizkien gobernuez gabeturik, euren energia sortzen zuen *personalitate* espiritua galdu zuten.

Despotek, inperioak euren jabetzako alor bezala kontsideratzen zituztelarik, eta herriak euren jabetza, harraparitzari eta autoritatearen lardaska arbitrarioenari ekin zieten.

Nazioen indar eta aberastasun guztiak gastu partikularretarako eta fantasia pertsonaletarako erabiliak izan ziren. Erregeek, asebetetzearen asebetetzez, gustu artifizial eta ustelenak asetzeari ekin zioten; beharrezko izan zituzten bobedatatik zintzilik ziren lorategiak, mendien gainetik igarotzen ziren ibaiak; landa emankorrak ehizarako parke bihurtu zituzten; eremu lehorretan zingirak sortu zituzten; zingiretan haitzak ezarri zituzten; marmol eta porfidozko jauregiak erai-ki zituzten; urrezko eta diamantezko altzariak nahi zituzten. Erlijioa-ren aitzakiarekin, haien urguiluak tenpluak eratu, apaiz nagiez bete, eta eskeleto hutsalenzat hilobi bitxiak, mausoleoak eta piramideak eraiki zituen<sup>14</sup>. Erreinaldi osoetan, *lan antzuetan* jardun ziren milioi-ka beso; eta printzeen luxua –horien parasitoek imitaturik, eta mailaz maila azkeneko klaseetara transmitituta– ustelkeriarako eta txirotasu-nerako iturburu bilakatu zen.

Eta gozamenetarako egarri aseegin horretarako, ez ziren nahi-koak ohizko zergak, handitu ziren hortaz. Laboraria, bere zama kon-pentsaziorik gabe handitzen zela ikusita, atsekabetu zen. Merkataria, bipildua zela ikusita, nekatu egin zen bere jardunaz. Jendetzak, txiro izatera kondenatuta, lan jarduna gutxienekora eta beharrezko zenera jaitsi zuen; eta jarduera produktibo oro deuseztatu zen.

Gainkarga honek kostu handikoa egin zuen lurren jabetza, jabe umilak bere lurrak utzi, edo boteretsuari salduko zizkion. Aberastasu-nak esku kopuru murrizt batean kontzentratuko ziren. Lege eta era-kunde guztiek metaketa horri lagunduko zieten, nazioak bereiztu ziren, batetik, egonean bizi ziren handiki batzuen eta, bestetik, mer-tzenario txiro saldo batean. Herri behartsua gaiztotu zen; handikiak, asebeteta, maltzurtu ziren; eta estatuaren iraupenean interesa zutenak urritu zirenez, haien indarra eta existentzia gero eta eskasagoak bila-katu ziren.

Bestalde, emulazioari ez zitzaionez eskaintzen objekturik, edo hezkuntzari suspergarririk, espirituak ezjakintasun sakon batean mur-gildu ziren.

*Administrazioa sekretua* eta *misteriotsua* bilakatu zenez, ez zegoen modurik hobekuntza edo erreformarako; buruzagiek bortxaz eta iruzurraz agintzen zuten, herriek haiengan ez zuten ikusten *fakzio* arerio publiko bat baino; eta gobernu eta gobernatuen artean ez zen jada inolako harmoniarik.

Bizio horiek guztiek Asia oparoko estatuak makaldu zituztelarik, alboko *basamortu* eta *mendietako* herri ibiltari eta txiroek *lauta* -*da* emankorrek ematen zutena desiratu zuten. Kodizia komun bat dela eta, *inperio zibilizatuak* eraso zituzten. Iraultza horiek azkarrak eta errazak izan ziren, tiranoen politikak subjektuak makaldu, gotorlekuak suntsitu eta gerlariak akabatu baitzituen eta subjektu jazarriak ez baitzeukaten interes pertsonalik ez eta soldadu mertzenarioek ausardiarik ere.

Barbaroen hordek nazio osoak esklabotasun egoerara azpiratu zituztelarik, herri konkistatzaile batez eta herri menperatu batez osatutako inperioek beraien baitan bi klase zeuzkaten esentzialki aurka-koak eta arerioak. Gizartearen printzipio oro desegina izan zen: ez zen gehiago interes *amankomunik* edo espiritu *publikorik*; eta *kasta* edo *arraza bereizketa* bat egin zen, desordenaren iraupena sistema erregularrak bilakatu zuena. Odol batekoa edo bestekoa jaiatz gero, bat jopu ala tirano izanzen zen, *jabego* ala *jabe*.

Zapaltzaileak zapalduak baino gutxiago zirenez, beharrezkoa suertatu zen, oreka faltsu hori mantentzeko, *zapalkuntzaren zientzia* perfektionatzea. Gobernatzaren artea soilik zen gizaki kopuru txikiak gizaki kopuru handiena menperatzea. Senarekiko hain aurka-koa zen obedientzia bat erdiesteko, beharrezkoa egin zen zigorrak zorrotzenak ezartzea; eta legeen ankerkeriak ohiturak errukigabe egin zituen. Eta pertsonen bereizketak kode bi, justizia bi, zuzenbide bi sortu zituen; herriak –bihotzaren joeren eta ahoak emandako hitzaren artean kokatuta– bi kontzientzia elkarren aurkakoak zeuzkan, eta zuzenaren eta bidegabearen ideiek ez zuten bere ulermenean oinarriarik batere.

Halako erregimen batekin herriak etsipenean eta abailduran erori ziren. Naturako akzidenteak batzen zitzaizkiolarik erasaten zieten gaitzei, horrenbeste zoritxarrek akituta, ezkutuko botere goren batzuei egotzi zizkieten kausak. Lurrean tiranoak zeuzkatenez, zeruan ere halakoak zeudela suposatu zuten; eta superstizioak nazioen ezbeharrak larritu zituen.

Sortu ziren doktrina deitoragarriak, erlijio sistema zakar eta misantropoak, margotu zituztenak euren jainkoak, despotak legez, *mal-tzur* eta *bekaizti*. Jainko horiek lasaitzearren gizakiak bere gozamen guztiak eskaini zizkien sakrifizio moduan: *pribaziotan* murgildu zen,

eta naturaren legeak irauli zituen. Norbere *gozamenak krimentzat* joz, *sufrimenduak bekamentzat*, gura zuen *atsekabea maitatu*, *norberaren-ganako maitasuna arnegatu*; bere zentzumenak mortifikatu zituen, bizitza gorrotatzen zuen; eta *nork bere buruari uko egitea eragiten zuen moral antisozial* batek nazioak heriotzaren inertzian pulunpatu zituen.

Baina natura zuhurrak gizakiaren bihotzean esperantza agortezina ezarria zuen, eta ikusita bere zorion desira lur honetan zapuztua zela, *beste mundu batean* bilatu zuen: ilusio gozo batekin, *beste mundu bat* imajinatu zuen, tiranoetatik urruti *aterpe* bat, naturaren esku-bideak berreskuratuko zituen lekua. Hortik beste desordena bat sortu zen: *alegiatzko mundu* batekin asebeteta, naturarena mespretxatu baitzuen; *esperantza* kimeriko batzuen alde, *errealitateari* ez zion jaramonik egin. Haren irudirako bizitza ez zen jada *bidaia nekagarri* bat baino, amets *mingarri* bat; bere gorputza *kartzela* bat, zorionerako oztopo; eta lurra, *erbestea* edo *erromesbidea*, ez duena kultibatzea merezi. Orduan *mundu politikoan laxotasun sakratu bat ezarri zen*, soroak desertatu ziren, lugorriak ugaritu ziren, inperioak despopulatu ziren, ez ziren monumentuez gehiago arduratu; eta alde guztietarik ezjakintasunak, superstizioak, fanatismoak, euren eragina bateraturik, hondamendia eta aurriak ugaritu zituzten.

Horrela, norbere pasioek aztoratuta, gizakiak, mordoka ala banaka, beti irritsu eta ausartegi, esklabotasunetik tiraniara igarota, urguilutik degradaziora, etengabe izan ziren norbere zorigaiztoaren instrumentu.

Hara zeintzuk izan ziren antzinako estatuak gidatu zituzten zio single eta naturalak. Hara zein kausa eta ondoriok —elkarri lotuak eta hurrenez hurrenekoak— altxarazi ala akitu zituen, giza bihotzaren legeei jaramon egin ala ez; eta beraien ibilbidearen gorabeheretan, ehun herri anitzek, ehun inperio jarraian eroriek, boteretsuek, konkistatuek eta suntsituek, lurrari ikasbide hezigarriak eman dizkiete... Ikasgai horiek ondorengo belaunaldientzat galduak dira baina! Iragandako garaietako desordenak oraingo arrazatan berragertu dira! Nazioetako buruzagiek tiraniaren eta iruzurraren bidetik darraite, eta herriak superstizioaren eta ezjakintasunaren iluntasunean galtzen dira oraindik ere!

Eta?», esan zuen jeinuak laburbilduz, «egun bizi diren pertsonen antzinako arrazen esperientziek ez dietenez ezertarako balio,

gurasoen okerrak ez dituenek hezi oraindik ere ondorengoak, antzinako adibideak berragertuko dira: ahantziriko garaietako ikuskizun lazgarriak ikusiko ditu osterak ere Lurrak. Iraultza berriek astinduko dituzte herri eta inperioak. Tronu boteretsuak irauliko dira osterak, eta katastrofe izugarriek erakutsiko diete gizakiei ez zituztela alferrik hausten naturaren legeak eta jakinduriaren eta egiaren aginduak.»

## XII. KAPITULUA

### IRAGANDAKO GARAIEN IKASGAIK, EGUN ERE ERREPIKATZEN DIRENAK

Hala mintzatu zen jeinua. Harrituta bere diskurtso osoaren zuzentasunaz eta koherentziaz, nire azturekin talka egiten zuten arren nire arrazoia harrapatzen zuten ideia mordo batek hunkituta, isiltasun sakon batean murgildurik geratu nintzen... Baina, aldarte triste eta pentsakorra neukala, Asian tinko ezarria nuela begirada, iparraldetik, Itsaso Beltzaren bazterretik eta Krimeako lur zabalek, sugar eta ke zurrunbiloek nire arreta erakarri zuten. Bazirudien aldi berean altxatzen zirela penintsula osotik, istmotik kontinentera igaroz, mendebaldeko haizeak eramango balitu legez. Azof-eko laku lupetsuan zehar jarraitzen zuten bizkor, eta Kubango lautada belartsuetan barrena galtzen ziren. Zurrunbilo horiek gertuagotik aztertuz, konturatu nintzen haien aurretik izaki mugikorren pelotoia zihoala, hortik zehar dabilen pertsona batek traba egiten dien inurri edo otiak bezala, bizitasunez mugitzen zena: batzuetan bazirudien pelotoi horiek batzuek besteen aurka egiten zutela eta elkarri eraso egiten ziotela; geroago, talkaren ostean asko gelditu mugimendurik gabe geratzen ziren... Eta ikuskizun honekin urduri, objektuak bereizten saiatzen ari nintzelarik:

«Ikusten al dituzu», esan zidan jeinuak, «Lurra zeharkatzen duten su horiek, eta ulertzen al duzu haien ondorioak eta haien kausak?»

«O jeinua», ihardetsi nuen, «ikusten ditut sugar eta ke zutabe horiek, eta haiekin doazen intsektu antzeko horiek; baina apenas bereizten baditut hiri eta monumentu masa handiak, nola bereiziko ditut halako izaki txikiak? Soilik esango dut dirudienek intsektu horiek gudan direla; badoazelako, badatozelako, elkarrekin talka egiten dutelako, elkarri segika dabilzalako.»

« Ez dirudi, ez », esan zuen jeinuak, « hala ari dira. »

« Eta nortzuk dira, » itaundu nion, « animaliatxo ero horiek hala-ko basakeriaz elkar suntsitzen dutenak? Ez al dira goizegi hiltzen, egun bakarra baino bizirik ez dirauten horiek? »

Orduan jeinuak nire ikusmena eta entzumena berriz ere ikutuz, esan zidan: « Begira, eta *uler ezazu*. »

Nire begiak segituan objektuetara lerratu ziren: « A! Dohaka-beak, » oihu egin nuen saminduta, « sugar zutabe horiek! Intsektu horiek! O jeinua! Gizakiak dira, gerraren hondamendia da! Hirietatik eta herrixketatik datoz sugar piloak! Ikusten ditut pizten dituzten zaldunak, sablea eskuetan landak zeharkatzen dituztenak. Haien aurretik haur, emakume eta agure-atso saldoa dakusat zeharo izututa ihesian. Ikusten ditut beste zaldun batzuk, lantza sorbaldan daramatela, haiek laguntzen eta gidatzen dituztenak. Tatariarrak direla ere bereiz dezaket, lotuta daramatzaten zaldiengatik, euren kalpakengatik eta euren ile matazengatik, eta haiek segika dituztenak, zalantzarik gabe, hiruki formako txapela eta jantzi berdeak daramatzatenak moskutarrak dira. A! Ulertzen dut, guda piztu da tsarren eta sultanen inperioen artean. »

« Ez, oraindik ez, » erantzun zuen jeinuak, « hasiera baino ez da. Tatariar hauek auzokide gogaikarriak izan eta izanen dira, eta haie-taz libratu nahi dute. Bestalde, haien herrialdea oso ona da, eta hala euren inperioa zabaltzen dute. Beste iraultza baten atarian bezala, gue-raisdarren tronua suntsitua da. »

Hala zen; izan ere, dantzan flotatzen ikusi nituen Krimean errusiarren zutoihalak; eta Euxine-n zabaldu zuten haien bandera.

Alabaina, tatariar iheslariaren garrasiekin musulmanen inperioa hunkitu zen. « Gure anaiak jazartzen ari dira, » egiten dute oihu Mahomaren haurrek, « profetaren herria laidotzen ari dira! Fedegabe-ak lur sakratua okupatzen, eta islamismoaren tenpluak profanatzen ari dira. Arma gaitezen, goazen bizkor borrokara Jainkoaren loriarako eta gure kausa mendekatzeko. »

Segituan inperio bien artean gerra orokor bat sortuko zen. Alde guztietarik bildu ziren pertsona armatuak, hornidurak, muni-zioa, eta borrokarako aparatu hilgarri osoa erabiltzen zituzten. Nazio bietako tenpluek, bertan jendetza ikaragarria biltzen zelarik, nire arre-ta erakartzen zuen ikuskizuna eskaini zidaten. Alde batetik,

musulmanek, euren moskeen aurrean bilduta, esku eta oinak garbitu, atzazalak moztu eta bizarrak orrazten zituzten; ondoren, zoruan tapizak zabalduz eta hegoaldera itzuliz, besoak batzuetan irekita, bestee-tan gurutzatuta, belaunikatzeak eta umiltzeak egiten zituzten. Azke-neko gudan izandako ezbeharrak gogoratuz, ondokoa egiten zuten oihu: «Jainko errukitsua, Jainko miseri-kordiatsua! Abandonatu al duzu zure herri fidela? Zuk, nazioen agintea profetari promestu dio-zun horrek, hainbeste garaipenekin erlijioa seinalatu duzun horrek, nolatan ezartzen dituzu *benetako sinestunak* fedegabeen aitzopean?». *Imanek* eta *eremutarrek* ondokoa esaten zioten herriari: «Zeuen beka-tuengatik zigorra da. Txerria jaten duzue, ardoa edaten duzue, gauza lohiak ikutzen dituzue: Jainkoak zigortu zaituzte. Egin ezazue peni-tentzia, purifika zaitezte, zeuen *fede frog*a errepika ezazue<sup>15</sup>, egin ezazue barau egunsentitik iluntzera arte, zeuen ondasunen detxema emai-zue moskeari, zoazte Mekara, eta Jainkoak garaipena eskaini-ko dizue». Herriak, adorea berreskuratuz, oihu lazgarri itzela egiten zuen: «Jainkoa bakarra da,» zioen furfuriatsu, «eta Mahoma da haren profeta: anatema bekio hala dela sinesten ez duenari! Jainko bihoz-bera, kristau horien suntsitzea ahalbidera iezaguzu: zure loriarako borrokatzen gara, eta gure heriotza, zure izenean eginiko martirioa da». Zenbait biktima eskainiz, ondoren, borroketarako prestatzen ziren.

Bestetik, errusiarrek, belaunikaturik, hala eskatzen zuten garrasika: «Eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari, eta ospa dezagun bere boterea, gure besoa indartu baitu haren arerioak umilia ditzagun. Jainko *onegile*, entzun itzazu gure eskariak: zuri atsegin emateko hiru egunez ez dugu ez okelarik ez arrautzarik jango. Ahalbidera iezaguzu mahometar fedegabe horiek akabatzea eta haien inperioa suntsitzea. Harrapakinaren hamarrena emango dizugu, eta tenplu berriak eraiki-ko dizkizugu». Apaizek ke hodei batekin bete zuten eliza, eta ondo-koa esan zioten herriari: «Zeuengatik egin dugu otoitz, Jainkoari atse-gin zaio gure intsentsua, eta zuen armak bedekintzen ditu. Jarrai eza-zue barau egiten eta borrokan, esazkiguzue zeuen oker sekretuak, eman iezazkiozue elizari zuen ondasunak: zeuen bekatuak absolbitu-ko ditugu, eta graziaz beteta hilko zarete». Ura jaurtitzen zioten herriari, hildakoen hezurtxoak banatzen zituzten talisman edo kutun gisa, eta herriak gerra eta borroka baino ez zuen arnasten.

Pasio berberen kontrastezko koadro hori ikusterakoan hunkituta, horien ondorio deitoragarriek minduta, hausnartu nuen ea amankomuneko epaile batek nola erantzun ziezaiekeen eskaera hain aurkakoei. Orduan jeinuak, amorratuta, sutsuki egin zuen oihu:

«Zer eromen doinuk mintzen dituzte nire belarriak? Zer burugabekeria itsu eta maltzurrek nahasten du nazioen espiritua? Otoitz sakrilegoak, ez zaitezte lurretik atera! Eta, zuk, zeruak, arbuia itzazu haien boto hilgarriak, haien ekintza eta grazia lotsagabeak! Hilkor burugabeak! Horrela gurtzen al duzue jainkotasuna? Esadazue! Nola da posible zeuen aita amankomun deritzazuen horrek zuengandik omenaldia jasotzea, bere seme-alabek elkarri lepoa mozten badiete? Irabazleok! Nola begira litzake begi onez zuen eskuak hark sortu zuen horrekin odolduak? Eta zuek, gailenduok! Zer espero duzue alferreko aiene horietatik? Jainkoak hilkorren bihotza al du akaso, pasio aldakor horiek ere izateko? Bera ere, zeuek bezala, mugitzen du mendekuak ala gupidak, furfuriak ala damuak? O! Zein ideia kaskarra duten izaki guztietarik gorenaz! Horiek entzuterakoan badirudi, bitxia eta apatetsua izanik, *Jainkoa* gizaki bat legez haserretu edo lasaitzen dela; aldizka maitatu ala gorrotatzen duela, kolpatzen ala ferekatzen duela; ahul edo maltzur, gorrotoak ezkutatzen dituela; kontraesankorra eta zitala izanik, lakioa ezartzen duela jauz daitezen; baimentzen duen gaitza gero zigortzen duela; krimenak aurreikusten dituela, horiek eragotzi gabe; epaile partzial bat legez eskaintzekin ustel daitekeela; batere zuhurra ez den despotak lege, segituan bertan behera botako dituen legeak egiten dituela; tirano krudelak lege bere graziak justiziarik gabe kendu ala ematen dituela, eta ez dela samurtzen makurkeriekin baizik... A! Orain ulertu dut gizakiaren faltsukeria! Sortu duen Jainkotasunaren koadroa ikusita, ondokoa diotsot neure buruari: Ez, ez, ez da *Jainkoa bere irudira egin duena giza-kia; gizakiak bere antzera irudikatu du Jainkoa*; bere espiritua eman dio, bere joerak atxiki dizkio, bere juzguak egotzi dizkio... eta nahastura horretan bere printzipioekin kontraesana topatu duenean, umiltasun hipokrita baten itxurakeria eginez, bere arrazoimenari ezintasuna egozten dio, eta bere ulermenaren zentzugabekeriak *Jainkoaren misteriotzat* jotzen ditu.

Ondokoa esan du: Jainkoa *aldagaitza* da, eta botoak egiten ditu *alda* dadin. *Ulergaitza*, esan du, eta etengabe interpretatzen du.



Lurrean agertu dira *iruzurti* batzuk, euren buruak *Jainkoaren konfidentetzat* dauzkatena, eta herrien doktore bezala dihardutenak, gezurrari eta bidegabekeriari bidea irekiz: meritua ezarri die interesik gabeko jardura irrigarriei; bertutedun kontsideratu dituzte jarrera jakin batzuk hartzea, hitz jakin batzuk ahoskatzea, izen jakin batzuk ebakitzea; delitu bihurtu dute haragi jakin batzuk jatea, likido jakin batzuk edatea, egun batzuetan bai, besteetan ez. Judu batek nahiago luke hiltzea, *zapatuan lan egitea* baino; persiarrak nahiago luke itomena, *arnasarekin suari putz egitea* baino; indiarrek perfekzio gorena egotzi dio *behi gorotzarekin azala igurzteari*, eta misterioitsuki *Aum* hitza ahoskatzeari<sup>16</sup>; musulmanak dena konpondua dagoela irizten du, burua eta besoak garbituz gero, eta sablea eskuetan duela eztabaidatuko du *ukalondoetatik* ala *hatz muturretatik* hasi behar duen<sup>17</sup>; kristauak kondenatuta dagoela pentsatuko du esnea edo gurina jan beharrean gantza jaten badu. O doktrina sublime eta benetan zerutiar! O moral perfektu eta martiriorako eta apostolutzarako duin! Itsasoak zeharkatuko ditut lege miresgarri horiek herri basati, nazio urrutienekoei, irakasteko; ondokoa esango diet: *Naturaren seme-ala-bak! Noiz arte jarraituko duzue ezjakintasunaren ibilbidetik? Noiz ezagutuko dituzue moralaren eta erlijioaren egiazko printzipioak? Zatozte ikaskizunak aurkitzera herri fededun eta jakintsuetara, herrialde zibilizatueta; irakatsiko dizuete nola Jainkoari otoitz egiteko beharrezkoa den, urtearen zenbait sasotan, egun osoan gosez eta egarritz makaltzea; nola posible den hurkoaren odola isurtzea, eta krimen hori garbitzea fede-aitormena edo ikuzketa metodikoa eginez; nola hari ongizatea ken dakioken, eta absolbitua izan, haren ondasunak irenstera dedikatzen diren pertsona jakin batzuekin partituz gero.*

*Unibertsoko botere subirano eta ezkutua! Naturaren motor misterioitsua! Izakien arima unibertsala!* Zu, hainbat izen ezberdinpean, hilkorrek gurtzen zaituzten hori; *izaki ulergaitz infinitua*; zeruaren mugagabetasunetik munduen ibilbidea zuzendu eta espazioa milioika eguzki zirimolatsuz populatzen duzun Jainkoa; esadazu, zer dira zure begientzat giza intsektu horiek, Lurrean dabiltzala nire ikusmenak dagoeneko galdu dituenak? Astroak euren orbitatik gidatzen diharduzunean, zer dira zuretzat hautsean bihurtzatzen diren zizare horiek? Zer axola zaizkio zure mugagabetasunari haien alderdiak, haien sek-

tak? Eta zer dira zuretzat haien eromena tormentatzen duten huskeria horiek?

Eta zuek, gizaki sineskorrok, erakutsiezadazue zeuen praktiken eraginkortasuna! Hainbeste mendetan jarraitu ala aldatu dituzue-larik, zer eragin izan dute zuen *prozedurek* naturaren legeetan? Distiratsuagoa al da eguzkia? Urtaroen ibilbidea ezberdina al da? Lurra emankorragoa al da? Herriak zoriontsuago al dira? Jainkoa ona bada, nola izan dezake atsegin zeuen penitentziekin? Infinitua baldin bada, zer gehitzen diote zeuen omenaldiek haren loriari? Haren dekretuek dena aurreikusia badute, zer aldatuko dute zeuen otoitzek? Erantzun, gizaki inkontsekuentek!

Zuek, Jainkoa zerbitzatzen duzuela diozuen garaileok: zeuen laguntzaren beharra al du? Zigortzea nahi balu, ez al dauzka bere esku lurrikarak, sumendiak, tximistak? Jainkoa bihozbera bada, sarraskitu beharrean ezin al du okerrak zuzendu?

Zuek, musulmanok, *bost* manuen hausteagatik zigortzen bazaituzte Jainkoak, nolatan faboratu ditu frankoak, arau haietaz trufatzen baitira? Koranaren bidez zuzentzen baldin badu lurra, zein printzipioren bitartez juzgatu zituen profeta baino lehenagoko nazioak, ardoa edaten baitzuten, txerria jan, ez zihoazen inoiz ere Mekara eta, hala ere, inperio boteretsuak eratzea laga baitzien? Zelan juzgatu zituen Ninive eta Babiloniako sabatarrak; persiarra, suaren gurtzaile; greziarra, erromatarra, idolatrak; Niloko antzinako erresumak, baita zeuen aitona-amonak ere, arabiar eta tatariarrak? Egun nola juzgatzen ditu zuen gurtza ezagutzen edo jarraitzen ez duten hainbeste nazio, indiarren kasta anitzak, txinatarren inperio zabala, Afrikako tribu beltzak, Ozeaniako uhartetarrak, Amerikako herrialdeak?

Gizaki handiuste eta ezjakinak, Lurraren jaun eta jabe zaretela uste duzuenak! Jainkoak aldi berean bilduko balitu iragandako eta egungo belaunaldi guztiak, zer lirateke ozeano zabal horretan norbera unibertsaltzat duten kristau edo musulman sekta horiek? Zeintzuk lirateke haren justizia amankomun eta berdinarenean epaiak gizakion benetako unibertsaltasunean? Hor ikusten da zeuen espiritua sistema inkoherentetan galtzen dela, eta egiak ebidentzia osoarekin distiratzten du. Hor agertzen dira naturaren eta arrazoiaren lege boteretsu eta sinpleak: *motor orokor amankomun* baten legeak, Jainko inpartzial eta zuzen batenak, honek, herrialde batean euria egin dezan, ez du galdetzen zein

den berorren profeta. Berdin distirarazten du eguzkia giza arraza guztiengan, *zuriarengan* zein *beltzarengan*, judu, musulman, kristau zein idolatrarengan. Uztak oparo egiten ditu, esku langileek jarduten dutenean. Industriak eta ordenak zuzentzen dituzten nazioak ugaltzen ditu. Aurrera darama justizia praktikatzan duen inperio oro; gizaki indartsua legearen mende dagoen hori; txiroa segurtasunean bizi den hori; azkenik, pertsona guztiek *naturatik* eta zuzentasunez eginiko *hitzarmen* batetik datozkien legeak gozatzen dituzten leku hori.

Hara zein printzipioren arabera juzgatzen diren herriak! Hara inperioen zoria zuzentzen duen benetako erlijioa, zuena otomandarrena ere, zuen etorkizuna hark agintzen baitu! Galde egiozue zuen asabei! Galde iezaiozue ea nola lortu zituzten ondasunak, gutxi, txiro eta *idolatrak* izanik, tatariar basamortuetatik etorri ziren lur aberats haue-tara etorri zirenean. Galde iezaiozue ea islamismoagatik –orduan ezezaguna baitzen– gailendu zitzaizkien greziarrei eta arabiarrei, ala ausardia, zuhurtasuna, moderazioa eta batasun espiritua dela eta, horiek baitira *estatu sozialeko benetako botereak*. Orduan, sultanak berak administratzen zuen justizia eta jagoten zuen diziplina. Orduan, zigortuak izaten ziren epaile prebarikatzaillea eta gobernari konkusio egilea. Jendea eroso bizi zen: laboraria libre zen janizariaren harrapak-eriatik, eta soroek aurrera egiten zuten. Bide publikoak seguruak ziren, eta merkataritzak oparotasuna hedatzen zuen. Elkarturiko bide-lapurrak zineten, baina zuzenak elkarren artean: herriak menperatu arren, ez zenituzten zapaltzen. Haien printzeek laidoztatuta, nahiago zuten zergak zuei ordaintzea. ‘Zer ardura zait niri,’ zioen kristauak, ‘*nire jaunak imajinak gurtzea ala suntsitzea, nirekin justuki jarduten badu? Jainkoak epaituko du bere doktrina zeruan*’.

Neurridunak eta zailduak zineten zuek, koldarrak eta ahulak zeuen arerioak. Jakitsuak zineten borrokaren artean; zeuen arerioek galduak zituzten printzipioak. Zeuen buruzagiak eskarmentudunak ziren, zeuen soldaduak saiatuak eta manaerrazak. Ospilak ausardia sustatzen zuen. Suhartasunak saria zuen, koldarkeria eta diziplina eza zigortuak ziren. Giza bihotzaren baliabide guztiak jardunean ziren horrela. Horrela gailendu zintzaizkieten ehun naziori, eta konkistatu-riko erresuma mordo batetik inperio itzela eratu zenuten.

Alabaina, geroago beste aztura batzuk sortu ziren, eta horiekin etorri ziren aldakuntzetan, oraindik ere, naturaren legeek agintzen

zuten. Zuen arerioak irentsi ondoren, berbildu egin zen zuen kodizia asegaitza eta, zuen baitan kontzentratuta, zeuek ere irentsi zintuzten. Aberats bilakatu zinetelarik, bereizi egin zineten. Banaketa eta atsegin hartzea direla-eta desordena hedatu zen zuen gizarteko klase guztietan. Sultanak, bere handitasunak hordituta, bere funtzioen objektua erratu zuen, eta beregan garatu ziren botere arbitrarioaren bizio guztiak. Bere gustuentzat oztoporik aurkituko ez zuelarik, izaki gaiztoa bilakatu zen. Gizaki ahul eta harroa, herriarengandik aldendu zen, eta herriaren ahotsak ez zuen aurrerantzean gehiago heziko edo gidatuko: ezjakina eta, hala ere, lausengatua, edonolako hezkuntza edo ikasketari uko egingo zion, eta ezintasunean erori zen. Aferetarako ezgai bilakatu zelarik, mertzenarioengan ezarri zuen zama, eta horiek tronpatu egin zuten. Haien pasio propioak asetzeko, harenak sustatu eta areagotu zituzten, haren beharrak handitu, eta luxu itzelak dena xahutu zuen. Ez zuen nahikoa jan eta edan arin batekin, jantzi xumeekin, arbasoen bizileku apalarekin. Haren handikeria asetzeko itsasoa eta lurra agortzea beharrezko gertatu zen, baita polotik larrurik arraroenak eta ekuatoretik oihala garestienak ekarraraztea ere. Bazkari bakkarrean hiri bateko zerga irensten zuen, eta egun batean probintzia batekoa. Inguruan bildu zuen emakume, eunuko eta satellite gudaroste bat. Esan zitzaion erregeen bertutea eskuzabaltasunean eta handitasunean datzala; eta herriaren altxorrak lausengariei eman zizkien. Jaunaren antzera, esklaboek ere etxe arranditsuak izatea gura izan zuten, altzari apartak, tapiz aberaski brodatuak, erabilera zirtzilenetarako urrezko eta zilarrezko edalontziak, eta seraiak irentsi zituen inperioaren aberastasun guztiak.

Esklaboek eta emakumeek euren izen ona saldu zuten luxu gehiegizko hori ase zedin, eta salgarritasunak ustelkeria orokortu zuen. Grazia gorena bisirrari saldu zioten, eta bisirrak inperioa saldu zuen. Kadiari saldu zioten legea, eta kadiak justizia saldu zuen. Imanari saldu zioten tenplua, eta imanak zerua saldu zuen. Eta urreak gautza guztietara zeramanez, edozer egin zen urrea lortzearren: lagunak laguna traditu zuen, semeak aita, morroiak jauna, emakumeak bere ohorea, merkatariak bere kontzientzia, eta estatuan desagertu egin ziren fede ona, ohiturak, konkordia eta indarra.

Eta pashak, probintzia baten gobernua lortu zuelarik, akura kontsideratzen zuen, eta mota orotako konkusioak egiten zituen.

Horrela, zergen biltzea saldu zuen, gudarosteen agintea, hirien administrazioa; eta lanbide oro *iragankorra* zenez, harrapakeria, klasez klase hedatuz, presaz eta azkar burutu zen. Aduanazainak merkataria lumatu zuen, eta merkataritza hondatu zen; agak laboraria esplotatu zuen, eta nekazaritza hondatu zen. Fondorik gabe, laborariak ezin izan zuen erein; zergak iritsi ziren, ezin zuen ordaindu; *makilarekin* mehatxu egin zitzaion, zorpetu zen; esku-dirua, segurtasun faltagatik, ezkutatatu egin zen; *interesa* itzela bilakatu zen; eta aberatsaren lukurreriak beharginaren miseria larriagotu zuen.

Urtaroetako akzidentetek eta idorte handienek uztak galdu zituzten, eta gobernuak ez zuen horregatik zergekin ez barkamenik eskaini, ezta atzerapenik onartu. Lazeria honek estuturik, jende askok herrietatik alde egin zuen hirietarantz; eta haien zama, geratu zirenen gan erori zenez, azken hauen hondamendia areagotu, eta herrialdea despoblatu zuen.

Bestalde, batzuetan gertatu zen, tiraniak eta gehiegikeriek nazkatuta, herriak erreboltatu zirela; eta pasha alaitu zen: guda egin zien, haien etxeetan lapurreta egin zuen, altzariak eta abereak ostu, eta lurra mortu geratu zenean, '*Zer axola dit niri?*', esan zuen, '*bihar banoa eta*'.

Lurra lantzeko besorik gabe geratu zen, gainezka egiten zuten uharrek edo euriek zingirak eratu zituzten, horien emanazio ustelek, klima bero batean, epidemiak, izurriteak, eta mota guztietako gaixotasunak sortu zituzten. Honi despultatze, lazeria eta hondamendi handiagoak jarraitu zioten.

O! Nor izango ote da gai erregimen tiraniko horrek sorturiko gaitz guztiak izendatzeko!

Batzuetan pashek elkarri guda egiten zieten, eta, euren arteko eztabaida pertsonalak zirela eta, estatu bateko probintziak suntsitzen ziren. Beste batzuetan, euren jaunen beldurrez, independentziarako joera zuten, eta euren menpekoengana erakartzen zuten erreboltak dakarren zigorra. Besteetan, menpekoen beldur, atzerritarrek deitzen eta kontratatzen zituzten, eta, fidel izan zekizkien, ez zieten horien harrapakeriei mugarik ezartzen. Batean, pertsona aberats bati prozesu bat irekitzen zioten eta aitzakia faltsu batekin lumatzen zuten; bestean, lekukotasun faltsuak erabiltzen zituzten eta zehapen bat ezartzen zuten irudizko delitu bat zela eta: aldi guztietan alderdien arteko

gorrotoa sustatzen zuten, salaketak sustatu, irainen bidez dirua lortu, ondasunak lapurtu eta pertsonak jazarri. Euren askonahi zuhurgabeak herrialde bateko aberastasun guztiak metatzea lortzen zuenean, gobernuak maltzurkeria higuingarri batekin, itxura egiten zuen herri jazarria mendekatuko zuela, errudunaren harrapakinak bereekin batera bilduz, eta konplize zen krimen bat zela-eta odol errugabea isurtzen zuen.

O maltzurrok, monarka eta ministrook, herrien ondasun eta bizitzekin jokatzeko duzuenok! Zeuek al zarete gizakiari arnasa eman diozuenak, geroago kentzeko? Zeuek al zarete lurreko produktuak jaioarazten dituzuenak, gero agortzeko? Soroak goldatzeaz nekatzen al zarete? Jasaten al duzue zuek eguzkiaren beroa eta uza moztean eta eultzitzean egarriaren oinazea? Artzainek legez gaueko ihintza pairatzen al duzue? Merkatariek bezala basamortua zeharkatu behar al duzue? A! Boteretsuen krudelkeria eta harrotasuna ikusterakoan amorrua jabetzen da nitaz, nire haserre bizian, zera diotsot ene buruari: Eta zer? Ez al da lurrean azalduko herriak mendekatu eta tiranoak zigortuko dituen gizakirik? Lapur kopuru txiki batek jendetza irensten du, eta jendetzak irents dezaten lagatzen du. O herri endekatuok! Ezagut itzazue zeuen eskubideak! *Autoritate osoa zeuengandik dator, botere osoa zeuena da.* Alferrik saiaturik dira erregeak zuek agintzen *Jainkoaren izenean* eta *euren lantzaaren bitartez*. Soldaduok geldi gera zaitezte: Jainkoak *sultana sostengatzen* duenez, zeuen laguntza ezdeus da. Hari bere ezpata nahikoa zaionez, ez du zuenaren beharrik. Ikus ezazue zer egin dezakeen bere kabuz... Soldaduek jaitsi zituzten armak; eta hara *munduaren jabeak* euren azkeneko *menpekoak* bezain ahulak! Herriok! Jakin ezazue gobernatzen zaituzteten horiek zeuen *buruzagiak* direla ez zeuen *jaun* eta *jabeak*; zeuen *administratzaileak* eta ez *jabeak*; eta *zuengan* agintea dutela, *zuentzat* eta *zuen onerako*; zeuen aberastasunak *zeuenak* direla, eta haiek *erantzule* direla; eta, errege edo menpeko, Jainkoak gizaki guztiak *berdinak* egin dituela, eta hilkorra den inork ez daukala bere hurkoa zapaltzeko eskubiderik.

Alabaina, nazio honek eta bere buruzagiek ez dituzte ezagutu egia santu hauek... Hala bedi! Ezagutuko dute haien itsutasunaren ondorioa! Epaia emana da, gertu da eguna boterearen koloso horrek, hautsita, bere masaren azpian lurra joko duena: bai, hala egiten dut zin *horrenbeste inperio suntsituren aurriengatik! Ilargierdiaren inperioak*

berak erregimena imitatu dien estatuen Patu bera pairatuko du. Herri atzerritar batek sultanak berorien metropolitik botako ditu; *Orkhanen tronua irauliko da, bere arrazaren azken ondorengoa suntsitua izanen da*, eta oguziarren horda<sup>18</sup>, buruzagirik gabe, nogaisdarrena bezala sakabanatuko da. Barreiatze horretatik, inperioko herriek, zapaltzen zituzten uztarpetik libratuta, antzinako bereizketak egingo dituzte ostera ere, eta Sophiseko inperioan gertatu zen moduan anarkia orokor bat hedatuko da, arabiar, armeniar edo greziarren artean estatuak berrosatuko dituzten legegileak azaltzen diren arte... O! Lurrean agertuko balira gizaki zoli eta ausartak, zer-nolako handitasun eta loria elementuak genituzkeen! Baina Patuaren garaia entzuten da jada. Gerraren garrasia ene belarrietara iristen ari da, eta hondamendia hasiko da. Alferrik oposatuko ditu sultanak bere armak; bihotzak izozturik dira; menpekoek ondokoa diote: *hala idatzia dago*; eta, *zer axola du nor den gure jauna! Aldaketarekin ez dugu ezer galduko*. Alferrik hel egiten diete benetako fededunek zeruari eta profetari: profeta hila da, eta zeruak, errukirik gabe, ondokoa erantzuten du: ‘Ez iezadazu hel egin; zeuek eragin dituzue zeuen gaitzak, konpon itzazue zeuek. Naturak ezarri ditu berorren legeak, zuei dagokizue horiek praktikatzea: beha ezazue, arrazoitu, balia zaitzete esperientziaz. Eromenak galtzen du gizakia; jakinduriak salbatzen. Herriak ezjakinak badira, hez bitez: haien buruzagiak maltzurak dira, zuzen eta hobe bitez’; hori baita *naturaren epaia, eta gizartearen gaitzak kodiziatik eta ezjakintasunetik datozenez, gizakiak etengabe tormentatuak izanen dira, argituak eta jakitsuak izan arte*, eta euren harremanen zein euren antolaketaren legeen ezagutzan oinarritzen den *justiziaren* artea praktikan jarri arte.»

### XIII. KAPITULUA HOBETUKO AL DA GIZA ESPEZIEA?

Hitz horiek entzuterakoan, beraien zorroztasunak eragindako sentimendu mingarria dela eta, ondokoa egin nuen oihu negarka: «Zoritxarrekoak nazioak! Zoritxarrekoa ni ere! A! Orain etsia naiz gizakiaren zorian. Bere gaitzak bihotzetik badatozkio, bera bada konpon ditzakeen bakarra, zoritxarrekoa izanen da beti haren existentzia! Nork jarriko die galga, izan ere, boteretsuaren eta indartsuaren kodiziari? Nork argituko du eskolagabearen ezjakintasuna? Nork ira-

katsiko dizkio jendetzari berorren eskubideak eta behartuko ditu buruzagiak euren betekizunak gauzatzera? Hortaz, giza arraza betirako dago sufrimendua pairatzera kondenatua! Hortaz, gizabanakoak etengabe zapalduko du bere hurkoa, nazio batek etengabe erasoko du beste, eta eskualdeek ez dute inoiz ezagutuko oparotasun eta loria garairik. Ai ene! Etorriko dira konkistatzaileak, zapaltzaileak botako dituzte, horien lekuan plantako dira, baina haien boterea hartzean, haien harrapakaria ere hartuko dute, eta lurrak tiranoak aldatuko ditu tirania aldatu gabe».

Orduan, jeinuarengana biratuz, ondokoa esan nion: «O jeinua! Etsipenak nire arima urratu du: ezagutzerakoan gizakiaren natura, bizitza atsekabetu didate *gobernatzan dutenen maltzurkeriak* eta gobernatuak direnen *gaiztotzeak*; eta ez dagoenean beste aukerarik zapalkuntzaren konplize ala biktima izatea baino, zer geratzen zaio gizaki bertutedunari, ez bada bere errauntsak hilobian direnekin elkartzea?».

Eta jeinuak, isilik, zuzendu zidan begirada zorrotz bat, urrikal-menduz nahasia, eta tarte batean hala egon ondoren, hau ihardetsi zidan: «Beraz, hiltzean datza bertutea! Gizaki maltzurra nekaezina da krimena burutzeko orduan, eta gizaki zuzena izutu egin behar da ona egin behar duenean lehen oztopoarekin topo eginda! Baina halakoa da gizakiaren bihotza: arrakastak konfiantzaz betetzen du, porrot batek abailduta eta lur jota uzten du. Beti uneko sentsazioan murgilduta, ez ditu gauzak beraien naturaren arabera juzgatzen, bere pasioaren bulkadaren arabera baizik. Giza espezieak atsekabetzen zaituen gizaki horrek, zein kalkulu sakonetan eta arrazoiketatan oinarritu zara zure ideia horretarako? Izaki sentikorraren antolaketa ikertu al duzu, zehaztasunez determinatzeko zorionera daramaten zioak esentzialki ahulagoak direla hartatik aldentzen dutenak baino? Ala, begiratu bakarrarekin espeziearen historia bilduz, eta iraganaren adibidearekin etorkizuna ere juzgatuz, harentzat aurrerakuntza oro ezinezkoa dela erabaki al duzu? Erantzun! Euren jatorritik ez al dute gizarteek urratsik eman euren hezkuntzan edo hobekuntzan? Gizakiak oraindik ere basoetan al dira, dena falta zaiela, ezjakin, anker eta ergel? Nazio guztiak lapur anker eta esklabo basatiez lepo ikus zitezkeen garai horietan al daude oraindik? Garai eta leku baten batean gizabanako zenbait hobetu bada, zergatik ez da hobetzen gizartea orokorrean? Eta lehen



oztopoak igaro badira, zergatik izan beharko dira beste batzuk gaindiezinak?

Espeziea okertzen ari dela pentsatuko al zenuke? Babes zaitez *misantropoaren* ilusio eta paradoxez: gizakiak, etorkizunarekin kontentagaitz, iraganari perfekzio faltsu bat ematen dio, hori ez da haren tristuraren maskara baizik. Hildakoak laudatzen ditu bizen gorrotoz; seme-alabak gurasoen hezurrekin jipoitzen ditu.

Balizko perfekzio atzerakoi bat frogatzeko, beharrezko egingo da gertakizunen eta arrazoiaren lekukotasuna ezeztatzea; eta iraganeko datuak erratuak badira, beharrezkoa izanen litzateke ezeztatzea gizakiaren antolaketak eskaintzen duen egungo datua. Frogatu behar-ko litzateke gizakia zentzumen guztiak argituta jaiotzen dela; esperientziarik gabe, badakiela elikagai pozoitsuak eta osasuntsuak bereizten; haurra agure-atsoa baino jakintsuagoa dela, itsua seguruago dabilela ikusmenduna baino; gizaki zibilizatua antropofagoa baino zoritxarrekoagoa dela; hitz batean, ez dagoela esperientzian eta hezkuntzan eskala progresiborik.

Garze, sinets ezazu hilobien ahotsean eta monumentuen lekukotasunean: zalantzarik gabe, eskualde batzuek behera egin dute, garai batean zirenarekin alderaturik; alabaina, espirituak behatuko balu orduan zertan zeutzan biztanleen jakituria eta zoriontasuna, ikusiko luke haien lorian errealitate gutxiago zegoela distira baino; ikusiko luke antzinako estatuetan, baita goraipatuenetan ere, bizio itzelak eta gehiegikeria krudelak zeudela, handik sortzen zelarik, izan ere, euren hauskortasuna; orokorrean gobernuen printzipioak ankerrak zirela; herrietan elkarren arteko lapurreta ozarra, gerra basatiak eta gorroto gupidagabeak ematen zirela<sup>19</sup>; zuzenbide naturala ez zela ezagutzen; fanatismo zuhurtasunik gabe batek eta superstizio nardagarriek moralitatea usteltzen zutela; orakulu batek, begitazio batek edo amets batek hunkipen eta nahaste handia eragiten zutela une oro. Beharbada nazioak ez dira oraindik sendatu horrenbeste gaitzetatik; baina, behintzat, gaitz horien intentsitatea jaitsi da, eta iraganeko esperientzia ez da guztiz galdu. Duela batez ere hiru mende argiak bizitu eta hedatu dira; eta zibilizazioak, zorioneko zirkunstantziek lagunduta, aurrerakuntza nabariak egin ditu. Eragozpenak berak eta abusuak probetxugarri bilakatu dira: konkistek estatuak asko handiagotu badituzte, herriek, uztarpe berean bilduz, galdu dute isolamendu

eta bereizketa espiritu hori, guztiak arerio egiten zituena. Botereak kontzentratzerakoan, haien kudeaketan batasun eta harmonia handiagoa dago. Gerrak handiagoak bilakatu badira masari dagokionez, zehaztasunei dagokienez ez dira hain hilgarriak; herriak nortasun eta energia gutxiagoz joan direlarik borrokara, liskarrak ez dira hain odoltsuak eta basatiak izan: ez dira hain libre, baina bai baketsuago. Despotismoa bera faboragarri izan zaie batzuetan: ezen, gobernuak absolutuagoak izan badira, egonezina eta giro ekaiztsua txikiagoak izan dira; tronuak jabego bilakatu badira, jaraunspen diren artean, eztabaida gutxiago eragin dute, eta herriek aldaketa gutxiago pairatu dituzte; azkenik, despoteak, jelskor eta misterioitsu, galarazi badute haien administrakuntzaren ezagutza oro zein aferen kudeaketan edozein lehia, pasioak, karrera politikotik bereiztuta, arteetara eta zientzia naturaletara lerratu dira, eta ideien esfera zabaldu egin da genero orotan. Gizakiak, ikerketa abstraktuetan libre, hobeto ulertu du naturan betetzen duen lekua, gizartean dituen harremanak. Printzipioak hobeto eztabaidatu dira, helburuak hobeto ezagutu dira, argiak zabalago hedatu dira, gizabanakoak hobeto hezi dira, azturak sozialagoak dira, bizitza goxoago. Osotasunean, espezieak, batez ere zenbait eskualdetan, modu sumagarrian irabazi du, eta hobekuntza hori etorkizunean handitu baino ez da egingo, ezen, hartarako zegoen oztopo nagusia –ideiak transmititzeko eta azkar komunikatzeko zailtasuna, hobekuntza hain geldo eta batzuetan atzerakoi bihurtzen zuen hori– azkenik desagertu baita.

Izan ere, antzinako herrietan, kantoi bakoitza, hiri bakoitza, bere *hizkuntzaren diferentziagatik*, bata bestearengandik isolatuta egoten ohi zen, eta handik ezjakintasunarentzat eta anarkiarentzat faboragarria zen kaosa zetorren. Ez zegoen ideien komunikaziorik, aurkikuntzetan partaidetzarik, harmoniarik interes eta borondateetan, ekin-tzan eta jarreretan batasunik. Bestalde, ideiak hedatzeko eta transmititzeko baliabide oro mugatzen zen *hitz iheskor eta imitaziozkora, egi-tea denbora luzea eskatzen zuen idazki neketsu eta arraroetara*, horrek eragiten zuen uneko hezkuntza ezinezko izatea, esperientzia belaunalditik belaunaldira galtzea, egonkortasunik eza, argietan atze-ra egitea, eta kaosaren eta haurtzaroaren betiketzea.

Aldiz, estatu modernoan, eta batez ere Europakoan, nazio handiek hizkuntza beraren aliantza osatu dute, iritzi komunitate handiak

sortu dira, espirituak elkartu dira, bihotzak zabaldu dira; akordioa dago pentsamenduan, ekintzarako batasuna; ondoren, *jeinuaren dohain edo arte jainkotiar batek, inprentak*, hain zuzen, ideia bera aldi berean milioika gizakiri komunikatzeko bitartekoa eskaini du, baita modu iraunkor batean horiek finkatzeko modua ere, tiranoen botereak geldiarazi edo suntsitzea ezinezko duelarik, sortu da instrukzio masa progresibo bat, etengabe hazten den argien giro bat, argi horiek hobekuntza etorkizunerako modu tinkoan segurtatzen dutelarik. Hobekuntza hori naturaren legeen ondorio beharrezkoa bilakatzen da; ezen, *sentsibilitatearen legea* dela eta, gizakiak modu gailenezinean *zorioneko izateko joera* du, *suak gora egitekoa, harriak grabitatzekoa* zein *urak* berdintzekoa edo lautzekoa duen modu berean. Oztopo bakarra *ezjakintasuna* du gizakiak, bitartekoetan galtzen baitu, eta ondorio eta kausetan tronpatzen. Esperientzia dela medio, argituko da; erroreak direla medio, zuzenduko da; jakintsu eta on bilakatuko da, *hori bilakatzeko interesa duelako*. Nazio batean, ideiak komunikatzen direlarik, klase osoak heziak izanen dira eta zientzia arrunt bilakatuko da. Gizaki guztiek jakingo dute zeintzuk diren zorion indibidual eta publikoaren printzipioak. Jakingo dute zeintzuk diren elkarren arteko harremanak, euren eskubideak, euren betebeharrak ordena sozialean. Ikasiko dute kodiziaren ilusioetatik babesten. Ikasiko dute *moralazientzia fisikoa* dela, bertan parte hartzen dutelarik –egia da– elementu konplikatuak, baina sinpleak eta aldaezinak direnak euren naturan, gizakiaren antolaketaren elementuak berak baitira. Aldi berean, ulertuko dute *moderatuak* eta *justuak* izan behar direla, horretan baitatza bakoitzaren probetxua eta segurtasuna; beste norbaiten kontura atsegin hartzea ezjakintasunaren kalkulu erratua dela, hartatik baitatoz errepresaliak, gorrotoak, mendekuak; eta zintzotasun eza kirtenkeriaren iturri etengabea dela.

Gizabanakoek sentituko dute zorion indibiduala gizartearen zorionarekin elkartuta dagoela.

Ahulek, berriz, euren interesak bereizi ordez, batu egin behar dituztela, berdintasunak euren indarra egiten baitu.

Aberatsek, organoen egiturak mugatzen duela euren atseginen neurria eta gogaitzeak darraiola asetzeari.

Txiroak, gizakiaren zorion mailarik altuena denbora erabiltzetik eta bihotzaren baketik datorrela.

Eta iritzi publikoak, errege-erreginen tronuetaraino iritsiko delarik, agintari horiek autoritate erregular baten mende egotera bultzatuko ditu.

Zoriak berak, nazioen zerbitzari, emango dizkie *buruzagi ezgaiak, izanen duten ahultasuna dela-eta nazioak libre utziko dituztenak*; baita *buruzagi argiak ere, izanen duten bertutea dela-eta nazioak askatuko dituztenak*.

Lurrean *gizabanako handiak* direnean, eta *nazio argi eta libreak*, espezieari iritsiko zaio elementuekin gertatutakoa: zati baten argien komunikazioak batetik bestera hedatuko ditu, eta osotasunean gailenduko da. *Imitazioaren legea dela eta, lehen herri baten etsen-plua besteek ere jarraituko dute, haren espiritua eta legeak adoptatu-ko dituzte*. Despotek ere, ikusita ezin dutela euren boterea mantendu justiziarik eta ongintzarik gabe, halabeharrez leunduko dute euren erregimena, eta zibilizazioa orokorra bilakatuko da.

Herritik herrira *indarren oreka* bat sortuko da, elkarren arteko eskubideen errespetuak mugatuta, ezabatuko dituen gerraren usadio basati horiek. *Elkarren arteko tirabirak bide zibilen epailetzaren mende* jarriko dira, eta espezie osoa *gizarte handi* bat bilakatuko da –espiritu berak, lege amankomunek gobernatutako *familia* bera–, eta giza naturak gozatzea posible duen zorian guztiaz gozatuko du.

Lan hori guztia, zalantzarik gabe, luzea izanen da, gorputz itzel batean zehar hedatu behar baita mugimendu bera; hartzigarri berak zati heterogeneoko masa izugarri handia asimilatu. Hala ere mugimendu hori gauzatuko da, eta dagoeneko ari dira agertzen iristear delako zantzuak. Dagoeneko *gizarte orokorrak*, berorren martxan *gizarte partikularrek* daramaten ibilbide bera kurritzen duelarik, iragartzen du emaitza beretarako joera duela. Bere atal guztietan desginda zegoelarik, luzaroan ikusi ditu berorren gorputz-adarrak kohe-siorik gabe; eta herrien isolamenduak osatzen du bere *haurtzaro* edo *anarkiako lehen aroa*. Ondoren, zoriak zatitu zuelarik estatu eta erresumek osaturiko sekzio irregularretan, pairatu behar izan zituen aberastasunen eta egoeren *ezberdintasun* larriaren ondorio latzak; eta *inperio handietako aristokraziak* bere *bigarren aroa* osatzen du. Gero-ago, *pribilegiadun handi* horiek nagusitasuna lortzearen lehian hasi ziren, norgehiagoka horrek *alderdien talka* dakar. Une honetan alderdiek, euren liskarrez nekatuta, legeen beharra sentituz, ordena eta

bake garai bat irrikaz gurako dute. Ager dadila *buruzagi* bertutedun bat! Lurra botere gorenera altxatua izan bedi: Lurrak *herri lege*gile bat espero du, desiratzen du, deitzen du, eta nire bihotza itxoiten ari da...». Eta burua mende balderantz biratuz, hala jarraitu zuen: «Bai, jada zurrumurru isil bat iristen da ene belarrietara: *askatasun* irrintzi bat, urruneko itsasbazterretatik dator, eta kontinente zaharrean oihartzun egiten du. Irrintzi horrekin, zapalkuntzaren aurkako zurrumurru sekretu bat altxatzen da nazio handi batean, ezinegon osasungarri batek gaztigatzen dio egoeraz. Nazioak bere buruari itauntzen dio zer den, zer izan behar duen; eta, bere ahulduraz harriturik, ikertzen du zeintzuk diren bere eskubideak, bere baliabideak, zein izan den bere buruzagien jokaera... Beste egun bat, beste hausnarketa bat... eta mugimendu itzela jaioko da; mende berri bat irekiko da! Liluramen mendea jende arruntarentzat, izudura eta ikarazkoa tiranoentzat, askatasunezkoa herri handi batentzat, esperantzazkoa Lur osoarentzat!»

#### XIV. KAPITULUA PERFEKZIOARENTZAT OZTOPO NAGUSIA

Jeinua isildu zen... Hala ere, sentimendu beltzek astinduta, nire espirituak haren pertuasioari aurre egin nahi zion; baina ager neza-keen erresistentziak harritu zezakeelakoan, isilik jarraitu nuen...

Tarte baten ostean, nigana biratu zen eta begirada zorrotz bat jaurtiz... «Isilik zaude,» esan zuen, «eta zure bihotza azaleratzen ausartzen ez diren pentsamenduek astintzen dute!». Nahastuta eta izututa, ondokoa ihardetsi nion: «O jeinua! Barka nire ahultasuna, zalantzarik gabe zure ahoak ezin du egia baino esan; baina zure adimen zerutarrak egia hori antzeman dezake, nire zentzumen baldarrek hodeiak baizik ikusten ez duten lekuan. Aitortu behar dut: ez da konbikzioa nire arimara iritsi, eta iruditu zait nire *zalantzak* irain zintza-keela».

«Eta zer dauka *zalantzak*,» erantzun zidan, «krimen bihur dezakeenik? Gizakiak sentitu al dezake hunkitzen duenetik beste modu batera? Egia bat ukigarria eta praktikan inportantea bada, urrikal gaitzen hura ezagutzen ez duenaz, bere zigorra bere itsutasunetik etorriko da. Ez bada ziurra, edo zalantzarik bada, nola aurkituko da bertan ez daukan zerbait? Ebidentziarik, frogapenik gabe sinestea ezjakintasun eta ergelkeria ekintza bat da: sineskorra kontraesan labi-

rinto batean galtzen da; pertsona zuhurrak ikertzen eta eztabaidatzen du, dauzkan iritziekin ados egoteko; eta fede oneko gizakiak kontradikzioa jasan dezake, hartatik soilik sortzen baita ebidentzia. Biolentzia gezurraren argumentua da; eta autoritatearekin sinesmen bat inposatzea, tirano baten ekintza eta seinale da».

Jeinuaren hitzek berotuta, honela erantzun nion: «O jeinua, ene arrazoimena librea denez, alferrik saiatuko naiz jasotzen zuk ene arrazoimena kontsolatzeko darabilzun esperantza lausengari hori: arima bertutetsu eta sentikorra aise murgiltzen da zorionaren ilusioetan, baina errealitate krudel batek etengabe esnatzen du sufrimenduan eta miserian. Zenbat eta gehiago hausnartzen dudana gizakiaren naturaren gainean, zenbat eta gehiago aztertzen dudana egungo gizartearen egoera, hainbat eta zailagoa iruditzen zait horiek zuhur eta zoriontsu izateko posibilitatea. Nire begiradarekin zeharkatzen dut gure hemisferioaren azalera osoa: ez dut inon topatzen iraultza horren ez hazia ezta eragilerik ere. Asia osoa ilunpean murgilduta dakusat. Txinatarrak, *banbuaren edo makilaren despotismoaren* menpe<sup>20</sup>, superstizio astrologikoak itsututa, keinu kode aldagaitz batek zein gaizki eraikitako hizkuntza eta, batez ere, idazkera baten bizio erradikalak oztopatuta, ez dit erakusten bere zibilizazio abortatuarekin herri automata baten adibidea baino. Indiarrak, aurreiritziek estututa, bere kasten lotura sakratuek kateatuta, apatia sendagaitz batean begetatzen du. Tatariarra, nomada ala sedentarioa, beti ere ezjakina eta basatia, bere arbasoen basakeria berean bizi da. Arabiarrak, zorioneko adimenaren jabe, galtzen ari da indarra eta bertutearen fruitua bere tribuen anarkiagatik eta familien jeloskortasuna dela eta. Afrikarra, gizakiaren kondizioetik degradatua, badirudi betirako esklabotzara kondenatua dela. Iparraldean, morroi menpekotuak baino ez ditut ikusten, herri *tropolak*, haiekin jokatzeko dutela *jabe* handiek. Leku guztietan ezjakintasunak, tiraniak, miseriak sorgortu dituzte nazioak. Aztura biziotsuek, zentzumen naturalak usteltzen dituztenek, ontasunaren eta egiaren zentzua bera suntsitu dute. Egia da, nolanahi ere, Europako zenbait eskualdetan, arrazoa hasi dela lehen suspertze bat agertzen; baina, han bertan, partikularren argiak amankomunak al dira nazioetan? Gobernuen trebetasuna herrien probetxurako izan al da? Eta euren buruak zibilizatu-tzat dauzkaten herri horiek, ez al dira haiek, hiru mende ostean, Lurra euren bidegabekeriekin betetzen dutenak? Ez al dira haiek merkatari-

tzaren aitzakiarekin, India deboilatu dutenak, kontinente berri bat despopulatu dutenak, eta egun oraindik ere Afrika esklabotasunik basatienean mantentzen dutenak? Tiranoen magaletik jaioko al da askatasuna? Eta justizia banatuko al dute esku zeken eta espoliatzaileek? O jeinua! Herrialde zibilizatuak ikusi ditut, eta euren jakinduriaren ilusioa ene begien aurrean desagertu da. Ikusi ditut esku batzuetan metaturik aberastasunak, eta jendetza handia biluzik eta txiro. Ikusi ditut eskubide eta botere guztiak *klase* jakin batzuetan kontzentratuta, eta egoera larrian eta pasibo herriaren masa. Ikusi ditut *printzeen etxeak*, baina ez *nazioa gorpuzturik*; *gobernuaren* interesak, baina ez interes edo espiritu publikorik. Ikusi dut agintzen dutenen zientzia osoa *zuhurtasunez zapaltzera* mugatzen dela; eta herri zibilizatuen morrontza fina erabat konpenezina iruditut zait.

Oztopo batek harritu nau batez ere. Nire begirada munduan ezartzean, hamaika gurmenean sistema ezberdinetan banatuta ikusi dut. Nazio bakoitza oinarritzen da erlijio iritzi ezberdinetan, eta bakoitzak berea dauka eskusiboki egia bakartzat, eta besteena erroretzat jotzen du. Alabaina, euren adostasunik ezaren datu horretan oinarrituta, gizakien kopuru handiena tronpatua baldin bada –eta fede onez tronpatzen omen da–, hortik pentsa daiteke gure espirituak berdin *sinetsi -ko duela gezurra zein egia*; eta, hortaz, nola argituko da? Nola deuseztatu lehendik ere espiritua harrapatu duen aurreiritzia? Nola, batez ere, kenduko zaie benda begiei, sinesmen bakoitzaren lehen artikulua, erlijio bakoitzaren lehen dogma, *zalantzaren* proskripzioa baldin bada, *azterketa egiteko debekua*, norbere juzguaren *ukapena*? Zer egingo du egiak ezagutua izan dadin? Arrazoimenaren frogekin agertzen bada, gizaki koldarrak bere kontzientzia errefusatu du; botere zerutiarren autoritatea inbokatzen badu, gizakiak axolaturik genero bereko autoritate bat jarriko dio aurka, eta blasfemia kontsideratuko du berrikuntza oro. Horrela, gizakia, bere itsutasunean, bere buruari kateak ezarrita, babesik gabe entregatu zaio ezjakintasunari eta pasioei betirako. Halako zorigaiztoko loturetatik libratzeko, zeharo zorioneko zirkunstantzien beharra luke; beharko luke nazio oso batean, superstizioaren delirioaz sendatutakoan, fanatismoaren bultzadak hartan eraginik ez izatea; doktrina faltsu baten uztarpetik libre, herri batek benetako moralak eta arrazoia bere buruari inposatzea; aldi berean *ausarta* eta *zuhurra*, hezia eta otzana izatea; gizabanako bakoitzak

bere eskubideak ezagututa, mugak ez gainditzea; txiroak limurtzeari eustea, aberatsak ondasun goseari; bertan buruzagi desinteresatu eta justuak egotea; zapaltzaileez jabetzea eromen eta bertigo espiritu bat; *herria* –bere botereak berreskuratuta– konturatzea ezin direla botere-  
ok pertsonalki erabili, eta organo batzuk eratzea; magistratuak izen-  
datuta, aldi berean gai izatea horiek gaitzesteko eta errespetatzeko; gehiegikeria pairatzen bizi izan den nazio baten bat-bateko errefor-  
maren ostean, lekuz kanpo gera daitekeen gizabanako orok bere ohi-  
turen aldaketa eta gabeziak pazientziaz jasan ditzala; azkenik, nazio  
hori nahiko ausarta izatea bere askatasuna lortzeko, nahiko hezia hura  
mantentzeko, nahiko boteretsua hura defendatzeko, nahiko eskuzaba-  
la hura banatzeko: eta hainbeste baldintza elkar al daitezke inoiz? Bai-  
na demagun zoriak, bere konbinazio zenbatezinetan, azkenik hala  
posible egitea, ikusiko al ditut zorioneko egun horiek? Ez al dira nire  
errautsak aspaldi barreiatuak egongo?»

Hitz horiekin nire bularrak, estuturik, ez zidan gehiago hitz  
egiten uzten... Jainuak ez zidan erantzun; baina ondokoa entzun nion  
esaten ahots baxuz: «Sostenga dezagun gizon honen esperantza, bere  
kideak maitatzen dituenak itxaropena galtzen badu, zer izanen da  
nazioez? Eta beharbada iragana ez da egokiegia bihotz emateko!  
Ongi! Aurrera ditzagun etortzekoak; erakuts diezaiogun bertuteari  
jaiotzearen mende liluragarria, horrela desiratzen duena ikusita,  
adore berri batek berpiztuta, lortzearen egin beharrekoan ahalegina  
bikoitz dezan».

## XV. KAPITULUA MENDE BERRIA

Hitz horiek ahoskatu eta segituan, mendebaldetik harrabots  
izugarria entzun zen, eta begirada harantz zuzenduz, Mediterraneo-  
aren bazter batean, Europako nazio baten eremuan, mugimendu lilura-  
garria sumatu nuen; hiri baten muinean alde guztietan bortxakeriazko  
liskar bat agertzen denean, kaleetan eta leku publikoetan jendetza zen-  
batezina tropelka asaldatzen eta erreboltatzen denean sortzen dena  
bezalako mugimendua. Ene belarriek, zeruraino iristen ziren garrasiek  
minduta, tarteka honako esaldiak bereizten ahal zituzten:

«Zer da gauza liluragarri berri hau? Zer izurrite krudel eta mis-  
terioitsu da hau? Makina bat pertsona gara nazio honetan, eta besoak



falta zaizkigu! Eguzki zoragarria dugu, eta elikagaiak falta zaizkigu! Aktiboak, langileak gara, eta txirotasunean bizi gara! Zerga itzelak ordaintzen ditugu, eta nahikoa ez dela esaten zaigu! Alboko nazioekin bakean gara, eta geu eta gure ondasunak ez gaude gurean salbu! Zein da irensten gaituen arerio ezkutu hori?»

Jendetzaren tartetik irteten ziren ahots batzuek ihardetsi zuten: «Bandera bereizle baten inguruan bil itzazue lan probetxugarrien bidez gizartea mantentzen eta elikatzen duten horiek, eta ikusiko duzue irensten zaituzten arerioa».

Bandera hori altxatzerakoan, nazioa *bi gorputz desberdinetan*, tamaina eta oso bestelako tankera zutenetan, bereiztua agertu zen: batari *–zenbatezina*, ia *osotasuna*– jantzien zarpailtasunagatik eta aurpegien mehetasun, tankera zartatu eta eguzkiak erretakoagatik nabaritzen zitzaion behartasuna eta lan jarduna; besteari *–taldetxoa*, *zati sumaezina*– urre eta zilarrezko apainduraz betetako jantziengatik eta aurpegi osasuntsuengatik, aisialdiaren eta oparotasunaren zantzuak nabaritzen zitzaizkion.

Pertsona horiek arreta handiagoaz behatuz, konturatu nintzen *gorputz handia* laborariek, artisauek eta merkatariek, gizarteari erabilgarri zaizkion ogibide langile eta ikastunek osatzen zutela, eta *tal - de txikian* ez zela topatzen ahal ez bada maila guztietako apaiz eta fraideak, finantzariak, nobleak, horien zerbitzariak, buruzagi militarak eta gobernuko beste soldatapeko batzuk.

Gorputz horiek biak bata bestearen aurrean zirelarik, elkarri begiratzen ziotela, ikusi nuen alde batean amorrua eta haserrea sortzen eta bestean izua; eta *gorputz handiak* ondokoa esan zion *txikiari*:

«Zergatik zaudete gugandik bereiztuta? Ez zarete gutakoak?»

«Ez,» erantzun zuten, «zuek *herria* zarete; gu beste batzuk gara, gu *gorputz berezi* bat gara, *klase pribilegiatua*, gure aparteko legeak, azturak eta eskubideak dituguna».

HERRIA

«Eta zer lan egiten bizi zarete gure gizartean?»

PRIBILEGIATUAK

«Ez gara lan egiteko jaio»

HERRIA

«Nola lortu duzue horrenbeste aberastasun?»

#### PRIBILEGIATUAK

«Zuek gobernatzeaz arduratuz»

#### HERRIA

«Nola! Gu *nekatzen gara*, zuek *gozatzen duzue*! Guk *ekoizten dugu*, zuek *xahutzen duzue*! Guk sortzen ditugu aberastasunak, zuek zeuentzat hartzen dituzue, eta horri deritzazue gobernatzea? *Klase* pribilegiatua, guri arrotza zatzaizkiguten gorputz, era ezazue zeuen nazio propioa eta ikusiko dugu nola irauten duzuen.»

Orduan talde txikian, gauzen egoera berriaz deliberatuz, zenbait pertsona justu eta eskuzabalek ondokoa esan zuten: «herriarekin elkartu behar gara, eta zamak elkarren artean banatu; gu bezalako gizakiak baitira, eta gure aberastasunak haiengandik datoz». Baina beste batzuek harro honakoa esan zuten: «Lotsagarria litzateke jendetzarekin nahastea, gu zerbitzatzeko daude; ez al gara gu inperio honen konkistatzaile *arraza noble* eta *purua*? Gogora diezazkiogun jendetza honi gure eskubideak eta berorien jatorria».

#### NOBLEAK

«Herria! Ahaztu al duzue gure arbasoek herrialde hau konkistatu zutela, eta zeuen arrazak bizia mantendu zuela gu zerbitzatzeko baldintzapean? Hara gure kontratu soziala, hara usadioak *eratutako* gobernuak, denborak preskribatua»

#### HERRIA

«Konkistatzaileen arraza *purua*! Erakutsi diezazkiguzue zuen genealogiak, segituan ikusiko dugu nola gizabanako batean *lapurreta* eta *harrapakaria* zena, bertute bilakatzen ahal den nazio batean»

Segituan alde diferentetarik ahots batzuk, ozen, *noble* saldoa euren izenez deitzen hasi ziren; eta, haien jatorria eta ahaidetasuna aipatuz, gogorarazi zuten haien aitonak, birraitonak, edo aitak ere, merkatari edo artisau jaio zirelarik, edonola aberastu ondoren, nola erosi zuten noblezia diruarekin. Hortaz, oso familia kopuru txikia zen antzinatik leinu noblekoa.

«Begira!» zioten ahots horiek, «begira jende berriki aberastu horrek nola arnegatzen dituen bere ahaideak. Begira errekruta plebeio horiek nola dauzkaten euren buruak beterrano ospetsutzat!». Eta honek barre algara eragin zuen.

Itzulian, zenbait pertsona artetsuk ondokoa egin zuen oihu:  
«Herri bihotz oneko eta fidela, aitor ezazu autoritate legitimoa<sup>21</sup>:  
*Erregek hala nahi du, legeak hala agintzen du*»

HERRIA

«Klase pribilegiatua! Azaliezaguzue *legitimo* adieraren esanahia. *Legearekin ados, edo legeak eskatzen duena* bada, esaguzue, nork egin du *legea*? *Legeak* gura al dezake jendearen *salbazioa* ez den zerbait?»

Orduan militar pribilegiatuek ondokoa esango zuten: «Jendeak ez daki obeditzen ez bada bortxaren bidez; zigorra behar du. Soldaduok, zigor ezazue herri matxinatu hau!»

HERRIA

«Soldaduak, gure odolekoak zarete! Zeuen ahaideak, zeuen anaiak egurtuko al dituzue? Herria hiltzen bada, nork osatuko du armada?»

Eta soldaduek, armak jaitsita, ondokoa esan zuten: «Gu ere herria gara, erakutsiezazkiguzue arerioak!»

Orduan, pribilegiatu eliztarrek honakoa esan zuten: «Baliabide bakarra geratzen zaigu: herria superstizioso da, Jainkoaren eta erlijioaren izenekin beldurtu behar ditugu: *Gure anai-arreba maiteak! Gure haurrak!* Jainkoak erabaki du guk gobernatzea.»

HERRIA

«Erakutsiezazkiguzue manamendu zerutar horiek.»

APAIZAK

«Beharrezkoa da fedea: arrazoimenak galdu egiten du bat.»

HERRIA

«Arrazoitu gabe gobernatzen al duzue?»

APAIZAK

«Jainkoak bakea nahi du: erlijioak obedientzia agintzen du.»

HERRIA

«Bakeak justizia eskatzen du; obedientziak betebeharraren konbikzioa.»

APAIZAK

«Hemen behean sufritzeko gaude.»

HERRIA

«Emaguzue etsenplu.»

APAIZAK

«Jainkorik eta erregerik gabe biziko al zarete?»

HERRIA

«Zapaltzailerik gabe bizi gura dugu.»

APAIZAK

«Beharrezkoak dituzue *arartekoak*, *artekariak*.»

HERRIA

«*Jainkoarengandik* eta *erregeengandik* gertu zaudeten artekariak, *gortesau* eta *apaizak*, zuen zerbitzuak garestiegiak zaizkigu; zuzenean manatuko ditugu geure aferak.»

Orduan, taldetxoak ondokoa esan zuten: «*Dena galdua da, jen - detza argitua da.*»

Eta herriak erantzun: «Dena salbatua da; argituak bagara, ez dugu gure indarrez abusu egingo: gure eskubideak baino ez ditugu nahi izanen. Gaitzondoa genuen, ahortzi dugu; esklabo ginen, agin genezakeen. Libre izatea baino ez dugu nahi, eta *askatasuna* ez da *jus - tizia* baizik.»

## XVI. KAPITULUA HERRI LIBRE ETA LEGEGILEA

Orduan, pentsatuz etenda zegoela botere publiko oro, herri horren ohizko erregimena geldiarazia zela, izutu egin nintzen, iruditu baitzitzaidan herria anarkiaren hondamendiak suntsituko zuela; baina berehala ahotsek ozen esan zuten:

«Ez da guretzat nahikoa parasito eta zapaltzaileez libratzea, itzul daitezen galarazi behar da. *Gizakiak* gara, eta esperientziak erakusten du gutako bakoitza saiatuko dela etengabe hurkoa dominatzen eta haren kontura bizitzen. Hortaz, beharrezkoa da diskordia-sortzaila den joera bati aurre egitea; beharrezkoa da gure *ekintzentzat* eta *eskubideentzat arau determinatuak* izatea. Alabaina, eskubide horien *ezagutza*, ekintza horien *juzgatzea*, gauza abstraktuak eta zailak dira,

gizakiaren denbora eta ahalmen guztiak eskatzen dutenak. Bakoitza gure zereginekin lanpeturik gabiltzalarik, ezin dugu ikasketa horietan jardun, ezta geuk eginkizun horiek bete ere. Hauta ditzagun, hortaz, gure artean pertsona batzuk horretan propioki jardungo dutenak. Haien *esku* laga ditzagun gure ahalmen komunak gobernua eta legeak era ditzaten; jar ditzagun gure *borondateen* eta *interesen ordezkari* moduan. Eta, ahal den ordezkapenik doiena izan dadin, aukera ditzagun *ugari eta gure antzeko*, gure borondateen eta interesen aniztasuna haiengan isla dadin.»

Herri horrek, hautatu ondoren bere baitatik egokia zirudien gizaki talde ugari bat, ondokoa esan zien: «Orain arte *zoriaren* arabera osaturiko *gizarte* batean bizi izan gara, *hitzarmen finkorik* gabea, konbentzio librerik gabea, eskubideen akordiorik gabea, elkarren arteko konpromisorik gabea; eta egoera kaskar horretatik nahasmendu eta gaitz mordoa sortu da. Egun nahi dugu, sakon hausnartuta, kontratu erregular bat osatzea, eta zuek aukeratu zaituztegu artikuluak era ditzazuen. Heldutasunez azter ezazue zeintzuk izan behar diren haren oinarriak eta baldintzak; arretaz iker ezazue *zein den helburua*, zeintzuk diren *elkarte ororen* printzipioak: ezagut itzazue kide bakoitzari dagozkion *eskubideak*, *esku ematen* dituen ahalmenak, eta berarentzat gordetzen dituenak. Jarrera *arauak* eta *lege* justuak finka iezazkiguzue; gobernu sistema berri bat osa iezaguzue; oraindaino gidatu gaituzten printzipioak akastunak direla iruditzen baitzaigu. Gure gurasoak *ezjakintasunaren* bidetik joan izan dira, eta *ohiturak* haien urratsak jarraitzera eraman gaitu. Dena bortxaz, iruzurraz, limurkeriaz egin izan da, eta moralaren eta arrazoimenaren egiazko legeak oraindik ere ilunak dira. Argi ezazue kaosa, aurki itzazue erlazioak, argitara ezazue kodea, eta gu egokituko gatzaizkio.»

Herri horrek tronu itzela eraiki zuen piramide formakoa; eta hautaturiko pertsona horiek bertan eseraraziz, honela mintzatu zitzaizen: «Gaur gure gainetik ezartzen zaituztegu, hobe asma ditzazuen gure harremanen osotasuna, eta gure pasioen irismenetik at izan zaitezten.

Baina jabe zaitezte gure antzekoak zaretela, eman dizuegun boterea gurea dela; lagata ematen zaizuela, ez dela jabego edo jaraunspena; egingo dituzuen legeetan, zuek izanen zaretela lehenak haren mende zeuen buruak ezartzen; bihar gure artean egotera jaitsi-

ko zaretela, eta ez duzuela beste eskubiderik izanen ez bada estimuak eta esker onak sortzen duena baino. Eta pentsa ezazue zer nolako loria ordainaz ohoratuko duen unibertsoak, *errorearen horrenbeste apostolu* gurtu dituen horrek, justiziaren printzipio aldaezinak solemneki deklaratu eta, tiranoen aurrean, nazioen eskubideak kontsakratzen dituen *gizaki arrazoidunen lehen biltzarra!*»

## XVII. KAPITULUA ESKUBIDE ETA LEGE OROREN OINARRI UNIBERTSALA

Orduan, arrazoimenaren eta moralaren benetako printzipioak iker zitzaaten, herriak *hautaturiko pertsonak* haien misioaren objektu sakratuan hasi ziren; eta, azterketa luze baten ostean, printzipio unibertsal eta oinarritzko bat hauteman zuten. Legegile bat honela zuzendu zitzaion herriari: «Hona hemen *funtsezko oinarria*, justizia ororen eta eskubide ororen jatorri *fisikoa*.

*Botere aktiboa dena delarik ere, unibertsoa zuzentzen duen kausa eragile horrek gizaki guztiei organo berak, sentazio berak, behar berak eman dizkigu. Hark, gertaera honegatik beragatik, deklaratu du guztioi ere bere ondasunen erabileran eskubide berak ematen dizkigula, eta gizaki guztiak berdinak direla naturaren ordenan.*

Bigarrenik, bakoitzari norbere existentziarako *baliabide nahi* -koak eskaini dizkionez, gauza argia da guztiak ere elkarren artean *independenteak* egin dituela; *libre* sortu dituela, inor ez dela besteren menpeko; bakoitza norbere *jabe absolutua* dela.

Horrela, *berdintasuna* eta *askatasuna* *gizakiaren bi ezaugarri oinarritzko* dira, *jainkotasunaren bi lege, indargabeezinak* eta *osagai direnak*, elementuen *propietate* fisikoak bezala.

Hortaz, gizabanako bakoitza norbere *jabe absolutua* denez, bere *onespen* osoa baldintza derrigorrezkoa da kontratu edo konpromiso orotarako.

Gizabanako oro *berdina* denez gainontzekoekiko, jasotzen denaren eta ematen denaren balantza *oreka* zorrotzean egon behar da: horrela, askatasunaren ideiak esentzialki bere barne du *justiziarena*, hau *berdintasunetik* sortzen delarik<sup>22</sup>.

*Berdintasuna eta askatasuna, beraz, gizartean diren gizaki elkarte ororen oinarri fisiko eta aldaezinak dira, eta, horrela, gobernu sistema erregular ororen eta lege ororen printzipio beharrezkoa eta sortzailea.*

Oinarri hori kontuan ez hartu izanak sortu ditu zuen artean, baita gainontzeko herrietan ere, azkenean zuen altxamendua eragin duten desordenak. Soilik arau horri jaramon eginez konpon ditzakezue eta birsor dezakezue zorioneko elkarte bat.

Baina jakin behar duzue zuen ohiturei, zuen aberastasunari eta zuen aurreiritziei astindu ederra emango diela. Beharrezko izanen da hitzarmen akastunak eta abusuzko eskubideak deuseztatzea; bereizketak bidegabeei eta jabetza faltsuei uko egitea; azkenik, une batez naturako egoerara itzultzea. Begira ea horrenbeste sakrifizio egiteko prest zaudeten.»

Orduan, gizakiaren bihotzak berezko duen *kodizian* pentsatuta, iruditu zitzaidan herri horrek amore eman beharko zuela hobekuntza ideia oro lortzeko ideian.

Alabaina, berehala, maila goreneko pertsona eskuzabal saldoa tronura urreratu zen eta *euren bereizketa guztiei eta ondasun guztiei* uko egin zieten, eta ondokoa esan zuten: «Eman iezazkiguzue *berdintasunaren* eta *askatasunaren* legeak; ez dugu beste ezer nahi, ez bada *justiziaren* titulu sakratua edukitzea.

*Berdintasuna, justizia, askatasuna*, hori izanen da gure kodea eta entseina.»

Herriak momentuan altxatu zuen bandera itzel bat, hiru hitz horiek bertan idatziak zituena, bakoitzari *kolore bat* egokitu ziotelarik. Legegilearen aulkiaren gainean ezarrita, *justizia unibertsalaren* estandarte lehendabizi altxatu zen; eta herriak leku honen aitzinean *aldare berria* eraiki zuen, eta berorren gainean ezarri zituen urrezko balantza bat, ezpata bat eta ondoko inskripzioa idatzia zuen liburua:

## EPAITU ETA BABESTEN DUEN BERDINTASUNEZKO LEGEARI

Ondoren, lekua eta aldarea anfiteatro itzel batez inguratuz, nazio hori osoa eseri zen legearen publikatzea entzutearren. Milioika pertsonak, aldi berean besoak zerurantz altxatuz, zin egin zuten solemneki *libre eta justu* biziko zirela; *elkarren artean zituizten lege* -

*ak errespetatuko zituztela; legeari eta berorren agenteei, erregulariki hautatuak izanen zirenei, men egingo zietela.*

Indar eta handitasunezko egundoko ikuskizun honek, eskuza-baltasunagatik ere hunkigarri zenak, liluratu egin ninduen malkoak isuraraztera arte, eta jeinuari ondokoa esan nion: «Orain bizitzea desiratzen dut, aurrerantzean dena espero baitezaket».

## XVIII. KAPITULUA TIRANOEN BELDURRA ETA KONSPIRAZIOA

*Berdintasunaren eta askatasunaren* irrintzi solemneak lurrean zehar durunda egin eta segituan, nazioen baitan nahasmendu eta ezuste mugimendu bat sortu zen. Alde batetik, jendetza, desirak bultzatuta, baina ezbaian esperantzaren eta beldurraren artean, norbere eskubideen sentimenduaren eta kateak izateko ohituraren artean, aztoratzen hasi zen. Bestetik, erregeek, bat-batean soraiotasunaren eta despotismoaren ametsetik esnatuta, euren tronuen segurtasuna arriskuan ikusi zuten; eta alde guztietarik, *tirano zibil eta sakratuen klase horiek* erregeak tronpatu eta herriak zapaltzen zituztenak, haserreak eta beldurrak harrapatu zituen, eta azpijoko maltzurrak asmatu zituzten: «Zoritzarreko gu,» esan zuten, «*askatasunaren* irrintzi adur txarrekoa jendetzaren belarrietara iristen bada! Zoritzarrekoak gu, *justizia* espiritu kaltegarri hori hedatzen bada!». Eta estandarte dantzaz zekusatelarik: «Ba al dakizue hitz horietan gordetzen den gaitz mordoa? Gizaki guztiak *berdinak* baldin badira, non dira gure ohore eta botere *eskubide eksklusiboak*? Guztiak badira edo izan behar baldin badira *libre*, zer gertatuko zaie gure *esklaboei*, gure *morroiei* eta gure *jabegoei*? Egoera zibilari dagokionez denak *berdinak* badira, non dira gure *jaiotzetiko, jaraunspenezko* prerrogatibak? Zer gertatuko zaio *nobleziari*? Jainkoaren aurrean denak *berdinak* baldin badira, non da *artekarien* beharra? Zer gertatuko zaio apaizgoari? A! Lehenbailehen suntsi dezagun halako hazi oparo eta kutsakorra! Erabil dezagun gure trebetasun osoa izurrite horren aurka; beldur ditzagun erregeak, gure kausara elkar daitezen. Banan ditzagun herriak, eta haien artean nahasmendua eta gudak susta ditzagun! Ardura ditzagun *borroka, konkista* eta *bekaizkeriekin*. Ikara ditzagun nazio aske honen boterearekin. Era dezagun liga handi bat arerio amankomun honen aurka. Bota dezagun estandarte sakrilego hori,



suntsi dezagun errebolta tronu hori, jaiotzetik amata dezagun iraultzaugar hori.»

Izan ere, herrietako tirano zibil eta sakratuek liga orokor bat osatu zuten; euren atzetik jendetza limurtu edo behartua eramanda, nazio librearen kontrako etsaitasunezko mugimendua bilakatuz, eta oihuka *lege naturalaren tronua eta aldarea* inbadituz, ondokoa esan zuten: «Zein da doktrina heretiko eta berri hau? Zer da aldare fedegabe hau, gurmene sakrilego hau? Subjektu fidel eta fededunak! Ez duzue usteko gaur konturatu zaretela egia zein den: orain arte errorean ibili zaretela; erreboltari hauek, zuek baino zorionekoagoak, daukatela jakintsu izateko pribilegio osoa? Eta zuek, *herri galdu horrek*, ez al duzue ikusten zeuen buruzagi berriek nahastu egiten zaituztetela, zeuen *fedearen printzipioak aldatzen dituztela, zeuen gurasoen erlijioa iraultzen dutela*? Ikara zaitezte, ez dadin zeruarenugarra zeuen gainean erori, eta mugi zaitezte, eta bizkor damutu, zeuen errorea konpontzearen».

Alabaina, aholkuari zein terroreari jaramonik egin barik, nazio librearen isilik mantendu zen; eta, osorik armatuta dagoela erakutsiz, errespetua sortzen zuen jarrera azaldu zuen.

Legegileak *herrien buruzagiari* ondokoa esan zien: «*Begietan benda generamalarik* argiak gure urratsak gidatzen bazituen, zergatik gaur, bendarik ez daramagunean, bilatzen duten begiradatatik alde egingo du? Gizakiei argi ikustea agintzen dieten buruzagi horiek, gizakiak tronpatzen eta galtzen badituzte, zer ez dute egingo *itsuak* soilik gidatu nahi dituzten horiek?

Herrien buruzagiok! Egia badaukazue zuekin, erakutsi diezazue. Atseginez jasoko dugu, irrikaz bilatzen baitugu, eta aurkitzeko interesa dugu: *gizakiak gara gu*, eta erra gaitzke; baina zuek ere gizakiak zarete, eta *berdin* egin dezakezue huts. Lagun gaitzazue, horrenbeste mende ondoren, gizateria galduta dabilen labirinto horretan. Lagun gaitzazue horrenbeste aurreiritzik eta biziozko ohi-  
turek sortzen duten ilusioa suntsitzen. Ibil zaitezte gurekin gure sinesmenean lehian diren hainbeste iritzien talka horretan, egia-  
zaera propioa eta bereizgarria argitzeko. Buka dezagun egun baka-  
rrean errorearen borroka hain luze hori: haren eta errorearen artean  
borroka solemne bat sor dezagun; nazio orotako gizakien iritziak  
eska ditzagun; herrien biltzar orokorra dei dezagun; haiek beraiek

izan daitezela epaile dagokien kausan; eta, sistema guztien eztabaidan, defendatzaile batek ere ez, argumentu batek ere ez, ez dezala huts egin aurreiritziagatik edo arrazoi faltagatik, ebidentzia orokor eta amankomun baten sentimenduak azkenik eragin dezala espiritu eta bihotzen konkordia unibertsala.»

## XIX. KAPITULUA

### HERRIEN BILTZAR OROKORRA

Hala mintzatu zen legegilea. Jendetzak, proposamen arrazoi-dun orok eragiten duen mugimenduak harturik, txalo egin zuen; tira-noak, sostengurik gabe, nahastuta geratu ziren.

Nire aurrean genero zeharo liluragarri eta berriko ikuskizuna agertu zen: Lurrak dauzkan herri eta nazio guztiak, klimak sortzen dituen arraza eta gizaki ezberdin guztiak, alde guztietarik zetozelarik, bilgune berean elkartzen zirela iruditzen zitzaidan; eta han, kongresu itzela osatuz, jantzien tankera ezberdinek, aurpegierak, azalaren koloreak bereizturik, jendetza zenbatezinak ikuskizunik ezohikoena eta erakargarriena eman zidan.

Alde batean europarra nekusan, bere jantzi labur eta estua, bere txapela zorrotza eta hiruki formakoa, bizarra moztuta, ileak zuri irineztatuta; bestean, asiarra, orkatiletaraino iristen zitzaion jantzia, bizar luzea, burua soilduta eta durbante borobilekoa. Hemen herri afrikarrak ikusten nituen, ebanozko azala, artile tankerako ilekoak, gorputzak oihal zuri eta urdinez bilduak, koralezko, oskolezko eta beirazko besoko eta lepokoekin apainduta. Han, iparraldeko arrazak, larruzko sakoetan jantzita; laponiarra, txapel zorrotzekoa, eta elurretako zapatekin; samoiedoa, bere gorputz bero eta usaintsuarekin; tanguzoa, txapel adardunarekin, idoloak samatik zintzilik zeramatzala; yakuta, aurpegi pikatuarekin; kalmuka, sudur zapalduna, begi txiki eta bihurrikoa. Haratago, txinatarra zetazko jantziekin, txirikordak burutik zintzilik; japoniarra, arraza nahastukoa; malaia, belarri handiduna, sudur zulatuan eraztuna zintzilik, palmondoaren hostoez eginiko txapela handiarekin; eta Ozeaniako uharteetako eta antipodetako kontinentekeo biztanle *tatuatuak*. Espezie bereko horrenbeste aldaerak, adimen beraren horrenbeste asmakuntza bitxik, antolaketa beraren horrenbeste aldakuntzak aldi berean milaka sentsazio eta milaka pen-tsamendu eragiten zizkidaten. Liluratuta hausnartzen nuen koloreen

mailaketaz, pasatzen baitzen haragi kolore gorri bizienetik beltzaran argira, gero beltzaran ilunagoa, kearen kolorekoa, brontze kolorekoa, olibaren kolorekoa, berunaren kolorekoa, kobrearen kolorekoa, azkenik ebanoaren eta atxabitxiaren beltz kolorekoa; eta arrosaren koloreko azaleko kaxmirra hindu ilunaren alboan ikusita, georgiarraren tatariarren alboan, hausnarketa egin nuen zer ondorio zuten klima bero edo hotzek, zoru garai edo sakonek, zingiratsu edo idorrek, leku ireki edo ilunbetsuek. Alderatu nituen poloetako ipotxak eta eremu epeletako erraldoiak; arabiarren gorputz mehea eta herbeheretarraren gorputz zabala; samoiadoaren gerri lodi eta motza greziararen edo esklaboniarren gerri liraina; gizaki beltzaren artile koipetsu eta iluna daniararen zeta urre kolorekoa; kalmukaren aurpegi zapala, bere begi txiki eta bihurriak, bere sudur motza, eta zirkasiararen zein abasandarraren aurpegi obalatu eta irtenak, begi urdin handiak, eta sudur konkorrak. Erkatu nituen indiarren oihal margotuak, europarraren material bitxiak, siberiarren larru aberatsak, nazio basatien landare-azalezko oihalak, ihiz, hostoz eta lumaz eginiko ehunak, eta euren azalean margotuta zeramatzaten suge, lore eta izar urdinxkazko irudiak. Batzuetan jendetza honen ikuskizun koloreanitzak Niloko eta Eufrateseko larre esmalteztatuak gogorarazten zizkidan, euriek urez gainezka egiten dietenean, ondoren alde guztietarik milioika lore jaiotzen direnean legez; bestetzueta, haren marmarragatik eta mugimenduatik, udaberrian Haurango lautadak estaltzera basamortutik datozen oti talde zenbatezina.

Hainbeste izaki bizidun eta sentikor ikusita, espazio horretan biltzen ziren pentsamendu eta sentsazioak denak batera elkartuz; besitetik, hausnarketa eginez horrenbeste aurreiritzi eta iritziren oposaketaz, gizakien pasio hain higikorren talkaz, igarotzen nintzen liluramendutik miresmenera eta beldur sekretu batera... orduan, legegileak, isilunea eskatu ondoren, nire arreta osoa bereganatu zuen.

«Lurreko biztanleok,» esan zuen, «*nazio aske* eta *boteretsu* batek *justizia* eta *bake* hitzak zuzentzen dizkizue, eta bere intentzioen berme ziurra ematen dizue, bere uste sendoetan eta esperientzian. Zeuek ere atsekabetu zaituzteten gaitzek luzaroan kaltetuta, haien jatorria bilatu du; eta aurkitu du guztiak ere indarkeriatik eta injustiziatik datozela, iraganeko arrazen esperientziak lege bihurtu baitziztuzten, eta egungo arrazen aurreiritziek mantendu egin dituzte. Horre-

la, intentzio artifizial eta arbitrarioak deuseztatuz, eta eskubide eta arrazoi ororen jatorrira lerratuz, ikusi du *unibertsoaren ordenan ber-tan* eta gizakiaren egitura fisikoan badirela lege eternalak eta aldaezinak, ez dutenak behar kontuan hartzea baizik gizakia zoriontsu egiteko. O gizakiok! Altxa itzazue begiak argia ematen dizueten zeru horretarantz; ezar itzazue elikatzen zaituzten lurrean! Guztioi ere dohain berak eskaini dizkizuenetz, horiek *mugitzen dituen botere* horrengandik bizi bera, organo berak jaso dituzuenetz, ez al duzue denok jaso haren onurak erabiltzeko eskubide bera? Ez al zaituzte, beraz, denak *berdinak* eta *libreak deklaratu*? Zein hilkor ausartuko da bere kideari naturak emaniko hori ukatzera? O nazioak! Debeka dezagun tirania eta konponduezin oro; gizarte bakarra, familia bakarra osa dezagun; eta gizateriak egitura bakarra duenez, izan beza lege bakarra, *naturarena*; kode bakarra, *arrazoiarena*; tronu bakarra, *justiziarena*; aldre bakarra, *batasunarena*.»

Hori esan zuen; eta sekulako txaloaldi bat entzun zen, zeruraino altxatzen zena. Milaka bedeinkatze oihu sortu zen jendetzaren tartetik; eta herriek, liluratuta, lurra dardararazi zuten *berdintasuna*, *jus-tizia* eta *batasuna* hitzekin. Baina berehala lehen mugimendu honi beste batek jarraitu zion: segituan nazioen doktoreek, buruzagiek liskarrera zeramatzaten, marmarra sortzen ikusi nuen, beranduago zurrumurrua, batetik bestera hedatuz, desordena zabala bilakatu zena, eta nazio bakoitzak, eskusibotasun uziak aldarrikatuz, norbere kodearen eta iritziaren nagusitasuna eskatu zuen.

«Errorean zarete,» esaten zieten alderdiek, elkarri hatz erakuslea zuzenduz, «soilik guk daukagu egia eta arrazoa; soilik guk daukagu benetako legea, eta zorionerako zein perfekziorako bide bakarra; beste pertsona guztiakitsuak edo erreboltariak dira». Eta elkarren artean liskar izugarria piztu zen.

Alabaina, legegileak isiltasuna eskatuz ondokoa esan zuen: «Herriok, zer pasio mugimenduk erasaten zaituzte? Nora eramango zaituzte eztabaida honek? Zer espero duzue tirabira honekin? Mendekak igaro ondoren lurra eztabaida eremua da, eta odol uharrak isuri dituzue iritzi kimerikoak direla eta; zer ekarri dute horrenbeste borroka eta malkoek? Noiz menderatu du indartsuak ahula iritzian, zer egin du egia eta ebidentziaren alde? O naziook! Aholku har ezazue zeuen zuhertasunetik! Zuen artean eztabaida batek gizabanakoak, familiak

bereizten dituenean, zer egiten duzue zuek adiskidetzeko? Ez al dituzue arbitroak jartzen?». «*Bai*», egiten zuen garrasi jendetzak. «Hara bada! Jariezazkiezue halaber zuen arteko tirabiren sortzaileei. Haien sinesmenak inposatu eta zuen irakasle kontsideratzen diren horiei aginiezazkiezue zuen aurrean eztabaidatzea arrazoiak. Zuen interesak inbo-katzen dituztenez, ezagut ezazue nola erabiltzen dituzten. Eta zuek, herrien buruzagi eta doktore, zuen sistemen borrokan sarrarazi orde-z, aurkako eta kontrako frogak aurkez eta eztabaida itzazue. Arrazoike-ta solemne bat egin dezagun, egiaren bilaketa publiko bat, ez gizaba-nako ustelgarri baten edo alderdi kartsu baten tribunalaren aurrean, baizik eta gizateria osatzen duten argi guztien eta interes guztien aurrean, eta espezie osoaren zentzumen naturala gure arbitroa eta epaile izan bedi.».

## XX. KAPITULUA EGIAREN BILA

Herriak txalotu ondoren, legegileak honakoa esan zuen: «Egin dezagun aurrera ordenarekin eta nahasmendurik gabe, utz ezazue hon-darrean eta *batasunaren* eta *bakearen aldairearen* aurrean zirkuluerdi zabal bat, eta erlijio sistema bakoitzak, sekta bakoitzak estandarte pro-pio eta bereizgarri bat altxa beza, eta zirkunferentziaren ertzean jar bezate, buruzagi eta doktoreak haren inguruan bil bitez, eta jarraitzai-leak atzean ezar bitez lerro berean.»

Zirkuluerdia marraztu zelarik eta ordena publikotu, segituan altxatu zen kolore eta forma orotako estandarte multzo zenbatezina; ehunka nazio merkatari bertaratzen den portu horretan bezala, bertan, masta baso horretan, milaka bandera ikusten baita dantzan jaiegune-tan. Aniztasun liluragarri horren itxura ikusita, jeinuarengana biratu nintzen. «Uste nuen,» esan nion, «Lurra zortzi-hamar sinesmen siste-ma ezberdinetan banatua zela, eta ez nuen espero inolako adiskidetze-rik; orain milaka alderdi diferente ikusten ditudalarik, nola espero dai-teke gogaidetasuna?»

«Eta, hala ere,» esan zidan, «ez dira guztiak hemen, eta into-lerante izan nahi dute!»

Taldeak euren lekuetan jartzen zihoazen eran, bakoitzaren sin-bolo eta ezaugarriez jabearazten zidalarik, haien berezitasunak hitz hauekin azaldu zizkidan:

«Lehen talde hau», esan zidan, «estandarte berdeduna, *ilargi erdia*, *banda bat* eta *sable bat* daramana, profeta arabiarren jarraitzaileek osatzen dute. *Jainko bakarra dela* (nor den jakin gabe), *persona baten hitzak sinestea* (haren hizkuntza ulertu gabe), *basamortu batera Jainkoa gurtzera joatea* (alde guztietan dagoelarik), *eskuak urez garbitzea* (odolari uko egin barik), *egunean barau egitea* (eta gauean jatea), *norbere ondasunekin limosna ematea* (eta gainontzeko pertsonena ebastea): horiek dira Mahomak emaniko perfekzioarako bideak, horiek dira bere sinesle fededunek biltzeko darabiltzaten sinboloak. Horiek jarraitzen ez dituenak madarikatua da, anatemak kolpatua, eta aitzora destinatua. *Biziaren sortzaile den Jainko bihozbera batek* eman ditu zapalkuntza eta heriotza lege horiek. Unibertso osorako egin ditu, gizon bati bakarrik errebelatu zizkion arren. Eternitate osorako finkatu ditu, atzora arte jakinarazi ez zituen arren. Nahikoak dira behar guztietarako, eta nolanahi ere eranskin bat jarri zion. Eranskin horrek argia hedarazi behar zuen, ebidentzia frogatu, perfekzioa eta zoriona erakarri; eta, hala ere, apostolua bizirik zenean ere, haren orrialdeek esaldi bakoitzean zentzu ilunak, anbiguoak, alderantzizkoak agertzen zituzten, beharrezko egin zitzaion azaldu eta komentatzea; eta haren interpreteak, iritzi ezberdinak zituztelarik, sekta aurka edo areriotan bereiztu ziren. Batek defendatzen zuen Ali zela benetakoa ondorengoa, besteak Omar eta Abubeker. Batek Koranaren betikotasuna ezeztatzen du, besteak ikuzketak eta otoitzak beharrezko ikusten ditu: karmitak erromesaldia debekatu eta ardoa zilegi egiten du. Hatxemitak arimen transmigrazioa predikatzen du. Honaino hiru rogeita hamabi alderdi konta ditzakezu estandarteei begiraturaz. Aurkaritza horretan bakoitzak beretzat dauka egia eskusiboki; gainontzekoei heresia eta errebolta egozten dizkie, eta guztien aurka zuzentzen du bere apostolutza odoltsua. Erlijio horrek, goraipatzen duenak Jainko bihozbera eta gupidatsu bat, gizaki ororen sortzaile eta aita amankomun, konponduezinarenugar bilakatzen dena, heriotzarako eta gerrarako arrazoi, erlijio horrek, bada, mila eta berrehun urte ondoren ez dio utzi lurrean etengabe odola isurtzeari, eta antzinako hemisferioan alde batetik bestera harrapakaria eta desordena zabaltzeari<sup>23</sup>.

Pertsona horiek azpimarragarriak direnak daramatzaten durbante zuri horiengatik, mahuka zabalengatik, arrosario luze horiengatik, horiek imanak dira, molak, muftiak, eta haiengandik gertu dira

derbitxeak, txapel zorrotzekoak, eta eremutarrak, ilea solte daramatenak. Begira zer-nolako suhartasunez egiten duten profesio euren fedearekin, eta nola hasten diren eztabaidatzen *lohikeria handi eta txikiez, ikuzketen* materia eta formaz, Jainkoaren ezaugarriez eta perfektzioez, chaitan-i buruz edo aingeru gaizto eta onei buruz, heriotzari buruz, berpizkundeari buruz, hilotzeko *itaunketaz*, epaiketaz, *ilea bezain estua den zubia igarotzeaz, ekintzen balantzaz*, infernuko oinazeez eta paradisuko gozamenenez.

Bigarren talde oraindik handiago hori, fondo zuri eta gurutzez josiriko estandartedunena, Jesusen gurtzaileen taldea da. Musulmanen jainko bera dutelarik, liburu beretan oinarritzen dute euren fedea, gizateria osoa sagar bat jan zuen gizaki batek galdu zuela pentsatzen dutelarik haiek bezala, nolanahi ere higuin santua diete haiei, eta pietate osoarekin elkarri leporatzen diete birao egitea eta fedegabetasuna. Haien arteko tirabirarik handiena honakotik sortzen da: kristauak Jainkoa *bakarra* eta *zatiezina* dela onartu ondoren, gero *hiru* pertsonatan banatzen dute, bakoitza *Jainko osoa* delarik, elkarren artean *osotasun* bera eratzen dutelarik. Gaineratzen dute *izaki* hori, *unibertsoa betetzen duena*, *gizaki* baten gorputzean *biltzen* dela, eta organo material, iragankor, mugatuak dauzkala, aldi berean inmateriale, eternala eta infinitua izateari utzi barik. Musulmanek, *misterio* horiek ulertzen ez dituztelarik, Koranaren betikotasuna eta profetaren misioa uler ditzaketen arren, kristauenak erokeriatzat dituzte eta garun gaitxoak irudipentzat jotzen dituzte: handik datoz euren arteko ezinikusi gupidagabeak.

Bestalde, haien artean euren sinesmenaren puntu asko direla eta bereizturik, kristauak alderdi ez gutxiago anitzak osatzen dituzte. Setatiak eta bortitzak dira banatzen dituzten eztabaidetan, oinarritzeko erabiltzen dituzten objektuak zentzumenei sumaezinak zaizkie, eta, hortaz, ezinezkoa da frogapena egitea. Bakoitzaren iritziak ez dauka arau edo oinarririk, ez bada apeta eta norbere nahia baino. Horrela, ados direlarik Jainkoa *izaki ulergaitz*, *ezezaguna* dela, hala ere *eztabaida* egiten dute haren esentziaren gainean, haren ezaugarriez. Ados direlarik Jainkoa *gizaki* eran transformatzea ulermenaren gainetik dagoen enigma dela, hala ere eztabaidatzen dute *borondate bi* eta *natura biren* bereizketa edo elkarketaz, *substantziaren eraldaketaz*, *presentzia benetakoaz ala santuaz*, *haragitzearen* moduaz, eta abar.

Hara sekta zenbatezin horiek. Berrehun edo hirurehun desagertu badira ere, beste hirurehun edo lauhunek oraindik irauten dute, eta euren bandera mordoak ikusmenaren arreta jasotzen dute. Lehenak, guztien buru delarik, berorren inguruan biltzen dituelarik jantzi bitxiak daramatzen giza talde bat, jantzi bioleta, gorri, zuri, beltz eta koloreanitzekoa, burua tontsuraturik, edo ile motzekoak zein buru soildutakoak, txapel gorrikoak, bonete laukidunekoak, mitra zorrotzekoak, edo bizar luzekoak, talde horrena Erromako Aita santuaren estandarte da; hark ordena zibilean bere hiriaren buruzagitasuna apaizgoari eman diolarik, bere *nagusitasuna* erlijio dogma bihurtu, eta bere urguilua fede artikulu bilakatu du.

Haren eskuinera greziar eliza-burua ikusten ahal duzu, bere metropoliak eragiten duen aurkaritzagatik ausart, Ekialdeko Elizarekin antzeko uziak ditu Mendebaldeko Elizaren antzinagokotasuna dela eta. Ezkerrean, duela gutxiko buruzagi biren estandarteak daude<sup>24</sup>, tiraniko bilakatu den uztarpetik alde eginda, haien erreformarekin aldare batzuei beste aldare batzuek oposatu dizkiete, eta Aita santuari Europa erdia kendu diote. Haien giblean alderdi handi horiek azpibanatzen dituzten bigarren mailako sektak daude: nestordarrak, eutikearrak, jakobitak, ikonoklastak, anabaptistak, presbiteriarrak, wicliffdarrak, osiandarrak, manikearrak, metodistak, adamistak, kontenplatzaileak, kuakeroak, negarlariak, eta antzeko beste hainbat ehunka<sup>25</sup>. Alderdi guztiak bereziak direlarik, elkarri eraso egiten diote indartsu direnean, elkar toleratzen dute ahul direnean, elkarri higuin diete Jainkoaren eta bakearen izenean, bakoitzak bere paradisu partikularra du karitate unibertsaleko erlijio batean, elkarri bukaerarik gabeko penak opa dizkiete ondorengo mundu batean, eta mundu honetan lortzen dute ondorengoan ezartzen duten infernu hori.»

Talde horren atzean, hiazintoaren koloreko estandarte bat ikusita, berorren inguruan jantzi mota orotako Asiako eta Europako jendea biltzen zelarik, «Behintzat,» esan nion jeinuari, «hemen gizatasuna ediren dugu». «Bai,» erantzun zidan, «lehen begiratuan, kasualitatez eta unetxo batez: ez al duzu gurmenean sistema hori zein den antzematen?». Orduan, letra hebraikoetan idatzita Jainkoaren izenaren monograma eta errabinoek eskuetan daramatzaten palmak antzematerakoan, ondokoa esan nion: «Egia da, egundaino barreiatuta dirauten Moisesen seme-alabak dira, nazio oro gorrotatzen dutelarik, nazio



orok gorrotatzen eta jazartzen ditu». «Bai», erantzun zuen, «eta arrazoi horregatik, ez dutelako denborarik ez askatasunik izan eztabaidatzeko, batasun itxura mantendu dute; baina biltzerakoan euren printzipioak aurrez aurre jartzen dituztenean eta euren iritziez arrazoitu bezain pronto, antzina bezala bi sekta nagusitan bereiziko dira<sup>26</sup>. Batean, legegilearen isiltasunean oinarrituz eta liburuen zentzu literari atxikiz, argi adierazita ez dagoen oro ezeztatuko da, eta printzipio horietan oinarrituta profanoen asmakuntza bezala arbuiatuko ditu *ari-maren hilezkortasuna*, eta haren *transmigrazioa* pena edo gozameneko lekuetara, eta haren berpizkundea, eta azken judizioa, eta aingeru on eta txarrak, jeinu gaiztoaren errebolta eta haratagoko mundu baten sistema poetiko osoa. Herri pribilegiatu hori, berorren perfekzio osoa haragitxo zati baten moztean datzana, herri atomo hori, herrien ozeanoan olatutxo ttipi bat baizik ez dena, pentsatzen duena Jainkoak harentzat soilik egiten dituela gauzak, zismagatik bitan banatuko da, eta unibertsoaren balantzan txikiagotu egingo da dagoeneko zeharo arina den pisua.»

Orduan alboan zen talde bat erakutsi zidan, soinean jantzi zuriak zeramatzaten gizonak osatua, ahoa belo batek estaltzen zien, eta egunsentiaren kolorea izanik hemisferio bitan –bata beltza, bestea zuria– banatzen zen globoa agertzen zen estandarte baten inguruan bildua: «Gauza bera gertatuko zaie», jarraitu zuen, «Zoroastroren seme-alaba hauei, behin hain boteretsu izan ziren herri horien aztarna diren horiei. Egun juduak legez jazarriak direlarik, eta gainontzeko herrialdeetan barreiatuak, eztabaidarik gabe jasotzen dituzte euren profetaren ordezkariaren manuak. Alabaina mobed-ak eta destur-ak biltzen diren unean, liskarra sortuko da *printze on* eta *gaiztoen* artean; batetik, Ormuzen, argiaren jainkoaren, eta, bestetik, Ahriman-en, iluntasunaren jainkoaren, borrokalarien artean; zentzu zuzen ala alegorikoaren artean; *jeinu onen* eta *gaiztoen* artean; *suaren gурmenaren* eta *elementuenaren* artean; *ikuzketen* eta *orbanen* artean; *berraragi-tzearen* ala soilik *ariman berpiztearen* artean; eta *existitzen den munduaren berritzean* ala sortu beharko den *mundu berrian*. Eta parsi-ak sekta oraindik ugariagoetan bananduko dira<sup>27</sup>, banakuntza horretan familiek nazio atzeritarren ohitura eta iritzia hartuko dituztelarik.

Haien alboan, estandarte urdin argia, bertan margoturik gorputz bikoitz, hirukoitz, lauukoitzeko munstro itxurako giza irudiak,

euren buruak lehoi, basurde, elefanteenak, buztanak arrain, dortoka eta abarrenak, estandarte horiek indiar sektenak dira, haiek euren jainkoak animalien artean topatzen dituzte, eta euren arbasoen arimak narrasti eta intsektuen artean. Pertsona horiek aterpeak eraikitzen dituzte gabirai, suge eta arratoientzat, eta beldur diete euren giza kideei! Behiaren gorotzarekin eta gernuarekin purifikatzen dira; gizakia-  
ren kontaktuarekin orbanduta sentitzen dira! Ahoan sare bat darama-  
te, ez dezaten irentsi euli bat, hau da, euren ustez penaturik dabilen  
arima bat dena; eta paria bat gosez hiltzen utziko dute! Jainko berak  
dauzkate, baina alderdi arerio eta anitzetan banatzen dira.

Lehen estandarte hori, gainontzekoetatik aparte dagoena, ber-  
tan lau buruko irudi bat ikusten duzuna, Brahma-rena da, *jainko sor-  
tzailea* den arren, ez daukana jarraitzaile edo tenplurik, eta Lingha-  
maren idulkia izateko funtzioa betetzea egokitu zaiona<sup>28</sup>; kontentatu  
behar delarik Barhaminak, abestitxo bat kantatzen duela, sorbaldatik  
egunero botatzen dion ur apurra jasotzearekin.

Bigarrena, bertan gorputz gorriko eta buru zuriko miru bat mar-  
gotuta duena, Vishnu-rena da, *jainko zaintzailea* den arren, bizitzaren  
zati bat gaiztakeriak egiten igaro duena. Batzuetan *basurdearen* edo  
*lehoiaren* itxura nazkagarriarekin ikusiko duzu, giza erraiak birrintzen,  
edo zaldia-  
renarekin, eskuan sablea dakarrela egungo garaia suntsitzera  
datorrena, *astroak iluntzera, izarrak botatzera, lurra ikaratzera, eta  
suge tzarrari globoak akabatuko dituen sua jaurtiaztera*.

Hirugarrena Shiva-rena da, *hondamendiaren*, harrapakariaren  
jainkoa, sorkuntzaren zeinua duena hala ere ikurtzat: hiruetarik anke-  
rra da, eta jarraitzaile gehien daukana. Haren izaerak harroturik,  
jarraitzaileek gurmenean gainontzeko jainkoak, euren kideak eta anai-  
arrebak mespretxatzen dituzte; eta, haren bitxitasunaren imitazioz,  
kastitatea eta umiltasuna praktikatzen duten arren, Linghamaren irudi  
lizuna esneaz eta ezti-  
az bainatu eta lorez estaltzen dute publikoki.

Haien atzetik jainko har, eme eta hermafrodita talde saldoaren  
estandartetxoak datoz, hiru nagusien ahaide eta lagun direlarik, bizi-  
tza osoa igaro dutenak elkarren artean borrokatzen, eta haien gurtzai-  
leek horretan imitatzen dituzte. Jainko horiek ez dute ezeren beharrik,  
eta opariak jasotzen dituzte etengabe; ahalguztidunak dira, eta uniber-  
tsoa betetzen dute, eta brahman batek, hitz batzuekin idolo batean edo  
pitxer batean, haren faboreak bere borondatera saltzea dauka.

Haratago, estandarte saldo hori, denek ere fondo horia berdina dutena, ikurak ezberdinak badira ere, izen ezberdinekin Ekialdeko nazioak gobernatzen dituen jainko bati berari dagokio. Txinatarrek *Fot* deritzate<sup>29</sup>, japoniarrek *Budso* bezala gurtzen dute, Sri Lankan *Bedhu* edo *Budha* da, Laosen *Chekia*, peguarrak *Phta*, siamdarrek *Sommona Kodom*, tibetarrak *Budd* eta *La*. Denek –haren historian zenbait gauzatan ados direlarik– goraipatzen dute haren *penitentziaz* - *ko bizitza*, haren *nekaldiak*, haren *baraualdiak*, haren *artekari* eta *pekatzaile* funtzioak, haren *kontrakoa den jainko* batekiko duen aurkaritza, haien *borrokak* eta haren *gailentzea*. Alabaina, ezadostasunak sortzen dira hari atsegin emateko dagoen moduan, eztabaidak dituzte erritu eta praktikatan, *barne doktrinaren* eta *doktrina publikoaren* dogmetan. Hemen, bontzo japoniar horrek, jantzi horiko burusoilak, arimen betikotasuna eta gorputz diferenteetan horien transmigrazioa predikatzen du; horren alboan dagoen *sintoistak*, berriz, haien existentzia zentzumenetik apartekoa ukatzen du<sup>30</sup>, defendatzen du haiei loturik den organoen *efektu* bat baizik ez direla, haiekin hiltzen direlarik, soinuari instrumentu batekin gertatzen zaion bezala. Harago, siamdarrek, bekainak moztuta eta eskuan talipat pantaila bat dituenak<sup>31</sup>, gomendatzen du limosna, bekatu garbiketa, eskaintzak, eta, hala ere, zori itsua eta Patu sor bat predikatzen ditu. Ho-chang txinatarrek sakrifizioak egiten ditu arbasoentzat, eta haren alboan Konfuzioren jarraitzaileak bere horoskopoa bilatzen du<sup>32</sup> ausaz botatako dadoekin eta izarren mugimenduan. Haur hori, jantzi eta txapel horiko apaiz saldo horrek inguratua, Lama handia da<sup>33</sup>, harengan haragitu baita Tibetek gurtzen duen jainkoa. Baina aurkari bat sortu zaio, harekin partitzen dituen onurak; eta Baikal lakuko taldeen artean, Lasan bizi denaren antzeko jainkoa du kalmukak: ados dira puntu inportante batean, hau da, jainkoa ezin dela bizi giza gorputz bakarrean baino, biek ere indiarraren arlotekeriaz barre egiten dute, behiaren gorotza gurtzen baitu, haiek euren pontifizearen gorotzak kontsakratzen dituzten artean.»

Haiei atzetik, begiak konta ez zitzakeen estandarte mordoa zetorren, eta jeinuak honakoa esan zuen: «Ez nuke inoiz bukatuko, nazio horiek banatzen dituzten sinesmen sistema guztiak zehaztasunez azalduko banizkizu. Talde tatariarrek, piztia irudiekin, txoriak eta intsektuak gurtzen dituzte, *jeinu onak* eta *gaiztoak*, *jainko* nagusi bai-

na axolagabe baten menpe unibertsoa gobernatzen dutenak. Euren idolatriak antzinako Mendebaldeko paganismoa gogorarazten du. Begira euren xamanen jantzi bitxiak, kanpaitxo eta kaskabiloak, burdinazko idolotxoak, txorien atzaparrak, sugeen larruak, hontzen buruak larruzko jantzi batetik zintzilik dituztela konbultsio artifizia- lekin eta oihu magikoekin hilak inbokatzen dituzte biziak tronpatze- ko. Han, Afrikako herri beltzak, euren fetitxeen gurmenarekin, tanke- ra berekoak dira. Hara Juidako biztanlea, suge handi bat gurtzen due- na, zoritxarrez urdeek jateko oso maite dutena<sup>34</sup>... Hara teleuta, bere jainkoa kolore anitzeko jantzi batekin irudikatzen duena, soldadu errusiar bat balitz bezala; hara kamtxadala, bere klima hotzean eta mundu honetan dena txarto doala ikusita, *agure apetatsu eta tristea* imajinatzen du jainkoa, pipa erretzen duela, bere leratik elur-oreinak eta lephahoriak ehizatzen dituela. Azkenik, hara ehun nazio basati, ez daukatenak herri zibilizatuenak bezalako ideiarik batere Jainkoari buruz, ez arimari buruz, ezta haratagoko mundu batez edo bizitza batez ere, ez dute inolako gurmen sistemarik osatu, eta hala ere ez dute gutxiago gozatzen naturako dohainez, naturak berak sortu dituen erlijio ezan».

## XXI. KAPITULUA

### ERLIJO KONTRAESANEN ARAZOA

Talde anitzek euren lekuak betetzerakoan, jendetzaren marmar- rari isiltasun sakon batek jarraitu zion, eta honakoa esan zuen legeg- ileak: «Herrien buruzagi eta doktoreak! Azpimarratu duzue nola nazioek, isolatuta bizi izan direnez, bide ezberdinak jarraitu dituzten: bakoitzak egiarena jarraitu duela uste du. Egia bakarra bada, eta iri- tziak aurkakoak badira, gauza argia da baten bat erratuta dabilela. Alabaina, hainbeste pertsona tronpatuta badabil, nor ausartuko da baieztatzen bera zuzen dabilela? Has zaitezte barkaberak izaten zeuen desadostasun eta desakordioetan. Bila dezagun denok egia, haren jabe inor izango ez balitz bezala. Egundaino lurra gobernatu duten iritziek, ausaz sorturikoeak, berrikuntzarako maitasunak eta imitazioak kredita- tuta, herriaren berotasunak eta ezjakintasunak hedatuta, egien inperioa klandestinoki usurpatu dute. Bada garaia, oinarridunak baldin badira, haien ziurtasunari solemnitaterik izatera bat emateko, eta haien existen- tzia legitimatzeko. Ezar diezaiegun azterketa orokor eta komun bat;

bakoitzak azal dezala bere sinesmena, eta bakoitza hurkoaren epaile bilakatzen delarik, har bedi soilik *egiatzat*, gizateria osoarentzat egia dena».

Orduan, lekuaren ordena jarraituz ezkerreko lehen estandarte-ari eskaini zitzaion hitza: «Ezin da baimendu zalantzan jartzea, esan zuten haien buruzagiek, gure doktrina dela egiazko bakarra, hutsezin bakarra. Lehenik, Jainkoak berak errebelatua da...».

«Baita gurea ere», egin zuten oihu gainontzeko estandarte guztiek, «ezin da hori zalantzan jarri».

«Baina gutxienik frogatu egin beharko da», esan zuen legegileak, «ezin baitugu sinetsi ezagutzen ez duguna».

«Gure doktrina frogatua da», errepikatu zuen lehen estandarteak, «anitz gauza direla-eta, mirari saldoagatik, hilen berpizteagatik, lehortutako uharrengatik, garraiatutako mendiengatik, eta abar».

«Guk ere», ihardetsi zuten beste guztiek, «guk ere mirari mor-  
doa daukagu», eta bakoitza gauzarik sinestezinenak kontatzen hasi zen.

«Euren mirariak», esan zuen lehen estandarteak, «imajinazioz-koak dira, edo espiritu gaiztoaren asmakuntzak, nahastu egingo baitzitzen».

«Zeuenak izanen dira», ihardetsi zuten besteek, «imajinazioz-koak direnak», eta bakoitzak, norberarenaz mintzatuz, ondokoa esan zuen: «Gureak baino ez dira egiazkoak, gainontzeko guztiak faltsuke-riak dira».

Eta legegileak honakoa esan zuen: «Lekuko bizirik al duzue?»

«Ez», erantzun zuten guztiek ere, «gertakizunak antzinakoak dira. Lekukoak hilak dira, baina idatziak utzi dituzte».

«Ongi», erantzun zuen legegileak, «baina elkarrekiko kontrae-  
sanean badira, nork adostuko ditu?».

«Arbitro justu batek!», egin zuen oihu estandarteetako batek, «gure lekukoek egia ikusi duten froga da lekukotasuna emateko hil direla, eta gure sinesmena martirien odolak zigilatu du».

«Baita gurea ere», esan zuten gainontzeko estandarteek, «mila-  
ka martir dauzkagu tormenturik latzenetan hilak izan direnak, inoiz ere ukamenik egin barik». Orduan sekta guztietako kristauak, musul-

manek, indiarrek, japoniarrek bukaerarik gabeko aitorle, martiri eta penitenteen legendak aipatu zituzten.

Alderdietako batek, gainontzekoen martiriak arbuiatu ondoren, honela esan zuten: «A bai, gu hilko gara frogatzeko gure sinesmena dela benetakoa».

Bat-batean erlijio orotako, sekta orotako pertsona saldoa agertu zen tormentuak eta heriotza sufritzeko prest. Asko hasi ziren besokak hausten, burua eta bularra kolpatzen, minik azaldu gabe.

Legegileak geldiarazi zituen baina: «O gizakiok!», esan zien, «entzun itzazue lasai ene hitzok: bi eta bi lau direla frogatzeko hilko bazarete, zeuen heriotzak frogapenaren baliozeari ezer erantsiko al dio?».

«Ez», erantzun zuten denok.

«Eta bost direla frogatzeko hilko bazarete, bost izatea lortuko al duzue?»

«Ez», erantzun zuten ostera ere.

«Orduan zer? Zer frogatzen du zeuen konbentzitze modu horrek, ez baldin badu gauzen existentzia batere aldatzen? Egia bat da, zeuen iritziak anitzak dira; hortaz, zuetako gehienak oker zarete. Gauza argia den bezala, gizakiari akatsaz jabebarazi badakioke, zer frogatzen du gizakiaren konbentzitzeak?

Erroreak bere martiriak badauzka, non da egiaren zigilua?

Espiritu gaiztoak mirariak burutzen baditu, zein da jainkotasunaren ezaugarri bereizgarria?

Eta, bestalde, zergatik oinarritu osoak eta nahikoak ez diren miraritan? Naturaren aldagarritasuna ikusita, zergatik iritziak ez aldatu? Zergatik gizakiak hil edo ikaratu, hezi eta zuzendu ordez?

O gizaki sineskor, eta aitzitik tematiak! Gutako inor ez dago ziur atzo gertatu zenaz, gaur gure begi aurrean gertatu denaz, eta zin egingo dugu duela bi mila urte gertatu omen zenaz!

Gizaki ahul, eta aitzitik harroak! Naturaren legeak sakonak eta aldaezinak dira, gure espirituak ilusioz eta arinkeriez beteak dira, eta dena frogatu nahi dugu, dena ulertu! Egiazki, errazago zaio gizateria osoari tronpatzea atomo bati bere natura aldaraztea baino.»

«Ongi da», esan zuen doktore batek, «utz ditzagun gertakizun-  
nen frogak alde batera, erratuak egon baitaitezke; gatozen arrazoike-  
taren frogetara, doktrinari berezkoak zaizkion horietara».

Orduan Mahomaren iman bat jendaurrera abiatu zen konfian-  
tza osoz, Mekarantz zuzendu eta enfasis bere fedea agertu ostean,  
honela esan zuen ahots ozen eta inposatzaile batekin: «Goretsia bedi  
Jainkoa! Argiak ebidentziaz distira egiten du, eta egiak ez du azterke-  
taren beharrik». Korana erakutsiz, hau esan zuen: «Hara argia eta egia  
bere esentzia propioan. *Ez da zalantzarik liburu honetan. Zuzen gida -  
tzen du itsu doana, eztabaidarik gabe jasotzen duena hitz jainkotiarra,  
profetarengana iritsi dena pertsona sinplea salbatzeko eta jakintsua  
nahasteko. Jainkoak Mahoma hautatu du Lurrean bere ministro izate -  
ko; mundua eskaini dio, sable bidez menperatzeko haren legea sines -  
tea errefusatzen duena: fedegabeek eztabaidatzen dute, eta ez dute  
sinetsi nahi; haien burugogorkeria Jainkoak eragin du; haien bihotza  
gogortu du zigor itzelenak paira ditzaten...»<sup>35</sup>.*

Hitz horiekin alde guztietarik marmar ozen bat zabaldu zen,  
hizlaria eten zuena. «Nor da gizaki hau», egin zuten oihu talde guz-  
tiek, «arrazoirik gabe ernegatzen gaituena? Zein eskubidetan oinarri-  
tuta inposatu nahi dugu bere sinesmena irabazle eta tirano batek beza-  
la? Ez al dizkigu Jainkoak eskaini hari bezala begiak, espiritu bat, adi-  
mena? Ez al daukagu guk ere horiek erabiltzeko eskubidea, jakiteko  
zer arbuiaitu ala sinetsi behar dugun? Hark gu erasotzeko eskubidea  
baldin badu, ez al daukagu guk defendatzekoa? Hark azterketarik  
gabe sinets dezagun nahi badu, ezin al dugu guk arrazoituta sinetsi?

Eta zein da argiari beldur dion doktrina argitsu hori? Zein da  
Jainko bihozbera baten apostolu hori, heriotza eta sarraskia baino ez  
dituenak predikatzen? Zein da justiziazko Jainko hori, berak eragiten  
duen itsutasun bat zigortzen duena? Biolentzia eta jazarpena egiaren  
argumentuak baldin badira, goxotasuna eta karitatea faltsukeriaren  
trazak al dira?»

Orduan, imanaren alboan zen talde batetik pertsona batek  
aurrera egin zuen, honakoa esanez: «Onar dezagun Mahoma dela dok-  
trina onenaren apostolua, benetako erlijioaren profeta! Behintzat, esa-  
guzue noren praktika jarraitu beharko dugun: bere ondorengoarena  
Alirena, ala bere bikarioena Omar-ena eta Abubeker-ena?»<sup>36</sup>.

Hitz horiek ahoskatu eta segituan, musulmanen artean zisma izugarria sortu zen: Omarren eta Aliren jarraitzaileek elkarri heretiko, fedegabe eta sakrilego zeritzoten, eta madarikazioz betetzen zuten elkar. Liskarra hain gogorra bilakatu zen, beharrezkoa suertatu baitzen, ez zitezen borrokan hasi, auzoko taldeak tartean sartzea.

Azkenik, lasaitasuna apur bat hedatzen hasi zenean, legegileak honakoa esan zien imanei: «Begira nolako ondorioak izan dituzten zuen printzipioek! Gizakien praktikan jarriko balituzte, edo zuek ere, oposatzearen oposatzeaz, azken gizakia ere hilko zenukete; eta ez al da Jainkoaren lehen legea gizakia bizi dadila?». Ondoren, gainontzeko taldeei zuzenduz: «Zalantzarik gabe intolerantzia eta bazterketa espiritu horrek talka egiten du justiziaren ideia ororekin, moralaren eta gizartearen oinarri oro iraultzen du; alabaina, doktrina kode hori guztiz baztertu baino lehen, ez al da komeni haren dogma batzuk ulertzeari, ez dezagun baieztatu ezer formei buruz, fondoaren ezagutza izan baino lehen?».

Taldeak ados zirelarik, imana hasi zen azaltzen nola Jainkoak, idolatrian murgiltzen ziren nazioei *hogeita lau mila profeta bidali ondoren, azken bat bidali zuen, guztien bereizgarri eta perfekzio, Mahoma, harengan egongo delarik bakearen salbazioa*; nola, fedegabeek ez zezaten gehiago Jainkoaren hitza aldatu, *bihozberatasun jainkotiarrek berak Koranaren orrialdeak idatzi zituen*. Islamismoaren dogmak zehazki agertuz, imanak azaldu zuen nola, *Jainkoaren hitza izanik, Korana ez-sortua eta eternala zela*, haren jatorria legez; nola *Gabriel aingeruaren gauezko hogeita lau mila agerralditan orriz orri bidalia izan zen*; nola azaltzen zen aingerua *profetari izerdi hotza eragiten zioten kolpetxo batzuk joz*; nola, gau bateko begitazio batean, *berrogeita hamar zeru zeharkatu zituen, erdi zaldia eta erdi emaku mea zen Borak piztiaren gainean muntatuta*; nola, mirariak egiteko dohaina zuelarik, *eguzkipean ibiltzen zen itzalik gabe, hitz bakarrarekin arbolak berdetzen zituen, putzuak eta patinak urez betetzen zituen, eta ilargiaren diskoa bitan banandu zuen*; nola, zeruko manuak jarraituz, *Mahomak, sablea eskuetan zeramalarik, zeukan sublimetasunagatik duinena zen erlijioa hedatu zuen, gizakientzat egokiena zena bere praktiken sinpletasunagatik, ez baitzeuzkan zortzi edo hamar bat puntu baizik: Jainkoaren batasuna aitortzea; Mahoma profeta bakartzat hartzea; egunean bost aldiz otoitz egitea; urtean hila*



*bete barau egitea; bizitzan behin Mekara joatea; ondasunen hama - rrena ematea; ardorik ez edatea; txerrikirik ez jatea; fedegabeen aur - ka guda egitea.* Modu horretan, musulman orok, berori apostolu eta martiri bilakaturik, mundu honetan gozatzen zuela ondasun mordoaz; eta hiltzerakoan bere arima *—egindakoen balantzian pisatuta*, eta bi aingeru beltzek absolbituta— nola pasatzen zen infernuaren gainetik *ile bat bezain estua eta sable bat bezain zorrotza zen zubitik* eta azke - nik harrera egiten zitzaiola *gozamenek beteriko tokian*, esnea eta ezitia daramaten errekek bainatua, indiar eta arabiar lurrin guztiek gantzututa, bertan *huriek*, beti kastu mantentzen diren birjinek, etengabe gozamenek betetzen dituzte hautatuak, gaztetasun eternala mantentzen dutenak.

Hitz horiek entzunda aurpegi guztietan irribarre saihestezina agertu zen, eta talde anitzek, nork bere erlijioaren artikuluek hausnartuta, honakoa esan zuten aho batez: «Zelan izan daiteke pertsona arrazoimendunak halako ameskeriak ametitzea? Ez al dirudi *Mila eta bat gaueko* kapituluetakoa bat?».

Samoiedo bat jendaurrean azaldu zen: «Mahomaren paradisu», esan zuen, «sekulakoa iruditzen zait; baina berau lortzeko bideetakoa batek nahasten nau: ezen ez baldin bada zilegi *egunsentiaren eta iluntzearen artean* jatea eta edatea, hark agintzen duen bezala, nola egingo dugu halako barau bat gure herrialdean, bertan eguzkia horizontean mantentzen baita ezkutatu barik lau hilabetez?».

«Hori ezinezkoa da», esan zuten doktore musulmanek profetaren ohorea sostengatzeko; baina ehunka pertsonak baieztatu zuten datua, Mahomaren hutsezintasunak astindu ederra jaso zuen halabeharrez.

«Gauza bitxia da», esan zuen europar batek, «Jainkoak etengabe kontatzea zer gertatuko den zeruan, lurrean gertatzen denaz jakinarazi gabe».

«Neuk,» esan zuen amerikar batek, «zailtasun handiak ikusten ditut peleginazioaren gaian; ezen, demagun belaunaldi bakoitzak hogeita bost urte irauten dituela, eta munduan soilik ehun bat milioi gizonezko direla: bakoitza bere bizitzan zehar Mekara behin joatera behartua badago, urtean lau milioi pertsona egon beharko dira ibilbidean. Ezinezkoa litzaieke urte berean itzultzea. Kopurua bikoitza bilakatzen da, hau da, zortzi milioi: non bilatu prozesio solemne honeta-

rako elikagaiak, egonlekua, ura, itsasontziak? Mirariak benetan beharrezkoak lirateke».

«Mahomaren erlijioa errebelatua ez dela frogatzen duena», esan zuen teologo katoliko batek, «ondokoa da: oinarri dituen ideiak hura sortu baino askoz ere lehenago ziren, eta ez da gure erlijio sailduaren eta juduenaren egia eraldatuen nahaste ilun bat baino, pertsona handinahi batek bere dominazio proiektuak eta ikuspegi mundutarrak gauzatzeko erabili duena. Begira bere liburuan zehar: ez duzu aurkituko Bibliako eta Ebanjelioko historiak baino, kontu irrigarritan trabestituak, eta gainontzekoa ez da deklamazio kontraesankor eta lausoen, manu barregarri edo arriskutsuen geruza bat baizik. Azter ezazue manuen espiritua eta apostoluaren jokaera: ez duzue izaera amarrutsu eta ausarti bat baino, bere helburura iristearren, egia da, oso trebeki lantzen dituen gobernatu nahi dituen pertsonen pasioak. Pertsona single eta sineskorrei mintzatzen zaie, mirariak asmatzen dizkie; ezjakin eta bekaiztiak dira, euren banitatea lausengatzen du zientzia mesprextatuz; txiroak eta askonahiak dira, euren kodizia sustatzen du harrapakariaren esperantzarekin; ez dauka lurrean zer eman, zeruetan altxorak sortzen ditu; heriotza onurarik gorena bezala desirarazten die; infernuarekin mehatxatzen ditu koldarrak; ausartei paradisua agintzen die; Patuaren halabeharrenekin adore ematen die; hitz batean, behar duen atxikimendua, zentzumenen erakargarriekin lortzen du, euren pasioen boterearekin.

Zein ezberdina den gure doktrinaren izaera! Eta zein heinean haren inperioak, joera guztien kontrajartzean, pasio guztien aurrietan oinarrituak, ez ote du berorren jatorri zerutiarra frogatzen? Nola berorren moral gozoak, gupidatsuak, eta berorren joerak guztiak ere espiritualak, ez al dute dibinitatea sorburu izatea erakusten? Egia da dogma asko ulermenaren gainetik direla, eta arrazoiari errespetuzko isiltasuna inposatzen diotela; baina horrexegatik errebelazio izaera ageriago geratzen da, ezen gizakiek ez zuten inoiz halako misterio handirik imajinatu ere egingo». Esku batean Biblia eutsita eta bestean lau ebanjelioak, doktorea hasi zen kontatzen nola, hasieran, Jainkoak (eternitate bat ezer ere egin gabe igaro ondoren) azkenik erabaki zuen, ezagutzen den ziorik gabe, mundua ezerezetik sortzea. Unibertso osoa sei egunetan sortuta, zazpigarrenean nekatutik zegoela; lehen gizaki bikotea atseginez beteriko lekuan ezarri ondoren, benetan zoriontsu

izan zitezen, eskura utzi zien fruitu bat probatzea debekatu ziela nolana-  
 nahi ere; lehen arbasoek ez zietenetz tentazioari eutsi, arraza osoa  
 (oraindik jaio ez zena) egin ez zuen hoben baten zigorra pairatzera  
 kondenatua zela; gizateria lauwpabost mila urtez kondenatuta laga  
 ondoren, Jainko miseriordiatsu horrek seme maitagarri bat, hark  
 amarik gabe sorrarazi zuena, eta haren adina zuena, lurrean heriotza  
 izatera bidali zuela; hori gizateriaren salbaziorako; gizaki kopuru han-  
 diak, nolanahi ere, garai hartatik aurrera galbidetik jarraitu zuen; ara-  
 zo horri aurre egiteko, Jainko hori, birjina mantendu zen emakumetik  
 jaioa, hila eta berpiztua izan ondoren, egunero birjaiotzen da, eta ogi  
 puzketa baten formarekin, gizonetarik umilenak eskatuta milaka zati-  
 tan ugaltzen da. Hortik sakramentuen doktrinara igaroz, pasatzear zen  
 sakon aztertzerako *absoluzioaren* eta *gaitzespenaren* boterea, urarekin  
 eta zenbait hitzekin krimen oro garbitzeko modua, harik eta *induljen-  
 tzia*, *Aita santuaren* boterea, *grazia nahikoa* edo *eraginkorra* hitzak  
 ahoskatzerakoan, milaka oihuk moztu zutenera arte. «Abusu ikaraga-  
 rria da,» esan zuten luteranoek, «diruaren bidez bekatuak garbitu nahi  
 izatea». «Ebanjelioaren testuaren aurkako gauza da», esan zuten kal-  
 binistek, «presentzia egiaztagarriaren nozioa». «Aita santuak ez du  
 bere kabuz ezer ere erabakitze eskubiderik», esan zuten jansenistek;  
 eta hogeita hamar sektak aldi berean elkarri egotzi zioten heresia eta  
 huts egitea, eta ezinezkoa gertatu zen ezertxo ere ulertzea.

Une batzuen ostean, isiltasuna berreskuratu eta gero, musul-  
 manek ondokoa esan zioten legeileari: «Gure doktrina, gauza sines-  
 tezinak proposatzen dituelakoan, arbuiatu duzuen ondoren, onar al  
 dezakezu kristauena? Ez al da zentzu naturalaren eta justiziaren aur-  
 kakoagoa? Jainko ez-material eta infinitua, gizaki bilakatua! Berea  
 bezalako adina duen semea izatea! Jainko-gizaki hori jaten eta liseri-  
 tzen dugun ogi bihurtua! Halakorik al daukagu guk? Kristauek al dau-  
 kate fede itsu bat eskatzeko eskubide eskusiboa? Eta gure kaltetan  
 emango al dizkiezu eurei sinesmen pribilegioak?».

Gizaki basati batzuek aurrera egin eta ondokoa esan zuten:  
 «Zer! Gizon batek eta emakume batek duela sei mila urte sagar bat jan  
 zutelako, gizateria osoa madarikatua dago; eta Jainkoa justua dela  
 diozue! Zein tiranok egin ditu haurrak gurasoen erreoren erantzule?  
 Zein pertsonak erantzuten du beste baten ekintzak direla eta? Ez al du  
 horrek justiziaren eta arrazoiaren ideia oro iraultzen?».

«Eta non dira», esan zuten beste batzuek, «aipatzen diren balizko eginkizun horien frogak eta lekukotasunak? Onar al ditzakegu inolako frogen azterketarik gabe? Justizian erabaki ttipiena ere hartzeko gutxienez lekuko bi beharrezkoak dira; eta gu sinestera behar-  
tuak al gara tradizioan eta esamesetan oinarriturik?»

Orduan errabino batek hitza hartu zuen: «Gertakizunei dago-  
kionez, fondoa bermatzen dugu guk. Forman eta berorrekin egiten  
den erabileran, aldiz, kasua beste bat da, kristauak hor euren argu-  
mentuengatik kondenatzen dituzte euren buruak; ezin baitute ukatu  
gu garela haiek eratorriak diren jatorrizko sorburua, haien txerta leku  
den antzinako enborra, eta hortik datorren premiazko arrazonamen-  
dua ondokoa da: ala gure legea Jainkoarena da eta eurena heresia, ala  
gure legea ez da Jainkoarena eta, hortaz, eurena ere aldi berean eror-  
tzen da».

«Bereiztea beharrezkoa da», esan zuen kristauak, «zeuen legea  
Jainkoarena da, *figuratua* eta *prestaketarakoa* den artean, baina ezin  
da *bukaerakotzat* eta *absolututzat* jo; zeuek *simulazioa* baino ez zare-  
te, gu *errealitatea* garen artean».

«Badakigu», ihardetsi zuen errabinoak, «horiek direla zeuen  
pretentsioak; baina zeharo funsgabeak eta faltsuak dira. Zeuen siste-  
ma oinarri eta zentzu mistikoetan oinarritzen da osoa, interpretazio  
irudimenezko eta alegorikoetan<sup>37</sup>. Sistema horrek, gure liburu-  
en letra bortxatzen duenak, etengabe jartzen ditu benetako zentzuaren lekuan  
ideia kimerikoenak, eta nahi duena aurkitzen du, imajinazio arlote  
batek hodeietan irudiak aurkitzen dituen moduan. Horrela, *mesias*  
*espiritual* bihurtu duzue, gure profeten espirituaren arabera *errege*  
*politikoa* baino ez zena: gizateriaren erredentzioa egin duzue guretzat  
geure nazioaren berrezarpena baino ez zena; birjintasunezko sorkun-  
tza ezarri asmo duzue gaizki ulertutako esaldi batean oinarrituta.  
Horrela zuen nahimenaren arabera komeni zaizuen suposatzen  
duzue; geure liburuetan bertan zeuen *trinitatea* ikusten duzue; han ez  
dagoen arren ezta hitzik zeharkakoena ere horri buruz. Nazio profa-  
noen ideia besterik ez da zuen sistema osatzen duena, gurmenek eta sek-  
ta orotako bestelako iritzien nahaste onartua, zuen garaiko lehen hiru  
mendeetako kaosean eta anarkian sortua».

Hitz horiek entzutean, amorru biziz, «sakrilego» eta «blasfe-  
mari» oihu eginez, doktore kristauak juduari oldartu nahi zitzaizkion.

Fraide andana batek, jantzi beltz eta zuriz, aurrera egin zuen, matxardak, parrilla bat eta sua margotuta eta *justizia*, *karitatea* eta *errukia* idatzita zituen estandartepean: «Beharrezkoa da», esan zuten, «fedegabe horiekin *etsenplu ematea*, eta Jainkoaren loriarako erretzea». Eta jada sua prestatzen ari ziren, musulmanek doinu ironikoarekin ondo-koia esan zietenean: «Hara bakezko erlijio hori, goretsi duten ongintzazko moral umil hori! Hara karitate ebanjeliko hori sinesgogortasuna goxotasunez borrokatzen duena, irainei pazientzia baino oposatzen ez diona! Hipokritak! Hala tronpatzen dituzue nazioak; hala hedatzen dituzue zuen zorigaiztoko erroreak! Ahulak izan zaretenean, askatasuna, tolerantzia eta bakea predikatu dituzue; indartsu bilakatu zaretenean, jazarpena eta biolentzia praktikatu dituzue...».

Kristautasunaren guda eta heriotzen historia kontatzen haste-kotan zirela, legegileak, isiltasuna eskatuz, konponduezina eten zuen.

«Ez gara gu», erantzun zuten fraideek, umila eta gozoa zen ahots doinua erabiliz, «ez gara gu mendekua nahi dugunak, Jainkoaren kausa da, haren loria ari gara defendatzen».

«Eta zein eskubiderekin», erantzun zuten imanek, «zarete zuek haren ordezkari gu baino gehiago? Guk ez dauzkagun pribilegioak al daukazue? Ez al zarete gu lako gizakiak?»

«Jainkoa defendatzea», esan zuen beste talde batek, «hari mendeku egiten zaiola esatea, ez al da haren zuhurtasunari eta botereari irain egitea? Ez al daki berak gizakiek baino hobeto zer komeni zaion bere duintasunari!»

«Bai, baina bere bideak ezkutukoak dira», erantzun zuten fraideek.

«Oraindik falta zaizue frogatzea», erantzun zuten errabinoek, «zeuek daukazuela hura ulertzeko pribilegio eksklusiboa». Orduan, ausart haien kausarako defendatzaileak topatu zituztelakoan, juduek pentsatu zuten euren legea gailenduko zela, parsien mobed-ak (apaiz gorenak) hitza eskatu, eta honakoa esan zion legegileari:

«Entzun dugu juduen eta kristauen historia munduaren jatorriaren gainean, eta zertxobait aldatua bada ere, aurkitzen ditugu gauza asko guk ere onartzen ditugunak; baina aurre egin behar diogu haien profetari Moisesi egotzi behar zaizkiola. Izan ere, ezingo dute frogatu haren izenarekin agertzen diren liburuak benetan haren obra

direla. Aldiz, guk froga dezakegu, hogei pasarte ziurrekin, haien idazketa hura bizi zenetik sei mendetara egin zela, eta hautaturiko apaiz goren baten eta errege baten ados jartzetik sortzen dela<sup>38</sup>. Gainera, zehaztasunez ikertzen baldin badituzue legeak, zuzenean Moisesi egozten zaizkion manuak, ez duzue topatuko ezer adierazten duenik, ezta ezkutuki ere, egun juduen eta berorien haur diren kristauen doktrina teologikoa osatzen duen horretatik. Inon ez duzue topatuko trazarik ez arimaren *ezilkortasunaz*, ez *haratagoko bizitza batez*, ez *infernuaz* eta *paradisuz*, ezta *gizateriaren gaitzen egile nagusia den ain-geruaren iraupenaz* edo beste hainbat gauzari buruz ere.

Moisesek ez zituen ezagutzen ideia horiek, eta arrazoia zeharo argia da: ez ziren harengandik bi mende baino igaro gure profeta Zerdustek, edo Zoroastrok, horiek Asian zehar hedatu eta ebanjelizatu zituenetik... Gainera», esan zien mobedak errabinoei, «garai horren ostean soilik, hau da zeuen lehen erregeen osteko mendean, agertu ziren ideia horiek zuen idazleen artean. Mailaka azaldu ziren, eta gainera ezkutuan, zuen gurasoen eta gure aitona-amonen artean zegoen harreman politikoa gauzatzen zihoan arabera: bereziki gertatu zen hori, Ninive eta Babiloniako erregeek gailenduak eta barreiatuak izan ondoren, zuen gurasoak Tigris eta Eufratesen ibai bazterretara garraiatuak izan zirenean, eta gure herrialdean hiru belaunaldi jarraian ikasle izan ondoren, ordura arte euren legearen aurkakoak ziruditen ohitura eta iritziek eurengan eragina izan zuten arte. Gure errege Zirok esklabotasunetik atera zituenean, euren bihotzak geureengana hurbildu ziren esker onez; gure imitatzaile bilakatu ziren, gure dizipulu<sup>39</sup>. Familiarik itzaltsuenek, babiloniar erregeek zientzia kaldearrean jantzirikoeak, Jerusalemera eroan zituzten ideia berriak, dogma atzerritarrak.

Hasieran jende gehienak, ez zuenak emigratu, aurka egin zion profetak emaniko lege eta isiltasun absolutuaren testuari, baina doktrina farisearra edo parsia gailendu zen, eta zeuen jeinuaren eta egoki zeneritzoten ideien arabera eraldaturik, sekta berri bat sorrarazi zuen. Espero zenuten zeuen boterea berrezarriko zuen errege bat; geuk *Jainko suspertzaile* eta *salbatzaile* bat iragartzen genuen. Ideia horien konbinazioarekin, zuen eseniarrek kristautasunaren oinarria osatu zuten, eta, zuen aldarrikapenak direnak direlarik, judu, kristau edo musulman, zuen *izaki espiritualen sisteman* ez zarete Zoroastroren haur deslaiak baizik!»

Mobedak, bere erlijioaren garapenari buruz mintzatzeraz igarota, eta Sadderean eta Zend-Avestan oinarrituta, honakoak gogorarazi zituen: Genesiko ordena berean, munduaren sorkuntza sei gahahnetan; lehen gizonaren eta lehen emakumearen sorkuntza leku zerutiar batean, onaren erreinaldipean; Ahrimanen ikur zen sugetzarrak munduan gaizkia sartzea; *gaizkiaren* eta *iluntasunaren* jeinu honen eta *onaren* eta *argiaren* jainko den Ormuzen arteko borroka; aingeru zuri eta beltzen, on eta gaiztoen arteko bereizketa; horien ordena hierarkikoa kerubin eta serafin, tronu eta mendekotasunetan, eta abar; munduaren bukaera sei mila urte igaro ostean; naturaren bildots erreparatzailearen etorrera; mundu berria; *gozamen* ala *oinazeko* leku batean *etorkizuneko bizitza*; *amildegiaren* gaineratik igarotzen den *zubitik ari - men pasaera*; Mitraren misterioen zeremoniak; iniziatuek jaten duten *ogi aillisa*; haur jaio berrien *bataiatzea*; hildakoen azken igurtzia, eta euren bekatuen aitorpena; hitz batean, aurreko erlijioekin hainbat gauza analogo aipatu zituen<sup>40</sup>, ezen bazirudien bere diskurtsoa Koranaren edo Apokalipsiaren jarraipena edo iruzkina zela.

Alabaina, doktore judu, kristau eta musulmanek azalpen horren aurka egin zuten oihu, eta parsiak idolatra eta suaren gurtzailatzat hartuta, faltsukeria leporatu zieten, susmoetan oinarritzea, gertakizunak aldatzea. Eztabaida gogorra piztu zen gertakizunen datei buruz, haien hurrenkeraz, herritik herrira emaniko transmisioaz, finkatzen zituzten liburuen egiazkotasunaz, horien idaztearen garaiaz, idazleen izaeraz, berorien lekukotasunaren balioaz. Alderdi ezberdinek elkarri erakutsi zizkieten gainontzekoen kontraesanak, itxuragabetasunak, apokrifotasunak. Elkarri egotzi zioten euren sinesmenak oinarritzea esamesa herrikoietan, tradizio ilunetan, idazle ezezagun, ezjakin eta partzialek kritikarik gabe onarturiko eta entendimenturik gabe asmatutako fabula absurdoetan, garai dudazkoetan edo faltsuetan.

Bestalde, marmar handi bat hedatu zen *indiar* sekten estandarreen artean, eta *brahmanek*, juduen eta parsien aldarrikapenen aurka eginik, ondokoa esan zuten: «Nortzuk dira herri berri eta ia ezezagun horiek, euren buruak horrela, beraien kabuz, nazioen egiletzat eta berorien artxiboen gordetzailatzat dauzkatenak? Entzunda euren bost eta sei mila urteetako kalkuluak, badirudi mundua atzo jaio zela, eta, aldiz, gure monumentuek milaka mende gehiago dituzte. Eta *zein eskubiderekin* izan behar dute euren liburuek gureen aurretik hobe-

tsiak? Vedak, Shastrak, Puranak<sup>41</sup> gutxiago al dira Biblia, Zend-Avesta edo Sadderra baino? Gure gurasoen eta gure jainkoen lekukotasuna ez al da mende baldetarren guraso eta jainkoena bezain baliagarria? A! Zilegi balitzaigu gizaki profanoei misterioak ezagutaraztea! Belo sakratu batek ez balu gure doktrina begirada guztietatik estali behar...»

Eta brahmanek hitz horiekin amaitu zutelarik, legegileak honakoa esan zien: «Nola ametitu zuen doktrina, ez baldin baduzue ezagutzera ematen? Eta lehen egileek nola hedatu zuten, eurek soilik bazeukaten, euren herria profano laga gabe? Ezkutatua izateko errebelatu al zuen zeruak?»

Baina brahmanek isilik jarraitu zuten: «Sekretuaren ohorea eskaini diezaiekegu», esan zuen europar batek, «euren doktrina azaldua da: euren liburuak dauzkagu, eta horien substantzia azal diezazuket».

Horrela, lau Vedak, hamazortzi Puranak eta bospasei Shastrak aztertuz, europarrak azaldu zuen nola izaki inmaterial, infinitu, eternal eta *biribil* batek, mugarik gabeko denboraldi batez bere burua *kontenplatzen* igaro otean, beregan zeuden *ahalmen har* eta *emeak* bereiztu zituen, eta sorkuntza ekintza bat burutu, *linghama* ikur bilakatu zelarik; nola lehen ekintza honetatik hiru *botere jainkotiar* jaio ziren, deitzen zirenak Brahma, Bitxen edo Vishnu, eta Xib edo Shiva; haien eginkizunak zirela, lehenarena, unibertsoa formak *sortzea*, bigarrenarena, *kontserbatzea*, eta, hirugarrenarena, *deuseztatzea*. Haien eginkizunen eta abenturen historiaren zehaztasunak emanez, azaldu zuen nola Brahmak, mundua eta zortzi *purifikazio* esferak sortzeaz harro, bere burua Shivaren goragokotzat zeukan, eta haren harrotasunak bien arteko borroka bat sortu zuen *globoak* edo *orbita zerutiarrak* txikitu zituen, *arrautza otzara bat bailiran*; nola Brahama, borroka horretan gailendua izan zelarik, egokitu zitzaion Shiva-ren idulkian izatea, *linghaman* metamorfoseaturik; nola Vishnuk, jainko *artekari* horrek, hartu zituen, garai ezberdinetan, bederatzi animalia eta hilkor forma mundua *kontserbatzearen*; nola lehenik *arrain* moduan, lurra birpopulatzen zuen familia bat *uholde nagusitik* salbatu zuen; nola hurrengo, *dortoka* baten itxurarekin, *esnezko itsasotik* tira egin zion *Mandreguiri* mendiari (poloari); ondoren, *basurde* itxurarekin, *Ereniashessen* erraldoiari sabela lehertu zion, lurra *Djole* amildegian *urperatzen* ari baitzen, eta hartatik atera zuen bere letagiri-



nekin; nola, *artzain beltzean* haragituta, eta *Chrisen* izenarekin, *Calengam* suge tzarraz libratu zuen mundua, eta sugeak *oinean* hagin-ka egin zion arren, *hark burua zanpatu zion*.

Ondoren, *bigarren mailako jeinuen* historiara pasatuz, kontatu zuen nola *Eternalak*, *norbere loriari distira emateko*, *aingeru* ordena ezberdinak sortu zituen, haien eginkizuna zelarik haren laudorioak abestea eta unibertsoa zuzentzea; nola *buruzagi askonahi* batek aginduta *aingeru horiek erreboltatu* ziren, buruzagi hark Jainkoaren boterea usurpatu eta dena gobernatu nahi baitzuen; nola *Jainkoak* iluntasunaren mundura bidali zituen, haien *gaiztakeria* zigortzeko; nola azkenik, errukituta, onartu zuen handik ateratzea eta grazia itzultzea, froga latzak igaroarazi ondoren; nola horretarako *hamabost orbita* edo *planeten eskualde* sortuta, eta horietan gorputzak bizi zitezen, aingeru horiek *laurogeita hamazazpi transmigrazio* jasatera behartu zituen; azaldu zuen nola hala *purifikaturiko* arimak *jatorrizko sorburura* bueltatzen ziren, sorburu zuten *bizitza eta animazio ozeanora*; nola izaki bizidun guztiek *arima unibertsal* horren zati bat daukatelarik, zein kriminala den izakiei hartaz gabetzea. Azkenik, *erritu* eta *zere-moniak* azaltzera zihoanean –mintzatuz *kobre eta egurrezko jainkoei* eginiko *ofrenda eta libazioez*, eta *behien gorotzaz eta gernuaz* eginiko *purifikazioez*–, alde guztietarik marmarrak zabaldu ziren, barre alga-ekin nahastuta, eta hizlaria eten zuten.

Talde bakoitza erlijio horren gainean arrazoitzen hasi zen: «Idolatrak dira», zioten musulmanek, «beharrezkoa da haiek akabatzea...». «Adimen nahasiak dira», esan zuten Konfuzioren jarraitzaileek, «beharrezkoa da haiek sendatzea». «Zein jainko barregarriak», esan zuten beste batzuek, «keak eta koipeak zikindutako txingoteak, beharrezkoa zaiena garbiketa bat haur zikinei lege. Euliak uxatu behar zaizkienak; ezti bila datozela, zikinkeriaz betetzen baitituzte!».

Brahman batek, sutan, hitza hartu zuen: «Misterio sakonak dira», egin zuen oihu, «egiaren ikurrak, ez duzue merezi horiek entzutea».

«Zer eskubide duzue», esan zuen Tibeteko lama batek, «zeuek guk baino gehiago merezitzeko? Brahamaren burutik sortu zaretela uste duzuelako, eta gainontzeko, gizakiak, aldiz, haren atal ez hain nobleetatik? Baina zuen kasta eta jatorriko bereizketak ematen dizuen harrotasuna sostengatzeko, froga iezaguzue gu garen pertsonetatik

diferenteak zaretela. Froga itzazue, ondoren, gertakizun historiko bezala, kontatzen dituzuen alegoriak; froga ezazue zuek zaretela doktrina horren guztiaren egileak; ezen guk, beharrezkoa balitz, frogatuko baitugu zeuek plagiatzaileak eta usteltzaileak zaretela, mendebal-darren antzinako paganismoaren imitatzaileak besterik ez zaretela, hari, nahastura bitxi baten bidez, gure Jainkoaren doktrina osoki espirituala elkartu diozue, doktrina hori zentzumenetatik apartatua<sup>42</sup>, lurrak erabat enoratzen zuena Budak nazioei irakatsi baino lehen».

Talde mordo batek galdetu ziolarik zein zen doktrina hori, eta nor zen *Jainko* hori jende gehienak haren izena entzun ez zuena, lamak hitza berrartu eta honakoa esan zuen:

«*Hasieran, Jainko bakar* batek, berez existitzen zenak, bere izatearen kontenplazioan murgilduta eternitate bat egon ondoren, bere perfekzioak beregandik kanpo adieraztea nahi izan zuen, eta *mundua* -ren materia sortu zuen. *Lau elementuak* sortuak zirelarik, oraindik ere *nahastuta* zeuden arren, *uren* gainean *putz* egin zuen; horiek *arrautza* baten formako *burbuila* itzel bat legez hantu ziren, berori bilakatu zelarik *zeruaren orbea* edo *ganga*, barnean zeukana *mundua*. Lurra eta *izakien gorputzak* sortu zituelarik, *Jainko honek*, *mugimenduaren esentzia denak*, animatzeko, bere *izatearen* zati bat eman zien. Horrela, arnasten duen ororen *arima* badenez *arima unibertsalaren* zati bat, ez da batere *hiltzen*, soilik *moldea* eta *forma* aldatzen dute, *gorputz anitzetatik igarotzen* diren heinean. Forma guztietarik *izaki jainkotia* -rrari gustukoen zaiona *gizakiarena* da, gehien hurbiltzen baita haren perfekzioetara. Gizaki batek, bere zentzumenen lotura kentze absolutuagatik, *norbere kontenplazioan murgiltzen bada*, *dibinitatea* aurkituko du, eta, izan ere, hura bilakatuko da. Jainkoak izan dituen mota horretako *haragitze* guztietarik, santuenetakoa eta solemneetakoa duela hogeita zortzi mende Katxemiran izan zuena, Fot edo Buda izenaz, *norberaren suntsipenaren* edo *uko egitearen* doktrina irakasteko». Foten historia kontatuz, lamak honela jarraitu zuen: «*Errege-erreginen odoleko birjina baten eskubideko aldetik jaio zen*, eta ez zion *birjina* izateari utzi ama bilakatzerakoan. *Herrialdeko erregeak*, urduri haren jaiotzarekin, *hilarazi nahi izan zuen*, eta *bere garaian jaioriko haur ar guztiak akabarazi zituen*. Artzain batzuek salbatuta, Buda basamortuan bizi izan zen hogeita hamar urte bete zituenera arte, bertan hasi zelarik gizakiak argitzeko eta deabruz askatzeko

*misioarekin. Miraririk liluragarrienak egin, baraualdi eta penitentzia gogorrenak bizi zituen, eta hiltzerakoan bere dizipuluei liburu bat utzi zien, bertan jasotzen delarik bere doktrina<sup>43</sup>», eta lama irakurtzen hasi zen...*

«Bere ama eta aita niri jarraitzeko abandonatzen dituenak, esan zuen Fotek, samanearen (gizaki zerutiar) perfektua bilakatuko da.

Nire arauak perfektioa laugarren mailaraino praktikatzeko dituenak airean hegatu egiteko, zerua eta lurra mugiarazteko, eta bizitza luzatzeko ala laburtzeko (berpizteko) ahalmenak erdietsiko ditu.

Samaneak aberastasunak alde batera uzten ditu, ez du erabiltzen beharrezkoa duena baino; bere gorputza mortifikatzen du; bere pasioak mututzen ditu; ez du ezer desiratzen; ez zaio ezer lotzen; etengabe meditatzen du nire doktrina; hobekien pazientzia pairatzen ditu; ez dio hurkoari gorrotorik.

*Zerua eta lurra desagertuko dira*, esan zuen Fotek: mespretxatu hortaz zuen gorputzak lau elementu *hilkorrez* osatuak, eta zuen *arima ezilkorrean* pentsa ezazue soilik.

*Ez iezazue haragiari entzun*: pasioek beldurra eta minak eragiten dituzte; amata itzazue pasioak: beldurra eta mina suntsituko dituzue.

Nire erlijioari atxiki gabe hiltzen dena, esan zuen Fotek, gizakien artera itzultzen da, praktikatzeko duenera arte.»

Lama jarraitza zihor, harik eta kristauak isiltasunetik irten eta oihu egin zuten arte aurrekoa euren erlijioa zela eraldatua; Fot ez zela *Jesus* baino, *itxuraldatua*, eta lama ez zirela nestoriotar edo manikarrik baino, moztututa eta endekatuta<sup>44</sup>.

Baina lama hark –Sri-Lankako, Japoniako eta Txinako, xamaneak, bontzoak, gonniek, eta Siamgo talapoinek lagunduta– kristauak frogatu zien, azken horien autoreak berak erabiliz, *samanearen* doktrina ekialde osoetik zabaldu zela kristautasuna baino mila urte lehenago; haren izena Alexandroren garaia baino lehenago aipatua zela, eta Butta edo Budh aipatua zela Jesus baino askoz ere lehenago<sup>45</sup>. Alderrikapena haien kontra itzuliz, ondokoa esan zien: «Froga iezazue zuek ez zarete *samanearen endekatuak*; zuen *sektaren sortzaile* egiten duzuen gizon hori ez dela Fot bera eraldatua. Froga iezazue haren existentzia, aipatzen diguzuen garaiko monumentu historikoen bidez;

ezen, gu, oinarritzen garelarik zuek benetako lekukotasunik ez izatean<sup>46</sup>, formalki ukatu beharrean gaude. Iruditzen zaigu zuen Ebanjelioak ez direla Persiako mitrarren eta Siriako eseniarren liburuak bai- zik, haiek ere samanean erreformatuak baino ez zirelarik».

Hitz horiek entzunda, kristauak garrasika hasi ziren, eztabaida sutsuagoa hastear zen, harik eta txinatar xaman eta Siamdar talapoin talde batek, jendaurrera irtenda, haiek mundu osoa ados jarriko zute- la esan zutenera arte. Haietako batek hitza hartu zuen: «Bada garaia», esan zuen, «eztabaida fribolo horiek guztiak amai ditzagun. Gure aurrean beloa altxa diezaiogun Fotek berak, hiltzorian zela, bere dizi- puluei errebelatu zien *barneko doktrina* horri.

Iritzi teologiko horiek guztiak», esan zuen, «kimerak baizik ez dira. Kontu horiek, jainkoen naturari, euren ekintzei, euren bizitzei buruzkoak, ez dira alegoriak baino, ikur mitologikoak, horien barne dira moralari buruzko ideia zoliak, eta elementuaren jokoan eta astro- nen mugimenduan oinarrituta naturaren jardueraren ezagutza.

Egia ondokoa da: *dena ezer ez bihurtzen da*. Dena *ilusio*, *itxu* - *ra*, *amets* da. *Metenpsikosi moral*a ez da *metenpsikosi fisikoaren* zen- tzu figuratua baizik, hau da, *gorputz bateko* elementuak, hiltzen ez direnak, hura deuseztatzen denean, beste *eremu* batera pasatu eta bes- te konbinazio batzukosatzean sortzen den *mugimendu jarrai* hori. *Arima* ez da *materiaren propietateetatik* eta elementuek gorputzetan -haietan *mugimendu* espontaneoak sortzen dutelarik- duten jokotik datorren *bizi-printzipioa* baizik. Pentsatzea organoen jokoaren *pro* - *duktu* hori, organoekin berekin jaiotzen, garatzen eta lokartzen dena, suposatzea haiek existitzen ez direnean oraindik jarraitzen duela, ipuin bat da apika atsegina, baina benetan kimerikoa, noraezean dabi- len imajinazioak sortua. *Jainkoa* bera ez da beste ezer ez bada *prin* - *tzipio eragilea*, *izakietan hedatzen den indar ezkutua*, *printzipio bizi* - *emaila*; hitz batean, *unibertsoaren arima*, beronek -erlazio eta eki- menen aniztasun infinitua dela-eta, batzuetan *simplea* bestetzueta *anitza*, batzuetan *aktiboa* besteetan *pasiboa* kontsideratzen delarik- giza espirituari beti soluziorik gabeko enigma bat ekarri dio. Hark argi uler dezakeen gauza bakarra da materia ez dela hiltzen; *mundua* -*iza* - *ki bizidun* eta antolatu bat lege- gidatzen duten propietateak dituela materiak esentzialki; *lege* horien ezagutzak, gizakiarekin duten harre- manean,osatzen duela *zuhurtasuna*; *bertutea* eta *meritua* haiek erres-

petatzetik datozela, eta *gaiztakeria, bekatua, eta bizioa* haien *ezjakin-tasunetik* eta *ez betetzetik*; *zoriona* eta *zoritxarra* haien ondorio direla, *gauza pisudunak jaistea eta arinak igotzea* eragiten duen *behar* horregatik, eta kausa eta efektuen halabehar horregatik, berorren katea atomorik txikienetik goreneko astroetara hedatzen delarik. Hara zer errebelatu zigun gure Buda Somona Gautamak hilzorian zenean.<sup>47</sup>»

Hitz horiekin, sekta orotako teologo saldoak oihu egin zuen doktrina hori *materialismo* hutsa zela; haren praktikatzaileak, *fedega-beak, ateoak*, gizakien eta *Jainkoaren arerioak*, eta haiek suntsitzea beharrezko zela. «Oso ongi», erantzun zuten xamanek, «demagun errorean garela. Posible da, *giza espirituaren lehen ezaugarria* baita *ilusioaren mende izatea*. Baina zein eskubiderekin *kenduko diezue* zuek bezalako gizakiei Jainkoak eman dien bizitza? *Zeru horrek erru-duntzat bagauzka, huts egileztat*, zergatik ematen dizkigu zuenak lako onurak? Tolerantziarekin hartzen bagaitu, zer eskubide daukazue zuek ez izateko horren barkaberak? Gizaki gupidatsuak, *Jainkoaz* horrenbesteko ziurtasunaz eta konfiantzaz hitz egiten duzenak, arren, esango al diguzue zer den. Ulertaraz iezaguzue zer diren izaki abstraktu eta metafisiko horiek zuek deitzen diezuenak *Jainkoa* eta *arima, subs-tantziarik gabeko materia, gorputzik gabeko existentzia, organo eta sentsaziorik gabeko bizitza*. Izaki horiek *zuen zentzumenen* edo horien *erreflexioaren* bitartez ezagutzen baldin badituzue, modu berean egin ieazazkiguzue sumagarri: ezen ez baldin baduzue *lekukotasuna* eta *tradizioa* baizik mintzagai, eman iezaguzue kontaketa uniforme bat, eta gure sinesmenari *oinarri* berdin eta finkoa eskain iezaiozue.»

Orduan teologoen artean eztabaida handia piztu zen *Jainkoaren eta naturaren* gainean, *haren jarduteko eta agertzeko moduaren* gainean, *arimaren naturari buruz eta honek gorputzarekin duen lotura* ren gainean, *existentzia organoen aurretik duen* edo *haien formazioa* ren ondoren soilik, *etorkizuneko bizitzari buruz eta beste munduari buruz*. Sekta bakoitza, eskola bakoitza, gizabanako bakoitza, ez zetozelarik bat puntu horien inguruan eta denek ere euren ezberdintasunean arrazoi onargarriak eman eta autoritate errespetagarriak –nahiz eta elkarren aurkakoak– gogora ekartzen zituztelarik, guztiak kontraesanezko labirinto askaezin batean erori ziren.

Orduan, legegileak isiltasuna eskatu, eta gaia bere lehen helburura lerratu zuen: «Herrien buruzagi eta irakasleak», esan zuen, «hona

bertaratu zarete *egia bilatzeko*, eta lehenik zuetako bakoitzak, haren jabe zelakoan, fede inplizitua exijitu du. Baina ikusita zuen iritzien kontrakotasuna, konturatu zarete beharrezkoa zela ebidentziazko arau amankomun baten mende ezartzea, haiek erkaketa termino orokor batean jartzea, eta ados zeundeten bakoitzak sinesmen frogak aurkeztu beharko zituela. Gertakizunak aurkeztu dituzue; baina erlijio bakoitzak, sekta bakoitzak bazeuzkan *modu berean* bere mirari eta martiriak, bakoitzak *modu berean* bazeuzkan lekukotasunak, eta bakoitza heriotzara arte defendatzeko prest zegoen. Balantza, parekotasunaren eskubidez, lehen puntu horretan *berdinduta* geratu da.

Ondoren, arrazonamenduaren frogak igaro zenituzten. Baina argumentu berak erabili ziren *modu berean* aurkako tesientzat, baiezta-  
taper berak –berdinki funsgabeak– *modu berean* aurkeztu eta ezeztatu ziren; bakoitzaren adierazpenak *eskubide berekin ezeztatu izan ziren*, ezer ez zen frogatutzat hartu. Are gehiago, zuen dogmen erkatzeak zailtasun berri eta handiagoak sortu zituen; ezen, itxurazko edo azaleko ezberdintasunen gaineratik, aurkitu zenuten antzeko fondo bat, eskema amankomun bat; eta zuetako bakoitzak bere burua kontsideratu zuen *benetako* autorea, lehen gordetzailea, batzuek besteei egotzi zenieten *eraldatzaille* eta *plagiatzaile* izatea, eta handik sortu zen *herritik herrira ideia erlijiosoen transmititzearen* gai korapilotsua.

Azkenik, nahasmendua areagotzeko, zeuen doktrinak elkarri azaltzen saiatu zinetelarik, konturatu zineten denoi nahasiak eta baita arrotzak ere zitzaizkizuela; zuen zentzumenei iritsi ez ziezazkiekeen oinarriak zituztela; hortaz, juzgatzeko modurik ez zenutela, eta horrela ados zineten haiekiko ez zinetela zuen gurasoen oihartzun baizik. Handik sortu zen ondoko itauna: nola jakin *zelan iritsi zitzaien zuen gurasoei, haiek ere* zeuek daukazuenetik beste modurik ez bazuten haiek asmatzeko; modu horretan, alde batetik, *ideia horien segida ezezaguna* zelarik, bestetik, adimenean haien jatorria eta existentzia misterioa izanik, zuen iritzi teologikoen eraikin osoa metafisika eta historia arazo konplikatu bat bilakatu zen.

Nolanahi ere, nahiz eta iritzi horiek, ziren apartak zirelarik ere, jatorriren bat izan beharko dutenez, ideiarik abstraktuenak eta fantastikoenak naturan eredu fisiko bat, sortzen dituen kausa bat, izan beharko dutenez, beharrezkoa da jatorri horretara lerratzea eta eredu hori aurkitzea. Hitz batean, jakitea nondik atera dituen gizakiaren

ulermenak *arimaren jainkotiartasunari buruzko* ideia horiek, oraindik ere hain ilunak direnak, horrenbeste sistemaren oinarria osatzen duten *izaki immaterial* horiek guztiak, eta bereiztea jarraitu duten *kidetasuna*, aurkitzea segidan eta adarkaduran izan dituzten *eraldaketak*. Hemen horren gainean ikerketarik egin duen pertsonarik bada, ager bedi jendaurrean, eta saia bedi, nazioen aurrean, nazio horiek haietan luzaroan murgilduta dauden iritzien iluntasuna desagerrarazten.»

## XXII. KAPITULUA

### ERLIJIO IDEIEN JATORRIA ETA KIDETASUNA

Hitz horiek entzundakoan, talde berri bat, estandarte desberdinetatik zetozen gizonek osatua, baina estandarte gabekoa, jendartean azaldu zen; eta, hitza hartuz, haietako batek ondokoa esan zuen:

«Legegile: ebidentziaren eta egiaren lagun!

Ez da harritzekoa horrenbeste lainok hodeitzea darabilgun gaia, ezen, propioak zaizkion zailtasunetatik aparte, pentsamenduak ez ditu, orain arte bederen, eragozpen gehigarriak baino topatu behin eta berriro, eta lan libre oro, eztabaida oro, debekatu du sistema bakoitzaren tolerantzia ezak. Baina azkenik pentsamenduari baimendu zaionez garatzea, egun handi baten aurrean gara, eta juzgamendu amankomunaren menpe jarriko dugu ikerketa luzeen ostean aurreiritzik gabeko espirituei arrazoizkoena iruditu zaiena. Aurkeztuko dugu, ez sinesmen bat inposatzeko asmoarekin, baizik eta argi berriak pizteko eta informazio hobe emateko intentzioarekin.

Zeuek badakizue, herrien doktore eta irakasleok, natura eta erakusten dituzuen dogmen historia zein jatorria iluntasun sakonak estaltzen dituela. Indarrez eta autoritatez inposaturik, hezkuntzak irakatsita, etsenpluak mantenduta, aroz aro betikotu dira, eta haien inperioa ohiturak eta atentziorik ezak finkatu dute. Baina gizakiak —esperimentziak eta hausnarketak argitua, haurtzaroko aurreiritziak azterketa heldu batera eramanda— azkar aurkituko ditu bere zolitasuna esnatu eta arrazonamendua sustatuko duten zentzugabekeria eta kontraesan mordoak.

Hasieran, nazioak bereizten dituzten sinesmenen aniztasuna eta aurkakotasuna azpimarratuz, gizakia ausartzen da guztiek aldarrikatzen duten hutsezintasuna zalantzan jartzen, eta armatzen delarik

haien aldarrikapenekin, iruditzen zaio *Jainkoarengandik zuzenean datozkion zentzumenak eta arrazoia lege santu bat*, gida ziur bat, direla, profeten *kode tartekatua eta kontraesanezkoa* lain.

Aztertzen badu ondoren *kode* horien egikera, konturatuko da *jainkotiartzat*, hau da, *aldaezin eta eternaltzat* hartzen diren *legeak*, garaiaren, lekuaren eta pertsonen *zirkunstantziak* direla-eta sortzen direla; batzuk besteetatik eratorriak direla ordena genealogiko moduko baten bidez, guztiek ere parte hartzen baitute ideia fondo amankomun eta antzeko batetik, bakoitzak bere nahierara aldatzen duenetik.

Idea horien sorburura lerratzen bada, sumatzen du galtzen dela garaien gauean, herrien haurtzaroan, munduaren jatorrian bertan, haiek horiekin lotuak direla baitiote; eta han, kaosaren iluntasunean eta tradizioen alegiazko inperioan kokatuta, lagunduta daude gauzen egoera hain liluragarri batez, ezen badirudi juzgamenduari sarrera oro debekatzen zaiola. Baina egoera horrek berak lehen arrazonomendu bat eragiten du, zailtasuna gailentzen duena. Sistema teologikoek erakusten dizkiguten gertakizun liluragarriak benetan existitu baldin badira –adibidez, indiarren, hebrearren, parsien *liburu sakratuetan* agertzen diren metamorfosiak, aparizioak, jainko baten edo batzuen solasaldiak, horiek guztiak gertakizun historikoak baldin badira–, beharrezkoa da onartzea garai hartako *natura* egungotik arras diferentea dela, egungo gizakiek ez daukatela ezer ere amankomunean orduko mendeetakoekin, eta, hortaz, ez duela merezi haietaz arduratzea.

Aldiz, gertakari liluragarri horiek ez baldin badira benetan ordena fisikoan gertatu, orduan pentsatu beharko da adimenaren sortkuntzen generokoak direla. Adimenaren naturak, egun ere konposizio fantastikoenak sortzeko gai delarik, ematen du arrazoi bat historiako munstro horien agerpenerako. Soilik geratzen da jakitea nola eta zergatik sortu diren imajinazioan. Beraz, arretaz aztertuz irudi horien subjektuak, ikertuz konbinatzen eta elkartzen diren ideiak, aldarrikatzen dituzten zirkunstantzia guztiak kontuz balantzan izanik, ikusiko dugu nola lehen mailako egoera sinesgaitz horretan baden naturaren legeen araberako irtenbide bat, konturatzen gara alegiazko genero horretako kontaketa horiek azalean itxura duten zentzua ez den zentzu figuratua dutela; aurkezten diren gertakizun liluragarriak gertakizun sinple eta fisikoak direla, alabaina, gaizki emanak edo deskribatuak, giza espirituari egotzi behar zaizkion arrazoi akzidentalak dire-



la-eta desnaturaldu egin direnak –objektuak deskribatzeko erabili diren zeinuen nahasketa dela-eta, adieren nahasketagatik, lengoaiaren hutsagatik, idazkeraren inperfekzioagatik–; ikusiko dugu nola jainko horiek, esaterako, sistema guztietan hain eginkizun bitxiak betetzen dituztenak, naturaren *botere fisikoak* baino ez direla, *elementuak*, *haizeak*, *astroak*, eta *meteorak*, lengoaiaren eta adimenaren beharrezko mekanismoak *pertsonifikatu* dituenak; haien *bizitza*, *ohiturak*, *ekintzak* ez direla euren *jardueren* eta *harremanen* jokoa baino; eta aurkezten den haien historia fenomenoek deskribapena baino ez dela, behatu zuten lehen fisikariek sortua, eta jende arruntek –ez baitzuten ulertzen– zein historia hori ahanzi zuten ondorengo belaunaldiak aurkako zentzuan hartua. Hitz batean, ikusiko da *munduaren jatorriari buruz*, *Jainkoaren naturari buruz*, bere legeen *errebelazioari buruz*, bere buruaren *aparizioari buruz* diren dogma teologiko guztiak ez direla gertakizun astronomikoen kontaktak baizik, konstelazioen mugimenduen *narrazio figuratuak eta enblematikoak*: konbentzituko gara *dibinitatearen* ideia bera ez dela, bere antzinako ereduari, *unibertsoaren botere fisikoena* baizik, *anitz* bezala hartzen direlarik, haien *eragileak* eta *fenomenoak* direla eta, ala izaki bakar eta *sinple* bezala haien atal guztien harremanagatik eta *loturagatik*. Horrela, *Jainko* deitu izan zaion hori askotan *haizea*, *sua*, *ura*, *elementu guztiak* izan da; askotan *eguzkia*, *astroak*, *planetak* eta haien eraginak; edo *mundu ikusgarriaren materia*, unibertsoaren *osotasuna*; edo *nolakotasun* abstraktu eta metafisikoak, hala nola, *espazioa*, *iraunkortasuna*, *mugimendua* eta *adimena*; eta beti honako ondorioarekin: *dibinitatearen* ideia ez dela *izaki ikusezinen miraritzako errebelazioa*, baizik eta *adimenaren ekoizpen naturala*, giza espirituaaren operazioa, jarraitu direlarik mundu fisikoaren eta berorren eragileek ezagutzen gertatu diren aurrerakuntza eta iraultzak.

Bai, alferrik erlazionatzen zuten nazioek euren erlijioa inspirazio zerutarrekin; alferrik inbokatzen zuten euren dogmek gauzen lehen egoera supernatural bat: gizateriaren jatorrizko basakeriak<sup>48</sup>, monumentuetan konfirmatzen denak, baieztapen horiek guztiak ezeztatzen ditu. Baina bada datu iraunkor eta arbuiaezin bat iraganeko gertakizun dudazko eta zalantzarik gabeko alderatuta garaile mintzatzen dena: *Gizakiak ideiak soili zentzumenen bidez jasotzeak*<sup>49</sup> ebidentziaz erakusten du esperientzian eta sentsazioetan jatorria ez duela dioen

nozio oro ez dela beranduagoko garai batean sorturiko arrazonamendu baten suposizio erratua baizik. Beraz, nahikoa da begirada bat jaurtitzea *munduaren jatorriari* eta *jainkoen ekintzari* buruzko sistema sakratuen gainean, ikusteko ideia bakoitzean, hitz bakoitzean, askoz ere beranduago jaioko zen gauzen ordenaren aurrerapena; eta arrazoi-menak –kontraesan horiek indartuak– baztertzen duelarik ordena naturalean frogarik aurkitzen ez duen oro, eta ez duelarik onartzen *sis - tema historiko* on bezala egiantzik ez daukana, bere sistema propioa ezartzen du eta honakoa dio ziurtasunez:

Nazio batek beste batetik jada asmatuak ziren dogmak jaso aurretik, belaunaldi batek lehenagoko belaunaldiak jasoriko ideiak jarauntsi aurretik, munduan ez zitekeen oraindik mota horretako sistema konposaturik egon. Naturaren seme-alaba zirelarik, lehen giza-kiak, gertakizun oro baino lehenagokoak, ezagutza orotan hasi aurrekoak, eztabaida eskolastikoetatik eratorritako dogmen ideiarik batere gabe jaio ziren, ez zuten ere jaiotzeaz ziren ohitura eta arteetan oinarritutako erriturik, ezta pasioen agertzea eragingo zuen araurik ere, edo lengoaia ekarriko zuen koderik, ez baitzen gizarterik sortu oraindik; ezta *dibinitaterik*, haren ezaugarri guztiak gauza fisikoei egozten baitzitzaizkien, eta ekintza guztiak gobernuaren egoera *despotiko* bati; ezta azkenik *arimarik* edo –horiek ezagutzeko beste modurik ez dagoen arren– zentzumenetatik aparte direla diogun izaki metafisiko horiek guztiak ere. Halako emaitza horietara iristeko, beharrezko izan zen aurretiko derrigorrezko gertakizun zirkulu bat kurritzea; beharrezko izan zen saiakera jarrai eta geldoek gizaki basatiari irakastea bere organoen erabilera; ondoz ondoko belaunaldiek bildutako esperientziak bizitzeko bitartekoak asmatzea eta perfektzionatzea, eta espi-rituak, lehen beharren oztopoetatik libre, ideiak erkatzeko, arrazonamenduak sortzeko eta erlazio abstraktuak atzemateko arte konplexuaren mailara igotzea.»

## I. SAILA

*Jainkoaren ideien jatorria:*

*Naturako elementuen eta botere fisikoen gurmena*

«Soilik eragozpen horiek gaintitu eta historiaren gauean ibilbide luzea kurritu ostean, gizakia, bere egoeraz hausnarketa eginez, hasi zen konturatzen berea baino *goragoko indar* batzuen –bere

borondatetik *independente* zirelarik– mende zela. Eguzkiak argitzen eta berotzen zuen; suak erretzen zuen, trumoiak beldurtzen; urak itotzen zuen, haizeak kolpatzen; izaki guztiek berarengan *eragin botere - tsu eta eutsi ezina* zuten. Luzaroan automata, pairaturiko ekintza horren kausa aztertu barik egon zen; baina ezagutu nahi izan zuen momentuan, *liluramenak* hartu zuen; eta, lehen pentsamenduaren ustekabetik jakin-nahiaren ilusiora igarota, arrazonamendu segida bat eratu zuen.

Lehenik, elementuek berarengan zuten *eragina* kontsideratuz, norberari buruz *ahultasun eta mendekotasun ideia* bat osatu zuen, eta haiei buruz *botere eta nagusitasun ideia* bat; eta *botere ideia* hori *dibinitatearen* ideia ororen tipo primitibo eta oinarritzkoa izan zen.

Bigarrenik, izaki supernaturalek, haien ekintzekin, gizakiarengan *plazer ala min* sentsazioak eragiten zituzten. Gizakiak, bere antolaketa-aren efektu natural batengatik, haienganako *maitasuna* ala *gorrotoa* izan zuen; haien agerpenak *beldurra* ala *desira* eragiten zituen. *Beldurra* ala *esperantza* izan ziren *erlijioaren* ideia ororen sorburu.

Ondoren, *erkaketa* bidez dena *juzgatuz*, eta gizakiarena berarena bezalakoa zen *mugimendu espontaneo eta borondatezkoa* sumatuz, mugimendu horretan *borondate* bat, berea lako *adimen* bat antze-  
man zuen; eta handik, indukzioz, arrazoiketa berri bat eratu zuen. Konturatu zenez bere kideenganako norbere borondatez eginiko zenbait jarduerak haien afektua aldatzeko eta haien jarrera zuzentzeko ondorioa zutela, praktika horiek unibertsoan *izaki boteretsuekin* erabili zituen. Ondokoa esan zion bere buruari: ‘Nire kideak, ni baino *indartsuagoa* denak, min egin gura didanean, haren aurrean *makurtzen* naiz, eta nire *otoitzak* hura lasaitzeko ondorioa du. Erasaten nauten *izaki boteretsuei* otoitz egingo diet; haizeen, astroen, uren *adime- nei* erreku egingo diet, eta entzungo naute; oles egingo diet *gaitzak aldentzeko*, eta dauzkaten *onurak eman* diezazkidaten, eta *ene malko- en* bidez samurtu, *ene dohainen* bidez bigundu, eta *ongizatea gozatu- ko dut*’.

Eta gizakia, bere arrazoiaren haurtzaroan single, eguzkiari eta ilargiari mintzatzen zaizkie; bere espirituarekin eta pasioekin natura-  
ko *eragile handiei* bizia ematen die. Uste zuen, alferrikako soinuen bidez, alferrikako praktiken bidez, haien lege tinkoak aldatuko zitue-  
la: huts deitoragarria! Otoitz egiten zion harriari igotzeko, urari altxa-

tzeko, mendiei lekuz aldatzeko; eta, mundu fantastiko bat egiazko munduaren orde ezarrita, *izaki fantastikoez* bete zuen, bere espirituaren izu-ikararako eta bere arrazaren tormenturako.

Horrela, *Jainkoaren* eta *erlijioaren* ideiek, beste guztiek bezala, euren sorburua objektu fisikoetan dute; gizakiaren adimenean sortu dira, eta bere sentazioen, beharren, eta bizitzaren zirkunstantzien zein ezagutzaren egoera progresiboaren produktu izan dira.

Izan ere, *dibinitatearen ideiak* lehen *eredu* moduan izaki fisiokoak izateak eragin zuen *dibinitatea* hasieran anitza eta *era askotakoa* izatea, dibinitate horrek haiengan eragina zeukala zirudien forma horiek bezala: izaki bakoitza *botere* bat, *jeinu* bat zen; eta, lehen giza-kientzat, unibertsoa jainko kontagaitzez betea zen.

*Dibinitatearen ideiak* giza bihotzaren *afektuak* zituenenez *eragi* -*le*, gizakiek ordena bat jarraitu zuten oinarritzen zena *min* eta *plazer*, *maitasun* edo *gorroto* sentazioetan. *Naturako botereak*, jainkoak, jeinuak, guztiak ere banatu egin ziren *ongile* eta *gaizkiletan*, *on* eta *gaiztoetan*; eta hortik dator erlijio sistema orotan ematen den ezaugarri bi horien unibertsaltasuna.

Hasiera batean, ideia horiek, berorien asmatzaileen nahasmen-duari analogoak, luzaroan nahasiak eta narraski eratuak izan ziren. Basoetan alde batetik bestera, beharrek atsekabetuta, baliabiderik gabe, gizaki basatiek ez zeukaten aisialdirik erlazioak eta arrazonamenduak konbinatzeko. Gozamenez atsegin hartuta baino gehiago, gaitzek erasanda, haien sentimendurik ohikoena beldurra zen, haien teologia *terrorea*; haien gurmene mugatzen zen haiek lakoak irudikatzen zituzten izaki *anker* eta *askonahi* batzuk agurtu eta dohainak eskaintzera. Haien *berdintasun* eta *independentzia* egoeran inor ez zen artekari bilakatzen haiek bezalako jainko *menderaezin* eta *pobreen* aurrean. Inork ez zeukan soberakinik emateko, ez zegoen parasitorik apaiz izenekorik, ezta emaririk biktima izenekorik ere, ezta inperiorik aldare izenekorik ere. Dogma eta *moral*a, bat eginda, ez ziren norberaren *kontserbazioa* baino; eta erlijioa, ideia arbitrarioa, gizakien arteko harremanetan eraginik ez zuena, ez zen ez bada *naturako botere ikusgarri* egiten zitzaizen omenaldi hutsala.

Hori izan zen Jainkoaren ideia beharrezkoaren eta lehenaren jatorria.»

Eta hizlaria nazio basatiei mintzatu zitzaien:

«Galdetzen dizuegu, ideia atzerritarrak eta artifizialak jaso ez dituzuenoi, esaguzue: bestelako ideiarik osatu al duzue? Eta zuek, doktoreok, konfirmatzea nahi genuke, esaguzue: ez al da hori antzinako monumentuen lekukotasun aho batekoa<sup>50</sup>?»

## II. SAILA

*Bigarren sistema: astroen gurmena, edo sabeismoa*

«Baina monumentu horiek guztiek era berean sistema metodo-koago eta konplikatuago bat erakusten digute, astro guztien gurmenerena, euren forma propioan gurtzen direlarik, edo ikur eta sinbolo figuratuen bidez. Kultu hori gizakiak fisikaren gainean zuen ezagutzaren ondorioa izan zen halaber, eta egoera sozialaren lehen kausetatik sortzen da zuzenean, hau da, lehen mailako behar eta arteetatik, gizartearen formazioan elementu bezala sartzen direnetatik.

Izan ere, pertsonen –gizartean biltzen hasi eta berehala– beharrezko bilakatu zitzaien euren iraupenerako baliabideak ugaltzea, eta hortaz nekazaritzara jotzea. Alabaina, nekazaritzan jarduteko beharrezkoa da zeruaren behaketa eta ezagutza<sup>51</sup>. Beharrezkoa da ezagutzea naturaren ekintzen itzulera periodikoa, zeruko bobedaren fenomeno berak; hitz batean, beharrezkoa zen neurtzea urtaro eta hilabeteen iraupena. *Eguzkiaren* ibilbidea ezagutzeko beharra zegoen, berorrek *zodiakoan* egiten duen translazioarekin sorkuntzaren lehen eragile gorenaren dirudielako; ondoren ilargiarena, bere fase eta biraketarekin denbora arautu eta banatzen baitzuen; gero izar eta planetena, haiek horizontean eta gaueko hemisferioan zuten agerpen eta desagerpenekin azpibanaketak osatzen baitzituzten; azkenik, astronomia sistema oso bat, egutegi bat eratzea beharrezko egin zen. Lan horretatik *botere menderatzaileak* eta *gobernatzzaileak* behatzeko modu berri bat sortu zen espontaneoki eta laster. Ikusi zelarik *lurra-ren ekoizpenek* harreman erregularra eta konstantea zutela *izaki zerutarrekin*, landare bakoitzaren *sorrerak*, *hazkuntzak* eta *beheraldiak* lotura zutela astro baten edo izar talde baten *agerpenarekin*, *igo-erarekin* eta *beheraldiarekin*; hitz batean, landarediaren moteltzea edo aktibitatea *eragin zerutarren* arabera zela zirudienez, gizakiek pentsatu zuten bazela *izaki zerutar gorenaren ekintza* bat, *botere* bat gorputz lurtarretan. Astroak, oparotasunaren edo urritasunaren

emaille, *onuren* eta *gaitzen* egile ziren *botere*, *jeinu* eta *jainko*<sup>52</sup> bilakatu ziren.

Gizarte egoerak jada bazuenek klase, ogibide eta maila hierarkia metodiko bat ezarria, gizakiek, konparazioz arrazoitzen jarraitzen zutelarik, euren nozio berriak teologiara pasatu zituzten. Hortik sortzen da sistema konplikatu bat bertan *eguzkia* delarik *jainko lehena*, *buruzagi* militarra, *errege* politikoa; *ilargia*, aurrekoa laguntzen duen *erregina*; *planetak*, zerbitzariak, ordenaren betearazleak, mezulariak; *izar* saldoa delarik, *herri* bat, heroi *armada* bat, euren ofizialen manuak jarraituz *mundua gobernatzea* zegokien *jeinuak*; eta banako bakoitzak izena, funtzioak, ezaugarriak zituen, zeuzkan harremanetatik eta influentziatatik eratorriak, baita sexua ere, bere izenduraren generoaren arabera<sup>53</sup>.

Egoera sozialak zenbait usadio eta praktika konposatu ezarri zituenek, gurmeneak, hari jarraituz, antzekoak hartu zituen: zeremoniak, lehenago sinpleak eta pribatuak zirenak, publikoak eta solemneak bilakatu ziren; ofrendak aberatsagoak eta ugariagoak egin ziren, errituak metodikoagoak. Biltzar guneak finkatu ziren, eta horiek kaperak eta tenpluak zituzten; azken horiek administratzeko ardura-dunak izendatu ziren, eta hauek pontifize eta apaiz bihurtu ziren. Formula eta garaiak finkatu ziren, eta erlijioa jarduera zibila, lotura politikoa bilakatu zen. Alabaina, garapen horretan, erlijioak ez zituen bere lehen printzipioak aldatu; eta *Jainkoaren* ideia beti kontsideratu zen *ona* eta *gaitza* eragiten zuten *izaki fisikoena*, hau da, *mina* ala *plazera* eragiten zutenena. Izaki fisikoen *legeen* edo jarduteko moduen ezagutza zen *dogma*; *bertutea* eta *bekatua*, lege horiek jarraitzea ala ez betetzea; eta *moral*a, jatorrizko bere sinpletasun horretan, *existentziaren iraupenari*, *norbere ongizateari* eta *gainontzeko kideenei* laguntzen zion oro<sup>54</sup>.

Galdetzen bada zein garaitan jaio zen sistema hori, astronomiaren monumentuetan oinarrituta, honakoa erantzungo dugu: dirudienez haren printzipioak, zehazki, duela hamabost mila urtera arte doazela<sup>55</sup>; eta itauntzen bada zein herriri egotzi behar zaion hasiera hori, erantzun behar dugu monumentu horiek berak, aho bateko tradizioztan lagunduta, Egiptoko lehen biztanleei dagozkiela. Kontuan hartuta lurralde horretan biltzen zirela sistema hura sor zezaketen zirkunstantzia fisiko guztiak; bertan aldi berean tropikotik gertu dagoen

zeru zatia dagoela, ekuatoreko eurietatik eta iparraldeko eurietatik salbu; antzinatekoen esferaren zentroan kokatua egotea, klima osasuntsua, ibai itzela eta aldi berean otzana izatea; arterik edo nekerik eskatzen ez duen lur emankorra, emanazio hilgarririk gabe urak hartua, lurralderik aberatsenak ikutzen dituen bi itsasoren artean kokatua izatea, horrekin guztiarekin uler daiteke Niloko biztanlea, bere zoruaren naturagatik *nekazari* zena, eta bere jabegoak neurtzeko urteroko beharrragatik *geometra*, komunikabideen erraztasunagatik *merkatari*, azkenik, behaketarako gertu den zeru baten egoeragatik *astronomo*, hura izan beharko zen *basakeria* egoeratik *gizarte egoerara* igarotzen lehena, eta hortaz lehendabizi iritsi zena gizaki zibilizatuari propioak zaizkion ezagutza fisiko eta moraletara.

Goi Niloko ibai bazterretan, eta arraza beltzeko herri batean, antolatu zen *astroen gurlenaren* sistema konplikaturik, astroak kontuan hartzen zirelarik horiek lurraren ekoizpenarekin eta nekazaritzako beharrek zuten harremanean. Lehen gurlen hori, ezaugarri duena *forma* eta *nolakotasun naturalen* adorazioa, giza espirituaren eragiketara sinple bat izan zen. Alabaina, laster objektuen ugaritasunak, euren arteko erlazioenak, elkarren arteko ekintzenak, ordezkatzeko zituzten ideiak eta zeinuak konplikatzekoan, nahasmena sortu zuten; berorren kausan bitxia lain, kaltegarria ondorioetan.»

### III. SAILA

#### *Hirugarren sistema: sinboloen gurlena, edo idolatria*

«Herri nekazariak astroetan begirada behatzaile bat ezarri zuen instantetik, behar bat sentitu zuen banakoak eta taldeak bereiztekoa, eta bakoitza modu egokian izendatzeko, izendapenarekin elkarren arteko ulermenaren lortzearen. Helburu horretarako zailtasun handi bat agertu zen; ezen, alde batetik, gorputz zerutarrek, formaren aldetik antzerakoek, ez zuten erakusten ezaugarri berezirik izendatuak izateko; bestetik, lengoaiak, jaiotzerakoan txiro, ez zeuzkan adierazpideak horrenbeste ideia eta berri eta *metafisikoetarako*. Jeinuaren eragile nagusiak, *beharrak*, dena gaingaitzen jakin zuen. Azpimarratu delarik urteroko translazioan lurreko ekoizpenen berritze eta agerpen periodikoa konstanteki *erlazioztatzen* zela izar jakin batzuen *irteera* edo *sarrerarekin* eta horiek eguzkiarekiko –berau baita konparaziorako puntu garrantzitsuena– duten posizioarekin, espirituak, mekanismo

natural baten bitartez, gertakizun horrekin lotuak geratzen diren objektu lurtarrak eta zerutarrak elkartzen ditu; eta, haiei zeinu bera aplikatuz, *izarrei* edo beroriek osatzen dituzten *taldeei* lotzen zaizkien objektu lurtarren izenak ematen dizkie<sup>56</sup>.

Horrela, Tebaseko etiopiarrek *uholdearen astroak* edo *Aqua - rius* deritze ibaiak *gainezka egiten* duenean agertzen direnei; *idiaren* edo *zezenaren astroak*, lurra jorratu behar denean agertzen direnei; *lehoiaren astroak*, animalia hori desertutik egarriak atera duenean, ibai bazterrean agertzen denean; *galburuaren* edo *birjina segalaria - ren astroak* uzta jasotzen denean direnak; *arkumearen astroak*, *antxumearen astroak*, animalia polit horiek jaiotzen direnekoak; eta lehen baliabide honek zailtasunen lehen zati bat gainditzeko balio izan zuen.

Bestalde, gizakia konturatu zen, inguratzen zuten izakiek bazi-tuztela ezaugarri bereziak eta propioak espezie bakoitzerako; eta, lehen eragiketa baten bidez, topatu zuen izen bat horiek izendatzeko; bigarren eragiketa batez, aurkitu zuen bide zoli bat bere ideiak orokortzeko, eta jada asmatu-riko adiera propietate bat –edo analogoa edo antzerakoa den ekintza bat– adierazten zuen orotara lerratuz, bere lengoia betiereko metafora batekin aberastu zuen.

Horrela, etiopiar bera konturatu zelarik uholdearen itzulerak, *Niloko sorburuan* agertuz, laborariari uren gainezka egiteaz *gazitga - tzen* ziola zirudiela, izar oso eder baten agerpena ematen zela, gerta-kizun hori erkatu zuen *zaunken* bidez arriskua gazitgatzen duen ani-maliarekin, eta astro horri *zakurra*, *zaunkaria* (Syrius) deritza; modu berean, *karramarroaren astroak* deritze, eguzkia tropikora iritsi dela-rik, atzeraka eta alde batera egiten duenean, *cancer* edo *karramarro - ak* legez; *akerraren astroak*, zeruaren punturik *garaienera* iritsita, ordutegiaren *gnomonaren* gailurrean, eguzkiaren jarduerak *haitzetatik gora* egitea laket duen animalia dirudienean; *balantzaren astroak*, egunak eta gauak, *berdinak* direlarik, instrumentu horretan legez *ore - kan* direla diruditenean; *eskorpioiaren astroak* haize periodiko batzuek *bapore kiskaltzaile* bat *eskorpioiaren pozoia*ren antzekoa ekartzen zutenekoak. Horrela, halaber, *eraztun* edo *suge* zeritzen astro eta planeten orbitek egiten duten lorratz figuratuari; eta halakoa izan zen izar eta planeta guztiak –taldeka edo banaka hartuta– izendatzeko modu orokorra<sup>57</sup>, haien ekintza zerutar edo lurtarraren arabera, eta



nazio bakoitzak nekazal jarduerarekin eta bertako klimako objektuekin zein zoruarekin topatzen dituen analogien arabera.

Jarduteko modu honetatik dator izaki gaizto eta lurtarrak zeruko *izaki goren* eta *boteretsuekin kideztan* egotea, eta *asoziazio* hori egunero indartzen da lengoaiaren izaeragatik beragatik eta espiritua-ren mekanismoagatik. Metafora natural baten bidez, honakoa esan liteke: '*Zezenak* lurlean emankortasunaren haziak zabaltzen ditu (udaberrian); eta oparotasuna eta (elikatzen duten) landareen sorkuntza itzultzen ditu. *Arkumeak* (edo ahariak) zerua (neguko) *jeinu gaiztoez libratzen* du; *mundua sugetik* (urtaro hezearen ikur den hori) *askatzen* du, eta *onaren* (*udarena*, gozamen ororena) erresuma itzultzen du. *Eskorpioiak* bere pozoia jaurtitzen du lurlean, eta gaixotasunak, heriotza, eta abar, zabaltzen ditu'; eta gauza bera antzeko efektuen kasuan.

Lengoaia horrek, mundu osoak ulertuak, hasiera batean problemarik gabe iraun zuen. Alabaina, denboraren pasarearekin, egutegia arautu zelarik, herriak, jada ez zionez zeruari erreparatu behar, adierazpide horien zergatia ahortzi zuen; eta horien alegoria, bizitzako usadioan gorde zena, ulermenerako eta arrazonamendurako oztopo latza bilakatu zen. *Sinboloei* berorien *ereduen* ideiak elkartzera ohituta, espirituak azkenean nahastu egin zituen: orduan pentsamenduak zerura igoriko animalia horiek, lurrera jaitsi ziren ostera ere; baina itzulera, zeruko festa-jantziekin apaindurik, hango ezaugarri izartarrak hartu zituzten eurentzat, eta euren egileei inposatu zizkieten. Ondoren, herriak, berorrengandik gertu *jainkoak* zituela pentsatuta, errazago zuzentzen die otoitza; artaldeko *ahariari* eskatzen dizkio *ahari zerutarrarengandik* espero zituen influentziak; *eskorpioiari* eskatzen dio ez dezan naturan jaurti bere pozoia; itsasoko *karramarroa*, lupetzako *kakarraldoa*, ibaiko *arraina* gurtzen ditu; eta, analogia oker baina bereiztezin batzuk direla eta, *ondoriozkoak* diren absurdotasun labirinto batean galtzen da.

Hara zein den *animalien gurlen zahar* eta bitxi horren jatorria. Hara zein den ideien ibilbidea, berorren arabera dibinitatearen izaera piztiarrik basatienetara igarotzen da, eta hara nola osatzen den sistema *teologiko* arras zabala, konplikatua, jakinduriazkoa. Niloko ibai bazterretik merkataritzak lurraldetik lurraldera garraiatua, gudek eta konkistek hedatua, antzinako munduan nagusitu, eta denborak, zirkuns-

tantziek, aurreiritziek eraldatuta, oraindik agerian dago ehunka nazio-  
tan, eta mespretxatzen eta baztertzen duten horien artean ere teologia-  
ren oinarri intimo eta sekretuan dago.»

Hitz horiekin marmarra hedatu zen zenbait talderen artean:  
«Bai», jarraitu zuen hizlariak, «hara nondik datorren, esaterako, zeuek  
herri afrikarrok egiten duzuen *fetitxe*, *landare*, *animalia*, *harri eta*  
*egur puzketen* gurmena, horien aurrean zuen arbasoak ez baitziren  
makurtuko, ez balute haietan *astroen bertuteak* dituzten *talismanak*  
ikusiko<sup>58</sup>. Hara, nazio tatariarrak! Zuen *txingoteen* jatorria, baita zuen  
xamanen jantzi magikoak estaltzen dituzten animalia andana horiena  
ere. Hara nazio basati guztietan zeremonia sakratu eta misterioetsuetan  
jendeak azalean margotzen dituen txori eta suge *irudien* jatorria.  
Zuek, indiarrek! Alferrik estaltzen zarete misterio belo batekin: zuen  
Vishnu jainkoaren gabiraia ez da Egipton *eguzkiarentzat* duten *mila -*  
*ka ikur* horietako bat baino; eta *jainko* bat *arrainean*, *basurdean*,  
*lehoian*, *dortokan* haragitzea, eta abentura munstrotsu horiek guztiak,  
ez dira eguzkiaren metamorfosiak baizik, honek *hamabi animalien*  
zeinuetatik igarotzerakoan, suposatzen zen haien irudiak hartu eta  
haien rol astronomikoak betetzen zituela<sup>59</sup>. Zuek, japoniarrak! *Mun -*  
*duaren arrautza* hausten duen zuen *zezen* hori, zodiakokoa baino ez  
da, antzina, *irekitzen zuena sorkuntzaren garaia*, udaberriko ekino-  
zioa. Egiptok gurtzen zuen *Apis idia bera* da, zuen arbasoek, errabino  
juduek berdin gurtu zutena *urrezko txahala* formapean! Zuen *zezena*  
ere bada, Zoroastroren jarraitzaileok! *Mitraren* misterio sinbolikoetan  
sakrifikatua, munduarentzat *odol emankorra* jariatzen duena. Eta  
zuek kristauok! Zuen apokalipsiko *idia*, bere hegalekin, *airearen sin -*  
*bolo*, hark ere ez du beste jatorririk; eta zuen *Jainkoaren arkumea*,  
*Mitraren zezena* legez sakrifikatua dena *munduaren salbaziorako*, ez  
da *eguzkia* bera *aharia zerutarraren* zeinupean, beranduagoko garai  
batean, berorren itzulerarekin ekinozioa eraginda, mundua *gaizkiaren*  
erresumatik libratzen omen zuena, esan nahi baita, *neguaren ama den*  
*suge tzarraren arengandik*, *persiarren*, zeuen irakasleen, *Ahriman* edo  
*Satan* den ikur horrengandik. Bai, alferrik zuen grina zuhurtziarik  
gabeak bidaltzen ditu *idolatrak* eurek asmatu duten Infernura: zuen  
sistema osoaren oinarria *eguzkiaren* gurmena da, haren ezaugarriak  
biltzen dituzuelarik zuen pertsonaia nagusiarengan. *Eguzkia* da,  
*Horus* izenarekin, zuen jainkoa legez *jaiotzen* dena, neguko *solstizio -*

*an, birjina zerutarraren magalean, eta haultzaro iluna, txiroa eta behartsua, hotzen urtaroa den bezalakoa, igarotzen duena. Bera da, Osiris izenarekin, Typhonek eta aireko tiranoek jazartzen dutena, hil - tzen dutena, neguaren ikur den hilobi ilun batean sartu, eta ondoren, beheragoko zonaldeetik irteten dena zeruko goreneko punturaino, sun - tsipeneko aingeru eta erraldoiak gailenduz berpizten delarik.*

Eta zuek marmarrean zabiltzaten apaizok! Zeinu horiek zeuen gorputz osoan daramatzazue: zuen *tontsura eguzkiaren diskoa* da<sup>60</sup>, zuen *estola* haren *zodiakoa* da, zuen *arrosarioak* astro eta planeten ikurrak dira. Zuek pontifize eta prelatuok! Zuen *mitra*, zuen *makulua*, zuen *mantua*, *Osirisenak* dira; eta *gurutze* hori, bere misterioa ulertu gabe laudatzen baituzue, *Serapisen* gurutzea da. Apaiz egiptoarren eskuak mundu figuratu baten mapan trazatu zuen, *ekinozioetatik* eta *tropikoetatik* igarota, *ondorengo bizitzaren* eta *berpizkundearen* zeinu bilakatu zena, bolizko eta adarrezko ateak ikutzen baitzituzten, eta bertatik arimak zerura igarotzen baitziren.»

Hitz horiek entzuterakoan, talde guztietako doktoreek elkarri begiratu zieten txundituta; baina, inork ez zuelarik isiltasuna hautsi, hizlariak jarraitu zuen:

«Eta hiru kausa nagusi elkartzen dira ideien nahasmendu horretan. Lehenik *adierazpide figuratuak* direla eta, horiengatik jaio berria zen lengoaia behartua izan zen objektuen erlazioak deskribatzera; adierazpide horiek, ondoren zentzu konkretu batetik zentzu orokor batera pasatu zirenek, zentzu fisiko batetik zentzu moralera, euren esanahi ekiboko eta sinonimoengatik, gaizki ulertu mordoa eragin zuten.

Horrela, esana zelarik *eguzkiak hamabi animalia gainditu edo amaitu* zituela, ondoren *akabatu, borrokatu edo menperatu* zituela pentsatu zen; hala ikus daiteke *Herkulesen* bizitza historikoan<sup>61</sup>.

Esana zelarik hark *arautzen* zituela lanerako denborak, ereiteko eta uzta jasotzeko garaiak, hark *banatzen* zituela *urtaroak, ogibi - deak*, hura zebilela klimetan zehar, *lurra menderatzen* zuela, eta abar, hartu zen *errege legegile* moduan, *gerlari menderatzaile* moduan; eta hor daukagu *Osiris, Bako* eta antzekoen historia.

Esana zelarik planeta bat zeinu batean *sartzen* zela, *konjuntzio* horrekin *ezkontza* bat, *adulterioa, intzestua* egin zen. Esana zelarik

*ezkutatua, lurperatua* zegoela, desagertu ondoren *argira* bueltatu zela-ko eta bere maila *gorenera* itzultzen baitzen, esan zitzaion *hila, ber-piztua, zeruratua*, eta abar.

Nahasmendurako bigarren kausa bat sortzen da pentsamen-  
duak adierazteko erabilitako figura materialetatik beretatik, *hieroglifi* -  
*ko* edo *karaktere sakratu* zeritzatelarik, espirituaren lehen asmakuntza  
izan ziren. Horrela, *uholdeaz* gaztigatzeko eta kontuz ibiltzeko beha-  
rra adierazteko, *ontzi* bat margotu zuten, *Argo ontzia*; *haizea* adieraz-  
teko, *txori baten hegala* margotu zuten; *urtaroa, hilabetea* adierazte-  
ko garai horretan agertzen zen *pasaerako hegaztia, intsektua, anima* -  
*lia* margotzen zen; *negua* adierazteko *urdea, sugea* margotzen zituz-  
ten, *leku hezeetan* agertzen baitira; figura horiek elkartzerakoan esal-  
di eta hitzen zentzu *konbentzionalak* zituzten<sup>62</sup>. Alabaina, zentzu  
horrek berez ez zeramanez ezer finkorik edo zehatzik, figura horien  
eta berorien konbinazioen kopurua gehiegizkoa bilakatu zenez, eta  
oroimena gaintitzen zuenez, handik nahasmendua, interpretazio fal-  
tsuak sortu ziren. Ondoren, jeinuak asmatu zuelarik arte sinpleago bat,  
zeinuak soinuei egokitzen zitzaizkiona, eta zeinuen kopuru mugatua  
zuen, eta horrekin hitzak adierazten zirelarik, pentsamenduak ordeztu,  
*idazkera alfabetikoak* eragin zuen *marrazki hieroglifikokoak* gehiago ez  
erabiltzea. Egunetik egunera, haien esanahi ahanztziek ilusio, ekiboko  
eta akats saldoa eragin zuten.

Azkenik, bada hirugarren kausa bat: antzinako estatuen antola-  
mendu zibila. Izan ere, herriak nekazaritzan jarduten hasterakoan,  
nekazal egutegi baten eraketak behaketa astronomiko etengabeak  
eskatzten zituen, beharrezko egin zen zenbait pertsonari ardua ematea  
izar jakin batzuen agerpena eta desagerpena zaintzeko; gaztigatzeko  
uholdearen itzulera, euri garaiko haize jakin batzuen, hazi mota  
bakoitzaren garairik egokiena bilatzeko: gizaki horiek, egiten zuten  
zerbitzuagatik, behar arruntetatik salbuetsiak ziren, eta euren mante-  
nua gizartearen kontura zen. Egoera horretan, soilik behaketaz ardu-  
raturik, ez zen denbora asko igaro naturaren fenomeno handiak antze-  
maten hasi zirenerako, haren jarduera nagusien sekretuak ulertzen  
hasi zirenerako: astro eta planeten ibilbidea ezagutu zuten; horien  
faseak eta itzulerak lurraren ekoizpenarekin eta landarediaren mugi-  
menduarekin zuen erlazioa; fruitu eta landareen propietate sendaga-  
rriak eta elikagarriak; elementuen jokoa eta elkarren arteko afinitate-

ak. Ezagutza horiek, ordea, aho hezkuntza neketsuaren bidez komuni-  
katzea baizik ez zegoenez, ez zizkieten transmititu haien lagunei eta  
ahaideei baino; eta hortik sortzen da zientzia eta hezkuntza oro fami-  
lia batzuetan metatzea. Pertsona horiek pribilegio eksklusibo bat euren-  
tzat hartzean, arlo publikorako zeharo kaltegarria zen *gorputz* edo *iso -*  
*lamendu* espiritu bat sortu zen. Ikerketa eta lan horien ondorengotza  
jarrai horrek ezagutzen aurrerakuntza, egia esan, askoz azkarragoa  
egin zuen; baina, harekin zihoan misterioagatik, herria, egunean egun  
iluntasun handiagoan murgilduta, superstizioasoagoa eta morroiagoa  
bilakatu zen. Pertsona hilkorrek ikusten zituztelarik zenbait fenomeno  
eragiten, borondatez balitz bezala, eklipseak eta kometak *iragartzen*,  
gaixotasunak osatzen, sugeak maneiatzen, *botere zerutarrekin* komu-  
nikatzen zirela pentsatu zuten. Onurak lortzeko eta zetozkien gaitzak  
aldentzeko, *artekari* eta *interpretetzat* hartu zituzten. Estatuaren barne  
sortu ziren gizaki *hipokrita* eta *tronpatzaileen korporazio sakrilegoak*,  
*botere guztiak euren gain hartu zituztenak. Apaizek*, aldi berean *astro -*  
*nomo*, *teologo*, *fisikari*, *sendagile*, *mago*, *jainkoen interprete*, *herria -*  
*ren orakulu*, *erregeen aurkari* edo *konplize* zirenek, *erlijioaren* izena-  
rekin, ezarri zuten *misterioaren inperioa* eta *hezkuntza monopolioa*,  
egundaino nazioak galdu dituen...»

Hitz horiek entzuterakoan, talde guztietako apaizek hizlaria  
eten zuten, eta, oihu izugarriak eginez, akusatu zuten fedegabe, erlijio  
gabe eta blasfemari izateaz, eta jarraitzea eragotzi nahi izan zioten.  
Alabaina, legegilea konturatu zenez *gertakizun historikoen azalpena*  
baizik ez zela, datu horiek faltsuak edo asmatuak baldin baziren, erra-  
za izanen zela horien ezeztatzea, eta ordura arte *iritzi* ororen adieraz-  
tea libre zela, osterantzean egia ediretea ezinezko baitzitekeen, hizla-  
riak aurrera egin zuen:

«Kausa horietatik guztietatik, eta ideia burugabeen elkarketa  
jarraitutik, sortu zen desordena mordoa teologian, moralean, tradizioe-  
tan. Lehenik *animaliek astroak* ordezkatzeko zituztenez, piztien ezauga-  
rriak, euren joerak, euren sinpatiak, euren ezinikusiak jainkoengana  
pasatu ziren, eta hauen ekintza zirela pentsatu zen: horrela, *Ichneumon*  
jainkoak *Krokodilo* jainkoarekin guda egiten zuen; *Otso* jainkoak *Arku -*  
*me* jainkoa *jan* gura zuen; *Ibis* jainkoak *Suge* jainkoa irensten zuen.  
*Dibinitatea* izaki bitxi, *apetatsu*, *ankerra* bihurtu zen, haren ideiak giza-  
kiaren juzgua nahastu eta bere morala eta arrazoia usteldu zituen.

Euren gurmenaren espirituaren arabera, familia bakoitzak, nazio bakoitzak *zaindari* moduan *astro* bat, *konstelazio* bat, hartu zue-  
nez, *animalia-sinboloaren* afektu eta gorrotoak haren jarraitzaileetara  
pasatu ziren: *Zakur* jainkoaren zaleak *Otso* jainkoaren arerio bilakatu  
ziren, *Idi* jainkoaren gurtzaileek higuna zieten animalia hori jaten  
zutenei, eta erlijioa gorroto eta borrokatarako zio bihurtu zen, eroke-  
riarako eta superstiziorako kausa<sup>63</sup>.

Bestalde, patroitza arrazoi horregatik beragatik, *astro-anima* -  
*lien* izenak herriei inposatu zitzaizkien, herrialdeei, mendiei, ibaiei,  
eta objektu horiek *jainkotzat* hartu ziren; hortik izaki geografiko, his-  
toriko eta mitologikoen nahasmena etorri zen, tradizio guztiak nahas-  
tu zituena.

Azkenik, suposatzen zaizkien ekintzak direla eta, *jainko-astro* -  
*ak gizakitza* hartu ziren, *heroitzat*, *erregetzat*, errege eta heroiek itzu-  
lian *jainkoen* ekintzak eredutzat hartu zituzten, eta imitazioz bihurtu  
ziren gerlari, konkistatzaile, odolzale, harro, lizun, alfer. Erlijioak des-  
poten krimenak kontsokratu, eta gobernuen printzipioak usteldu  
zituen.»

## IV. SAILA

*Laugarren sistema: bi printzipioen gurmena, edo dualismoa*

«Nolanahi ere, apaiz astronomoek, euren tenpluen bakean eta  
oparotasunean, egunez egun zientziatan aurrerakuntza berriak egin  
zituzten. *Munduaren sistema* euren begi aurrean garatzen zihoalarik  
apurka-apurka, elkarren segidan zenbait *hipotesi* proposatu zituzten  
munduaren sistemaren *efektuen* eta *eragileen* gainean, hainbat *sistema*  
*teologiko* bilakatuko zirenak.

Bestalde, itsas herrien nabigazioek eta Asia zein Afrikako  
nomaden karabanek, lurra ezagutarazi zutelarik uharte Fortunadune-  
tatik Serikaraino, Baltikotik Niloren sorbururaino, zonalde ezberdinen  
erkaketak aurkiarazi zien munduaren biribiltasuna, eta teoria berri bat  
sorrarazi zuen. Azpimarratu delarik naturaren ekintza guztiak bi prin-  
tzipiotan laburbiltzen direla, *ekoiztea* eta *suntsitzea*; globoaren zatirik  
handienez, operazio horietako bakoitza berdin gauzatzen dela ekino-  
zio batetik bestera; hau da, udako sei hilabeteetan dena *ugaltzen* dela,  
eta neguko sei hilabeteetan dena *indargabetzen*, *ahitzen* eta ia hiltzen

dela; suposatu zituzten NATURAN *aurkako botereak* etengabe zirenak *borrokan* eta ahaleaginean. Esfera zerutarra ikuspegi horretatik kontsideratuta, irudikaturiko *taulak* bi *erdi* edo *hemisferiotan* banatu zituzten, horrela, *udako zeruan* ziren konstelazioek *inperio zuzen* eta *gorena* osatzen zuten, eta *neguko zeruan* zirenek *antipodako inperioa* eta *azpikoa* osatzen zuten. Orduan, *udako konstelazioak* zetozenegun luze, argitsu eta beroko urtaroarekin, fruitu eta uztekin, kontsideratu ziren haiei zegozkiela *botere argitasunezkoak*, *emankortasu-nezkoak*, *sorkuntzakoak*, eta zentzu fisikotik moralera eginiko trantsizioa dela eta, orduko *jeinuak* ziren *aingeru zientzialariak*, *ongintzazkoak*, *purutasun* eta *bertutezkoak*. Aldiz, *neguko konstelazioak* erlaziozatzen zirenez gau luzeekin, laino polarrekin, haiek *jeinu ilunenak*, *suntsipenezkoenak*, *heriotzazkoenak* ziren, eta trantsizio bidez, orduko *aingeruak* *ezjakitezkoak*, *krudelkeriazkoak*, *bekatu* eta *biziozkoak* ziren. Halako antolamendu batean, zerua bi eremutan bereizten zen, bi *fakzioetan*: jada giza ideien analogiak imajinazioaren erroreetan ibilbide handia kurritu zuen; baina zirkunstantzia partikular batek erabakiko zuen, berorrek ez baldin bazuen sortu, errorea eta ilusioa (*ikus bedi II. irudia*).

Apaiz astronomoek egin zuten esfera zerutarraren proiektzioan<sup>64</sup>, zodiakoak eta konstelazioak, zirkularki ezarrita, euren erdiak *oposizio* diametralean zeuzkaten: *neguko hemisferioa*, *udakoarekiko antipodan*, harekiko *arerioa*, *aurkakoa*, *oposatua* zen<sup>65</sup>. Metafora betierekoa dela eta, hitz horiek zentzu moralera pasatu ziren; eta *aurkako aingeru* eta *jeinuak*, *arerio erreboltatuak* bilakatu ziren. Ordutik, konstelazioen historia astronomiko osoa historia politiko bihurtu zen; zerua giza *estatua* bilakatu zen, bertan gertatzen zena lurrean gertatzen zena lakoa zelarik. Orduan, estatuek, gehienak despotikoak zirelarik, euren monarka zuten moduan, eta eguzkia zeruko monarka omen zenez jada, *udako hemisferioak*, *argitasunaren inperioak*, eta beronen *konstelazioak* –*aingeru zurien* herri horrek– errege zuten jainko *argi*, *adimentsu*, *sortzaile* eta *on* bat. Fakzio *matxinatu* orok *buruzagia* eduki behar duenez, *neguko zeruak*, *iluntasunaren* eta *tristuraren lurpeko inperioak*, eta bere *astroek* –*aingeru beltz*, *erraldoi* edo *deabruen* herri horrek– *buruzagi* zeukaten *jeinu* gaizkile bat, eta haren rola herri bakoitzak *konstelazio* azpimarragarrienari egotzi zion. Egipton *eskorpioia* izan zen, balantzaren ondoren doan *lehen*

zodiako zeinua, luzaroan neguko zeinuen *buruzagi* izanen zena; beranduago *hartza* edo *asto polarra* izan zen, *Typhon* zeritzana, hau da, *ur erauntsia*, astro horrek *agintzen* zuenean, lurra *urez gainezka* jartzen zuten *zaparradak* direla eta<sup>66</sup>. Persiarren artean, beranduago-ko garai batean<sup>67</sup>, *sugea* izan zen, *Ahriman* izenaz, *Zoroastroren* sistemaren oinarria osatzen duena, eta hura da –o kristau eta juduak!– *Evaren* (birjina zerutarraren) *sugea* bihurtu dena eta *gurutzekoa*, bi kasuetan, *Satanen* ikur, Danielek abesturiko *antzinako egunetikako aurkari* handia.

Sirian *zerria* edo *basurdea* izan zen, *Adonisen* arerio, eskualde horretan *hartz borealaren* rola *neguaren* ikur diren joera *lohitsuak* dituen animaliak ordezkatu baitzuen, eta hara zergatik –Moisesen eta Mahomaren haurrok!–, hara zergatik terrorea diozuen, *Menphis* eta *Baalbekeko* apaizen antzera, haiek ere gorroto baitzioten euren jainko *eguzkiaren* hiltzaileari. Zuen *Shiva* jainkoaren lehen tipoa da halaber –o indiarrok!–, zuen anaia erromatar eta grekoentzat *Pluton* izan zena; horrela, zuen *Brahma*, jainko sortzaile hori ez da persiar *Ormuz* eta egiptoar *Osiris* baino, izenak berak aditzera ematen duenez *botere sortzailea*, *formen ekoizlea*. Jainko horiek jaso zuten gurmene bat euren ezaugarri egiazko ala faltsuen analogoa zena, berau, elkarren arteko diferentzia zela eta, bi adar ezberdinetan bereizten da. Alde batean, jainko *onak maitasunaren* eta *pozaren* gurmene jasotzen du, bertatik datozelarik pozezko generoko erlijio ekintzak<sup>68</sup>: festak, dantzak, oturuntzak, lore, esne, ezti, lurrin ofrendak; hitz batean, zentzumenek eta arimak laket duten oro. Bestean, jainko *gaiztoak* alderantzizkoa jasotzen du, *beldurraren* eta *minaren* gurmene, bertatik datozelarik tristurazko generoko erlijio ekintza guztiak<sup>69</sup>: negarrak, desolazioa, dolua, gabetzeak, odolezko ofrendak eta sakrifizio krudelak.

Hortik dator, halaber, izaki lurtarrak bereiztea *puru* ala *ezpuru* -*tan*, *sakratu* ala *nardagarritan*, espezieak jainkoetako bataren edo bestearen konstelazioan aurkitzen diren, eta haien eremuan sartzen diren arabera; horrek sortu zituen, batetik, poluzioaren eta purifikazioaren gaineko superstizioak, eta, bestetik, kutunen eta *talismanen bertute* ustez eragingarriak.

Ulertzen al duzue orain», jarraitu zuen hizlariak, indiarrei, persiarrei, juduei, kristauiei eta musulmanei zuzenduz, «ulertzen al duzue *borroka*, *errebolta*, ideia horien jatorria, berdin zuen *mitologia* guz-



tietan lepo direnak. Ikusten al duzue zer esan nahi duten *aingeru zuriek* eta *aingeru beltzek*, *arrano*, *lehoi* edo *zezen* burudun *kerubin* eta *serafinak*, zuen *deus*, *deabru* edo *demonio aker adardunak* eta *suge buztandaunak*, zuen *tronu* eta *domeinuak*, *zazpi ordena* edo *mai-laketatan* ezarriak, *planeten zazpi esferak* legez. Izaki guztiek rol berak dituzte, ezaugarri berak dituzte *Vedatan*, *Biblian* edo *Zend-Avestan*, bai buru delarik *Ormuz* ala *Brahma*, *Typhon* ala *Shiva*, *Mikel* ala *Satan*, bai denak ere ehun besoko *erraldoi* bezala agertzen direlarik, edo *lehoi*, *ibis*, *zezen* edo *katu* metamorfosia izan duten jainko bezala, greziar eta egiptoar narrazio sakratuetan gertatzen den moduan. Sumatzen al duzue ideien kidetasun jarraia, eta nola euren sorburutik aldentzen diren eran, espirituak zibilizatuagoak diren eran, zakartasunak leundu dira, eta ez dira jada horren higuingarriak suertatzen?

Alabaina, *bi printzipioen* edo *jainko oposatuen* sistema, *sinbo-loenetik* jaiotzen den legez, biak ere irazki berekoak direlarik, handik sistema berri bat sortzen ikusiko duzue, honek ere beste batentzat oinarri eta maila bezala balioko duelarik.»

## V. SAILA

*Gurmen mistiko edo moralak, edo haratagoko munduaren sistema*

«Izan ere, jende arruntak entzun zuenean *zeru berri* batez eta *beste mundu* batez hitz egiten, *fikzio* horiei berehala gorputz bat eman zien, antzoki solido baterako benetako eszenak eman zizkien. Gainera, nozio geografiko eta astronomikoen laboratu zuten —ez bazuten beroriek sorrarazi— ilusio hori.

Alde batetik nabigatzaile feniziarrek, Herkulesen kolomak igarotuzten horiek, Thuleko eztainua eta Baltikoko anbarra bilatzera joan zirelarik, kontatu zuten munduaren urrutieneko bazterrean, ozeanoaren (Mediterraneoaren) bukaeran, eguzkia lurralde asiarretatik ezkutatzen den lekuan, han direla *uharte fortunatuak*, betiereko udaberria duten lekua, eta, urrunago, *lurralde hiperborealak*, *lur azpian* direnak (tropikoekin alderatuta), bertan gaua *eternala* delarik<sup>70</sup>. Gaizki ulertutako, eta zalantzarik gabe modu nahasian eginiko istorio horietatik, jendearen imajinazioak *Eliseo Zelaiak* asmatu zituen<sup>71</sup>, *azpiko mundu batean kokaturiko gozamen lekua*, badauzkana bere zerua, bere eguzkia, bere astroak; eta *Infernua*, *iluntasun*, *hezetasun*,

*lupetza*, *izotz* lekua. Alabaina, gizakiak, ez dakien guztia jakin nahi duenez, eta existentzia luzea gura duenez, jada galdetua zion bere buruari heriotzaren ondoren datorrenaz. Laster hausnarketa egin zuen bere gorputza animatzen duen *bizitza printzipioaz*, hartatik bereizten dena hura deformatu barik, eta *substantzia* finak, *fantasmak* eta *itza-lak* imajinatuak zituenez, galtzea horrenbeste kostatzen zitzaion bizitza horrek lurpeko mundu batean jarraituko zuela pentsatzea laket zuen; eta *infernuzko lekuak* izan ziren leku egokia bertan egon zitezen utz ez zitzakeen objektu maitatu horiek.

Bestetik, *apaiz astrologo* eta *fisikariek* zeruari buruz euren istorioetan eginiko deskripzioak zein marraztutako taulak perfektuki egokitzen zitzaizkien fikzio horiei. Euren lengoaia metaforikoan, *eki-nozio* eta *solztizio*, *zeruko ate* edo *urtaroetarako sarrena* hitza erabili zituztenez, lurreko fenomenoak honakoa esanda azaltzen zituzten: '*adarraren atetik* (lehenik *zezenarena*, ondoren *ahariarena*) eta *cancerenetik jaisten* dira udaberrian landaredia bizitzen duten *su pizgarriak*, eta *solstizioan* Nilo ibaiaren *gainezka* egitea eragiten duten *espiritu urtsuak*; *bolizko atetik* (*balantza* eta lehenago *arkua* edo sagitario) eta *kaprikornioenetik* edo *kutxarenetik*, bere sorburura itzultzen dira zeruko *emanazio* edo *influentziak*; eta *Esne-Bidea*, solstizioen *ateetatik* igarotzen dena, badirudi han kokatua dela haien *ibilbide* edo *ibilgailuarena* egiteko. Are gehiago, haien atlasean, eszena zerrutarrean badaude *ibai* bat (Nilo, *hidraren* bihurdurak irudikatua), *ontzi* bat (*Argo* ontzia), eta *Sirius txakurra*, biak ere ibai harekin erlazionatuak, haren *gainezka egitea* iragartzen dutenak. Zirkunstantzia horiek, lehenekin elkartutakoak, eta horien zehaztasunak emanez, antzekotasunak handitzen dituzte; eta *Infernura* edo Eliseora iristeko, beharrezkoa zen arimak *Estigia* eta Akeron ibaiak zeharkatzea *Karonteren txalupan*, eta *adar* eta *bolizko* ateak igarotzea, *Zerbero* txakurrak zaintzen zituenak. Azkenik, erabilera zibil bat batzen zitzaion fikzio horiei; eta sendotasuna ematen zien gainera.

Konturatu zirelarik haien klima kiskaltzailean zerraldoen usteltzea izurritearen eta gaixotasunaren sorburu zela, Egiptoko biztanleek hiri askotan populaturiko lurraldeetatik at, mendebaldean den basamortuan ehorzteko ohitura hartu zuten. Hara iristeko, beharrezkoa zen ibaiaren kanalak zeharkatzea, eta hortaz *txalupa* batean *bidaiatzea*, *garraiatzaileari* ordaintzea, osterantzean, hobiratu gabeko gorpua piz-

ti gosetien harrapakina zen. Ohitura honek legegile zibil eta erlijioz-koei azturetan eragiteko baliabide boteretsua eskaini zien; eta, gizaki zatar eta basatiak erakarriz hilekiko errespetuaren eta anarteko pieta-tearen bidez, halabeharrezko baldintza egin zuten aurretiko epaiketa bat izatea, hartan erabakiko zelarik familiaren kide bezala onartzea *hiri beltzean*. Halako ideia bat zeharo ongi egokitzen zen gainontze-koekin, eta aurki elkartu zen haiekin: jendeak laster bere egin zuen, eta infernuak bere *Minos* eta *Rhadamantus* izan zituen, bere aginte-makila, aulki, atezain, eta kutxarekin, egoera lurtar eta zibilean legez. Orduan dibinitatea izaki moral eta politikoa bilakatu zen, legegile soziala, are izugarriagoa, ezen legegile goren hori, azken epaile hori ikusgaitza baitzen. Orduan *fabulazko* eta *mitologiako mundu* hori, hain modu bitxian kide bereiztuez osatua, *zigor* eta *saritze leku* bila-katu zen, bertan *justizia* jainkotiarrek gizakien bizio eta akatsak zuzenduko zituen. Sistema *espiritual* eta *mistiko* horrek sona handia izan zuen, gizakia bere joera guztiekin harrapatzen zuen heinean: zapaldua zen ahulak kalte-ordain baten esperantza izanen zuen, etor-kizuneko mendeku baten kontsolamendua; zapaltzaileak, bazeukanez ofrenda aberatsen bidez beti zigorrrik gabe geratzea, jende arruntaren errorearekin eurak menderatzeko beste arma bat zuen; eta herrien buruzagiek, erregeek eta apaizek herria agintzeko modu berriak zituz-ten horrela, epaile handiaren grazia edo zigorra banatzeko beraientzat gordetzen zuten pribilegioaren bidez, delituak eta merituzko ekintzen ezaugarriak euren nahierara erabakitzen baitzituzten.

Hara, *mundu benetako* eta *ikusgaian* nola sartu den *mundu iku-sezin* eta *imaginaziozkoa*; hara *gozamenen* eta *zigorren* leku horiek; zuek persiarrok bertan ezarri duzue zuen lur *birsortua*, *ekuatorean* kokatzen duzuen zuen *berpizte* hiria, bereizgarri duena *zorionekoek bertan itzalik ez izatea*<sup>72</sup>. Hara, *–judu* eta *kristauok*, persiarren dizipu-luok!– nondik datozen zuen Apokalipsiko *Jerusalem*, zuen *paradisua*, zuen *zerua*, denek diruditenak zehaztasun guztietan Hermesen zeru astrologikoa. Eta zuek musulmanok! zuen infernua, *lurrazpiko* amil-degia, zubi batek zeharkatzen duena; zuen *arimen* eta berorien ekin-tzen *balantza*; *Monkir* eta *nekir* zuen aingeruek eginiko epaiketa; horiek ere eredu dituzte *Mitraren leizeko zeremonia misterioitsuak*<sup>73</sup>; eta zuen zeruak ez du diferentziarik ezertan *Osiris*, *Ormuz* edo *Brah-marenarekin*.»

## VI. SAILA

*Seigarren sistema:*

*mundu animatua, edo ikur anitzen bidezko unibertsoaren gurmena*

«Jendea *mitologiaren* eta fabulen labirinto ilunean zehar mugitzen zen aldi berean, apaiz fisikariak –euren ikasketak eta ikerketak *unibertsoaren* ordena eta antolamendua aztertzerako dedikatzen zituzte– larrik– emaitza berritara iritsi ziren, eta *botereen* zein *kausa eragileen* sistema berriak osatu zituzten.

Luzaroan *aparentzia* sinpleetara mugatu zirelarrik, astroen mugimenduan ez zuten ikusi gorputz argitsuen jokia baizik. *Lurraren* inguruan –esfera guztien puntu zentrala kontsideratzen baitzuten– mugitzen zirela pentsatzen zuten, baina gure planetaren *biribiltasuna* deskubritu zutelarik, datu honen ondorioek kontsiderazio berrietara eramane zituen; eta indukzioz indukzio, astronomiaren eta fisikaren kontzeptzio gorenetara iritsi ziren.

Izan ere, ideia argi eta sinple hori osatu zutelarik –hau da, *globo lurterra zeruko zirkulua handiagoan ezartzen den zirkulu txikia dela–, zirkulu zentrokideen teoria berez iritsi zen haien hipotesietara, determinatuz *Lurraren* globoaren zirkulu *ezezaguna* zeruko zirkulua-ren puntu *ezagunen* bidez; eta meridioaren gradu baten edo zenbaiten neurriak zirkunferentzia osoarena eman zuen. Orduan, *konpas* moduan *Lurraren diametro* hori harturik, zorioneko jeinu batek esku ausartarekin zeruko orbita itzelei aplikatu zien. Gizakiak, fenomeno ezezagun bat dela-eta, harea-pikor batetik –beronekin ere ozta ahal duelarik–, astroen distantzia mugagabeak besarkatuz, espazioaren eta iraupenaren amildegietara jauzi egiten du. Bertan *unibertsoaren* ordena berri bat agertzen zaio begi aurrean, bera bizi den globo atomoa ez zaio jada *zentroa* iruditzen: rol garrantzitsu hori *eguzkiaren* masa itzelari pasatu zitzaion, eta astro hori bilakatu zen berori inguratzen duten *zortzi esferaren* pibota sugarduna, eta bere mugimenduak kalkularen zehaztasunaren mende ezarri ziren ondoren.*

Jada asko zen giza espirituarentzat *NATURAKO izaki handien* antolamendua eta ordena aztertzeke eginkizuna; baina ez zelarik kontent lehen esfortzu horrekin, *mekanismoa* aurkitzea ere nahi izan zuen, baita *jatorria* eta *printzipio eragilea* ediretea ere. Horrela, mugilduta zeudelarik aztertzen *mugimenduaren* eta beronen *lehen kausa*,

*materiari* atxikitzen edo komunikatzen zaizkion *propietateak*, haren *forma jarraiak* eta *hedadura*, hau da, mugarik gabeko espazio eta denbora, *teologo fisikariak* eztabaida eskolastikozko arrazonamendu soti-len kaos batean galdu ziren.

Lehenik, eguzkiak lurreko gorputzetan zuen eraginak ikusarazi zielarik haren substantzia *su puru* eta *elemental* bat legez, hura egin zuten *suzko* fluido *argitsu* baten *foku* eta *erreserba*, *eter* izeneko fluido horrek unibertsoa bete eta izakiak elikatzen zituen. Ondoren, *fisi-ka arretatsu* baten analisisiek *su* hori bera, edo antzeko bat, gorputz guztien osieran aurkitzera eramane zituzten, eta konturatu zirelarik hura zela animalietan *bizitza* eta landareetan *begetazio* deritzagun *mugimendu espontaneoaren* eragile *esentziala*, *unibertsoaren* mekanismoa eta jokoa irudikatu zuten OSOTASUN *homogeneo* bat bezala, *gorputz identikoa*; bertan atal guztiak, nahiz eta urrutikoak izan, *elkarren arteko lotura estua zuten*<sup>74</sup>. Mundua izaki biziduna zen, fluido *igneo* ala elektriko<sup>75</sup> baten zirkulazio organikoak bizia ematen ziolarik, *gizakitik* edo animalietatik hartutako lehen erkaketa puntu batean oinarrituta, *eguzkia* zuena *bihotz* eta *foku*<sup>76</sup>.

Horrela, filosofo teologoen artean, behaketaren emaitza ziren printzipio horietatik abiatuta, batzuek honakoa zioten: ‘ezer ezin da munduan deuseztatu; elementuak suntsiezinak dira; konbinazioak alda daitezke, baina natura ez; izakien bizitza eta heriotza ez dira *ato-mo* beren konbinazio anitzak baizik; *materiak* berak berez ditu propietateak izatearen modu guztiak sortuko dituenak; *mundua eternala* da, espazio eta iraupenik gabeko mugarik gabea’; batzuek esango dute *unibertso osoa Jainkoa dela*; eta, haien arabera, *Jainkoa* zen izaki bat aldi berean *efektu* eta *kausa* dena, *egile* eta *jasaile*, *printzipio eragile* eta *mugituriko gauza*, lege dauzkalarik Patua osatzen duten propietate aldaezinak. Azken filosofo horiek euren pentsamendua irudikatu zuten PANen (OSOTASUN HANDIAREN) ikurrarekin; edo bekokia *izarrez* betetako *Jupiterrenarekin*, *animalia oinak* dituen gorputz *planetariodunarekin*; edo *arautza orfikoarenarekin*, bertan *gorringoa*, *bobeda* batek inguraturiko likido baten zentrotik zintzilik, *eterrean* jaiotzen den *eguzkiaren globoa* dago irudikatuta zeruaren *bobedan*<sup>77</sup>; batzuetan *suge biribil* handi baten ikurrarekin, irudikatzen duelarik filosofo haiek lehen eragilea ezartzen duten zerua, arrazoi horregatik *kolore urdinekoa*, bertan *urrezko tantoak* barreiatuta (izarrak), *sugeak*

bere *buztana* irensten du, hau da, bere baitan *sartu* eta *kiribiltzen* delarik eternalki, esferen biraketa lege; bestetzueta oinak *lotuta* eta *elkarrekin* dituen *gizakiaren* ikurrekin, horrekin adierazi nahi delarik *existentzia* *aldagaitza*, *kolore guztietako* mantu batek estalita, naturaren ikuskizuna bezala, eta buruan *urrezko esfera* bat daramalarik<sup>78</sup>, izarren esferaren ikurra; beste batzuetan beste gizaki bat, *loto* landarearen gainean eserita uretako amildegira eramandakoa, batzuetan hamabi *txankalen* pilo batean etzanda, hamabi zeruko zeinuak irudikatzen dituztenak. Eta hara, indiar, japoniar, siamdar, tibetar eta txinatarrok, egiptoarrek sorturik, zuengana transmititu eta zuek gorde duzuen teologia, zuek eginiko margoetan agertzen dena *Brahma*, *Buda*, *Sommona-kodom* edo *Omitorenetan*. Hara, baita ere, hebrear eta kristauok! zuek zuen *jainkoarekiko* duzuen iritziaren zati batean gordetzen dena, *uren gainetik doan putza*, aipamena egiten diozuelarik *haize horri munduaren* sorreran, hau da, *cancerren zeinutik esferak* irteten direnean, Nilo ibaiaren gainezka egitea gaztigatzen duen horri, *sorkuntza* prestatzen duela dirudienari.»

## VII. SAILA

*Zazpigarren sistema: MUNDUAREN ARIMAREN gurmena, esan nahi baita, unibertsoaren bizi printzipioa den su elementuarena*

«Baina beste batzuek, ez zutenak gustuko *izaki* bat aldi berean *efektu* eta *kausa* zena, natura berean aurkako naturak batzen zituen *izakiaren* ideia, bereiztu zituzten *printzipio mugitzailea* eta *gauza mugitua*; eta erabakiz *materia* berez *bizigabea* zela, sinetsi nahi izan zuten *eragile bereizi* batek komunikatzen zizkiola propietateak, hura *estalkia* eta *azala* baino ez zelarik. *Eragile* hori batzuentzat *printzipio igneoa* zen, *mugimendu* ororen egile kontsideratzen zena; besteentzat *eter* izeneko fluidoaren zen, aktiboagoa eta finagoa kontsideratzen zena; alabaina, animalien *bizi printzipioari*, *printzipio mugitzaileari*, *anima* edo *espiritua* zeritzanez, eta beti erkaketa bidez arrazoitzen zuten, batez ere *gizakiarengan* oinarrituta, unibertso osoaren *printzipio eragileari* *arima*, *adimena*, *espiritua*, izenak eman zizkioten, eta *Jainkoa* izan zen, *izaki guztietan barreiaturik*, *munduaren gorputz zabalar* *bizia ematen zion bizi espiritua*. Euren ideia batzuetan irudikatu zuten *Yupiter* bezala, *mugimenduaren* eta *bizitasunaren esentzia*, *existentziaren* *printze*, edo *existentzia* bera; besteetan *Vulcano* edo *Phta* beza-

la, *su nagusi* eta *oinarrizkoa*; edo *Vestaren* aldarearekin, haren tenpluaren zentroan kokatuta, *eguzkia esferen* artean dagoen bezala; edo *Kneph* bezala, *urdin ilunez* jantziriko gizakia, eskuan *zetroa* eta *gerrikoa* (zodiakoa) dauzkalarik, *luma*zko txapela buruan, bere *pentsamen* -*duaren iragankortasuna adierazteko*, eta bere ahotik *arrautza handia* sortzen dela.

Alabaina, sistema honen ondorioz, izaki bakoitzak bere baitan zuen fluido *igneo* edo *etereo*a, eragile *unibertsal* eta komuna; eta *munduren arima* zen fluido hori *Dibinitatea* zenez, hortik ondorioztatzen zen izaki guztiak *Jainkoaren beraren zati* zirela, haren ezaugarriez parte hartzen zutenak, hau da, substantzia *zatiezin, simple, hilezi-nekoak*. Hortik dator arimaren *ezilkortasunaren* sistema osoa<sup>79</sup>, hasieran arima *eternitate* baitzen. Hortik dator, halaber, *transmigrazio* horiek, *metenpsikosi* bezala ezagutzen direnak, hau da, *bizi printzi-pioa* gorputz batetik bestera igarotzea; elementu *materialen* benetako transmigrazioetik sorturiko ideia. Eta hara, indiarrok, budistok, kristauok eta musulmanok! Hara nondik datozen zuen iritzi guztiak arimaren *espiritualtasunari* buruzkoak; hara zein izan zen *Pitagoras* eta *Platonen*, zuen irakasleen, hausnarketa guztien iturria, haiek ere ez ziren izan ez bada garatzeko beharra zuten filosofo ameslarien azken sektaren oihartzun.»

## VIII. SAILA

*Zortzigarren sistema:*

*MAKINA-MUNDUA. Demiurgoaren edo Egile handiaren gurmena*

«Oraindaino teologoei, *eterraren substantzia delikatu eta finak* edo *jatorrizko* *sua* aztertzen zihardutelarik, dena den ez zioten utzi zentzumenei ukigarri zaizkien izaki ukigarriak aztertzeari, eta teologiak oraindik jarraitzen zuen izaten *botere fisikoen teoria*, horiek kokatzen zirelarik bai astroetan bereziki, bai unibertso osoan barreiatuak. Baina garai horretan, espiritu superfizialek, galdu zutelarik ikerketa sakon horietara lerratu zituen hurrenkera, edo jakin barik oinarri zeuzkaten gertakizunak, emaitza guztiak desnaturaldu zituzten kimerarrotz eta berri baten sarrerarekin. Sinetsi nahi izan zuten *unibertso* hau, zerua, astroak, eguzkia, ez direla genero arrunteko *makina* bat baino; eta lehen hipotesi honi aplikatu zioten *arte lanetatik* ateratako konparazio bat: sofismarik bitxienei osaturiko eraikina altxatu zuten.

‘Makina batek’, zioten, ‘ez du bere burua fabrikatzen: aurreko egile bat dauka, haren existentziak berak hori frogatzen du. *Mundua maki - na* bat da: hortaz badago fabrikatzaile bat’.

Hortik dator *demi-urgos* edo *egile-handia*, berau delarik *dibinitate* autokratiko eta gorena. Alferrik objektatzen du antzinako filosofoiak *egile* horrek ere *gurasoak* eta *autoreak* behar dituela, eta eskaileriari maila bat gehitu baino ez zela egiten, munduari eternitatea kenduz hari emateko. Berritzaileak, paradoxa berri honekin ez zirelarik aski kontent, bigarren batera igaro ziren; eta, haien *egileari* giza *adimenaren* teoria aplikatuz, proposatu zuten *demi-urgosak* bere *adimenaren* arabera *plan* edo *ideia* batean oinarrituta fabrikatu zuela bere makina. Alabaina, haien maisuek, fisikariek, izar finkoen *esferan* ezarri zuten *eragile erregulatzaile nagusia*, hari *adimen* eta *arrazo - namendu* izena emanez; *espiritualistek*, haien *mimo* zirenek, *izaki* hura bereganatuz, *demi-urgosari* aplikatu zioten, eta substantzia bereizia egin zuten, *berez existitzen zena*, eta *mens* edo *logos* (*arrazo - namendua* eta *hitza*) deitu zioten. Modu berean *munduaren arimaren* –edo *eguzki printzipioa*– existentzia onartzen zuten, behartuak izan ziren hiru gradu edo maila osatzera pertsona *jainkotiarretan*, hala nola, 1. *demi-urgos* edo *jainko egilea*; 2. *logos*, *hitza* eta *arrazona - mendua*; eta 3. *espiritua* edo *arima* (*munduarena*). Eta hara, kristauok! Zuen *trinitatea* eraikitzeke erabili duzuen istorioa; hara tenplu egiptoarretan *heretiko* jaio zelarik, Italia eta Greziako ikastetxeetara *pagano* garraiatua izan zelarik, egun *katoliko ortodoxo* den sistema, bere jarraitzaileen konbertsioagatik, *Pitagoras* eta *Platonen* dizipuluak kristau bihurturik.

Horrela Dibinitatea, jatorrian *meteoro* eta *elementuen ekintza sentikor* eta *multiplea* zelarik:

Lehenik izaki lurtarrekin zeukaten harremanaren arabera kontsideraturiko *astroen botere* konbinatua.

Bigarrenik *izaki lurtar* horiek berak, *sinboloak* euren *ereduekin* nahasterakoan.

Ondoren naturaren *botere bikoitza* bere *ekoizpen* eta *suntsipen ekintza* nagusi bietan.

Gero *mundu animatua* bereizketarik gabe, *eragile* eta *jasotzai - le*, *efektu* eta *kausa*.



Eta *eguzki printzipioa* edo *su elementu*, *eragile* bakartzat har-tzen dena.

Hala, azken ondorio bezala, Dibinitatea *izaki kimeriko* eta *abs-traktua* bilakatzen da; *figurarik* gabeko *gorputz*, *formarik* gabeko substantzia den *sotiltasun eskolastikoa*; *espirituaren delirio*, arrazoi-menaren ulertzeko ahalmenetik at. Baina alferrik saiatzen da azken pasaera horretan zentzumenak saihesten: haren jatorriaren zigilua modu ezabaezinean dago hartan inprimatua; bai eta haren atributuak ere, denak ere unibertsoaren atributu fisikoetatik hartuak, hala nola, *mugagabetasuna*, *betikotasuna*, *banaezintasuna*, *ulergaitasuna*; edo gizakiaren afektu moraletatik, esaterako, *ontasuna*, *justizia*, *dotorezia*, eta abar. Adiera horiek berak, *tipo* moduan balio izan duten izaki fisi-koetatik atereak<sup>80</sup> –eta bereziki *eguzkitik*, *planetetatik* eta *mundutik*–, etengabe daramate, Dibinitatearen usteltzaileak gorabehera, haren benetako naturaren traza ezabaezinetara.

Hori da historiaren kontaketa positiboa baino lehenagoko garaian giza espirituak jada kurritua zuen ideien hurrenkera. Ideia horien izaera jarraiak frogatzen duenez ideioik ikasketa eta lan multzo beraren ekoizpen direla, denak darama pentsatzera haien jatorria Egipton dela, elementu primitiboen sehaska horretan. Posible da jaien bilakaera azkarra izatea, ezen apaiz fisikarien aisialdiko jakin-nahiak, tenpluen bakartegian, ez baitzuen beste elikagairik ez bada *unibertso* -*ak* egunero aurkezten zien *enigma*. Lurralde hori luzaroan bereiztu zuen zatiketa politikoan, hiri-estatu bakoitzak apaiz ikastetxe bat zuen; apaiz horiek, aldian-aldian lagun ala aurkari zirelarik, euren eztabaidekin zientziaren eta aurkikuntzen aurrerakuntza bultzatu zuten<sup>81</sup>.

Niloko bazterretara iritsi zen Lur osoan beranduago errepika-tuko zena. Sistema bakoitza osatzen zihoan eran, berrikuntzek ezta-baidak eta zismak sortu zituzten. Ondoren, sistema hori jazarpenak berak indartzen zuelarik, batzuetan aurreko idoloak deuseztatzen ziren, bestetuetan txertatu eta eraldatzen ziren. Iraultze politikoak gertatzerakoan, estatuen eta herrien batzeak iritzi guztiak nahastu zituen. Ideien lotura galdu zelarik, teologia kaosean erori zen, eta aurrerantzean ulertuko ez ziren tradizio zaharren logogrifoa baino ez zen izanen. Erlijioa, objektuz gabetua, ez zen ez bada jende arrunt sineskorra gidatzeko baliabide politikoa, hartaz baliatu zirelarik nork

bere irudipenek engainaturiko pertsona sineskorrak batzuetan, eta besteetan pertsona ausartak eta arima energiadunak, euren buruei proposatu zietenak anbizioak eraginiko helburu handiak.»

## IX. SAILA

*Moisesen erlijioa, edo munduaren arimaren gurmena* (Yupiter)

«Halakoa zen hebrearren legegilea, bere nazioa gainontzekoe-tatik bereiztu eta inperio isolatu eta berezia osatu nahi zuelarik, plana egin zuen erlijiozko aurreiritzietan finkaturiko oinarriekin, inguruan iritzi eta erritu murru sakratua eraikiz. Baina alferrik proskribatu zuen Egipto Beherean eta Fenizian indarrean zen *sinbolo* gurmena; bere jainkoa egiptoar jainkoa zen dena den<sup>82</sup>, Moisesek maisu zeuzkan apaizen asmakuntza. Yahuh, izenak berak traditzen duenez<sup>83</sup>, *esentzia* (izakiena), bere sinboloa *suzko sasía*, ez da munduaren arima, *prin-tzipio eragilea* baino, apur bat beranduago Grezian izen bera hartzen duena *Yu-piter –izaki sortzaile–* bezala; edo *Ei –existentzia–* izenarekin<sup>84</sup>, tebarrek *Kneph* izenarekin kontsakratu zuten hori; *Saisek* gurtzen zuena Isisen ikur *ezkutatuarekin*, inskripzio hau zuen: *Ni naiz izan dena, badena, eta izanen dena, eta ez da hilkorrik ene beloa altxatu duenik*; Pitagorasek *Vesta* izenarekin ohoratu zuena, eta filosofia estoikoak zehaztasunez definitu zuena suaren printzipio deitzera-koan. Moises alferrik saiatu zen bere erlijiotik astroen gurmene-kin harremana zuen oro ezabatzen, saiatu arren aztarna mordoa gera-tu zen haiengana zeramana; zutargi handiko zazpi *argi* edo *planetak*, apaiz gorenaren urimean zeuden *hamabi harriak* edo *zeinuak*, bi *eki-nozioetako* festak (bi *hemisferioetako sarrera eta ateak*), *bildots* edo *ahari zerutarraren* zeremonia; azkenik, *Osirisen* izena bera<sup>85</sup>, haren kantikan kontserbatzen dena, eta jainko hori ehortzia izan zen hilo-tzaren imitazio den *arka* edo *kutxa*; guztiek ere jarraitzen dute ideien kidetasunaren eta jatorri beretik aterak diren lekukotasun bezala.»

## X. SAILA

*Zoroastroren erlijioa*

«Halakoa izan zen Zoroastro ere, Moises baino bi mende beranduago. Mediarren artean eta baktriarren artean berpizten eta moralizatzen du Osirisen eta Typhonen sistema egiptoarra, horiei Ormuz eta Ahriman izenak emanda. Naturaren sistema azaltzeko, bi

*jainko* edo *botere* handi proposatzen ditu, batari dagokio *sortzea*, *argi* eta *bero goxo* baten indarpean *ekoiztea* (honen tipoa uda da), eta, hortaz, *zientziaren*, *ongintzaren*, *bertutearen jainkoa* da; besteari *suntsi-tzea* dagokio, *iluntasunaren* eta *hotzaren* indarpean (tipoa negu gorria da), eta, hortaz, *ezjakintasunaren*, *gaiztakeriaren*, *bekatuaren jainkoa* da. Adierazpide figuratuen bidez, segituan ulertezinak bilakatzen direlarik, *munduaren sorkuntza* deritza udaberri bakoitzean ematen den eszena fisikoaren berrikuntzari; *berpizkunde* deritza astroen konjuntzioan ematen den periodoen berritzeari; *etorkizuneko bizitza*, *infernua*, *paradisua* deitzen zaie *astrologo* eta *geometren Tartaroa* eta *Eliseoa* baino ez zenari; hitz batean, ez du egiten ezer ez bada sistema mistikoan jada existitzen ziren ameskeriak kontsakratzea.»

## XI. SAILA

### *Brahmanismoa, edo indiarren sistema*

«Halakoa izan zen indiar legegilea, *Menu* zeritzana, Zoroastro eta Moises baino lehenagokoa. Gangesen bazterretan, Greziak ere ezagutu zituen hiru *printzipio* edo *jainkoen* doktrina kontsakratzen du, haietako bat, *Brahma* izenekoa —edo *Iupiter*—, *ekoizpen* edo *sorkuntza* ororen egile zen (udaberriko eguzkia); bigarrena, *Shiva* izenekoa —edo *Pluton*—, *suntsipen* ororen jainkoa zen (neguko eguzkia); eta hirugarrena, *Vishnu* izenekoa —edo *Neptuno*—, urtaro egonkorren *manten-tzaile* zen (solstizioko eguzkia, *stator*). Guztiak ere ezberdin, eta hala ere hirurek *jainko* edo *botere* bakarra osatzen dute, berau *vedatan* abestua, himno *orfikoetan* legez, ez da *hiru begiko Iupiter* baino<sup>86</sup>, edo hiru jarduera moduko eguzkia, hiru *erritu* edo *urtaroetan*: hor daukazue Pitagorasek eta Platonek berrerabilitako sistema *trinitario* osoa, haren interpretariek zeharo desitxuratu zutena.»

## XII. SAILA

### *Budismoa, edo sistema mistikoa*

«Halakoak izan ziren, azkenik, Menuren ostean datozen erreformatzaile moralista guztiak, *Buda*, *Gaspa*, *Chekia*, *Gautama*, eta abar, metenpsikosiaren printzipio apur bat eraldatuekin, jatorrian erabilgarriak ziren doktrinak sortu zituztenak, jarraitzaileei inspiratu zietenak *heriotzarekiko izua*, *izaki sentikor guztienganako urrikalmen-dua*, *beste bizitza batean* —forma berri batekin— *bizioak* eta *bertutea*

*zigortzeko ala saritzeko dauden beldurra ala esperantza, alabaina, berehala kaltegarriak bilakatu ziren metafisika bisionario baten abusuagatik. Metafisika horri, saiatu zelarik ordena naturala hankaz gora jartzen, iruditzen zitzaion mundu ukigaia eta materiala ilusio fantastikoa zela; gizakiaren existentzia ametsa zela eta heriotza zela bene-tako iratzartzea; gizakiaren gorputza kartzela ezpurua zela eta bertatik irten behar zuela laster, edo estalki lodi bat zela, barne argiarekiko iragazkor bilakatzeko beharrezko zelarik mehetzea, gardentzea, barau, mortifikazio, kontenplazio eta praktika anakoretiko andana baten bidez. Praktika horiek hain ziren arrotzak, jende arruntak, liluraturata, ezin baitzion bere buruari azaldu egileen izaera, eta izaki supernaturalak kontsideratzen zituen, eta zailtasunak zituzten jakiteko eurak ote ziren jainkoa gizaki bihurtuta, edo gizakia jainko bihurtuta.*

Horiek dira, mende anitz ondoren, Asiatik barreiaturik diren materialak, ustekabeko gertakizun eta zirkunstantzia multzo baten eraginak konbinazio berriak sorrarazi zituenean Eufratesen eta Mediterraneoaren bazterretan.»

### XIII. SAILA

*Kristautasuna, edo eguzkiaren gurmen alegorikoa,  
Kris-en edo Kristo, Yesus edo Jesus izen kabalistikoekin*

«Herri bereiztu bat osatzerakoan, Moises alferrik saiatu zen hura ideia arrotz orotatik defendatzen: jatorri beraren kideasunean oinarrituriko joera ikusezin batek hebrearrak etengabe zeramatzan aldameneko nazioen gurmen beretarantz. Nazio haiekin zeuzkaten derrigorrezko merkataritza zein politika arloko ezinbesteko harremanek egunez egun indartzen zuten joera hura. Erregimen nazionala, gobernuaren eta legeen indar hertsatzailea mantentzen ziren artean, berrikuntzen aurka eginez, aldaketa horien martxa geldotuko zuten; hala ere goreneko lekuak idolo beteta zeuden, eta eguzki jainkoak bere gurdia eta zaldiak zeuzkan margoturik erregeen jauregietan eta Yahuhren tenpluan bertan. Baina Niniveko eta Babiloniako sultanen konkistek disolbatu zutenean botere publikoaren lotura, herriak, bere kabuz eta aske, eta haren konkistatzaileek sustaturik, ez zion gehiago mugarik jarri iritzi profanoetarako zuen joerari, eta publikoki ezarri ziren Judean. Lehenik, kolonia siriarrak, tribuek zuten lekua okupatuta, Samariako erresuma magoen dogmekin bete zuten, eta dogma

horiek laster iritsiko ziren Judeako erresumara. Ondoren, Jerusalem menderatua izan zenean, egiptoarrek, siriarrek, arabiarrek, herrialde ireki horretara sartzen zirelarik, alde guztietarik ekarri zituzten euren dogma propioak, eta Moisesen erlijioa modu bikoitzean eraldatua izan zen. Bestalde, apaizak eta handikiak –Babiloniara garraiatuak eta kaldearren zientzietan jantziak– berrogeita hamar urteko egonaldian herri haien teologiaz baliatu ziren; une horretatik aurrera juduen artean naturaldu egin ziren honako dogmak: *jeinu arerioarena* (Satan), *Mikel arkanjeluaarena*, *egunen agurearena* (Ormuz)<sup>87</sup>, *aingeru erre-boltariena*, *zeruetako borrokarena*, *arima hilezkorrena*, eta *berpiz-kundearena*; guztiak ere, *Moisesentzat ezezagunak zirenak*, ala *konde-natuak* hark mantenduriko isiltasunera.

Aberrira bueltan, emigratuek ideia horiek zabaldu zituzten. Hasieran berrikuntzak eztabaidak sortu zituen, batetik, berrikuntza horien zale ziren farisearren eta, bestetik, antzinako gurmenez nazionalaren ordezkari ziren aurkari saduzearren artean. Baina lehenak –lagunduta herriak eta baita haien askatzaile eta maisu ziren persiarrek ere jada hartua zuen joera batez– azkenik bigarrenari gailendu zitzaizkien, eta Moisesen haurrek Zoroastroren teologia kontsokratu zuten<sup>88</sup>.

Bi ideia nagusiren ezusteko analogiak lagundu zion batez ere elkarketa horri, eta azken sistema baten oinarri bilakatu zen, ez liluragarriagoa izan zuen arrakastagatik, bere sorkuntzarako arrazoiengatik baino.

Asiriarrek Samariako erresuma suntsitu ondoren, espiritu burutsu batzuek Jerusalementzat etorkizun bera aurreikusi zuten, eta etengabe *iragarri* eta *aurrean* zuten. Euren *iragarpenak* bazuten ezaugarri berezi bat, *berrezarpen* eta *birsorkuntza gogoekin* amaitzen eta *profezia* moduan adierazten zena. Hierofanteek, euren berotasunean, deskribatu zuten *errege liberatzaile bat*, *nazioa bere antzinako loriara itzuli behar zuena*; *herri hebrearra herri boteretsua, konkista-tzailea bihurtu behar zen*, eta Jerusalem *unibertso osoan zabalduko zen inperioaren hiriburua*.

Gertakizunek iragarpenen lehen zatia konfirmatu zutelarik –hau da, Jerusalemen suntsipena–, herria, zoritxarrean erortzen zen heinean, bigarrenarekin sinetsiagoa zen. Judu saminduek itxaron zuten, desiraren eta beharraren ezinegonarekin, Moisesen nazioa sal-

batu eta Daviden inperioa berrezartzera etorri behar zuen *errege garaile eta askatzailearen etorrera*.

Bestalde, aurreko garaietako tradizio sakratu eta mitologikoez Asia osotik dogma perfektuki analogoa zabaldu zuten. Ez zen mintzatzaren ez bada *artekari handi batez, azken juje batez, etorkizuneko salbatzaile batez*. *Errege, jainko konkistatzaile eta legegile*, Lurrean *urrezko aroa* berriz ere berrezarri behar zuen<sup>89</sup>, *gaizkiaren* inperiotik askatu, eta gizakiei *ontasunaren, bakearen eta zorionaren erresuma* ekarriko zien. Ideia horiei are eta gehiago heltzen zieten, zenbat eta haietan kontsolazio handiagoa topatu zeukaten egoera tamalgarrirako eta konkistek zein konkistatzaileek ekarritako suntsipen etengabeak eta euren gobernatzaileen despotismo basatiak sorturiko benetako gaitzetarako. *Nazioen eta profeten orakuluen* arteko bat-egite horrek juduen arreta bereganatu zuen, eta, zalantzarik gabe, profetek eduki zuten trebetasuna euren deskribapenetan *misterio paganoetako* liburu sakratuen estilo eta jeinua kalkatzeko. Hortaz, Judean bazen igurikimen orokor bat *mandatari* handia, azken *salbatzailea* etortzeko, etorrera garaia zirkunstantzia bereziren batek determinatuko zuelarik.

Persiarren eta kaldearren liburu sakratuetan idatzia zen, *mun-  
dua, hamabi milako iraultzaz* osatua, bi iraultza partzialetan banatzen zela: bata, *ongiaren aroa eta erresuma, sei mila* ondoren bukatzen zela, eta, bestea, *gaizkiaren aroa eta erresuma, beste sei mila* ondoren amaitzen zela.

Esaldi horiekin, lehen autoreek ulertu zuten *lurbira zerutar handiaren* urteroko *iraultza* edo *translazioa, mundu zeritzana* (*hamabi hilabete edo zeinuk* osaturiko *biraketa*, bakoitza *mila zatitan* banatzen dena); eta *neguaren eta udaren* periodo sistematikoak, bakoitza berdin *sei milak* osatua. Adierazpen horiek, guztiak ere ekibokoak, eta gaizki azalduak, zentzu *absolutu* eta *morala* hartu zuten, zentzu *fisiko* eta *astrologikoa* hartu behar zuten lekuan. Horrela *urtaroko mundua mendeetako mundutzat* hartu zuten, eta *mila urte* bezala hartu zuten *zeinu edo garaiko milakoa*, eta suposatuz, gauzen egoeragatik, *gaizkiaren garaian* bizi zirela, inferitu zuten *sei mila urte* horien buruan amaitu beharko zela<sup>90</sup>.

Alabaina, juduek onarturiko kalkuluetan, hasi ziren kontatzen sei mila urte *munduaren* (ustezko) sorkuntzatik aurrera. Kointzidentzia horrek espirituen asaldatzea ekarri zuen. Jada ez ziren arduratu

*aurki* zetorren bukaeraz baino. *Hierofanteei* eta euren liburu *mistiko* -*ei* itauntzen zieten, eta horiek bukaera ezberdinak proposatzen zituzten. *Erreparatzailea* itxaroten zuten; mintzatzearen mintzatzeaz, baten batek esan zuen ikusia zuela, edo, berotuta, beste norbaitek pentsatzen zuen norbera zela, eta jarraitzaileak egiten zituen. Horiek, buruzagiaz gabetuak zirelarik zalantzarik gabe egiazkoa –dena den modu ilunean gertatutakoa– zitekeen jazoera baten bategatik, euren kontaketeekin bide eman zieten zurrumurru bati, modu mailakatuan historia bilakatu zenari: lehen zirriborro baten gainean *zirkunstantzia* eta *tradizio mitologiko* guztiak ezarri ziren laster, eta *sistema autentiko* eta *osoa* bihurtu zen, hartaz zalantzarik edukitzeko baimenik ez zegoelarik.

Tradizio mitologiko horiek ondokoa zioten: ‘*Hasieran, emaku -me* batek eta *gizon* batek, euren *erortzearekin, munduan gaizkia* eta *bekatua* sartu zituzten’ (*ikus bedi II. irudia*).

Horrekin adierazten zen gertakizun *astronomikoa* zen *birjina zerutarrarena* eta *gizon unaiarena* (Bootes). Horiek udazkeneko *eki -nozioan* eguzkiarekin batera *ezkutatzen* direnean, *neguko* konstelazioak ezartzen dituzte *zeruan*. Horizontean *etzaten* direnean, aldiz, badi-rudi *munduan sartzen* dutela *gaizkiaren* jeinua, *Ahrimanek, sugearen* konstelazioak, irudikatzen duen hori<sup>91</sup>.

Tradizioek honakoa zioten: ‘*Emakumeak gizona liluratuta atzetik eraman edo seduzitu* zuen’.

Eta, izan ere, *Birjina lehenengoa* *ezkutatzen delarik*, badi-rudi *Unaia* erakartzen duela.

‘*Emakumeak tentatu* zuen *hari ikusgarriak* eta *jateko gozoak* *zitzaizkion fruituekin, onaren* eta *gaizkiaren zientzia* ematen zutenekin.’

Izan ere, *Birjinak* badu eskuetan *fruituen adar* bat, eta badi-rudi *Unaiari* eskaintzen diola, eta adarrak, udazkenaren ikur, *Mitraren irudian* ezarria, *neguaren* eta *udaren* muga, badi-rudi atea irekitzen duela eta *zientzia* eskaintzen duela: *onaren* eta *gaizkiaren giltza*.

Honakoa zioten: ‘*Bikote hori lorategi zerutarretik egotzia* izan zen, eta *suzko ezpatadun kerubin bat* ezarria izan zen atea zaintzen.’

Eta, izan ere, *Birjina* eta *Unaia* horizontean ezkutatzerakoan, *Pertseo* beste aldean altxatzen da<sup>92</sup>, eta ezpata eskutan, badi-rudi *jeinu* horrek *udako zerutik, fruituen* eta *loreen lore-baratze* eta *erresumatik*, jaurtitzen dituela.

Honakoa zioten: ‘*Birjina harengandik jaio edo irten behar zen haur bat, sugearen burua ebakiko zuena, eta mundua bekatuaz libra - tuko zuena*’.

Horrekin tradizioek eguzkia esan nahi zuten, *neguko solstizio - aren garaian, persiarren magoek urte berriko horoskopoa ateratzen zuten une berberean, Birjinaren magalean kokatzen baitzen, mende - baldeko horizontean altxatzen zelarik heliakoki, eta, horregatik, koa - dro astrologikoetan birjina kastu batek bularra ematen zion*<sup>93</sup> *haurra - ren* formarekin azaltzen zen. Ondoren, udaberriko ekinozioan, *Aharia* edo *bildotsa* bihurtzen zen, *Sugearen* konstelazioaren garaile, azken hau zerutik desagertzen zelarik.

Honakoa zioten: ‘*Hautzaroan, erreparatzaile hori, natura dibino edo zerutarrekoa, abaildua, umil, ilun, txiro biziko zen*<sup>94</sup>’.

Eta hori, *neguko eguzkia* horizontean baxu *abaildua* dagoela - ko, eta *urtaroetako* lehen periodo edo garai hori, *iluntasun, urritasun, barau* eta *gabezia* garaia delako.

Ondokoa zioten: ‘*Gaizkileek hila, loriatsuki berpiztu zen; infernutik zerura igo zen, eta bertan eternalki agindu zuen*’.

Horrekin *eguzkiaren ibilbidea jarraitzen* dute, bere *karrera neguko solstizioan* amaituta, orduan *Typhonek* eta *aingeru matxinatuek* agintzen dutelarik, badirudi haiek *hil* dutela; baina, segituan *berpizten* da, zeruaren bobedan *berragertzen* da<sup>95</sup>, oraindik ere bertan delarik.

Azkenik, tradizio horiek haren izen *astrologiko* eta *misterioz - koak* aipatuz, honakoa zioten: *Kris* deitzen zela, hau da *kontserbatzai - lea*<sup>96</sup>; eta begira, hara, zuen indiarren artean, zuen jainko egin duzuen *Kris-en* edo *Kris-na*; eta zuek, kristauok, greziar eta mendealdeta - rrok, zuen *Kris-tos, Mariaren* semea. Beste batzuetan, *Yes* deritza, hiru letraren elkarketatik, horien zenbakizko balioa 608 da, *eguzkia - ren periodoetako* bat<sup>97</sup>; eta hara, o europarrok! Latindar bukaerarekin zuen *Ie-sus* edo *Jesus* horren izena bilakatu dena, antzinako izen kaba - listikoa, *Bakori* omen dagokiona, *Minerva birjinaren seme klandesti - noa* (gauetzkoa). Hark, bere bizitzaren eta heriotzaren historia osoan, *kristauen jainkoaren* antza handia du, hau da, biek ere *egunaren astro - arena* dute, biak ere haren ikur baitira.»

Hitz horiekin, marmar handia altxatzen da *talde kristauen* arte - an, baina musulmanek, lamek eta indiarrek zintzo jokatzeko eskatu zieten; eta hizlariak aurrera jarraitu zuen hitzaldiarekin:



«Orain badakizue», esan zuen, «nola sistema horren gainontzekoa lehen hiru mendeetako kaosean eta anarkian osatzen den; nola iritzi bitxi saldo batek espirituak banandu zituen, eta elkarrenganako egoskortasunez eta berotasunez bete zituen, ezen, denak ere berdin oinarritzen zirenez antzinako tradizioetan, denak ziren berdin sakratuak. Badakizue nola hirurehun urte ondoren *gobernuak*, haietako sekta batekin kidezu zelarik, eta *erlijioa ortodoxo* eginez, hau da, nola egin zituen *gainartzaile* gainontzekoak baztertuz, eta horiek euren gutxiagotasunean, *heretiko* bilakatu ziren; nola eta zer-nolako biolentzia eta limurtze bidez erlijio hori hedatu, zabaldu, eta ondoren banandu eta ahuldu zen; nola *kristautasunaren* berrikuntzatik seihun urtera, haren materialetatik eta juduenetik beste sistema bat osatzen den, eta Mahomak nola jakin zuen inperio *politiko* eta *teologiko* bat eratzen *Moisesenaz* eta *Jesusen bikarioenaz* baliatuz...

Orain, erlijio espirituaren historia osoa laburbiltzen baduzue, ikusiko duzue haren jatorrian ez duela *autorerik* ez bada gizakiaren *sentsazioak* eta *beharrak* baizik; *jainkoaren ideiak* tipo eta eredu bakar dituela *botere fisikoak*, *izaki materialak*, *onura* edo *gaizkia* sortzen dutenak, hau da, *sentitzen duen izakiarengan plazer* edo *min* inpresioak; sistema horien guztien formazioan, erlijio espiritu horrek beti ibilbide bera, prozedura berak jarraitu dituela; guztietan ere, dogmak ez diola utzi, jainkoen izenean, naturako jarduerak, gizakien pasioak eta aurreiritziak irudikatzeari utzi; guztietan ere moralak helburu duela *ongi izateko desira* eta *minarekiko ezin jasn*a; baina herriek eta legegileen gehiengoak –gidatu izan dituen ibilbideak ezagutu gabe– ideia faltsuak egin zituzten, eta hortaz aurka-koak, *bizioari* eta *bertuteari* buruz, *onari* edo *gaitzari* buruz, hau da, gizakia *zoriontsu* ala *zoritxarreko* egiten duenari buruz. Guztiek ere, hedapenerako eta finkapenerako baliabideak eta kausak, pasio eta gertakizun eszena berak eskaini dituztela: izenen inguruan eztabaidak, zelorako aitzakiak, buruzagien askonahiak, promulgatzaileen azpijokoek, proselitoen sineskortasunak, jende arruntaren ezjakintasunak, guztien kodiziaz eta urguilu intoleranteak piztutako iraultza eta gudak beti. Azkenik, ikusiko duzue erlijio espirituaren historia osoa ez dela ez bada giza espirituaren zalantzena baino. Giza espirituak, ulertzen ez duen mundu batean ezarria delarik, dena den enigma askatu nahi du; eta mirakulu misteriotsu eta ikusgai horren ikus-

le beti harritua delarik, *kausak* imajinatzen ditu, helburuak suposatzen ditu, sistemak eraikitzen; ondoren, bat akastun sumatzen duelarik, deuseztatu egiten du akasgabeagoa ez den beste batekin ordezkatzuz; kentzen duen akatsa gorrotatzen du, hartzen duena ez du eza gutzen, bilatzen ari den egia baztertzen du, izaki zentzugabeetatik kimerak osatzen ditu, eta, etengabe amesten duelarik *zuhurtasuna eta zoriona* edukitzearekin, min eta eromen labirinto batean murgiltzen da.»

### XIII. KAPITULUA

#### ERLIJIOEN HELBURUAREN IDENTIKOTASUNA

Hala mintzatu zen hizlaria erlijio ideien jatorria eta kidetasuna ikertu zuten pertsonen izenean.

Sistema anitzetako teologoen diskurtso honen gainean arrazoi-tu zuten: «Azalpen fedegabea da», esan zuten batzuek, «xede duena sinesmen oro suntsitzea, espirituetan obedientzia eza eragitea, gure zerbitzua eta boterea deuseztatzea». «Ipuina da», zioten besteek, «trebetasunez –baina fundamentu gabe– ehoriko uste eta susmo ehuna». Pertsona moderatu eta zuhurrek honakoa gaineratu zuten: «*Demagun hori guztia egia dela, zergatik misterio horiek errebelatu? Zalantzarik gabe gure iritziak errorez beteak dira; baina errore horiek jendetzak beharrezko duen galga dira. Mundua hala doa bi mila urte ondoren, zergatik aldatu egun?*».

Jada gaitzespen zurrumurru bat, berrikuntza ororen aurka altxatzen dena beti, hasi zen hedatzen, harik eta herrialde eta nazio orotako pertsona arrunt eta hezkuntzarik gabeko jende talde ugari bat, profetarik gabea, doktorerik gabea, erlijio koderik gabea, biltzar osoaren arreta eurenganatuz, jendaurrean azaldu zen arte. Haietako batek, hitza hartuz, ondokoa esan zion legegileari:

«Herrien arbitro eta artekari! Debate honen hasieratik eztabai-datzen ari gara guretzat arrotzak diren kontuak, gaurdaino ezezagunak zitzaizkigunak; horrenbeste gauzarekin –batzuk zuhurrak, besteak absurduak, ulertezinak denak– gure espiritua harritua, nahastuta geratu da, ezbaian eta zalantza beteta. Erreflexio bakarrak txunditu gaitu. Horrenbeste gauza liluragarri laburbiltzerakoan, horrenbeste adierazpen oposaturekin, gure buruari galdetzen diogu: zer ardura zaizkigu eztabaida horiek guztiak? Zertarako jakin nahi dugu duela bospasei

mila urte, ezagutzen ez ditugun herrialdeetan, ezagutzen ez ditugun pertsonen artean gertatu zenaz? Egia ala gezurra, zertarako balio digu jakiteak mundua duela sei edo hoge mila urte existitzen den, ezertxo ere ezertaz ere egina den ala zerbaitetaz egina den, norbaitek egina den ala, hark ere era berean egile bat eskatzen duen egileren batek egina den? Zer! Ez gaude ziur gugandik gertu gertatzen denaz, eta erantzun beharko dugu eguzkian, ilargian edo imaginaziozko espazioetan gertatutakoaz? Gure haurtzaroa ahantzi dugu, eta lurrarena ezagutuko al dugu? Nork ziurtatuko du inork ikusi ez duena? Nork ziurtatuko du inork ere ezagutzen ez duena?

Zertan emango edo kenduko dio gure existentziari kimera horiei guztiei *bai* ala *ez* esateak? Orain arte, ez gure gurasoek, ezta guk ere, ez dugu izan ideiarik ere haietaz, eta horregatik ez dugu izan *eguzki* gehiago edo gutxiagorik, *elikagai* gutxiago edo gehiago, *onura* ala *gaitz* gehiago edo gutxiago.

Horien ezagutza beharrezkoa baldin bada, zergatik bizi izan gara gu horrenbeste arduratu izan diren horiek bezain ondo? Ez baldin bada funtsezkoa, zergatik hartu beharko dugu orain zama hori?»

Eta doktore eta teologoei zuzenduz:

«Zer! Beharrezkoa al da gu, pertsona ezjakinak eta txiroak, ez daukagunak apenas gure iraupenerako denborarik, ezta zuek horrenbeste profitatzen zaituzten lanetarako ere, beharrezkoa al da kontatzen dituzuen istorio horiek guztiak ulertzea, aipatzen dituzuen liburu horiek guztiak irakurtzea, liburuok idatziak diren hizkuntza anitz horiek guztiak ikastea? Mila urteko bizitza ez litzateke nahikoa...»

«Ez da beharrezkoa», erantzun zuten doktoreek, «zuek horrenbesteko zientzia jasotzea: guk daukagu zuentzako...»

«Baina zuek ere», ihardetsi zuten pertsona singleek, «zeuen zientzia horrekin guztiarekin, ez zarete ados eta! Zertarako balio ote du hura edukitzea?

Bestalde, nola erantzun dezakezue gure orde? Pertsona baten fedea ezin bazaio zenbaiti aplikatu, zer behar daukazue zuek ere sines-teko? Zuen gurasoek zuen orde? *sinetsi* zuten, eta hori arrazoizkoa izan daiteke, zuen orde? ikusi baitzuten.

Areago, zer da *sinestea*, sinesteak ez baldin badu eraginik ezein ekintzatan? Eta zein ekintzatan eragiten du, esaterako, mundu *eterna-lean* sinesteak ala ez sinesteak?»

«Horrek Jainkoa laidoztatzen du», esan zuten doktoreek.

«Non dago froga?», galdetu zuten pertsona sinpleek.

«*Gure liburuetan*», ihardetsi zuten doktoreek.

«Ez ditugu ulertzen», erantzun zuten pertsona sinpleek.

«Guk ulertzen ditugu zuentzat», esan zuten doktoreek.

«Hara arazoa», erantzun zuten pertsona sinpleek. «Zer eskubiderekin zarete zuen Jainkoaren eta gure artean *mediatzaile*?»

«Haren manuengatik», esan zuten doktoreek.

«Non da bere manuen frogak?», itaundu zuten pertsona sinpleek.

«*Gure liburuetan*», erantzun zuten doktoreek.

«*Ez ditugu ulertzen*», esan zuten pertsona sinpleek, «eta nolatan Jainko justu horrek ematen dizue gure gaineko pribilegio hori? Nolatan aita amankomun horrek sinestarazten digu zuena baino ebidentzia maila txikiagoarekin? Mintzatu zaizue, hala bedi; hutsezina da, eta ez zaituzte tronpatuko: zuek mintzatzen zatzaizkigute, zuek! Nork ziurtatu behar digu zuek ez zaretela errorean, edo gu ez gaituzuela errorera eroango? Eta gu tronpatuta baldin bagara, Jainko justu horrek nola ezarriko gaitu legearen aurka, edo nola kondenatuko gaitu ezagutzen ez dugunagatik?»

«Lege naturala eman digu», esan zuten doktoreek.

«Zer da lege naturala?», erantzun zuten pertsona sinpleek. «Lege hori nahiko bada, zergatik eman du besterik? Ez baldin bada nahiko, zergatik eman du inperfektu?»

«Bere juzguak misterioak dira», erantzun zuten doktoreek, «eta bere justizia ez da gizakiena bezalakoa.»

«Bere justizia ez baldin bada gurea bezalakoa», ihardetsi zuten pertsona sinpleek, «zer baliabide dugu guk hura juzgatzeko, eta, gainera, zergatik lege horiek guztiak, eta zein da horien helburua?»

«Zuek zoriotsuago egitea», erantzun zuen doktore batek, «hobeagoak eta bertutetsuagoak eginez: gizakiari bere ongintzak

gozatzen, elkarri minik ez egiten irakastea, horretarako adierazi da Jainkoa horrenbeste orakulu eta mirakuluz.»

«Orduan», esan zuten pertsona sinpleek, «ez da behar hainbat ikasketa eta arrazoiketa: erakutsi iezaguzue zein den guztiek ere proposatzen duten helburuari hobe erantzuten diona.»

Segituan, talde bakoitzak norbere moralara goraipatuz, eta norberea gainontzekoak baino nahiago zuelarik, gurmenen artean eztabaida bortitzagoa pizten da. «Geu gara», esan zuten musulmanek, «moralik bikainena duguna, geuk irakasten ditugu gizakiari erabilgarri eta Jainkoari atsegin zaizkion bertute guztiak. Guk profesatzen ditugu *justizia, eskuzabaltasuna, probidentziari men egitea, anai-arrebenganako karitatea, limosna, etsipena*. Guk ez ditugu arimak tormentatzen *superstiziozko beldurrekin. Larritasunik gabe bizi gara eta kontzientziaren ausirik gabe hiltzen gara.*»

«Nola ausartzen zarete», erantzun zuten apaiz kristauak, «moralaz mintzatzeraz, zuen buruzagia lizunkoia izanik eta purutasun eza predikatu duelarik? Zuek, zuen lehen araua erailketa eta guda delarik? Esperientzia dugu lekuko: mila eta berrehun urte ondoren zuen erlijio grina fanatikoak nahasmendua eta triskantza baizik ez die ekarri nazioei. Asia, lehenago loratzen ari zena, egun basakeriarekin eta suntsipenarekin makaltzen ari bada, zeuen doktrinari egotzi behar zaio horren kausa: Heziketa ororen arerio da doktrina hori, alde bate-tik, ezjakintasuna santifikatu eta gobernarien artean despotismorik absolutuena kontsokratzen ditu, eta, bestetik, gobernatuei obedi-entziarik itsuena eta pasiboena inposatu, gizakiaren ahalmen guztiak moteldu, industria oro ito, eta nazioak basakerian murgildu ditu.

Geure moral sublime eta zerutarra ez da halakoa: Hark ezabatu du munduan beronen antzinatiko basakeria, idolatriaren superstizio zentzugabe edo krudelak, giza sakrifizioak<sup>98</sup>, misterio paganoetako orgia lotsagabeak. Hark egin ditu azturak, debekatu ditu intzestua eta adulterioak, hezi ditu nazio basatiak, esklabotasuna desagerrarazi du, ekarri ditu bertute berri eta ezezagunak, gizakienganako *karitatea*, Jainkoaren aurrean *berdintasuna*, hobenen ahanzte eta barkamena, pasio guztiak mende hartzea, handitasun mundutarren mespretxua; hitz batean, bizitza zeharo sinple eta espirituala.»

«Miresten dugu», erantzun zuten musulmanek, «nola elkartzen duzuen karitate hori, hain nabarmenki erakusten duzuen goxotasun

ebanjeliko hori, zeuen *hurkoari* etengabe eragiten dizkiozuen hoben eta laido horiekin. Guk gurtzen dugun izaki handiaren ohiturak hain grabeki erruztatzen dituzuenean, geuk ere mendeku har genezakeen zuek gurtzen duzuen horren jarrera gaitzetsiz. Baina halako bidea erdeinatzen dugu, eta lerratuko gara arazoaren benetako objektura, iruditzen zaigu zeuen moral ebanjelikoak ez daukala zuek ematen diozuen perfekzioa; ez dela egia munduan sartu dituenik bertute ezezagun eta berriak, eta, esaterako, aipatzen duzuen *Jainkoaren aurreko berdintasun* hori, hortik datozen *senidetasun* eta *ongura* horiek, zuen jatorrian diren *hermetikoen* eta *samanearen* sekten dogma formaletan direla. Eta hobenen barkamenari dagokionez, paganoek berek zuten entseina; alabaina, zuek ematen diozuen zabalerarekin, bertute izatetik urruti, ezmoraltasun, bizio bilakatu da. Zeuen arau hori, *masail bat ipini eta ondoren bestea* jartzearena, ez da soilik giza sentimendu ororen aurkakoa, justiziaren ideia ororen aurkakoa ere bada; gaizkilea harrotzen du zigorgabetasuna dela eta; onak morrontzarekin gaiztotzen ditu; munduan desordena eta tirania ezartzen ditu; gizartea birrintzen du. Hori da zuen doktrinaren benetako espiritua: zuen ebanjelioek euren arau eta parablekin, Jainkoa beti agertzen dute ekitate neurririk gabeko *despota* moduan; *haur bihurri eta etxekaltea* gainontzeko haur adeitsu eta ohitura onekoak baino hobeto hartzen du; maisu apetatsua da, *soldata* bera ematen diena ordubete lan egin duten beharginei eta egun osoan neketsuki dihardutenei; eta *azken iritsiak nahiago dituen lehenean kaltetan*. Moral *misanthropo*a, *antisoziala* da, gizakiak bizitzaz eta gizarteaz nazkatzen ditu, eta eremutarrak eta ezkongabeak sortzeko joera du soilik.

Praktikatzeko daukazuen moduari dagokionez, guk ere badaukagu datuen lekukotasuna: galdetu behar dizuegu ea *goxotasun ebanjelikoa* den zuen sekten arteko guda amaigabeak eragiten dituen, antza *heretiko* direnei egiten dizkiezuen jazarpen ankerrak, zuen gurutzeak *arianismoaren*, *manikeismoaren*, *protestantismoaren* aurka –alde batera utzita gure aurka eginikoak–, eta zuen kideza sakrilegoak, oraindik hor dirautenak<sup>99</sup>, haiek jarraitzeko zin egin duten pertsonenak. Galdetzen dizuegu ea *karitate ebanjelikoa* den Amerikako herri osoak sarraskitzea eragin dizuen, Mexiko eta Peruko inperioak deuseztatzea; ea hark eragin dizuen Afrikarekin berdin egiten jarraitzea, bertako biztanleak abereak bailiran saltzen baitituzue, *esklabotza*

bertan behera utzi duzuen arren; India erraustea, bertako eremuak usurpatzea, eragin dizuena; azkenik, hura al da, hiru mende ostean, hiru kontinentetako herriak euren etxeetan asaldatzea eragin duena, horietako zuhurrenak –hala nola, txinatar eta japoniarrak– behartuak izan direlarik zuek haien lurraldeetatik kanpo botatzera, zuen kateak saihesteko eta barne bakea berreskuratzeko.»

Segituan brahmanek, errabinoek, bontzoek, xamanek, Moluka uharteetako zein Gineako itsas bazterreko apaizek doktore kristauak kexaz lepo laga zituzten: «Bai», egin zieten oihu, «pertsona hauek bilauak, hipokritak dira, *apaltasuna* predikatzen dutenak *konfiantza* eurengeanatzeko; *umiltasuna*, errazago *morrontzeko*; *txirotasuna*, *aberastasun* guztiak jabetzeko. *Beste mundu* bat agintzen dute, hobeto *usurpatzeko honako hau*; eta, *tolerantziaz* eta *karitateaz* mintzatzen zaizkizun bitartean, *Jainkoaren* izenean eurek bezala gurtzen ez dutenak erretzen dituzte.»

«Apaiz gezurtiak», ihardetsi zuten misiolariak, «zeuek zarete nazio ezjakinen sineskortasunaz abusu egiten duzenak, haiek menperatzearren; zeuek zarete, zuen apaizgoa, iruzurraren eta amarruaren arte egiten duzuenak; zeuek bihurtu duzue erlijioa askonahiaren eta kodiziaren negozio. Zeuek egiten dituzue plantak espirituekin komunikatzen zaretelakoan, eta eurek soilik zeuen borondatea igortzen dute orakulu; zeuek itxura egiten duzue astroetan irakurtzen duzuela, eta zoriak ez du agintzen zeuen desira baino; zeuen idoloak mintzarazten dituzue, eta jainkoak ez dira zuen pasioen instrumentu baizik; sakrifizioak eta libazioak asmatu dituzue zuentzat hartzeko abere taldeen esnea, biktimen gantza eta haragia, eta bihozberatasunaren itxurarekin, jainkoen ofrendak irensten dituzue –*ez baitute batere jaten*–, *baita lan egiten duten* herrien substantzia ere.»

«Eta zuek», ihardetsi zuten brahmanek, bontzoek, xamanek, «zuek bizirik diren pertsona sineskorrei hildakoen arimengatik otoitz alferrikakoak saltzen dizkiezue; zuen *induljentzia* eta *absoluzioekin*, zuentzat hartu duzue jainkoari berari dagokion boterea; eta bere grazia eta barkamena trafikorekin zerua enkantean jarri duzue, zuen bekamen sistemarekin krimenentzat tarifa ezarri duzue<sup>100</sup>, kontzientzia guztiak usteldu dituelarik.»

«Gaineratu iezazue horri», esan zuten imanek, «pertsona horiek gaiztakeriarik maltzurrena asmatu dutela: ekintza, pentsamen-

du eta *guraririk* barne-barnekoenak eta sekretuenak haiei kontatzeko betebeharrak absurdu eta fedegabea (aitorpena); horrela euren jakin-nahi ozarrak euren inkisizioa ezkontza-oheko santutegi sakratuenera<sup>101</sup> eta bihotzeko babesleku bortxaezinera eroan du.»

Gaitzespenetik gaitzespenera, gurmen ezberdinetakoko doktoreek euren apaizgoko delitu guztiak azaleratu zituzten, euren izaerak estalitako bizio ezkutu guztiak; eta honakoa antzeman zen:

Herri guztietan *apaizen espiritua*, euren *jarrera sistema*, euren *ekintzak*, euren *ohiturak*, erabat berdinak zirela.

Leku guztietan *asoziazio eta korporazio sekretuak* sortu zituztela gizarteko gainontzeko kideen aurkakoak zirenak<sup>102</sup>.

Leku guztietan *eurentzat* hartu zituztela *prerrogatibak*, *immunitateak*, horien bitartez beste klaseen zametatik libre bizi zirelarik.

Leku guztietan eurek ez zituzten hartzen ez laborariaren nekeak, ez militarren arriskuak, ez merkatariaien ezbeharrak.

Leku guztietan zelibatoa hartzen zutela, senitarte batek eskatzen dituen betebeharrak ihesi.

Leku guztietan, *txirotasunaren* estalkiarekin, aberats izateko eta gozamen guztiak lortzeko sekretua topatzen zutela.

*Eskeko* zirelarik, printzeek baino *zerga* handiagoak jasotzen zituztela.

Dohain eta ofrendekin, errenta ziurrak eta kargarik gabeak lortzen zituztela.

Erretiroaren eta debozioaren izenean, aisian eta lasaikerian bizi zirela.

*Limosna* bertute bihurtu zutela, hurkoaren lanarekin lasai bizitzeko.

Gurmen zeremoniak asmatu zituztela, herriaren miresmena eurenganatzeko, jainkoen papera antzetzuz, haien *interprete* eta *arte-kari* bailiran, horrela botere guztia eurentzat hartzeko. Plan horrekin, herrien ezjakintasuna zein heinekoa zen arabera, aldian-aldian euren buruak zeuzkaten *astrologo*, *horoskopo-egile*, *igarle*, *mago*<sup>103</sup>, *nekromante*, *petrikilo*, *mediku*, *gortesau*, *printzeen konfesore*; betiere euren onerako gobernatzeko helburuarekin.



Batzuetan erregeen boterea goraipatu eta pertsonak kontsakratu zituztela haien faboreak lortzeko eta haien boterean parte hartzeko.

Batzuetan *tiranoen heriotza* predikatzen zutela (tirania definitzea eurentzat gordetzen zuten), haien mespretxuaz edo obedientzia-rik ezaz mendeku hartzeko.

Beti zeritzatela *fedegabekeria* euren interesak oztopatzen zituenari; hezkuntza publiko orori aurka egiten ziotela, zientziaren monopolioa eurentzat izatearren; azkenik, garai orotan, leku guztietan, topatu zutela modua lasai bizitzeko eurek zabaltzen zuten anarkiaren erdian; segurtasunean, eurek faboratzen zuten despotismoaren artean; aisian, predikatzen zuten lan egitearen artean; oparotasunean, urritasunak inguratuak zirenean; eta hori guztia, merkataritza bitxi bat eginenez, jende sineskorriari *hitzak eta keinuak* salduz, ordaintzen baitzituzten prezio goreneko jenero edo salgai bailiran<sup>104</sup>.

Orduan, herriek, zeharo amorratuta, haietaz abusu egin zuten pertsonak txikitu nahi izan zituzten; baina legegileak, biolentzia mugimendu hori geldituz, eta buruzagiengana eta doktoreengana zuzenduz, honakoa esan zien: «Zer? Herrien hezitzaile, horrela tronpatu al dituzue?».

Apaizek durduzatuta honela erantzun zuten: «O legegile! Giza-kiak gara; eta *herriak hain dira superstiziosoak!* Haiek beraiek probokatzen dituzte gure erroreak».

Erregeek esan zuten: «O legegile! Herriak hain dira *morroi* eta *ezjakin!* Eurek ezartzen dituzte euren buruak uztarpean, gu ez ginen uztarría erakusten ausartzen ia».

Orduan, legegilea herriei zuzendu eta honakoa esan zien: «Herriok! Gogora ezazue entzun berri duzuen: *biak egia dira zinez.* Bai, zeuek sortzen dituzue gero negarra eragiten dizueten gaitzak, zeuek zarete tiranoei adore ematen diezuenak euren boterearen lausengatze koldarrarekin, euren ontasun faltsuaren miresmen zuhurtasunik gabekoarekin, obedientzian agertzen duzuen morrontzarekin, askatasunean darabilzuen lasaikeriarekin, iruzur guztietan onarpen sineskorrekin: nor zigortuko duzue zuen ezjakintasunak eta kodi-ziak eragindako hutsengatik?»

Eta herriek, harrituta, isiltasun hits batean amaitu zuten.

## XVI. KAPITULUA

### KONTRAESANEN ARAZOARI KONPONBIDEA

Legegileak, hitza berreskuratuz, honakoa esan zuen: «O nazio-ok! Entzun dugu zuen iritzien eztabaida, bereizten zaituzten desakordioek zer pentsa eman digute, eta eskaintzen dizkigute, halaber, hainbat kuestio argituak izan behar direnak eta proposatuko dizkizuegunak.

Lehenik, zuen gurmenen aniztasuna eta aurkaritza ikusita, galdetzen dugu ea zein arrazoitan oinarritzen duzuen zuen konbentzimendua: Aukera gogoetatsu baten ondoren jarraitzen duzue profeta baten estandartea bestearena baino lehen? Doktrina bat ala bestea hartu baino lehen, erkatu al dituzue lehenik? Arretaz aztertu al zenituzten? Edo, aldiz, ez ote dituzue ausaz jaiotzetik jaso, ohituraren eta heziketaren poderioz? Ez al zarete jaiotzen kristau Tiberren bazterretan, musulmanak Eufratesenean, idolatrak Indorenean, lurralde hotzetan horail ala afrikar eguzkipean beltzaranduta jaiotzen zareten moduan? Eta zuen iritzia zoriaren arabera Lurrean daukazuen positioetik sortzen badira, ahaidetasunetik, imitazioetik, nolatan bilakatzen da zoria seguru egoteko zio, egiarako argumentu?

Bigarrenik, hausnarketa egiten dugunean zuen aldarrikapenetan agertzen den elkarren arteko baztertzeaz eta intolerantzia arbitrarioaz, beldurtzen gara zuen printzipioetatik sortzen diren ondorioekin. Herriok! Denok ere zerutar haserrea pizteko arriskuan zaretenok, suposa ezazue une honetan bertan zuek gurtzen duzuen *Izaki unibertuala* zerutik jaisten dela jendetza honen aurrera, eta daukan botere osoarekin tronu honetan esertzen dela denak epaitzeko; demagun honakoa esaten dizuela: 'Hilkorrok! Zuen justizia propioa ezarriko dut zuengan. Bai, bereizten zaituzteten gurmen guztietarik, bakarra nahiago izanen da gaur bertan. Gainontzeko guztiak, estandarte horiek guztiak, herri eta profetak kondenatuak izanen dira hondamen eternalera; eta ez da hau nahikoa... *aukeratzen den* gurmenaren sekten artean bakarra izanen dut laket, eta gainontzeko guztiak kondenatuak izanen dira. Oraindik ere ez da nahikoa baina: geratzen den talde txiki horretatik bereiztuko ditut euren arauak agindutako baldintzak betetzen ez dituzten horiek. O gizakiok! Zein gizaki *aukeratu* kopuru txikira mugatu duzue zuen arraza! Zein ongintza murriztera erreduzitu duzue nire ontasun neurrigabea! Zein miresle talde txikira kondenatu dituzue ene handitasuna eta loria!'».

Legegileak, altxatuz, ondokoa esan zuen: «Ez du axola; zeuek hala gura izan duzue, herriok! Hara zeuen izenak ezarriak diren hau-tes-kutxa: bakarra aterako da... Ausart zaitezte loteria ikaragarri horretan...» Eta herriek, zeharo beldurtuta, honakoa egin zuten oihu: «Ez, ez; guztiak gara *anai-arrebak*, guztiak *berdinak*; ezin dugu elkar kondenatu».

Orduan legegileak, ostera ere eserita, honakoa esan zuen: «O gizakiok! Horrenbeste gairen inguruan eztabaidatzen duzenok, jar ezazue belarria erne, aurkezten didazuen arazoetako baten gainean esan behar dizuedana entzuteko, zeuek konpon beharko baituzue». Eta herriek arretaz entzuten zutelarik, legegileak besoa zerurantz zuzendu zuen: «Herriok», esan zuen, « argitzen zaituzten eguzki hori hirukia iruditzen al zaizue?» «Ez», ihardetsi zuten aho batez, «biribi-la da.»

Ondoren, aldarean zegoen urrezko balantza hartuz: «Egunero darabilzuen urre puzketa honek pisu gehiago al dauka bolumen bereko kobrezko batek baino?».

«Bai», erantzun zuten aho batez herri guztiek, «urrea kobrea baino astunagoa da.»

Eta legegileak ezpata hartuz: «Burdin hau beruna baino bigunagoa al da?»

«Ez», esan zuten herriek.

«Azukrea gozoa al da, eta behazuna mingots?»

«Bai.»

«Guztiak maitatzen al duzue plazera, eta mina gorrotatzen?»

«Bai.»

«Hortaz, denak zaudete ados objektu horien gainean eta beste hainbati buruz ere.

Orain, esadazue, ba al da leize bat Lurraren zentroan, edo biztanlerik ilargian?»

Galdera horrekin zurrumurru orokor bat hedatu zen; eta, bakoitzak desberdin erantzuten zuelarik, batzuek *bai* esan zuten, besteek *ezetz*; hango batek, galdera *hutsala* zela, *alferrikakoa*; besteak, *ondo legokeela jakitea*: desadostasuna orokorra zen.

Denbora apur baten ostean, isiltasuna berreskuratu zuelarik, legegileak honako esan zuen: «Herriok, azal iezaguzue arazo hau. Zenbait gai proposatu dizkizuet, horien inguruan zuek denok ados zineten, arraza edo sekta bereizketarik gabe: *gizaki zuriok, gizaki beltzok*, Mahomaren ala Moisesen jarraitzaile, Budaren ala Jesusen gurtzaile, denek erantzun bera zenuten. Beste bat proposatu dizuet, eta ez zineten batere ados! *Zergatik bat-egite hori kasu batean, eta desados-tasuna bestean?*»

Eta gizaki sinple eta basatien taldeak, hitza hartuz, honakoa esan zuen: «Arrazoa sinplea da: lehen kasuan, objektuak *ikusten* ditugu, *sentitzen* ditugu; sentsazioen arabera mintzatzen gara. Bigarreanean, gure zentzumenetatik at daude; ustean oinarrituta mintzatzen gara.»

«Asmatu duzue zein den arazoa», esan zuen legegileak, «horrela, zuen baieztapenak lehen egia hau ezarri du:

*Objektuak zuen zentzuen mende egon daitezkeen guztietan, elkarrekin ados zaretela esaten duzuen horretan.*

*Ez zaretela bat etortzen iritzian, sentimenduan, objektuak bertan ez direnean, zuen irismentetik at daudenean.*

Lehen egia horretatik beste bat sortzen da, argia dena berdín eta azpimarratzea merezi duena. Segurtasunez ezagutzen duzuen horretan elkarrekin ados zaudetenez, *desadostasuna dator ongi eza gutzen ez duzuen horretan, segurtasunik ez duzuen horretan*; esan nahi baita, *eztabaidatzen duzue, liskarra eta borroka sortzen da seguru ez den horrekin, zalantzatsua denarekin*. O gizakiok! Hori al da zuhur izatea?

Ez al da frogatu ez duzuela egiairengatik eztabaidatzen? Ez duzuela haren kausa defendatzen, aldiz, zuen afektuena, zuen aurreiritziena baizik? Ea objektua den bezala den ez dela frogatu nahi duzuen, baizik eta zuek ikusten duzuen modukoa dela; hau da, gailentzea nahi duzuela ez gauzaren ebidentzia, baizik eta zuen iritzia, zuen ikusteko eta juzgatzeko modua? Gauzatzea gura duzuen boterea da, ase gura duzuen interesa, zuentzat aldarrikatzen duzuen prerrogatiba; zuen banitatearen borroka da. Alabaina, *zuetako bakoitzak, bestearekin alderatzerakoan, bestea berdina –ala antzekoa– ikusten duenez, eskubide bera izatearen sentimendu bat dela-eta aurre egiten dio.*

Zuen eztabaidak, zuen liskarrak, zuen tolerantzia eza, elkarri ukatzen diozuen eskubide horren ondorio dira, baita ere ondorio horri datxekion berdintasunik ez izatearen kontzientzia.

Orduan, ados izateko modu bakarra naturara jotzea da, eta hark berak ezartzen duen gauzen ordena arbitro eta arautzailea hartzea; eta, berriz ere, zuen adostasunak beste egia hau frogatuko du:

*Benetako izakiek euren baitan existentzia modu berbera, konsistentea eta uniformearekin dutela, eta zuen organoetan antzeko modu bat badela eragin bat jasotzeko orduan.*

*Baina, aldi berean, organo horiek zuen borondatearen arabera mugitzen direnez, inklinazio desberdinak sor ditzakezue, eta objektu berdinekiko zuen burua erlazio diferentean topatu. Modu horretan haiekiko ispilua bat bezalakoak zarete, benetan direna islatu dezakezue, baina haiek desitxuratzen eta eraldatzen ahal dituzue halaber.*

Hortik pentsatu behar da ezen, objektuak diren bezala pertzibitzen dituzuen bakoitzean, zuen artean eta haiekiko ados zaudezela; eta zuen sententziazioaren eta izakiak existitzen diren moduaren artean den antzekotasun hori da zuengan osatzen duena haien egitasuna.

Aldiz, zuen artean iritzi ezberdinekoak zaretenean, zuen desadostasuna frogatu da zuek ez dituzuela objektuak diren moduak iruditzen, aldatu egiten dituzuela.

Eta hortik deduzitzen da, osteratzen ere, zuen arteko desadostasunak kausak ez direla objektuetan bertan existitzen, baizik eta zuen espirituetan, zuek pertzibitzeko edo juzgatzeko duzuen moduan.

*Iritzian guztien adostasuna lortzeko, beharrezkoa da lehenik bai segurtasuna izatea, bai egiaztatzea espiritualak irudikatzen dituen irudiak erabat berdinekin direla haien ereduarekiko; hark objektuak zuzen islatzen dituela, existitzen diren moduan. Alabaina, emaitza hori ezin da lortu ez bada objektuak gure zentzumenen lekukotasunera eta azterketara jartzen ahal direnean. Froga hori gaitzen ahal ez duen guztia arrazoi horregatik berregatik juzgatzeko da; harenkiko ez da existitzen araurik, erakargarako punturik, segurtasunerako biderik.*

Hortaz, pentsatu behar da ezen adiskidetasunean eta bakean bizitzeko beharrezkoa dela objektu horien inguruan iritzirik ez ematea, haiei garrantzirik ez ematea; hitz batean, beharrezkoa da bereizketaren muga bat ezartzea egiaztagarriak diren objektuen eta egiaztatzenak

*direnen artean, eta bereiztea, hesi iragangaitz batekin, izaki fantasti -  
koen mundua eta errealtateen mundua, esan nahi baita, kendu behar  
zaiela efektu zibil oro iritzi teologiko eta erlijiozkoei.*

Hara, o herriok! Bere buruari nazio handi batek, bere kateez eta aurreiritziez libratu denak, proposatu dion helburua; hara, haren begi-  
radapean eta haren manuak jarraituta, guk hasi dugun lana, zuek erre-  
ge eta apaizak lan hori oztopatza etorri zaretelarik... O errege eta  
apaizok! Denbora batez eten ahal izanen duzue oraindik naturaren  
legeen argitaratze solemnea; baina jada ez da zuen ahalmenean lege  
horiek deuseztatzea edo eraldatzea.»

Orduan biltzarreko alderdi guztietarik oihu itzela sortu zen, eta  
herrien orokortasunak, aho bateko mugimenduarekin, legegilearen  
hitzei elkartasuna erakutsi zion: «Berreskuratu ostera ere», esan zio-  
ten, «lan saindu eta sublime hori, eta eraman bere perfekziora! Ikertu  
gu gidatzearren gudan naturak ezarri dituen legeak, eta kode beneta-  
ko eta aldaezin bat eratu; baina ez dadila izan nazio bakarrarentzat,  
familia bakarrarentzat, guretzat guztiontzat izan bedi salbuespenik  
gabe! *Izan zaitetz gizateria osoaren legegile, naturaren beraren inter -  
pretari zaren heinean; erakutsiezaguzu kimeren mundua eta erreali -  
tateen mundua bereizten dituen lerroa; eta irakatsi, horrenbeste erlijio  
eta errore ondoren, ebidentziaren eta egiaren erlijioa!*»

Orduan, legegileak berreskuratu zituelarik gizakiaren ezaugarri  
fisiko eta osagaien azterketa, egoera *indibidualean eta sozialean* agin-  
tzen duten mugimendu eta joerak, hitz hauetan ematen ditu naturak  
berak bere zoriona oinarritu dituen legeak.

# NATURAREN LEGEA<sup>105</sup>

## I. KAPITULUA NATURAREN LEGEAZ

G. Zer da naturaren legea?

E. Jainkoak mundua gobernatzeko darabilen gertakizunen ordena konstantea eta erregularra da. Jainkoaren zuhurtasunak gizakien zentzumenei eta arrazoari agertzen dion ordena, haien ekintzetarako arau berdin eta amankomun moduan, haiek gidatzeko, herrialde edo sekta araberrako bereizketarik gabe, perfekzioarako eta zorionerako bidean.

G. Eman *lege* adieraren definizio argi bat.

E. *Lege* hitzak, literalki hartuta, *lezio* esan nahi du<sup>106</sup>, jatorriz ordenantza eta araudiak, herriari emaniko lezioak baitziren –hobeto, gainontzeko pertsona guztiei emanikoak–, jendeak bete zitzaizkion eta horien hausteari zegozkion zehapenak pairatu behar ez izateko: hortik dator benetako ideia azaltzen duen jatorrizko ohitura.

*Legeren* definizioa honakoa da: «Arau-hauste bati dagokion zehapenaren klausula adieraziarekin ekiteko ordena edo debekapena, edo ordena hori jarraitzeagatik datorren saria».

G. Existitzen al dira naturan ordena horiek?

E. Bai.

G. Zer esan nahi du *natura* hitzak?

E. Hiru esanahia dauzka.

1. Unibertsoa, mundu materiala esan nahi du: lehen zentzu honekin esan nahi dugu naturako edertasunak, naturako onurak, hau da, begi-bistan dauzkagun zeruko eta lurreko objektuak;

2. Unibertsoa mugitzen edo animatzen duen boterea esan nahi du, izaki berezi bezala kontsideratuta, arima gorputzari zaion modu berean; bigarren zentzu honetan ondokoa diogu: «naturaren intentzioak, naturaren sekretu ulertezinak»;

3. Izaki bakoitzean, izaki klase bakoitzean, botere horrek egiten dituen ekintzak esan nahi du; hirugarren zentzu horretan diogu, «gizakiaren natura enigma bat da; izaki bakoitzak bere naturaren arabera jarduten du».

Hortaz, izaki bakoitzaren –edo izaki espezie bakoitzaren– ekintzak, ordena partikularra edo orokorra eten edo nahastu gabe hautsi ez daitezkeen arau konstante eta orokorren mende daudenez, akzio edo mugimendu arau horiei lege naturalak edo naturaren legeak deritzaie.

G. Emazkidazu lege horien adibideak.

E. Naturaren legea da eguzkiak etengabe Lurraren globoa argitzea; haren agerpenak argia eta beroa eragitea; ura berotzean lurruna sortzea; lurrun hori altxatzen delarik hodeietan metatzea, horiek euri edo elurretan disolbatzea, eta iturri zein ibaietako ura etengabe berritzea.

Naturaren legea da urak beherantz egitea; maila bera edukitzeko duen joera; airea baino astunagoa izatea; gorputz guztiek lurrerantz jotzea; su garrek zerurantz jotzea; horiek animalia eta landareak suntsitzea; animalia jakin batzuek bizitzeko airea beharrezkoa izatea; zirkunstantzia batzuetan urak horiek ito eta hil egitea; zenbait landareren zukuek, zenbait mineralek, euren organoei eraso egitea, euren bizitza deuseztatuz, eta hala da beste kasu askotan.

Beraz, gauza horiek guztiak aldaezinak, konstanteak eta erregularrak direnez, gizakia haietara egokitzeko hainbeste arau sortzen dira, horiek urratuz gero zigor klausula adierazia dagoelarik, edo betez gero saria dagokeelarik. Horrela, gizakiak iluntasunean argi ikusi gura badu, urtaroen ibilbidearen aurka edo elementuen jardueraren aurka badoa, ur azpian ito gabe egotea asmo badu, edo erre barik sua ikutzea, airerik gabe moldatzea, norbera akabatu gabe pozoia hartzea, naturaren legearen urratze horietatik jasoko du bere hutsaren arabera-



ko zigor korporala; aldiz, betetzen eta praktikatzen baditu lege horiek bereganako dauzkaten erlazio erregular eta zehatzen arabera, bere existentzia mantenduko du, eta izan daitekeen lain zoriontsua izanen da: lege horien guztien xede bakarra eta amankomuna, gizateriarekiko erlatiboki kontsideratuta, gizakiak bizirik irautea eta alai egitea denez, adostu da ideia hori adierazpide bakar batera mugatzea, eta osotasun horri naturaren legea deitzea.

## II. KAPITULUA

### NATURAREN LEGEAREN EZAUGARRIAK

G. Zeintzuk dira naturaren legearen ezaugarriak?

E. Hamar direla esan daiteke.

G. Zein da lehena?

E. Gauzen existentziari atxiki izatea, eta, hortaz, beste edozein lege baino lehenagokoa edo antzinagokoa izatea: gizakiak jaso dituen guztiak haren imitazioak dira, eta haien perfektzioa jatorrizko eredu horrekiko duen antzaren arabera da.

G. Zein da bigarrena?

E. Jainkoarengandik zuzenean eratorria, eta hark gizaki bakoitzari erakutsia izatea. Gainontzeko guztiak, berriz, gizakiek aurkeztuak dira; azken horiek tronpatuak ala tronpatzaileak izan daitezkeelarik.

G. Zein da hirugarrena?

E. Garai eta herrialde guztietan amankomuna izatea, hau da, bakarra eta unibertsala.

G. Ez al dago beste lege unibertsalik?

E. Ez: beste edozein lege ez baita munduko jende guztiarentzat ados egotekoa edo aplikagarria; beste guztiak lekukoak edo akzidentalak dira, lekuen edo pertsonen zirkunstantzietatik eratorriak. Horregatik, gizaki jakin bat ez balitz existituko, edo gertakizun jakin bat ez balitz gertatuko, halako lege bat ez litzateke inoiz egingo.

G. Zein da laugarren ezaugarria?

E. Uniformea eta aldaezina izatea.

G. Beste ezein lege ez al da uniformea eta aldaezina?

E. Ez: batentzat ona eta bertuteduna dena, bestearentzat gaiztoa eta biziozkoa baita; eta lege batek behin baieztatzen duena, hurrengoan ezeztatuko du.

G. Zein da bosgarren ezaugarria?

E. Agerikoa eta ukigarria izatea, zentzumenei azaltzen zaizkion gertakizun frogagarrietan oinarritzen baita.

G. Ez al da agerikoa den beste legerik?

E. Ez: iraganeko gertakizun zalantzagarrietan oinarritzen baitira, lekukotasun ekiboko eta susmagarrietan, eta zentzumenei iristezin zaizkien frogetan.

G. Zein da seigarren ezaugarria?

E. Arrazoizkoak izatea, haren manuak eta doktrina osoa arrazoimenaren eta giza ulermenaren arabekoak baitira.

G. Ez al da beste lege arrazoizkorik?

E. Ez: guztiak kontraesanean daude gizakiaren arrazoimenarekin eta ulermenarekin, eta harengan sinesmenitsu eta praktikaezin bat inposatzen dute tiranikoki.

G. Zein da zazpigarren ezaugarria?

E. Justua izatea, lege horretan zigorrak arau hausteen proportziokoak baitira.

G. Ez dago beste lege justurik?

E. Ez: askotan mugak gainditzen baitituzte bai merezitakoa saritzerakoan, bai delinkuentzia zigortzerakoan, eta merituzkoa edo kriminala kontsideratzen dituzte ekintza ezdeusak edo axolarik ez dutenak.

G. Zein da zortzigarren ezaugarria?

E. Bakezalea eta tolerantea izatea; naturaren legeak, gizaki guztiak anai-arrebak eta eskubidetan berdinak izanik, soilik bakea eta tolerantzia gomendatzen die horiei, hutsak gertatzen direnean ere.

G. Ez al dira gainontzeko legeak bakezkoak?

E. Ez: guztiek ere aurkakotasuna, desakordioa eta guda zabaltzen baitituzte, eta gizateria bereizten dute egia eta dominazio asmo eksklusiboekin.

G. Zein da bederatzigarren ezaugarria?

E. Gizaki guztientzat onuragarria izatea, hobe eta alaiago izateko benetako modua irakatsiz.

G. Ez al dira gainontzeko legeak onuragarriak?

E. Ez: batek ere ez du irakasten zoriontasuna lortzeko benetako modua; guztiak daude praktika kaltegarri eta zirtziletara zuzenduak; hori guztia argia da datuetan oinarrituta, horrenbeste legerekin, horrenbeste erlijioarekin, horrenbeste legegile eta profetarekin, gizakiak oraindik ere duela sei mila urte bezain dohakabeak eta ezjakinak baitira.

G. Zein da naturaren legearen azken ezaugarria?

E. Besterik gabe ere bakarrik nahikoa dela gizakiak zoriontsuagoak eta hobeak egiteko, beste legeetan –zibiletan zein erlijiozkoetan– ona eta erabilgarria dena biltzen duelako, hau da, horien zati moralak osatzen du esentzialki; hortaz, gainontzeko legeak hartaz gabetuak balira, erabilgarritasun praktikorik gabeko iritzi kimeriko eta alegiazko bilakatuko lirateke.

G. Laburbil itzazu ezaugarri horiek guztiak.

E. Esan dugu naturaren legea honakoa dela,

- |                |                   |
|----------------|-------------------|
| 1. Antzinakoa  | 6. Arrazoizkoa    |
| 2. Gertukoa    | 7. Justua         |
| 3. Unibertsala | 8. Bakezkoa       |
| 4. Aldaezina   | 9. Onuragarria    |
| 5. Argia       | 10. Berez nahikoa |

Eta halakoa da perfekziozko eta egiazko ezaugarri horien guztien boterea, euren eztabaidetan teologoen ezin dutenean fede artikuluei ezeinetan ados jarri, naturaren legera jotzen baitute. Hura baztertzekoak –diotenez– Jainkoa behartu zuen profeta berriak bidaltzera, horiek lege berriak eman zitzaizkien; Jainkoak legeak egingo baitzituzkeen zirkunstantzia partikularretarako, gizakiek egiten duten moduan; bereziki naturaren legeak hain indartsu darraienean, ezen esan baikenek zentzu eta ulermeneko gizaki ororen kontzientzia araua izan dela garai guztietan eta herrialde guztietan.

G. Diozun legez, Jainkoarengandik zuzenean badator, legeak haren existentzia irakasten al du?

E. Bai, ziur: unibertsoaren ikuskizun liluragarria dakusalarik, hausnarketa egiten duen edozein gizakiri, zenbat eta gehiago pentsatzen duen izaki bakoitzaren ezaugarri eta propietateez, haien mugimenduaren ordena eta harmoniaz, hainbat eta frogatuago geratuko zaio badela egile goren bat, mugitzaile unibertsal eta berdin bat, Jainkoa izenaz ezagutzen dena; eta hain da egia naturaren legea nahikoa dela Jainkoaren ezagutzara igotzeko, gizakiek bide supernaturalen bidez ezagutu asmo izan duten guztia etengabe bilakatu izan baita irri-garri eta absurdo, eta arrazoi naturalen kontzepzio aldaezinetara jo behar izan baitute.

G. Orduan ez al da egia naturaren legearen jarraitzaileak ateoak direla?

E. Ez, ez da egia. Alderantziz, gainontzeko gizakiek daukatena baino Dibinitatearen ideia nobleagoa eta indartsuagoa dute, ez baitute laidoztatzen gizateriari dagozkion ahultasun eta pasio horiekin guztiekin.

G. Nolako gurmena dute harenganako?

E. Osoki akziozkoa den gurmen bat: izaki bakoitzaren mugimenduan zuhertasun gorenak inposatu dituen arau guztien betetzea; arau betiereko eta aldaezinak, horien bidez unibertsoaren ordena eta harmonia mantentzen delarik, eta horiek, gizakiarekiko erlazioan, naturaren legea osatzen dute.

G. Garai hau baino lehenago ezagutzen al zen naturaren legea?

E. Garai guztietan mintzatu izan da hartaz: legegile gehienak saiatzten dira hura erabiltzen euren legeen oinarri bezala; baina soilik haren manamendu batzuk aipatzen dituzte, eta haren osotasunari buruzko ideia lausoak dituzte.

G. Zergatik?

E. Ezen, oinarrian sinplea den arren, bere garapen eta ondorioetan osotasun konplikatu bat eratzen du, gertakizunen ezagutza zabalak eskatzen duena, arrazoimenean zolitasun handienarekin batera.

G. Ez al du senak berez soilik naturaren legea irakasten?

E. Ez; sena ez baita zentzumenei laketa zaion orotara garamatzan sentimendu itsu hori baizik.

G. Orduan, zergatik esaten da naturaren legea gizaki guztien bihotzean datzala?

E. Bi arrazoi direla eta esaten da hori: lehenik, azpimarratu izan den bezala, gizaki guztiei amankomunak zaizkien ekintza eta sentimenduak daudelako, eta horrek antolakuntza amankomun batera darama; bigarrenik, lehen filosofoek pentsatzen zutelako jada osatuak diren ideiekin jaiotzen zirela gizakiak, orain errorea dela frogatu izan den arren.

G. Orduan filosofoek huts egin al dute?

E. Bai, batzuetan bai.

G. Zergatik?

E. Lehenik, gizakiak direlako; bigarren, ezjakinek filosofo deritzatelako –gaizki ala ongi– arrazoitzen duen orori; hirugarren, gai askoren inguruan arrazoitzen dutenak, eta gai horien inguruan arrazoitzen lehenak direlarik, tronpatuak izan daitezkeelako.

G. Naturaren legea idatzia ez den artean, ez al da arbitrarioa eta ideala bilakatuko?

E. Ez: gertakizunetan oinarritzen da osorik, horien frogapena etengabe berritzen da zentzumenen bidez, eta geometria eta matematikak bezain zientzia zehatza eta doia da; eta, zientzia zehatza osatzen duenez, gizakiek, ezjakin jaio eta axolagabe eta antsikabe bizi direlarik, orain arte haren ezagutza azalekoa baizik ez dute izan.

### III. KAPITULUA

#### GIZAKIARI DAGOZKION NATURAREN LEGEAREN PRINTZPIOAK

G. Azal itzazu naturaren legearen printzipioak gizakiarekin duten harremanaren arabera.

E. Errazak dira; guztiak ere arau oinarritzko eta bakun baten inguruan biltzen dira.

G. Zein da arau hori?

E. Norbere biziraupena.

G. Ez al da zoriona ere naturaren legearen araua?

E. Bai: baina zoriontasuna behin-behineko egoera halabeharrezkoa denez, soilik gizakiaren ahalmenen eta sistema sozialaren garapenetik datorrena, ez da naturaren objektu gertuena eta zuzena;

neurri batean, biziraupenaren objektu beharrezko eta oinarritzkoari atxikitzen zaion funts gutxiko zerbait da.

G. Nola agintzen dio naturak gizakiari norbera bizirik mantentzea?

E. Bi sentsazio boteretsu eta oharkabeko bidez, bere ekintzei atxiki dizkionak, gidari bi, jeinu bi, bailiran: bata min sentsazioa da, horren bidez gaztigatzen eta aldentzen duelarik hura suntsi dezakeen ezertaz; bestea, plazer sentsazioa, horren bidez haren existentziaren iraupenera eta garapenera daraman orotara zuzentzen du.

G. Plazera, orduan ez da gaitza, bekatua, kasuistek dioten bezala?

E. Ez, bizia eta osasuna, Jainkoarengandik jasotzen ditugunak –kasuista horiek berek aitortzen duten bezala–, suntsitzera daraman artean soilik.

G. Plazera al da gure existentziaren objektu bakarra, filosofo batzuek esan duten moduan?

E. Ez. Ez mina baino gehiago; bizitzeko kitzikagarria da plazera, minak heriotzarekiko higuina sortzen duen bezala.

G. Nola frogatu dezakezu baieztapen hori?

E. Bi datu ukigarri bidez: bata, plazerak, moderaziorik gabe, suntsipenera daramala; esaterako, janariaz eta edariaz abusu egiten duenak bere osasunari eraso egiten dio, eta bere bizia zauritzen du. Bestea, minak batzuetan norbere biziraupenera daramala; esaterako, gangrenaturiko giza atal bat moztea erabakitzen duen norbaitek, mina pairatzen du ez hiltzeko.

G. Baina ez al du horrek berak frogatzen gure zentzumenek tronpa gaitzaketela gure iraupenaren helburuari dagokionez?

E. Bai, hala egin dezakete une batez.

G. Nola tronpa gaitzakete gure zentzumenek?

E. Bi modutan: ezjakintasuna zein pasioa dela medio.

G. Noiz tronpatzen gaituzte ezjakintasuna dela eta?

E. Ez dugunean ezagutzen objektuek gure zentzumenetan duten eragina eta ondorioa: esaterako, pertsona batek asunak ikutzen ditunean ziztatu egiten dutela jakin gabe, edo opioa irensten duenean lo eragiten duela jakin barik.

G. Noiz tronpatzen gaituzte pasioa dela eta?

E. Objektuen eragin kaltegarriaren jakitun izanik, nolanahi ere, gure desira eta gurarien suhartasunaren menpe jartzen garenean; esaterako, pertsona batek badakienean ardoak intoxikatzen duela, eta hala ere gehiegi edaten duenean.

G. Zein da ondorioa?

E. Jaiotzez daukagun ezjakintasuna eta gure buruen menderatzaile diren gurariak gure biziraupenaren aurkakoak direla; hortaz, gure adimenaren hezkuntza eta gure pasioen moderazioa bi betebeharrak dira, lege bi, biziraupenaren lehen legetik datozenak zuzenean.

G. Baina ezjakin jaiotzen garelarik, ez al da ezjakintasuna naturaren lege bat?

E. Haurtzaroko egoera biluzi eta ahulean egotea baino gehiago ez. Naturaren legea izatetik urruti, ezjakintasuna haren lege guztien praktikarako oztopoa da. Benetako jatorrizko bekakoa da.

G. Orduan, zergatik egon da moralistarik hura bertute eta perfektio kontsideratu duenik?

E. Ezen, joera arraro edo perbertitu bat dela eta, ezagutzaren abusua eta ezagutza bera nahastu baitzituzten; horrela, badirudi, gizakiek mintzatzeko botereaz abusatzeagatik mingaina moztu beharko litzaiekeela; edo perfektioa eta bertutea gure ahalmenen ezeztatzean eta ez garapen egokian oinarrituko liratekeela.

G. Hortaz, hezkuntza ezinbestekoa al da gizakiaren biziraupenerako?

E. Bai, hain da ezinbestekoa, hura gabe, inguratzen duen guztiak asaldatzen eta zauritzen baitu une oro; ez baditu suaren efektuak ezagutzen, bere burua erreko du; urarenak ez baditu ezagutzen, itoko da; opioarenak, pozoituko da; basakeria egoera batean bizi denean, ez baditu animalien trikimailuak eta ehizaren artea ezagutzen, gosez hilko baita; egoera sozialean ez badu urtaroen ibilbidea ezagutzen, ezin izanen baitu lurra landu edo elikagairik lortu, eta abar, gizakiak daukan nahi guztiei dagokionez, bere ekintza orotarako.

G. Baina lor al ditzake gizakiak indibidualki bere biziraupenerako eta bere ahalmenen garapenerako beharrezkoak diren ezagutza horiek guztiak?

E. Ez; ez bere gizakideen laguntzarik gabe, eta gizartean bizi barik.

G. Baina ez al da gizartea gizakiarentzat naturaren aurkako egoera?

E. Ez; alderantziz, halabeharreko zerbeit da, naturak berarengan ezarri zuen legea, bere antolakuntzarako bererako. Ezen, lehenik, naturak gizakia modu batean eratu baitu, hark ezin baititu ikusi bere espezieko alderantzizko sexuko kideak erakargarritasuna eta emozioak sentitu barik, eta horiek familian bizitzera daramate, familia jada gizarte egoera bat delarik; bigarren, gizakiari sentsibilitatea eman zion, modu horretan gizakiaren antolamendurako gainontzeko kideen sentsazioek beregan oihartzun dute, eta elkarrekiko atsegin eta min sentimenduak eragiten dituzte, horiek, erakarpen, gizarterako lotura ezabaezinak direlarik; hirugarren, eta azkenik, gizarte egoera, gizakiaren nahietan oinarritzen dena, biziraupenaren legea betetzeko areagoko baliabidea da: eta natura egoera horretatik apartekoa dela esatea, perfektuagoa delako, gure lorategietan hazten den fruitua, gozoa eta atsegingarria delako –basoan mingotsa eta sasitik aterea zelarik–, jada naturaren ekoizpena ez dela esatea litzateke.

G. Orduan, zergatik deitu diote filosofoek perfekzio egoera basakeria egoerari?

E. Ezen, jada kontatu dizudan moduan, jende arruntak sarritan filosofo deitu dielako jainu irrigarriei; umore txarragatik, zaurituriko handikeriagatik, edo gizartearen bizioek nardatuta, pertsona horiek basakeria egoeraren ideia kimerikoak sortu dituzte, gizakiaren perfekzioaz duten euren sistemaren aurka doana.

G. Zein da *filosofo* hitzaren benetako esanahia?

E. Filosofo hitzak jakituriaren maitale esan nahi du; eta jakituria naturaren legeen praktikan oinarritzen denez, benetako filosofoa lege horiek ezagutzen dituen da, eta bere jarreraren eduki guztia haietara zuzentzen duena.

G. Zer da gizakia basakeria egoeran?

E. Animalia anker eta ezjakina, piztia maltzur eta krudela.

G. Zoriontsua al da egoera horretan?

E. Ez, uneko sentsazioak sentitzen baititu soilik, ase ez ditzakeen bortxazko nahierak direnak normalean, naturaz ezjakina baita, eta bere arrazarengandik isolatua izateagatik ahula.



G. Aske al da?

E. Ez, existitzen den esklaborik doilorrena da. Inguratzen duen ororen menpe dago bere bizitza: ez da libre gose denean jateko, hotz denean berotzeko; une oro hiltzeko arriskuan dago. Naturak halako izakien adibide anitz eskaintzen digu; eta ikus genezake giza espeziearen ahalegin oro, jatorritik, norbere biziraupenaren halabehar indartsuak eraginda indarkeriazko egoera horretatik irteteko oso joera handikoa dela.

G. Baina ez al du biziraupenerako behar horrek gizabanakoen egoismoa eragiten, hau da norberarenganako maitasuna? Eta ez al da egoismoa gizarte egoerarekiko aurkakoa?

E. Ez; *egoismo* diozunean esan nahi baduzu gure auzokideari min egiteko joera, ez da norberarenganako maitasun izanen, besteen-ganako gorrotoa baino. Norberarenganako maitasuna, bere benetako zentzuan hartuta, ez da gizarterekiko ez aurkakoa soilik, bestalde, haren laguntzarik tinkoena ere bada, gainontzeko kideei minik ez egiteko aukagun beharragatik, ez diezaguten haiek bueltan guri minik egin.

Horrela bideratzen da norbere iraupena, eta ahalmenen gartzeak, helburu horretara zuzenduak, erakusten du benetako naturaren legea gizaki baten sorkuntzan. Funtsezko printzipio horretatik erator-tzen dira, haiei erreferentzia egiten zaie, eta haren eskalaren arabera neurtzen dira gaizkiaren eta onaren, bizioaren eta bertutearen, zuzen-naren eta okerraren, egiazkoaren eta erratuaren, legezkoaren eta debe-katuaren ideia guztiak, horietan oinarritzen delarik gizabanakoaren —edo gizaki sozialaren— moralak.

#### IV. KAPITULUA

#### MORALAREN, ONAREN, GAITZAREN, BEKATUA- REN, KRIMENAREN ETA BERTUTEAREN OINARRIA

G. Zer da ona naturaren legearen arabera?

E. Gizakia bizirik mantentzera eta perfektogotzera daraman guztia.

G. Zer da gaitza?

E. Gizakiaren suntsipenera eta hondatzera daraman guztia.

G. Zer ulertzen da *on* eta *gaitz fisikoa*, eta *on* eta *gaitz morala* diogunean?

E. *Fisiko* hitza esaten denean gorputzean zuzenean eragina duen edozer ulertzen da. Osasuna ondasun fisikoa da; eta gaixotasuna gaitz fisikoa. *Morala* diogunean gutxi gorabehera urrutitik edo zeharka ondorioa duen zerbaiti buruz ari gara. Kalumnia gaitz morala da; izen ona onura morala da, batarengatik zein bestearengatik jasotzen ditugu, gainontzeko pertsonengandik, jarrera eta azturak<sup>107</sup>, gure iraupenerako erabilgarriak ala kaltegarriak direnak, eta gure bizibideari eraso ala onura ematen diotenak.

G. Iraupenerako edo ekoizpenerako joera duen oro, hortaz, onura da?

E. Bai; horregatik zenbait legegilek dibinitatearen lanetarako onuragarri kontsideratu izan dute lurraren laboratzea edo emakume baten emankortasuna.

G. Heriotza eragiteko joera duen oro, hortaz, gaitza al da?

E. Bai; eta arrazoi horregatik zenbait legegilek gaitzaren eta bekatuaren ideia animalien heriotzara ere zabaldu dute.

G. Gizaki baten heriotza, beraz, naturaren legearen arabera krimena al da?

E. Bai, eta egin daitekeen okerreana; beste edozein gaitz konpon baitaiteke, baina erailtzea soilik da konponezina.

G. Zer da bekatua naturaren legean?

E. Gizartean pertsona baten iraupenerako edo perfektiorako naturak ezarri duen ordena nahasteko joera duen oro.

G. Intenzioa meritua ala krimena izan daiteke?

E. Ez, errealitaterik gabeko ideia baita; baina bekatuaren eta gaitzaren iturburua da, ekintza bati ematen dion bultzada dela eta.

G. Zer da bertutea naturaren legearen arabera?

E. Gizabanakoari zein gizarteari erabilgarriak zaizkion jardueren praktika da.

G. Zer esan nahi da *gizabanako* esaten dugunean?

E. Esan nahi da gizaki bat gainontzekoengandik bereizia.

G. Zer da *bizioa* naturaren legearen arabera?

E. Gizarteari zein gizabanakoari kaltegarriak zaizkion jardueren praktika da.

G. Ez al dute bertuteak eta bizioak zentzumenetatik aparteko objektu puruki espiritual eta abstraktu bat?

E. Ez; azkenean beti erlazionatzen dira xede fisiko batekin, eta helburu hori gorputza suntsitzea edo mantentzea izaten da.

G. Bizioak eta bertuteak indar eta intentsitate mailak al dituzte?

E. Bai: ahalmenen garrantziaren arabera, haiei eraso edo lagun egiten baitiete, eta ahalmen horiek lagun edo zauritzen dituzten pertsona kopuruaren arabera.

G. Emazkidazu zenbait adibide.

E. Pertsona baten bizia sorosteko ekintza bertutetsuagoa da bere jabegoa salbatzekoa baino; hamar pertsonaren bizia sorostekoa, pertsona batena baino bertutetsuagoa; eta gizateria osoari erabilgarria zaion ekintza bertutetsuagoa da nazio bakarrari erabilgarria zaiona baino.

G. Nola preskribatzen du naturaren legeak ontasunaren eta bertutearen praktika, eta gaitzarena zein bizioarena debekatu?

E. Gure gorputzaren mantentzerako ontasunaren eta bertutearen praktikak dituen abantailen bidez, eta gaitzaren eta bizioaren praktikak gure biziraupenerako dituen galeren bidez.

G. Haren manamenduak, hortaz, jardueran daude?

E. Bai: jarduera bera dira, uneko efektua eta etorkizuneko ondorioen arabera kontsideratua.

G. Nola banatzen dituzu bertuteak?

E. Hiru klasetan banatzen ditugu: lehenik, bertute indibidualak, gizakiari soilik dagozkionak; bigarrenik, etxeko bertuteak, sendiari dagozkionak; hirugarren, bertute sozialak, gizarteari dagozkionak.

## V. KAPITULUA BERTUTE INDIBIDUALEI BURUZ

G. Zeintzuk dira bertute indibidualak?

E. Bost dira nagusiki, hala nola: lehenik, barne dituen zientzia, zuhurtasuna eta jakituria; bigarren, neurritasuna, urritasuna eta

kastitatea barne dituen; hirugarren, adorea, edo gorputz eta arimako indarra; laugarren, aktibitatea, hau da, lanerako gogoia eta denbora erabiltzea; bosgarren, eta azkenik, garbitasuna, edo gorputzaren purutasuna, bai jantzieta bai ohituretan.

G. Nola preskribatzen du naturaren legeak zientzia?

E. Gauzen kausa eta efektuak ezagutzen dituen pertsonak bere buruaren mantentzeki eta bere ahalmenen garatzeki modu arretatsu eta seguruan egiten die jaramon. Beretzat begia eta argia da zientzia, horien bidez bereizten baititu argi eta zehaztasunez ezagutzen dituen objektu guztiak, hortaz, pertsona jantzia edo argia diogunean, pertsona ikasia eta ongi informatua esan nahi dugu. Zientzia eta heziketa dituen gizakiak ez du inoiz guraririk izanen baliabideak eta bizibideak pilatzeko. Printzipio horren arabera, itsasontzi istripu bat izan zuen filosofo batek honakoa esan zien kontsola ezin zitezkeen kideei: «Eni dagokidanez, nire aberastasun guztiak ene baitan daramatzat».

G. Zein da zientziaren aurkako bizioa?

E. Ezjakintasuna da.

G. Nola debekatzen du naturaren legeak ezjakintasuna?

E. Hark gure existentziari ekartzen dizkion kalte latzen bidez; kausak eta efektuak ezagutzen ez dituen gizakiak une oro egiten baititu beretzat arras kaltegarriak diren hutsak; bere ibilbidea ausaz egiten duen itsua dirudi, urrats bakoitzean bultzaka dabilena edo topatzen duen bakoitzak bultzatzen duena.

G. Zein diferentzia dago ezjakinaren eta ergelaren artean?

E. Bere itsutasuna tolesgabe aitortzen duenaren eta ikusten duela pentsarazi nahi duenaren artean dagoena bezalakoa; ergelkeria ezjakintasunaren errealitatea da, hari elkartzen zaiolarik ezagutzearen banitatea.

G. Arruntak al dira ezjakintasuna eta ergelkeria?

E. Bai oso arruntak; gizateriaren gaitz ohiko eta orokorrak dira. Duela hiru mila urte pertsonarik jakintsuenak honakoa esan zuen: «ergel kopurua infinitua da». Eta ez da ezer aldatu.

G. Zein da horretarako arrazoia?

E. Denbora eta lan handia behar delako hezkuntza jasotzeko, eta gizakiek, alfer eta ezjakin jaiotzen direlarik, egokiago baiteritzote itsu jarraitzea, eta argi dakusatela sinestea.

G. Zein diferentzia dago pertsona ikasiaren eta jakintsuaren artean?

E. Ikasiak badaki, eta jakintsuak praktikatzen du.

G. Zer da zuhurtasuna?

E. Aurrea hartzen duen pertzepzioa da, ekintza bakoitzaren efektu eta ondorioen aurreikustea; aurreikuste horren bidez, gizakiak saihestu egiten ditu mehatxu egiten dioten arriskuak, eta berari onuragarriak zaizkion aukerak hartzen eta sortzen ditu: horrela modu seguru eta ziurrean erdiesten du bere uneko eta etorkizuneko segurtasuna; aldiz, zuhurtziarik gabeko pertsona, ez duena kalkulatzeko ez bere urratsak ezta bere jarrera, ahaleginak edo erresistentzia ere, une oro erortzen da zailtasun eta arriskueta, lehenago edo beranduago bere ahalmenak deuseztatu eta bere existentzia suntsituko dutenetan.

G. Ebanjelioak dionenean, «dohatsuak bitez espiritu ahuleko-ak», pertsona ezjakin eta zuhurtziagabeak esan nahi al du?

E. Ez; usoen lañotasuna gomendatzen duen moduan, sugeen zolitasun zuhurra gaineratzen baitu. Adimenaren singletasunarekin zintzotasuna esan nahi da, eta ebanjelioaren manua naturarena da.

## VI. KAPITULUA NEURRITASUNARIBURUZ

G. Zer da neurritasuna?

E. Gure ahalmenen erabilera neurritzkoa da, eragiten diguna gure sentazioetan inoiz ere ez gaingitza gure buruak iraunarazteko naturak ematen digun xedea; gure pasioen moderazioa da.

G. Zein da neurritasunaren aurkako bizioa?

E. Pasioen desordena, mota orotako atseginekiko guraria; hitz batean, kodizia.

G. Zeintzuk dira neurritasunaren adar nagusiak?

E. Urritasuna eta kontinentzia edo kastitatea.

G. Nola preskribatzen du naturak urritasuna?

E. Gure osasunean duen eragin boteretsuaren bidez. Pertsona jangartxuak digestio erosoak du; ez du elikagaien pisuak gaingitzen; bere ideiak argiak eta errazak dira; bere funtzioak modu egokian bete-

tzen ditu; bere negozioak zolitasunez daramatza; bere zahartzarora aje-rik gabea da; ez du bere dirua sendagaietan gastatzen eta, atseginez eta pozez beteta, gozatzen ditu zoriak eta norbere zuhertasunak eskura jarri dizkion aberastasunak. Horrela, bertute batekin soilik, natura eskuzabalak golardo zenbatezinak eskaintzen ditu.

G. Nola debekatzen du sabelkeria?

E. Harekin elkartuta doazen gaitz anitzen bidez. Tripontziak, elikagaiek zapalduta, antsiar irensten du; digestioaren lozorroak nahastuta, ideia argi eta bereiztuak sortzeko ezgai da; bere burua abandonatzen du bizioaren eta haserrearen bulkada desordenatueta, bere osasuna kaltetzen dutelarik; bere gorputza hantu, astundu, lanerako ezdeus egiten da; gaitz mingarri eta garestiak pairatzen ditu; gutxitan bizi izaten da zahartzarora arte; eta heltzen denean ajez eta minez lepo izaten ohi da.

G. Abstinentzia eta baraua ekintza bertutetsuak kontsideratu behar al dira?

E. Bai, batek larregi jan duenean; orduan, abstinentzia eta baraua konponbide sinple eta eraginkorrak baitira. Baina gorputza elikagai beharrean dagoenean, elikagaiei uko egitea eta gosea eta egarria pairatzea eldarnioa da eta naturaren legearen kontrako benetako bekatua.

G. Nolako kontsiderazioa du mozkeriak naturaren legean?

E. Biziorik arbuigarri eta kaltegarriena kontsideratzen da. Hordiak, Jainkoak ematen digun zentzuaz eta arrazoimenaz gabeturik, dibinitatearen donariak profanatzen ditu: piztien mailara jaisten du bere burua; bere urratsak kontrolatzeko ezdeus, zabuka dabil eta epileptikoaren moduan erortzen da; bere burua zauritzen du eta hiltzorian jartzen du; egoera horretan duen ahultasunak hura ikusten duten pertsona guztien bihozmina eragin eta haien aurrean irrigarri uzten dute; bere mozkorraldian negozio kaltegarri eta hondagarriak egiten ditu, eta bere ondasunak kaltetzen ditu; lengoaia iraingarria erabiltzen du, arerioak eta damua sortzen dituena; bere etxea nahasmenduz eta minez betetzen du, eta heriotza goiztiar batekin edo zahartzaro gorputz ustelarekin amaitzen du.

G. Naturaren legeak erabat debekatzen al du ardoaren erabilera?

E. Ez, soilik haren abusua debekatzen du; baina, beharbada, erabileratik abusurako tartea hain erraza eta azkarra denez gizaki

gehienetan, ardoaren erabilera erabat debekatu izan duten legeegileek gizateriari onura ekarri diote.

G. Naturaren legeak debekatzen al du okela edo barazki jakin batzuk jatea egun edo urtaro jakin batzuetan?

E. Ez; soilik zeharo debekatzen du osasunarentzat kaltegarri dena; bere manuak, gai honen inguruan, pertsonen arabera aldatzen dira, eta gainera zientzia delikatu eta garrantzitsua osatzen dute, elikagaien konbinazioak, kantitateak eta kalitateak eragin handiena baitute, ez soilik arimaren uneko afekzioetan, baita hark duen ohiko egoeran ere. Pertsona bat ez da berdina bazkari baten ostean ala barau egiten duenean, edana ez badago ere. Edari alkoholodun edalontzi batek edo kafe kikar-kada batek bizitasuna ematen dute, edo higikortasuna, edo haserrera, tristurarako edo pozerako joera; berdin okelarekin, urdailean astuna egiten baita, eta haserre edo malenkonia sortzen baititu; berdin, digestioa erraztu, energia eman eta gainontzeko pertsonen gustu eman eta maitatzea eragiten duten beste elikagai batzuekin. Barazkien erabilerak, elikamendu gutxi dutenez, gorputza ahultzen du, eta atsedean hartzea, soraiotasuna, eta eroso egon nahi izatea eragiten dute; okelaren erabilerak, elikamenduz bete baitago, eta edari alkoholodunenak, nerbioak estimulatzen baitituzte, bizitasuna, ezinegona eta adorea sortzen dute. Elikagaietan ditugun azturengatik egikera eta organoen ohiturak sortzen dira, beranduago izaera ezberdinak eragiten dituztenak, horietako bakoitzak ezaugarri jakin batengatik bereizten delarik. Arrazoi hori dela eta, batez ere herrialde beroetan, legeegileek legeak egin dituzte jan-neurriaren edo elikagaien inguruan. Antzinakoei irakasten zitzaion zientzia dietetikoa moralitatearen atal garrantzitsua zela; egiptoarren, persiarren eta Aeropaguseko greziarren artean gai garrantzitsuek baraua eskatzen zuten; eta aipatu izan da herri horien artean, arazo publikoak eztabaidatzen zirelarik bazkarien beroan, eta digestioaren lozorroan, deliberazioak azkarrak eta bortxatuak zirela, eta ondorioak sarri arrazoimenik gabeak, eta nahasmendu eta kalapita eragileak zirela.

## VII. KAPITULUA URRITASUNARIBURUZ

G. Urritasuna preskribatzen al du naturaren legeak?

E. Bai: plazerik bizienaren erabilera moderatu bat ez da soilik komenigarria, baita ezinbestekoa ere, indarraren eta osasunaren

laguntzan. Kalkulu sinple batek frogatzen du, bestalde, gabetze minutu batzuekin batek bere egun kopurua handitzen duela, bai gorputzaren zein adimenaren kemenean.

G. Nola debekatzen du libertinismoa?

E. Existentzia moralari eta fisikoari dakartzkion gaitz anitzen bidez. Gehiegi egiten duena makaltzen eta ahitzen da; ezin du ikasketarik edo lanik egin; ohitura nagiak eta garestiak hartzen ditu, suntsitzen dutenak bere bizibidea, publikoki duen izen ona eta sinesgarritasuna; bere azpikeriek lotsa, ardura, kalapitak eta epaiketak sortzen dituzte etengabe, alde batera utzi gabe izanen dituen ajeak eta indarraren galera, barnetik doakion pozoi geldo hori dela eta; bere adimenaren ergelkeriazko baldartasuna, bere nerbio sistemaren ahitzeak eraginda; eta, azkenik, zahartzaro goiztiar eta gaixobera.

G. Naturaren legeak bertute moduan al du monasterio-erakundeetan gomendatzen den kastitate absolutu hori?

E. Ez: kastitatea ez baita probetxugarria ez haren lekuko den gizartearentzat ez hura praktikatzen duen gizabanakoarentzat ere; aldiz, bientzat ere kaltegarria da. Lehenik, gizartea kaltetzen du despopulatzen duelako, populazioa delarik bere osasunaren eta boterea-  
ren iturri nagusienetako bat; eta ezkongabeek euren ikuspegi eta joera guztiak euren bizitzetara zuzentzen dituztenez, gizartearen intereserako faboragarria ez den egoismo bat izaten ohi dute orokorrean.

Bigarrenik, praktikatzen duten gizabanakoak zauritzen ditu, etxeko zein gizarteko bertute askoren iturri diren afektu eta harreman anitzez gabetzen baititu; eta, bestetik, saritan gertatzen denez, adinaren, bizimoduaren edo tenperamentuaren zirkunstantziak direla-eta erabateko kontinentziak pertsonaren osaera zauritzen du eta gaitz latzak eragiten ditu, naturak izakien ugaltzerako osatu duen sistemaren lege fisikoen aurkakoa baita. Kastitatea hain indartsu gomendatzen duten horiek, zintzoak direla suposatuz ere, euren doktrinaren aurkakoak dira, hark naturaren legea kontsaktatzen baitu ondokoa dioenean: haz eta ugal zaitezte.

G. Zergatik kontsideratzen da kastitatea bertute handiagoa emakumeetan gizonezkoetan baino?

E. Kastitate nahiak emakumeetan eurentzat zein gizartearentzat askoz ere kaltegarriagoak eta arriskutsuagoak diren desegokitasu-



nak eragiten baitituzte; ezen –kontuan hartu gabe gizonezkoekin amankomunean dituzten min eta eritasunak–, haurgintza aurretik, unean eta etorkizunean dituen arrisku eta desabantaila guztien eragin-pean daude. Legearen aurka haurdun direnean, eskandalu publikoa eta bihozmina eragiten dituztelako, eta aurrerantzean euren bizitzak saminduta eta miserian igarotzen baitituzte. Are gehiago, euren haur aitagabeak mantentzeko eta hezteko ardura eta gastu osoa eurena da: ardura horrek txirotzen ditu, eta modu orotan euren existentzia fisiko eta moralarentzat kaltegarria da. Egoera horretan, euren xarma sortzen duen freskotasunaz eta osasunaz gabetuta, eurekin daramatelarik zama arrotz eta garesti bat, gizonek gutxiago baloratzen dituzte, ez dute bizibide egoki bat topatzen, pobrezian, miserian eta gabezian erori eta euren bizitza tristea minduta igarotzen dute.

G. Naturaren legea lerratzten al da desira eta pentsamenduetan diren eskrupuluetara?

E. Bai; giza gorputzaren lege fisikoetan, pentsamendu eta desirrek zentzumenak pizten baitituzte, eta ekintzak eragiten dituzte berehala. Bestetik, naturak gure gorputzaren antolakuntzan duen beste lege bat dela eta, ekintza horiek gurari mekanikoak bilakatzen dira eguneko edo asteko une konkretu batzuetan azaltzen direnak, horrela, une horietan, gurari bat berritu egiten da ekintza edo sekrezio baten bidez; ekintza zein sekrezio hori osasunarentzat kaltegarriak baldin badira, horien ohitura biziarentzat berarentzat suntsigarria bilakatzen da. Hortaz, pentsamendu eta desirek garrantzi natural eta benetakoa dute.

G. Umiltasuna bertute kontsideratu beharko al litzateke?

E. Bai; umiltasunak, zenbait ekintzatan tamalgarria den arren, arima eta gorputza mantentzen ditu ordena on baterako eta norbere iraupenerako erabilgarriak diren ohitura horietan. Emakume apala estimatua, gorteiatua eta arrakastatsua da, zoria bere alde du, eta bizitza ziurtatua eta zorionekoa izanen du, aldiz, harroa eta emagaldua dena, mespretxatua, baztertua eta miserian izanen da eta ospe beltzean murgilduko.

## I. KAPITULUA ADOREA ETA AKTIBITATEA

G. Adorea eta gorputz indarra naturaren legearen bertuteak al dira?

E. Bai, eta bertuterik garrantzitsuenak; gure iraupenerako eta ongizaterako baliabiderik eraginkorrenak eta beharrezkoenak baitira. Gizaki adoretu eta indartsuak zapalkuntzari aurka egiten dio, bere bizitza, askatasuna eta jabegoak defendatzen ditu; bere jardueraren bidez bizibide ugaria lortzen du, hartaz atsegin hartzen duelarik lasaitasunean eta bakean. Zorigaiztorik balu, bere zuhurtasuna hura babes-teko nahikoa ez balitz, aurka egingo lioke indarrez eta etsipenez; eta horregatik antzinako moralistek kontsideratu izan zituzten indarra eta adorea lau bertute nagusien artean.

G. Ahultasuna eta koldarkeria bizioak kontsideratu beharko al lirateke?

E. Bai, gauza argia baita zoritxar anitz eragiten dituztela. Pertsona ahul edo koldarra kezka eta ezinegon etengabeekin bizi da; bere osasuna ahitzen du eraso eta arriskuen beldurra dela eta, askotan beldur horrek funtsik ez duen arren. Aitzitik, beldur horrek –gaitza dena eta ez konponbidea– esklabo bihurtzen du, gizaki hori zapaldu nahi duen pertsonarena; eta ahularen morrontzarekin eta ahalmenen gabetzearekin bere existentziarako baliabideak txikiagotu eta urritu egiten dira, bere burua beste pertsona baten nahieraren eta apetaren menpe ikusten duenera arte.

G. Baina, elikagaien eragina aipatu ondoren, ez al dira adorea eta indarra, beste hainbat bertute bezala, hein handi batean gorpuzkeraren eta norbere jitearen ondorio?

E. Bai, egia da; eta hain hein handian, nolakotasun horiek belaunaldiz belaunaldi odolaren bidez transmititzen baitira, haien dependentzia duten elementuekin batera. Gertaera errepikatu eta konstanteenek frogatzen dute edozein motatako animalia klaseetan ikus ditzakegula zenbait nolakotasun fisiko eta moral, espezie horietako banakoenak direlarik, handitu edo txikiagotu egiten direnak beste arraza batzuekin konbinatu edo nahasten direnean.

G. Baina, orduan, gure nahiera ez denez nahikoa nolakotasun horiek gureganatzeko, krimena al da haietaz gabetua izatea?

E. Ez, ez da krimena, zoritxarra baizik; antzinakoek zorigaiztoko Patua deritzatena da. Baina hala ere gure esku dago horiek gureganatzea; badakigunean zein elementu fisikotan oinarritzen den nolakotasun bat edo bestea, haren hazkundera probokatu dezakegu, eta haren garapena sustatu, elementu horien erabilera trebe baten bidez.

Horretan datza hezkuntzaren zientzia, berau nola zuzentzen den arabera, gizabanakoak, edo baita arraza osoa ere, hobetzen ala okerrago-tzen ditu, haien natura eta joerak aldatzeko tankeran; arrazoi horregatik zeharo garrantzitsua da naturaren legeak ezagutzea, haren arabera-koak izan behar baitute seguru eta derrigorrean eginak jarduera eta aldakuntza horiek.

G. Zergatik diozu aktibitatea bertutea dela naturaren legearen arabera?

E. Bere denbora modu erabilgarrian lantzen eta erabiltzen duen pertsonak hartatik bere existentziarako milaka abantaila balios lortzen baititu. Txiro jaiotzen bada, bere lan jardunak zer jan emango dio; eta, are gehiago, neurriduna, moderatua eta zuhurra bada, azkar lortuko du gaitasuna, eta bizitzaren atseginez gozatuko du; lan jardunak berak bertuteak emango dizkio; bere gorputza eta adimena zeregin batekin arduratuak dituen artean, ez du axolatuko desira desordenaturik, denbora ez zaio zailtasunez igaroko, ohitura apalak hartuko ditu, indarra eta osasuna handituko ditu, eta zahartzaro baketsu eta zoriontsua lortuko ditu.

G. Alferkeria eta arduragabekeria bizioak al dira naturaren legean?

E. Bai, eta bizio guztietarik kaltegarrienak, gainontzeko guztietara baitaramate. Alferkeria eta arduragabekeria dela-eta mantentzen da gizakia ezjakin, jasotako zientzia ere ahazten du, eta ezjakintasunak eta eromenak dakartzan zorigaizto guztietan erortzen da; alferkeria eta arduragabekeria dela-eta gizakiak, ezinegonak janda, berau desagerrarazteko, bere zentzumenen desira guztietara abandonatzen du bere burua, eta, egunero desordenatuagoa bilakatzen delarik, kemenik gabea, tripontzia, lizuna, ahalkea, koldarra, bilaua eta negargarria bihurtzen da. Bizio horien eragin ziurrarekin bere aberastasunak xahutzen ditu, eta bere bizitza gaixotasunaren eta txirotasunaren agonia guztiekin amaitzen du.

G. Zuk diozunagatik badirudi txirotasuna bizioa dela.

E. Ez, ez da bizioa; baina gutxiago bertutea. Errazago kalte eragingo du probetxugarri bilakatu baino; normalean bizioaren ondorio edo hasiera, bizio indibidual orean ondorioek pobrezia baitaramate, eta bizitzako behar guztien gabetzera. Gizaki batek beharrezko dituen horiek ez dauzkanean, tentazio izaten ohi du modu biziotsuan

horiek erdiesteko, hau da, gizarteari iraingarria zaion modu batean. Aitzitik, bertute indibidual guztiek daramate gizaki bati bizibide opa-ro bat eskaintzera; eta kontsumitu dezakeena baino gehiago duenean, askoz errazago da beretzat gainontzeko pertsoneri zerbait ematea, eta gizartearentzat onuragarriak diren ekintzak egitea.

G. Oparotasuna bertutetzat daukazu?

E. Ez, baina are gutxiago biziotsat: aberastasunaren erabilera soilik dei daiteke bertutetsua ala biziotsua, gizakiari eta gizarteari erabilgarri ala kaltegarri zaion heinean. Aberastasuna instrumentu bat da, haren erabilerak soilik determinatzen du bertute ala bizio izatea.

## IX. KAPITULUA GARBITASUNARIBURUZ

G. Zergatik sartzen da garbitasuna bertuteen artean?

E. Egiazki, haietatik garrantzitsuenetakoa delako, osasunean eta gorputzaren mantentzean duen eragina boteretsua duen artean. Abandonatuak eta usteltzen dauden objektu guztiei darien hezetasunaren, kirats pozoitsuaren eta hats kutsakorren eragin kaltegarria ekiditen du garbitasunak, bai janzkeran zein etxean. Garbitasunak transpirazioa aske uzten du, airea berritzen du, odola freskatzen du eta burua ere alaitzen du.

Honetatik guztitik argi agertzen da euren etxean eta gorputzen garbitasunaz arduratzen direnak, orokorrean, ez daudela gaixotasunen menpe eta osasuntsuago direla, lohitasunean eta zikintasunean bizi diren horiek baino. Argi geratzen da, halaber, garbitasunak berekin daramatzala, etxeko administrazioaren atal guztietan, ordena eta antolakuntza ohiturak, zorionaren lehen elementu eta baliabide nagusi diren horiek.

G. Zikinkeria edo lohikeria, orduan, benetako bizioa al da?

E. Bai, mozkorkeria edo nagikeria –azken honetatik eratorria baita hein handi batean– bezain benetakoa. Lohikeria gaitz askoren bigarren kausa da, eta askotan lehena, baita desordena mingarri askorena ere. Izan ere, medizinan honakoak dakartza, elikagai kutsatu edo ustelduek beste: azkura, zahia, herpesa eta legenarra; izurriteen eta sukar gaiztoen hedatze kutsakorra faboratzen du, erietxe eta kartzeletan eragin ditzake halaber; erreumatismoa ere sortzen du, zikinkeria

azalean itsatsita geratzen denean transpirazioa eragotziz; aipatu gabe doa, intsektu kaltegarriek irentsi izatea –miseriarekin eta gaiztakeriarekin batera doazen gauza guztiak–.

Antzinako legegile gehienek, hortaz, garbitasuna –eurek purutasuna zeritzatena– euren erlijioetako dogmarik funtsezkoenetakoa kontsideratzen zuten. Arrazoi horregatik gizartetik botatzen zituzten, eta gorputzean zigorrak ezarri, garbitasun ezak eraginiko gaitzak zeuzkatenak; horregatik ezartzen eta kotsakratzen zituzten ikuzketa, bainu, bataiatze eta purifikatze zeremoniak, baita su eta intsentsu, mirra eta benjui bidezkoak ere, horrela poluzioen sistema osoak, gauza garbi ala zikinen errito guztiek, ordutik hona abusu eta aurreiritzietan endekatu direnek, jatorriz oinarria dute jantzi eta etxebizitzan garbitasunak osasun eta gorputzean –eta ondorio zuzen moduan adimeneari eta ahalmen moraletan– duen eraginaren gainean pertsona zuhur eta ikasiek eginiko behaketa zentzudunean.

Horrela bertute indibidual guztiek objektu dute –gutxi gorabehera zuzenean, gutxi gorabehera gertutik– horiek praktikatzeko dituen gizakiaren iraupena, eta gizabanako bakoitzaren iraupenarekin familia eta gizartearenera daramate, horiek gizabanakoen gehikuntzatik sortzen baitira.

## X. KAPITULUA ETXEKO BERTUTEEZ

G. Zer esan nahi duzu *etxe*ko bertute diotzunean?

E. Etxe berean bizi diren familia bati erabilgarriak zaizkion jardueren praktikak esan nahi dut.

G. Zeintzuk dira bertute horiek?

E. Honakoak dira: ekonomia, gurasoen maitasuna, seme-alaben maitasuna, ezkontideen arteko maitasuna, anai-arreben arteko maitasuna eta nagusi eta morroien eginkizunen betetzea.

G. Zer da ekonomia?

E. Hitzaren adierarik zabalenen arabera, familia edo etxe baten existentziari dagokion ororen administrakuntza egokia da; eta iraupenak berebiziko garrantzia duenez, *ekonomia* hitza dagokio bizitzako beharrentzat egiten den diruaren erabilpenari.

G. Zergatik da ekonomia bertute bat?

E. Alferrikako gastuak egiten ez dituen pertsonak soberakin bat erdietsiko duelako, benetako aberastasun den hori, eta horren bitartez beretzat eta bere familiarentzat lortuko du benetan egokia eta erabilgarria den edozer; aipatu gabe horrela segurtasuna izanen duela akzidentezko eta espero gabeko edozein galeraren aurrean, horrela, berak eta bere familiak bizibide gozo eta trabarik gabekoa izanen dute, giza zorionaren oinarri den hori.

G. Xahutzea eta emankortasuna, orduan, bizioak al dira?

E. Bai, horien bidez gizakia, azken finean, bizitzarako beharrezkoak diren gauzez gabetua baita; txirotasunean eta gabezia erortzen da; eta bere lagun minen ere, pentsatuta behartuak izanen direla haiekin edo haientzat gastatu duen guztia itzuli beharko diotela, ihes egingo diote, zordunak hartzekodunekin egiten duen moduan, eta mundu osoak abandonatzen du.

G. Zer da gurasoen maitasuna?

E. Haurrek eurentzat eta gizartearentzat erabilgarriak diren ekintzak egiteko ohitura har dezaten gurasoek hartzen duten arreta etengabea da.

G. Zergatik da gurasoen gozotasuna bertutea aita-amarengan?

E. Haurrak ohitura horietan hezten dituzten gurasoek eurek ere jasotzen baitituzte bizitzan atseginak eta laguntzak, une oro asebetetze argia ematen dutenak eta heldutasunean ziurtatzen dietenak zahartzeroak eragiten dituen behar eta kalamidade ororen aurkako laguntza eta kontsolamendua.

G. Gurasoen maitasuna bertute arrunta al da?

E. Ez, gurasoek arrandiaz agertzen duten arren, bertute ezohikoa da. Ez dituzte haurrak maite, haiei lastan egin eta alferrik galtzen dituzte. Haiengan soilik maite dute euren nahieraren betetzea izatea, euren boterearen instrumentu izatea, euren banitatearen garaikur, euren aisialdirako denbora-pasagarri. Ez da horrenbeste euren haurren ongizatea buruan daukatena, haien mendekotasuna eta obedientzia lain; eta seme-alaben artean hainbeste esker txarrekoak badirudite jasotako onurak direla eta, gurasoak ongigile despota eta ezjakinak dituztelako izanen da.

G. Zergatik diozu bertute dela ezkontideen arteko maitasuna?

E. Ezkondutakoen maitasunetik datorren gogaidetasunak eta elkartasunak familiaren bihotzean sendi horren onerako eta iraupenerako erabilgarriak diren ohitura andana ezartzen baitu. Bikote elkar-  
tuak etxeari atxiki eta gutxitan uzten du gune hori; etxeak eraman  
behar duen norabidea zuzentzen du; haurren hezkuntzari jaramon egi-  
ten dio; etxeko morroien errespetua eta fideltasuna lortzen du; desor-  
dena eta lasaieria oro ekiditen du; eta bikotearen jarrera ona dela  
medio, eroso eta elkarrenganako begiramenez bizi da. Aldiz, elkar  
maite ez duten ezkontideek euren etxea liskar eta arazoz betetzen dute,  
euren haurren eta morroien artean aurkakotasuna eragiten dute, horiek  
ohitura biziotsu ororen menpe uzten dituztelarik; denek euren aldetik  
etxea alferrik galtzen, osten eta arpilatzen dute; errentak mozkinik  
gabe xahutzen dira; zorrak pilatzen dira; ezkontideek elkarri ihes egi-  
ten diete, edo epaiketetan aurka egiten diete; eta familia osoa desor-  
denan, hondamendian, zoritxarrean eta beharrean erortzen da.

G. Adulterioa naturaren legean hobena al da?

E. Bai; ezkontideentzat eta euren sendientzat kaltegarriak diren  
zenbait ohitura dakartzalako harekin batera. Afektua galtzen duten  
senarrek edo emazteek ez dute etxeaz ardura hartzen, ihes egiten dio-  
te, eta –ahal duten guztia– bere diru sarrerak edo errentak xahutzen  
dituzte, euren afektuaren objektu denarekin gastatzeko; hortik sortzen  
dira liskarrak, eskandalua, epaiketak, euren haur eta morroiei jaramo-  
nik ez egitea, eta, azkenik, familia osoaren hondamendia eta arpila-  
tzea; aipatu gabe emakume adulteriogileak lapurretarik kaltegarriena  
egiten duela, bere senarrari odol arrotzeko jaraunsleak emanez, bene-  
tako hurrei dagokien zati legitimoa kenduz.

G. Zer da seme-alaben maitasuna?

E. Seme-alabei dagokienez, eurentzat eta euren gurasoentzat  
erabilgarriak diren jardueren praktika da.

G. Nola preskribatzen du naturaren legeak seme-alaben maita-  
suna?

E. Hiru bide ezberdinen bidez:

1. Sentimenduaren bidez; gurasoen ardura amultsuak, adinik  
txikienetatik ere, atxikimendu ohitura gozoak eragiten baititu.

2. Justiziaren bidez; hurrek euren gurasoei eraginiko arduragatik, baita gastuak direla eta, ordaina zor baitiete.

3. Interes pertsonala dela eta; hurrei tratu txarra ematen badiete, haiei errebolta eta esker txarreko etsenplua ematen baitiete, horrek etorkizunean baimena ematen dielarik modu berean jarduteko.

G. *Seme-alaben maitasuna* adierarekin mendekotasun pasibo eta itsua esan nahi al dugu?

E. Ez; mendekotasun zentzuzkoa, haurren eta gurasoen eskubide eta betebeharren ezagutzan oinarritzen dena; eskubide eta betebeharr horiek konplitzen ez direlarik, elkarren arteko jokaera ez da desordena baizik.

G. Zergatik da bertute anai-arreba arteko maitasuna?

E. Anai-arreben arteko maitasunetik sortzen diren gogaidetasunak eta elkartasunak eragiten dutelako familiaren indarra, segurtasuna eta iraupena: elkarturik diren anai-arrebek zapalkuntza orotatik defenditzen dute elkar, euren beharretan elkarri laguntzen diote, euren zorigaiztoan elkarri laguntzen diote, eta horrela guztien existentzia amankomuna iraunarazten dute; aldiz, elkartuta ez dauden anai-arrebak –bakoitza norberak daukan indarrerara abandonatuta– egoera isolatu bati eta ahultasun indibidualari jarraitzen dizkieten gaitz guztien menpe daude. Hau da errege eszitiar batek zoliki adierazi zuena, ohean hiltzorian zelarik, bere semeak deituta, eskatu zienean gezi sorta bat hausteko. Gazteak, indartsuak ziren arren, ez ziren gai izan hausteko, orduan, erregeak sorta askatu, geziak banan bana hartu, eta atzamarrerekin hautsi zituen. «Begira», esan zien, «elkartasunaren efektua; batera egiten baduzue, garaiezinak izanen zarete; bakoitza bere alde-tik, suntsituak izanen zarete, ihiak hausten diren legez».

G. Zeintzuk dira nagusiek eta morroiek elkarrenganako dituzten betebeharrak?

E. Bakoitzari zuzenki erabilgarri zaizkion jardueren praktika da; eta hor hasten dira gizartearen harremanak; elkarrenganako ekin-tza horien araudia eta neurria zerbitzuaren eta ordainsariaren oreka edo berdintasuna baita, bata ematen duenaren eta besteak jasotzen duenaren artekoa; hori baita gizartearen funtsezko oinarria.

Hortaz, gizabanakoen zein etxeko bertute guztiak –gutxi gora-behera modu zuzenean, baina beti ziurtasunez– erlazionatuta daude



gizakiaren hobekuntzaren eta iraupenaren objektu fisikoarekin, eta, beraz, euren sorreran naturaren lege oinarritzotik datozen arauak dira.

## XI. KAPITULUA BERTUTE SOZIALAK; JUSTIZIA

G. Zer da gizartea?

E. Kontratu adierazi edo adierazi gabeko klausulen arabera elkarrekin bizi diren gizakien elkarketa oro da, horrek helburu duela-rik guztion iraupena.

G. Bertute sozialak asko al dira?

E. Bai, gizarteari erabilgarri zaizkion jarduera motak lain dira; baina guztiak ere printzipio batean bil daitezke.

G. Zein da oinarritzko printzipio hori?

E. Justizia da, bakarrik ere gizartearen bertute guztiak barne dauzkana.

G. Zergatik diozu justizia dela gizarteko bertute oinarritzkoa eta ia bakarra?

E. Hark bakarrik gizarteari erabilgarriak zaizkion jarduera guztien praktika biltzen duelako; beste bertute guztiak, karitatea, gizatasuna, prestutasuna, norbere herrialdea maitatzea, zintzotasuna, esku-zabaltasuna, jarreran sinpletasuna, apaltasuna, eta abar, honako axiomaren forma aldagarriak eta aplikazio anitzak dira: «ez egin beste bati zuri egitea gustatuko ez litzaizukeena», eta hori justiziaren definizioa da.

G. Nola preskribatzen du naturaren legeak justizia?

E. Hiru nolakotasun fisikoren bidez, gizakiaren antolakuntzak berezko dituenak.

G. Zeintzuk dira nolakotasun horiek?

E. Berdintasuna, askatasuna eta jabegoa dira.

G. Nola da berdintasuna gizakiaren nolakotasun fisikoa?

E. Gizaki guztiek, berdin dauzkatenez begiak, eskuak, ahoak, belarriak, eta, bizitzeko, horiek erabiltzeko beharra, horregatik beragatik, eskubide bera dute bizitzarako, eta berau iraunarazten duten elikagaiak erabiltzeko; denak dira berdin Jainkoaren begietan.

G. Esan nahi duzu gizaki guztiek berdin entzuten dutela, berdin ikusi, berdin sentitu, behar berdinak eta pasio berdinak dituztela?

E. Ez; gauza argia da, eta egunero frogatua, bata begi luzea eta bestea motza dela; batek asko jaten duela, besteak gutxi; bata apala dela, besteak pasio indartsuak dauzkala; hitz batean, bata ahula dela gorputz eta adimenean, bestea, aldiz, bietan ere indartsua delarik.

G. Hortaz, ezberdinak al dira benetan?

E. Bai, euren baliabideen garapenean, baina ez baliabide horien naturan eta esentzian. Material beraz eginak dira, baina ez dimentsio beretan; ez dira haien pisua eta balioa berdinak ere. Gure hizkuntzak ez du hitzik adierazteko naturaren identitatea, eta bere forma eta erabileraren aniztasuna. Berdintasun proportzionala da; eta arrazoi horregatik esan dut «Jainkoaren aurrean eta naturaren ordenan berdinak».

G. Nola da askatasuna gizakiaren nolakotasun fisikoa?

E. Gizaki guztiak, euren iraupenerako zentzumen nahikoak dituztelarik –inork ez duelarik besteren begirik ikusteko, hankak ibiltzeko–, guztiak direlako, arrazoi horregatik beragatik, independente eta aske sortuak; inor ez da halabeharrez beste baten menpekoa, eta hark ez du beste bat dominatzeko eskubiderik.

G. Baina gizakia indartsua jaio bada, ez al dauka eskubidea gizaki ahularengan agintzeko?

E. Ez; ez baita ez beretzat halabeharrezko zerbaite, ez eta bien arteko konbentzio bat ere; bere indarraren luzapen abusuzkoa da; eta hemen *eskubide* hitzaz abusu egiten da, berorren benetako zentzuan *justizia* edo *elkarrekiko ahalmena* dakar berarekin.

G. Nola da jabegoa gizakiaren nolakotasun fisikoa?

E. Gizaki guztiak berdinak edo elkarren antzekoak eratuak eta, hortaz, independente eta aske direlarik, bakoitza bere gorputzaren eta lan jardunaren ekoizpenaren jabe osoa den heinean.

G. Nola eratortzen da justizia hiru nolakotasun horietatik?

E. Honakoan: gizakiak berdinak eta aske direlarik, batak beste-ari ezer zor ez diolarik, ez dute eskubiderik batak besteari ezer eskatzeko, gauza baten balio bera duen zerbaite itzultzen duten artean; edo ematen denaren eta itzultzen denaren arteko oreka mantentzen den artean. Berdintasun edo oreka hori justizia, ekitatea<sup>108</sup>, deitzen da, hau

da, berdintasuna eta justizia hitz bakarra eta bera dira, naturaren legea bera, berorren aplikazioak eta eratorpenak dira bertute sozial guztiak.

## XII. KAPITULUA BERTUTE SOZIALEN GARAPENA

G. Azal ezazu nola garatzen diren bertute sozialak naturaren legetik abiatuta. Nolatan da karitatea edo norbere auzokidearenganako maitasuna haren manua edo aplikazioa?

E. Berdintasuna eta elkarrekikotasuna dela medio; norbait zauritzen dugunean, hari bueltan gu zauritzeko eskubidea ematen diogu; hortaz, gure auzokidearen existentziari eraso eginez, gurea arriskuan jartzen dugu, elkarrekikotasunaren efektua dela eta; bestalde, besteei ona eginez, badaukagu esperantza eta eskubidea bueltan berdina den zerbait jasotzeko. Halakoa da bertute sozial guztien izaera, praktikatzen duten pertsonentzat erabilgarria da, onura jasotzen dutenenengandik elkarrekikotasun eskubidea dela-eta onura espero baitaiteke.

G. Karitatea, orduan, ez da justizia baizik?

E. Ez: justizia da; diferentzia xume honekin, justiziak zentsu hertsian nahikoa du esatearekin, «ez egin besteri zuretzat nahi ez duzun kalterik», eta karitatea, edo auzokidearenganako maitasuna haratago doa eta ondokoa dio, «egin iezaiozu besteri zuri harengandik jasotzea nahi zenukeen onura». Hortaz, ebanjelioak dioenean arau horrek barne dituela lege osoa, bai eta profetak ere, ez du aldarrikatzen naturaren legea baino.

G. Zaurien barkamena inposatzen al du?

E. Bai, barkamenak norbere iraupena esan nahi duenean.

G. Agintzen al digu, belarrondokoa jaso ondoren, beste masaila jartzea?

E. Ez; lehenik eta behin, gure auzokidea gu lain maitatzeko arauarekiko aurkakoa delako, modu horretan gu geu baino gehiago maitatuko baikenuke gure iraupenari eraso egiten dion hori. Bigarrenik, halako arau batek, bere zentzu literalean, adore ematen die gaiztoei zapalkuntzarekin eta justizia ezarekin jarrai dezaten. Naturaren legea zuhurragoa izan da preskribatzerakoan adore eta moderazio portzio neurriduna, eramaten gaituena lehen edo aurrez pentsaturiko

hobena barkatzera, baina zapalkuntzara daraman ekintza oro zigortzen duena.

G. Preskribatzen al du naturaren legeak gainontzeko pertsonen on egitea arrazoiaren eta neurriaren mugetatik haratago?

E. Ez; haiek esker txarrekoak izatera baizik ez darama. Giza-kiaren bihotzean sentimenduaren eta justiziaren indarra hain da handia, diskreziorik gabe eskainitako onurengatik ez baita esker onekoa ere. Onurokin neurri bakarra dago: zuzenak izatea.

G. Limosna ematea ekintza bertutetsua al da?

E. Bai, lehenago aipatu den arauaren arabera egiten denean; hura jarraitu gabe arinkerian eta bizioan endekatzen da, alferkeria sustatzen baitu, berau kaltegarria delarik eskalearentzat eta gizartearentzat. Inork ez dauka besteren lan jardunaren fruitua kontsumitzeko eskubiderik, ez bada bere lanak emandako baliokideren bat bueltan itzultzen duela.

G. Naturaren legeak bertutetzat al dauzka fedea eta esperantza, sarri karitatearekin batera datozen horiek?

E. Ez; errealitatearik gabeko ideiak baitira; eta haiengandik ondorioz badator, normalean ideia horiek ez dituztenen onerako –eta ez badauzkaten horientzat– izaten ohi da. Hortaz, fedea eta esperantza inuzenteen bertuteak dira pikaroen onerako.

G. Preskribatzen al du naturaren legeak prestutasuna?

E. Bai, prestutasuna ez baita norberaren eskubideen errespetua baizik, besteengan oinarriturik, gainontzeko pertsonen interesekin erkatzerakoan kalkulu zuhur eta ongi konbinatua egitean, geure interesetik errespetua.

G. Baina ez al du kalkulu horrek –gizarte egoerako interes eta eskubideak barne dituen– eskatzen ulermen eta ezagutza argi bat, hortaz zientzia zaila egiten duelarik?

E. Bai, eta hainbat eta zientzia delikatuagoa, pertsona zintzoak bere kausaren kontu hartzen duen heinean.

G. Prestutasunak, hortaz, luzatze bat eta justizia al ditu kontuan?

E. Bai, pertsona zintzoak beti alde batera uzten baitu uneko interesa, ez kaltetzearen etorkizuneko; aldiz, arloak alderantziz-

koa egiten du, eta etorkizuneko interes handia uneko txikiago baten ordeztaltzen du.

G. Prestutasun eza, hortaz, juzgu oker baten eta adimen txarrraren zeinu al da?

E. Bai, eta pikaroak kalkulatzaila ergel eta ezjakinak kontsidera daitezke; ez baitute euren benetako interesa ulertzen, eta zoli direlakoan daude. Dena den, euren zolitasuna soilik datza zer diren jakinaraztean –konfiantza eta estimu osoa galtzean, baita euren existentzia fisiko eta sozialetik letorkiekeen zerbitzu onaren galtzean ere–. Ez dira gainontzeko pertsonekin bakean bizi, ezta euren buruekin ere; une oro euren kontzientziak eta arerioek mehatxatuta, ez dute benetako zorionik, ez bada urkatuak ez izatearena.

G. Lapurreta egitea debekatzen al du naturaren legeak?

E. Bai, beste pertsona bati lapurreta egiten dion pertsonak besteak hura lapurtzea zilegi egiten baitu; une horretatik aurrera ez dago bere jabegoan segurtasunik, ezta bere iraupenerako baliabideetan ere: besteak kaltetzerakoan, hark bueltan norbera kaltetzen du.

G. Lapurretarako joera ere debekatzen al du?

E. Bai, joerak naturalki ekintzara baitarama, eta hori dela-eta bekaizkeria bekatua kontsideratzen da.

G. Nola debekatzen du erailketa?

E. Norbere iraupenaren arrazoi indartsuenak direla eta; lehenik, eraso egiten duen pertsonak bere burua hila izateko arriskuan ezartzen baitu, defentsarako dagoen eskubideagatik; bigarren, pertsona batek bestea erailtzen badu, hildakoarekin harreman dutenei eta lagunei, eta gizarteari orokorrean, hura hiltzeko eskubide berdina ematen die; hortaz, bere bizitza ez da inoiz seguru izanen.

G. Nola, naturaren legearen arabera, konpon dezakegu eginiko kaltea?

E. Kaltetu diegunein proportziozko onura emanez.

G. Jainkoari otoitz, juramendu, eskaintza, barau edo mortifikazio bidez konpontzeko aukera ematen al digu naturaren legeak?

E. Ez: gauza horiek guztiak konpondu nahi dugun ekintzarekin arrotz baitira. Ez diote idia itzuliko lapurtu izan zaionari, ohorea itzuliko kendu izan zaion horri, ezta bizia hura gabe utzi izan zaiona-

ri; beraz, justiziaren xedea galtzen da. Kontratu zitalak dira, horien bidez pertsona batek beste bati saltzen dio berea ez dena; moralitatearen ustelkeria hutsak dira, krimenak egitera bultzatzen baitute, horiek garbitzeko esperantza dagoelakoan; hortaz, garbiketa praktika horiek erabili izan dituzten pertsona horiek etengabe tormentatu izan dituzten gaitzen benetako kausa dira.

G. Naturaren legeak zintzotasuna agintzen al du?

E. Bai; gezur esateak, saldukeriak eta zinausteak mesfidantza, liskarrak, gorrotoa, mendekua eta gaitz mordoa eragiten baitituzte gizakien artean, euren suntsipenera daramatelarik; aldiz, zintzotasunak eta fideltasunak konfiantza, gogaidetasuna eta bakea dakartzate, gizartean halako egoera batek eragiten duen on infinitua aipatu gabe.

G. Apaltasuna eta xalotasuna preskribatzen al ditu?

E. Bai; zatarkeriak eta burugogorkeriak, gainontzeko pertsonen bihotzetik aldentzen gaituztelarik, haiengan gu zauritzeko joera pizten du; nabarmenkeriak eta handikeriak, haien norberarenganako maitasuna zaurituz eta bekaizkeria piztuz, benetako erabilgarritasunaren xedea galtzea eragiten du.

G. Umiltasuna bertutetzat al dauka?

E. Ez; ahultasun ideia adierazten duen oro sekretuki mespretxatzeko giza bihotzak duen joera baita; eta norbere burua makurtzekak besteengan harrotasuna eta zapalkuntza sustatzen baititu. Balantza egonkor mantendu behar da.

G. Jokabidean sinpletasuna bertute sozialtzat daukazu; zer esan nahi duzu hitz horiekin?

E. Esan nahi dut hiritar baten eta bere familiaren existentziarako benetan erabilgarria denerako mugatzea beharrak eta desirak; hau da, bizimodu sinpleko pertsona batek behar gutxi dauzka, eta pozik bizi da gutxiarekin.

G. Nola preskribatzen zaigu bertute hori?

E. Bere praktikak gizabanakoari eta gizarteari dakartzkien abantaila ugarien bidez; behar gutxiko pertsona aldi berean libre dago ardura, nahasmendu eta lan saldoaz; liskar eta norgehiagoka asko ekiditen ditu irabazi irriketatik eta desiratik datozenak; ez du izanen askonahiaren ezinegonik, jabetzaren ardurarik, galeren beldurrik; leku orotan funsgabekeria dakusalarik, bera da benetan aberatsa; daukana-

rekin beti pozik, zoriontsua da gastu handirik gabe; eta beste pertsona batzuek, harengandik lehiarik ez dutenez espero, bakean uzten dute, eta beharrezko izan litzakeen zerbitzuak emateko prest daude. Eta sinpletasunaren bertute hori pertsona talde batengan hedatzen bada, eurentzat oparotasuna segurtatuko dute; kontsumitzen ez duten guztian aberats, trukerako eta merkataritzarako baliabide ugariak lortuko dituzte; besteek baino prezio txikiagoan lan eta ekoiztuko dute, eta arrakasta handia erdietsiko dute, bai etxean zein atzerrian.

G. Zein da bertute honen aurkako bizioa?

E. Kodizia eta luxua.

G. Luxua bizioa al da gizabanakoan eta gizartean?

E. Bai, eta hain maila handian, beste guztiak barne dituela esan ahal baita. Gauza askoren beharrean den gizakiak bere buruarengan ezinegon osoa inposatzen du, eta haiek eskuratzeko baliabide orotara –zuzenetara ala okerretara– jotzen du. Atsegin bat duela, beste bat desiratuko du; eta oparotasunaren magalean, ez da inoiz aberats; etxebizitza eroso bat ez da beretzat nahikoa, hotel eder bat eduki nahi du; mahai oparoarekin pozik ez delarik, elikagai garesti eta arraroak eduki behar ditu; sekulako altzariak eduki behar ditu, jantzi garestiak, eta zerbitzari, zaldi, gurdi, emakume, antzezpen eta jolas saldoa. Alabaina, horrenbeste gasturako, diru mordoa eduki behar da, eta hori lortzeko metodo orotara joko du ona eta beharrezkoa balitz bezala; lehenik maileguz hartuko du, beranduago ostu, ebatsi, arpilatu, sosik gabe geratu, jende guztiarekin liskarretan hasi, kalteak eragin eta porrot egingo du.

Nazio batek, luxuan eroriko balitz, eskala handiago batean eragingo litzuke suntsipen berak; bere ekoizpen osoa kontsumituko duen arren, abundantzian ere txiro aurkituko du bere burua; ez dauka ezer atzerritarrei saltzeko; ekoizpenak gastu handikoak dira, eta garesti saldutakoak; inportatzen duen oro dela-eta zordun bilakatzen da; kanpora begira, norbere ospari, botereari, indarrari eta defentsa zein irautpen baliabideei kalte egiten die, barnera begira, bere porrota eta kideen disoluzioa eragiten ditu. Hiritar guztiek atseginak desiratzen dituztelarik, horiek lortzeko lehia etengabea dute; guztiek zauritzen edo ia zauritzen dituzte euren buruak. Hortik sortzen dira usurpazio ekintza eta ohiturak, horiek osatzen dutelarik ustelkeria morala deritzana: hiritarren arteko barne-borrokak. Luxutik sortzen da irrika, irrikatik

indarkeriazko eta saldukeriazko inbasioa; luxutik dator epailearen bidegabekeria, lekukoak erostea, senarraren lizunkoitasuna, emaztearen prostituzioa, gurasoen burugogortasuna, seme-alaben eskergabekeria, nagusiaren zekenkeria, zerbitzariaren zintzotasun eza, administariaren xahutzea, legegilearen doilorkeria, gezurra, saldukeria, zinaustea, erailketa, eta gizarte egoerako desordena guztiak. Hortaz, egiaren zentzu sakonarekin, antzinako moralistek bertute sozialen oinarria bizimoduaren sinpletasunean ezarri zuten, gutxiarekin konformatzean; eta pertsona baten bertute eta bizioen hedadura ezagutzeko modu seguru bat da bere gastuak bere aberastasunaren arabera diren ikustea, eta kalkulatzeko, bere diru beharragatik, bere zintzotasuna, eta hitz emana duenak betetzeko orduan duen zuzentasuna, on publikoarekiko duen debozioa, eta bere herriarekiko duen maitasuna benetakoak edo faltsuak diren.

G. Zer esan nahi duzu *herria* diozuenean?

E. Esan nahi dut hiritarren komunitatea. Anaitasunezko sentimenduek eta elkarrekiko dituzten beharrek elkartuta, bertan kide bakoitzaren indarrak bildurik indar amankomun bakarra egiten da, indar horren erreakzioak kide bakoitzarengan aitatasunaren izaera noble eta onuragarria hartzen duelarik. Gizartean, hiritarrek interes banku bat osatzen dute; gure herrialdean adiskidetasun lotura maitagarriko familia osatzen dugu; karitatea, auzokidearenganako maitasuna da, nazio osora zabaltzen dena. Alabaina, karitatea ezin denez bereizi justiziatik, familia horretako kide batek ere ezin ditzake haren abantailak goza, ez bada eginiko lanaren arabera. Ekoizten duena baino gehiago kontsumitzen badu, halabeharrez bere kide diren hiritarrei usurpazio egiten die; eta ekoizten duena edo daukana baino gutxiago kontsumituz soilik ahal izanen du sakrifizioak egin eta eskuzabal izan.

G. Zein da hortik guztitik ateratzen duzun ondorioa?

E. Hortik guztitik ondorioztatzen dut bertute sozial guztiak direla horiek praktikatzeko dituzten gizarteari eta gizabanakoari erabilgarriak zaizkion jarduera ohiturak soilik. Giza iraupenaren objektu fisikoari erreferentzia egiten diotela. Naturak gudan iraupen nahia ezarri duelarik, lege bat ezarri digula ondorio guztiekin, eta krimena dela handik aldentzen den oro. Gudan daramagula bertute ororen eta perfekzio ororen hazia; garatua izatea baino ez zaiola falta. Soilik zoriontsu garelako naturak gure iraupenaren xederako ezarritako legeak



errespetatuz gero. Eta zuhurtasun oro, perfekzio oro, lege oro, bertute oro, filosofia oro, gure antolakuntzan oinarritzen diren honako axiometan datzala:

Zain eta hez ezazu zeure burua; modera zaitez; bizi zure kide hiritarrentzat, haiek zuretzat bizi daitezen.



2. irudiak





# Oharrak

## TESTUKO ZENBAIT PASARTE ARGITZEKO ETA AUTORITATE MODUAN BALIO DUTENAK

<sup>1</sup> (*Serikako haria*) Hau da, *zeta*, *harresi handia* bukatzen den herrialde menditsuan jatorria duena; dirudenez bertan izan zuen sorburua txinatar inperioak, eta latindarrek *Regio-Serarum* edo *Serika* deitu ziotela dirudi.

<sup>2</sup> (*Katxemirako ehun leunak*) Hau da, Ezekielek, gure aroa baino bost mende lehenago, *xud-xud* izenaz aipatzen omen dituenak.

<sup>3</sup> Josefo eta Estrabonen kalkuluen arabera, Siriak hamar bat milioi biztanle zeuzkan, egun ez ditu bi ere.

<sup>4</sup> Patua da ekialdeko jendearen aurreiritzi orokorra eta oso errotua: HALA IDATZIA DAGO da orotarako duten erantzuna; handik sortzen da euren nagikeria eta axolagabekeria, horiek erabateko oztopo direlarik hezkuntza eta zibilizazio orotarako.

<sup>5</sup> Afrika hain zuzen.

<sup>6</sup> Mediterraneo.

<sup>7</sup> (*aski ezaguna den Indiar penintsula*) Zer onura ekarri dio Indiako merkataritzak, luxuzko objektuena

denak, nazioaren gehiengoari? Zeintzuk dira haren ondorioak, ez bada esportatzea –gizakitan kostu handia duen flota baten bidez– beharrezkoak eta erabilgarriak diren materialak, inportatzeko balio ez duten jeneroak, ez dutenak balio ez bada aberatsen eta txiroen artekoa ezberdintasuna azpimarratzeko? Eta zenbat ez ote dio gaineratu Indiako superstizioak superstizio orokorrari?

<sup>8</sup> (*ehun jauregiko Tebasi*) Egiptorako frantziar espedizioak frogatu du Tebasek, Niloren bazter bietan lauzpabost hiritan banatzen zenak, ezin izan zituela Homerok aipatzen dituen ehun ateak eduki (*ikus bedi*. Egiptoko komisioren II. Liburukia). Sizi-liako Diodoro historialariak jada azaldu zuen huts honen arrazoia, konturatu baitzen mendebaldean *ate* adierak, *jauregi* ere esan nahi zuela (sarrera beti atarte publiko batek osatzen baitzuen), eta autore honek badirudi greziar tradizio horren kausa topatu zuela, gaineratzen baitu «Tebasetik Menfisera, existitu izan ziren ibaiaren luzeran ehun erret zalditegi itzel, oraindik ere haien aurriak ikus baitaitezke, bakoitzak berrehun zaldi zeuzkalarik (monarkaren zerbitzurako)»: kopuru hori

Homerorena da zehaztasun osoz. (Ikus bedi *Diodoro Sikulo*, liv. I, sect. II., *S. Egiptoko lehen errege-erreginei buruzkoa*.) Etiopiar izena, hemen *tebastarrei* aplikatzen zaiena, Homeroren adibideak justifikatzen du, bai eta herri horien azal benetan beltzak ere. Herodotoren adierazpenak, esaten baitu *egiptoarrek azal beltza eta ile kizkurra* dutela, piramideetako esfingeak legez, beharbada sinestarazi dio *Voyage en Syriren egileari* antzinako herri hori arraza beltzekoa zela; alabaina, espedizio frantsesek, momien eta zizelkaturiko buruen gainean ikertu dutenek, ideia hori ezeztatzen dute. Bidaariak –otzan, datuek ematen duten irakaspenekin– alde batera utzi du bere iritzi propioa, baita beste zenbait iritzi ere –hogeita bost urte zeuzkalarik– memoria kronologiko batean ezarri zituenak, zoritxarrez leku bat betetzen dutenak Entziklopedian (4., III. liburukia, *Antzinatea*). Esperientziak eta ikerketek eman diote puntu horiek zuzentzeko meritua, azken obra batean, (1814-1815.ean Parisen argitaratua, *Recherches nouvelles sur l'Histoire ancienne*, 2 bol. 8; *ikus bedi* II. Liburukia, *egiptoarrei buruzkoa*).

<sup>9</sup> (*hor ziren idumenearen itsas portuak*) Ailah eta Atsiom Gaber herriak, bertatik Salomonen juduak, *Hiramgo tiriarrek* lagunduta, abiatu ziren *Ofirerantz*: leku ezezaguna, hari buruz hainbat idatzi dena, baina badirudi haren traza utzi duela *Oforren*, Persiar golkoko sarreran den kantoi arabiarrean (*ikus bedi* gainon inguruan *Recherches nouvelles*, lehenago aipaturikoa, I. liburu-

kia, eta *Voyage en Syrie*, II. Liburukia.)

<sup>10</sup> *Ikus bidez Voyage en Syrie*, II. atala, eta *Recherches nouvelles sur l'Histoire ancienne*, II. atala.

<sup>11</sup> (*Horrela, gizaki bat bestea baino indartsuagoa zenez, desberdintasun hori, naturan akzidentala dena, lege bilakatu zen*) Ia antzinako filosofo eta politiko guztiek printzipio eta dogma bihurtu dute, *gizakiak ezberdinak direla jaiotzez; naturak batzuk sortu dituela libre izateko, besteak esklabo izateko*. Adierazpen horiek Aristotelesengan topa daitezke bere *Politikan*, eta Platonengan, honi *dibino* zeritzoten, zalantzarik gabe hari zor zaizkion ameskeria mitologikoen zentzu horrekin. *Indartsuenaren eskubidea herrien eskubidea* izan zen antzinako herri guztietan, galia, erromatar, atenastar, eta abarretan; eta hortik sortzen dira nazioetako desordena politiko eta krimen publiko guztiak.

<sup>12</sup> (*despotismo paternalak despotismo politikoaren oinarriak ezarri zituen*) Zer da familia? Nazio deritzan gorputz handi horren *zati* oinarritzkoa da. Gorputz handi horren espiritua ez da zatien gehikuntza baidzik; nolakoak familiaren ohiturak, halakoak osotasunarenak. Asiako bizio handiak honakoak dira: 1. *despotismo* paternala; 2. poligamiak, etxe osoa desmoralitzen duenak, eragiten du errege eta printzeen artean, ondorengotza bakoitzean, anai arteko triskantza, eta herriaren hondamendia, erregeek semeen artean lurrak partitzerakoan; 3. ondasun higiezinaren jabego eza, despotak beretzat hartzen duen eskubide tira-

nikoa dela eta; 4. haurren artean banaketan berdintasunik eza; 5. jaraunsterakoan gehiegizko eskumena; 6. jaraunspenean emakumeekin egiten den bazterketa. Alda itzazue legeak, aldatuko duzue Asia.

<sup>13</sup> (*bestetik, boterea esku bakar batean kontzentratzen delarik, estatu eta gizartearen absortzioa dakarrela*) Oso azpimarragarria da gizartearen martxa konstantea norabide horretakoa dela, guztiak egoera anarkiko edo *demokratiko* batean hasten direlarik, hau da, botereen banaketa handiarekin, ondoren *aristokraziara* igarotzen dira, eta aristokraziatik monarkiara. Gertakizun historiko honetatik dator *forma demokratikoa duten estatuak* sortzen dituztenek *monarkian* jasaten diren arazo guztiak pairarazten dietela estatu horiei; baina beharrezkoa litzateke frogatzea *esperientzia sozialak* agortuak direla gizateriarentzat, eta mugimendu espontaneo hori ez dela haien ezjakintasunaren eta ohituren ondorioa baino.

<sup>14</sup> (*Erlijioaren aitzakiarekin, tenpluak eratuko ditu haien urguiluak, apaiz nagiez bete zituen, eskeleto hutsalenzat hilobi bitxiak, mausoleoak eta piramideak eraikiko ditu*) Dupuis jakintsuak ezin zuen sinetsi piramideak hilobiak zirenik; baina, historialariek ematen duten lekukotasun positibotik aparte, irakur bedi Diodorok dioena egiptoarrak bere *egoitza eternala* eraikitzeari ematen zion garrantzi erlijiozko eta superstiziozkoaz, (I. lib.):

«Hogeï urtez», dio Herodotok, «ehun mila gizonek egunero lan egin zuten *Keops* errege egiptoarraren

piramidea eraikitzeko». *Sabbata* dela-eta urteari hirurehun egun ematen badizkiogu, urte batean 30 milioi egunsari dira, 600 milioi jornal hogeï urtetan; 15 zentimo eguneko, horrek ematen du 450 milioi frankoko gale-  
ra, ondorengo produkturik gabe –Kopuru horrekin errege horrek berak Suezko istmoa itxi izan balu Txinakoa lako *murru handi* batekin, Egiptoren Patua beste bat zatekeen; atzerriko inbasioak geldituak, suntsituak, zitezkeen, eta basamortuko arabiarrek ez zuten herrialdea ez konkistatu ez laidoztatuko—. *Lan antzua!* Zenbat milioi xahutu ote dira *tenpluak* eta *elizak* eraikitzeko harri bat bestearen gainean jartzen. Alkimistek *harriak urre* bihurtzen dituzte, arkitektoek urrea harri. Zoriturakoak erregeak (baita burgesak ere) euren diru-zorroa bi klase enp-  
rriko horiei eskaintzen dietenak!

<sup>15</sup> «Jainkoa bakarra da, eta Mahoma da haren profeta.»

<sup>16</sup> (*misteriotsuki Aum hitza ahoska-tzea*) Hitz hau, esanahiagatik, baita soinuagatik ere, antza du latindarren *Aeuumekin* (æum), (*eternitatea, mugarik gabeko denbora*). Indiarren arabera, hitz hori hiru alderdiko dibinitatearen ikurra da: Ak *Brahma* ordezkatzan du (iragandako denbora, sortu duena); *Uk Vishnu* (orainaldia, kontserbatzen duena); *Mak Shi-va* (etorkizuneko garaia, suntsituko duena).

<sup>17</sup> (*ukalondoetatik ala hatz muturre-tatik hasi behar duen*) Hori da Omarren eta Aliren jarraitzaileen zisma puntu handienetako bat. Demagun bi musulman bidaian direla, eta elkarrekin bat egiten dutela anaitasunez;

iristen da otoitz egiteko ordua, batak ikuzketa hatz muturretatik hasten du, besteak ukalondotik, eta hara nola bilakatzen diren hiltzeraino arerio. Beste herrialde batzuetan norbaitek jaki bat egun batean eta ez bestean jan nahi izateak, hemen haserre oihua piztuko du. Zer izen eman behar zaie erokeria horiei?

<sup>18</sup> (*oguziarren horda*) Turkiarrek euren buruzagiaren Otoman I.aren izena hartu baino lehen, *oguziar* zeritzaten. Izendadura hori zutelarik bota zituen Tatariatik Gengisek; orduan, *Gihungo* bazterretik Anatoliara etorri ziren bizitzera.

<sup>19</sup> (*herrietan elkarren arteko lapurreta ozarra, gerra basati eta gorroto bihozgabeak [gupidagabeak] ematen zirela*) Irakur bitez Erromaren eta Kartagoren, Espartaren eta Mesenaren, Atenasen eta Sirakusaren, hebrearren eta feniziarren arteko guden historiak; eta hara antzinateak finentzat dauzkanak zertan diren!

<sup>20</sup> (*Txinatarra, banbuaren edo makilaren despotismoaren menpe*) Jesuitak saiatu izan dira gobernu txinatarra kolore ederrekin deskribatzen; egun esaten dute ekialdeko despotismo hutsa dela (gaizki eraikiriko hizkuntza baten akatsek zein, batez ere, idazkerak oztipoa jartzen dutelarik). Herri txinatarra guretzat frogatzen da antzinatean, idazkera alfabetikoa baino lehen, giza espirituak adierazteko neke handia hartu behar zuela; zifra arabiarrek baino lehen, kontatzea zailtasun handikoa zen moduan. Dena da metodoen arabera: ez da Txina aldatuko, ez bada hango hizkuntza aldatzen.

<sup>21</sup> (*aitor ezazu autoritate legitimoa*) *Legitimo* adieraren zentzua balora-

tzeko, beharrezkoa da azpimarratzea latinezko *legi-intimus*, *legeari intrinseko edo bere-berea*, legean bertan idatzia. Hortaz, legea *printzeak soilik* egin izan badu, printzeak horrela bere kabuz norbera egiten du legitimo: orduan despota purua da; bere borondatea da *legea*. Ez da hori guk esan nahi duguna: eskubide bera hartuko baitu hura botatzen duen edozein boterek. Zer da *legea* (zuzenbi-dearen sorburua)? Latinak esango digu ostera ere: *leg-ere* sustraiak, irakurrik, *lectiok*, eman du *lex*, *res lecta*, *irakurririko gaia*. Irakurririko gai hori *ekintza jakin bat egiteko edo ez egiteko manua da*, eta horrek, manua *betez gero* ala *hautsiz gero*, badakar saria ala zigorra. *Ordena edo manu* hori irakurriko du dagokionak, besteek jakin dezaten. *Idatzia* izan da, aldaketarik gabe irakurria izan dadin: hori da zentzua, eta hori izan zen *lege* adieraren jatorria. Hortik datoz dagozkion epitetoak: *lege zuhurra*, *lege absurdoa*, *lege zuzena*, *lege bidegabea*, ondorioa zein den arabera. Ondorio hori da bertatik irteten den boterea bereizten duena. Alabaina, gizarte egoeran, gizakien gobernupean, zer da *zuzena* ala *bidegabea*? 1. Zuzena da gizabanako bakoitzak dagokiona mantentzea edo jasotzea; hortaz, batez ere daukan bizitza, beste ororen gainetik den botere batetik jaso da; 2. botere horregatik beragatik, dauzkan zentzumenak eta ahalmenak erabili ahal izatea; 3. bere lanaren fruituen gozatzea. Hori guztia, beste pertsona baten eskubide *berak* kaltetzen ez dituen bitartean; kaltetzen baditu, *bidegabekeria* gertatzen baita, hau da, gizakitik gizakira dagoen *berdintasunaren* eta *oreka* -



ren haustura. Hortaz, zenbat eta kaltetu gehiago, justizia eza handiagoa izanen da. Beraz, gauza jakina denez, *herri* deritzagun horren, nazio baten, gehiengoak osatzen duenaren interesa, ongizatea, da justizia *osatzen* duena. Hortaz, egia honako axiomari topa daiteke: *Salus populi suprema lex esto*. Herriaren *osasuna*, hara legea, hara *legitimitatea*. Azpimarratu behar da *osasunak* ez duela *borondatea* esan nahi, zenbait fanatikok pentsatzen duten bezala: ezen herria tronpatu baitaiteke; beraz nola ematen da aditzera borondate kolektibo eta abstraktu hori? Esperientziak erakusten digu. *Salus populi!* Artea eza-gutzean eta gauzatzean datza.

22 (*askatasunaren ideiak esentzialki bere barne du justiziarena, hau berdintasunetik sortzen delarik*) Izenek berek lotura trazatzen dute: *equilibrium*, *equitas*, *equalitas* denak ere familia berekoak baitira; *berdintasun* materialaren ideia, balantzarena, ideia abstraktu horien guztien tipoa baita. Askatasuna bera, ongi ikertzen bada, ez da *justizia* baino: gizaki batek, libre izateagatik, beste bati eraso egiten badio, beste horrek, askatasun eskubide beragatik, erantzuna eman dezake; baten eskubidea bestearena bezalakoa da. Indarrak oreka hori hautsi dezake, baina justizia eza eta tirania sortzen da demokrata xumeenetik zein boteretsu handienetik badator ere.

23 (*erlijio horrek* [Mahomarenak] *ez dio utzi lurrean etengabe odola isurtzeari*) Irakur bedi islamismoaren historia, bere idazleek idatzirikoa, eta konbentzitu zarete, Mahoma ondoren, Asia eta Afrika hondatu

dituzten gerra guztiek haren doktrinaren fanatismo apostolikoa izan dutela arrazoi nagusia. Kalkulatzen da Zesarrek hiru milioi pertsona hiltzea eragin zuela: interesgarria litzateke kalkulu bera egitea erlijio sortzaile bakoitzarekin.

24 Luther eta Kalbin.

25 (*antzeko beste hainbat ehunka*) Gai honen inguruan irakur bedi Pluquet abadearen *Dictionnaire des hérésies*, kopuru handia aipatu barik utzi badu ere: 2. bol., 8, letra txikietan.

26 Saduzearrak eta farisearrak.

27 (*Eta parsi-ak sekta oraindik ugarigoetan bananduko dira*) Zoroastrotoren jarraitzaileak, *parsi* deritzatenak, Parses-en ondorengo moduan, Asian ezagunagoak dira *gore* edo *gebre* ezizenekin, izenok *fedegabe* esan nahi baitute; juduak Europan direna lakoak dira. *Mobed* da euren *aita santuari* edo *apaiz handiari* ematen dioten hitza. Ikus bedi *Henry Lord Hyde* eta *Zend-Avesta*, erlijio honetako errituen inguruan.

28 (*Brahma-rena da... eta Linghamaren idulkia izateko funtzioa betetzea egokitu zaiona*) Ikus bedi *Voyage de Sonnerat aux Indes*, lehen liburukia, 8.

29 (*Txinatarrek Fot deritzate*) Hizkuntza txinatarrek ez duenez *B* eta *D* soinurik, herri horretan *Fot* deitu diote indiarrek eta persiarrek *Bod* edo *Bud* (*u* motzarekin) ahoskatzen dutena. *Fot*, *Pegu-tik*, *Fota* eta *Fta*, eta abar, bilakatu da. Duela gutxi hasi gara Budaren eta jarraitzaile ezberdinen dotrinaren nozio zehatzak izaten: nozio horiek jakintsu ingelesei zor

dizkiegu, euren nazioak India menderatzen zuen eran, erlijioak eta ohi-turak aztertzerakoan, ezagutarazi baitituzte. *Asiatick Researches* deituriko obra genero horretako bilduma baliotsua da: VI. liburukian, 163. orrialdean, eta VII. liburukian, 32. eta 399. orrialdeetan, ediren genitzake hiru memoria hezigarri *Sri Lanka* -ko eta *Birmah* edo *Avako budisten* gainekoak. Idazle anonimo batek, nolanahi ere, gai honen inguruan hausnartu duela dirudienak, 1816.eko *Asiatick Journal*ean, urtariletik maiatzera arteko hilabeteetan, argitaratu ditu garapen handiagoa desirarazten duten zenbait idazki. Gai honetara itzuliko gara XXI. kapituluko ohar batean.

<sup>30</sup> (*sintoistak, berriz, haien existentzia zentzumenetik apartekoa uka-tzen du*) Ikus bedi Kempfer. Haren arabera, sintoisten doktrina, *Epikure* -*oena* eta *estoikoenaren* arteko nahastea da.

<sup>31</sup> (*siamdarrak, bekainak moztuta eta eskuan talipat pantaila bat ditue-nak*) *Latanier* palmondo espeziearen hostoa da; hortik datorkie Siamgo bontzoei *talapoin* izena. Pantaila horren erabilera *pribilegio eskusi-boa* da.

<sup>32</sup> (*Konfuzioren jarraitzaileak bere horoskopoa bilatzen du*) Konfuzioren jarraitzaileak bontzoak lain astrologia zaleak dira: Ekialde osoko gaitxotasun moralak da.

<sup>33</sup> *Dalai Lama* edo *La-ko apaiz handia*, gure kontu zaharretan *Jean* apaiza bezala agertzen dena da, *mundu* esan gura duen persiar *Djehan* izan zaharraren gaizki ulertu batengatik. Hortaz, *Mundu* apaiza eta *Mundu*

jainkoa persiarrez gauza bera dira. Egin berri den espedizio batean, ingelesek *lamen* idoloak topatu dituzte, barnean *pastilla sakratuak* zituzten, *apaiz handiaren* arropategikoak. Aipa daiteke Avignongo liskarretan hil den *Pollier* koronelaren eta *Hastingsen* lekukotasuna. Harrituko gaitu ikusteak gauza hain bitxi batek ideia sakonagoa duela baitan, *metempsikosiarena*, *lamek* onartzen dutena. Tatariarrek *pontifizearen* erlikiak irensten dituztenean (hori egiten ohi dute), unibertsoaren jokamoldea imitatzen dute, haren atalek bata bestea absorbitzen baitute, eta batetik bestera igarotzen baitira eten-gabe. *Bere buztana irensten duen sugea da*; eta suge hori *Buda* eta *mundua* da.

<sup>34</sup> (zoritxarrez urdeek jateko oso maite dutena) Agi denez, sarritan urdeek irentsi egiten dituzte beltzek gurtzen dituzten motako sugeak, eta haien herrialdean sumindura sortzen du horrek. De Brosses lehendakariak bere *Histoire des Fetiches* azaldu du erokeria horien guztien deskribapen bat.

(*Hara teleuta*) Teleutek, tatariar herri bat direnek, Jainkoa marrazten dute kolore guztietako –batez ere gorri eta berdeko– jantzi bat soinean daramala; eta errusiar dragoiak uniformee-tan topatzen dutenez, Jainkoa soldadu horiekin konparatzen dute. Egip-toarrek ere *Mundu* jainkoa kolore guztietako jantziarekin irudikatzen zuten. Eusebio, *Proep. evang.*, 115 or., III. lib. *Teleutek* jainkoa *Bu* deritzate, *Buden* edo *Arrautza* edo *Mundu jainkoaren* alterazioa.

(*hara kamtxadala*) Gai honen inguruan kontsulta bedi *Description des*

*peuples soumis à la Russie* obra, eta ikusiko da deskribapena ez dela puztua.

<sup>35</sup> Hitz hauek Koranaren lehen kapituluaren zentzuarekin hartuak dira, ia testu literalarekin.

<sup>36</sup> Musulmanak bi alderdi handi horietan bananduta daude. Persiarrek Ali jarraitzen dute, turkiarrek Omar.

<sup>37</sup> (*Zeuen sistema oinarri eta zentzu mistikoetan oinarritzen da osoa, interpretazio irudimenezko eta alegorikoetan*) Elizako gurasoak irakurrita, ikusten dugunean zer argumeturen gainean altxatu duten erlijioaren eraikuntza, ulergaitza egiten da haien sineskortasuna edo fede gaiztoa: baina alegoria da garaiko ohitura; paganoek jainkoen ekintzak azaltzeko erabiltzen zuten; eta kristauek euren mendeko espiritua jarraitzea baino ez zuten egin, eta beraien alde-raman zuten. Interesgarria litzateke liburu horiek –edo soilik pasarte batzuk bada ere– argitaratzea.

<sup>38</sup> Gai honetarako ikus bedi *Recherches nouvelles sur l'histoire ancienne* -ren lehen alea, bertan gai hori sakonki aztertzen baita V. kapitulan.

<sup>39</sup> ([juduak] gure imitatzailer bilaka-tu ziren, gure dizipulu) Gai honen inguruan ikus bedi *Recherches nouvelles sur l'Histoire ancienne* -ren lehenengo liburukia, bertan frogatzen baita *Pentateukoa* ez dela Moisesen lana: iritzi hori kristautasunaren lehen garaietan zabaldu zen, ikus daitekeenez *Klementinoetan*, II. homilia, 51. S.; eta VIII. homilia; baina inork ez du frogatu benetako egilea, Kristo aurreko 621. urtean, *Helkias* apaiz handia zenik.

<sup>40</sup> (*aurreko erlijioekin hainbat gauza analogo aipatu zituen*) *Parsi* modernoek eta antzinako *mitriakoek* –gauza bera baitira– kristauen sakramentuak dituzte, baita konfirmazioan ematen den masailekoa ere. «*Mitraren apaizak*,» dio Tertulianok (*De Prescriptione*, 40. kap.), «bekatuen absoltuzioa agintzen du *konfesioaren* eta *bataiatzearen* bidez; eta, ongi oroitzen banaiz, *Mitrak* bekotik markatzen ditu bere soldaduak (*krismarekin*, egiptoarrez *kuphi* deritzenarekin); ospatzen ditu *ogiaren opalkuntza*, *berpizkundearen* irudia dena, eta koroa aurkezten die jarraitzaileei, aldi berean ezpataz mehatxu egiten dielarik», eta abar.

Misterio horietan hamaika tormentu-ekin frogatzen zuten inizatuen ausardia: suarekin, ezpatarekin mehatxu eginez, eta abar. Halaber, koroa bat eskaintzen zitzaaien, haiek errefusatzen zutena, honakoa esanez: *Jainkoa da nire koroa* (*Koroa* hori zeruko esferan ikus daiteke, *Bootes* alboan). Misterio horietako pertsonaia guztiek *konstelazioetako anima-lieu* izenak zeuzkaten. Meza ez da misterio horien eta Eleusiskoek ospatzea baizik. *Dominus vobiscum* bedeinkatzea ez da «*chron-k, am, pak*» onartze formularen itzulpen literala baino (ikus bedi *Beausobre, Histoire du Manichisme*, II. liburukia).

<sup>41</sup> *Vedak* edo *Vedamak* hinduen liburu sakratuak dira, Biblia gure artean den bezalakoak. Hiru dira: *Rick Veda*, *Yadjur Veda* eta *Sama Veda*. Hain ale gutxi dira Indian, ingelesek neketsuki topatu baitute han originala, eta kopia bat utzi dute Britainiar museoan. Lau Veda direla pentsatzen dutenak, *Attar Veda* ere sartzen dute

barne, honek zeremoniez dihardu, baina galduta dago. Bestalde, badira iruzkinak *Upanishada* deiturikoak; horietako bat Anquetil de Peron-ek argitaratu du, liburuak *Oupnekhat* izena daramalarik; liburu bitxi honek gainontzekoen ideia bat eman lezake. Liburu horien data gure aroa baino hogeita bost mende aurreragokoa da; haien edukiak frogatzen du metafisiko grekoen pentsaketa guztiak Indiatik eta Egiptotik datozela. – 1788. urtearen ondoren, Europak ezagutzen ez zuen literatura meategi bat ustiatzen ari dira Indian ingeles jakintsuak, literatura horrek frogatzen du Indiako zibilizazioa urrutiko antzinatekoa dela. *Veden* ondoren *Chastrak* datoz, sei dira eta teologiaz zein zientziez dihardute. Ondoren, hamazortzi direlarik, *Puranak* datoz, mitologiaz eta historiaz dihardutenak (ikus bitez, *Bahgouet-guitá*, *Baga-Vedam*, *Ezour-Vedam*, eta abar, frantsesera itzuliak direnak).

<sup>42</sup> (*norbere baitako doktrina*) Budistek doktrina bi dituzte, bata publikoa eta agerikoa da, bestea *norbere baitakoa* eta sekretua, hain zuzen apaiz egiptoarren modukoak. Zer dela eta diferentzia hori? –galdetuko duzu–. Doktrina publikoak *eskaintzak*, *beka-menak*, *oinarriak* eta abar azaltzen ditu, eta komenigarria da herriari predikatzea; aldiz, besteak *ezereza* irakasten du eta ez du ekarpenik egin, ez da komeni jarraitzaileei baino ezagutaraztea. Gizakiak *inuzente* ala *pikaro* bezala sailkatu beharko ote ditugu!

<sup>43</sup> Lamen, bontzoen, baita brahmen, kosmogonia hori guztia –Henri Lordek aditzera ematen duen legez– egiptoarrena da literalki. «Egiptoar-

rrek», dio Porfiriok, «*Kneph deritza-te* (unibertsoaren) *adimenari* edo *kausa eragileari*. Kontatzen dute jainko horrek ahotik *arrautza* bat oka egin zuela, bertatik beste *jainko* bat sortu zen, *Phtha* edo Vulcano deritzana (suzko iturburua, eguzkia), eta *arrautza* hori mundua dela gaineratzen dute» (Euseb. *Proep. Evang.*, 115. or.).

«Adierazten dute», dio beste leku batean, «*Kneph* jainkoa, edo kausa eragilea, kolore urdin iluneko (zeruarena lakoa) gizon bat bezala, eskuan zetro bat daramana, gerrikoa soinean, eta *oso arinak diren lumazko erret-txapela* buruan, azpimarra dadin izaki horren ideia zein *sotila* eta iheskorra den». Gaineratu behar dut *Knephek* hebraieraz *hegala*, *luma*, esan nahi duela; kolore (zerutar) urdin hori Indiako jainko gehienetan agertzen dela, eta, *narayan* izenarekin, haiek jasotzen duten epitetorik ezagunetakoa dela.

<sup>44</sup> (*lamak ez zirela nestoriotar edo manikearrak baino*) Ikus bedi Beausobre-ren *Histoire du Manichéisme*, bertan frogatzen baita haren jarraitzaileak zoroastriar hutsak zirela; hortaz, haien iritzien existentzia k.a. 1200. urtera arte lerratzen dela. Beraz, *Budd Chaucasam* oraindik aurreragokoa da, indiar libururik zaharrenetan topa daiteke doktrina budista, horien data gure aroa baino 3.100 urte lehenagora arte doa (esaterako *Bahgouet guitá*). Bestetik azpimarratu behar da, halaber, *Vish-nuren* 9. *berraragitzea* edo *eraldatzea* dela *Budd*, teologia horren jatorrian kokatzen duelarik. Bestalde, indiarren, txinatarren, tibetarren, eta abarren, artean *Budd* da geuk *Merku* -

rio deritzagun planetaren izena, eta planeta horri dedikatzen zaion egunarena ere (asteazkena); hortik egutegiaren jatorrira lerratu behar gara. Aldi berean, *Hermesen* identikoa agertzen zaigu, Egipton ere azaltzen den hori. Azpimarratu beharra dago apaiz egiptoarren arabera *Hermesek hilzorian* honakoa esan zuela: «Honaino iraun du nire benetako aberririk erbesteratzeak, itzultzen ari naiz. Ez ezazue nigatik negar egin; itzultzen ari naiz bakoitza –tokatzen zaionean– itzuliko den aberri zerutar horretara. Han da Jainkoa; bizitza hau ez da heriotza baino» (Ikus bedi Chalcidius, *Timoetum*). Bestalde, doktrina hori *antzinako budistena* –edo *samaneerrena*–, *pitagorikoena* eta *orfikoena* da. Orfeoren doktrinan *arrautza* batek irudikatzen du *mundu jainkoa*; hebraiar eta arabiar hizkuntzetan, *arrautzari baidh* deritza, *Bud-den* (jainkoaren) analogoa, eta persierazko *Bud*, *existentzia*, *existitzen dena* (mundua) da. Budd, halaber, *bed vad*-en analogoa da, indiarren artean *zientzia* esan nahi duena. Hermes da jainko hori: bera omen da egiptoarren *veda* edo liburu sakratuen autorea. Azpimarragarria handik datorrena eta berorren antzinatasuna. *Avako apaiz budistak* honakoa dio: «gauza jakina da beste garai batean zeruak *Buda bidali* zuela *gizakiak zentzatzeko*, *haien bizioetatik aldenarazteko* eta *bizitza osasuntsu batean berrezartzeko*». Halako dogma bat Indian, Persian, Egipton, Judean, hedatzen delarik, ikus dezakegu espirituek zein heinean egon behar izan duten luzarotik kontaktuan ondorengo mendeek eskaintzen diguten horretara.

<sup>45</sup> (*Jesus baino askoz ere lehenago*) Britainiar jakintsuek Indiaren gainean noziorik izan baino lehen ere, *Budaren* doktrina benetan antzinakoa da. Aipatu dugun eskribau anonimoak (251. or., 4. lerroa) aipatu egiten du idazki bat *Avako budistek* duela urte gutxi idatzirikoa, hiri horretako apaiz katolikoak eskatuta, honakoa diolarik: «Mundu honetan gaurdaino agertu izan diren *jainkoak* honako lau hauek dira: *Budda Chaucasam*, *Budda Gonahom*, *Budda Gaspa* eta *Budda Gautama*, azken honen legea indarrean delarik egun. Hogeita hamabost urterekin jaso zuen dibinotasuna, eta hilezkortasuna 2362 urtean (idatzi berri dugun data baino lehen, gutxi gorabehera 1805ean)». Hortaz, *Gautama* kristau aroa baino 567 urte lehenago gutxi gorabehera hilko zen, Ziro Persian bizi zen garaian, Pitagoras goraldian zenean.

2. bestalde, zenbait eskribau arabiar eta persiarren arabera zein *Histoire des Hunsen* (II. liburukia) Guignesek aipaturikoan, *Histoire de la Chinen* (V. liburukia, 50. orrialdeko 4. oharra), eta *EzourVedamen* (Yadjur Veda) agertzen denaren arabera, gure aroa baino 1027 urte baino lehenago beste *Buda* bat izan zen (*Gaspa* litzateke).

3. Akbar enperadore mogolaren *Tau-la estatistikoan*, Alin Akberi deritzanean (Gladwinek itzulia), honakoa esaten da (433. or., II liburukia): Budd desagertu zela enperadore horren garaia 40. urtea baino 2.962 urte lehenago; hau da, k.a. 1366.ean (*Gonagom* izanen zen).

<sup>46</sup> (*oinarritzen garelarik zuek benetako lekukotasunik ez izatean*)

«Mundu guztiak daki», esan zuen *Faustrek* –manikeoa zen arren, 3. mendeko pertsonarik jakintsuenetakoa zenak–, «mundu guztiak daki Ebanjelioak ez direla ez Jesukristok ezta bere apostoluek ere idatziak; baizik eta *askoz ere beranduago* ezezagun batzuek eginak dira. Juzgu onez pentsatu zutelarik ez zietela sinetsiko ikusi gabeko gauzarik, kontu hartu zuten euren kontakizunen hasieran apostoluen edo pertsona apostoliko eta garaikideen izenak ezartzeko». Gai honen inguruan, ikus bedi *Histoire des Apologistes de la Religion chrétienne*, egilea Fréret dela uste den arren, Academie des Inscriptions-eko kide den Burignyrena dena. Ikus bitez, halaber, Moscheim, *de Rebus christianorum*; *Correspondance of Atterbury*, Archbishop, 5. bol. 4., 1798; Toland, *Nazarenus*; eta Beausobre, *Histoire de Manichéisme*, I. liburukia. Alde eta aurka idatziriko horretatik guztitik ateratzen da kristautasunaren jatorri zehatza ezezaguna dela; Joseforen (*Antiq. Jud.*, XVIII. lib., 3. kap.) eta Tazitoren (*Annales*, XV. lib., 44. kap.) lekukotasunak Nikeoren garaian interpolatuak izan zirela, eta inork ez duela ebidentzian jarri jatorrizko gertakizuna; hau da, sistema eragin duen pertsonaiaren benetako existentzia. Existentzia hori barik, aitzitik, zaila gertatuko da sistema horren agerpena kontzebitzea ezagutzen den garai horretan, are gehiago historian ez baldin bada topatzen adibiderik dohainikako suposizio absolutuak egiteko orduan. Benetan interesgarria eta garrantzitsua den arazo horri irtenbide bat emateko, beharrezkoa da zolitasunez beteriko espi-

ritu bat, ongi hezia, eta inpartziala, jada eginiko ikerkuntzez profitatuz, eta budisten –batez ere Zioren garai-kide den *Samana Gautamaren* sektakoen– doktrinaren taula konparatibo bat erabiliz; aztertzea zein zen Indiaren eta Persia eta Siriaren arteko komunikabideen erraztasuna, batez ere Dario Hystaspe-ren erreinaldian, Agathias eta Ammien-en arabera, hark Indiako jakintsuak kontsultatzen baitzituen, eta magoen artean indiar ideia anitz ezarri baitzituen; zein izan zen erraztasunezko egoera hori Alexandroren ondoren, Seleuziden garaian, errege indiarrekin harreman diplomatikoak baitzituzten. Ikusiko du komunikazio horien bitartez, samanearen sistema, apurka-apurka Egiptoraino iristen ahal izan zela; eseniarrek Judean sartzea ahalbideratu zuela, eta abar. Orduan ez da gertatuko aztertzeko ez bada, gauza guztiak prestatuak zirelarik, espirituen asaldatze orokor batek ez ote zuen eragin gizabanako batek diseinaturiko edo aurrez pentsaturiko rola; bai berorrek uste izan zuelako espero zen *personaia* norbera zela, bai jendetzak –haren portaera, doktrina eta predikuak ikaragarri gustuko zituelarik– eginkizun hori eman ziolako. Kasu batean zein bestean, giza posibilitateen barne legoke jendetza pilaketek gobernu erromatarren zaintza eta ardura eragitea, eta azkenik, Jerusalemen eginiko *sarra* lako gertakizun azpimarragarri batek eragin izatea prefektuan neurri zorrotza hartu behar izana. Zerbitzuzko jokaera bat bukatuko zen drama horretan (gutxi gorabehera kontatzen den modukoan), interesa piztu zuelarik pertsonaia malerusa horren-

ganako, eta hortaz bide eman kontakizun eta asoziazio horiei, eta emaitza perfektuki egokitzen zaio historian agertzen den gauzen egoerari. Zalantzarik gabe, lekukotasun positibo bat falta denean, ezar daiteke *ziur-tasun moral*a deritzaguna; baina kausa eta efektuen kateatzearen bidez irits gaitezke ondorioa duen *probabilitate* maila batera. Bestalde, lekukotasun positiboekin ere, historiak ez du inoiz eskubiderik ez bada probabilitate handienetarakoa.

<sup>47</sup> (*Hara zer errebelatu zigun gure Buda Somona Gautamak*) la Loubé-ren hala agertzen da idatzia, Siamgo erresumari eta bontzoen teologiari buruz egiten duen deskripzioan. Haien dogmak, Grezia eta Italiako antzinako filosofoenarekin erkatuz, erabat antzekoak dira estoiko eta epikureoen sistemarekin, nahastuta zenbait superstizio astrologikorekin zein pitagorismo traza batzuekin.

<sup>48</sup> (*gizateriaren jatorrizko basakeriak*) Historia eta elezahar guztien lekukotasun orokorrak erakusten du lehen gizakiak leku guztietan basatiak zirela, eta haiek zibilizatzeko zein *ogia* egin zezaten agertu zitzaizkiela jainkoak.

<sup>49</sup> (*Gizakiak ideiak soilik zentzumen bidez jasotzeak*) Hara non geratu ziren hondoak jota antzinakoak, eta nondik datozkien euren erroreak: *Jainkoaren ideiak jaiotzetikoak* zirela suposatu zuten, arimarekin batera eternalak, eta handik datoz Platonek eta Janblikok garaturiko ameskeria guztiak. Ikus bitez *Timeo*, *Phedon* eta *Misteris Aegiptiorum*, 1. atala, . kap.

<sup>50</sup> (*ez al da hori antzinako monu-mentuen lekukotasun aho batekoa*)

«Argi dago», dio Plutarkok, «*Orfeo-ren neurtitzetatik* eta egiptoarren zein frigiarren liburu *sakratuetatik* abiatuta, ezen antzinako *teologia* –ez bakarrik greziarrena, baita ere orokorrean gainontzeko herriena ere– ez zela izan ez bada *fisika sistema bat*, *naturaren ekintzen taula bat*, *alegoria misterioetsuekin* eta *sinbolo enigmatikoekin* estalia; horrela, jendetza ezjakina azkarrago atxiki zitzaion azaleko zentzuari ezkutuko zentzuari baino, eta azken honekin, buruz uler-tzen zutenean ere, pentsatzen zuten bazela zerbait iruditzen zitzaiena baino sakonagoa» (*Plutarko*, galduriko lan baten pasartea, Eusebiok aipatua, *Praep. Evang.*, III. lib., I. kap., 85. or.).

«Filosofo gehienek», dio Porfiriok, «eta haien artean *Chaeremonek* (kristautasunaren lehen urteetan Egipton bizi izan zenak), ez zuten inoiz pentsatuko ikusten dugun mundutik aparte besterik zegoenik; eta *beste jainkorik* ez zuten onartuko egiptoarrek zeuzkatenetatik kanpo, hau da, arrunki *planeta* deritzagunetatik, *zodiakoko zeinuetatik* eta *kons-telazioetatik aparte*. Jainko horien itxurak, esan nahi baita igoerak eta jaitsierak, gizakien zorian eragina omen zuen. *Zeinuen zatiketak* denboren *dekanotzat* eta *emailtzat* zeuzkaten, haiei *buruzagi indartsu* eta *boteretsu* zeritzaten, eta haien *izenak*, gaixotasunak osatzeko *bertute osa-sungarriak* –iristear denaren *presa-gio* direlarik *ezkutatz*e eta *igoerak*–, horiek guztiak almanaken gai ziren (hau da, egiptoar apaizek bazeuzkaten *Mathieu Laensbergenarekiko* zeharo antzekoak ziren almanakak). Apaizek eguzkia unibertsoaren arki-

*tektoa* zela ziotenez Chaeremonek pentsatu zuen haien istorio guztiak, Isis eta Osirisi buruzkoak, gainontzeko fabula sakratuekin batera, zati batean erlazonaturik zeudela planteekin, ilargiaren faseekin, eguzkiaren ibilbidearekin, beste zati batean egunaren ala gauaren *izarrekin*, Nilo ibaiarekin, hitz batean, izaki fisiko eta naturalekin, eta inolaz ere izaki *immaterial eta gorputzik gabekoe* -kin... Filosofo horiek guztiak pentsatzen dute gure borondatearen mugimenduak eta gure ekintzak astro horien arabera direla, horiek zuzenduak direla; eta guztia ezartzen dute *halabehar* (fisiko) baten menpe, hari *patua* edo *fatum* deritzate. Suposatzen dute kausa eta ondorioen kate bat, lotzen dituen a –ez dakit nik zein lotura bidez– izaki guztiak elkarren artean, atomo txikienetik hasi eta *jainkoe*n lehen influentzia den botere gorenera arte; modu horretan, bai tenpluetan, bai *simulakroetan* edo *idoloetan*, ez dute gurtzen ez bada *zoriaren boterea*» (Porfirio, *Epist. Ad Ianebonem*).

<sup>51</sup> (*beharrezkoa da zeruaren behaketa eta ezagutza*) Gaurdaino errepikatu izan da, *Genesiaren* zeharkako autoritatean oinarrituta, astronomia *Noeren haurrek* asmatu zutela. Grabeki esan izan da *Sennaarko* lautadetan alde batetik bestera artzain zebiltzala, euren aisialdia sistema planetario bat osatzen erabili zutela, artzainek izar polarra ezagutzea baino beste *beharrik* balute bezala, eta *behera* ez balitz bezala asmakuntza orotarako arrazoi soil! Antzinako artzainak hain ikastunak eta trebeak izan balira, nolatan dira modernoak hain ezjakinak eta axolagabeak? Al-

baina, gauza jakina da desertuko arabiarrek ez dituztela sei konstelazio ezagutzen, eta astronomiari buruz tutik ere ez dutela ulertzen.

<sup>52</sup> (*onuren eta gaitzen egile ziren botere, jeinu eta jainko*) Dirudienez *jeinu* adieraren bidez antzinakoek adierazi nahi zuten *nolakotasun* bat, *ahalmen sortzaile* bat; familia horretako hitz guztiek zentzu hori ematen baitute: *generare, genos, genesis, genus, gens*.

«Sabear antzinakoek eta modernoenek», dio Maimonidesek, «jainko nagusi bat aitortzen dute, munduaren sortzaile eta zeruaren jabe. Baina bere gehiegizko urrutitasunagatik helezina iruditzen zaie, eta, jendeak erregeekiko duen jarrera imitatz, harekiko artekari bezala *planetak* eta *berorien aingeruak* erabiltzen dituzte, horiei printze eta errege titulua ematen dietelarik. Suposatzen dute gorputz argitsuetan bizi direla, *jauregi* edo *tabernakuluetan* bailiran» (*More Nebuchim*, III., 29 kap.).

<sup>53</sup> (*baita sexua ere, bere izenduraren generoaren arabera*) Herrialde baten hizkuntzan objektu baten generoa maskulinoa ala femeninoa den arabera, horren hitza daukan jainkoa ere arra ala emea izanen da herri horretan. Horrela kapadoziarrek *Lunus jainkoa* eta *eguzki jainkosa* esaten dute; zirkunstantzia horrek izaki horiei forma desberdinak ematen dizkie antzinatean zehar.

<sup>54</sup> (*existentziaren iraupenari, norbere ongizateari eta gainontzeko kideei laguntzen zion oro*) Honen inguruan Plutarkok dio apaiz horiek (egiptoarrek) garrantzi handia eman ziotela osasunaren mantentzeari, eta



beharrezko baldintza iruditzen zitzaiela pietaterako, jainkoen zerbitzurako, eta abar.

<sup>55</sup> (*duela hamabost mila urtera arte doazela*) Hizlari historikoak hemen Dupuis jakintsuaren iritzia jarraitzen du; bere *Origine des Costellations* memorian, *Origine de tous les Cultes* -sen ondoren idatzi duen horretan, bildu baitu froga saldoa erakusten duenak, lehenago, *balantza* udaberriko ekinozioan kokatua zela eta udazkeneko ekinozioan *aharia* ; hau da, ekinozioen *prezesioak* zazpi zeinuren lerrakuntza eragiten zuen. Fenomeno horren ekintza zalantzaezina da: kalkulu berriek balioztatzen dutenez 50 segundo eta 12 edo 15 heren dira urteko; hortaz, 71 urte eta 8 edo 9 hilabetetan zodiakoko zeinu bakoitza gradu bat *atzeratzen* da, eta zeinu osoa 2.152-53 urtetan. Alabaina, gauza ezaguna den bezala, udaberriko ekinozio puntua *ahariaren* zeinuan kokatzen bazen zehazki Kristo aurreko 388. urtean, hau da, garai horretan eguzkiak zeinu osoa zeharkatu eta atzean uzten bazuen *-piscis* zeinuan sartzeko, horretatik irteten baita egun-, beraz pentsatu beharko da *zezenetik* irteten zela 2.153 urte lehenago, hau da, gutxi gorabehera Kristo aurreko 2540 urtean, eta hartan sartzen zela Kristo aurreko 4692 urtean gutxi gorabehera. Horrela, zeinuz zeinu ibilbidea eginez, *ahariaren* lehen gradua udazkeneko ekinozio puntua izan zen gutxi gorabehera Kristo aurreko 388 urtea baino 12.912 urte lehenago, hau da, kristau aroa baino 13.300 urte lehenago. Erants diezazkiogun hamazortzi mende, eta hamabost mila eta ehun urte, eta garai zein

mende gehiago, beharrezkoak dira ezagutza astronomikoak garaiera horretara iristeko. Azpimarragarria da *zezenaren* zeinuaren gurmenek rol nagusia betetzen duela egiptoarren, persiarren, japoniarren, eta abarren artean; horrek herrien artean ideien martxa amankomun bat erakusten du garai hartan. Genesiaren bost mila edo sei mila urteak ez dira objektzio, ez bada hezkuntza dela-eta sinesten duten horientzat (genesiaren analisisa ikus bedi gai honetarako *Recherches nouvelles sur l'Histoire ancienne* lehen liburukian; ikus bitez halaber, *L'Origine des Constellations*, Dupuis, 1781, *L'Origine des Cultes*, 3. bol., 4., eta *Zodiaque chronologique*, 4., 1806).

<sup>56</sup> (*taldeei lotzen zaizkien objektu lurtarren izenak*) «Antzinakoek», dio Maimonidesek, «arreta osa jartzen zutelarik nekazaritzan, izarrei izenak ematen zizkieten urtaroen zuten eginkizunaren arabera» (*More Neb.*, V. pars.).

<sup>57</sup> (*halakoa izan zen izar eta planeta guztiak -taldeka edo banaka hartuta- izendatzeko modu orokorra*) Antzinakoek karramarro, aker, dor-toka izenetatik aditzak eratortzen zituzten, frantsesez *serpenter* edo *coqueter* esaten diren moduan: lengoaia oro mekanismo horren bidez eraikitzen da.

<sup>58</sup> (*ez balute haietan astroen bertuteak dituzten talismanak ikusiko*) «Antzinako astrologoek», dio judurik jakintsuenak (Maimonidesek), «planeta bakoitzari sagaratu ziolarik kolore bat, animalia bat, arbola bat, metal bat, fruitu bat, landare bat, gauza horietarik guztietarik astroaren

*irudi* edo errepresentazio bat egiten zuten, eginkizun horretarako ardura hartzen zutelarik *une egokia*, *zorio -neko eguna*, hautatzeko, esaterako, *konjuntzio* unea edo beste aspektu faboragarriren bat. Euren zeremonien (magikoen) bidez uste zuten figura edo idolo horiei sar ziezazkieketela horiek irudikatzen zituzten goreneko izakien (euren ereduen) bertuteak. Horiek ziren *kaldear-sabearek* gurtzen zituzten idoloak. Euren gurmenean beharrezkoa zen kolore egokia jantzita eramatea (...) Horrela, euren praktiken bidez, astrologoek idolatria ekarri zuten, *asmo zutelarik euren buruak agertzea zeruaren faboreen emaille beza* -la; eta antzinako herriek nekazaritzan soilik jarduten zutenaz, pentsarazi zieten *euria* eta urtaroko beste hainbat onura haien esku zirela. Horrela, nekazari jarduera osoa astrologiaren arauen arabera egiten zen, eta apaizen talismanak egiten zituzten otiak, euliak, eta abar, *uxatzeko*» (ikus bedi Maimonides, *More Nebuchim*, III. pars., 9. kap.).

Egipto, Persia, India, eta abarreko apaizek pentsarazi nahi zuten euren idoloek lotuak zituztela jainkoak, nahi zutenean zerutik jaitsarazi ahal zitzaizketela; eguzkiari edo ilargiari mehatxu egiten zieten euren misterioak argitaratzearekin, *zerua dardararaztearekin*, eta abar» (Eusebio, *Paeparat. Evang.*, 198. or.; eta Janbliko, *de Mysteriis Aegyptiorum*).

<sup>59</sup> (*haien rol astronomikoak betetzen zituela*) Horiek dira Janblikoren hitzak, *de Symbolis Aegyptiorum*, 2. kap., 7. sek. eguzkia zen Proteo handia, metamorfosizatzaila unibertsala.

<sup>60</sup> (*zuen tontsura eguzkiaren diskoa da*) «Arabiarrek», dio Herodotok (III. lib.), «lokiaren inguruan zirkulua marraztuz ilea ebakitzen dute, Bakok (hau da, eguzkiak) moztzen duen moduan». Jeremias (25. kap., 23 v.) ohitura honetaz mintzatzen da. Musulmanek buruan mantentzen duten ile-xerloa eguzkitik hartua da halaber, egiptoarren artean –neguko solstizioan– eguzkia margotzen baitzuten *buruan ile bakarra balu bezala*.

(*zuen estola haren zodiakoa da*) Siriako jainkosaren eta Efesoko Dianaren soinekoek –apaizenak handik datoz– zodiakoko hamabi animaliak daramatzate. Indiar idolo guztietan topa daitezke arrosarioak, duela 4.500 urte baino gehiago eginak, eta haien erabilera unibertsala eta oso aspaldikoa da Asian. Makulua zehazki Bootes edo Osirisen makila da. (Ikus bedi, II. irudia) Lama guztiek daramate mitra, edo txapel konikoa, eguzkiaren ikurra dena.

<sup>61</sup> (*hala ikus daiteke Herkulesen bizitza historikoan*) Ikus bitez Depuisen lanak, *Origine des Constellations* eta *Origine de tous les Cultes*.

<sup>62</sup> (*figura horiek elkartzerakoan esaldi eta hitzen zentzu konbentzionalak zituzten*) Zalantzarik gabe, irakurleak atseginez ikusiko ditu antzinakoen hieroglifikoak.

«Egiptoarrek», dio Hor-Apollo, «eternitatea eguzkiaren eta ilargiaren figurekin irudikatzen dute. Mundua irudikatzen dute *ezkata horiko* (iza-rrak; dragoi txinatarra da) suge urdina legez. Urtea adierazi nahi baldin badute, *Isis* irudikatzen dute, haien hizkuntzan deitzen dena *Sothis* edo *canicula*, konstelazioetarik lehenena,

berorren altxatzearekin urtea hasten baita. Honakoa da Sais-entzat zuten inskripzioa: *Ni naiz zakurraren kons - telazioan altxatzen naizena.*

Urtea *palmondo* batekin irudikatzen dute halaber, eta hilabetea *adar* batekin, arbola honi hilero adar bat irte-ten baitzaio.

Arpente edo anega baten laurdenarekin ere irudikatzen dute» (arpente osoak, *lau* zatitan bananduak, lau urteko periodo bisextila adierazten du: Azalera figura honen zatiketa laukoitza *ha* edo *heth* letra da modu argian, samaritar alfabetoko zazpigarren letra da; eta orokorrean alfabetoko letrak beharbada ez dira astronomiako laburdura hieroglifikoak baizik, eta arrazoi horregatik idazten dira eskumatik ezkerrera, izarren ibilbidearen norabidean) «*Profeta* bat *zakurraren* figurarekin irudikatzen dute, astroen zakurrak (*Anubi - sek*) bere altxatzearekin uholdeak iragartzen baititu.

Uholdea lehoi batekin irudikatzen dute, haren zeinuarekin batera iristen baita; eta hortik datoz –Plutarkoren arabera– tenpluen ateetan ahotik ura darien lehoien irudiak.

Jainkoaren eta Patuaren ideiak izar baten bidez adierazten dituzte. Jainkoa adierazten dute halaber, Porfirio dioenez, harri *beltz* baten bidez, haren natura *goibela, iluna*, baita. Gauza zuri guztiek jainko *zeruta - rrak, argitsuak*, adierazten dituzte; gauza *zirkularrek* adierazten dute *mundua, ilargia, eguzkia, orbitak; arko* eta *ilgora* antzeko irudiek *ilargia...* *Sua* eta Olinpoko jainkoak *piramide* eta *obeliskoekin* irudikatzen dituzte (*Baal*, eguzkiaren izena, *obelisko* izenaren barne dago); eguz-

kia *kono* baten bidez (Osirisen maku-lua); botere sortzailea (airearena) *phallusaren* bidez, eta lurrarena triangeluaren bidez, emakumearen organoaren irudi den horren bidez» (Eusebio, *Praeparat. Evang.*, 98. or.).

«Lohiak», dio Janblikok (*de Symbo - lis*, 7. sek., 2. kap.), «adierazten du *materia*, botere *sortzaile* eta *elikaga - rria*; bizitzaren *beroa*, *hartzigarria*, jasotzen duen oro.

*Lotoaren* edo *nenufarearen* gainean eseritako gizakiak *espiritu eragilea* (eguzkia) adierazten du, landare hori uretan lohia ikutu gabe bizi den moduan, hura ere materiatic bereizita bizi da, espazioan jaioa, *norbere baitan deskantsatuz*: biribila da bere alde guztietan, *lotoen* fruitua, hostoak eta loreak legeztu. (Brahmak bi loto begi dauzka –dio Charles Nêardisen-ek– bere inteligentzia adierazteko: bere *begiak*, denaren gainetik igeri egiten du, *loto* landareak uraren gainean egiten duen moduan) «Ontzi baten leman gidari doan pertsona batek», jarraitzen du Janblikok, «dena *governatzen* duen *eguzkia* adierazten du». Eta Porfirio diosku eguzkia adierazten dela, halaber, krokodilo (anfibioa, airearen eta uraren ikurra) baten gainean den ontzi batean dagoen gizaki baten bidez.

Elephantinen gurtzen zen *eserita* zegoen gizon baten irudia, *kolore urdinez margotua, ahariaren* burua zuena, eta diskoa sostengatzen zuten aker baten adarrak; hori guztia adierazteko ahariaren eta ilargiaren arteko konjuntzioa; kolore urdinak adierazten zuen ilargiari egozten zaion boterea, konjuntzio horretan, urak *hodei* bilakaraztekoa. (*apud* Eusebio,

*Praeparat. Evang.*, 116. or.)

Gabiraia *eguzkiaren* eta *argiaren* ikur da, airean garai egiten duen hegaldi azkarra dela eta, bertan *argia franko baitago*.

Arraina higuinaren ikurra da, eta hipopotamoa biolentziarena, esaten denez, aita hil eta ama bortxatzen baitu. Hortik dator, Plutarkok dioenez, Sais-eko tenpluko inskripzioa, bertako bestibuluan margoturik ikus daitezke: 1. haur bat, 2. agure bat, 3. gabirai bat, 4. arrain bat, 5. hipopotamo bat; honakoa esan nahi du, 1. (bizitzara) iristen dena, 2. badoana, 3. Jainkoa, 4. ezinikusia, 5. justizia eza (ikus bitez *Isis et Osiris*).

Egiptoarrek, gaineratzen du, *mundua* kakalardo baten bidez irudikatzen dute, intsektu honek bere martxaren aurkako norabidean garraiatzen baitu bere *arrautzak* gordetzen dituen bola bat, izar finkoen zeruak eguzkiaren biratzea eragiten duen modu berean (arrautzaren gorringoa) bere errota-zioaren aurkako zentzuan.

Mundua *bost* zenbakiarekin irudikatzen dute, elementuen kopurua baita, esan nahi baita –dio Diodorok–, lurra, ura, airea, sua eta eterra edo *spiritus* (berdinak dira indiarren artean ere). Makrobioren mistikoen arabera, honakoak dira: Jainko gorena edo lehen eragilea, adimena –edo *mens*, hartatik datorrena–, hark sortzen duen munduaren arima, esfera zerutiarrak eta gauza lurtarrak. Hortik dator, gaineratzen du Plutarkok, *pente* (*bost* grezieraz) eta *pan osota* –*sunaren* arteko analogia.

Astoa –gaineratzen du hark– *Tiphon* ikurra da, hau kolore gorritzakoa baita, lehena legez. Tiphon da natura lupetsua, *lohitsua*, duen oro (eta kon-

turatzen naiz hebraieraz, *lohia*, kolore gorritza eta astoa, hirurak, *hamr* sustrai beretik datozen formak direla). Bestalde, Janblikok esaten digu *lohiak materia* adierazten duela, eta gaineratzen du *gaitz oro, usteltze oro*, materiatic datorrela; Makrobioren hitzekin alderatuta –hau da, *dena hil -korra dela*, esfera zerutarraren azpian aldagarria–, antzinakoen ongiaren eta gaitzaren sistemaren teoriak lehenik fisikoa eta gero morala dena ematen digu (ikus bedi *Denderako zodiakoari buruz* Dupuis jakintsuak egin duen memoria, *Revue philosophique* aldizkarian 1801eko alean argitaratu duena).

<sup>63</sup> (*erokeriarako eta superstiziorako kausa*) Plutarkoren testua bera da, hark dioenez gурmen anitz horiek Egiptoko errege batek hiri batzuei emanak ziren, horiek bereizteko eta menperatzeko (eta errege horiek apaizen kastatik hartuak ziren) (Ikus bedi *Isis et Osiris*).

<sup>64</sup> (*Apaiz astronomoek egin zuten esfera zerutarraren proiektzioan*) Antzinako apaizek hiru proiektzio mota zeuzkaten; irakurleari horiek ezagutaraztea erabilgarria gerta daiteke.

«Eusebiorengan irakur genezake», dio Porfiriok, «*Zoroastro* izan zela lehena, Persiako gertuko mendietan leize ongi kokatua topatu zuelarik, *Mitrari* (eguzkiari) –gauza guztien *sortzaile* eta *aita* den horri– lehendabizi kontsokratu ziona, hau da, lekua zatitu zuelarik *klimak* eta *elementuak* irudikatzen zituzten zati geometrikoetan, txikian imitatzen du *Mitrak* ezartzen duen unibertsoaren ordena eta osaketa. Zoroastroren ostean,

ohitura bilakatu zen leizeak *misterio* -*en* ospatzera kontsakratzea; modu horretan, tenpluak jainko zerutiarrei dedikatzen zaizkien bezala, landako aldareak heroi eta jainko lurtarrei dedikatzen zaizkie, lurpeko leizeak *infernuko* jainkoei (beherenekoei); horrela *leize* eta haizuloak bereziki kontsakratu zitzaizkien *munduari*, *unibertsoari* eta ninfei; hortik dator kie Pitagorasi eta Platoni *munduari leize* edo *haizulo* deitzeko ideia (Porfirio, *de Antro Nympharum*).

Hara lehen proiektzio bat erliebean; nahiz eta persiarrek haren asmakuntzaren ohorea egozten dioten, ziurta genezake egiptoarren gan agertzen dela, eta gainera, sinpleena izanik, zaharrena izan behar duela: Tebaseko haizuloez, margoez beteta, ideia hori indartzen dute.»

Hara bigarren bate: «Egiptoarren *pro-feta* edo *hierofanteek*», dio Sinesius apezpikuak, misterioetan *iniziatua* zenak, «ez diete langile arruntei jainkoen idoloak edo irudiak egiten uzten; aldiz, eurak jaisten dira *haizulo* sakratuetara, bertan ezkutatuak dituztelarik kutxa batzuk, gordetzen dituztenak *esfera* jakin batzuk eta bertan irudikatzen dituztelarik *imajina* horiek, sekretuan eta *jendearen* ezagutzatik at, herriak gauza sinple eta naturalak mespretxatzen baititu eta *mirakulu* eta alegiak nahi baititu» (Sinesius, *in Calvit.*). Hau da, apaizek gureak lako esfera armilarrak zituzten; eta pasarte honek, Chaeremon-enarekin hain modu zehatzean bat egiten duenak, giltza eskaintzen digu haien *teologia astrologiko* oso rako.

Azkenik, *eredu lauak* zeuzkaten, hirugarren taulakoen tankerakoak;

aldea honakoa zen: euren ereduak, oso konplikatuak, itxurazko banaketa guztiak *dekano* eta *azpidekanotan* zatitzen ziren, influentzien oharrekin (hieroglifikoei). Kirker-ek kopia bat eman du bere *Oedipus egiptoar* -*rrae*an eta Gébelin-ek atal figuratu bat egutegiaren bolumenean (*egipto* -*ar zodiakoa* adieraren barne). Antzina nako egiptoarrek, dio Julius Firmicus astrologoak (*Astron.*, II. lib., 4. kap., eta IV. Lib., 16. kap.), zodiakoaren zeinu bakoitza hiru ataletan banatzen dute; sekzio bakoitza fikziozko izaki baten zuzendaritzapean dago, hari *dekano* edo *hamarrenaren buruzagi* deritzate; modu horretan hilabeteen hiru *dekano* zeuden, eta urtean hogeita hamasei. *Dekano* horiek, *jainko* (theoi) ere zeritzatenek, gizakien zoria arautzen zuten... eta izar jakin batzuetan ezartzen zituzten bereziki... Ondoren hamarren bakoitzean beste hiru *jainko* imajinatu zituzten, horiei *banatzaille* zeritzate-larik; horrela hilabeteen bederatzi zeuden, eta *botere* zenbatezin kopuru batean banatu ziren osteraren ere (Persiarrek eta indiarrek euren esfera antzeko eredu bidez egiten dituzte; eta Maniliusen bukaeran Scaligerok emaniko deskripzioan oinarrituriko taula egingo bagenu, haien hieroglifikoen azalpen zehatza aurkituko genukeen, artikulua bakoitzak bat osatzen baitu).

65 (*neguko hemisferioa, udakoareki* -*ko antipodan, harekiko arerioa, aurkakoa, oposatua* zen) Horregatik persiarrek buruz behera idazten zuten *Ahrimanesen* izena.

66 (*Typhon* zeritzana, *hau da, ur erauntsia, astro horrek agintzen zue* -

nean, lurra urez gainezka jartzen zuten zaparradak direla eta) Typhon, greziarrek *tufan* ahoskatzen dutena, baita arabiar *tuphan* hori ere, *eraun-tsia* esan nahi duena, eta *mitologieta-ko erauntsi* horiek guztiak ez dira ez bada, batzuetan *negua* eta euri jasak baino, besteetan Niloko urek gainezka egitea. Modu berean, *mundua* akabatu behar duten *suteak* ez dira ez bada udako *urtaroa*. Hara zergatik dioen Aristotelesek (*de Meteoris*, I. lib., 14. kap.) urte zikliko handiaren negua *erauntsi* bat dela, eta haren uda *sute* bat. «Egiptoarrek», dio Porfiriok, «urte bakoitzean talisman bat erabiltzen dute munduaren *omenez*; udako solstizioan *etxeak*, *abel taldeak*, *arbolak*, *gorriz* margotzen dituzte, esanez egun horretan mundu osoa *snaak* hartu duela. Garai berean ospatzen da dantza *pirrikoa* edo *suteare-na*» (Eta horrek azaltzen du su eta ur bidezko purifikazioen jatorria; Kantzer tropikoari deitzen zaiolarik zeruaren eta beroaren *ate*, edo *zeruko su*, eta Kaprikornio tropikoari *erauntsiaren* edo *uraren ate*, imajinatu zen zerura joateko edo handik etortzeko *ate* horietatik igarotzen ziren arima edo espirituak *erre* edo *bainatu* egiten zirela; hortik dator Mitraren *bataiatzea*, etaugarren arteatik pasatzea, Ekialde osoan praktikatzeko zena Moises baino askoz ere lehenago).

<sup>67</sup> (*Persiarren artean, beranduagoko garai batean*) Beranduagoko garai batean, hau da, aharia ekinozioko zeinua bilakatu zenean, edo, beranduago, zeruaren aldakuntzak adierazten zuenean ez zela jada zezena.

<sup>68</sup> (*bertatik datozelarik pozezko generoko erlijio ekintzak*) Antzinako

festa guztiak, eguzkiaren itzulerarekin edo gorespenarekin zerikusia zutenak, izaera horretakoak ziren: hortik erromatar egutegiko *hilariak*, udaberriko ekinozioaren *pasaerarekin* (pascha) ematen zirenak. Dantzak planeten ibilbidearen imitazioak ziren. Derbitxeenak oraindik ere hala irudikatzen dute.

<sup>69</sup> (*tristurazko generoko erlijio ekin-tza guztiak*) «Ez zaizkie», dio Porfiriok, «odolezko sakrifizioak eskaintzen demonio eta jeinu gaizkileei baino, haien haserrea desbideratzeko... Demonioek laket dute odola, *hezetasuna*, hatsa» (*apud* Eusebio, *Praep. Ev.*, 173. or.).

«Egiptoarrek», dio Plutarkok, «Typhoni soilik eskaintzen dizkiote odolezko biktimak. Idi gorri bat immolatzeko diote, eta sakrifizioarako animalia gorrotatua da, *herriaren bekatu* guztien erantzule bilakatzen da (Moisesen akerra)» (Ikus bedi *Isis et Osiris*).

(*izaki lurtarrak bereiztea puru ala ezpurutan, sakratu ala nardagarritan*) Estrabonek dio, Moisesi eta juduei buruz diharduelarik: «Supersiziotik jaiotzen dira zirkunzizioak eta zenbait jakiren debekapenak». Zirkunzizioaren praktikari dagokionez iruditzen zait haren helburua Osirisen sinboloari (phallusari) ernalkuntzarako duen ustezko oztopoa kentzea: Typhonen zigilua daraman oztopoa, «haren natura da», dio Plutarkok, «eragozte, oposizio egitea, oztopoak jartzea».

<sup>70</sup> Sei hilabeteko gauekin.

<sup>71</sup> Aliz-ek, fenizieraz edo hebraieraz, dantzari eta pozik esan nahi du.

<sup>72</sup> (*zorionekoek bertan itzalik ez iza - tea*) Gai honen inguruan bada Plutar-koren pasarte bat hain interesgarria eta hain ongi adierazten duena siste-ma hori guztia, ezen irakurleak eskertzen jakingo du osorik ematen badugu. Aipatu ondoren *onaren* eta *gaitzaren* teoriak betidanik jaso zue-la filosofo eta teologoen arreta, honakoa gaineratzen du: «Askok uste dute aurkako joerak dituzten jainko bi direla, batek *onerakoa* bes-teak *gaitzerakoa*; lehenari *jainko* deritza bereziki, eta bigarrenari *jeinu* edo *demonio*. Zoroastrok Oromaze eta Ahrimanes deitu izan ditu; eta esan du gure zentzumenek jasotzen duten orotatik, argia dela bata hobe-kien adierazten duena, iluntasuna eta ezjakintasuna bestea. Gaineratzen du Mitra haien arteko *artekaria* dela; eta hara zergatik persiarrek deitzen diot-en *artekari* edo *ararteko*. Jainko bakoitzak badauzka planeta eta ani-maliak hari kontsakratuak; esaterako, txakurrak, txoriak, kirikinoak, jeinu onarekin erlazionatzen dira; *urezko* animalia guztiak, gaiztoarekin. Bestalde persiarrek esaten dute Oro-maze jaio edo osatua zela argiaren formarik puruenean; Ahrimanes, aldiz, iluntasunik itxienean; Oroma-zek *sei* jainko egin zituela bera bezain onak, eta Arihmanesek sei gaizto oposatu zizkiola; ondoren *Oromaze hirukoiztu* egin zela (Her-mes trismegistus) eta aldendu egiten dela eguzkitik hau lurretik bezain urruti dagoen distantzia batera, ber-tan izarrak egiten dituela, besteren artean Sirius, zeruan ezartzen duena *zaindari* eta *zentinela* moduan. Gai-nera, beste hogeita lau jainko sortzen ditu *arrautza* batean ezartzen ditue-

nak; baina Ahrimanesek beste hogei-ta lau sortzen ditu *arrautza* urratzen dutenak, eta horrela ontasunak eta gaitzak nahastu egin ziren (uniber-tsoan). Alabaina, Ahrimanes egunen batean garaitua izanen da, eta lurra *berdina* eta *laua* bilakatu, eta jende guztia pozik biziko da.

Teoponpok gaineratzen du, magoen liburuetan oinarrituta, aldian-aldian horietako errege batek agintzen due-la hiru mila urtez, bestea haren *men - pe* dagoelarik; hurrengo, arma berdi-nekin egiten dutela borroka beste hiru mila urtez; baina azkenik jeinu gaiztoa gailendua izanen dela (itzule-rarik gabe). *Orduan gizakiak zorion - tsu izanen dira, eta euren gorputzek ez dute itzalik izanen*. Gauza horiei buruz orain hausnarketan dabilen jainkoa deskantsatzen ari da, gauza-tzeko momentuaren esperoan» (ikus bedi *Isis* et *Osiris*).

Alegoria bat argi agertzen da pasarte honetan guztian. *Arrautza*, esfera finkoa da, *mundua*; Oromazeren sei jainkoak, udako sei zeinuak dira; Ahrimanesen sei jainkoak, neguko sei zeinuak. Ondoren sorturiko berrogeita zortzi jainkoak antzinako esferaren berrogeita zortzi konstela-zioak dira, Ahrimanes eta Oromaze-ren artean banatzen direnak berdin. Siriusen rolak –*zaindari*, *zentinela*– ideia horien egiptoar jatorri agerian uzten du; azkenik, adierazpide horrek –lurra *berdina* eta *laua* bila-katuko dela, eta *gizakiek*, *pozik*, *itza - lik* *emango ez dutela*– erakusten digu *benetako paradisua ekuatorea dela*.

<sup>73</sup> (*Mitraren leizeko zeremonia mis - teriotsuak*) Apaizek leku guztietarik sortzen zituzten haitzulo artifiziale-tan misterioak ospatzen ziren, horiek

honakoan zetzaten, dio Origenesek –Zeltsok dioenaren aurka–, *astroen, planeten eta zeruaren mugimenduak imitatzean*. Iniziatuek konstelazioen izenak zeramatzen, eta animalien figurak hartzen zituzten. Bata lehoiz mozorrotzen zen, bestea beleaz, hangoa ahariaz: hortik lehen komedietako maskarak (ikus bedi *Antiq. Devoilée*, II. liburukia, 244. or.). Zeresen misterioetan *proziesioko* buruzagiari *sortzaile* zeritzan; sua zeramanari *eguzki*; aldaretik gertu zegoenari *ilargi*; heraldo edo diakonoari *Merkurio*. Egipton bazen festa bat eta bertan gizon-emakumeek *urtea, mendea, urtaroak*, egunaren atalak, antzestu, eta Bako jarraitzen zuten (*Athenea*, V. lib., 7. kap.). Mitraren haitzuluan bazen zazpi mailako eskailera bat, planeten zazpi esferak irudikatzen zituen, bertatik igotzen ala jaisten zirelarik *arimak*: Jakoben begitazioko eskailera bera da, era-kusten duena sistema osoa sortua zela garai hartarako. Erret Liburutegian bada bolumen zoragarri bat Indiako jainkoen margoak dituen eta, arimek gora egiten dutelarik, eskailera agertzen da (ikus bedi Bailly-ren *Astronomie ancienne*, bertan frogatzen dira osoki apaizen eza-gutzei buruz egin ditugun adierazpenak).

<sup>74</sup> (*bertan atal guztiak, nahiz eta urrutikoak izan, elkarren arteko lotura estua zuten*) Janblikoren hitzak dira (*de Myst. Aegipt.*)

<sup>75</sup> (*fluido igneo ala elektriko*) Zenbat eta gehiago hausnartzen dudan antzinakoek *eter* edo *espiritu* kontzeptuen gainean zuten ideiaz, eta indiarrek *akache* deriztaten horretaz, hainbat eta analogia handiagoa aur-

kitzen diot fluido elektrikoarekin. Argi fluido bat, unibertsoa betetzen duena, astroen materia osatzen duena, beroaren eta mugimenduaren printzipioa, gorputz bat kitzikatu eta berau dilatatu bete egiten duten molekula biribilak dituen, euren hedadura edozein delarik: zer izan daiteke elektrizitatea baino antzekoagoa?

<sup>76</sup> (*eguzkia zuena bihotz eta foku*) Fisikariek, dio Makrobiok, eguzkiari munduaren *bihotz* deritzate (20. kap., *Som. Scip.*). Egiptoarrek, dio Plutarkok, ekialdeari munduaren *aurpegi* deritzate, iparraldeari *eskuin aldea*, hegoaldeari *ezker aldea* (bihotza han baita kokatua); etengabe erkatzen dute unibertsoa gizaki batekin; eta hortik *alkimistek* ospetsu egiten duten *Mikrokosmos* hori. Aipatu beharra dago, bestetik, alkimistak, kabalistak, framazonak, magnetizatzaileak, martinistak, eta mota horretako begitaziodun horiek guztiak, antzinako eskola horren dizipulu erratuak baizik ez direla (Kontsulta bitez Ocellus Lucanus pitagorikoa eta Kircher, *Oedipus Aegyptiacus*, II. liburukia, 205. or.).

<sup>77</sup> (*eterrean jaiotzen den eguzkiaren globoa dago irudikatuta zeruaren bobedan*) Eguzkia eta arrautzaren gorringoa alderatzeak erreferentzia egiten dio: 1. *kolore horiko* figura biribilaren analogiari; 2. *erdigunean* duten kokapenari; 3. gorringoan dagoen *germen* edo bizitzaren printzipioari. Figura obalatua egon al daiteke *orbiten elipsearekin* erlazionatua? Hori iruditzen zait. *Orfiko* adierak aipagarria den gauza ideia berri bat dakarkigu. Makrobiok dio (*Som. Scip.*; 14. eta 20. kap.) eguzkia



dela unibertsoaren *garuna*, eta analo-  
giaren bidez gizakiaren garezurra  
*biribila* dela, adimena kokaleku duen  
planeta legez. Bestalde, *oerph* hitzak  
hebraieraz *garuna* eta beronen koka-  
lekua (*cervix*) esan nahi du; beraz,  
Buda edo Baits bezalakoa da Orfeo,  
eta *bontzoak*, berriz, Plutarkok des-  
kribatzen dizkigun *orfiko* horiek  
dira, hitzunak, haragirik jaten ez  
dutenak, talismanak, harriak, eta  
abar saltzen dituztenak, eta gizabana-  
koak zein *gobernuak* ere nahasten  
dituztenak (Ikus bedi Freret-en  
memoria argi bat orfikoen gainean,  
*Acad. Des Inscript.*, XXIII. liburukia,  
4.)

<sup>78</sup> (*buruan urrezko esfera bat dara -  
malarik*) Ikus bedi Porfirio, Euse-  
bion, *Praepart. Evangel.*, III. lib.,  
115. or.

<sup>79</sup> (*Hortik dator arimaren ezilkorta -  
sunaren sistema osoa*) Lehen espiri-  
tualisten sisteman arima ez zen gor-  
putzarekin batera —edo une berean—  
sortua, bertan sartua izan zedin; eter-  
nitate osoa baino lehen existitzen zen  
jada. Hara, hitz gutxitan, Makrobiok  
gai honen inguruan azaltzen duen  
doktrina (*Som. Scip. passim*).

«Bada fluido *argitsu*, *igneo*, *oso fin  
bat*, *eter* edo *spiritus* izena duena, eta  
unibertsoa betetzen duena. Eguzkia-  
ren eta astroen substantzia osatzen  
du; bizitza ororen, mugimendu oro-  
ren, printzipio eta *eragile esentzial*  
da; Dibinitatea da. Lurrean gorputz  
bat animatua izan behar denean, flui-  
do horren molekula *biribil* batek  
Esne-bidea zeharkatzen du ilargiaren  
esferarantz; eta, behin hara iritsita,  
*aire* lodiago batekin nahasten da, eta  
materiarekin elkartzeko egoki bila-  
katzen da. Orduan, eratzen ari den

gorputzean sartzen da, osoki bete-  
tzen du, bizia ematen dio, eta harekin  
sufritzen, hazten eta txikitzen da;  
azkenik, hiltzen denean, eta elemen-  
tu nagusiak disolbatzen direnean,  
molekula *ustelezin* hori hartatik  
bereizten da; eta ondoren eter ozeano  
zabal horretan biltzen da, ilargiko  
*airearekin* duen nahasketak ez badu  
atxikitzen; aire (edo *gas*) hori da,  
gorputzaren formak kontserbatzen  
dituelarik, itzal edo fantasma  
moduan mantentzen dena, defuntua-  
ren irudi perfektu moduan. Grezia-  
rrek itzal horri arimaren *irudia* edo  
*idoloa* zeritzaten; pitagorikoek bere  
*gurdia*, bere *gordelekua*; eskola erra-  
binikoak bere *ontzia* edo *txalupa*.  
Gizakia mundu honetan ongi porta-  
tzen zenean, arima hori osoa, hau da,  
bere *gurdia* zein *eterra*, ilargira zihon-  
an, bertan bereizketa egiten zelarik;  
*gurdia* ilargiko eliseoan bizitzen zen,  
*eterra* esfera finkora itzultzen zen,  
hau da, Jainkoarengana: ezen,  
Makrobiok dioenez, askok *Jainkoa*  
deritzate zeru finkoari (14. kap.).  
Gizakia ez bazen ongi portatzen, ari-  
ma Lurrean geratzen zen purifikatua  
izan zedin, eta noraezean ibiltzen  
zen, Homeroren itzalen antzera,  
honek ere doktrina osoa ezagutu bai-  
tzuen, Asian, Ferezidesek eta Pitago-  
rasek Grezian hedatu baino hiru  
mende lehenago. Herodotok, gai  
honen inguruan honakoa dio, *arima -  
ren eta berorren transmigrazioen  
istorio osoa egiptoarrek asmatu zute -  
la*, eta Grezian euren buruak egiletzat  
zituzten pertsonak zabaldutela.  
Badakizkit haien izenak, dio, baina  
ez ditut aipatuko (II. lib.). Zizeron,  
aldiz, Ferezides —Pitagoraren mai-  
sua— izan zela diosku (*Tuscul.*, I lib.,

16.). Sirian eta Judean topa dezakegu haren existentziaren froga ukigarri bat, Pitagoras baino bost mende lehenago, Salomonen esaldi honetan, ondokoa dioenean: «Nork daki giza espiritua goreneko aldeetara igotzen ote den? Nik uste dut, giza kondizioaz hausnarketa egiten dudanean, animaliena bezalakoa berdina dela. Haren bukaera berdina da, gizakia animalia legez hiltzen da, batenetik geratzen dena bestetik geratzen dena da; ezer ez.» (*Eccles.*, III. kap., II. v.). Horixe zen Moisesen iritzia baita ere, Herodotoren itzultzaileak (Larcher-ek) azpimarratu duen moduan, lehen edizioan (II. lib., 389. oharra), bertan baitio hebrearren artean *hilezkorta* -*suna* ez zela sartu asiriarrekin komunikatzean baino. Bestetik, sistema pitagoriko osoa, ongi aztertzen bada, ez da gaizki ulerturiko sistema fisikoa baizik.

<sup>80</sup> (*Adiera horiek berak, tipo moduan balio izan duten izaki fisiko -etatik atereak*) Azken analisian, Dibinitatearen izen guztiak *objektu material* batetatik –bertan kokalekua lukeelarik– eratorriak direla ikusten da. Adibide saldoa ikusi dugu: eman diezaiogun beste bat gure *jainko* hitzari. Adiera hori, esan den moduan, latindarren *deus* da, greziarren *theos* dena halaber. Platonen (*in Cratylō*), Makrobioren (*Saturn.*, I. lib., 24. kap.) eta Plutarkoren (*Isis et Osiris*) iritziz, haren erroa *thein* da, alde batetik bestera ibiltzea esan nahi duena, *planeine* bezala; hortaz, *plāneten* sinonimoa da, ezen, autore horiek diotenez, *antzinako greziarrak*, *barbariarrek bezala*, *planetak gurtzen baitzituzten bereziki*. Badakit asko gaitzetsi izan direla etimologia

horiek; baina, *hitzak ideien zeinu* errepresentatzaileak badira –egia dena–, batzuen genealogiatik besteen eratorzen da, eta hiztegi etimologiko bat giza adimenaren *historiarik* perfektuena izanen da. Soilik beharrezkoa da ikerketa horretan oraindano hartu ez diren zenbait ardura hartzea, eta beste hainbat gauzaren artean beharrezkoa da alfabeto ezberdinetako hizkien balorea erkatzea zehaztasunez. Alabaina, gure gaiarekin jarraitzearren, gaineratu behar dugu feniziarrez *thah* hitzak *alde batetik bestera ibiltzea* esan nahi duela baita ere, eta *theinen* sorburua dela dirudiela. Suposatzen badugu *deus* greziar *theusetik* datorrela, *Jupiterren* izen berezia, erroztat *zaw* duelarik, *ni bizi naiz*, juren zentzua izanen du orduan, eta munduaren *arima*, *jatorrizko sua*, esan nahiko du. *Divus* –jeinu, bigarren mailako *jainko* esan nahi duena– iruditzen zait ekialdeko *div* edo *dibetik* datorrela: *otsoa* eta *txakala*, *eguzkia* -*ren* ikurretako bat. Tebasen, dio Makrobiok, *eguzkia otso baten edo txakal baten irudiarekin margotzen da* (ez baitago otsorik Egipton). Ikur horren arrazoa zalantzarik gabe da *txakalak* bere intziriekin eguzkiaren irteera gaztigatzen duela, oilarrak legez; eta arrazoi hori konfirmatzen dute honako hitzen analogiak: *lycos*, *loup* (otso) eta *lykek*, *goizargia*, hortik datorrelarik *lux* edo argia. Diusek –eguzkiaz ere ulertzen den hori– *dihtik* (gabirai) datorrela pentsa daiteke. «Egiptoarrek», dio Porfirio (Eusebio, *Praep. evang.*, 92. or.), «eguzkia gabirai baten ikurrarekin margotzen dute, hegazti horrek airean garai hegan egiten baitu, argia

lepo dagoen leku horretan». Eta, izan ere, Kairon halako milaka hegazti ikus ditzakegu airean planeatzen, eta ez dira jaisten ez bada euren oihuekin gogaitzeko, *dih* silaba imitatzen dutela dirudielarik; eta hemen, aurreko adibidean bezala, topa dezakegu honako hitzon analogia: *dies*, *jour* (eguna), *argia*, eta *dus*, *dieu* (jainkoa), *eguzkia*.

81 (*euren eztabaidekin zientziaren eta aurkikuntzen aurrerakuntza bultzatu zuten*) Sistema horiek Egipton asmatu zireneko froga onargarrienetako bat da herri hori dela antzinate zaharretik doktrina corpus oso bat topa genezakeen leku bakarra.

Alexandriako Klementek transmititu digu (*Stromat.*, VI. Lib.) Isisen prozesioa deskribatzen digu: «Buruza-giak», dio, «edo xantreak, instrumentu bat darama, musikaren sinboloa, eta Merkurioren liburu bi, batek jainkoei zuzenduriko himnoak daukana, eta besteak erregeen zerrenda. Beregandik gertu, *horoskopoak* (denboraren arautzaileak) palmondo bat eta erloju bat darama, astrologiaren sinboloak; buruz jakin behar ditu Merkurioren lau liburuak, astrologiari buruzkoak, lehena planeten ordenari buruzkoa, bigarrena eguzkiaren eta ilargiaren goraldiei buruzkoa, eta gainontzeko biak astroen aspektu eta goraldiei buruzkoak. Ondoren *eskribau santua* dator, buruan lumak daramatzana (*Knephek* bezala), eta liburu bat eskuan, tinta eta kanaberrazko makilatxo bat idatzeko (arabiarrek egun horrela egiten dute). *Hieroglifikoak* ezagutu behar zituen, unibertsoaren deskripzioa, eguzkiaren, ilargiaren, planeten ibilbidea, ezagutu behar zuen Egiptoren bana-

keta (36 nometan), Niloren ibilbidea, instrumentuak, ornamentu sailduak, leku sailduak, neurriak, eta abar. Ondoren, *estola eramaillea* zetorren, *justiziaren* ukondoa, edo Niloren neurria, eta libazioetarako *kaliza* zeramatzana, eta hamar bolumen sakrifizioen, himnoen, otoitzen, ofrenden, zeremonien eta festen gainekoak. Azkenik, *profeta* agertzen zen, magalean eta agerian *pitxer* bat zeramana; *ogia* zeramaten pertsonak jarraitzen zuten (Kanako ezteietan bezala). Profeta horrek, misterioen presidente moduan, beste hamar bolumen sakratu ikasi behar zituen, horiek legei, jainkoei, eta apaizen diziplinari eta abarri buruzkoak ziren. Hortaz, berrogeita hamabi bolumen ziren guztira, hogeita hamasei pertsonaia horiek buruz ikasiak ziren, eta gainontzeko seiak *pastop-horoek* kontsultatzeko ziren; medikuntzari, giza gorputzaren osaerari (anatomiarri), gaixotasunei, medizinei, instrumentuei eta abarri buruzkoak ziren».

Irakurleari utziko diogu halako entziklopedia baten eragina nolakoa izan zitekeen irudikatzea. Merkuriorei egozten zitzaion, baina Janblikok ohartarazten digu apaizek idatziriko liburu oro *jainko* horri egozten zitzaiola, zodiakoaren jeinu edo dekano *egile* bezala, lan ororen egikera presiditzen baitzuen. Erromatarren *Janus* da, indiarren *Guianesa*, eta azpimarragarria da *Yanus* eta *Guianes* homonimoak direla. Bestetik, badirudi liburu horiek direla latindarrek eta greziarrek zientzia guztietan, baita *alkimian*, nekromantzian, eta abarretan ere, utzi digutenaren jatorria. Deitoragarriena da

faltatzea higie-ne eta dietetikako atalak, badirudi horietan egiptoarrek benetako aurrerakuntzak eta ohar probetxugarriak egin zituztela.

<sup>82</sup> (*bere jainkoa egiptoar jainkoa zen dena den*) «Garai jakin batean», dio Plutarkok (*de Iside*), «egiptoar guztiek euren jainko animaliak margotuak zeuzkaten. Tebastarrak dira margolariak erabili ez zituzten bakarrak, gurtzen baitzuten jainko bat zentzumenetatik kanpoko formak zituen, eta ezin zena irudikatu». Eta hara Moisesek, Heliopolisen ikasle, adoptatzen duen jainkoa, baina ez da hura asmatzailea.

<sup>83</sup> (*Yahuh, izenak berak traditzen duenez*) Hori da gure modernoek Jeovahrentzat duten benetako ahoskera, gai horren gainean kritikaren arau oro bortxatzen dutelarik, ezen argi dago antzinakoek, batez ere siriar eta feniziar ekialdetarrak, ez zutela inoiz ezagutu ez *Jrik* ez *Vrik*, tatariarrengandik baitzetozen. Oraindik badirauen arabiarren erabilera, hemen berrezarri duguna, Diodorok konfirmatzen du, *Iaw* baiteritza Moisesen *jainkoari* (I. lib.); eta ikusenezake *Iaw* eta *Iahuh* hitz bera direla; baina, zehaztasun handiagoaz jartzearen, zentzuarekin berarekin frogatuko dugu berdintasun hori.

Hebraieraz, hau da Asia beheko hizkuntza amankomunaren dialektotariko batean, *Yahuh* baliokidea da gure *den hura*, *existitzen den izakia*, perfrasiena, esan nahi baita, *bizitza-ren printzipioa*, *eragilea*, edo *mugi-mendua* bera (izakien arima unibertsala). Zer da Jupiter baina? Entzun ditzagun latindar eta greziarrak euren teologia azaltzen: «Egiptoarrek», dio Diodorok, Menfiseko

apaiz zen Manethonengan oinarrituta, «*bost elementuei* izena jartzerakotan, *espirituari* (edo eterrari) *Yupiter* deitu zioten, *hitz horren esanahi propioa* dela eta, *espiritu bizitzaren sorburua* baita, animalien dagoen *bizitza printzipioaren* egilea; eta arrazoi horregatik kontsideratzen dute *aita*, *izakien sortzailea*». Hara zergatik Homerok gizaki eta jainkoen *aita* eta *errege* deitzen dion (Diod., I. lib., I. atala)

«Teologok», dio Makrobiok, «Yupiter munduaren arima kontsideratzen dute; hortik dator Virgiliok erabiltzen dituen hitzak: *Musak*, has gaitzen *Yupiterrekin* (*Somn. Scipio.*, 17. kap.); eta *Saturnaliatan* honakoa dio: *Jupiter eguzkia bera da*; Virgiliori ondokoa esatea ere eragin dio: *espirituak* (izakien) *bizitza* elikatzen du, eta (unibertsoko) *izaki* anitzetan hedatzen den *arimak* masa osoa astintzen eta gorputz itzel bat osatzen du».

«Jupiter», diote Egipton jaioriko sekta orfikoaren antzinako bertsoek, Pisistratoren garaian Onomakritok jasoriko bertsoetan, «Jupiter, tximista eskuetan duela irudikatua, gauza guztien hasiera, sorburua, bukaera eta erdigunea da: botere bakarra eta unibertsala, guztia gobernatzen du, zerua, lurra, sua, ura, elementuak, eguna, gaua. Hara bere gorputz itzela osatzen duena: bere begiak eguzkia eta ilargia dira; bera eternitatea da, espazioa». «Azkenik», gaineratzen du Porfiriok, «Jupiter *mundua* da, *unibertsoa*, izaki guztien *existentzia* eta *bizitza* osatzen duena. Alabaina», jarraitzen du egile berak, «filosofoek *jainko* honen naturari eta osatzen duten elementuei buruz ados

ez direnez, eta ezin dutenez imajinatu figura bat atributu guztiak irudikatu dituen, gizaki baten itxurarekin margotu zuten. *Eserita* dago, erreferentzia egitearren bere esentzia aldagaitzari; gorputzeko goi partea biluzik du, unibertsoaren goialdean (astroetan) erakusten baitu gehien bere burua; gerritik bera jantzita dago, gehien ezkutatzen baita gauza lurtarretan; ezkerreko eskuan zettoa dauka, bihotza alde horretan baitago eta bihotza da adimenaren kokalekua, (gizakiongan) ekinga guztiak arautzen dituen» (Euseb., *Praepart. Evang.*, 100. or.).

Azkenik, hara Estrabon filosofo geografaren pasarte bat, zalantza guztiak ezabatzen dituen Moisesen ideien identitateaz eta teologo paganoenaz.

«Moisesek, egiptoar apaiza baitzen, irakasten du akats izugarria dela Dibinitatea animalien formekin irudikatzea, egiptoarrek egiten duten moduan, edo gizakiaren formarekin, greziarrek eta afrikarrek praktikatzen duten moduan. *Dibinitatea* soilik da, dio, zerua, lurra eta izaki guztiak osatzen dituen, hau da, *mundua*, gauzen unibertsaltasuna, *natura*, deritzagun hori osatzen duena; arrazoizko pertsonarik ez dago haren irudia inguratzen gaituzten gauza horietako batekin irudikatzea otuko zaiona; horregatik, simulakro (idolo) espezie oro gaitzetsita, Moisesek nahi izan zuen dibinitate hori ikurrik gabe eta bere natura propioan gurzedin; beretzat duina zitekeen tenplu bat eraikitzea agindu izana, eta abar.» (*Geograph.*, XVI. Lib., 1.104. or., 1707.eko edizioa).

Hortaz, Moisesen teologia ez da des-

berdintzen *munduaren arimaren* jarraitzaileenetik, hau da, *estoikoe* -*netik*, eta ezta *epikureo*enetik ere.

Moisesen historiari dagokionez, Diodorok modu naturalean azaltzen du, XXXIV. eta XL. liburuetan ondokoa dioenean, «juduak gosete garai batean Egiptotik egotziak izan ziren, herrialdea atzerritarrez lepo zegoe-nean, eta Moises, gizaki gorena bere zuhertasuna eta ausardia dela eta, aukera horretaz baliatu zen bere nazioa Judeako mendietan ezartzeko». *Exodoak* aipatzen dituen seiehun mila gizon armatu horiek, kopistaren akatsa izanzen zen, baina irakurleak frogapena ediren du, liburuetatik bertatik hartuta, *Recherches nouvelles sur l'Histoire anciennes* lehen liburukian.

<sup>84</sup> (*Ei –existentzia– izenarekin*) Hori da Delfoseko tenpluaren atean idatziriko monosilaboa. Plutarkok tratatu baten gai bihurtu du.

<sup>85</sup> (*Osirisen izena bera*) Honela idatzia dago literalki *Deuteronomioaren* 32. kapituluari: «Tsour-en lanak perfektuak dira». *Tsour* itzuli izan da *sortzaile* moduan; izan ere, *formak* ematea esan nahi du; eta *Osirisen* definizioetako bat da Plutarkoren lanean.

<sup>86</sup> Begia eta eguzkia izen berarekin adierazten dira Asiako antzinako hizkuntza gehienetan.

<sup>87</sup> (*jeinu arerioarena (Satan), Mikel arkanjelua, egunen agurearena (Ormuz)*) «Aingeruen eta hilabeteen izenak, hala nola, Gabriel, Michel, Yar, Nisan, eta abar, Babiloniatik etorri ziren juduekin batera» dio literalki Jerusalemgo Talmudak (Ikus bedi Beausobre, *Hist. Du Manich.*, II.

liburukia, 624. or., bertan ikusten da egutegiko sailduak persiarren 366 aingeruen imitazio direla; eta Janblikok, *De Mysteriis Aegyptiorum*, 2, atala, 3. kap., aingeru, arkanjelu, serafin eta abarrez dihardu, benetako kristauak legez).

<sup>88</sup> (*Zoroastroren teologia kontsakratu zuten*) «Gymnosofisten filosofia osoa», dio Diogenes Laertziok, antzinateko idazle batean oinarrituta, «*magoenetik* dator, eta askok baieztatzen dute juduenak ere jatorri bera duela» (I. lib., 9. kap.). Megastenesek, Seleuko Nikanorren garaiko eskribau ospetsuak, partikulariki Indiari buruz idatzi zuenak, antzinatekoek *gauza naturalei* buruz zuten filosofiaz diharduelarik, zentzu berean kokatzen ditu brahmanak eta juduak.

<sup>89</sup> (*lurrean urrezko aroa berriz ere berrezarri behar zuen*) Hara Jesusi aplikatzen zaizkion orakulu pagano horien guztien arrazoia, eta zehazki Virgilioren laugarren egloga eta antzinatekoen bertso sibilinoak.

<sup>90</sup> (*inferitu zuten sei mila urte horien buruan amaitu beharko zela*) Irakur bedi *Recherches nouvelles sur l'Histoire anciennere* lehen liburukiko 17. kapitulua, bertan azaltzen baita *sorkuntzaren mitologia*. Hirurogeita hamargarren bertsioaren arabera denbora tarte 5.600 urte ingurukoa da; eta kalkulu hori da gehien jarraitu izan dena. Gauza jakina da, Elizaren lehen mendeetan, munduaren *bukaeraren* iritzi horrek zenbatean asaldatu zituen espirituak. Hortaz, kontzilio sailduak, gertatu ez zelako indartuta, *milenaaristen* sektako heresiatzat hartu zuen; gauza bitxia da, ezen, jarraitzen ditugun Ebanjelioek

berek argi uzten baitute Jesus bera *milenarista* zela; hau da, *heretikoa* zen.

<sup>91</sup> (*sugearen konstelazioak, irudikatzen duen hori*) «Persiarrek», dio Chardinek, «sugearen konstelazioari Ophiucus deritzate, *Evaren Suge*»; eta Ophiucus edo Ophineus suge horrek rol bera du feniziarren teologian; Ferezidesekek, haien dizipulu zein Pitagoraren maisu zen horrek, honakoa dio: «*Ophineus serpentinus* Jupiterren kontra erreboltatu zirenen buruzagia izan zen» (Ikus bedi *Mars. Ficin. Apol. Socrate*, 797. or., 2. kol.). Gaineratu behar dut *ephahk* hebraieraz *sugegorria*, *sugea*, esan nahi duela.

Zentzu fisiko batean *seduzitzea* ez da hark *erakartzea*, hark gidatzea, baizik. (Ikus bedi Hyde, 111. or., 1760ko edizioa, *de Religione veterum Persarum*: *Mitraren* taula, hemen aipatzen dena).

<sup>92</sup> (*Pertseo beste aldean altxatzen da*) Hobe, Medusaren burua, emakume hori, *behin hain ederra zena*, Pertseok moztu zuena eta eskuan zera mana, ez da birjinarena baizik, buru hori horizontean beheara desagertzen delarik Pertseo igotzen den aldi berean; eta hura inguratzen duten sugeak Ophiucus eta dragoi polarra dira, orduan zenita betetzen dutelarik. Horrek adierazten digu zer modutan osatzen zituzten antzinako astrologoek euren figura eta fabula guztiak. Horizonteko zirkuluan aldi berean ziren konstelazioak hartzen zituzten, eta, atalak bilduz, taldeak osatzen zituzten almanaka bezala balio zietenak, karaktere hieroglifikoetan. Hara haien taula guztien sekretua, eta munstro mitologiko

guztien soluzioa. Birjina Andromeda da ere, Pertseok hura jarraitzen (*pro - sequitur*) duen baleatik salbatzen duena.

<sup>93</sup> (*birjina kastu batek bularra ematen zion*) Halakoa da Aben-Ezrak aipatzen duen esfera persiarra, Blauen-en *Coelum poeticumen*, 71 or., «Birjinaren lehen dekanoren gunea», dio eskribau honek, «ile luzeko birjina eder hori irudikatzen du, aulki batean eserita, esku batean galburu bi, nazio batzuek *Iesus* –grezieraz Christo– deritzaten haur bati bularra ematen».

Erret Liburutegian bada arabiar eskuizkribu bat (1.165. zbk.), bertan hamabi zeinuak margotuak agertzen direlarik, eta birjinarenak irudikatzen du alboan haur bat duen emakume gazte bat; bestetik, Jesusen jaiotzaren eszena osoa alboko zeruan irudikatua dago. *Korta* aurigaren eta *akerra* –lehenago *kaprikornio*– konstelazioa da: *praesepe Jovis Heniochi*, *Iuren korta*, deritzan konstelazioa. *Iu* izen hori berriz ere aurkitzen da *Iuseph* (Joseph) izenean. Ez urruti Typhonen astoa dago (Hartz Nagusia), eta idia edo zezena, jaiotzan aspaldiko laguntzaileak. Pedro, zaindaria, *Janus* da bere giltzekin eta bekoki ilez soilduarekin; hamabi apostoluak hamabi hilabeteen jeinuak dira, eta abar. Birjina honek rolik anitzenak bete ditu mitologia guztietan: *egipto* –arren *Isis* izan da, Julianok aipatzen duen inskripzioan honakoa dioena: *eman dudan fruitua eguzkia da*. Plutarkok aipatzen dituen ezaugarri gehienak harekin erlazionatuak dira, *Osirisenak Bootesekin* harremana duten moduan. Horrela Hartzaren zazpi izar nagusiak, *Daviden gurdi*

deritzatenak, *Osirisen gurdi* ere deitzen ziren (ikus bedi Kirker); atzean kokatua dagoen *koroa*, huntzez egina, *Chen Osiris* deitzen da, *Osirisen arbola*. *Birjinari Zeres* deitu izan zaio halaber, haren misterioak Isis eta Mitrarenak bezalakoak zirelarik. Efesoko *Diana* izan da; Siriako jainkosa handia, *lehoiek* daramaten *Zibelles*; *Minerba*, Bakoen ama; *Astraea*, birjina purua, *urrezko aroan*, zerura igoa izan zena; *Themis*, berorren oinetan dagoena bere esku jarri zuten balantza; Virgilioren *Sibila*, *infernuetara* jaisten dena, hemisferiotik behera doana eskuan adar bat daramalarik, eta abar.

<sup>94</sup> (*abaildua, umil, ilun, txiro biziko zen*) *Umil* hitz hori latinetik dator: *humi-lis, humi-jacens*, lurrean etzana edo lurrerako joera duena; eta etengabe zentzu fisikoa zentzu abstraktu eta moralaren erroa bilakatzen da.

<sup>95</sup> (*segituan berpizten da, zeruaren bobedan berragertzen da*) *Berrager-tzeak, bigarren aldiz altxatzeak*, ez du esan nahi *bizitzara itzultzea* ez bada metafora ausart baten bidez baizik; baina tradizioetan erabiltzen diren hitzen zentzu ekibokoaren ondorio etengabeak ikusten ahal dira.

<sup>96</sup> (*Kris deitzen zela, hau da kontserbatzailea*) Erabilera arruntenaren arabera, greziarren *x*, edo espainierako jota, erabili zuten ekialdeko *ha* hasperendua adierazteko, haiek *haris* esaten baitzuten. Hebraieraz *heres* eguzkia da; arabiarrez, errozko hitzak *zaintzea, kontserbatzea*, esan nahi du, eta *harisek zaindari, kontserbatzaile*. *Vishnuri* dagokion epitetoa da; eta honek aldi berean frogatzen

tzen ditu indiar eta kristauen trinitateak, eta haien jatorri amankomuna. Gauza argia da sistema bera dela, bi adarretan bereizten delarik, bata ekialdean, bestea mendebaldean, bi forma ezberdin hartu dituen: enbor nagusia *munduaren arimaren*, edo *Iupiterren* sistema pitagorikoa da. *Piterren*, edo *aitaren*, epiteto hori platonikoen *demi-urgosera* igarotzen, anbiguotasunak eragin zuen hari *seme* bat bilatzea. Filosofoentzat, semea *ulermena* zen, *nous* eta *logos*, bertatik latindarren euren *verbuma* sortu zuten. Horrela atzamarrez eta begiaz uki dezakegu *aita eternalaren* eta bere semearen *verbumaren* jatorria, hartatik baitatzen (*mens ex deo nata*, dio Makrobiok): *anima* edo *spiritus mundi* zen *Espiritu Santua*. Hara zergatik Manes-ek, Pasilides-ek, Valentinok eta lehen mendeetako beste hainbat ustezko heretikok, jatorrira lerratu baitziren, esan zuten Aita Jainkoa zela zeruko argi helezina eta gorena (lehen zirkulua, *aplanesa*); semea, aldiz, bigarren argia, eguzkian bizi zena, eta, Espiritu Santua, lurra inguratzen zuen airea (ikus bedi Beausobre, II. liburukia, 586. or.). Hortik dator siriarren artean duen *usoaren* ikurra, *Venus Urania* -ren hegaztia, hau da, airearena. «Siriarrek», dio Nigidiok (*de Germanico*), «diote *uso* batek Eufratesen txitatu zuela zenbait egunetan arrain *arrautza* bat, bertatik *Venus* jaio zelarik». Hortaz, ez dute usorik jaten (dio Sexto Enpirikok, *Inst. Pyrrh.*, III. lib. 23. kap.); eta horrek adierazten digu arrainaren zeinuan (neguko solstizioan) hasten den garai bat. Azpimarratu behar da, bestalde, *Chris Haris*chetik datorrela, *fabrika* -

*tzaile* esan nahiko duela, eguzkiari dagokion epitetoa. Aldaera horiek, antzinakoei oztopoak jarriko zizkitenek, bestetik egun frogatzen dute zein den Jesusen benetako tipoa, Tertulianoaren garaian jada konturatu ziren moduan: «Askok», dio idazle horrek, «*sinesgarritasun* gehiagorekin erakusten dute eguzkia dela gure Jainkoa; eta persiarren erlijiora lerratzen gaituzte» (*Apologet.*, 16. kap.).<sup>97</sup> (*eguzkiaren periodoetako bat*) Ikus bedi Martianus Capella-ren oda bitxi bat, Gébelinek itzulia (*Calendrieraren* bolumena, 547. eta 548. orrialdeak).

<sup>98</sup> (*giza sakrifizioak [debekatu ditu]*) Eusebioaren deklarazio hotza irakur bedi (*Paeparat. Evang.*, I. lib., 11. or.), esaten baitu Kristo etorri eta gero ez dela egon ez gerrarik, ez tiranorik, ez *antropofagorik*, ez pederastarik, ez intzestu-egilerik, ez gurasoak jaten dituen basatirik, eta abar. Elizako lehen doktoreak irakurtzen ditugunean, behin eta berriro harritzen gara euren fede gaixoaz edo itsutasunaz. Euren adierazpen xelebreenetako pasarteekin bolumen bitxi bat egin daiteke egun, euren erokeria argi agertuko bailitzateke. Egia honakoa da: kristautasunak ez duela ezer asmatu moralari dagokionez, eta daukan meritu bakarra dela praktikan jarri dituela daukaten arrakasta garaia egotzi behar zaizkion printzipioak; esan nahi baita, erromatarren despotismo harro eta gogorrak, bere adar militar, judizial eta administratibo anitzekin, herrien pazientzia agortu zuen, eta klase behearen eta herrikoienetan erre-akzio bat eragin zuen, erabat antzekoa duela hogeita bost urte Europan



apaizgo eta feudal deritzaten kasten aurka sortu den horrena.

<sup>99</sup> (*zuen kidetza sakrilegoak, orain -dik hor dirautenak*) Maltako ordena da, bertako zaldunek zin egiten baitzuten musulmanak hil edo esklabo egingo zituztela, *Jainkoaren loriara -ko*.

<sup>100</sup> (*krimenentzat tarifa ezarri duzue*) Krimen oro garbitzeko modua dagoen artean, diruarekin edo praktika friboloekin zigorrak saihesteko; errege-erreginek eta handiek tenpluak eraikiz eta fundazioak sortuz euren zapalkuntza eta erailketak direla-eta absoluzioa lor dezaketela pentsatzen duten artean; gizabanakoei imajinatzen duten artean ebats eta nahas dezaketela, baraualdia egiten dutelako, konfesio egiten dutelako, edo azken igurtzia jasotzen dutelako; hori guztia gertatzen den artean ezinezkoa izanzen da moral publiko edo pribaturik egotea, inolako legedi praktikoa osasuntsurik. Bestalde, doktrina horien ondorioak ikusteko, irakur bedi *Histoire de la Puissance temporelle des Papes*, 2. bol., 8., Paris, 1811.

<sup>101</sup> (*ezkontza-oheko santutegi sakra -tuenera*) Aitorpena apaizen antzina-ko asmakuntza da, ez baitzuten lagako halako gobernatzeko modu bat... Egiptoar, greziar, frigiarrak, persiar misterioetan praktikatzeko zen. Plutarkok gorde digu espartar baten hitz gogoangarriak, apaiz bat hura konfesatze-za zetorrenean honakoa itaundu baitzuen: «Zuri ala Jainkoari aitortu behar natzaio?». «Jainkoari», erantzun zuen apaizak. «Orduan», esan zuen espartarrak, «utikan, gizona» (*Lazedemoniarren esaera azpima -*

*rragarriak*). Lehen kristauak euren hobekuntza publikoki aitortzen zituzten, eseniarrek bezala. Beranduago apaizak finkatu ziren, *idolatria* bekatua absolutitzeko boterearekin... Teodosioren garaian, emakume batek aitortu zuen elkarrekin batekin afera bat izan zuela, Nektario apezpikuak eta bere ondorengoak Krisostomok konfesionari gabe komunio egitea baimendu zuten. Ez zieten zazpigarren mendera arte komentuetako abadeek moja eta monjei inposatu urtean birritan aitorpena egitea; eta ez zen beranduago arte izan Erromako apezpikuak orokortu zutela. Musulmani dagokienez, praktika hori izua baitzuten, eta emakumei ez diete eskaintzen ez izaera moralik, ezta arimarik ere, ezin dute ulertu gizon ondarru batek nola entzun ditzakeen neska edo emakume baten ekintza edo pentsamendurik sekretuenak. Guri, frantsesoi, gurean hezkuntzak eta sentimenduek emakume asko gizonak baino hobekien egiten dituztelarik, ez al zaigu harrigarria egingo emakume ondarru batek apaiz edo moja baten jakin-nahi lotsagabeari erantzun behar izateak?

<sup>102</sup> (*asoziazio eta korporazio sekretuak sortu zituztela gizartearen gainontzeko kideen aurkakoak zirenak*) Betiere, herri deritzaten gainontzeko pertsonenganako apaizek duten espiriturik orokorra ezagutzeko entzun ditzagun Elizaren doktrina berak: «Herriak», dio Synnesius apezpikuak (*in Calvit.*, 515. or.), «tronpatua izatea nahi du; harenganako ezin dugu guk beste modu batean jardun... gauza bera gertatzen zitzaizkien antzinako egiptoar apaizei, horregatik euren tenpluetan itxi ziren, eta

bertan isolaturik osatu zituzten euren misterioak; (eta aurretik esandakoa ahantzita) herriak sekretua ezagutu izan balu, *haserretua* legoke tronpatua izateagatik. Bitartean, nola jardun beste modu batean herriarekin, *herri* den artean? Niri dagokidanez, filosofo izanen naiz ene buruarekin eta *apaiz* herriarekin».

«Ez da beharrezkoa berriketa apur bat baizik», esaten dio Nazianzeno Gregoriok Jeronimo deunari (*Hieron ad Nep.*), «herriari zerbait inposatzeko. Zenbat eta gutxiago ulertu, hainbat eta gehiago miretsiko du... Gure aitek eta doktoreek sarritan ez dute esan pentsatzen zutena, zirkuntantziek eta beharrak eskatzen zutena baizik».

«Saiatzen gara», dio Sanchoniatonek, «miresmena sortzen liluragarria denaren bidez» (*Praeparat. Evang.*, III. lib.). Halakoa da antzinate osoan dagoen jarrera; halakoa da oraindik ere brahma eta lamen artean, egiptotar apaizena bezalakoxea baita. Azpijoko eta nahasmendu sistema hori desenkusatzeko, esaten ohi da arriskutsua zatekeela herriari argia eskaintzea, argi horretaz abusu egingo bailuke. Esan nahi al du horrek hezkuntza eta artolokeria sinonimoak direla? Ez: baina herria malersa denez, gobernatzen eta doktrinatzan dutenen ergelkeria, ezjakintasuna eta kodizia dela eta, argi dagoena baino ez dute ikusi nahi. Zalantzarik gabe arriskutsua litzateke zuzenki eraso egitea nazio bateko sinesmen *erratuari*; baina arte filantropikoa eta osasungarria da begiak argirako prestatzea, besoa askatasunerako gertutzea lain. Noizbait zentzu horretan doan korporazio bat osatzen

bada, mundua harrituko du haren arrakastarekin.

<sup>103</sup> (*igarle, mago*) Zer da *mago*, herriak ematen dion adierarekin? *Hitz* eta *keinu* bidez, izaki supernaturalen gainean eragina izan eta bere ordenak obeditzea zein bere ahotsaren mende ezartzea gura duen gizakia da. Hara zer egin izan duten antzinako apaiz guztiek, oraindik ere zer egiten duten *idolatra* guztiek, eta, gure ustez, *mago* izena merezi duten guztiek. Zeruko Jainkoa ogi puzketa batean ezarri eta talisman horrekin arima puruak grazia egoera batean ezartzean, zer egiten da ez bada *magia ekintza* bat? Eta zer diferentzia dago haren eta xaman tatariar baten artean, azken horrek *jeinuak* inbokatzan dituenen, edo indiar brahmarekiko, Vishnu ur edalontzi batera jaitzarazten duenean, espiritu gaiztoak izutzearren? Baina horixe da *ohituraren eta hezkuntzaren magia*, guk soilik guregan arrazoigarri topatzen duguna, beste batzuegan xelebrea eta absurdua iruditzen zaiguna...

<sup>104</sup> (*prezio goreneko jenero edo sagai bailiran*) Jakin-nahia piztuko lukeen lana litzateke Aita santuaren *agnusaren* eta Lama Handiaren *pastillen* historia konparatua egitea! Baliagarria litzateke ideia hori erlijio praktika guztietara zabaltzea, eta zutabez zutabe herri guztien sinesmen eta superstizioen joera analogo eta aurkakoak biltzea. Bada beste superstizio mota bat osasuntsua litzatekeena sendatzea: *handienganako* errespetu gehiegizkoa. Horretarako, nahikoa litzateke mundua gobernatzen duten printze, gortesau eta ministroen bizitza pribatuaren zehaz-

tasunak idaztea. Ez da hori baino lan filosofikoagorik: ikusi genuen nolako oihuak egiten zituzten Berlingo Gortearen Anekdotak argitaratu zituztenean. Nolakoa litzateke asaldadura halakorik bagenu gorte bakoitzarekin? Herriak agerian ikusiko balitu bere idoloen miseria eta aldrebeskeria guztiak, ez litzateke tentatua egongo haien atsegin faltsuak desiratzeko; horien itxura nahasleak tormentatzen baitu eta eragozten baitio herriari bere benetako izaeraren zoriona disfrutatzen.

<sup>105</sup> *Naturaren legea* deritzan honako eranskin hau ez da agertzen *Palmira-*

*ko aurriak* itzultzeko erabili den frantses edizioan. Gutenberg proiektuan azaltzen den bertsioan, ordea, aurreko testuari jarraipena ematen zaio, eta hortik euskaratu da hemen eskaintzen den idazkia [itzultzailearen oharra].

<sup>106</sup> Latinezko *lex*, *lectio*, hitzetik. *Alcoranek*, berdin, lezio esan nahi du eta lege hitzaren itzulpen literala da.

<sup>107</sup> *Aztura* (ekintza jarraiak) hitzetik –latinez *mores*– dator *moral*a hitza zein berorren familia osoa.

<sup>108</sup> *Aequitas*, *aequilibrium*, *aequalitas*, denak ere familia berekoak dira.



# GIZA ESPIRITUAREN AURRERAKUNTZEN KOADRO HISTORIKO BATERAKO ZIRRIBORROA

CONDORCET

Gizakiak jaiotzez du sentrazioak jasotzeko ahalmena; baita sentrazio sinpleak eta konposatuak sumatzeko eta bereiztekoa ere; sentrazio horiek gordetzeko, ezagutzeko, konbinatzekoa; konbinazioak erkatzekoa; amankomunean ala bereizgarri dutena sumatzekoa; objektu guztiei ikur bat ematekoa, objektu horiek hobeto ezagutzearen, eta horien arteko konbinazio berriak erraztearren.

Ahalmen hori gizakiarengan garatzen da kanpoko gauzen eraginagatik, hau da, sentrazio konposatu zenbaiten agerpenagatik; sentrazio horien jarraitutasuna –bai euren loturatik datorren identitatean, bai euren aldakuntzaren legeetan– gizakiarengandik independentea da. Ahalmen hori berdin gara daiteke harengandik antzekoak diren gizabanakoekin izandako komunikaziotik. Azkenik, ahalmen horren beraren lehen garapenaren ondoren, gizakiek asmatutik bide artifizialen bidez ere gara daiteke.

Sentrazioekin batera plazera eta mina datoz. Gizakiak ahalmena du, halaber, uneko inpresio horiek sentimendu iraunkor –gozo ala mingarri– bihurtzeko; eta sentimendu horiek esperimentatzeko ikusmenaren bidez edo beste izaki sentikor batzuen plazer zein min oroitzen bidez. Azkenik, ahalmen horretatik, ideiak osatzeko eta konbinatzekoarekin batera, beregan zein bere antzekoengan interes eta betebeharrak sortzen dira, naturak horiei lotu dizkielarik gure zorionik preziatuena eta gure gaitzik mingarrienak.

Mugatzen bagara behatzera eta ezagutzera ahalmen horien garapenean agertzen diren lege konstanteak eta gertakizun orokorrak, gizabanako anitzetan amankomunean daukatenetik abiatuta, zientzia horri metafisika deitzen zaio.

Aldiz, garapen hori bera berorren emaitzen arabera kontsideratzen badugu, espazio jakin batean eta une berean elkarrekin existitzen diren gizabanakoen masaren arabera, eta belaunaldiz belaunaldi jarraitzen baditugu, orduan, giza espirituaren aurrerakuntzaren koadro bat aurkeztuko zaigu. Aurrerakuntza hori gure ahalmenen garapen indibidualean azaltzen diren lege orokorren menpe dago, garapen horren emaitza baita, aldi berean kontsideratuz erkidego batean biltzen diren gizabanako kopuru handi bat. Baina une bakoitzean agertzen duen emaitza aurreko uneetan agertutakoaren arabera da, eta jarraituko duten uneen gain eragiten du.

Hortaz, koadro hori historikoa da; etengabeko aldakuntzen menpekoea delarik, gizarteak garai ezberdinetan zehar jarraituan behatzetik sortzen da. Azaldu beharko du aldakuntzon ordena, agertu beharko du une bakoitzak ordezkatzeko duenaren gain duen eragina, baita ere, giza espezieak izan dituen aldaketetan zehar, mendeen handitasunean izan duen berrikuntza etengabea zehar, eduki duen ibilbidea, hau da, egiaren edo zorionaren norabidean jarraitu dituen urratsak. Behaketa horrek, aztertzen duenak gizakia zer izan den, egun zer den, ondoren, gizakiaren naturatik oraindik espero daitezkeen aurrerakuntza berriak ziurtatzeko eta azkartzeko bideetara erango du.

Hori da hasi dudana lanaren xedea, horren emaitza izanen da erakustea, arrazoimenaren eta gertakizunetan oinarrituriko datuen bidez, ez dagoela markaturik azken puntu bat giza ahalmenen perfektzionamenduan; gizakiaren perfektzionatzea egiazki mugagabea dela; perfektzionatze horren aurrerakuntzak –gelditu nahi duen indar ororekiko etorkizunean independente izan behar denak– ez du beste bukarera punturik, ezpada naturak bertara bota gaituen mundu horren iraupenarena. Zalantzarik gabe, aurrerakuntza horiek martxa azkarragoa edo geldoagoa izan dezakete, baina martxa hori ez da inoiz atzerakakoa izanen; behintzat, munduak unibertsoaren sisteman betetzen duen kokagunea mantentzen duen artean, eta sistema horren lege orokorrekin globo horren gainean ez baldin badute eragiten iraulpen orokor bat eta

aldakuntza batzuk, giza espezieari eragotziko diotenak ahalmen berak mantentzea eta erabiltzea, eta baliabide berak ediretea.

Giza espeziean ikusi den lehen egoeran, gizaki gutxi batzuek osaturiko erkidegoa agertzen da. Gizaki horiek ehizatik eta arrantzatik bizi ziren. Etxeko tresnak eta armak ekoizteko, etxebizitzak eraikitze edo hondeatzeko, arte zakar baino ezagutzen ez zuten. Dena den, bazeukaten hizkuntza bat euren beharrak komunikatzeko, baita ideia moral kopuru txiki bat ere, hartatik ateratzen zituztelarik jarduteko arau amankomun batzuk. Familietan bizi ziren, horiek egokitzen zirelarik legetzat zeuzkaten ohitura orokor batzuetara, eta gobernu forma zakar bat zuten.

Ulergarria da bizigaiak edireteko ziurgabetasunak eta zailtasunak, erabateko nekearen eta atsedeen absolutuaren txandakatze halabeharrezkoak, ez diotela gizakiari astirik utzi bere ideietara abandonatzeko moduko aisialdirako, bere adimena konbinazio berriekin aberasteko moduan. Bere beharrak asetzeko baliabideek, halaber, zoria-  
ren eta urtaroen dependentzia handia dute, aurrerakuntzak transmititzeko moduko industria bat sustatzeko orduan; eta bakoitzak bere trebetasuna edo abilezia pertsonala perfektionatu besterik ez du egiten.

Horrela, gizateriaren aurrerakuntzak arras geldoak izan behar-  
ko ziren; oso lantzean behin gertatzen ziren, zirkunstantzia ezohikoak lagun zituztenean. Hala ere, ehizatik, arrantzatik edo lurra espontaneoki ematen zituen fruituetatik ateratako bizibideari jarraitzen diote gizakiak etxekoturiko abereek eskainitako elikapenak, abere horiek mantentzen eta ugaltzen ikasi baitzuen. Baliabide horiei gehitzen zaie nekazaritza zatar bat; gizakia ez da jada kontentatuko aurkitzen dituen fruitu eta landareekin; ikasiko du hornigaiak osatzen, bere inguruan biltzen, ereiten edo landatzen, laborantzaren jardunaren bidez horien ugaritzea sustatzen.

Lehen egoera hartan jabegoa mugatzen zen pertsona batek hiltzen zituen animalietara, norbere armetara, sareetara, etxeko tresnetera. Jabego horrek, lehenik, bere abel taldea zuen barne eta, ondoren, labakitu eta laboraturiko lurra ere barne izanzen zituen. Buruzagia zentzerakoan, jabego hori haren familiarengan transmititzen zen natural-  
ki. Batzuek bazuten kontserbatua izan zitekeen soberakin bat. Absolutua bazen, behar berriak sortzen zituen; gauza bakarrerako baino ez bazuen ematen, beste baten gabezia zegoelarik, behar horrek trukake-

taren ideia eragiten du: hortik aurrera, harreman moralak konplikatu eta ugaritu egiten dira. Segurtasun handiago batek, aisialdi ziurrago eta luzeago batek, gizakiari aukera emango dio hausnarketan ibiltzeko, edo, behintzat, behaketa jarraituago baterako.

Zenbait gizabanakok euren soberakina lan baten ordezkatzeko usadioa sortzen dute, modu horretan, lan jardun horretaz libre izanen dira. Horrela giza klase bat egongo da bere denbora ez duena emango gorputzezko jardunean, eta klase horren desirak behar simple-etatik haratago egongo dira. Industria esnatzen da; jada ezagunak ziren arteak hedatu eta perfektionatzen dira; gizaki erneago eta trebeago baten behaketari azaltzen zaizkion zoriaren gertakizunek arte berriak sortzen dituzte; bizimoduaren arriskua eta prekariotasuna txikiagotzen diren heinean, populazioa handitu egiten da; nekazaritzak, lur berarekin gizabanako kopuru handiagoa elikatzea ahalbideratuko baitu, beste bizibide mota batzuk ordezkatzeko ditu: aldi berean, aurreakuntza bizkortuko duen ugaltze horri lagunduko dio; sedentarioago, elkartuago, estuago bilakatu den gizarte batean azkarrago komunikatzen eta seguruago iraunarazten dira jasotako ideiak. Jada altxatzen hasten ari da zientzien egunsentia; gizakia gainontzeko animalia espezieetatik bereizten da, eta, horiek ez bezala, badirudi ez dela jada perfektionatze soilki indibidual batera mugatuko.

Gizakiei, elkarren artean osatzen dituzten harreman zabalagoek, ugariagoek, konplikatuagoek, eragingo die bertan ez diren pertsonen ideiak komunikatzeko bide bat sortzeko beharra, aho tradizioaren bidez baino zehaztasun handiagoa duen moduan memoria betikotzekoa, lekukotasunaren oroitzapenaren bidez baino modu seguruagoan konbentzio baten baldintzak finkatzekoa, gordetzekoa aldatetari hain lotua ez dagoen modu batean errespetatuak diren ohiturak, gizarte bereko kideak euren jarrera horien mende ezartzea erabakitzen baitute.

Horrela, idazkeraren beharra sentitu zuten, eta asmatu zen. Dirudienez, hasieran objektuen marrazte soila zen, horri jarraituko dio konbentziozko marraztea, objektuon ezaugarri karakteristikoak baizik gordeko ez dituenak. Ondoren, lengoaiaren jada emana zen metafora analogo moduko baten bidez, objektu fisiko baten irudiak ideia moralak adieraziko ditu. Zeinu horien jatorria, hitzena legea, luzarora ahortu egingo zen; eta idazkera bilakatuko zen ideia bakoitzari, hitz



bakoitzari eta, beranduago, ideia zein hitz bakoitzaren aldaketari zeinu konbentzional bat emateko artea.

Orduan, lengoaia idatzi bat eta mintza lengoaia bat zeuden, beharrezko zelarik biak ere ikastea, eta bien artean elkarrekiko korrespondentzia bat ezartzea.

Jeinudun pertsona batzuek, gizateriaren ongigile eternalak –horien izena eta aberria betirako ahantziak diren arren–, antzeman zuten hizkuntza bateko hitz guztiak ez zirela ezpada oinarritzko ahoskatze baten kopuru oso mugatuak baizik; eta kopuru hori, oso mugatua zen arren, nahikoa zela konbinazio anitzen ia kopuru infinitua sortzeko. Diseinatzea otu zitzaien, zeinu ikusgaien bidez, ez haiei zegozkien ideia edo hitzak, baizik eta hitzak osatzen dituzten elementu sinple horiek.

Horrela asmatu zen idazkera alfabetikoa; zeinu kopuru txiki bat nahikoa zen den-dena idazteko, soinu kopuru txiki bat dena esateko nahikoa zen moduan. Lengoaia idatzia eta lengoaia mintzatua berdinak ziren, soilik beharrezkoa zen zeinu kopuru txiki hori ezagutzen eta osatzen jakitea, eta azken urrats horrek betirako segurtatu zuen giza espeziearen aurrerakuntza.

Beharbada, erabilgarria litzateke egun lengoaia idatzi bat finkatzea, zientziatarako soilik erabilia, ez lituzkeena adieraziko ezpada espiritu guztietan erabat berdinak diren ideia sinpleen konbinazioak, soilik adierazteko zehaztasun logikoko arrazonomenduak, adimenaren operazio zehatzak eta kalkulatuak, herrialde guztietako pertsonak ulertua izanen zena, eta hizkuntza guztietara itzulia litzatekeena, horiek ez bezala aldatuko ez zena erabilera komunera igarotzean.

Orduan, iraultza bitxi baten bidez, idazkera mota hori –berorren erabilerak ezjakintasuna luzatzeko baizik ez zuen balio– argien hedapenerako eta zientzien metodoaren perfektionatzeko tresna erabilgarria bilakatuko litzateke filosofiaren eskuetan.

Batetik, zibilizazio maila horren eta, bestetik, herri basatiaren artean topatzen dira historiak kontserbatu dizkigun herri guztiak. Begiratu batez biltzen badugu herrien historia unibertsala, herri horiek ikusiko ditugu bata bestearen atzetik, bai aurrerakuntza berriak egiten, bai ezjakintasunean ostera erortzen; bai alternatiba horien artean jarraitzen, edo maila batean geratzen; bai konkistatzaileen armape-

an mundutik desagertzen, garaileekin nahastuta, edo esklabotasunean jarraitzen; edo, azkenik, jakintsuago den herri baten argia jasotzen, beste herri batzuei transmititzeko; etenik gabeko kate bat osatzen delarik garai historikoetatik hasi eta bizi dugun mendera arte, ezagutzen ditugun nazioetatik Europako egungo jendeetaraino.

Hortaz, jada hiru zati ongi bereiztuak suma daitezke trazatzera noan koadro horretan.

Lehen egoeran, bidaiarien kontakizunek gizateria halako egoeraren erakusten digute herri gutxien zibilizatueta, behartuak gara asmatzera gizaki isolatuak –edo ugaltzeko beharrezkoa zaion elkartean bizi denak– zein mailatan jaso duen lehen perfektionatze hori. Perfekzio horren lehen puntua lengoaia artikulatu beten erabilerak markatzen du. Hori da ezaugarriarik adierazgarriena; hori soilik, ideia moral hedatuago batzuekin batera, ordena sozialaren hasiera ahul bat da, eta, gizakia legez elkarre erregular eta iraunkor batean bizi diren animalietatik bereizten duena. Horrela, hemen ezin dezakegu izan beste gidarik ez badira gure ahalmen intelektual eta moralen garapenaren gaineko behaketa teorikoak.

Ondorengo egoeran, gidatzen gaituenean gizakiak arteak darabiltzan puntura, zientzien argiak distira egiten hasten du, merkataritzak nazioak elkartzen ditu, azkenik, idazkera alfabetikoa asmatzen da. Lehen gida horri gehi geniezaioke tarteko maila guztietan ikusi izan diren gizarte anitzen historia, bat bera ere ezin den arren gizateriaren aro handi bi horiek bereizten dituen garai horretan zehar jarraitu.

Hemendik aurrera, koadroak hein handi batean historiak transmititu dizkigun gertakizunen lekukotza du: baina beharrezkoa da bertan aukeratzea herri desberdinen historia, horiek gerturatzea, konbinatzea, herri bakar baten historia hipotetikoa eratzeko, eta herri horren aurrerakuntzaren koadro historikoa osatzeko.

Grezian idazkera alfabetikoa ezagutzen den garaitik aurrera, historia gure mendearekin lotzen da, gizateriak Europako herrialde argienetan duen egoerarekin, gertakizunen eta behaketen etenik gabeko segida baten bidez. Orduan, giza espirituaren ibilbidearen eta aurrerakuntzaren koadro historikoa benetan historikoa bilakatzen da. Filosofiak ez du jada ezer igarri beharrik; jada nahikoa zaio gertakizunak biltzea, haien kateatzetik eta biltzetik sortzen diren egia baliagarriak ordenatzea eta erakustea.

Ez zaigu azken koadro bat trazatzea baizik falta, gure esperantzena, etorkizuneko belaunaldientzat erreserbaturik diren aurrerakuntzena, belaunaldi horiei naturaren legeen iraunkortasunak itxuraz ziurtatzen baitizkie. Bertan honakoa erakutsi beharko litzateke: egun esperantza kimerikoak iruditzen zaizkigunak nola mailaz maila posible, eta baita erraz ere, bilakatuko diren; zergatik, aurreiritzien garai-pen iragankorrak gorabehera, eta gobernuen zein jendeen usteltzetik jasotzen duten laguntza gorabehera, egiak soilik lortu behar duen garaipen iraunkorra; zein loturaren bidez naturak, batetik, argien eta, bestetik, askatasunaren, bertutearen eta gizakiaren eskubide naturalen errespetuaren aurrerakuntza elkartu dituen; nola soilik ondasun benetako horiek, sarritan hain bereizita agertzen direlarik bateragaitzak kontsideratu izan ditugunak, aldiz, bereiztezinak izan behar duten, argiak aldi berean nazio kopuru handi bati iritsiko baitzaizkio denboraldi bat igarotzen denean, argiok herri handi baten osotasunean sartuko dira –horren lengoaia unibertsalki hedatuko delarik–, eta globorearen zabalera osoan zabalduko dira merkatal harremanak. Gizaki burutsuen klase osoan funtzionatzen duenean elkartze horrek, haien artean soilik gizateriaren lagunak topatuko ditugu, gizakien perfektioa eta zoriona bizkortzeko elkarrekin ekingo diotelarik.

Akats orokorren jatorria azalduko dugu, horien historia marraztuko dugu. Gutxi gorabehera arrazoimenaren ibilbidea geldotu edo geratu izan baitute eta, sarri, gertakizun politikoak lain, gizakia ezjakintasunera atzera bidali izan baitute.

Errorera garamatzaten, edo bertan mantentzen gaituzten, adimenaren operazioak –pertsonarik argiena harrapatu dezakeen paralogismo sotiletik hasi, eta erotasunaren ameskeriatara–, guztiak ere gure ahalmen indibidualen garapenaren teoriaren barne daude, zuzen arrazoitzeko metodoa edo egia aurkitzekoa bezain beste. Horregatik beragatik, herrietan akats orokorrak sartzeko, hedatzeko, transmititzeko eta betikotzeko modua giza espirituaren aurrerakuntzaren koadro historikoaren parte da. Espiritu hori perfekzionatzen eta argitzen duten egia horiek bezala, akatsak ondorio beharrezko dira jarduera horrenak, espirituak ezagutzen duenaren eta ezagutu beharra daukala uste edo nahi duenaren artean dagoen desberdintasun horrenak.

Ohartu daiteke, halaber, gure ahalmenak garatzen dituzten lege orokorren arabera, aurreiritzi jakin batzuk sortu behar izan direla gure

aurrerakuntzaren garai bakoitzean, zeharo hedatu delarik haiek sorturiko liluramena edo eragina; gizakiek oraindik ere euren haurtzaroko, euren herrialdeko, eta euren mendeko aurreiritziak mantentzen baitituzte, horiek suntsitzeko beharrezko diren egiak ezagutu ondoren oraindik ere luzaroan.

Azkenik, herrialde guztietan, garai guztietan, badira aurreiritzi desberdinak, gizaki klase anitzen hezkuntza mailaren zein euren ogibidearen arabera. Filosofoen erroreak egiaren aurrerakuntza berrietarako kaltegarriak diren bezala, klase ez hain argien akatsek jada ezagunak diren egien hedapena geldotzen dute, izen oneko ogibide botehetsuenek oztopoak ezartzen dituzte: horiek dira arrazoimenak etengabe aurka egin behar dien hiru arerio mota; arrazoimena ez da askotan garaile irteten, ezpada borroka luze eta mingarri baten ostean. Borroka horien historiak, aurreiritzien garaipen eta erorketenak, lan honetan leku handia beteko du, eta ez da ez garrantzi txikien duen atala, ezta erabilgarritasun txikienekoa ere.

Existitzen bada zientzia bat giza espeziearen aurrerakuntzak aurreikusteko, zuzentzeko, bizkortzeko, lehen oinarri izan beharko du jada eginak diren aurrerakuntzen historia.

Filosofiak ezbairik gabe proskribatu behar izan du ondoko superstizio hau: sinestea soilik iragandako mendeetako historian aurki daitezkeela jokaera arauak, eta soilik antzinako iritzien ikerketan topa daitezkeela egiak. Baina ez al du proskribatu behar, halaber, esperientziaren ikasgaiak harrotasunez baztertzen dituen aurreiritzi hori? Zalantzarik gabe, meditazioak besterik gabe –zorioneko konbinazioen bidez– eraman gaitzake gizakiaren zientziaren egia orokortara. Baina giza espezieko banakoen behaketa erabilgarria bazaio metafisikoari, moralistari, zergatik gizarte anitzena ez al zaio izanen filosofo politikoari? Probetxugarria baldin bada aldi berean existitzen diren gizarte ezberdinak behatzea, harremanak aztertzea, zergatik ez al da izanen garaien segidan behatzea gizarte horiek? Suposatuko bagenu behaketa horiek alde batera utz daitezkeela egia espekulatiboen bilakuntzan, hala egin behar al da, egia horiek praktikari aplikatu behar zaizkionean eta zientziatik deduzitu behar denean artea, berau zientzia horren emaitza probetxugarria izan beharko delarik? Gure aurreiritziek, haietatik datozen gaitzak, ez al dute jatorria gure arbasoen aurreiritzietan? Haietako batzuetatik desengainatzeko modurik

ziurrenetakoa, beste batzuk ekiditekoa, ez al da haien jatorria eta ondorioak aurkeztea?

Gauden unean ez al dugu beldurrik izan behar, ez errore berriengatik, ez antzinakoen itzuleragatik; ezin izanen al du hipokresia aurkeztu, ezjakintasunak edo berotasunak adoptatu, ezein erakunde usteltzaile; edo konbinazio akastun batek ezin ekarriko al du nazio handi baten zorigaitza? Hutsala izanen al da, orduan, jakitea nola izan diren herriak tronpatuak, ustelduak edo miseriara jaurtiak?

Denak esaten digu giza espeziearen iraultza handieneko garai batera iristen ari garela. Zer da egokiago argi diezazkigun gure esperantzak, eskain diezagun gida bat eroango gaituena mugimendu horien erdira, ez bada aurretik izan diren eta hura prestatu duten iraultzen koadroa baino? Argien egungo egoerak segurtatzen digu zorionekoa izanen dela; baina ez al da izanen guren kemen guztiak erabiltzen dakigun artean? Eta iraultza horrek agintzen digun zoriona ez dadin neketsuki lortu, bizkortasun handiagoarekin heda dadin azalera handiago batean, bere efektuetan osoagoa izan dadin, ez al dugu beharrik giza espirituaren historiaren barnean ikusteko zein oztopori izan behar diogun beldur, eta zein baliabide ditugun oztopo horiek gainditzeko?

Bederatzi aro handitan bananduko dut kurritu asmo dudan espazioa, eta, hamargarren batean, menturatuko naiz iragartzera etorkizunean giza espezieari datorkionaz.

Hemen, nire burua mugatuko dut garai horietako bakoitza bereizten duten ezaugarri nagusiak agertzera. Gertaera orokorrak emango ditut, salbuespenetan eta zehaztasunetan gelditu gabe.

Helburuak eta emaitzak aipatuko ditut; lanak berak aurkeztuko ditu garapenak eta frogak.

## LEHEN AROA

### *Gizakiak poblazioetan biltzen dira*

Ez dago egoera hau baino lehenagoko inolako behaketa zuzenik. Soilik, batetik, gizakiaren ahalmen intelektual edo moralak eta, bestetik, egikera fisikoa aztertuz iragar dezakegu nola iritsi zen giza-  
kia lehen zibilizazio maila honetara.

Gizartearen osaketa fabora zezaketen gizakiaren nolakotasun fisikoen azterketak, eta gure ahalmen fisiko eta moralen garapenaren analisi labur batek, garai honen koadroaren sarrera moduan balio lezakete.

Familiak osaturiko gizarte batek naturala ematen du gizakiaren kasuan. Osatzen delarik haurrek euren gurasoenganako duten beharretik, amen gozotasunetik, eta –ez hain orokorra, ezta hain bizia ere ez den arren– aitenetik, behar horren iraupen luzeak garatu eta eragin behar izan du elkarte hori luzatzea sustatu duen sentimendua. Iraupen hori bera nahikoa izan da abantailak sentiarazteko. Bizibide erraza eskaintzen duen zoru batean kokaturiko familia bat segituan ugaltu izan daiteke eta herri bat osatu.

Euren jatorrian zenbait familia bereiziren elkarketa zuten herriak beranduago eta bakanka osatuko ziren; arrazoi ez hain derri-gorrezkoetatik eta zirkunstantzia kopuru handiagoaren konbinaziotik sortzen baita elkarketa.

Armak fabrikatzeko artea, elikagaiak prestatzekoa, prestaketa horretarako tresnak egitekoa, elikagaiak denboraldi batean jangai mantentzekoa, berriak lor ezin daitezkeen urtarotarako hornigaiak gordetzeko, arte horiek, behar sinpleenetara kontsakratuak, horiek izan ziren elkarketa luze baten lehen fruitua, eta gizartea eta gainontzeko animalia espezie gehienak bereizten dituen lehen ezaugarria.

Herri horietako batzuetan emakumeek etxolen inguruan hazten dituzte elikatzeko balio duten zenbait landare, ordezkaturiko dutenak ehizaren edo arrantzaren ekoizpena. Beste batzuetan, lurrak espontaneoki elikagai begetalak eskaintzen dituen lekuetan, elikagai horiek bilatzeko eta jasotzeko jardunak basatien denboraren zati bat betetzen du. Azken horietan, elkarrekin batera egoteko beharra ez baita horrenbeste sentitzen, zibilizazioa ez da familia gizarte sinple bat besterik. Dena den, leku guztietan topa genezake lengoaiak artikulatu baten erabilpena.

Gizabanakoen arteko harreman sarriagoak, luzeagoak; euren interesen identikotasuna; elkarri ematen dizkieten laguntzak, bai elkarrekin eginiko ehizetan, bai arerio bati aurre egiteko; horrek guztiak, sortu behar izan zuen bai justiziaren sentimendu bat zein elkarren arteko estimua gizarteko kideen artean. Laster gizartearekiko berekiko atxikimendua bilakatu zen.

Halabeharrezko ondorioa izan zen herriaren arerioenganako gorroto bizi bat, mendeku desira iraunkor bat.

Buruzagi baten beharrak, herriko biztanleek elkarrekin ekin ahal izateko –bai defendatzeko, bai bizibide seguruago eta oparago bat modu ez hain neketsuan erdiesteko–, sartu egin zituen gizarteetan autoritate politikoaren lehen ideiak. Herri osoari interesgarri zitzaizkion zirkunstantzietan, amankomunean erabaki bat hartu behar zutenean, ekimenean parte hartu behar zuten guztiei kontsultatu behar zitzairen. Emakumeen ahultasunak, urrutiko ehizetatik eta gudatik baztertzeko baitzituen, jarduera horiek ohizko eztabaidagai zirelarik, erabaki horietatik kanpo uzten zituen halaber. Erabaki horiek esperientzia eskatzen zutenez, ez zen onartzen esperientzia hori ez zeukan inor. Gizarte baten sortzen ziren eztabaidek harmonia nahasten zuten, eta gizartearen suntsipena eragin zezaketen. Naturala izan zen adostu izana erabakia zegokiela, euren adinagatik, euren ezaugarri pertsonalengatik, konfiantza handiena ematen zutenei. Hori izan zen lehen erakunde politikoen jatorria.

Erakunde horien aurretikoa izan beharko zen lengoiaia baten sorrera. Objektuak zeinu konbentzionalen bidez adierazteko ideiak zibilizazio egoera horretako giza adimenenaren gainetik daudela ematen du; baina litekeena da zeinu horiek ez sartzea usadioan ezpada denborarekin, mailaka, eta sumagaitza den modu batean.

Arkuaren asmakuntza jeinudun pertsona baten lana izanzen zen; lengoiaia baten asmakuntza gizarte osoarena. Aurrerakuntza mota bi horiek berdin dira giza espeziearenak. Bata, azkarragoa, naturak lagundua, gizakiek era ditzaketen konbinazio berrien fruitua da; euren hausnarketen eta ahaleginen saria da. Bestea, geldoagoa, sortzen da hausnarketatik, gizakiek bilduta egiten dituzten behaketetatik, amankomuneko bizitzan zehar hartzen dituzten ohituretatik beretatik.

Mugimendu neurtuak eta erregularrak neke txikiagoarekin egiten dira. Horiek ikusten edo ulertzen dituztenek errazago jasotzen dituzte horien ordena eta erlazioak. Hortaz, arrazoi bikoitz hori dela eta, gozamenerako iturburu dira. Dantzaren, musikaren eta poesiaren jatorria, halaber, gizartearen lehen haurtzaro horretara lerratzen da. Dantza gazteen dibertsiorako eta festa publikoetan erabiltzen da. Maitasun abestiak eta guda abestiak topatuko ditugu: musika tresna batzuk egiten ere badakite. Elokuentziaren artea ez da ezezaguna herri horie-

tan; gutxienez, badakite hitzaldi batean tonu benagoa eta solemneagoa hartzen, eta oratorian handizkatzea ez zen gauza arrotza ezta ere.

Arerioenganako mendekua eta krudelkeria bertute bilakatzea; emakumeak nolabaiteko esklabotasunera kondenatzen dituen iritzia; gudan agintzeko eskubidea familia baten pribilegiotzat hartzea; azkenik, superstizio mota anitzen lehen ideiak; horiek dira garai hori bereizten duten erroreak, horien jatorria aztertzea eta arrazoiak aurkitzea beharrezko litzateke. Ezein gizakik ez baitu huts bat egiten ez bada bere lehen hezkuntzan huts hori nolabait naturaltzat jo delako; berri bat egiten badu, haurtzaroko erroreekin lotuta egongo da; interesek, pasioek, iritziek edo gertakizunek aldeztu aurretik onartzeraz presatu dutelako izanen da.

Astronomia ezagutza zakar batzuk, eta gaixotasunak edo zau-riak osatzeko erabiltzen diren landare batzuen ezagutzak, horiek dira basatien zientzia bakarrak; eta jada horiek ere superstizio nahastura batek ustelduak dira.

Baina garai honek aurkezten digu, halaber, giza espirituaren historian gertakizun garrantzitsu bat. Giza espirituaren ibilbidean, joera zeharo oposatuak izan dituen erakundea agertzen zaigu, batetik, argien aurrerapena bizkortzen duena eta, bestetik, errorea hedatzen duena; zientziak egia berriekin aberastu arren, jendea ezjakintasunean eta erlijio morrontzan ezarri duena; ongintza iragankor bat erosi duena, tirania luze eta lotsagarri baten truk.

Hemen gizaki klase baten osaketa aipatzen ari naiz; zientziako printzipioen edo arteetako prozeduren, erlijioko misterio edo zeremonien, superstiziozko praktiken, sarritan baita ere legeagintzako eta politikako sekretuen gordetzailerik izan den gizaki klasearen osaketa hain zuzen. Aipatzen ari naiz giza espeziea bitan banantze hori: bata irakastera destinatua, bestea sinesteko eginga; bata jakiteaz harro den hori burgoiki ezkututzen, bestea errebelatu gura diotena errespetuz jasotzen; bata arrazoimenaren gainetik ezarri nahirik, besteak umilki bereari uko egiten, bere burua gizateriaren azpitik ezarriz, beste gizaki batzuegan amankomunean duten naturaren gainetik pribilegio batzuk onartzen.

Bereizketa hori –gure apaizek, XVIII. mendearen bukaeran, oraindik ere zenbait aztarna agertzen dizkigute– gutxienez zibilizaturiko basatienean azaltzen da; jada badauzkate euren kalakari iruzurtiak



eta euren aztiak. Gauza orokorra da. Aldi oro aurkitzen da zibilizazioaren garai guztietan, ez dezan naturan bertan izan funtsa. Horrela, gizartearen lehen garai horretan gizakien ahalmen zireneta topatuko dugu lehen inozoen sinesgarritasuna, baita lehen iruzurtien trebetasun zakarra ere.

## BIGARREN GARAIA

### *Abeltzain herriak.*

#### *Egoera horretatik nekazal herrietarako pasaera.*

Ehizan harrapaturiko animaliak bizirik mantentzeko ideia aise agertuko zen: ehizaturiko animalien otzantasunak euren zaintza erraza egiten zuenean, gizakien bizilekuen inguruko lurrak animalientzat elikagai ugaria eskaintzen zuenean, edo familiak, soberakina edukita, beldurra zuenean beste ehiza baten emaitza kaskarragatik edo urtaroaren gogortasunagatik.

Animalia horiek hornigai soil moduan gorde ondoren, gizakiek ikusi zuten ugal zitezkeela, eta iraunkorragoa zen baliabidea eskaintzen zutela. Haien esneak baliabide berri bat eskaini zuen; eta abel talde baten produktuak, hasiera batean ehiza baten gehigarri baino ez zirenak, bilakatu ziren bizibide seguruagoa, oparoagoa, neke gutxiago eragiten zuena. Ehiza ez da jada lehen baliabidea izanen, eta, ondoren, baliabideen artean ere ez da egongo. Plazer bezala kontserbatuko da soilik, abere taldeak pizti arriskutsuetatik babesteko kontu hartze bat; abere taldeak ugaritzerakoan, animalientzat jada ez baitzeukaten elikagai nahikoa bizilekuen inguruan.

Bizitza sedentarioago batek, ez hain nekagarriak, giza espirotuaren garapenerako faboragarriagoa zen aisialdia eskaintzen zuen. Bizibidea segurtatuta, lehen beharrek asaldatu barik, gizakiek sentsazio berriak bilatu zituzten beharrezko gauzak lortzeko baliabideetan.

Arteek zenbait aurrerakuntza izan zituzten; zenbait ezagutza ediren ziren, etxeko animaliak elikatzeko, ugalketa sustatzeko eta espezieak perfektionatzeko.

Jantziatarako artilea erabiltzen ikasi zuten, ehunak larruen orde ezaribiliz.

Gizartea familietan gozoagoa bilakatu zen, estuagoa bihurtu gabe. Familia bakoitzeko abere taldeak ezin zitezkeenez berdintasun-

nez ugaritu, aberastasunetan diferentziak sortu ziren. Orduan, otu zitzaien abere taldeen produktua partekatzea ezer ez zuen pertsonarekin, honek bere denbora eta indarrak beste pertsonak eskatzen zuen jardunean eman beharko zituen. Orduan, ikusi zuten gizon gazte eta ongi osaturiko baten lanak gehiago balio zuela gazte horrek oinarrian beharrezkoa zuen bizibideak baino; eta gerra-presoa esklabo moduan mantendu zituzten, lepoa moztu ordez.

Basatien artean ere ematen den abegia, abeltzain herrietan are handiagoa izaten da, solemneagoa; baita gurdietan eta kanpadendetan alde batetik bestera dabiltzanen artean ere. Sarritan dago aukera batak besteari emateko, gizabanakoak gizabanakoari, familiak familiari, herriak herriari. Gizatasun ekintza hau betebeharrak sozial bihurtzen da, zenbait arauen menpekoa.

Azkenik, zenbait familiak bazutenez, ez soilik bizibidea ziurtatuta, baita soberakin etengabe bat ere, eta, aldiz, beste gizaki batzuei gauzarik beharrezkoenak falta zitzaizkienez, haien sufrimenduekiko gupida naturalak ongintzarako sentimendua eta ohitura sortzen ditu.

Azturak gozotu ziren; emakumeen esklabotasuna leunagoa bilakatu zen; aberatsen emazteek ez zuten lan neketsuetan jardungo.

Behar anitzak asetzeko gauzetan aniztasun handiago batek, horiek prestatzeko balio zuten tresnetan eta berorien banaketan desberdintasun handiago batek, horrek guztiak elkartruketa eragin behar izan zuen, eta benetako merkataritza sortu. Merkataritza ezin zitekeen heda sentiarazi gabe neurri amankomun baten beharra, moneta moduko batena.

Herriak ugariagoak egin ziren; bizilekuak, finkoak zirenean, elkarren artean gehiago bereizi ziren, abere taldeak errazago elikatzearren. Bestela, kanpamenduak higitzeak bilakatu ziren, gizakiek euren menpe ezarritako zenbait abereei irakatsi zieten zama garraiatzen edo arrastaka eramaten.

Nazio bakoitzak bazuen gerrarako buruzagi bat; baina nazioa tribu ezberdinetan bereizia zelarik, bazkalekuak ziurtatzeko beharrik, tribu bakoitzak berea zuen halaber. Ia leku guztietan, nagusitasun hori familia batzuei eman zitzaien. Abere talde ugari, esklabo ugari, hiritar txiro ugari euren kargu zituzten familia buruek tribu buruzagien autoritatea partitu zuten euren artean, nazioko buruzagie-

na partekatzen zuten moduan; behintzat, adinaren, esperientziaren eta balentrien errespetuak hartarako gai egiten zituenean. Gizartearen garai horretan kokatu behar da esklabotasunaren eta eskubide politikoetan –heldutasunera iritsitako gizakien artean– desberdintasunen jatorria.

Familia buruek edo tribu buruzagiek osaturiko kontseiluak izan ziren, justizia naturalean oinarrituta edo onarturiko usadioen arabera, eztabaidak erabakitzen zituztenak; eztabaidak ugariagoak eta konplikatuagoak bihurtu baitziren. Erabaki horien tradizioak –usadioak berrestean eta betiketozan– laster eratuko du jurisprudentzia erregularrago bat, iraunkorrago bat; gizartearen aurrerakuntzak hala eskatzen baitzuen.

Jabegoaren eta berorren eskubideen ideiak irismen eta zehaztasun handiagoa lortu zuen. Ondorengotzaren banaketa, garrantzitsua goa bilakatzean, arau finkoen menpe ezarri behar izan zen. Konbentzio ohizkoenak ez ziren jada zedarritzen objektu sinpleetara; formen menpe ezarri behar izan ziren; haien existentzia egiaztatzeko eta egikaritzea ziurtatzeko moduak ere bere legeak zituen.

Izarren behaketaren erabilgarritasunak, beila luzeetan izar horiek erakarririko arretak, artzainen aisialdirako astiak, aurrerakuntza txikitxo batzuk eragingo zituzten astronomian.

Baina, aldi berean, perfektzionatzen ari ziren gizakiak tronpatzeko artea, horiek bipiltzeko artea eta, horien iritziaz profitatuz, esperantza kimerikoetan eta beldurretan oinarrituriko autoritateaz usurpatzekoa. Gurmen erregularragoak ezarri ziren, sinesmen sistema ez hain zakarrak. Botere supernaturalen ideiak hein batean findu ziren: eta iritzi horiekin, hemen, printze pontifize batzuk ezarri ziren, han, apaiz familia edo tribuak, haratago, apaiz ikastetxeak, baina, leku orotan, gizabanako klase bat, bere gain hartzen zituena pribilegio ozarrrak; gainontzeko pertsonetatik bereizten zena horiek hobeto menperatzeko; medikuntza, astronomia, eksklusiboki norberarentzat hartu nahi zituena, espirituak norbere menpe ezartzeko, ezin zezaten klase horren hipokresia agerian jarri eta tirania deuseztatu.

Hizkuntzak aberastu egin ziren, figurazio edo zailtasun handiagoa hartu gabe. Erabiltzen zituzten irudiak anitzagoak eta gozoagoak bilakatu ziren: abeltzain bizitzatik hartuak ziren, baita ere baso-

an zeramaten bizitzatik, naturako fenomeno erregularretatik, edo haren perturbazioetatik. Abestiak, instrumentuak, poesia, perfekzionatu egin ziren, aisialdiak entzuleak lasaiago –eta hortaz zailago– egiten zituen, honek uzten zielarik euren sentimenduei begiratzea, lehen ideiak aztertzea, eta horien artean aukeratzea.

Behaketatik konturatuko ziren landare jakin batzuek abere taldeei elikagai hobea edo ugariagoa eskaintzen ziela. Sentitu zuten landare horien ugaltzea sustatzeko beharra, eta elikagai kaskarrak, osasungaitzak eta baita arriskutsuak ere ziren beste landare batzuetatik bereiztekoa; eta hori lortzeko bidea topatu zen.

Modu berean, lurrak espontaneoki ematen zituen landare, hazi eta fruituek, abere taldeen produktuekin batera, gizakiaren elikatzerak laguntzen zuten herrialdeetan, ikusi zen, halaber, nola begetalak ugari egiten ziren; eta, ondoren, eurentzat bakarrik izan zitezen, saiatu ziren bizilekueetatik gertueneko eremuetan biltzen, eta animalia basatietatik, abere taldeetatik, eta beste gizaki batzuen harrapakieratik salbu babesten.

Idea horiek sortu beharko ziren, eta goizago gainera, herrialderik oparoenetan, lurraren ekoizpen espontaneoak gizakiaren bizibiderako nahikoak ziren lekuetan. Pertsona horiek, hortaz, nekazaritzan jarduten hasi ziren.

Herrialde emankor batean, zorioneko klimadunean, terreno mota berak –hazi, fruitu eta sustraiekin– elikagai gehiago eskaintzen zuen, bazkarako erabiltzen ziren larreetan baino. Hortaz, lurraren naturak laborantza hori neketsuegi egiten ez zuen lekuetan –ikasi zenean abeltzain herrietan bidaietarako edo garraiorako erabiltzen ziren animaliak nola erabili, goldatzeko baliabideek nolabaiteko perfekzioa lortu zutenean– nekazaritza, aurrerakuntza horiekin, bilakatu zen elikagai iturri oparoena, herrien lehen bizibidea; eta gizateria bere hirugarren garaian sartu zen.

Zenbait herri, antzina-antzinako garai batetatik, kurritu ditugun bi aro horietako batean mantendu dira. Euren kabuz aurrerakuntza berrietara ez iristeaz gain, zibilizazio maila gorenetera iritsiriko herrie-kin izan dituzten harremanek edo haiekin izaniko merkataritzak ez dute eragin iraultza hori. Harreman horiek, merkataritza horrek, zenbait eza- gutza eman dizkie, nolabaiteko industria, eta batez ere bizio haboro, baina ez ditu mugiezintasun moduko horretatik higiarazi.

Klimak, ohiturek, gurea bezain beste perfekzionatu ez den gizartean soilik aurkituko den independentzia batek, horiek guztiek eragiten duten atxikimendua; gizakiek haurtzaroan jasoriko iritzieki-ko eta euren herrialdeko ohiturekiko duten atxikimendu naturala; ezjakintasunak berrikuntza orori dion higuin naturala; gorputzaren, eta, batez ere, espirituaren nagitasuna, jakin-nahiaren bulkada jada ahula deuseztatzen duena; superstizioak lehen gizarte horietan zuen nagusitasuna; horiek guztiak izan dira fenomeno horren kausa; baina horiei gehitu behar zaie herri zibilizatuen kodizia, ankerkeria, ustelkeria eta aurreiritziak. Herri zibilizatuak nazio horiei agertzen zaizkie boteretsuago, aberatsago, ikasiago, aktiboago, baina baita biziotsuago ere, eta, batez ere, nazio horiek baino zorigaitzago. Sarritan, ez ditu hainbeste liluratu herri zibilizatuen nagusitasunak, herri horien beharren aniztasunak eta hedadurak, herri horien askonahiaren oinazeak, beti aktibo eta asegaitz diren pasioen asaldadura etengabeak sortzen dien beldurra lain. Filosofo batzuk errukitu dira nazio haietaz; beste batzuek laudatu dituzte: zuhurtasun eta bertute deritzate, besteek ergeltasun eta nagitasun deritzatena.

Haiek planteatzen duten auziari lan honetan zehar irtenbidea topatuko zaio. Ikusiko da zergatik espirituaren aurrerakuntzari ez dion beti jarraitu gizarteen aurrerakuntzak zorionaren eta bertutearen norabidean; nola aurreiritzien eta erredeen nahasturak eraldatu duen argie-tatik sortu beharko zen onura, haien purutasunaren arabera izaten baita, haien hedaduraren arabera baino. Ikusiko da gizarte zatar batetik herri ilustratu eta libreen zibilizazio egoerarako pasabide ekaiztsu eta mingarri hori ez dela giza espeziearen degenerazio bat, baizik eta perfekzionamendu absoluturako mailakako ibilbide horretan ematen den krisia baizik. Ikusiko da ez dela argien handitzea, baizik eta horien gainbehera, herri zibilizatuen bizioak eragin dutena; eta, azkenik, gizakiak usteldu orde, argiek moderatu egin dituztela, ezin izan dutenean haiek zuzendu edo aldatu.

## HIRUGARREN GARAIA

*Herri nekazarien aurrerakuntza,  
idazkera alfabetikoaren asmakuntzaraino*

Orain arte trazatu dugun koadroaren uniformetasuna aurki desagertuko da. Jada ez dira zehaztasun txikiak izanen norbere lurra-

ri atxikitzen zaizkien herrien ohiturak, izaerak, iritziak eta superstitioak bereiziko dituztenak, eta lehen familia bat, ia nahastu gabea, betikotuko dutenak.

Inbasioek, konkistek, inperioen osaketak, berorien gainbeherak, nahastu eta konfundituko dituzte nazioak, eta, aldi berean, lurralde batean herri diferenteak ezarriko dituzte.

Gertakizunen zoriak naturaren martxa geldo baina erregularra nahastuko du, batzuetan geldotuz, besteetan bizkortuz.

Nazio batean, mende batean, ikus daitezkeen fenomenoak sarritan kausa dute mila legoa eta ehun mendeko distantzian gertatu den iraultza bat; eta gure aurretik izan diren gizakiengan –eta batzuetan guregan ere– eragina izan duten gertakizun horien zati handia estali du denboraren gauak.

Baina beharrezkoa da, lehenik, aldaketa horien ondorioak nazio bakarrean kontsideratzea, konkistek eta herrien nahasketak eduki izan dezaketen eraginetik aparte.

Nekazaritzak gizakia lotzen du hark laboraturiko lurrarekin. Jada, norbera, bere sendia, bere ehiza tresnak, alde batetik bestera garraiatzekoak, ez zaizkio nahikoak; ez dira jada nahikoak bere aurretik eroan ahal zituen abere taldeak. Inorenak ez diren eremuek ez diote jada bere ihesaldian elikagairik eskainiko, ez berari, ez eta bera elikatzen duten animaliei ere ez.

Eremu bakoitzak jabea du, berari dagozkiolarik soilik haren fruituak. Uztak –berau lortzeko gastuen gainetik, laboratu duten gizaki eta animalien bizibide eta mantenuaren gainetik– jabeari urteroko aberastasuna eskaintzen dio, berak ez duelarik lan egin behar hori lortzeko.

Gizartearen lehen egoeratan, gizabanako guztiek, familia guztiek, burutzen zituzten beharrezko arte guztiak.

Alabaina, egoterakoan, lanik egin gabe, euren lurren ekoizpena jasotzen zuten gizakiak, eta beste pertsona batzuk lehenek ordaindutako soldatak jasotzen zituztenak; lanak ugaritu egin zirenean; arteen prozedurak zabalagoak eta konplikatuagoak bilakatu zirenean; guztion interesak lan horiek banatzea eragin zuen. Konturatu ziren pertsona baten lan jarduna hobetu egiten zela, objektu gutxiagorekin jardun behar baitzuen; azkartasun eta zehaztasun gehiagorekin egiten

zituela eskuak mugimendu kopuru txikiagoa, ohitura luze batek ohi-koagoak bihurtzen zituenean; inteligentzia txikiagoa behar zela lan bat ongi egiteko, behin eta berriro egiten zenean.

Horrela, pertsona batzuk laborantzara dedikatzen ziren artean, beste batzuek tresnak prestatzen zituzten. Abereen zaintza, barne ekonomia, ehunen prestaketa, guztiak lanbide ezberdinak bilakatu ziren. Jabego txikia zuten familietan, lanbide horietako bat ez zenez nahiko gizabanako baten astia betetzeko, haietako batzuk pertsona bakarraren lana eta soldata partekatzen zuten. Laster, arteetan erabilitako substantziak ugaritu egiten dira, eta horien naturak eskatzen ditu prozedura desberdinak. Behar analogoak zituztenek genero bereiziak osatzen dituzte, bakoitzari behargin klase partikularra egokitzen zaiolarik. Nekazaritza hedatu egiten da, objektu kopuru zabalagoa hartzen du barne, eta eremu handiago batetik ateratzen ditu objektuok. Orduan, sortzen da beste gizaki klase bat soilik arduratzen dena merkantziak eskuratzeaz, kontserbatzeaz, garraiatzeaz, eta irabaziekin bersaltzeaz.

Horrela, abeltzaintzan jada bereiz genitzakeen hiru klaseei –jabeenari, horien familiari atxikiriko morroienari, eta esklaboenari– orain mota orotako beharginena eta merkatariena gaineratu behar dizkiogu.

Orduan, gizarte finkoago, elkartuago eta konplikatuago batekin, legeria erregularrago eta zabalago baten beharra sentitu zen. Beharrezko gertatu zen zehaztasun zorrotzenaz determinatzea, bai krimenentzako zigorrak, bai konbentzioetarako formak; baita ere, arau zorrotzen menpe ezartzea legea aplikagarri zitzaien ekintzak egiaztatzeko bideak.

Aurrerakuntza horiek beharraren eta zirkunstantzien ondorio geldo eta mailakakoak izan ziren: abeltzainek jada kurrituriko ibilbidean urrats batzuk haratago.

Lehen garaietan, hezkuntza etxean ematen zen soilik. Haurrek aitarengandik ikasten zuten, bai lan jardun arruntetan, bai hark egiten zekien jardueretan. Harengandik jasotzen zituzten bai familiaren eta herriaren historia osatzen zuten tradizio kopuru txikia, bai betiketuri-ko elezaharrak, bai usadio nazionalen ezagutza, bai haien moral zakarra osatzen zuten printzipio edo aurreiritziak.

Lagunen konpainian jasotzen zen abesteko, dantzatzeko eta ekintza militarretako formazioa. Iritsi garen garaian, aberatsen hau-

rrek hezkuntza komun bat jasotzen dute, bai herrietan agureekin mintzatuta, bai buruzagi baten etxean. Han ikasten zituzten herrialdeko legeak, bertako aurreiritziak, baita abesten ere euren historia gordetzen zuten poemak.

Bizitza sedentario baten ohiturak bi sexuen artean berdintasun handiago bat ekarri zuen. Emakumeak ez ziren jada kontsideratzen objektu erabilgarri sinple bat, nagusiarengandik gertuko eskla-boak. Gizonek haiengan lagun bat aurkitu zuten, eta, azkenik, ulertu zuten euren zorionerako zekartena. Aitzitik, gehien errespetatzen zituzten herrialdean ere, bertan poligamia proskribatu zelarik, ez arrazoia, ez justizia, ez ziren iritsi berdintasunera, betebeharetan edo bereizteko eskubidean, edo fideltasun faltek eragiten zuten zigorretan.

Aurreiritzi mota horien eta beroriek giza espeziearen zorian izan duten eraginaren historia sartu beharko da trazatu asmo dudan koadroan, eta ezer ez da hobeia izanen erakusteko zein heinean dagoen haren zoriona elkartuta arrazoimenaren aurrerakuntzarekin.

Nazio batzuk landetan barreiatuta geratu ziren. Beste batzuk hirietan bildu ziren, horiek bilakatu zirelarik nazioko buruzagiaren, berorrekin batera boterea partekatzen zuten tribuko buruen, eta familia bakoitzeko agureen bizileku. Bertan erabakitzen ziren gizartearen afera komunak, bertan juzgatzen ziren afera partikularrak. Bertan biltzen ziren aberastasunik preziatuenak, aberastasun sedentario horiekin batera ugarituko ziren harrapakerietatik babesteko. Nazioak eremu batean barreiatzen zirelarik, usadioak finkatuko du une bat buruzagien biltzarrerako, interes amankomunei buruz deliberatzeko, tribunalek epaiak emateko.

Jatorri amankomuna aitortzen zuten nazioek, hizkuntza bera hitz egiten zutenek, elkarren artean gerra egiteari uko egin barik, ia beti federazio gutxi gorabehera estua osatzen zuten. Adosten zuten elkarrekin biltzea, bai arerio arrotzen aurka, bai arerio horien irainak elkarri menderatzeko, bai elkarrekin erlijio alorreko betebeharrak konplitzeko.

Abegiak eta merkataritzak, halaber, elkarren artean jatorri, ohitura eta hizkuntza ezberdinak zituzten nazioen artean harreman konstante batzuk eragin zituzten: sarritan bidelapurreriak eta gerrak harreman horiek eteten zituzten, baina beharrak, harrapaketarako zaletasu-



na zein mendeku egarria baino indartsuagoa zenak, segituan berritzen zituen.

Gailenduei zintzurra moztea, bipiltzea eta esklabotasunean ezartzea, ez ziren jada nazio arerioen artean ezagutzen zen eskubide bakarra. Lurralde zati bat emateak, erreskateak edo tributua ordaintzeak, hein batean indarkeria basati haien lekua hartu zuten.

Garai honetan, armarik zuen edonor soldadu zen. Hobeena zituen; horiek erabiltzen zailtzeko aukera izan zuena; gainontzeko pertsona eman ziezazkiekeena; bilduriko hornigaien bidez, gainontzeko horiei diruz lagundu ziezaiekeena; hori, halabeharrez, buruzagi izanen zen: baina obedientzia ia borondatezko horrek ez zuen eskatzen morroi moduko dependentzia bat.

Oso gutxitan beharra zegoenez lege berriak egiteko; ez zegoenez gastu publikorik hiritarrak ordaintzera behartzen zituenik, eta, beharrezko bilakatuko balira, amankomuneko lurren bidez edo buruzagien ondasunen bidez ordaindu behar zirenez; industria eta merkataritza araudien bidez oztopatzeko ideia ezezaguna zenez; gerra erasokorra adostasun orokorrak erabakitzen zuenez, edo soilik borondatez egiten zutenez loriarako eta harrapakeriarako zaletasun zutenek; horregatik, gizakiak bere burua libre ikusten zuen gobernu zatar horien barne, lehen buruzagi horien ondorengotza ia orokorra gorabehera; beste beheragoko buruzagi batzuek usurpatua zelarik, euren bakarrik autoritate publikoa partekatzeko eta gobernu zein epailletza funtzioak betetzeko hartzen zuten pribilegioa gorabehera.

Baina sarritan buruzagi batek mendeku pertsonalak egiten zituen, indarkeriazko ekintza arbitrarioak; sarri, familia pribilegiadunetan, urguiluak, gorroto jarauntsiak, maitasunaren pasioak eta urreakiko egarriak, krimenak ugaritu egin zituzten. Bitartean, buruzagiek, hirietan bilduta, erregeen pasioen instrumentu, fakzioak eta gerra zibilak bultzatzen zituzten, herria zapaltzen zuten epai bidegabeekin, eta euren askonahiaren krimenekin eta euren harrapakeriarekin tormentatzen zuten.

Nazio kopuru handi batean, familia horien gehiegikeriek herrien pazientzia akitu zuten: familiak akabatuak izan ziren, egoztiak, edo lege amankomunaren menpe ezarriak. Kasu oso gutxitan, lege amankomunak mugaturiko autoritate batekin kontserbatu zuten

euren titulua; eta ikus genitzake beranduago errepublika deitu izan direnak ezartzen.

Beste leku batzuetan, sateliteez inguraturiko errege horiek, banantzeko armak eta altxorak zituztenez, autoritate absolutua zuten: hori izan zen tiraniaren jatorria.

Beste lurralde batzuetan, batez ere nazio txikiak hirietan biltzen ez ziren kasuetan, euren egitura zatarren lehen formak mantendu izan ziren, harik eta herri horiek, edo konkistatzaile baten uztarpean ezartzen ziren, edo, haiek ere harrapakeria espirituak hartuta, atzerriko lurraldeetan zehar zabaltzen ziren.

Tirania horrek, halaberharrez espazio txiki batean zarratuak, derrigorrean iraupen laburra izan behar zuen. Herriek laster kentzen zuten gainetik indarrak inposaturiko uztarri hori; iritziak ezin baitzuen mantendu. Munstroa gertuegi zegoen, beldurra baino haserre gutxiago eragiteko. Bortxak eta iritziak ezin zituzten kate iraunkorrak ezarri; horretarako, tiranoak distantzia nahikoan hedatu beharko ziren, zapaltzen zuten herriari –berau bereiziz– ezkutatzeko moduan euren botere tiranikoaren eta haien ahultasunaren sekretua.

Errepubliken historia ondorengo garaia dagokio; baina orain aztertzen ari garenak ikuskizun berria eskainiko digu.

Herri nekazari batek, nazio atzerritar batek menperatzen duenean, ez du bere bizilekua uzten: beharrak bere nagusientzat lan egitera darama.

Batzuetan nazio dominatzailea kontentatzen da konkistaturiko eremuan uztearekin berau gobernatuko duten buruzagi batzuk, soldadu batzuk eremua defendatzeko eta, batez ere, biztanleak menpe edukitzeko eta meneko herri armagabeari jenerotan eta dirutan zergak exijitzeko. Beste batzuetan, eremua beretzat hartzen du, eta jabegoa soldaduen eta kapitainen artean banatzen du; baina lur alor bakoitza berau laboratzen zuen kolonoarekin batera doa, eta morrontza mota berri honetara lotua geratzen da, lege gutxi gorabehera zorrotzek araututa. Zerbitzu militarra eta zergak dira, herri konkistatzailearen giza-banakoez, lur horien gozameneko baldintzak.

Beste batzuetan, nazioak elur eremuaren jabegoa beretzat gordetzen du, eta ez du haren usufruktua baizik eskaintzen, baldintza berak inposatuz. Ia beti zirkunstantziek eragiten dute aldi berean era-

biltzea konkistaren instrumentuak saritzeko eta gailenduak bipiltzeko hiru modu horiek.

Ikusten dugu hortik gizaki klase berriak sortzen direla: herri menperatzailearen ondorengoak, eta herri zapalduarenak. Batetik, jaraunspenezko noblezia, ez dena nahastu behar errepublikatako patri-zioekin; bestetik, lanetara, dependentsiara, morrontzara –esklabotasun ez bada– kondenaturiko herria: glebako esklaboak, etxeko esklaboetatik ezberdinak. Morrontza hori ez denez hain arbitrarioa, nagusien apetari legeekin aurre egin dakieke.

Hemen ikus daiteke, halaber, feudalismoaren jatorria, ez dena guren klimaren azote partikularra, baizik eta ia mundu osoan aurkitzen ahal dena zibilizazioaren garai berean, eta, garaipenak jaraunspenezko desberdintasuna ezarri duelarik, lurralde bera bi herrik okupatu duten aldi oro gertatzen dena.

Despotismoa, halaber, konkistaren fruitua izan zen. Despotismo diodanean esan nahi dut, tirania iragankorretatik bereizteko, gizaki bakarrak herri bat zapaltzea, iritziaren, ohituraren eta batez ere gudaroste baten bidez, gudaroste hori haren autoritate arbitrarioaren esanekoa da, baina haren aurreiritzien bidez errespetatua, haren kapritxoekin balakaturia, eta haren harrokeriarekin eta askonahiarekin elikatua.

Gertutik inguratua, indar armatu horretako kide anitz eta hautatu batez eta –nazio konkistatzailetik hartuak izanik– miliziako buruzagi boteretsuenek, despota horrek agintzen du, probintziak bere menpe hartzen dituelarik, gudaroste horren zati batzuen agintari diren jeneral batzuen bidez, despotismo terrorearen bidez. Herri zanpatu horretako inork, edo elkarren artean arerio diren buruzagi barreiatu horietako inork, ez du aintzakotzat hartzen haren aurka indarrak altxatzeko posibilitatea, despotismoak dauzkan indarrak segituan deuseztatuko bailituzke.

Guardiaren altxamendu bat, hiriburuan matxinada bat, despotarentzat zoritxarrekoa lirateke, baina ez dute despotismoa ahultzen. Gudaroste garaile bateko jeneralak, aurreiritziak kontsakraturiko familia bat suntsituz, dinastia berri bat osa dezake; baina hark ere tirania gauzatzeko izanen da.

Hirugarren garai honetan, konkistatzaile zein konkistatu ez izatearen gaitzak pairatu ez dituzten herriek eskaintzen dizkigute neka-

zari herrien bertute sinple eta indartsuak, garai heroikoetako ohiturak, handitasun eta ankertasun, eskuzabaltasun eta basakeria nahaste bat, koadro hori hain erakargarri egiten diguna, eta seduzitzen gaituena, haiek miresteko eta baita haien mira izateko ere.

Konkistatzaileek sorturiko inperioetan dakusagun koadroak, aldiz, aurkezten dizkigu doilortzearen eta usteltzearen zehaztasun guztiak; giza espeziea hara eraman dezakete despotismoak eta supersizioak. Bertan ikusten ditugu sortzen industriari eta merkataritzari ezarritako zergak, norbere ahalmenak nahi bezala erabiltzearen ordainarazpenak, gizakiari bere ogibidearen hautapena eta bere jabegoaren erabilera oztopatzen dioten legeak –horiek haurrak behartzen dituztelarik gurasoen ogibidea jarraitzera–, konfiskazioak, tormentu ankerak; hitz batean, giza espeziearenganako mespretxuak eragin ahal izan duen guztia asmatzeko ekintza arbitrarioak, legezko tiraniak eta superstiziozko ankerkeriak.

Aipa daiteke zibilizazioaren aurrerakuntzak maila oso gutxi aurreratuan geratu direla iraultza handiak ezagutu ez dituzten herrietan. Hala ere, gizakiek jada ezagutzen zuten ideia edo sentsazio berrietarako beharra, giza espirituaren aurrerakuntzarako lehen eragile hori; luxuaren funsgabetasunetarako gustua, industria sustatzailerak; naturak bere sekretuak ezkutatzeko erabili duen belo hori begi goseti batekin iragaten duen jakin-nahia; baina ia leku guztietan gertatu da, euren beharretatik ihes egiteko, gizakiek bilatu dutela, adoptatu dutela, suhartasun moduko batez etengabe berri daitezkeen sentsazioak lortzeko baliabide fisikoak: hortik dator irakiniko likidoen, edari beroen, opioaren, tabakoaren, betelarekiko mendekotasuna. Herri gutxi dira ohitura horiek ez dituztenak; plazerak egun osoak, ordu oro, hartzen dituelarik. Plazerak denboraren pisua sentitzea galarazten du, okupatua edo esnatu egoteko beharra asetzen du, gizakia moteldu egiten du azkenik, eta giza espiritua bere haurtzaroan eta gelditasunean mantentzen du. Ohitura horiek, nazio ezjakin edo morroien aurrerakuntzarako oztopo izan direnek, herrialde zibilizatuetan, halaber, aurka egiten diete klase guztietan argi berdin eta puru bat hedatzeari.

Gizartearen lehen bi garaietan arteak zer ziren agertzerakoan, ikusiko da nola zura, harria, animalien hezurak lantzeko arteez gain, larruak eta ehunak prestatzeko arteez gain, antzinako herri horiek tin-

daketarekin, eltzegintzarekin eta baita metalen langintzaren hastape-  
nekin ere hasten diren.

Arte horien aurrerakuntza nazio isolatueta geldoa izanen zen; baina haien artean ezarri ziren komunikazioek –ahulak oraindik– mar-  
txa bizkortu zuten. Herri batean asmatzen zen prozedura berri bat  
amankomuna egiten zen auzokideen artean ere. Konkistek, hainbat  
aldiz arteak suntsitu dituztenek, hedatu ere egin zituzten, eta haien  
perfekzioan lagundu zuten, gelditu edo haien erortzean lagundu baino  
gehiago.

Arte horietako asko perfekzio maila gorenera altxatuak ikus  
genitzake, superstizioak eta despotismoak giza ahalmen guztiak  
degradatu dituzten herrietan ere. Alabaina, begiratzen badiegu  
morrontzako industria horren prodigioei ez dugu ikusiko jeinuaren  
agerpena erakusten digunik; perfekzionamendu guztiak errutina luze  
baten ondorio geldo eta neketsu dira; alde guztietarik, liluratzan gai-  
tuen industria horren alboan, ezjakintasunaren eta ergelkeriaren traze-  
k haren jatorria erakusten digute.

Gizarte sedentario eta baketsu horietan, astronomia eta medi-  
kuntza, anatomiaren noziorik funtsezkoenak, mineralen eta landareen  
ezagutza, naturaren fenomenoek ikerketaren lehen elementuak, horiek  
guztiak perfekzionatzen dira, edo, hobeto, denboraren ondorio soila-  
gatik hedatzen dira, behaketak ugaritzen direlarik, modu geldoan,  
seguruagoan, baitaramate erraz –eta ia lehen begiratuan– behaketa  
horiek eraman behar duten ondorio orokor batzuk sumatzera.

Hala ere, aurrerakuntza horiek oso kaskarrak izan ziren; eta  
zientziak luzaroan egon ziren euren lehen haurtzaroan, ez balitz fami-  
lia jakin batzuek eta, batez ere, kasta konkretu batzuek zientziak  
bihurtu zituztelako haien loriaren eta boterearen lehen oinarri.

Gizakiaren eta gizartearen behaketa naturarenari gehi zekiok-  
en. Jada moral praktikoko eta politikako maximen kopuru txiki bat  
transmititzen zen belaunalditik belaunaldira; kasta horiek haiez  
jabetu ziren; erlijio ideiek, aurreiritziek, superstizioek euren nagusi-  
tasuna handitu zuten. Kasta horiek lehen elkartearen, kalakarien eta  
aztien lehen familien lekua hartu zuten; baina espiritu ez hain zata-  
rrak seduzitzeko arte handiagoa zerabilten. Euren benetako ezagu-  
tzak, euren bizimoduaren itxurazko soiltasunak, pertsona arrunten  
desirekiko mespretxu hipokrita batek, horrek guztiak euren ospeari

autoritatea ematen zien; aldi berean, ospe horrek berak, jendearen begitan, ezagutza eskas horiek eta bertute hipokritak kontsokratzen zituen. Elkarre horietako kideek ia suhartasun berarekin bilatu zituzten bi helburu desberdin: bata, euren kabuz ezagutza berriak aurkitzea; bestea, jada zeuzkatenekin herria tronpatzea eta espirituak menperatzea.

Euren jakintsuak batez ere astronomiaz arduratu ziren; eta, euren lanen monumentuen aztarnek erakusten digutenez, badirudi antiojorik gabe irits daitekeen punturik altueneraino heldu zirela, lehen elementuen teoria matematiko gorenaren laguntzarik gabe.

Izan ere, behaketa luzeen laguntzaz, astroen mugimenduen ezagutza nahiko zehatza lor daiteke, fenomeno zerutiarrak kalkulatzeko eta iragartzeko modura iristeraino. Lege enpiriko horiek –bilatzeko zenbat eta errazagoak, behaketak denboran zehar luzatzen diren heinean– lehen astronomo horiek ezin zitzakeen eraman munduaren sistemaren lege orokorrak aurkitzera baizik; baina nahikoak ziren gizakiaren behar guztiak –edo bere jakin-nahia– asetzeko beste, eta balio zuten usurpatzaile haiek sinesgarritasun handiagoa izateko, hezkuntzarako eskubide eskusiboa edukitzeko orduan.

Badirudi haiei zor diegula eskala aritmetikoen ideia zolia, zenbaki guztiak zeinu kopuru txiki baten bidez adierazteko bide egoki hori, eta gure adimenak berez egin ez litzakeen kalkuluak eragiketa tekniko oso sinpleen bidez egitekoa. Giza espirituaren indarra bikoizten duten metodo horien lehen adibidea da; horien laguntzarekin gizakiak bere mugak areagotu ditu zeharo, heltzea ezinezkoa izanzen zaion puntu bat finkatzea ezinezkoa delarik.

Baina ez dirudi aritmetikaren zientzia berorren lehen eragiketetatik haratago zabaldu zutenik.

Haien geometria, nahikoa zena lur-neurketarako, astronomiaren praktikarako, geratu zen Pitagorasek Greziara eraman edo berorrek asmatu zuen proposizioan.

Makinen mekanika, erabili behar zutenei laga zieten. Dena den, ematen duenez, eurek ere jorratu zuten zientziaren atal hori, prodigioen bidez espirituak liluratzeko bide moduan.

Ez zieten euren arreta mugatu mugimenduaren legeei, mekanika arrazionalari.

Medikuntza eta kirurgia ikertu zituzten arren, batez ere zaurien tratamendua helburu dauzkatena, anatomia alde batera utzi zuten.

Botanikan edo historia naturalean zituzten ezagutzak, sendabide bezala erabiltzen ziren substantzietara mugatzen zen, landare batzuetara, mineral batzuetara, haien xedetarako erabilgarri izan zitezkeen propietate bereziak zituztenetara.

Haien kimika, teoriarik gabeko prozedura sinpleetara mugatzen zena, metodorik gabea, analisirik gabea, ez zen zenbait prestakin egiteko artea baizik, zenbait sekreturen ezagutza –medikuntzako zein arteetako arlokoa–, edo eurak baino jakintsuagoak ez ziren buruzagi batzuek gidaturiko jendetza ezjakin baten begiak liluratzeko gauzak baizik.

Zientzien aurrerakuntza haientzat ez zen bigarren mailako helburua baizik, haien boterea betikotzeko edo hedatzeko baliabidea baizik. Egia bilatzen zuten soilik erroreak hedatzeko; ez gara harritu behar, hortaz, hain gutxitan aurkitu izateaz.

Hala ere, aurrerakuntza horiek, geldoak ziren arren, ziren ahu-lak zirelarik ere, ezinezkoak zitezkeen gizaki horiek ez balute idazkera ezagutu, hori baitzen tradizioak ziurtatzeko eta finkatzeko modu bakarra; ezagutzak ugaritzen hasi zirenean, horiek komunikatzeko eta transmititzeko modu bakarra.

Horrela, idazkera hieroglifikoa, edo euren lehen asmakuntzeta-ko bat izan zen, edo kasta hezitzaile horien sorrera baino lehen asmatua zen.

Haien helburua ez zenez ilustratzea, menperatzea baizik, ez zituzten euren ezagutzak jende guztiarekin partekatzen soilik, gainera, ezagutzera eman gura zituztenak errorez betetzen zituzten; jendeari irakasten zioten, ez egia zena, baizik eta komeni zitzaiena.

Ez zieten ezer erakusten, nahastu gabe supernaturala, sakratua, zerutiarra zen zerbaitekin, horrek gizateriaren gainekoak zirelako irudia eragiten baitzuen, ezaugarri dibinoez jantziak baleude bezala, gai-nontzeko gizakiei debekatuak zitzaizkien ezagutzak jaso izan balituzte bezala.

Bi doktrina zituzten, bata eurentzat, bestea jendearentzat: sarritan, ordena ezberdinetan bereizten zirenez, bakoitzak beretzat gordezen zituen misterio batzuk. Behereneko ordenak aldi berean iruzurti

eta inozo ziren; eta hipokresia sistema hori ez zitzaien argi agertzen ezpada zenbait jarraitzaileri.

Ezerk ez zuen gehiago faboratzen doktrina bikoitz horren ezarpena, hizkuntzetan emandako aldakuntzak baino, denboraren emaitza izan baitziren, herrien komunikazioaren edo nahasturaren ondorio. Doktrina bikoitzeko gizakiek –eurentzat gordetzen zutelarik antzina-ko hizkuntza, zein beste jende batena– eurek bakarrik ulertzen zuten hizkuntza bat izatearen abantaila zuten.

Lehen idazkerak, gauzak modu gutxi gorabehera zehatzean marrazten zituenak –bai gauza bera, bai objektu analogoren bat–, lekua utzi zion idazkera sinpleago bati. Idazkera horretan objektuen antzekotasuna ia desagertua zen, konbentzio hutseko zeinuak baizik ez ziren erabiltzen; eta doktrina sekretuak bazuen idazkera bat, jada hizkuntza zuen legez.

Hizkuntzen jatorrian, ia hitz bakoitza metafora bat zen, eta esaldi bakoitza ia alegoria bat. Espirituak aldi berean hartzen zituen zentzu figuratua eta berezko zentzua. Hitzak ematen zuen, ideiarekin batera aldi berean, irudi analogoa, haren bidez adierazten zelarik. Alabaina, hitz bat zentzu alegorikoarekin erabiltzeko ohituragatik, espirtua azkenik soilik geratzen zen lehen zentzuan, soilik horrekin egiten zuen abstrakzio; eta zentzu hori, lehenago figuratua zena, apurka-apurka hitzaren beraren zentzu arrunta bihurtu zen.

Apaizek, lehen lengoaia alegorikoa mantendu zutelarik, lengoaia hori erabili zuten jada benetako zentzua uler ez zezakeen jendearekin, eta horiek ohituta zeudenez zentzua adiera bakarrarekin hartzerara, adiera propiotzat hartzera, ulertzen zuten ez dakit nik zein fabula absurdo, adierazpide berek apaizen espirituei ez zietenean egia oso sinplea baizik agertzen. Erabilpen bera egin zuten euren idazkera sakratuarekin. Jendeak ikusten zituen gizakiak, animaliak, munstroak, apaizek fenomeno astronomikoa edo urteko historiaren gertakizun bat adierazi nahi zuten lekuan.

Horrela, esaterako, apaizek, euren meditazioetan, eratu zuten osotasun handi, itzel, eternal baten sistema metafisikoa, bertan izaki guztiak ez zirelarik ezpada atalak, ez ziren unibertsoan ikusten ahal diren aldakuntza guztien modifikazio anitzak baizik. Zeruak soilik eskaintzen zizkien mortu itzeletan barreiaturiko izar taldeak, gutxi gorabehera konplikatuak ziren mugimenduak egiten zituzten plane-



tak, eta fenomeno soilki fisikoak, astro anitz horien posizioetatik zetozenak. Izar talde horiei izena eman zieten, baita posizioak eta itxurazko ibilbidea adierazteko zirkulu higikorrei eta irudikaturiko posizio finkoei ere, fenomeno horiek azaltzearren.

Baina haien lengoaiak, haien mugimenduak, haiei adierazten zizkietelarik iritzi metafisiko horiek, egia natural horiek, jendearen begiei mitologiarik bitxiena eskaintzen zieten, sinesmenik absurdoenen, gurmaenik zentzugabeen, praktikarik lotsagarrien edo basatien oinarri bilakatuz.

Hori da ezagutzen diren erlijio ia guztien jatorria, haien asma-tzaileen edo proselitoen bitxikeriak fabula berriez zaturikoa.

Kasta horiek hezkuntza hartu zuten euren esku, gizakiari, nola-bait esatearren, bere existentziarekin identifikatzen ziren kate batzuk pazientziaz pairarazteko, hark alde batera utz zezan baita kate horiek gainetik kentzeko desira ere. Alabaina, jakin nahi badugu zein puntutara inoan erortzen ziren –baita superstiziozko terrorearen laguntzarik gabe– erakunde horiek giza ahalmenen suntsitzeko boterea, Txinan ezarri behar dugu gure arreta une batez. Herrialde hori, antza, gainontzekoak baino lehenagokoa da zientzia eta arteetan, baina soilik gainontzeko herriek bata bestearen atzetik gailen zezaten; herri hori nazio barbaroek konkistatu zuten, artilleria ezagutu arren; bertan zientziak –hiritar guztiei irekitzen zitzaizkien arren eskolak– duintasun orotara daramaten bakarrak direlarik, eta, aitzitik, aurreiritzi absurdoen menpe direlarik, zientziak, bada, kondenatuak dira kaskarkeria eternal batera; edo, azkenik, inprentaren beraren asmakuntza giza espirituaren aurrerakuntzarako erabat ezdeusa da.

Tronparaztea interes soil zuten pertsonak azkar nekatu beharko ziren egiaren bilaketan. Herrien otzantasunarekin kontent, iruditu zitzaizen ez zutela baliabide gehiagoren beharrik iraupena luzatzeko. Apurka-apurka euren ahanza zuten euren alegorietan ezkutaturik zeuden egien zati bat. Euren antzinako zientzietatik ez zuten gorde ezipada euren dizipuluen konfiantza mantentzeko zeharo beharrezkoa zena. Azkenik, euren fabulek iruzurtuta amaitu zuten.

Hortaz, zientzien aurrerakuntza oro gelditu egin zen; aurreko mendeak ezagutu zituzten horietarik asko galdu egin ziren hurrengo belaunaldietarako. Giza espiritua, aurreiritzietara eta ezjakintasunera abandonaturik, inperio itzel horietan mugiezintasunera kondenatua

izan da, eta inperio horien existentzia etenik gabeak luzaroan desohoratu du Asia.

Horietan bizi izan diren herriak izan dira aldi berean zibilizazio eta dekadentzia maila hori ikusi ahal izan duten bakarrak. Munduko gainontzeko lekuetan bizi izan direnak, edo aurrerakuntzan geldirik geratu dira, eta giza espeziearen haurtzaroko garaira garamatzaite, edo, aldiz, gertakizunek bultzatu dituzte, oraindik horien historia deskribatzeko daukagun azken garaietan zehar.

Iritsi garen garaian, Asiako herri horiek idazkera alfabetikoa asmatua zuten. Horrekin ordezkatu zituzten hieroglifikoa, ziurrenik hura erabili baitzuten ideia bakoitzari zeinu konbentzional bat ezarri baino lehen, eta, egun, azken hori da txinatarrek ezagutzen duten idazkera bakarra.

Historiak eta arrazonamenduak azal diezagukete nola gertatu den hieroglifikoetatik hasi eta nolabait erdibidekoa den arte honetarako pasaera; baina ezerk ez digu zehaztasunez esaten zein herritan edo zein garaitan hasi zen erabiltzen idazkera alfabetikoa.

Asmakuntza hori segituan Greziara hedatu zen; giza espeziearen aurrerakuntzan eragin hain boteretsua eta zorionekoa izan duen herri horretara, haren jeinuak egiari bide guztiak ireki baitizkio; naturak gertatu baitzuen, zoriak destinatu baitzuen, nazio ororen eta aro ororen ongile eta gidari izateko: ohore hori oraindano ez du beste ezein herrik harekin partekatu. Soilik batek izan du gizateriaren zorian iraultza berri bat gidatzeko esperantza. Naturak, gertakizunen konbinazioak, badirudi adostu dutela harentzat loria gordetzea. Baina ez gaitetzen saia iragartzen etorkizun ezezagunak guretzat ezkatututa gordetzen duena.

## LAUGARREN GARAIA

*Grezian giza espirituaren aurrerakuntzak,  
zientziak bereizten diren garaira arte,  
Alexandroren mendera arte*

Greziarrak, atsekabetuak zirelarik errege horiekin, euren buruak jainkoen seme kontsideratuz, euren ankerkeriarekin eta krimenekin gizateria desohoratzen zuten horiekin, errepublikatan bereizi ziren. Horietarik soilik Lazedemoniak onartzen zituen jaraunspenez-

ko buruzagiak, baina betiere magistratuen autoritateak kontrolatuak, hiritarrak bezala legeen menpekoak, eta Herakliden familiako bi adarren premuengan erregetasuna partekatzeagatik apalduak.

Mazedoniako, Tesaliako eta Epiroko biztanleek –greziarrekin senidetuak jatorri amankomun bat eta hizkuntza bera dela eta– printze ahul eta bereiztuak zeuzkatenez, ezin zuten Grezia zapaldu; aldiz, iparraldetik nazio esziten erasoaldietatik babesten zuten.

Mendebaldean, Italiak, estatu txiki isolatu eta barreiatuetan bananduak, ez zion beldurrik eragiten Greziari. Bestalde, ia Sizilia osoa, eta Italiako hegoaldeko porturik ederrenak, kolonia greziarrek betetzen zituzten. Euren metropoliekin kidetasun loturak zituzten arren, hala ere, errepublika independenteak osatzen zituzten. Egeo itsasoan eta Asia Txikiko kostaldeetan ere beste kolonia batzuk finkatu ziren.

Horrela, Asiako kontinenteko zati horrek Zioren inperio zabalarekin izan zuen lotura, hortaz, hori zen Greziaren independentzia eta bere biztanleen askatasuna mehatxatzen zituen bakarra.

Tirania, zenbait koloniatan iraunkorragoa izan zen arren, batez ere erregeen sendien deuseztapena baino lehenago ezarririkoetan, ezin zen kontsideratu azote iragankor eta partzial bat baino, zenbait hiriren zoritxarra zekarrena, nazioaren espiritu orokorrean eraginik izan barik.

Ekialdeko herrietatik jaso zituen Greziak arteak, ezagutzen zati bat, idazkera alfabetikoaren erabilera, eta erlijio sistema; baina herri horien artean zeuden komunikazioek Asiako eta Egiptoko argiak eta erroreak garraiatu zituzten Greziara, batetik, Grezian babesa bilatu zuten erbesteturiko ekialdetarren bidez, bestetik, Ekialdera bidaiatzen ziren greziarren bidez.

Zientziak ezin ziren Grezian kasta partikular baten jarduera eta jabego bilakatu. Bertako apaizen funtzioa jainkoen gurmenera mugatzen zen. Jainua bere indar guztiez balia zitekeen, batetik, ohar pedanteen edo, bestetik, apaiz eskola baten hipokresia sistemaren menpe egon barik. Pertsona guztiek legezko eskubide bera zuten egiaren eza-gutzarako. Guztiek bila zezaketen egia eta guztiei komunika ziezaieketen, eta osoa komunikatu gainera.

Zorioneko zirkunstantzia horrek –askatasun politikoak baino gehiago– laga zion giza espirituari, greziarren artean, independentzia

bat, haren aurrerakuntzaren bizkortasunerako eta hedakuntzarako berme ziurra.

Hala ere, bertako pertsona ilustratuak, jakitsuak, laster hartu zituztelarik *filosofo* edo *zientziaren* –edo *jakituriaren*– *lagun* izen apalagoak, goiz galdu ziren burutu asmo zuten egitasmoaren itzeltasunean. Gizakiaren eta Jainkoaren naturan barneratzea nahi izan zuten, munduaren eta giza espeziearen jatorrian. Saiatu ziren natura osoa printzipio bakarrean biltzen, eta unibertsoaren fenomenoak lege bakarrean. Jokaera arau bakarrean biltzen saiatu ziren bai moralaren betebeharrak guztiak, bai benetako zorionaren sekretua.

Horrela, egiak aurkitu beharrean, sistemak osatu zituzten; alde batera utzi zuten gertakizunen behaketa, euren imajinazioan murgiltzeko; eta euren iritziak frogetan oinarritu ezin zituztelarik, sotiltasun bidez defendatzen saiatu ziren.

Nolanahi ere, pertsona horiek arrakastaz jorratzen zituzten geometria eta astronomia. Greziak zor dizkie zientzia horien lehen elementuak, baita ere zenbait egia berri, edo Ekialdetik ekarritako horien ezagutza; ez ezagutza finkatu legez, baizik eta teoria bezala, horietan printzipioa eta frogak ezagutzen zituztelarik.

Sistema horien gauaren erdian distiratsen dakusagu bi zorioneko ideia, menderik argitsuenetan osterik ere berragertuko direnak.

Demokritok gorputz sinpleen konbinazioen eta mugimenduen emaitza kontsideratzen zituen unibertsoaren fenomeno guztiak; gorputz horiek figura zehatz eta aldagaitza dutelarik, lehen bulkada bat jasota, bertatik sortzen da atomo bakoitzean aldatu egiten den ekintza bat, baina, masa osoan, beti berdin mantentzen dena.

Pitagorasek zioen unibertsoa harmonia batek gobernatzen duela, zenbakien propietateek argituko dituztelarik printzipioak; hau da, fenomeno guztiak lege orokor eta kalkulatuak menpe daudela.

Aise suma daitezke, ideia berri horietan, Descartesen sistema ausartak eta Newtonen filosofia.

Pitagorasek bere hausnarketen bidez, edo apaizetatik jasota –bai Egiptotik, bai Indiatik–, aurkitu zuen gorputz zerutiarren benetako antolamendua eta munduaren sistema benetakoa: greziarrei ezagutarazi zien. Baina sistema hori zentzumenen lekukotasunetik arraskorik ez zela, ideia arruntekiko zeharo aurkakoa, egia oinarritzeko

froga ahulek espirituak erakartzeko lain. Sistema hori ezkutaturik mantendu zen eskola pitagorikoaren baitan, eta harekin batera ahanztzia izan zen, harik eta XVI. mendearen bukaeran berragertu zenera arte, eta, froga zehatzez lagunduta, zentzumenen higuinari eta aurreiritzi zein superstizioei –azken horiek boteretsuagoak eta arriskutsuak baitira– gailendu zitzairen.

Eskola pitagorikoa gehienbat Grezia handian zehar hedatu zen; legegileak eta gizateriaren eskubideen defendatzaile adoretuak formatzen zituen: tiranoen ahaleginek menperatu zuten. Horietako batek pitagorikoak euren ikastetxean erre zituen; eta hori arrazoi nahikoa izan zen, zalantzarik gabe, ez filosofiari uko egiteko, ez herrien kausa alde batera uzteko, baizik eta arrisksuegia bilakatu zen izen bat eramaten jarraitzeko, eta baztertzeko forma batzuk ez zutenak balio ezpada askatasunaren eta arrazoimenaren arerioen ankerkeria erakartzeko.

Filosofia on ororen lehen oinarrietako bat da zientzia bakoitzarentzat lengoia doi eta zehatza osatzea –zeinu bakoitzak adieraziko duelarik ideia ongi zehaztua, ongi xedatua–, eta analisi zorrotz baten bidez ideiak ongi zehaztea eta xedatzea.

Greziarrek, aldiz, abusu egin zuten hizkuntza arruntaren bizioez, hitzen esanahiarekin jostatuz, ekiboko deitoragarriekin nahastuz eta galduz espiritua, zeinu berarekin ideia diferenteak adierazita. Sotiltasun horrek, hala ere, espirituak zolitu egiten zituen, kimera zailen aurka euren kemen osoa akitzen zuen aldi berean. Horrela, hitzen filosofia hori –giza arrazoimenak, bere indarren gainetiko oztopoak topatzen dituenean, haietan gelditu behar duela dirudien espazio horiek betetzen dituelarik– ez da baliagarria arrazoimenaren aurrerakuntzarako, baina hartarako prestatzen du; eta izanen dugu ohar hori gehiagotan egiteko abagunea.

Beharbada inoiz irtenbiderik izanen ez duten gaiez arduratzea; objektuen garrantziagatik edo handitasunagatik seduzitzen lagatzea, horiek lortzeko biderik egongo den jakin barik; gertakizunak bildu baino lehen teoriak ezarri nahi izatea, eta unibertsoa eraikitzea oraindik ere behatzen jakin gabe; akats horiek, hain barkagarriak, izan ziren lehen urratsetatik filosofiaren martxa geratu zutenak. Horrela, Sokratesek, sofisten aurka egiterakoan, haien sotiltasun hutsalei iseka egiterakoan, greziarrei eskatzen zien zeruan galtzen zen filosofia hori

berriz ere lurrera ekartzea. Ez da hark erdeinatzen zituenik astronomia, edo geometria, ezta naturako fenomenoek behaketa ere; ez da hark giza espiritua moralaren ikasketara mugatzeko ideia funsgabe eta faltsua zuenik; aldiz, haren eskolari eta haren dizipuluei zor zaie zientzia matematiko eta fisikoen aurrerakuntza. Komeditan egiten zaizkion iseka guztien artean, barregarrien ematen duena da hark geometria jorratzea, meteoroak ikertzea, geografiako mapak egitea, ispilu erretzaileen gainean oharak egitea; bitxikeria nabarmen batekin, antzinagoko garai horretaz ez dugu berririk izan, ezpada Aristofanesen txantxak direla medio.

Sokratesek soilik nahi zuen gizakiak ohar zitezen mugatu behar zirela naturak eskura ezartzen zizkien gauzetara; bakoitzak seguru egin behar zuela lehen urratsa beste batekin hasi baino lehen; inguratzen zituen espazioa ikertu behar zela, ezezagun zitzaizen espazio batera ausaz abiatu baino lehen.

Sokratesen heriotza gertakizun garrantzitsua da gizateriaren historian. Superstizioaren eta filosofiaren arteko gerra horretan lehen krimena izan zen. Gerra horrek oraindaino iraun du, gizateriaren zapaltzaileen eta filosofiaren artekoak legez, pitagorikoen ikastetxearen erretzeak garai bat seinalatzen duen moduan. Gerra horien historia bilakatuko da trazatzeke geratzen zaigun koadroaren atalik garrantzitsuenetako bat.

Apaizek artega zekusaten nola gizakiek –saiatzen zirelarik euren arrazoimena perfekzionatzen, lehen kausetara lerratzen– ezagutzen zuten haien dogmen absurdotasun osoa, haien zeremonien bitxikeria, haien orakuluen eta prodigioen trikimailua. Beldur ziren filosofoek sekretua jakinaraziko zietela euren ikastetxeetara zihoazen dizipuluei: haiengandik pasatuko zela –autoritatea edo sinesgarritasuna lortzearren– euren espirituari kultura apur bat eman behar ziotenengana. Horrela, apaizen agintea herriaren zati arruntenera mugatuko zen, pertsona horiek ere azkenik desengainatuko zirelarik.

Hipokresiak, larrituta, presaz akusatu zituen filosofoak jainkongan ez sinesteaz, ez zezaten astirik izan herriari erakusteko jainko horiek apaizen asmakizun zirela. Filosofoek uste zuten jazarpenetik ihes egin zutela, apaizen beren etsenplu hartuta, doktrina bikoitz bat erabiliz, eta dizipuluei soilik irakatsiz iritzi horiek, sarritan aurreiritzi arruntei min larregi egiten dietenak.

Baina apaizek herriari egia fisiko sinpleenak blasfemari bailiran agertzen zizkieten. Anaxagoras jazarri zuten, ausartu zelako esaten eguzkia Peloponeso baino handiagoa zela.

Sokratesek ezin izan zuen haien kolpeetatik ihes egin. Periklesen Atenasen ez zegoen jada jeinuaren eta bertutearen defentsan egingo zuenik. Bestalde, Sokrates erruduna zen zeharo. Sofistenganako zuen gorrotoak, filosofia galdu hori objektu erabilgarrietara lerratzeko bere ardurak, horrek guztiak apaizei erakusten zien filosofo horren ikerketen objektu bakarra egia zela; hark nahi zuela, ez gizakiek sistema berri bat hartzea, eta haien imajinazioa sistema horren menpe ezartzea, baizik eta haien arrazoimena erabiltzen ikas zezaten; eta krimen guztietarik, hori da apaizen urguiluak gutxien barkatuko duena.

Sokratesen hilobian bertan irakatsiko zituen Platonek bere mai-suarengandik ikasiriko lezioak.

Platonen estilo erakargarria, bere imajinazio distiragarria, koadro alai eta dotoreak, tratatu zoli eta zirikatzaileak, bere dialogoetan eztabaida filosofikoetatik mingostasuna desagerrarazten baitzuten; moral gozo eta puruko bere maximak, hedatzen jakin zituenak; pertsonaiak bakoitza bere izaerarekin jardunarazteko zuen artea; edertasun horiek guztiek, denborak eta iritzien iraultzek zimurtu ez dituztenek, zalantzarik gabe, barkamena ekarri diote bere lanen fondoan sarritan sumatzen den ameskeria filosofikoei, bere maisuak sofistengan horrenbeste kritikatu zuen hitzen abusuari, dizipulurik handiena ezin izan baitzuen hartaz libratu.

Bere dialogoak irakurtzerakoan, harritzen gaitu geometria ikasi ez zuen orori kartel baten bidez bere eskolan sartzea eragozten zion filosofo baten lanak izatea. Harritzen gara, halaber, horren ausartki hipotesi huts eta azalekoei aurka egin ziena, hori izatea giza ezagutzen ziurtasuna –arrazoimen argienak ere errespetaraziko zituen horiek– lehen aldiz azterketa zorrotz baten menpe ezarriko duen sektaren sortzailea.

Baina kontraesana desagertzen da kontuan hartzen badugu Platonek ez duela inoiz bere izenean hitz egiten obretan; bertan Sokrates, haren maisua, beti ere zalantzaren umiltasunarekin mintzatzen dela; sistemak azaltzen direla haien autoreen –edo Platonek haienak direla uste duen– izenekin; horrela, dialogo horiek pirronismo eskola bat direla, eta Platonek horietan ongi agertu duela hipotesi bikainak gara-

tzen eta konbinatzen dakien jakintsuaren imajinazio adoretua, bai eta, imajinazio horrek arrastaka eramaten laga gabe, bertan murgiltzen den filosofoaren zuhertasuna ere; ezen, bere arrazoimenak, zalantza osasuntsu batez armatuak, badaki engainu seduzitzaileenetatik ere bere burua defendatzen.

Lehen buruzagi baten doktrina eta, batez ere, printzipioak eta metodoa betikotzen zituzten eskola horiek –buruzagi horren ondorengoak morrontza otzan batetik urruti zeuden arren– bazuten abantaila bat: elkarren artean kidetasun aske bat zutelarik, naturaren sekretuetan barneratzeko ardura zuten gizakiak izatea. Maisuaren iritziak sarriegi autoritatea bazuen –arrazoimenari soilik dagokion hori–, horregatik erakunde horrek argien aurrerakuntza eteten bazuen, nolana ere, argi horiek bizkortasun eta hedadura handiagoarekin zabalitzen zituen, inprenta ezezaguna zen garai batean, eta eskuizkribuak ere oso gutxi; hortaz, eskola handi horien ospeak Grezia osotik erakartzen zituen ikasleak, eta filosofiarako gustua sortzeko eta egia berriak hedatzeko biderik boteretsuena ziren.

Eskola aurkariei aurre egiten zitzairen sekta espirituak ematen duen suhartasun horrekin, eta sarritan egiaren interesa sakrifikatzen zen, sektako kide bakoitzak bere urguilua atxikitzen zion doktrina baten arrakastaren izenean. Proselitismoaren pasio pertsonalak gizakiak argitzeko pasio nobleagoa usteltzen zuen. Baina, aldi berean, aurkaritza horrek jarduera mesedegarri batean mantentzen zituen espirituak; eztabaida horien ikuskizunak, iritzi gerra horien interesak, gizaki saldoa esnatzen eta erakartzen zuen filosofiako ikasketara, egiarekiko maitasunak soilik ezin baitzitzakeen aldendu ez euren negozioetatik, ez plazeretatik, ezta nagikeriatik ere.

Azkenik, eskola horiek, sekta horiek, zuhertasunez greziarrek ez zituztenak erakunde publikoetan inoiz ere sartu, erabat libre mantendu ziren. Bakoitzak bere nahierara bazeukanez beste eskola bat irekitzea, edo sekta berri bat osatzea, ez zegoen zergatik beldur izan, ez baitzegoen arrazoimenaren morrontzaren arriskurik, gainontzeko herrietan giza espirituaren aurrerakuntzarako oztopo gailenezin den hori.

Erakutsiko dugu zein izan zen filosofoen influentzia greziarren arrazoimenaren, ohituren, legeen eta gobernuen gain. Influentzia hori hein handi batean egotzi behar zaio, batetik, greziarrek ez izateari



—edo izan nahi izan ez izateari— existentzia politikorik, bestetik, ia sekta guztien jarrera maxima komuna zela afera publikoetatik borondatez urruntzea, eta, azkenik, gainontzeko pertsonetatik aldentzeko itxura egiten zutela, bai zeramaten bizitzan, bai euren iritzietan.

Sekta horien koadroa trazatzerakoan, gutxiago arduratuko gara euren sistemez, euren filosofiaren printzipioez baino. Gutxiago ikerituko dugu —sarriegi egin izan den bezala— zeintzuk izan ziren zehazki lengoaia ia ulertezin batek ezkututzen dizkigun doktrinak, aldiz, saiatuko gara erakusten zein akats orokorrekin eraman zituzten ibilbide tronpatzaile horietatik, eta bilatzen giza espirituaren ibilbide naturalaren jatorrian.

Atxikiko gatzazkio, batez ere, egiazko zientzien aurrerakuntzen eta zientzia horien metodoen perfekzio mailakaturaz azaltzeari.

Garai horretan, filosofiak zientzia guztiak zituen barne, medikuntza izan ezik, jada bereizita baitzen. Hipokratesen idatziek erakusten digute zein zen ordurako zientzia horren egoera, eta horri lotuta daudenena, horrekin duten erlazioan soilik existitzen ziren arren.

Zientzia matematikoak arrakastaz jorratu ziren Talesen eta Pitagorasaren eskoletan. Hala ere, ez ziren iritsi Ekialdeko apaiz ikastetxeetan helduriko puntutik haratago. Platonen eskolaren sorkuntzarekin, baina, gainditu egin zuten berehalako erabilgarritasun praktikoa batean murgiltzeko ideia horrek zekarren hesia.

Filosofo horrek kuboaren bikoizketaren problema askatu zuen lehendabizi, egiazki mugimendu etengabe bat jarraituz, baina prozedura zoli baten bidez, eta modu benetan zorrotzean. Bere lehen dizipuluek atal konikoak aurkitu zituzten, eta horien propietate nagusiak determinatu; eta horrela jeinuari horizonte itzel hori zabaldu zioten, harik eta, denboraren bukaeran, jeinuak bere indarrak erabiltzea izan zen duelarik, pausu bakoitzean mugak bere atzean urrutiago geratzen ikusiko dituen arte.

Ez diote greziarrek filosofiari soilik zor zientzia politikoen aurrerakuntza. Errepublikatik txiki horietan, euren independentzia eta askatasuna mantentzeko arduratsu, ia orokorki gailendu zen honako ideia: pertsona bakar bati ematea, ez legeak egiteko boterea, baizik eta idaztekoa eta herriari aurkeztekoa; herriak, proposamenak aztertu ostean, berehalako berrespena ematen zien.

Horrela, herriak filosofoari eginkizun bat ematen zion, honen bertuteek edo zuhurtasunak haren konfiantza erakartzen zutenean; baina ez zioten inolako autoritaterik ematen: herriak bakarrik eta bere kabuz egikaritzen zuen beranduago botere legegilea deitu izan dioguna. Erakunde publikoen laguntzarako superstiziora jotzeko ohitura hain okerrak sarritan lohitu egin du herri bateko legeei batasun sistematiko bat emateko hain egokia den ideia baten egikaritzea, batasun horrek soilik egin baitzezakeen ekintza segurua eta erraza, baita haren iraupena areagotu ere. Bestalde, politikak ez zituen oraindik printzipio lar konstanteak, neurri haietan legegileek euren aurreiritziak eta pasioak tartean ez sartzeko moduan.

Legegile horien objektua ezin zitekeen oraindik izan oinarritzea arrazoimenean, gizaki guztiek naturatik berdin jaso dituzten eskubideetan, justizia unibertsalaren maximetan; ez zen gizaki berdin eta askeen gizarte eraikuntza. Soilik egin zitzaketen lege batzuk, jada existitzen zen gizarte baten ondorengotzako kideek lege horien arabera manten zezaketelarik euren askatasuna, injustiziatik babestu, eta atzerrira begira erabili euren independentzia ziurtatuko zuen indar bat.

Suposatzen zutenez lege horiek, ia beti erlijioari lotuak eta juramentuek kontsakratuak, betiereko iraupena zutela, ez ziren larregi arduratu herriari lege horiek modu baketsuan eraberritzeko baliabide bat emateaz, gehiago, aldiz, lege oinarritzko horien eraldaketaz, eta legeen zehaztasunetan eraldaketaren batek sistema hondatzen edo espiritua usteltzen ez uzteaz. Bilatu ziren aberriarenganako maitasuna elikatu eta aldarrikatuko zuten erakundeak, horiek gorde zitzaten legeria, edo usadioak; bilatu zen botereen antolaketa bat, lehen egikaritzea zainduko zuena magistratuen arduragabekeriaren eta ustelkeriaren aurka, hiritar boteretsuen eraginaren aurka eta jendetzaren asaldadura mugimenduen aurka.

Aberatsek, garai hartan haien esku soilik baitzegoen argiak erdiestea, autoritateaz baliatuta, txiroak zapal zitzaketen, eta tirano baten eskuetara bultza zitzaketen. Ezjakintasunak, herriaren arinkeria, hiritar boteretsuen aurka zeukaten ardurak, horrek guztiak boteretsuei eman ahal ziezazkieten despotismo aristokratiko bat ezartzeko desira eta baliabideak, edo auzokideen askonahiaren menpe utzi estatu ahuldua. Eragozpen bi horiek gainditzera behartuak, greziar legegiek bi neurri gutxi gorabehera zorionekotara jo zuten, baina neurriok

beti zeramaten nazioaren espiritu orokorraren dotorezia horren, zuhurtasun horren, arrastoa.

Errepublikan modernoetan, baita filosofoek trazaturiko planetan ere, nekez ediren da erakunde bat ez dauzkana eredutzat greziar errepublikak. Liga anfiktionikoak, etoliarrenak, arkadiarrenak, akearre-nak, egitura federatiboak azaltzen dizkigute, egitura horien batasuna gutxi gorabehera estua delarik. Jende ez hain basatiaren zuzenbidea ezartzen da, eta jatorri amankomun batek, hizkuntza beraren erabilera, ohituren, iritzien eta erlijio sinesmenen antzekotasunak elkartzen dituen herri horien artean merkatal arau liberalagoak ezartzen dira.

Nekazaritzan, industrian, merkataritzan elkarrekiko harremanak, estatu baten egiturarekin eta legeriarekin batera, horiek estatua-ren oparotasunean, indarrean eta askatasunean duten eragina, hori guztia ezin zitekeen herri zoli, aktibo eta interes publikoaz arduratu baten begiradatik aldendu; eta hori ikusten dira egun ekonomia politikoa deritzagun arte hain zabal eta erabilgarri horren lehen zantzuak.

Ezarririko gobernuen behaketa soilarekin nahikoa izan zen politika laster zientzia zabal bat bihurtzeko. Bestalde, filosofoen idazkietan bertan, laster gertakizunen zientzia baten antza hartu zuen, eta, nolabait esatearren, benetako teoria, printzipio eskuzabaletan oinarritua, naturatik aterea, eta arrazoimenak aintzatetsia. Halako ikuspuntutik kontsideratu behar dira Aristotelesen eta Platonen ideia politikoak, nahi bada filosofo horien zentzuan barneratu eta justiziarekin baloratu.

Ia greziar erakunde guztietan ematen zen esklabotasuna eta plaza publiko batean hiritar guztiak biltzeko posibilitatea; eta ongi juzgatu behar badira zehaztasun horien efektuak, batez ere, nazio moderno handietan izanen zituztenak, ez dira begiradapetik aldendu behar une batez ere egungo egoerarekiko dauden diferentzia hain handiak. Ezin dugu lehenaz hausnartu, minez konturatu gabe, neurririk perfektuenek ere helburu zutela gehienik ere giza espezie erdiaren askatasuna eta zoriona.

Greziarren artean politikaren atal garrantzitsua zen hezkuntza. Pertsonak aberriaren onerako hezten ziren, euren buruentzat edo sendiarentzat baino gehiago. Printzipio hori ezin da hartu ezpada jende gutxiko herrietan, barka dakiekeelarik gizateriaren interes amankomunetik bereizia izatea euren interes nazionala. Praktika daiteke laborantzaren eta gainontzeko ogibideen jarduera neketsuenak esklaboek

burutzen dituzten herrialde batean. Hezkuntza hori ia soilik mugatzen da gorputzaren ariketetara, azturetako printzipioetara, abertzaletasun eksklusibo bat sustatzeko ohituretara: gainontzekoa libreki ikasten zen filosofoen edo erretorikoen eskoletan, artisten tailerretan; eta askatasun hori oraindik ere greziarren nagusitasunaren kausetako bat da.

Euren politikan, euren filosofian legez, printzipio orokor bat aurkitzen dugu, historiak salbuespen gutxi eskaintzen dizkiguna; hau da, greziarrek legeetan bilatzen dutela, ez gaitz baten kausak desagererraraztea, baizik eta ondorioak deuseztatzea, kausak elkarren artean kontrajarrita; nahi dutela, erakundeetan, aurreiritziez eta bizioez baliatzea, horiek deuseztatu edo ito baino lehen; gizakia desnaturaltzea xede dutela, bere sentsibilitatea berotzea edo galtzea, eta ez bere egikera moralerako beharrezkoak diren joerak perfektionatzea, purifikatzea. Akats horiek sortzen dira greziarrek kontsideratzen zutelako naturako gizakia zela, haiei zibilizazioaren uneko egoerak eskaintzen zien hori, hau da, aurreiritziek, pasio artifizialen interesek eta ohitura sozialek ustelduriko gizakia.

Ohar hori are garrantzitsuagoa da, eta akats horren jatorria aurkitzea are beharrezkoagoa izanen da, errorea hobeto suntsitzeko, gure mendera arte transmititu izan baita, eta oraindik ere sarriegi usteltzen baititu gure moralak eta politika.

Erkatzen badira greziarren legeria, eta batez ere epaiketa arauak, ekialdearrenekin, ikusiko da, batzuen herrian, esklaboak menderatu dituen uztarrak direla legeak; besteenean, gizakien artean eginiko hitzarmen komun baten baldintzak. Batzuenean, legearen formen helburua jaunaren borondatea betearaztea da; besteenean, hiritarren askatasuna zapaldua ez izatea. Batzuenean, legea berau inposatzen duen horrentzat egina da; besteenean, haren menpe jarri behar den horrentzat. Batzuen iritziz, beharrezkoa da hari beldur izatea; besteenean aburuz, hura maitatzeko hezten da. Diferentzia horiek oraindik ere modernoan artean ediren ditugu, herri libreen eta herri esklaboen artean. Azkenik ikusiko dugu Grezian gizakiak behintzat bere eskubideen sentimendua zuela, oraindik ezagutzen ez zituen arren, ez zekien arren haien naturan sakontzen, haien zabalera biltzen eta mugatzen.

Greziarren artean filosofiaren lehen zantzuak garai horretan, zientzietan egin zituzten lehen urratsenean, arte ederrak ezein herrik ezagutu ez duen perfektio maila batera iritsi ziren, ondoren herriren

bat urrutitik gerturatu zaielarik. Tiranoen erorketarekin eta errepubliken osaketarekin batera izaniko liskar haien garaian bizi izan zen Homero. Sofokles, Euripides, Pindaro, Tuzidides, Demostenes, Fidias, Apeles, garaikide izan ziren Sokrates edo Platonenak.

Trazatuko dugu arte horien aurrerakuntzaren koadroa; kausak eztabaidatuko ditugu; bereiztuko dugu artean perfekzio kontsidera daitekeena eta artistaren jeinu zorionekoa izan daitekeena; bereizketa hori nahikoa da muga estuak desagerrarazteko, horietan zarratu baita arte ederren perfekzionamendua.

Erakutsiko dugu haien aurrerakuntzan zein eragin izan zuten gobernu formek, legeriaren sistemak, erlijio gurmenen espirituak. Ikertuko dugu aurrerakuntza horiek zer zor dieten filosofiarenei, eta filosofiak berak haiei zer zor dien. Erakutsiko dugu askatasunak, arteak, argiak, nola lagundu duten ohituren gozotzera, hobetzera. Ohartaraziko dugu nola greziarren bizio horiek, sarritan euren zibilizazioaren beraren ondoriotzat jo direnak, mende zakarrenetakoak zirela; eta nola argiek, arteen kulturak, baretu egin zituzten bizio horiek, suntsitu ahal izan ez zituztenean; frogatuko dugu zientzia eta arteen aurkako deklamazio elokuenta horiek historiaren aplikazio faltsu batean oinarritzen direla; eta, aldiz, bertutearen aurrerakuntzek beti lagundu dietela argienei, ustelkeriarenek beti lagundu edo jarraitu izan dioten bezala dekadentziari.

## BOSGARREN GARAIA

### *Zientzien aurrerakuntza, haien bereizketatik dekadentziara arte*

Platon oraindik bizirik zen bere dizipulu Aristotelesek Atenasen bertan maisuaren aurkaria zen eskola ireki zuenean.

Ez zituen soilik zientzia guztiak biltzen, metodo filosofikoa elokuentziari eta poesiari ere aplikatu zion. Lehena izan zen pentsatzen metodo hori aplikatu behar zaiola giza adimenaren irismenera dagoen guztiari; adimenak, alde guztietan ahalmen berak erabil badietzake, alde guztietan lege beren menpe egon beharko du.

Zenbat eta zabalagoa izan bere egitasmoa, hainbat eta behar handiagoa zuen atal anitzak bereizteko eta, bakoitzaren mugak zehaztasun handiagoaz finkatzeko. Garai horretatik aurrera, filosofo

gehienak, eta baita sekta osoak ere, atal horietako batzuei atxiki zitzaizkien.

Zientzia matematikoak eta fisikoak bakarrik sail handi bat osatu zuten. Kalkuluan eta behaketan oinarritzen zirenez, sektak bereizten dituzten iritzietatik independente zirenez, filosofiatik bereizi ziren, sektak filosofian agintari baitziren orduan. Jakintsuen ardura-pean geratu ziren, azken horiek, zuhurtasunez, euren buruak aldenitu zituzten eskolen arteko eztabaidetatik, eskolak arduratuak baitzeuden lortzen ospe bat erabilgarriagoa zena filosofoen izen iragankorrerako, filosofiaren aurrerakuntzarako baino. Filosofia adieraren barnean geratuko dira soilik munduaren printzipio orokorrak ediretea, metafisika, dialektika eta morala, azken horren atal delarik politika.

Zorionez, bereizketa honen garaia, Greziak –ekaitz luzeen ostean– bere askatasuna galdu baino lehenagokoa izan zen. Zientziek Egiptoko hiriburuan topatu zuten babes, berau gobernatzen zuten despotek beharbada filosofiari ukatuko zioketen. Printzeek, euren aberastasunen eta boterearen zati handi bat Mediterraneoarekin eta asiar ozeanoarekin zeukaten merkatal harremanetik zetorkienez, zientzia guztien artean sustatu behar zituzten nabigazioari eta merkataritza-ri komenigarrienak zitzaizkienak.

Hortaz, azken zientzia horiek dekadentzia saihestu zuten; filosofian, ordea, laster sentitu zen dekadentzia, haren distira askatasunarekin batera desagertu baitzen. Erromatarren despotismoa, argien aurrerakuntzarekiko hain arduragabea, ez zen Egiptoraino iritsi oso berandura arte, eta, gainera, Erromaren iraupenerako beharrezkoa bilakatu zenean Alexandria. Hiri hori zientzien metropolia bihurtu zelarik, baita merkataritza zentroa ere, berez aski zen su sakratua mantentzeko –bere populazioa zela eta, bere aberastasunagatik, zeukan atzerriar kopuruagatik, Ptolomeotarrek eraturiko erakundeengatik–, eta garaileek ez zuten horiek suntsitzeko asmorik.

Sekta akademikoa –bertan matematikak hasieratik ere jorratu baitziren, eta heziketa filosofikoa mugatzen baitzen zalantzaren egokitasuna frogatzera eta ziurtasunaren muga estuak adieraztera– jakintsuen sekta izan behar zen; eta doktrina horrek ezin zituen despotak ikaratu: berdin gailendu zen Alexandriako eskolan.

Atal konikoen teoriak, horiek erabiltzeko metodoak, bai leku geometrikoak eraikitzeko, bai problemak askatzeko, beste zenbait

kurbaren aurkikundeak, guztiek ere lehenago hain estua zen geometriaren alorraren hedadura zabaldu zuten. Arkimedesek parabolaren koadratura aurkitu zuen, esferaren azalera neurtu zuen; eta horiek izan ziren limiteen teoriaren lehen urratsak, kantitate baten azken balioa determinatzen dutenak, kantitate hori hurbiltzen delarik inoiz ere iritsi barik; lehen urratsak ere zientzia horretan, erakusten duenean, bai kantitate ebaneszenteen erlazioak bilatzen, bai erlazio horien ezagutza eramaten magnitude finitu horien determinaziora; lehen urratsak, kalkulua horretan, hitz batean, justiziarekin baino urguilu handiagoarekin, modernoek infinituaren kalkulua deitu izan diotenean. Arkimedes izan zen lehena, halaber, zirkuluaren diametroaren eta zirkunferentziaren erlazio hurbildua determinatzen, irakasten nola lor daitezkeen balio gero eta hurbilagokoak, eta hurbilketa metodoak ezagutzera ematen, ezagutzen diren metodoen gabezia horri gehikuntza zorionekoa zaiona, sarritan baita zientziari ere. Nolabait, Arkimedes kontsidera daiteke mekanika arrazionalaren sortzaile. Palankaren teoria zorzaio, eta hidrostatikaren printzipioaren aurkikundeak, horren arabera, gorputz batek, gorputz likido batean ezartzen denean, bere pisuaren zati bat galtzen du, desplazatu duen masaren berdina dena.

Bere izena daraman torlojuak, bere ispilu erretzaileak, Sirakusako setioko prodigioek, guztiek ere bere talentuaren fede ematen dute makinaren zientzian, jakintsuek zientzia horri mespretxu egin baitzioten, ordura arte ezagutzen ziren teoriaren printzipioak ezin zitezkeelako hara iritsi. Aurkikuntza handi horiek, zientzia berri horiek, Arkimedes ezartzen dute haren bizitzarekin gizakiaren historia markatzen duten jeinuen artean, bere existentziak naturaren ongintza bat baitirudi.

Alexandriako eskolan aurkituko ditugu algebraren lehen arras-toak; hau da, berez soilik hartuta, kantitateen kalkuluarenak. Diofanteren liburuan proposaturiko eta askaturiko problemen naturak eskatzen zuen bertan zenbakiak hartzea balio orokor bat balute bezala, zehaztugabeak eta soilik zenbait baldintzaren menpekoak balira legez.

Baina zientzia horrek ez zuen oraindik, egun dituen bezala, zeinuak, metodo propioak, ariketa teknikoak. Balio orokor horiek hitzen bidez adierazten ziren; eta arrazoiketa segida baten bidez aurkitzen zen, askatzen zen, problemen emaitza.

Kaldearrek eginiko behaketa batzuek –Alexanderrek Aristotelesi bidali zizkionak– astronomiaren aurrerakuntzak bizkortu zituzten.

Horiek daukaten argitasun handiena Hiparkoren jeinuari zor diote. Alabaina, Hiparkoren ondoren, astronomian –geometriaren kasuan Arkimedesen ondoren bezala– ez bada topatzen ahal halako aurki-kuntzarik, nolanahi ere, lan horiek, nolabait zientziaren itxura osoa aldatzen dutenak, luzaroan jarraitu zuten perfektzionatzen, hedatzen, zehaztasunezko egien bidez aberasten.

Animaliei buruz daukan historian Aristotelesekin zehaztasunez behatzeko printzipio eta eredu baliosak eman zituen, baita ere natura-ko objektuak metodoz deskribatzeko, behaketak sailkatzeko eta horiek aurkezten dituzten emaitza orokorrak jasotzeko. Landareen historia, mineralena, bere ostean jorratu ziren, baina zehaztasun txikiagoaz, eta ikuspegi ez hain zabalekin, ez hain filosofikoekin.

Anatomiaaren aurrerakuntzak oso geldoak izan ziren, ez soilik erlijio aurreiritziek hilotzen diseizioari aurka egiten ziotelako, baita ere iritzi arruntak kontsideratzen zuelako gorpuk ikutzea nolabaiteko makula moral bat zela.

Hipokratesen medikuntza behaketa-zientzia bat zen, oraindik ere metodo enpirikoetara ez zeramana. Sekta espirituak, hipotesiekiko gustuak, laster infektatuko ditu medikuak; baina huts kopurua egia berriei gailentzen zaion arren, nahiz eta medikuen aurreiritziek edo sistemek gaitz handiagoak eragin zituzten haien behaketek eragin zitzaketen onurak baino, hala ere, ezin daiteke uka medikuntzak, garai horretan, aurrerakuntza ahul, baina benetakoak, egin zituela.

Aristotelesen fisikak ez du bere animalien historiak ezaugarri dituen, ez zehaztasun hori, ez diskrezio zuhur hori. Bere mendeko ohi-turei jarraitzen die, eskolen espirituari, fisika desitxuratuz printzipio hipotetikoak erabiltzerakoan; printzipio horiek euren orokortasun zehaztugabearekin guztia erraztasun moduko batez azaltzen dute, ezin baitute ezer azaldu zehaztasunez.

Bestalde, behaketa soila ez da nahikoa; beharrezkoak dira esperientziak: horiek instrumentuak eskatzen dituzte. Badirudi ez zirela jaso gertaera larregi eta horiek zehaztasun nahikoaz ikertu ez zirela, beharra senti zedin, ideia bat eduki zezaten jakiteko nola itaundu naturari eta nola behartu guri erantzuten.

Horrela, garai horretan, fisikaren aurrerakuntzen historia mugatu behar izan zen ezagutza gutxi batzuen koadrora; ezagutza horiek ausaz eta arteen praktikan eginiko behaketen bidez erdiesten



dira, jakintsuen ikerketatik baino gehiago. Hidraulikak, eta batez ere optikak, uzta apur bat oparoagoa erakusten dute; baina behaturiko gertaerak dira, berez agertzen direlako, esperientzien bidez aurkituriko edo hausnarketaren bidez asmaturiko teoriak edo lege fisikoak baino.

Nekazaritza ordura arte errutina sinplera mugatzen zen, eta zenbait arauetara, apaizek, herriei transmititzerakoan, euren superstitioekin usteldu zituztenetara. Greziarren eta, batez ere, erromatarren artean nekazaritza arte garrantzitsua eta errespetatua bihurtu zen, gizakirik garrantzitsuenak arduratu baitziren usadioak eta arauak biltzen. Behaketa multzo horiek, zehaztasunez azalduta, bereizkuntzaz bilduta, praktika argiak eta metodo probetxugarriak zabaldu zituzten; baina oraindik ere urruti zeuden esperientzien eta behaketa kalkulatuaren mendetik.

Arte mekanikoak zientziekin erlazionatzen hasi ziren. Filosofoak, lanak aztertzerakoan, jatorria bilatzerakoan, historia ikertzerakoan, arduratu ziren eskualde ezberdinetako prozedurak eta laboratoriko produktuak deskribatzeaz, behaketa horiek biltzeaz, eta etorkizunari transmititzeaz.

Horrela, Plinio dakusagu gizakia, natura eta arteak biltzen, historia naturaleko egitasmo itzelean; inbentario baliotsua da giza espirituaeren benetako aberastasunak osatzen duten gauza guztiena. Pliniok benetan merezi duen kexa horrek ezin du deuseztatu gure errekonozimendurako dituen eskubideak; hau da, kexu egin dakioke bildu izateagatik, hautaketa txikiegiarekin eta sineskortasun handiegiarekin, historialari eta bidaiarien ezjakintasunak eta banitate nahasleak haren ezagutzeko nahi aseezinari eskaini zioten guztia.

Greziako dekadentziaren erdian, Atenasek, bere boterearen egunetan filosofia eta letrak ohoratu zituen horrek, horiei zor zien, halaber, luzaroago kontserbatu izana bere antzinako distiraren arrasto batzuk. Tribunan ez ziren jada balantzan ezartzen Asiaren eta Greziaren etorkizunak, baina bertako eskoletan ikasi zituzten erromatarrek elokuentziaren sekretuak, eta Demostenesen lanpararen azpian formatu zen haien lehen hizlaria.

Akademia, Lizeoa, Arkupea, Epikuroren Lorategiak, horiek izan ziren filosofian agintea lehiatu zuten lau sekten sehaska eta eskola nagusia.

Akademian irakasten zen ezer ez dela ziurra; gizakiak ezin duela lortu, ezein objektuekin, ez benetako segurtasun bat, ezta ulermen perfektu bat ere; azkenik (eta zaila zatekeen urrutiago iristea), gizakia ezin dela ziur izan ezer ezagutzeko ezintasunaz, eta beharrezkoa dela zalantza egitea dena zalantzatzearen derrigortasunaz.

Haiei aurka egiten zitzairen beste filosofo batzuen iritziak agertzen eta defendatzen ziren han, baina espiritua zailtzeko hipotesi legez, eta hobeto sentiarazteko –eztabaida horiei darraien segurtasun ezarekin– giza ezagutzen banitatea zein beste sekta batzuen konfiantza dogmatikoaren irrigarritasuna.

Baina zalantza horrek, arrazoimenak aitortzen duenak, eragiten badu ez arrazoitzea ideia argi eta zehatzak atxiki diezazkiekegun hitzei buruz; proposizio bakoitzaren probabilitate mailari gure atxikimendua ematea; determinatzea, ezagutza klase bakoitzerako, lor dezakegun ziurtasunaren mugak; zalantza hori, egia frogatuetara zabaltzen bada, moralaren printzipioei eraso egiten badie, ergelkeria edo erokeria bilakatzen da. Ezjakintasuna eta ustelkeria sustatzen ditu: eta Akademian Platonen lehen dizipuluak ordezkatu zituzten sofisten gehiegikeria halakoa da.

Eszeptiko horien ibilbidea azalduko dugu, euren erroreen kausa; ikertuko dugu, euren doktrinaren gehiegikerian, zer egotzi behar zaion iritzi bitxien bidez bakantzeko zuten mania horri; ohartaraziko dugu, beste pertsona batzuen senaren bidez, zeramaten bizitzako jokera gidatzen zuen senaren bidez, funtsez errefutatuak izan ziren arren, ez zirela inoiz izan ez ongi ulertuak, ez filosofoek ongi errefutatuak.

Nolanahi ere, gehiegizko eszeptizismo horrek ez zuen eraginik izan sekta akademiko osoan; eta justuaren, ederraren, zintzoaren ideia eternalaren iritzia, gizakien interesetik, konbentzioetatik, existentzialtik beretik independente dena, ideia hori, gure ariman bertan inprimatua dena, bilakatuko da guretzat gure betebeharren printzipioa eta gure ekintzen araua. Doktrina hori, Platonen dialogoetan agertzen dena, bere eskolan azaltzen zen, eta moralaren irakaskuntzarako oinarri bezala erabiltzen zen.

Aristotelesek ez zekien bere maisuek baino hobeto ideiak analizatzen, hau da, ideien konbinazioan sartzen diren ideia sinpleenetara mailaka iristen, ideia sinpleen formazioaren jatorriraino barnera-

tzen, eragiketa horietan espirituaren ibilbidea eta ahalmenen garapena jarraitzen.

Bere metafisika, gainontzeko filosofoena legez, ez zen izan doktrina zehaztugabe bat baizik, oinarritua, bai hitzen abusuari, bai hipotesi sinpleetan.

Hari zor zaio, nolanahi ere, honako egia garrantzitsua, honako lehen urrats hau giza espirituaren ezagutzan: *gure ideiek, baita abs-traktuenean, puruki intelektualen ere, nolabait esatearren, euren jatorria gure sententzioetan dutela*. Baina ez du inolako garapenik ematen. Batez ere jeinu gizon baten hautematea izan zen, eta ez zehaztasunez analizaturiko, eta egia orokor bat emateko elkarren artean konbinaturiko, behaketen emaitza: hazi horrek, esker txarreko lur baten jaurtiak, ez zuen fruiturik eman ezpada hogeita mende beranduegokoa arte.

Aristotelesek, bere logikan, frogapenak erreduzitu zituen forma silogistikoko bateko argumentu segida batera; ondoren, proposizioak lau klasetan biltzen zituen, gainontzeko guztiak barne zituztelarik. Irakasten du bereizten, lau klase horietatik hirunaka hartuta, proposizio konbinazio posible guztietatik, silogismo eztabaidaekin, eta derri gorrean erantzuten dutenak. Modu horretan, argumentu baten zuzentasuna edo akastetasuna juzga daiteke soilik jakinda zein konbinazio klasetakoa den; eta zuzen arrazoiatzeko artea nolabait arau teknikoaren menpe dago.

Idea zola hori egundaino erabili gabe egon da; baina apika egunen batean bilakatuko da lehen urratsa, arrazoiatzeko eta eztabaidatzeko artearen perfektionamenduak oraindik, antza, espero duena.

Aristotelesen arabera, bertute bakoitza bizio biren artean kokatuta dago, bata, gabezia da, bestea, gehiegikeria. Bertutea nolabait gure joera naturaletako bat da, arrazoimenak debekatzen digularik hari gehiegi aurka egitea, eta gehiegi obeditzea.

Printzipio orokor hori apika agertuko zen ordenaren eta komenentziaren ideia lauso horietatik, filosofian orduan hain arrunt zirenetatik; baina Aristotelesek egiaztatu egin zuen, hitzen nomenklaturaren bidez, bertute deitzen ziren horiek grezieraz adierazpidea baitzuten.

Garai berean, sekta berri bik, moralak aurkako printzipioetan oinarritzen zutenek, behintzat itxuraz, espirituak banandu zituzten,

euren eragina euren eskolatatik haratago hedatu, eta greziar superstizioaren erortzea bizkortu zuten; zoritxarrez, superstizio ilunago, arriskutsuago, argien arerioago batek aurrenekoa laster ordezkatu zuen. Estoikoen ustez, bertutearen eta zorionaren oinarria honakoan zegoen: plazerak eta minak arimaren gain eraginik ez izatean; arima –pasio guztietarik aske– beldur eta ahultasun guztien gainetik egotean; arimak benetako bertutea soilik kontsideratzean on, eta, alhauratik aparte, arimarentzat benetako gaitzik ez izatean. Uste zuten gizakiak ahalmena duela garaiera horretara igotzeko, borondate indartsu eta konstantea izanez gero; eta orduan, zoritik independente, beti bere buruaren jabe, bizioarekiko zein zoritxarrarekiko iragan-gaitz dela.

Espiritu bakan batek animatzen du mundua; leku guztietan dago, hura ez baldin bada den guztia, ez baldin bada existitzen hura ez denik. Giza arimak haren emanazio dira. Jakintsuaren arima, bere jatorriaren purutasuna zikindu ez duen horrena, hiltzerakoan, espiritu unibertsal horrekin biltzen da. Heriotza, beraz, onura bat da, naturaren menpe ezartzen den jakintsuarentzat, pertsona arruntek gaitz deriztaten horiekin zaildu denarentzat, ez dago handitasunik norbaitek heriotza kontsideratzen badu axolarik ez duen zerbait bezala.

Epikurok plazeraren gozamenean eta min absentzian kokatzen du zoriona. Joera naturalei jarraitzean datza bertutea, horiek purifikatzen eta zuzentzen jakinda, baina. Honako hau da zorionera eta bertutera darioan bidea: neurritasuna, honek mina ekiditen baitu, gure ahalmen naturalak euren indar guztiarekin mantentzen baititu, eta naturak eskainiriko atsegin guztiak ziurtatzen dizkigu; pasio higuin-garriez edo indarkeriazkoez norbera babesteko kontu hartzea, pasio horiek berorien mingostasunera eta furfuriara entregatzen den bihotza tormentatzen baitute; bestetik, afektu gozoak eta eztiak lantzekoa; ongintza saritzen duten atseginetara dedikatzea; arimaren purutasuna gordetzea, krimena zigortzen duten desohorea eta alhadura saihestearren, gordetze horretatik baitator akzio onak saritzen dituen sentimendu gozoa.

Epikurok ez zuen ikusten unibertsoan ezpada atomo piloa, horien konbinazio anitzak halabeharrezko legeen menpe direlarik. Giza arima bera konbinazio horietako bat litzateke. Hura osatzen duten atomoak, gorputzean bizitza hasten den unean biltzen direnak,

heriotzan barreiatzen dira, masa bakarrean biltzeko, eta konbinazio berrietan hasteko.

Aurreiritzi herrikoiekin zuzenean topo egin nahi ez zuelarik, onartu zituen jainkoak; baina, gizakien ekintzekiko axolagabe, uni-bertsoaren ordenarekiko arrotz, eta gainontzeko izakiak legez, haren mekanismoaren lege orokorren menpe, nolabait sistema horren luza-kin moduko bat ziren.

Gizaki gogorrak, harroak, bidegabeak, estoizismoaren mozo-ropoan ezkutatu ziren. Gizaki atseginzale eta ustelak Epikuroren lorategietara lerratu ziren sarritan. Epikurotarren printzipioak kalumniatu ziren, onik gorena atsegin zakarrenetan kokatzea leporatzen zitzaien. Irrigarri uzten ziren Zenon zuhurraren nahiak, esklabo zela-rik, errotarriari bueltak ematen zebilela, edo hezueriak tormentatuta, ez zion hargatik zoriontsu, libre eta subirano izateari utzi.

Filosofia horrek, naturaren gainetik altxatzea xede zuenak, eta, besteak, naturari obeditzea baino besterik nahi ez zuenak; bertutea ez den beste onik onartzen ez zuen moral horrek, eta, besteak, zoriona atseginen ezartzen zuenak; biek ere ondorio praktikoetara zeramaten, aurkako printzipioetatik abiatu, eta hain aurkako lengoia zuten arren. Erljio guztietan, filosofiaren sekta guztietan, manu moraletan ematen den antzekotasuna nahikoa da frogatzeko badela egia bat erlijio horien dogmetatik, sekten printzipioetatik, independente dena, eta gizakiaren egikera moralean bilatu behar dela haren betebeharren oinarria, bertutearen eta justiziaren ideien jatorria. Epikurotarren sekta izan zen egia horretatik gutxien aldendu zena: eta beharbada hori izan zen klase orotako hipokriten gorrotoa eragin zuena, horientzat, morala ez da berorren monopolioa lehiatzen duten merkataritzako objektua baizik.

Greziar errepubliken erorketak zientzia politikoena ere eragin zuen. Platon, Aristoteles eta Xenofonteren gainbeheraren ondoren, zientzia horiek ia sistema filosofikotik at geratu ziren.

Baina bada garaia mintzatzeko munduaren zati handi baten zoria aldatu, eta giza espirituaren aurrerakuntzan egundaino luzatu den eragina izan zuen gertakizun bati buruz.

India eta Txina alde batera utzita, giza espirituak bere lehen haurtzaroko ahultasunetik gora egin zuen leku guztietara hedatu zen Erromako hiria.

Erromak legeak eman zizkien greziarrek euren hizkuntza, zientziak eta filosofia eraman zizkieten herri guztiei. Herri horiek guztiak –garaipenak kapitolioaren oinean ezarraraziriko katetik zintzilik– ez ziren existitzen ezpada Erromaren borondateagatik eta bere buruzagien pasioengatik.

Herri menperatzaile honen egituraren koadro bat ez da arrotza izanen lan honen helbururako: ikusiko da jaraunspenezko patriziatu baten jatorria, eta harturiko neurriak hari oreka eta indarra emateko, eta ez zedin hain gorrotagarri gerta; armetan trebaturiko herria, baina ez zituena horiek ia inoiz etxeko liskarretan erabiltzen; benetako indarra legezko autoritatearekin biltzen zuena, eta nekez defendatzen zuena bere burua Senatu harro batengandik, honek herria superstizio bidez kateatzen zuelarik, garaipenen distirarekin liluratzen baitzuen; nazio handi bat, aldian-aldian bere tiranoen edo bere defendatzaileen jostailu, eta lau mendez sufragioak egiteko moduak –modu absurdoa, baina kontsokratua– pazientzia handiz iruzurtua.

Ikusiko da nola egitura horrek, hiri bakarrarentzat eginikoak, bere natura aldatuko duen forma aldatu gabe, inperio handi batera hedatzea beharrezko gertatu zenean; ezin zelarik mantendu ezpada etengabeko gerren bidez, nola laster bere arma propioekin suntsitua izan zen; azkenik, herri-erregea, bilautua, altxor publikotik elikatua izateko ohitura dela eta, senatarien zarrastelkeriak usteldua, eta giza-kiari saltzen bere askatasun ezdeusaren hondakin itxurazkoak.

Erromatarren handinahiak eroan zituen Grezian bilatzera elo-kuentziaren maisuak, haien artean aberastasunera zeraman bideetari-ko bat baitzen. Gozamen eksklusibo eta finetarako gustu horrek, aberastasunetik eta aisialditik sortzen den plazer berrien beharrak, greziarren arteak aztertzerako eroan zituen, baita haien filosofoen mintzal-diak ere. Baina zientziak, filosofia, marrazketaren arteak, beti izan ziren landare arrotzak Erromako zoruan. Garaileen askonahiak Italia estali zuen Greziako maisu-lanez; obrok indarrez ebatsi zituzten ten-pluetatik, apaingarri ziren hirietatik, euren esklabotasuna kontsolatzen zieten herrietatik: baina ez ziren ausartu erromatar baten lanarekin nahasten obra horiek. Zizeronek, Lukreziok eta Senekak elokuentziaz idatzi zuten euren hizkuntzan filosofiari buruz, baina beti greziarren filosofiari buruz; eta Numaren egutegi barbaroa eraberritzeko, Zesarrek Alexandriako matematiko bat erabili behar izan zuen.

Erroma, luzaroan jeneral askonahien fakzioek zarrastatua, konkista berriekin arduratua, edo konponduezin zibilek asaldatua, bere askatasun ezegonkorretik, oraindik ekaiztsuagoa izanen zen despotismo militar batean eroriko da. Zer leku ediren zuten, orduan, filosofiarren edo zientzien hausnarketa lasaiek, tirania xede zuten buruzagien artean, eta, apur bat beranduago, egiak ikaratzen zituen despoten artean, berdin gorrotatzen zituztelarik talentuak zein bertuteak? Bestalde, aberastasunera eta duintasunera daraman karrera ohoragarri bat ikasketarako joera naturala duen ororentzat irekia dagoen herri batean zientziak eta filosofia baztertu egiten dira derrigorrean: eta Erroman karrera hori jurisprudentziarena zen.

Legeak, Ekialdean bezala, erlijioari lotuta daudenean, horiek interpretatzeko eskubidea apaizen tiraniaren laguntzarik indartsuenetakoa bihurtzen da. Grezian, herri bati bere legegileak emaniko kodearen zati ziren: egituraren eta ezarriko gobernuaren espirituari lotuta zeuden. Aldaketa gutxi saiatu zituzten. Sarritan magistratuek haietaz abusu egin zuten: usu ematen ziren bidegabekeria partikularrak; baina legeen akatsek han ez zuten inoiz eragin lapurreta sistema erregular eta hozki kalkulatu bat. Erroman ez zen ezagutu luzaroan beste autoritaterik ezpada ohituren tradizioa; epaileek urtero deklaritzen zuten zein printzipioren arabera erabakiko zituzten epaiak, euren magistraturaren aldian zehar; lehen lege idatziak greziar legeen bilduma bat izan ziren, legeria on bat aurkezteko orduan euren ohoreaz baino euren botereaz arduratzen ziren decemviri batzuek idatziak. Erroman, garai horren ostean, aldian-aldian senatuaren alderdiak eta herriarenak emaniko legeek bizkorki batzuek besteei jarraitzen zieten, etengabe deuseztatuak ala baieztatuak ziren, arau berriekin gozatuak ala zorroztuak. Laster, horien aniztasunak, horien konplikazioak, horien iluntasunak, beharrezko egin zuten hizkera aldatzea; zientzia bereizia egin zuten lege horien ikasketarekin eta ulermenarekin. Senatuak, profitatuz herriak antzinako erakundeekiko zuen errespetuaz, laster sentitu zuen legea interpretatzeko pribilegioa, berriak egitekoa lakoa zela ia; eta juristaz bete zen. Haien botereak senatuarenak baino gehiago iraun zuen; enperadoreen garaian handitu egin zen; hainbat eta handiago da, legeria zenbat eta bitxiagoa eta zehaztugabeagoa den.

Jurisprudentzia, hortaz, erromatarrei zor diegun zientzia berri bakarra da. Trazatuko dugu haren historia, modernoan artean legeria-

ren zientziak izan duen aurrerakuntzarekin lotua baitago, eta batez ere topatu dituen oztopoekin.

Erakutsiko dugu nola erromatarren eskubide positiboekiko errespetuak lagundu duen gizakien eskubide naturalekiko zenbait ideia kontserbatzen, ideia horiek handitu eta heda ez daitezen; nola zuzenbide erromatarrari zor diogun egia erabilgarri kopuru txiki bat, eta aurreiritzi tiraniko saldoa.

Zigor legeen onberatasunak, errepublikapean, merezi du hartan ezar ditzagun gure begiradak. Lege horiek, nolabait, sakratu egin zuten erromatar hiritarraren odola. Ezin zitzaion hiritarrari heriotza-zigorra aplikatu, botere berezi baten aparatua gabe; botere horrek kalamitate publikoa eta aberriarentzat arriskua gaztigatzen zuen. Herri osoari dei egin ahal zitzaion epaile moduan jardun zezan, gizaki soilaren eta errepublikaren artean. Ulertu zen onberatasun hori zela, herri libre batean, desadostasun politikoak masakre odoltsuetan ez bukatzeko modu bakarra. Legeen gizatasunarekin nahi izan zen ohi-turen basakeria zuzentzea; herri horrek, baita berorren jokoetan ere, esklaboen odola jariatzen zuen: horrela, Grakoen garaira lerratuta soilik, inoiz ere, ezin herrialdetan, halako ekaitz indartsu eta jarraiek ez zuten horrenbeste odol eta hainbeste krimen eragin.

Ez zaigu politikari buruzko obrarik iritsi erromatarren kasuan. Zizeronek legeei buruz idatzirikoa ez da greziarren liburuen laburpen edertua baizik. Hil zorian zegoen askatasuna asaldatzen zuten konbultsioen artean ez zen zientzia soziala naturalduko eta perfektionatuko. Zesarren despotismoan halako obren ikasketak boterearen aurkako konspirazioa baizik ez zuen emango. Ez du ezerk hobeto frogatzen zein heinean zen ezezaguna erromatarren artean, historian bakarra den honako etsenplu honek baino: Nervarengandik hasi eta Marko Aurelioren garairaino, ondorengotza etengabe bat dakusagu, bost enperadorerengandik, biltzen zituztenengandik bertuteak, talentuak, argiak, loriarako zaletasuna, on publikoaren ardura, enperadore horiengandik ez zen atera erakunde bakar bat adierazten duena desira bat despotismoari mugak ezartzeko edo iraultzei aurre egiteko, eta lotura berriekin estutzeko masa itzel horren alderdi ezberdinak, denak iragartzen baitzuen haren disoluzioa gertu zegoela.

Aginte bakar baten menpeko horrenbeste herriren elkartea; inperioa partekatzen zuten bi hizkuntzen hedadura, biak ezagunak



zitzaizkienak ia pertsona ikasi guztiei; bi kausa horiek, batera eragiten zutelarik, zalantzarik gabe, argiak espazio zabalago batean berdintasun handiagoarekin hedatzen lagundu zuten. Haien efektu naturala izanen zen apurka-apurka sekta filosofikoen arteko diferentziak ahultzea, bakarrean elkarraraztea, bakoitzak arrazoimenetik gertuagokoen iritziak aukeratuko zituelarik, azterketa hausnartu batek gehien baieztatzen zituen iritziak. Puntu horretan ere arrazoimenak bultzatuko zituen filosofoak; denborak berotasun sektarioan izaniko efektuak arrazoimena soilik entzunarazi zuenean. Horrela Senekarengan filosofia horren zenbait traza aurki ditzakegu. Filosofia hori ez zitzaion inoiz arrotz izan sekta akademikoari, bertan murgildu baitzen ia osoki, eta Platonen azken dizipuluak eklektizismoaren sortzaileak izan ziren.

Inperioko ia erlijio guztiak nazionalak izan ziren. Baina guztiek ere antzekotasun ezaugarri handiak zituzten, eta, nolabait, sendi tankera bat. Honakoak ziren zeuzkaten antzekotasunak: batere dogma metafisikorik ez, zeremonia bitxi haboro, herriak horien zentzua eza gutzen ez zuelarik; mitologia absurdo bat, jendetzak bertan euren jainkoen historia liluragarria baino ez zuelarik ikusten; pertsona jantzienean bertan dogmarik sublimeenen aurkezpen alegorikoa hautematen zuten arren, sakrifizio odoltsuak, jainkoak ordezkatzeko zituzten idoloak, horien artean batzuek, denborak kontsokratuek, bertute zerutiarra zutelarik; dibinitate bakoitzaren gurmenera dedikatzen ziren pontifizeak, gorputz politiko bat osatu barik, eta erlijio elkarte batean bilduta egon barik ere; zenbait tenpluri, estatua jakin batzuei, atxikiriko orakuluak; eta misterioak, apaizek ez zituztenak komunikatzen sekretu bortxaezin baten legepean baino.

Gaineratu behar da apaizak, erlijio kontzientziaren arbitro, ez zirela inoiz ausartuko kontzientzia moralaren arbitro ere izatera; gumenaren praktika zuzentzen zuten, eta ez bizitza pribatuko ekintzak. Orakuluak edo augurioak saltzen zizkieten politikari; gerrara bidal zitzaizketen herriak, krimenak agindu; baina ez zuten batere influentziarik, ez gobernuan, ezta legeetan ere.

Herriek –inperio berean agindupeko– elkarren artean ohizko komunikazioa izan zutenean, eta argiek leku guztietan ia aurrerakuntza berdina egin zituztenean, pertsona ikasiak laster konturatu ziren gumen horiek guztiak jainko batenak zirela; hain anitzak ziren dibi-

nitateak, gурmen herrikoiaгen berehalako objektu, jainko horren eraldaketa edo ministro baizik ez ziren.

Aitzitik, gалиarren artean, eta Ekialdeko zenbait eskualdetan, erromatarrek beste mota bateko erlijioa topatu zuten. Han, apaizak moralaren juje ziren: bertutea jainko baten borondatearen obediētzian oinarritzen zen, eta apaiz horiek ziren jainko horren interpretari bakarrak. Haien agintea gizakiarengan bere osotasunean hedatzen zen, tenplua aberriarekin nahasten zen; Jehovahen edo Jesusen gurtzaile zen bat, inperioko hiritar edo agindupeko izan baino lehen; eta apaizek erabakitzen zuten euren jainkoak zein giza legeri obeditzea baimentzen zuen.

Erlijio horiek munduaren nagusien urguilua mindu beharko zuten. Galiarrena indartsuegia zen, ez zezaten ahalik eta azkarren suntsitu. Nazio judua, halaber, barreiatua izan zen; baina gobernuaren zaindaritzak, edo gutxietsi egin zuen, edo ezin zen arduratu antzinako gурmen horien aztarnatatik sekretuan osatu ziren sekta ilun horietaz.

Greziar filosofiaren hedapenaren onuretako bat izan zen dibinitate herrikoien suntsipena, hezkuntza apur bat zabala jasotzen zuten klase guztien artean. Teismo lauso bat zen, edo Epikuroren mekanizismo purua, baita Zizeronen garaian ere, norbere espiritua landu zuen edonoren, afera publikoak zuzentzen zituen edonoren, doktrina komuna. Pertsona klase hori derrigorrean atxikitzen zitzaion antzinako erlijioari, baina purifikatzen saiatuz, ezen jainko horien aniztasunak herrialde guztietan herriaren sinesgarritasuna akitua baitzuen. Orduan, ikusi zen nola filosofoek sistemak egiten zituzten jeinu artekarien gainean, nola ezartzen ziren prestakuntza, praktika eta erlijio erregimen batzuen menpe, gizakiaren adimen goragokoetara gerturatzeko duin egitearren: eta Platonen dialogoetan aurkitu zituzten doktrina horretarako oinarriak. Konkistaturiko nazioetako pertsonak, dohakabeak, imajinazio sutsu eta ahuleko gizakiak, lehentasunez apaiz erlijioetara atxiki beharko ziren, apaiz menperatzaileen interesak inspiratzen baitzien preseski esklabotasunean berdintasun doktrina hori: uneko onurei uko egitea; mendekotasun itsu bati erreserbatu-riko sari zerutiarrak; pazientziaz pairaturiko edo borondatez eginiko beheramenduak, sufrikarioak; gizateria zapalduarentzat doktrina arras seduzigarria! Baina bazegoen beharra, zenbait sotiltasun filosofikoren bidez, haien mitologia zakarra aditzera emateko; Platonengan aur-

kitu zuten laguntza osterata ere. Bere dialogoak armategi izan ziren, alderdi biek ere euren arma teologikoak forjatzeko. Ikusiko dugu, ondoren, Aristotelesek antzeko ohorea partekatu zuela, eta aldi berean bilakatu zela teologoen maisu eta ateoaren buruzagi. Hogei sekta egiptoar, judu, ados jarri ziren inperioko erlijioari eraso egiteko, baina elkarren artean suhertasun berarekin ekiten zioten elkarri, eta Jesusen erlijioan galdu ziren azkenik. Haien hondakinetatik historia bat, sinesmen bat, zeremoniak eta moralak, osatu ziren, eta apurka-apurka iluminatu horien masa haietara igaro zen.

Guztiek sinesten zuten Kristo batengan, gizateria berrerosteko Jainkoak bidaliriko mesias batengan. Antzinako sekten hondakinetatik altxatu nahi duen sekta ororen dogma funtsezkoa da hori. Lehian eztabaidatzen zen bere agerkundearen unea, lekua, hilkor bezala zuen izena; baina profeta batek, Tiberioren garaian Palestinan agertu zenak, gainontzeko guztiak eklipsatu zituen; eta fanatiko berri guztiak denak bildu ziren Mariaren semearen estandartepean.

Inperioa zenbat eta gehiago ahuldu, hainbat eta azkarrago egi-ten zituen aurrerakuntzak erlijio kristau horrek. Munduaren antzinako konkistatzaile horien bilautzea jainkoengana hedatu zen; konkistatzaile-aren garaipenen buru izan ostean, ez ziren jada haien porroten lekuko ahalmen-gabeak baizik. Sekta berriaren espiritua egokiagoa zen dekadentzia eta zoritxar garaietarako. Buruzagiak —euren jukutriak eta bizioak gorabehera— euren doktrinaren izenean hiltzeko prest zeuden gizaki kartsuak ziren. Filosofoen eta handikien erlijioaren gaineko ardura ez zen debozio politikoa baizik; eta herriari uzteko egokia dela-koan sinesmen bezala defendatzen ahal den erlijio orok ezin du espe-ro agonia gutxi gorabehera luze bat baizik. Laster kristautasuna alder-di boteretsua bilakatu zen; erlijio hori Konstantino tronuan eseri, eta haren ondorengo ahulen alboan ezarri zen.

Alferrik saiatu zen zoriak lantzean behin botere subiranora igo-zen duen gizaki handi horietako bat, Juliano, inperiolari azote hori kentzen, azote horrek inperioaren gainbehera bizkortuko zuelakoan: enperadorearen bertuteak, bere gizatasun bihozberak, bere ohituren sinpletasunak, bere arimaren eta izaeraren garaitasunak, bere talen-tuak, bere militar jeinuak, bere garaipenen distirak, denak ematen zuen arrakasta ekarriko zuela. Ezin zaio kexu egin ezpada erakustea irrigarri bilakaturiko erlijio batekiko atxikipen bat, harengan duina ez

zena, zintzoa bazen; eta dorpea atxikipen hori puzteagatik, ez bazen politikoa baizik; baina Juliano lorian hil zen, bi urteko erreinaldiaren ondoren. Erromatar inperioaren kolosoak ez du gehiago aurkituko sostengatuko zuen beso hain indartsurik; eta Julianoren heriotzak hautsi egin zuen superstizio berrientzat eta basatien uholdeentzat zegoen dike bakarra.

Giza zientziekiko mespretxua zen kristautasunaren lehen ezau-garrietako bat. Filosofiaren laidoez mendeku hartu behar zuen; beldur zien azterketaren eta zalantzaren espirituari, nork bere arrazoimena-  
rangan konfiantza izate horri, erlijio sinesmen ororen azote diren horiei. Zientzia naturalen argia ere gorrotagarri eta susmagarri zitzaiz-  
kion, mirakuluen arrakastarako zeharo arriskutsuak baitira zientziok; eta ez dago erlijiorik bere jarraitzaileei irentsaraziko ez dizkionik halako absurdo fisikoetako batzuk. Horrela, kristautasunaren garaipe-  
na dekadentzia osoaren seinale izan zen, bai zientziena zein filosofia-  
rena.

Zientziek dekadentzia hori saihestuko zuketen inprenta ezagu-  
tu izan balitz; baina liburu beraren eskuizkribuen kopurua txikia iza-  
ten ohi zen: zientzia bateko gorputza osatzen zuten lanak eskuratzeko,  
beharrezkoa zen arreta hartzea, baita sarritan bidaiak eta gastuak ere,  
eta soilik pertsona aberatsek zuten horretarako aukera. Alderdi agin-  
tariari erraza egiten zitzaion bere aurreiritziekin talka egin edo bere  
engainuak azaltzen zituzten liburuak desagerraraztea. Barbaroen  
inbasio batek, egun bakarrean, herri bat betirako gabetu zezakeen hez-  
kuntza baliabide batez. Eskuizkribu bakar baten suntsitzea, sarritan,  
herrialde oso batentzat galera konponezina zen. Ez ziren kopiatzen,  
bestalde, autorearen izenak gomendagarri egiten zituen obrak baizik.  
Ikerketa horiek guztiak, soilik denak bilduta garrantzia izan zezakete-  
nak; ohar isolatu horiek, zientziak maila berean mantentzen laguntzen  
duten detailezko perfekzionamenduak, aurrerakuntza prestatzen dute-  
nak; denborak metatzen dituen material horiek, jeinuaren zain dire-  
nak; horiek guztiak iluntasun eternalera kondenatuak ziren. Jakin-  
tsuen elkarte hori, euren indarren biltze hori, hain probetxugarria,  
hain beharrezkoa garai jakin batzuetan, ez zen existitzen: beharrezkoa  
zen gizabanako berak aurkikuntza bat hastea eta bukatzea; eta behar-  
tua zegoen bakarrik aurka egitera naturak gure ahaleginei jartzen diz-  
kien oztopo guztiei. Zientzien ikasketa errazten duten obrek, zailtasu-

nak argitzen dituztenek, egiak forma erosoago eta sinpleagoan agertzen dituztenek; behaketatako zehaztasun horiek, sarritan emaitzen errorea –irakurleak sumatzen duelarik autoreak pertzibitu ez zuena– argitzen duten garapen horiek; obra horiek guztiek ez zuten aurkituko ez kopistarik, ezta irakurlerik ere.

Horrela, ezinezkoa zen zientziak –behin iritsita zabalera batera, zaila zelarik haien aurrerakuntza eta baita ikerketa sakona ere– berez zutik mantentzea eta euren dekadentziara zeraman maldari aurre egitea. Hortaz, ez da harritzekoa kristautasunaren kasuan, inprentaren asmakuntzaren ostean bere boterea ez da izan nahikoa aurrerakuntzen berragerpena ekiditeko, orduan ere ez zen nahikoa haien hondamendia eragiteko.

Arte dramatikoak –soilik Atenasen loratu baitzen arte hori, bai eta herri horrekin batera erori ere– eta elokuentziak ez bezala –ezin baitu arnasarik egin ezpada aire librean–, greziarren hizkuntzak eta literaturak luzaroan mantendu zuten euren distira. Luziano eta Plutar-korekin ez da Alexandroren mendearen mira izanen. Erroma Greziaren mailara iritsi zen, poesian, elokuentzian edo historian, zientziako eta filosofiako gai astunak duintasunez, dotoretasunez eta modu atseginean tratatzeari dagokionez. Greziak berak ez du Virgiliok lain perfektioaren ideia bat emango duen poetarik; Tazito berdinduko duen historialaririk ere ez du. Baina argitasun garai horri laster jarraitu zion dekadentziak. Luzianoren garaian, Erromak ez zuen jada idazle ia bar-baroak baino. Krisostomok oraindik Demostenesen hizkuntza mintzatzaren zuen. Jada ez da Zizeronena edo Tito Liviorena ezagutuko ez Agustinengan ezta Jeronimorengan ere, eta ezin daiteke desenkusatu afrikar arrotzasunaren eraginaren aitzakiarekin.

Izan ere, Erroman, letren ikasketa, arteekiko maitasuna, ez zen inoiz benetan herriaren gustua izan; hizkuntzaren perfektzio iragankorra ez zen herriaren lana izan, baizik eta Greziak hezi zituen pertsona batzuenak. Erromatar eremua letrentzat beti izan zen zoru arrotza, ohizko jorratze batek naturalduko zituzkeen, baina euren kasa utziz gero, endekatu beharko ziren.

Hortaz, Erroman eta Grezian tribunako eta foroako talentuak luzaroan izaniko garrantziak erretorikoen klasea ugaltu egin zuen. Euren lanek artearen aurrerakuntzari lagundu zioten, haren printzipioak eta fintasunak garatu zituztelarik. Baina irakasten zuten beste arte

bat ere, modernoek egun jaramonik egiten ez diotena, eta ahoskatu-  
ko lanetatik lan inprimatueta pasa beharko litzatekeena. Esan nahi  
dugu erraztasunez eta denbora gutxian diskurtso bat prestatzea, atalen  
antolaketak, bertan den metodoak, eta azaltzen dituen apaindurak,  
behintzat jasangarri egiten duten hori; unean bertan mintzatzeko gai-  
tasuna da, entzuleak nekatu gabe ideien desordenarekin, estiloaren  
luzetasunarekin, gogaitu gabe deklamazio hanpatuekin eta bitxiekin,  
zentzugabekeria zakarrekin eta kirtenkeria arraroekin. Zein komeni-  
garria litzatekeen arte hori edozein herrialdetan; kargu baten, betebe-  
har publiko baten, interes partikular baten funtzioek behartzen dute-  
nean diskurtsoa edo lana hausnartzeko astirik gabe mintzatzeko edo  
idaztea! Arte horren historiak gure arreta merezi du, hainbat eta  
gehiago badirudielako modernoek –nahiz eta sarritan arte hori beha-  
rrezkoa luketen– haren alderdi irriagarria baizik ezagutzen ez dutela.

Koadroa amaitzeaz daukadan garaiazen hasieran, liburuak  
zeharo ugaltu ziren. Denboraren distantziak Greziako lehen idazleen  
obren gainean iluntasun handiak hedatu zituen, liburuen eta iritzien  
ikasketa hori, erudizio deritzana, espirituaren lanen atal garrantzitsua  
bilakatzeko moduan. Eta Alexandriako biblioteca gramatikari eta kri-  
tikoez bete zen.

Idazle haietarik geratzen zaigun horretan nabaritzen da joera  
bat: neurtzekoa haienganako miresmena edo konfiantza, liburu baten  
antzinatasuna, liburu hori ulertzeko edo topatzeko zailtasuna; iritziak  
juzgatzekoa, ez berez, baizik eta autoreen izenaren arabera; sinestekoa  
autoritatearen arabera, arrazoimenaren arabera baino lehenago; azke-  
nik, sinestekoa ideia hain faltsu eta kaltegarri hori, gizateriaren gain-  
beherarena, eta antzinako garaien nagusitasunarena. Gizakiek euren  
jardunen objektuari, euren ahalegina kostatu zaienari, ematen dieten  
garrantzia aldi berean da euren hutsen azalpen eta aitzakia, herrialde  
eta garai guztietako erudituek gutxi gorabehera partekatu dutena.

Kexa gaitezke greziar eta erromatar erudituez, baita euren  
jakintsu eta filosofoez ere, zalantza espiritu hori zeharo utzita eduki-  
tzeagatik, gertaerak eta berorien frogak arrazoimenaren azterketa  
zorrotzean ezartzen baititu espiritu horrek. Harritzen gara euren idaz-  
kietan, gertakizunen edo aztaren historian, naturako fenomenoek eta  
ekoizpenen historian, arteen produktu eta prozeduren historian, absur-  
dokeria ukigarrienak eta prodigiorik eskandalagarrienak ere lasaita-

sun handiz kontatzen topatzen ditugunean. Esaldiaren hasieran kokaturiko *esaten da* edo *kontatzen da* bat nahikoa iruditzen zaie sinesgarritasun irrigarri edo heldugabe batean ez erortzeko. Inprentaren artea ez ezagutzearen zoritxarrari egotzi behar zaio axolagabekeria hori, haiengan historiaren ikasketa usteldu duena eta naturaren ezagutzaren aurrerakuntzan oztopo izan dena. Gertakizun bakoitzarentzat berori baieztaraz edo ezeztaraz dezaketen autore guztiak biltzeak ematen duen segurtasuna; lekukotasun anitzak erkatzea, diferentzia eragileak argitzeak ematen diren eztabaidak; egia ziurtatzeko baliabide horiek guztiak ezin dira existitu ezpada liburu kopuru handi batekin, kopiak mugagabeki ugaltzea badago, eta beldurrik ez badago horiei luzera handiegia emateagatik.

Bidaiariaren kontakizunak eta deskribapenak –sarri horien ale bakarra zegoen eta ez zeuden zentsura publikoaren menpe– nola lor zezaketen autoritate hori, horien oinarri lehena izanda inoiz aurka egin ez izateagatik –edo aurka egiteko aukerarik egon ez delako– duten abantaila? Horrela, dena berdin kontatzen da, zaila gertatzen baita aukeratzea kontatzeko orduan zein den segurtasun handiena merezi duena. Bestalde, ez dugu eskubiderik harritzeko, aise aurkezten badiutuzte konfiantza berarekin, autoritate berarekin, gertakizun naturalekin eta gertakizun mirarizkoenak. Akats hori oraindik gure ikastetxeetan ere irakasten da, filosofiako printzipio bat legez. Aldiz, aurkako zentzuan doan sinesgogortasun gehiegizko batek eramaten gaitu baztertzeraz azterketarik gabe naturaz kanpoko iruditzen zaigun oro; eta zientzia hori –berorrek soilik irakatsiko digularik, mutur bi horien artean, arrazoimenak geraraztea eskatzen digun puntua– oraindik ere ez da hasi ere egin gure artean.

## SEIGARREN GARAIA

*Argien gainbehera, haien berreskuratzeraz arte,  
gutxi gorabehera gurutzaden garaian*

Garai malerus honetan ikusiko dugu nola giza espiritua bizkor jaisten den igota zegoen garaieratik, eta nola ezjakintasunak dakarren berarekin batera, hemen, ankerkeria, beste leku batzuetan, krudelkeria fina, leku guztietan, ustelkeria eta saldukeria. Gau horren iluntasunaren apenas suma daitezke talentu batzuen argiak, arima handitasunaren edo ontasunaren arrasto batzuk. Ameskeria teologikoak eta supersti-

ziozko engainuak dira gizakien jeinu bakarra, erlijio tolerantzia eza euren moral bakarra; eta Europak, apaizen tiraniaren eta militarren despotismoaren artean, odol eta malko artean itxaroten du argi berriek askatasuna, gizatasuna eta bertutea ostera ekarriko dituzten unea.

Hemen behartuak gara koadroa bi zati bereizitan banatzera: lehenak Mendebalde hartuko du, bertan gainbehera azkarragoa eta absolutuagoa izan zen, baina bertara arrazoimenaren argia iritsiko zen, inoiz ere iraungi barik; eta bigarrenak, Ekialdea, bertan dekadentzia geldoagoa izan zen, luzaroan ez hain osoa, baina oraindik ere han ez da nabaritzen arrazoimenak haren kateak argitu eta hautsiko dituen unea.

Pietate kristauak garaipenaren aldea bota eta batera, Ekialdea barbaroen harrapakin bihurtu zen. Barbaroek erlijio berria hartu zuten, baina ez zuten gailenduen hizkuntza hartu: soilik apaizek kontserbatu zuten; eta haien ezjakintasunagatik, giza letrekiko sentitzen zuten mespretxua dela medio, desagertu egin zen latindar liburuaren irakurketatik espero zitekeena, haiek ezin baitzituzten liburu horiek irakurri.

Nahikoa ezagutzen dira garaileen ezjakintasuna eta ohitura barbaroak; hala ere, ankerkeria horretatik etorri zen etxeko esklabotasunaren suntsipena, Grezia jakintsu eta askearen egun eder horiek desohoratu zituen.

Glebako jopuek garaileen lurak laboratzen zituzten. Klase zapaldu hori zen haien etxeetan jarduten zuen behargin taldea, horien dependentzia nahikoa zen haien urguilua eta kapritxoak asetzeko. Gerretan ez zituzten esklaboak bilatzen, baizik eta lurak eta kolonoak.

Bestalde, haiek inbadorik eskualdeetan topatzen zituzten esklaboak hein handi batean ziren, edo nazio garaile bateko triburen batekin presoak, edo horien seme-alabak. Haietako askok, konkistaren unean, alde egin zuten edo konkistatzaileen gudarostean sartu ziren.

Azkenik, anaitasun orokorraren printzipioek, moral kristauaren zati zirenek, esklabotasuna kondenatzen zuten; eta apaizek, ez zeukatelarik inolako interes politikorik haien kausa ohoratzen zuen maximetako puntu horri aurka egiteko, euren diskurtsoarekin lagundu zioten gertakizunak eta ohiturek derrigorrean eragin behar zuten deuseztatze bat.



Aldakuntza hori giza espeziearen zorian iraultza baten hazia izan da; hari zor zaio benetako askatasuna ezagutzeko aukera. Baina aldakuntza horrek hasiera batean ez zuen izan gizabanakoen zorian eragin ia sumaezina baino. Antzinakoek zeukaten morrontasunaren ideia erratua izanen genuke, morrontza hura gure beltzek dutenarekin alderatuko bagenu. Espartarrak, Erromako handiak, Ekialdeko satrapak, benetan nagusi barbaroak izan ziren. Lukurreriak bere krudeltasun osoa erakutsi zuen minetako lanetan; baina, ia leku guztietan, interesak gozotu egin zuen esklabotasuna familia partikularretan. Glebako jopuen aurka eginiko biolentziak askoz ere zigorrik gabeagoak ziren, legeak berak finkatzen baitzuen prezioa. Dependentsia ia bera zen, arreta eta segurtasun berarekin saritua izan barik. Laidoa ez zen hain etengabea, baina urguiluak harrokeria handiagoa zuen. Zoriak esklaboari ezartzen zion egoera hori, gerrak egunen batean bere nagusia ere egoera berdinerara kondena zezakeen. Jopua klase beheko eta endekatuko gizabanakoa zen.

Urrutiko baldintza horietan, nagusiki, kontsideratu beharko dugu etxeko esklabotasunaren deuseztapena.

Nazio barbaro horiek guztiek gutxi gorabehera egitura bera zuten: *errege* zeritzan buruzagi amankomun bat, kontseilu baten laguntzaz epaiak eman, eta erabakiak hartzen zituen, horietan berandutzea arriskutsua zenean; erabaki apur bat garrantzitsuak hartzeko kontsultatzen zen buruzagi partikularren biltzarra; azkenik, herri asanblada bat, bertan egiten zirelarik herri osoari interesatzen zitzaizkion deliberazioak. Diferentziarik esentzialenak hiru botere horien autoritate handiago ala txikiagoan dautza gehien bat: ez ziren euren funtzioen naturagatik bereizten, baizik eta aferenengatik, eta, batez ere, herritarren gehiengoak ematen zieten interesagatik.

Herri nekazari horien artean, eta batez ere eremu atzerritar batean lehen kolonizazio bat finkatu zutenen artean, egitura horiek forma erregularragoa zuten, solidoagoa, herri abeltzainekin alderatuta. Bestalde, nazioa barreatua egoten zen, eta ez eremu gutxi gorabehera ugarietan bilduta. Horrela, erregeak ez zuen beti inguruan gudaroste bat beti prest zegoena; eta despotismoak ez zion jarraitzen konkistari, Asiako iraultzetan legez.

Hortaz, nazio garailea ez zen morroituia izaten. Aldi berean, konkistatzaile horiek hiriak bere horretan mantentzen zituzten, baina

eurak bertan bizi barik. Ez ziren indar armatu baten bidez menpeko-  
tuak, ez baitzegoen gudaroste finkorik; hiri horiek nolabaiteko boterea  
hartzen zuten, eta hori nazio garaituarentzat laguntza bat izaten zen.

Italia sarritan inbaditu zuten barbaroek, baina ezin izan zituz-  
ten kolonia iraunkorrak finkatu, haren aberastasunek etengabe pizten  
baitzuten inbaditzaile gehiagoren askonahia, eta greziarrek ere luza-  
roan izan zuten lurralde hori euren inperioaren barne izateko esperan-  
tza. Ezein herrik ez zuen inoiz morroitu; ez osoki, ez luzaroan. Latin-  
dar hizkuntza, herriaren hizkuntza bakarra zena, apurka hondatzen  
joan zen. Ezjakintasuna ez zen hain osoa izan, ezta ere superstizioa  
hain ergela, Mendebaldeko gainontzeko lekuetan lain.

Erromak, ez zituelarik nagusiak onartzen, ez baldin bazen  
horiek aldatzeko, nolabaiteko independentzia mantendu zuen. Erlijio-  
aren buruaren bizilekua izaten ohi zen. Horrela, Ekialdean, printze  
bakarra zegoen, eta kleroak –une batean enperadoreak gobernatzen,  
hurrengoan haien aurka konspiratzen– despotismoa sostengatzen  
zuen, baita despotari aurre egiten zionean ere, eta nahiago zuen nugu-  
si absolutu baten botereaz baliatzea, hari zati bat kentzea baino. Aldiz,  
Ekialdean ikusten dugu nola apaizek, buru baten inguruan bilduta,  
errege horien aurkako botere bat altxatu, eta estatu bereizi horietan  
monarkia berezi eta independente moduko bat eratzen duten.

Erakutsiko dugu nola hiri menperatzaile horrek unibertsoari  
ezartzen dizkion tirania berriaren kateak; nola bere pontifizeek sines-  
garritasun ezjakina menperatzen duten zakarki forjaturiko ekintzen  
bitartez; nola bizitza zibileko jarduera guztiekin nahasten duten erli-  
jioa, horretaz trufatzeko euren askonahiaren edo urguiluaren zerbitzu-  
rako; nola anatema ikaragarri bezala zigortzen duten, herrien fedearen  
bitartez, haien legeei eginiko oposiziorik txikiena ere, haien nahi  
burugabeei eginiko erresistentziarik txikiena ere; nola estatu guztietan  
monje gudarostea zuten gertu haien gezurren bidez izu superstiziotsua  
zabaltzeko, modu indartsuagoan altxatzeko fanatismoa; nola nazioei  
kentzen zizkieten euren gurmenek eta zeremoniak, horietaz laguntzen  
baitziren euren erlijio esperantzetarako, guda zibila eragiteko; nola  
Jainkoaren izenean traizioa eta zinaustea, erailketa eta parrizidioa  
agintzen zuten; nola, bata bestearen atzetik, errege eta gerlariak haien  
mendekuen instrumentu eta biktima egiten zituzten; nola indarraz  
baliatzen ziren, nahiz eta inoiz indarrik eduki ez; nola ziren haien are-

rioekin beldurgarri, baina haien defendatzaileen beldur; arras botere-tsuak Europako muturretan, baina euren aldareen azpian bertan laidoztatuak; nola mundua mugitu behar zuen palankaren euskarria topatu zuten, baina ezin zuten ediren lurreen berorren jardura haien nahierara gidatu eta mantenduko zuen erregulatzailea; azkenik, nola, lokatzezko hankaduna izan arren, koloso bat eraiki zuten, Europa zapaldu ondoren, bere hondakinen pisuarekin kontinentea luzaroan nekatuko zuena.

Konkistak Mendebaldean anarkia iskanbilatsa batean murgildu zuen, herriak adia egiten zuen erregeen, gerlari buruzagien eta apai-zen tirania hirukoitzaren azpian; baina anarkia horrek bere baitan zeramatzen askatasunaren haziak. Erromatarrak iritsi ez ziren Europako zati hori barne sartu behar da hemen. Mugimendu orokorrean sartu zirelarik, aldi-aldi konkistatzaile edo konkistatu, inperioko konkistatzaileen ohitura eta jatorri berak zituztelarik, herri horiek haiekin elkartu ziren masa komun batean. Haien egoera politikoei aldaketa berak eta antzeko ibilbidea izanen zituzten.

Anarkia feudal –izen horrekin ezagutuko da– horren iraultzen koadroa tratatuko dugu.

Legeria inkoherentea eta barbaroa zen. Lege onberak topatzen direnean, itxurazko gizatasun hori ez da zigorgabetasun arriskutsua baizik. Hala ere, aurki daitezke erakunde baliagarri batzuk; horiek, benetan, klase zapaltzaileen eskubideak baino ez zituztenez konts-kratzen, horrela, gizakien eskubideentzako beste laido bat baino ez ziren; baina behintzat erakunde horiek bazuten gure eskubideen ideia-ren nolabaiteko tankera bat, eta egunen batean balioko zuten eskubide horiek ezagutzeko eta berrezartzeko gida moduan.

Legeria horrek bi erabilera berezi zeuzkan, bai nazioen haurtzarora, bai mende zakarren ezjakintasuna bereizten dutenak. Errudun batek zigorra ekidin zezakeen legeak ezartzen zuen diru kopuru jakin bat ordainduz, legeak gizakien bizitza preziazten baitzuen haien duintasunaren edo jaiotzaren arabera. Krimenak ez ziren kontsideratuak tormentuari beldurrak ekidingo zuen segurtasunari eta hiritarren esku-bideei eginiko atentatu bezala, baizik eta gizabanakoari eginiko laidoa bezala; hark edo familiak mendeku hartzeko eskubidea lukete, eta legeak konponbide komenigarriagoa eskaini liezaieke. Hain ideia eskasa zegoen gertakizun bat segurtasunez finkatzeko frogei buruz,

errazagoa gertatzen baitzen zeruari mirari bat eskatzea, krimena eta inozentzia bereizi behar ziren aldi bakoitzean; eta egia ezagutzeko baliabiderik seguruenak kontsideratu ziren froga superstiziotsu baten arrakasta edo borroka baten emaitza.

Independentzia eta askatasuna nahasten zituzten pertsona batzuen artean, lur eremuaren zati oso txiki bat menperatzen zuten pertsonen arteko liskarrek gerra pribatuak eragin beharko zituzten. Gerra horiek, kantoiz kanto, herritik herrira eginikoak, herrialde bakoitzeko azalera osoa betetzen zuten, horre horiekin, inbasio handietan behintzat iragankor direnekin, gerra orokorretan mugaldeko lurak baino hondatzen ez dituztenekin.

Tiraniak –saiatzen den bakoitzean herri baten masa herri horren zati baten borondatepean ezartzen– bitarteko moduan izaten ohi ditu biktimen aurreiritziak eta ezjakintasuna. Indar txikiago baten aktibitatearen bidez, bilketaren bidez, tirania saiitzen da konpentsatzen zati handienak eduki behar ei lukeen benetako indar handiago hori. Baina bere esperantzaren azken iritsi puntua, oso gutxitan erdie-tsiko duena, nagusien eta esklaboen arteko diferentzia erreala ezartzea da, nolabait natura bera ezberdintasun politikoaren konplize eginez.

Hori zen, antzinako garaietan, ekialdeko apaizen artea, aldi berean baitziren errege, pontifize, epaile, astronomo, lur-neurtzaile, artista eta mediku. Baina ahalmen intelektualen jabego eskusiboari zor zieten hori, gure antzinako tirano zatarrek euren erakundeen eta ohitura gerlarien bidez lortu zuten. Arma iragangaitzez estalita; soilik eurak bezala iragangaitzak ziren zaldi gainean borrokatuz; ezin zutelarik lortu euren zaldiak bezatzeko eta gidatzeko indarra eta trebetasuna, euren armak sostengatzeko eta maneiatzekoa, ezpada ikasketa luze eta neketsu baten bidez; horrela, zigorrik gabe zapal zezaketen, eta arriskurik gabe hil, herriko jendea. Jende hori ez baitzen aberatsa kostu handiko arma horiek eskuratzeko, eta gaztaroa –deuserako balio ez zuten lanetan akitua– ezin zuen eman ariketa militarretan.

Horrela, gizarteko zati txikerraren tiraniak, borrokarako modu horren bitartez, indarrean benetako nagusitasuna zuen, eta indar horrek erresistentziarako ideia oro ekiditen zuen, eta luzaroan egin zituen ezdeus baita desesperantzaren ahaleginak ere; horrela, naturako berdintasuna desagertu zen indar fisikoaren ezberdintasun artifiziala dela medio.

Moralak, soilik apaizek irakasten zutenak, sekta guztiek eza-  
gutzen zituzten printzipio unibertsalak zeuzkan; baina betebeharrak soil-  
ki erlijiozko mordoa sortzen zuen, imajinaziozko bekatu saldoa. Bete-  
beharrak horiek indar handiagoaz gomendatzen ziren naturarenak baino;  
eta akzio interesik gabeak, legitimoak, batzuetan bertutetsuak ere,  
gehiago zentsuratzen eta zigortzen ziren benetako krimenak baino.  
Hala ere, damu une batek, apaiz baten absoluzioak kontsagraturikoak,  
zerua irekitzen zien gaizkileei. Askonahiari atsegin ematen zioten  
dohainak, eta Elizaren urguiluari atsegin zitzaizkion praktika batzuk,  
nahikoak ziren krimenez betetako bizitza bat garbitzeko. Tarifa bat  
finkatu zen absoluzio horietarako. Bekatu horien artean zeuden mai-  
tasunaren ahultasunik xumeenetatik, desira sinpleenetatik, gehiegike-  
ria eta lasaikeria lizunenera. Bazekiten ia inor ezin zela zentsura har-  
taz libratu; apaiz merkataritzaren adarrik produktiboena zen. Imajina-  
tu zuten, halaber, denbora mugatu bateko infernua, apaizek laburtu eta  
ekidin zezaketena; eta grazia hori saltzen zieten pertsona biziei, eta  
baita hilen sendi eta lagunei ere. Zeruko eremuak saltzen zituzten  
lurreko ia eremu kopuru beraren truke; eta bazuten apaltasuna kan-  
bioak ez eskatzeko.

Garai zoritxarreko horretako ohiturak sistema zeharo usteltzai-  
le batekoak lakoak ziren.

Sistema horren aurrerakuntza; monje batzuek, berdin asmatzen  
zituztenek antzinako mirariak zein berriak fabrikatu, elikatzen zutenek  
herriaren ergeltasun ezjakina fabula eta gauza liluragarriez, herria tron-  
patzen baitzuten gero bipiltzeko; doktore batzuek, erabiltzen zutenek  
zeukaten imajinazio osoa herriaren sinesmena absurdokeria berriren  
batekin aberasteko, eta jada transmitituak izan zitzaizkionak nolabait  
zabaltzeko; apaiz batzuek, printzeak behartzen zituztenek sutara bota-  
tzen une batez haienganako obedientzia itsu batetik apartatzen, edo  
haien dogma bakar bat zalantzan jartzen, edo haien engainuez susmoa  
izaten, edo haien krimenekin haserretzen ausartzen ziren horiek, baita,  
azkenik, sutara botako zituzten ere teologoak berak, horiek ausartzen  
zirenean amestera Elizako buru sonatuenetatik ezberdin... Horiek dira,  
garai horretan, giza espeziearen koadroari Europako mendebaldeko  
ohiturek eskaintzen dizkieten ezaugarri bakarrak.

Mendebaldean, despota bakarraren inguruan biltzen zirelarik,  
ikusiko dugu gainbehera geldoago batek jarraitzen diola inperioaren

ahultze mailakatuari. Mende bakoitzaren ezjakintasunak eta ustelkeriak gainerik egiten du zenbait gradutan, aurreko mendearen ezjakintasunarekin eta ustelkeriarekin alderatuta. Bizkitartean aberastasunak txikiagotzen zihoazen, mugak hiriburura hurbiltzen, iraultzak ugaltzen; tirania koldarragoa eta krudelagoa zen.

Inperio horren historia jarraituz, garai bakoitzak produzitu dituen liburuak irakurriz, korrespondentzia horrek harrituko du gutxien zailduriko begia, eta erne dena ere.

Ekialdean herria gehiago murgiltzen zen liskar teologikoetan: historian leku handiagoa betetzen dute liskarrok, eragin handiagoa dute gertakizun politikoetan; fantasiak han agertzen dira sotiltasun batzuekin, Mendebaldeak, bekaizti, oraindik erdiets ez zitzakeenekin. Erljio kontuetan tolerantzia eza han ere zapaltzailea da, baina ez da hain ankerra.

Nolanahi ere, Fozioaren lanek erakusten dute ikasketa arrazionaletikiko gustua oraindik ere ez zela iraungi. Zenbait enperadorek, printzek, baita printzesak ere, ez zituzten euren buruak mugatu liskar teologikoetara, eta letrak jorratu zituzten.

Erromatar legeria astiro eraldatu zen, tiraniak eta askonahiak enperadoreei eskatzen zizkieten –edo superstizioak haien ahultasunari ateratzen zizkieten– lege gaitz horiekin nahasterakoan. Greziar hizkuntzak bere purutasuna, bere izaera, galdu zuen; baina oraindik gordetzen ditu bere aberastasuna, bere formak, bere gramatika. Konstantinoplako biztanleek oraindik Homero eta Sofokles, Tuzidides eta Platon irakur zitzaizketen. Antemiok azaltzen zuen Arkimedesen ispiluen eraikitzea, Proklok arrakastaz erabili zituen hiriaren defentsan. Inperioa erortzean, Konstantinoplan zeuden Italian babesa aurkituko zuten zenbait pertsona, horien ezagutzak probetxugarriak izan zitzaizkiolarik argien aurrerakuntzari. Horrela, garai horretan bertan, Ekialdea ez zen iritsi basakeriaren azken mailara, baina ez zegoen ezer berrezar-kuntza baten esperantza sumarazten zuenik. Barbaroen harrapakin izaten bukatu zuen; hondakin eskasak desagertu ziren, eta Greziako antzinako jeinua oraindik ere askatzaile baten esperotan da.

Asiako muturretan, eta Afrikako mugaldean, existitzen da herri bat bere posizioagatik eta ausardiagatik persiarren konkistak, Alexandrorenak eta erromatarrenak ekidin zituena. Bere tribu ugarietatik batzuek bizibidea nekazaritza-ateratzen dute, beste batzuek abel-

tzain bizitzan jarraitu dute: denak ere merkataritzan aritzen ziren, eta batzuk lapurretan. Jatorri berak, hizkuntza berak eta zenbait erlijio azturak bilduta, nazio handia osatzen zuten; aitzitik, ez zituen zati bereiziak inolako lotura politikorik elkartzen. Bat-batean haien artetik sortu zen buruzagi bat suhartasun berokoa eta politika sakonekoa, poetaren eta gertlariaren talentuarekin jaioa. Gorputz bakarrean tribu arabiarak biltzeko proiektu ausarta kontzebitu zuen, eta burutzeko kemena izan zuen. Ordura arte beza gabea zen nazio bati buruzagi bat ematearren, antzinako gurmenaren aztarnetatik erlijio puruago bat eraiki zuen. Legegile, profeta, pontifize, gudarosteko jeneral, gizakiak menperatzeko baliabide guztiak bere esku zeuden, eta jakin zuen horiek nola erabili trebetasunez, baina handitasunez.

Zerutik jasorikoak omen diren fabula andana bat predikatzen du; baina batailak irabazten ditu. Bere astia otoitz egiten eta maitasunaren plazerekin partekatzen du. Hogei urtez botere mugagabe bat –halakorik ez da besterik– gozatu ostean, adierazten du bidegabeke-riaren bat egin izan badu, konpontzeko prest dagoela. Denak isiltzen dira; soilik emakume bat ausartzen da diru kantitate txiki bat eskatzera. Hiltzen denean, bere herriari komunikatu dion suhartasunak munda-aren azalaren hiru laurden aldatuko ditu.

Arabiarren ohiturek garaiera eta gozotasuna zuten; poesia mait-eta jorratzen zuten; eta, Asiako eskualde ederrenetan agindu zute-nean, denborak erlijio fanatismoaren sukarra lasaitu zuenean, orduan, letra eta zientzietarako gustua nahastu egin zen fedea hedatzeko zuten arretarekin, eta horrek moderatu egin zuen konkistarako zuten berota-sun hori.

Aristoteles ikasi zuten, eta bere obrak itzuli zituzten. Jorratu zituzten astronomia, optika, medikuntzaren atal guztiak, eta zientziak aberastu zituzten zenbait egia berrirekin. Zor zaie algebraren erabile-raren orokortzea, greziarren artean gai klase bakarrera mugatzen bai-tzen. Metalak transformatzeko bilaketa kimerikoak, eta hilezkortasun edabearenak, kimikan egin zutena histen duen arren, zientzia horren berrezarleak, edo, hobeto, sortzaileak, izan ziren; ordura arte zientzia hori farmaziarekin edo arteen prozeduren ikerketarekin nahasten bai-tzen. Kimikak haien artean ematen du, lehenengo aldiz, gorputzen analisia –gorputz horien propietateak ezagutarazten dizkigularik–, gorputzen konbinazio teoria, eta konbinazio horien legeena.

Zientziak aske ziren, eta askatasun horri zor zioten arabiarrek greziarren jeinuaren zenbait distira berpiztu ahal izana; baina erlijioak kontsakturariko despotismoaren menpe ziren. Gainera, argi horrek dirdir egin zuen instante batzuez, ondoren iluntasun zarratuenera igarotzeko; eta arabiarren lan horiek gizateriarentzat galduak zeudekeen, ez balitz balio izan zutelako berrezarpen iraunkorrago horretarako, Mendebaldeak berorren koadroa agertuko digun horretarako.

Hortaz, bigarren aldiz ikusiko dugu nola jeinuak abandonatzen dituen argitu zituen herri horiek; eta oster ere tirania eta superstizioa dira horiek desagerrarazten dituenak. Grezian jaioa, askatasunaren aldamenean, ezin izan zuen haren eroraldia ekidin, ezta arrazoimena defendatu ere, jada esklabotasunak endekatu zituen herrien aurreiritzien aurka. Arabiarren artean jaioa, despotismoaren magalean, eta erlijio fanatiko baten sehaskan, ez da izan herri horren izaera esku zabal eta distiratsua, ezpada naturaren lege orokorren salbuespen iraunkor bat, naturak bilautasunera eta ezjakintasunera kondenatzen baititu nazio menperatu eta superstiziotsuak.

Horrela, bigarren adibide honek ez gaitu ikaratu behar etortze-ar denarekiko; aldiz, gure garaikideak gaztigatzen ditu ez dezaten ezer utzi argiak mantentzeko eta handitzeko, libre bilakatu edo jarraitu nahi baldin badute; eta euren askatasuna mantentzen, ez baldin badute argiek eman dizkieten abantailak galdu gura.

Arabiarren lanen historiari gehitu behar diot nazio horren gailentze eta erortze azkarra, Atlantikoko itsas bazterretatik Indo ibai ertzeraino agindu ondoren, barbaroek euren konkista gehienetatik egotzi zituzten, gainontzekoak mantendu zituztelarik soilik azken muturreko morrontzan, ustelkerian, miserian erori den herri baten ikuskizun endekatua emateko. Oraindik ere euren antzinako aberrian dira, bertan mantendu dituztelarik euren ohiturak, euren espiritua, izaera, eta jakin dute defendatzen eta berkonkistatzen euren antzinako independentzia.

Azalduko dut nola Mahomaren erlijioak, bere dogmetan sinpleenak, praktiketan absurdotasun gutxien duenak, printzipioetan toleranteenak, nola kondenatu duen esklabotasun eternal batera, ergeltasun sendaezin batera, bere inperioa zabaldu duen lurraren eremu zabal hori; dirdira egiten dakusagun arren zientzien eta askatasunaren jeinuaren distira, superstiziorik absurdoenen azpian, intolerantziarik



basatienaren artean. Txinak fenomeno bera agertzen digu, nahiz eta bere pozoï kirtentzailearen efektuak ez diren hain kaltegarriak izan.

**ZAZPIGARREN GARAIA**  
*Zientzien lehen aurrerakuntzatatik,*  
*Mendebaldean berrezartzen direnera,*  
*eta inprentaren asmakuntzara arte*

Zenbait kausak lagundu diote giza espirituari, mailaka, energia hori ematen, bazirudielako betirako estutu behar zutela kate lotsagarri eta astun batzuek.

Apaizen tolerantzia eza, botere politikoak bereganatzeko egini-ko ahaleginak, euren askonahi eskandalagarria, euren ohituren desordena, euren hipokresia are gogaikarriagoa egiten zuena, horrek guztiak arima puruak, espiritu osasuntsuak, izaera ausartekoak asaldatu beharko zituen. Harrigarriak ziren euren dogmen, maximen, jarreraren kontraesanak ebanjelioekiko, euren doktrinaren zein moralaren lehen oinarri direnekiko, eta horien ezagutza ezin izan zioten herriari erabat ezkutatu.

Haien aurka erreklamazio indartsuak egin ziren. Frantziako hegoaldean probintzia osoak elkartu ziren lortzeko doktrina sinpleago bat, kristautasun puruago bat; gizakiak, dibinitatearen menpe baka-rrik, bere argien arabera juzgatuko zuen zer erakusten duen dibinitateak, berorrek ematen dituen liburuetan.

Armada fanatikoek, buruzagi askonahiek gidatuek, probintzia horiek deboilatu zituzten. Borreroek, legatuei eta apaizei jarraiki, immolatu egin zituzten soldaduek hil ez zituztenak. Monje tribunal bat ezarri zen, arrazoimenari entzuten zion oro sutara botatzeko xedearekin.

Hala ere, ezin izan zuten ekidin askatasun eta azterketa espiritu horrek sekretuki aurrerakuntzak egitea. Agertzeroa ausartzen zen herrialdean zapaldua, behin baino gehiagotan tolerantziarik gabeko hipokresia batek gerra odoltsuak piztu baitzituen, berpiztu egiten zen, beste herrialde batera hedatzen zen sekretuki. Garai guztietan ediren dugu, harik eta, *inprentaren* asmakuntzak lagunduta, botere nahikoa izan zuenera arte Europako zati bat Erromako gorteko uztarpetik libratzeko beste.

Jada existitzen zen gainera gizaki klase bat, superstizio ororen gainekoa, kontentatzen zena horiei sekretuan mespretxu izateaz, edo gehienez ere horien inguruan, nahi gabe bezala, irrigarritasun bat hedatzen zuen, garratzagoa zena irrigarritasun hori estaltzeko erabiltzen zuen errespetu beloa dela eta. Txantxak barkamena ematen zien ausarkeria horiei; handikien edo letradunen gozamenerako idatziriko lanetan kontu handiarekin barreiatuak, baina herriak ezagutzen ez zituelarik, ez zuten erakartzen jazarleen gorrotoa.

Federiko II. susmagarri zen gure XVIII. mendeko apaizek *filosofo* deitu izan diotena izateaz. Aita sainduak akusatu zuen, nazio ororen aurrean, fabula politiko bezala tratatu izanaz Moisesen, Jesusen eta Mahomaren erlijioak. Federiko II.aren kantzilerrari, Pierre des Vignes-i, egozten zaio *Trois Imposteurs* imajinaziozko liburua. Baina tituluak soilik iritzi baten existentzia adierazten du, hiru sinesmen horien azterketak ematen duen ondorio aski naturala, ezen, jatorri beretik sortuak, sinesmen horiek ez dira gurmenek puruago baten endekatzea baizik, hots, antzinagoko herri batzuek munduaren arima unibertsalari eskaini zioten sinesmenaren endekatzea.

Gure *fabliaux*en konpilazioa, Boccaccioren *Decameron*, lepo daude pentsamendu askatasun hori arnasten duten ezaugarriez, aurreiritziekin mespretxuaz, aurreiritzien gainean iseka garratz eta sekretua egiteko joeraz.

Horrela, garai horrek erakusten dizkigu superstizio ororen behatzaile lasai anitz, abusurik zatarrenen erreformatzaile suharren alboan; eta ia elkar ditzakegu, batetik, arrazoimenaren eskubideen aldeko protesten zein erreklamazio ilun horien historia eta, bestetik, Alexandriako eskolako azken filosofoena.

Aztertuko dugu ea, proselitismo filosofikoa hain arriskutsua zen garai batean, ez diren elkarte sekretuak sortzen, destinatuak betikotzera, hedatzera isilean eta arriskurik gabe, zenbait jarraitzaileen bidez, egia sinple kopuru txiki bat, menperatzaile ziren aurreiritzien aurkako babesle seguru moduan.

Aztertuko dugu ea elkarte horien artean ez den kokatu behar ordena ospetsu hori aita sainduak eta erregeek horren aurka halako bilautasunarekin egin zutena, eta halako basakeriarekin suntsitu zutena.

Apaizak ikastera behartuta zeuden, bai euren buruak defendatzeko, bai zenbait aitzakiarekin estaltzeko botere sekularrarekiko egitiko usurpazioak, eta perfekzionatzeko idazki asmatuak egiteko artea. Bestalde, gerra horretan desabantaila txikiagorekin ekiteko, aldarrikapenak etsenplu eta autoritatean oinarritzen baitziren, erregeek faboratu zituzten eskola batzuk kontsulta juridikoan arduraturiko pertsonak hezteko, haien beharra baitzuten apaizen aurka egiteko.

Kleroaren eta gobernuen arteko eztabaidetan, herrialde bakoitzeko kleroaren eta Elizako buruaren artean, espiritu zuzenagoa zuten pertsonak, izaera zintzoagoa eta garaiagoa zutenek, borroka egin zuten apaizen aurka gizakien kausagatik, nazioko kleroaren kausagatik buruzagi arrotz baten aurka. Eraso egin zieten abusu horiei, jatorria topatzea asmo zuten usurpazio horiei. Egun, ausarkeria hori ez zaigu iruditzen herabetasun morroia baizik; irri egiten dugu horrenbeste lan ikusten dugunean sen onak dioskuna frogatzeko: baina egia horiek, orduan berriak zirenek, sarritan herri baten zoria erabakitzen zuten. Kuraiaz defendatzen zituzten; eta haiei zor zaie giza arrazoi-menak bere eskubideak eta askatasuna berreskuratzen hastea.

Erregeen eta jaunen artean sortzen ziren eztabaidetan, lehenak hiri handien laguntzaz baliatzen ziren, bai pribilegioen bidez, bai giza-kiaren eskubide natural batzuen berrezartzearekin; bilatu zuten, frankizia bidez, komunitate zuzenbideaz gozatzen zutenak ugaltzea. Askatasunean berpizten ziren gizaki horiek sentitu zuten zenbateraino garrantzizkoa zen lortzea, legeen eta historiaren ikasketaren bidez, trebetasun bat, iritzi autoritate bat, tirania feudalaren botere militarra neutralizatzeko balioko ziena.

Enperadoreen eta aita sailduen areriotasunak eragotzi zion Italiari nagusi baten inguruan biltzea, eta bertan estatu independente saldoa mantendu zen. Estatu txikietan beharrezkoa da konbentzitzeko boterea eta indarraren boterea batzea, negoziazioa erabiltzea armak bezain sarri. Gerra politiko batek printzipio moduan iritzi gerra duenez, Italiak ez zuenez inoiz galdu ikasketetarako gustua, herrialde horrek Europarentzat argi fokua izan beharko zuen, ahula oraindik, baina bizkor haztear zena.

Azkenik, erlijio suhartasunak leku kontsokratuen konkistara daramatza europarrak, esaten denez, Kristoren hilketak eta mirariak kontsokratu zituenera; eta furfurua hori askatasunaren aldekoa zen aldi

berean, jaunak txirotzen eta ahultzen baitzituen, europar herrialdeen eta arabiarren arteko harremanak zabaltzen zituen. Lotura horiek jada osatuak ziren Espainiako kristauekin arabiarrek zuten nahasturatik, Pisa, Genoa eta Veneziako merkataritzak irmotu zituenak. Arabiarren hizkuntza ikasi zen; haien obrak irakurri ziren; haien asmakuntzen zati bat ezagutu zen; eta haiek zientzietan iritsi ziren puntua gainditu ez zen arren, behintzat berdintzeko nahia sortu zen.

Gerra horiek, superstizioak superstizioaren alde eginikoeak, berau suntsitzeko balio izan zuten. Beste erlijio baten ikuskizunak sen oneko pertsoneri azkenean inspiratu zien gizakien bizio eta edo pasioen gainean ahalmenik batere ez zuten sinesmen horiekiko ezaxolatasuna; sinesmen horien iritzi kontraesankorreko jarraitzaileek agertzen zuten atxikimendu zintzo eta setati horren mespretxu bera.

Italian osatu ziren errepublika batzuek greziar errepubliken formak imitatu zituzten; aldiz, beste batzuk saiatu ziren morrontzarekin –herri menperatu batean– elkartzen askatasuna, herri subirano baten berdintasun demokratikoa. Alemanian, iparraldean, zenbait hiri –independentzia ia osoa lortu zutelarik– euren lege propioen bidez gobernatzen ziren. Suitzako zenbait eskualdetan, herriak feudalismoaren kateak hautsi zituen, baita errege boterearenak ere. Ia estatu handi guztietan ikus zitekeen nola sortzen ziren egitura inperfektuak; zergak ezartzeko autoritatea, lege berriak egitekoa, partekatu zelarik, bai erregearen, nobleen, kleroaren eta herriaren artean, bai erregearen, nobleen eta herriaren artean. Herria –beheramendua atzean utzi gabe– behintzat zapalkuntzatik babestua zegoen. Nazioak benetan osatzen dituzten horiek euren interesak defendatzea zeukaten, eta euren etorkizuna erabakitzen zutenek entzunak izatea. Ingalaterran, akto ospetsu batek, erregeak eta handikiek solemneki zin eginak, nobleen eta bestelako pertsona batzuen eskubideak bermatzen zituen.

Beste herrialde batzuek, probintzia batzuek, baita hiri batzuek ere, antzeko gutunak erdietsi zituzten, ez hain ospetsuak eta ez hain ongi defendatuak. Horiek dira eskubide deklarazio horien jatorria, egun pertsona argi guztiek kontsideratzen dituztenak askatasunaren oinarri. Antzinakoek ez zuten, ezin zuten, kontzebitu ideia hori; izan ere, etxeko esklabotasunak haien egiturak zikintzen baitzituen; haie-nean, hiritarraren eskubidea jaraunspenezkoa baitzen, edo borondatzeko adopzio batek emana; ez baitziren iritsi ezagutzera giza espe-

zieari dagozkion eskubideak, gizaki guztioi berdintasun osoz dagozkigunak.

Frantzian, Ingalaterran, beste nazio handi batzuetan, bazirudien herriak bere benetako eskubideak berreskuratu nahi zituela. Baina herria itsuago zegoen zapalkuntza sentimendua dela-eta arrazoi-menak argitua baino. Mendeku basatiagoekin ordainduriko biolentzia, miseria handiagoei jarraituriko harrapaketak, horiek izan ziren haren ahaleginen fruitu bakarra.

Nolanahi ere, ingelesten artean, Wicleff erreformatzailearen printzipioek horietako mugimendu bat eragin zuten. Bere dizipulueta-ko batek zuzendurik, saiakera serioago eta hobeto pentsatuagoen aitzindari izan zen mugimendu hori; mende argiago batean, beste erreformatzaile batzuei jarraiki herriek gauzatuko zituzten.

Justinianoren kodearen eskuizkribuaren aurkikuntzak jurisprudentziaren ikasketa berpiztarazi zuen, baita legeriarenak ere, eta balio izan zuen jurisprudentzia ez hain basatia bihurtzeko, herriak hartaz profitatu zirelarik, haren menpe ezarri gura ez arren.

Pisako, Genoako, Florentziako, Veneziako, eta Belgikako zenbait hiriko, zein Alemaniako zenbait hiri libreko merkataritzak Mediterraneoa, Baltikoa eta europar ozeanoaren itsas bazterrak hartzen zituen. Leku horietako negoziogileak Sortaldera, Egiptoko portuetara, Itsaso Beltzeko muturretara joaten ziren jenero baliotsuen bila.

Politika, legeria, ekonomia publikoa, ez ziren zientziak oraindik; ez ziren oraindik arduratzen printzipioak ikertzeaz, sakontzeaz, garatzeaz; baina esperientziak irakasten zielarik, hara zeramaten ikaskizunak biltzen hasi ziren; eta hasi ziren interesak ezagutzen, interesok berorien beharra sentiarazten zutelarik.

Hasiera batean ez zuten Aristoteles ezagutzen arabiarretik eginitako itzulpen bat dela-eta baizik; eta bere filosofia, lehen garaietan jazarria izan zena, laster eskola guztietara hedatu zen. Ez zuen argia hedatu; baina eztabaida teologikoei sortu zuten arte horri erregularatasun handiagoa, metodoa, eman zion. Eskolastikak ez zuen egia-aren aurkikuntzara eramaten; ez zuen balio ezta ere frogak eztabaidatzeko, edo ongi baloratzeko. Baina espirituak zorroztu zituen. Bereizketa sotiletarako gustu hori, ideiak etengabe bereizteko behar hori, zehaztasun iheskorrak harrapatzeko, izen berriekin adierazteko; aparatu

hori guztia erabili zena eztabaida batean arerioa nahasteko, edo haren segadatatik alde egiteko; hori izan zen analisi filosofikoaren jatorria, ondoren gure aurrerakuntzaren iturburu oparoa izanen den hori.

Eskolastiko horiei zor dizkiegu izaki gorenaren eta berorren ezaugarrien ideiez egin daitezkeen noziorik zehatzenak, kausa lehenaren eta berorrek gobernatzen ei duen unibertsoaren bereizketa, espirituairena eta materiarena, *askatasun* adierari ema dakizkiokeen zentzu ezberdinak, *sorkuntza* adierarekin ulertzen duguna, giza espirituaren ariketa anitzak bereizteko modua, eta espirituak objektu errealean eta berorien propietateen inguruan osatzen dituen ideiak sailkatzekoa.

Baina metodo horrek berak ezin zuen eskoletan zientzia naturalen aurrerakuntza geldotu baino. Ikerketa anatomiko batzuk; kimikari buruzko lan ilun batzuk, obra handiak ikertzeko soilik erabiliak; geometriari eta algebrari buruzko ikerketak, ez zirenak iritsi ez arabiarrek aurkitutakora, ezta antzinatekoek eginikoa ulertzera ere; behaketa batzuk, kalkulu astronomiko batzuk, mugatzen zirenak taulak osatzera, perfekzionatzera, eta astrologiarekin eginiko nahastura irri-garri batek urardotzen zituenak; hori da zientzia horiek agertzen zuten koadroa. Hala ere, zientzia mekanikoak hasi ziren gerturatzen Asian mantendu zuten perfekziora. Zetaren langintza sartu zen Europako hegoaldeko herrialdeetan; haize errotak, paper lantegiak, sortu ziren; denbora neurtzeko artean gainditu ziren arabiarrek eta antzinakoak iritsiriko mugak. Azkenik, bi aurkikuntza garrantzitsuk garai hori markatu zuten. Imanak zeruaren puntu bererantz egiteko duen propietatea, txinatarrek ezagutzen zutena, eta ontziak gidatzeko erabiltzen zutena, European ere aurkitu zuten. Ikasi zuten iparorratza erabiltzen, eta berorren erabilerak merkataritza jarduera handitu zuen, nabigazio artea perfekzionatu zuen, bidaien ideia eman zuen, beranduago, mundu berria aurkitzea eragingo zuen, eta gizakiari aukera emango zion bere munduaren zabalera osoan begirada luzatzeko. Kimikari batek, nitroa eta materia sukoi bat nahastuz, bolboraren sekretua aurkitu zuen, gerraren artean iraultza espero gabea sortu zuena. Suzko armen efektu ikaragarriak gorabehera, gerlariak urruntzerakoan, gerra ez hain hilkorra eta gerlariak ez hain ankerrak bihurtu zituen bolborak. Espedizio militarrek kostu handiagokoak izanen ziren; aberastasunak indarrak pareka zitzakeen; naziorik oldarkorrenek sentitu zuten borrokarako baliabideak ziurtatzeko eta prestatzeko artearen eta merkataritza-

tzaren bidez aberasteko beharra. Herri zibilizatuak ez zieten jada beldurrik nazio basatiei. Konkista handiak, eta haiei jarraitu zieten iraultzak, ia ezinezkoak bilakatu ziren.

Burdinazko armadura batek, ia erasoezina zen zaldi bat gidatzeko arteak, lantza, mazoa edo ezpata maneiatzekoak, horiek guztiek nobleziari herriarenganako ematen zioten nagusitasuna erabat amaitzen da; eta gizakien askatasunerako, benetako berdintasunerako, azken oztopo hori zor zaio askakuntza bati, lehen begiratuan, gizateria deuseztatzeko zorian ezartzen duenari.

Italian hizkuntzak hamalagarren mendean bere perfektzioa erdiesten du ia. Dante bat sarritan, noblea, zehatza, energiak bete da. Boccacciok grazia, sinpletasuna eta dotorezia ditu. Petrarca zoli eta sentibera ez da zahartu. Herrialde horretan, berorren klima zorionekoa Greziakoaren antzerakoa baita, antzinateko ereduak ikertzen dira; hizkuntza berrira eroaten saiatzen dira hango edertasunak; bakoitza bere herrialdean imitatzen saiatzen zen. Jada zenbait entseguk aditzera ematen dute –antzinateko monumentuen ikusmenak sustatuta, ikaskizun mutu baina elokuenta horiek irakatsita– arteen jeinuak, bigarren aldiz, edertuko zuela gizakiaren existentzia, baita prestatuko ere guztiontzat berdina den plazer puru horietarako gozamenara, partekatzen den heinean, handitzen den horretara.

Europako gainontzeko herriek urrutitik jarraitu zioten; baina letretarako eta poesiarako gustuak, behintzat, hizkuntza oraindik barboak fintzen zituen.

Espirituak euren lozorro luzetik irtenarazi zituen kausek espirituan ahaleginak ere zuzendu beharko zituzten. Ezin zen arrazoimenera jo, aurkako interesek astintzen zituzten interesen inguruan erabaki zezan: erlijioa –arrazoimenaren autoritatea onartu ordez– saiatzen zen hura menperatzen eta iraintzen. Konbentzioek, erabilera etengabe batek, antzinako azturek, kontsakratzen zutena zuzentzat jotzen zuen politikak.

Ez zen zalantzan jartzen gizakien eskubideak naturaren liburuan idatzia zirenik, eta beste batzuetara jotzea haiek ez ezagutzea eta iraintzea zela. Liburu sakratuetan, autore errespetatuengan, aita santuen buldetan, erregeen erreskriptuetan, azturen bildumetan, elize-tako urte-liburuetan, horietan bilatzen ziren maxima edo etsenpluak,

berorietatik ondorioak ateratzen zirelarik. Gauza ez zen printzipio bat berez aztertzea, baizik eta printzipio horrek oinarri zituen beste testu batzuen bidez indartzea, sunsitzea edo interpretatzea. Ez zen hartzen proposizio bat egiazkoa zelako, baizik eta liburu jakin batean idatzia zegoelako, eta herrialde jakin batean eta mende batetik aurrera onartua izan zelako.

Horrela, leku guztietan gizakien autoritateak ordezkatzeko zuten arrazoimenarena. Liburuak ikertzen ziren natura baino gehiago, eta antzinako pertsonen iritziak unibertsoko fenomenoak baino gehiago. Espirituaren esklabotasun hori –espirituak ez zeukan kritika argi baten baliabidea oraindik– giza espeziearen aurrerakuntzarako berehalako efektuak baino are kaltegarriagoa izan zen, ikerketa metodoa usteltzen zen heinean. Hain urruti zeuden antzinakoen mailara iristetik, oraindik ez zen heldu haiek zuzentzeko edo gainditzeko unea.

Garai hartan ohiturek euren ustelkeria eta ankerkeria mantendu zuten; erlijio kontuetan tolerantzia eza ere aktiboagoa izan zen; eta konponduezin zibilek zein printze txiki saldo baten etengabeko gudek ordezkatu zituzten barbaroen inbasioak eta gerra pribatuen azote kaltegarriagoa. Egiazki, koblakari eta trobadoreen galaitasunak, zalduneria baten ezarpenak –zalduneria horrek eskuzabaltasuna eta apaltasuna praktikatzeko zituen, dedikatzen zen erlijioaren mantentzera eta zapalduen defentsara, baita damen zerbitzura ere– bazirudien ohiturei gozotasun, dezentzia eta garaiera handiagoa ematen zieten. Baina aldaketa hori, gorteetara eta gazteluetara mugatzen zena, ez zen iristen herriaren masara. Emaita izan zen nobleen arteko berdintasun apur bat handiagoa, euren arteko harremanean saldukeria eta krudeltasun txikiagoa; baina herriarenganako zuten mespretxuak, euren tiraniaren indarkeriak, euren harrapakeriaren lotsagabekeriak, berean jarraitu zuten. Nazioak berdin izan ziren zapalduak, berdin jarraitzen zuten ezjakinak, basatiak eta ustelak.

Galaitasun poetiko eta militar hori, zalduneria hori, arabiarrei zor zitzaizkienak hein handi batean –haien eskuzabaltasun naturalak Espainian luzaroan iraun zuen superstizioaren eta despotismoaren ostean ere– zalantzarik gabe probetxugarriak izan ziren: gizatasun haziak zabaldu zituzten garai zoriontsuagoetan loratu beharko ziren; eta hori izan zen garai horren helburu orokorra, giza espiritua prestatzea inprentaren asmakuntzak ekarri behar zuen iraultzara, eta



ondorengo garaiak hain uza aberats eta oparoarekin estaliko zituen lur hori prestatzea.

## ZORTZIGARREN GARAIA

*Inprentaren asmakuntzatik,  
zientziak eta filosofiak autoritatearen uztarpea  
deuseztatu zutenera arte*

Ez dutenak hausnarketarik egin giza espirituaren ibilbideari buruz —espiritu horrek zientzien egien zein arteen prozeduren asmakuntzan daraman martxan— harritu beharko ziren halako denbora tar-te luze batek bereiztea marrazkiak inprimatzeko ezagutza eta karaktereak inprimatzekoa.

Zalantzarik gabe, plantxa grabatzaile batzuei otuko zitzairen euren artean aplikatzea; baina gehiago uzkurtuko zituen egitearen zailtasunak, arrakastaren abantailek baino. Eta zorionekoak gara asmakuntzaren ondorio guztiak ez zirelako aurreikusi, ezen apaizak eta erregeak elkartuko ziren jaiotzatik itotzeko haiei mozorroa eta tronua kenduko zien arerio hori.

Inprentak mugagabeki eta kostu txikiarekin ugaltzen ditu lan baten aleak. Ordutik aurrera, liburuak izateko ahalmena, bakoitzaren gustuen eta beharren arabera horiek eskuratzekoa, irakurtzen dakiten guztien esku egongo dira; eta irakurtzeko erraztasunak handitu eta hedatuko ditu hezteko desira eta baliabideak.

Ale ugaritu horiek bizkortasun handiagoaz hedatzen dira. Gertaerek eta asmakuntzek ez dute soilik publizitate zabalago bat erdies-ten, bizkortasun handiagoa ere badute. Argiak elkartruke aktibo eta unibertsal baten objektu bilakatu dira.

Antzina, eskuizkribuak bilatu behar ziren, egun, lan bitxiak bilatzen ditugun moduan. Gizabanako batzuek soilik irakurtzen zute-na, herri osoak irakurtzea izanen zuen, eta hizkuntza bera ezagutzen zuten pertsona guztiak liluratu.

Nazio barreiatuekin mintzatzeko modua aurkitu zuten. Tribuna mota berri bat ezarri zen, bertatik komunikatzen zirelarik inpresio ez hain biziak, baina sakonagoak; bertatik ezartzen zitzairen pasioei agin-te ez hain tiranikoa, baina arrazoimenaren gainean botere seguruagoa eta iraunkorragoa lortzen zen; bertan abantaila osoa egiaren aldekoa

zen, arteak ez baitu ezer galtzen seduzitzeko moduetan, argitzekoan irabazteagatik. Iritzi publiko bat osatzen da, partekatzen dutenen kopuruagatik, boteretsua; kementsua, determinatzen duten arrazoiek aldi berean espiritu guztiengan eragiten dutelako. Horrela, gailentzen ikusi zen, arrazoimenaren eta justiziaren izenean, giza botere orotatik independente zen tribunala, hari ezer ezkutatzea zaila zelarik eta ezinezkoa hura saihestea.

Metodo berriak, aurkikuntza batera eroan behar zuten lehen urratsen historia, hura prestatzen zuten lanak, hura ikertzeko ideia ematen edo desira inspiratzen duten ikuspegiak, horiek guztiak bizkor hedatzen dira, eta gizabanako bakoitzari eskaintzen diote guztien ahal-eginak sortu duten baliabide multzoa. Elkarrenganako laguntza horrekin, badirudi jeinuak dauzkan indarren bikoitza baino gehiago duela.

Errore berri oro bere sorreratik konbatitua da: sarritan eraso egiten zaio hedatzen hasi baino lehen, eta ez dauka astirik espirituetan errotzeko. Haurtzarotik jasotzen diren horiek, nolabait gizabanako bakoitzaren arrazoimenarekin identifikatzen direnak, terroreak edo esperantzak arima ahulei kuttun egin zizkietenak, guztiak hautsiak izan ziren, jada ezinezkoa baitzen haien inguruan eztabaida eragozte, ezkutatzea baztertuak eta konbatituak izan zitezkeela, aurka egitea egien aurrerakuntzari, egia horiek –ondorioz ondorio– luzarora aurka egite horren absurdotasuna onarrarazi beharko baitzuten.

Inprentari zor zaio aukera izatea hedatzeko uneko zirkunstantziek eskatzen dituzten lanak, edo iritziaren mugimendu iragankorrak, eta, horrela, puntu bakarrean eztabaidatzen den gai bakoitzarekin, hizkuntza bera hitz egiten duten pertsona guztien interesa lortzea.

Arte horren laguntzarik gabe, posible al litzateke gizaki klase bakoitzari edo heziketa maila bakoitzari dagozkion liburuak ugaltzea? Eztabaida luzeak, soilik horiek ekar bailezakete gai zalantzaragarrinen inguruan argi segurua, eta oinarri hautsiezinen batean tinkotu egia horiek, abstraktuegiak, sotilegiak eta jendearen aurreiritzietatik edo jakintsuen iritzi komunetik urrunduegiak direnak azkarregi ahantziak edo ezagutu gabeak ez izateko; liburu soilki oinarritzakoak, hiztegiak, lan horiek, jasotzen dituztenak –zehaztasun guztiekin– gertaera, behaketa, esperientzia saldoa, bertan froga guztiak garatzen direlarik, guztiak eztabaidatuak direlarik; bilduma baliotsu horiek, jasotzen dute-

nak, bai zientzien adar jakin bati buruz behatua, idatzia eta pentsatua izan den guztia, bai herrialde bateko jakintsu guztien urteroko lanak; mota guztietako taula horiek, koadro horiek, batzuek begiei eskaintzen dizkietelarik espirituak lan neketsu baten bidez baizik jasoko ez zituzkeen emaitzak, besteez erakusten dutelarik bakoitzaren nahierara gertaera, behaketa, zenbakia, formula, ezagutu beharra dagoen objektua, eta azkenik beste batzuek agertzen dutelarik, forma eroso batean, ordena metodiko batekin, jeinuak egia berriak lortzeko erabiliko dituen materialak: giza espirituaren martxa azkarragoa, seguruagoa eta errazagoa egingo duten baliabide horiek guztiak inprentaren ongintzak dira.

Aurkeztuko ditugu berriak, zientzientzat ia eskusiboa den erabilera baterako, herrialde guztietako jakintsuentzat amankomuna den hizkuntza baten bidez hizkuntza nazionalen ordezkapenaren efektuak aztertzen ditugunean.

Azken finean, ez al da inprenta izan askatu duena herrien heziketa kate politiko eta erlijiozko guztietarik? Alferrik inbaditu zituzten despotismo batek edo bestek eskola guztiak; alferrik finkatuko zituzten modu aldagaitzean, lege zorrotzen bidez, errore batzuk espirituak infektatuko zituztenak, egia batzuk horiek mantentzeko; alferrik katedra batzuk, filosofian zein zientzietan herriaren edo gazteen hezkuntza moralera dedikatzen zirenak, kondenatuak izan behar ziren tirania bikoitz horri soilik faboragarria litzaiokeen doktrina bat transmititzera: inprentak baluke oraindik ere argi independente eta purua hedatzea. Heziketa hori, pertsona bakoitzak liburuetatik jaso dezakeena, isiltasunean eta bakartasunean, ezin daiteke unibertsalki usteldua izan: nahikoa da lur eremu zatitxo bat libre izatea, prentsak bere orri-hostoak bertara bidaltzea izateko. Nola, liburu anitz saldo horrekin, liburu beren ale mordoarekin, instant batean egingo diren berrargitarapen andanarekin, nola itxiko dira egia handik sartzen saiatuko den ate horiek guztiak? Orduan zaila zena, eskuizkribu baten zenbait ale suntsituz, denak erabat desagerrarazten zirenean, nahikoa zenean egia bat, iritzi bat, zenbait urtez proskribatzea betirako ahantzazteko, ez al da orain ezinezko bilakatu, egun, etengabeko zaintza behar baita, inoiz geldituko ez den aktibitate baterako? Nola, inkisidoreen interesak zuzenean kaltetzen dituzten egia oso ukigarri horiek baztertzea lortuko balitz ere, nola ekidingo litzateke sartzea, hedatzea, egia pros-

kribatu horiek, pertzibitzen gaitzak direnak, besteak prestatu eta egunen batean haietara eramango dutenak? Posible ote litzateke hori egitea hipokresiaren mozorroa kendu barik, ez ote litzateke erorketa latza, errearen boterearentzat egia dena lain? Horrela, ikusiko dugu nola arrazoimenak gailentzen dituen alferrikako ahalegin horiek; beti berpizten den gerra beti krudel horretan ikusiko dugu garaile indarke-riaren eta maltzurkeriaren aurka; suteak saihesten eta sedukzioari aurre egiten, bere esku boteretsuarekin bata bestearen atzetik hausten, bai bere dogmentzat gurmene zintzoa eskatzen duen erlijio hipokresia, bai hipokresia politikoa, belarriko eskatzen duena besteek paira deza-tela hura bertan den errorea, hura hartaz profitatzen delarik, eta sines-taraztea herriari ere probetxugarri zaiola bertan egotea, bertan betira-ko botata.

Inprentaren aurkikuntza beste bi gertaerarekin batera jazotzen da aldi berean, batak giza espirituarengan berehalako eragina du, aldiz, bestearen eragina gizateria osoaren etorkizunean berorrek irau-ten duen artean izanen du.

Aipatzen ari naiz turkoek Konstantinopla hartzea, eta mundu berriarekin zein Afrikako eta Asiako ekialdeko muturrekin Europa komunikatzen duen bidearen aurkikuntza.

Literato greziarrek, tatariarren dominaziotik ihesi, Italian topa-tu zuten babeslekua. Euren jatorrizko hizkuntzan irakurtzen irakatsi zituzten antzinako Greziako poetak, hizlariak, historialariak, filosofo-ak, jakintsuak; lehenik eskuizkribuak ugaltu zituzten, eta apur bat beranduago edizioak. Ez ziren jada mugatzen Aristotelesen doktrina deitu izan zaion hori gurtzera; haren idazkietan bilatuko dute hura benetan izan zena; ausartuko dira juzgatzen eta hari aurka egiten; Pla-toni aurka egingo diote; eta maisu bat hautatzerik zeukatela pentsa-tzea, jada uztarpetik irteten hastea da.

Euklidesen, Arkimedesen, Diofanteren, Hipokratesen, anima-lien liburuaren, Aristotelesen beraren fisikaren irakurketak geome-triaren eta fisikaren jeinua berpizten du; eta filosofoen ideia antikris-tauek berpiztu egin zituzten giza arrazoimenaren eskubideen ideia ia iraungiak.

Gizaki ausart batzuek, loriarako zaletasunak eta aurkikuntzen pasioek gidatuek, Europari unibertsoaren mugak zabaldu zizkioten,

zeru berria erakutsi zioten, eta lur ezezagunak ireki. Vasco de Gama Indian barneratu zen, pazientzia agortezinarekin, afrikar kostaldearen zabalera itzela kurritu ostean; bestalde, Colon, Atlantiko ozeanoko uhainetan barna, iritsi zen ordura arte ezezaguna zen mundu horretara, Europako mendebaldetik Asiako ekialdera zabaltzen den horretara. Sentimendu horrek –berorren aktibitate urduriak objektu guztiak hartzen baitzituen, giza espeziearen aurrerakuntza handiak iragarritz–, jakin-nahi noble batek, animatu zituen arren nabigazioaren heroiak, berriz, askonahi baxu eta krudel batek, fanatismo ergel eta anker batek, zuzendu zituen lehenen lanaz profitatu behar ziren errege eta lapurrak. Eskualde horietan bizi ziren zoritxarreko izakiak ez ziren gizaki legez tratatuak izan, ez zirelako kristauak. Aurreiritzi horrek –tiranoak bilautzen zituenak biktimak baino gehiago– alhadura oro isiltzen zuen, eta Europak bere magaletik jaurtitzen zituen gizaki askonahi eta basati horiek galgarik gabe uzten zituen, euren urre eta odol egarri amaiezin horretan. Bost milioi gizakiren hezurdurek estali zituzten zoritxarreko lurralde horiek, bertara eroan baitzituzten espainiar eta portugaldarrek euren askonahia, euren superstizioak eta euren ankerkeria. Hezur horiek izanen dira, mendeen bukaerara arte, lekukotasuna erlijioen erabilgarritasun politikoaren doktrinaren aurka, oraindik ere gure artean apologistak dauzkan horren aurka.

Garai horretan soilik ezagutuko zuen gizakiak bera bizi den mundu hori; ikertuko zuen, herrialde guztietan, giza espeziea, kausa naturalen eta erakunde sozialen eragin luzeak eraldatua; behatuko zituen lurraren eta itsasoaren produkzioak, tenperatura eta klima guztietan. Horrela, produkzio horiek gizakiari eskaintzen dizkioten mota orotako baliabideak –gizakia oraindik urruti baitago horiek agortze-tik, edo horien zabaltasuna zein den jakitetik ere–; objektu horien eza-gutzak zientziei egia berriei dagokienez zein errore kreditatuak suntsitzeko orduan eskain diezaiekeen guztia; merkataritza jarduera, industriari, nabigazioari, eta –halabeharrezko loturagatik– baita zientzia zein arte guztiei ere bulkada berria eman diena; nazio libreei eman dien indarra tiranoei aurre egiteko, herri menpekotuei euren kateak gainetik kentzeko edo, behintzat, feudaltasunarenak lasaitzeko: horiek izan dira aurkikuntza horien zorioneko ondorioak. Baina probetxuzko gauza horiek ezin izanen dute garbitu gizateriari kostatu zaiena, harik eta Europak –uko egiten diolarik monopolio merkatar-

tza sistema zapaltzaile eta zikoitz bati— onartzen duen arte klima guztietako gizakiak, naturaren erabakiz berdinak eta anai-arrebak direnak, ez dituela naturak sortu nazio pribilegiatu batzuen harrotasuna eta askonahia elikatzeko; harik eta Europak —bere benetako interesez hobeto jabetuz— partekatzen dituen arte herri guztiekin bere independentzia, bere askatasuna eta argiak. Zoritxarrez, galde genezake ea iraultza hori filosofiaren aurrerakuntzaren fruitua izanen den, edo, soilki, jada ikusia denez, nazioen bekaizkeriaren edo tiraniaren gehiegikeriaren ondorio desohoragarria izanen den.

Garai horretara arte, apaizteriaren atentatuak zigor gabeak izan ziren. Odolak eta suak isildu zituzten gizateria zapalduaren zein arrazoimen laidoztatuaren kekak. Kexa horiek egitea agindu zuen espiritua ez zen iraungia; baina terroreak inposaturiko isiltasun horrek eskandalu berriak eragin zituen. Eztanda berri bat eragin zuen, halaber, beste eskandalu honek: monje batzuk alokatzeak, monje horiek, tabernetan eta plaza publikoetan, bekatuak garbitzeak sal zituzten. Lutherrek, esku batean liburu sakratuak zeukalarik, bestearekin honakoak erakusten zituen: Aita sainduak beretzat hartzen zuen eskubidea krimena absolbitzeko eta barkamena saltzeko; Aita sainduak gotzainen gainean zuen despotismo ozarra, horiek luzaroan haren berdinak ziren arren; lehen kristauen afari anaiartekoa, *meza* izenarekin ezagutzen zena, operazio magikoa modukoa zein merkataritzarako objektua; atzera bota ezin ez zen zelibatoaren usteltasunera kondenturiko apaizak; lege barbaro eta eskandalagarri hori, monjeek eta fededunek zeukatena, pontifizeen askonahiak Eliza uholdetu eta zikindu baitzuen; laikoek sekretu horiek guztiak, konfesioa dela-eta apaizen intriga eta pasioen menpeko zirenak; azkenik, Jainkoa bera, bere gurmenetik soilik zati bat mantentzen zuena, ogiari, gizakiei, hezurdurei edo estatuei ematen zitzaientetik.

Lutherrek herri harrituei erakusten zien erakunde asalagarri horiek ez zirela jada kristautasuna, baizik eta maltzurkeria eta lotsagarrikeria, eta, Jesusen erlijioari fidel izateko, beharrezkoa zela apaiz horietaz arnegatzea. Berdin erabili zituen dialektikaren eta erudizioaren armak, eta irrigarritasunaren modu berdin boteretsuak. Aldi berean idatzi zuen alemanez eta latinez. Jada ez zen albitarren edo Jan Husen garaian bezala gertatzen, azken horien doktrinak, euren elizatik mugetatik at ezezagunak, zeharo erraz kalumniatzen baitziren.

Apostolu berrien alemanezko liburuak aldi berean barneratzen ziren inperioko herrixka guztietan, eta latinezko liburuek Europa osoa libratzen zuten superstizioak eragin zion amesgaizto lotsagarri horretatik. Erreformatzaileek arrazoimena kitzikatzen zieten horiek, beldurrak isiltasunean mantentzen zituelarik; zalantza sekretu bat zuten horiek, nahiz eta ez ziren azaltzera ausartzen, ezta euren kontzientziari ere; xingleago zirelarik, absurdokeria teologiko horien hedadura enoratu zuten horiek; ez zutelarik inoiz gai eztabaidatuen inguruan hausnarketarik egin, iritzi ezberdinen artean hautaketa egin behar zutelako harritu egiten ziren horiek; horiek guztiak eztabaidatan murgildu ziren bizitasunez, orduan konturatu baitziren haietan zeutzala, bai euren uneko interesak, bai euren etorkizuneko zoriontasuna.

Europa kristau osoa, Suediatik Italiara, Hungariatik Espainiara, bat-batean doktrina berrien jarraitzaileek bete zuten. Erreformatik Erromako uztarpetik libratu izanen zituen Europan bizi diren herri guztiak, printze batzuen politika faltsuak ez bazuen goretsi izan erregeen buruaren gainean eroririko apaiz zetro hori.

Politika hori –zoritxarrez euren ondorengoek ez dute oraindik horretaz arnegatu– honakoan zetzan: norbere estatua hondatzean beste batzuk lortzearen, eta norbere boterea neurtzean lurraldearen zabalaren arabera, subjektuen kopuruaren ordez.

Horrela Carlos V.ak eta François I.ak, Italia elkarri lehiatzeaz arduraturik, Aita sainduari atsegin ematearren, sakrifikatu egin zituzten erreformaren probetxuak.

Enperadorea –ikusita inperioko printzeek euren boterea eta aberastasunak handituko zituzten iritzien alde egiten zutela– antzina-ko abusuen babesle bilakatu zen, erlijio gerra batek printzeen estatuak inbaditzeko eta euren independentzia deuseztatzeko aukera emango zioten esperantzarekin. Françoisi iruditu zitzaion protestanteak errearaziz –Alemanian euren buruzagiak babesten zituelarik– Aita sainduaren laguntasuna mantentzen zuela, aliatu probetxugarriak galdu gabe.

Baina ez zen arrazoi bakarra. Despotismoak ere badu bere sena; eta sen horrek errege horiei ondokoa erakutsi zien: gizakiek, arrazoimenaren azterketapean ezarri ondoren erlijio aurreiritziak, berdin egingo zutela politika aurreiritziekin; aita sainduen usurpazioa

ulertu ostean, erregeen usurpazioa ere gainetik kendu nahiko zutela; eta elizako abusuen erreformak, erregearen boterearentzat hain erabilgarria zenak, botere horren oinarri ziren abusu zapaltzaileen erreforma ere bazekarrela. Horrela, nazio handi bateko ezein erregeek ez zuen faboratu erreformatzaileen alderdia. Henry VIII.ak, pontifizearen anatema jasota ere, jazartzen zituen erreformatzaileak; Eduard eta Elizabethek, ezin ziotelarik papismoari atxiki, usurpatzaile deklaratuak izan barik, Ingalaterran hari gehien hurbiltzen zitzaion sinesmena eta gurmena ezarri zuten. Britainia Handiko monarka protestanteek etengabe faboratu dute katolizismoa, honek euren koroa erregegai batekin mehatxatzeari utzi dion bakoitzean.

Suedian, Danimarkan, luteranismoaren ezarkuntza ez zen izan –erregeen ikuspegitik– eurek ordezkaturiko zuten tirano katolikoa egozteko hartutako kontu beharrezkoa baizik; eta jada ikus genezake, prusiar monarkian, printze filosofo batek sorturiko horretan, nola bere ondorengoak ezin duen ezkutatu joera sekretu bat erregeei hain maiagarri zaien erlijio horretara daramana.

Erljio intolerantzia komuna da sekta guztietan, eta sekta horiek gobernu guztiei inspiratzen zieten. Papistek jazarri egiten zituzten erreformaturiko komunio guztiak; komunio horiek, elkar anatematzen zutelarik, antihirukoiztarren aurka elkartzen ziren; azken horiek, kontsekuenteagoak, dogma guztiak azterketapean ezarri zituzten berdin –arrazoimenaren azterketapean ez bada ere, behintzat, kritika arrazoituaren menpe–, eta ez zekiten zenbait gauza absurdotatik aldendu zirela, beste hainbat asaldagarriak direnak bere horretan mantentzeko.

Intolerantzia horrek papismoaren kausari mesede egin zion. Denbora luze baten ostean Europan, eta batez ere Italian, agertu zen talde bat, superstizio guztiak gaitzetsi –gurmen guztiekiko axolagabe, soilik arrazoimenaren menpeko– eta erlijioak giza asmakuntza bezala ikusten zituenak; haietaz sekretuan iseka egiten zuten, nahiz eta zuhurtasunak edo politikak adeitsu itxura egitea agintzen zien.

Geroago, ausardia hori haratago eroan zuten. Eskoletan Aristoteles filosofian gaizki ulertua erabiltzen zelarik sotiltasun filosofikoaren artea perfektionatzeko eta naturalki absurdoa baizik ez zena zolizat hartzeko, aldiz, jakintsu batzuk saiatu ziren ezartzen, Aristoteles benetako doktrinaren arabera, erlijiozko ideia suntsitzeko sis-



tema bat. Sistema horretan giza arima ez zen bizitzarekin batera desagertzen den ahalmena baizik; ez zen ametitzen beste probidentzia bat, beste munduaren ordenatzaile bat, naturaren lege beharrezkoak baizik. Pertsona horiei platonikoez egiten zieten aurka. Azken horien iritzia geroago deismo deitu izan zaionari hurbiltzen zitzaizkion, eta apaizen ortodoxia are gehiago ikaratzen zuten.

Tormentuen terroreak laster geldiarazi zuen zuhurtasun falta zintzo hori. Italia, Frantzia, zikindu egin ziren pentsatzeko askatasunaren aldeko martiri horien odolarekin. Sekta guztiak, gobernu guztiak, autoritate mota guztiak, ez ziren ados jarri ezpada arrazoimenaren aurka. Beharrezkoa egin zen belo batez estaltzea, tiranoen begiradapetik aldenduz, filosofiaren begiek iragan zezaten.

Beharrezko izan zen, beraz, doktrina sekretu horren erreserba ahalketsuaren barne sartzea, hortaz, doktrina horrek jarraitzaile kopuru handirik ezin izanen zuen inoiz eduki. Batez ere gobernu buruen artean hedatu zen, eta Elizakoenean ere; eta, erreforma garaian, erlijio makiavelismoaren printzeak bilakatu ziren printzeen, ministroen eta pontifizeen sinesmen bakarra. Iritzi horiek filosofia ere usteldu zuten. Izan ere, zer-nolako moralala espero daiteke sistema batetik, berorren printzipioak bada, batetik, beharrezko izatea herriaren moralala iritzi faltsuetan oinarritzea, bestetik, pertsona jantziek herri hori tronpatzeko eskubidea izatea, jendeari errore probetxugarriak ematen dizkiotelakoan, lotu gura dituztelarik atzean utzi dituzten kate horiekin berekin?

Gizakien berdintasun naturala, euren eskubideen oinarri lehe-na, egia moral ororen oinarria baldin bada, zer espero daiteke filosofia batetik, berorren maximetako bat berdintasun horrekiko eta eskubide horiekiko mespretxu ageria baldin bada? Zalantzarik gabe, filosofia hori bera arrazoimenaren aurrerakuntzarako erabilia izan daiteke, haren agintea prestatzen baitzuen isilean; baina, bakarrik mantendu zen artean, ez zuen egin ezpada hipokresiarekin ordezkatzeari fanatismoa, eta usteltzea –aurreiritzien gainetik ezartzen zituen arren– estatuen zoria zuzentzen zuten horiek.

Filosofo benetan ikasiek, askonahia arrotz zitzaienek, mugatzen zirenek gizakia ez desengainatzera ezpada ahalketasun izugarriarekin, laga gabe erroreetan mantentzen, filosofo horiek, bada, naturalki jo zuten erreformari atxikitza. Alabaina, atsekabetuta leku guz-

tietan tolerantzia falta bera aurkitzeagatik, euretako gehienei ez zitzaien beharrezkoa iruditu aldakuntza baten zailtasunetara arriskatzea, ondoren hertsapen beraren menpean aurkituko baitzituzten euren buruak. Beti behartuko baitzituzten gaitzesten zituzten absurdokeria batzuk sinesten zituztelako plantak egitera, ez zuten abantaila handirik topatzen absurdokeria horien kopurua apur bat txikitzean. Beldur ziren, halaber, euren arneguarekin borondatezko hipokresia baten itxura emango zutela; eta, erlijio zaharrari atxiki zitzaizkielarik, euren izenaren autoritatearekin indartu zuten.

Erreformatzaileak bizitzen zituen espirituak ez zeraman benetako pentsatzeko askatasunera. Erlijio bakoitzak –agintzen zuen herrialdean– ez zuen baimentzen iritzi jakin batzuk baizik. Hala ere, sinesmen anitz horiek elkarren aurkakoak zirenez, iritzi gutxi zeuden ez zirenak erasoak edo defendatuak Europako alde batzuetan. Bestalde, komunio berriek euren buruak bortxatuak ikusi zituzten euren zorroztasun dogmatikoa lasaitzera. Ezin zuten, kontraesan zatar batean erori barik, azterketarako eskubidea muga oso estuen barne ezarri, eskubide horretan bertan ezarri baitzuten euren bereizketaren legitimitatea. Arrazoimenari askatasun osoa eman nahi ez zioten arren, baimentzen zioten bere kartzela estuagoa ez izatea: katea ez zegoen hautsita, baina luzeagoa zen eta ez hain astuna. Azkenik, erlijio batek besteak zapaltzea ezinezkoa izan zen herrialde horietan, ezarri zen gurmenek menperatzaile bat, *tolerantzia* deitzera ausartzen den hori; hau da, gizaki batzuek beste gizaki batzuei ematen dieten baimena horien arrazoimenak erabakitzen duena sinesteko, egiteko euren kontzientziak agintzen diena, amankomunean duten Jainkoa omentzeko hobekien iruditzen zaien moduan. Toleratuak ziren doktrina guztiei eutsi ziezaieketen, zintzotasun gutxi gorabehera osoarekin.

Horrela, European nolabaiteko pentsamendu askatasuna sortu zen, ez gizakientzat, baizik eta kristautentzat; eta, Frantzian izan ezik, kristautentzat soilik existitzen da egun ere.

Baina tolerantzia horrek giza arrazoimena behartzen du bilatzera eskubide batzuk luzaroan ahanztzirikoak, edo inoiz ere ez zirenak izan, ez ongi ezagutuak, ez ongi argituak.

Haserreturik, erregeek –apaizteriaren esklabo superstiziotsu edo politiko– herriak zapaltzen zituztelako, baita euren kontzientzia-

ren santutegian ere, pertsona eskuzabal batzuk ausartu ziren azkenik haien boterearen oinarriak aztertzea; eta herriei honako egia handi hau agertu zieten: euren askatasuna ondasun alienaezina dela; ez dagoela preskripziorik tiraniaren alde, konbentziorik nazio bat eta familia bat lotzen dituenik modu ezeztazinean; magistratuak, euren tituluak, euren funtzioak eta euren boterea direnak direlarik ere, herriaren funtzionarioak direla, eta ez bere nagusiak; herriak badaukala haiei autoritatea kentzeko boterea, botere hori herriarengandik baitator, bai nagusiek botere horretaz abusatzen dutenean, bai herriak bere interesen aurkakoa dela kontsideratzen duenean haiek botere hori edukitzea; azkenik, badaukala haiek zigortzeko eskubidea, kargutik kentzekoa duen bezala.

Horiek dira Althusius, Languet, eta geroago Needham edo Harrington-ek ausardiaz eta kuraiaz agerturiko eta energiaz garaturiko iritziak.

Euren mendeari jarraituz, sarriegi oinarritu ziren testuetan, autoritateetan, etsenpluetan: ikus daiteke iritzi horiek zor zaizkiela gehiago euren espirituaren garaierari edo euren izaeraren kemenari, ordena sozialaren benetako printzipioen analisi zehatz bati baino.

Nolanahi ere, beste filosofo ahalkeago batzuk kontentatu ziren herrien eta erregeen artean ezartzen eskubideen eta betebeharren elkarrekotasun doi bat, konbentzioak mantentzeko betebeharrak berdin bat. Egiazki bazegoen jaraunspenezko magistratu bat kargutik kentzea edo zigortzea, baina soilik hark kontratu sakratu hori hautsi bazuen; horregatik kontratu horrek ez zion utzi behar haren familiarekin indarrean egoteari. Doktrina hori, eskubide naturala baztertzen zuena, dena lerratzen zuelarik eskubide positibora, zuzenbidean adituek eta teologiek defendatu zuten: faboragarriagoa zen pertsona boteretsuen intereztat, askonahien egitasmoentzat; gehiago eragiten zion boterea zeukan pertsonari, botereari berari baino. Horrela, publizistek jarraitu zuten orokorrean, eta iraultzetan zein desadostasun politikoetan oinarri bezala hartu zen.

Historiak erakutsiko digu, garai horretan, askatasunari dago-kionez benetan aurrerakuntza txikia ematen dela, aldiz, gobernuetan ordena eta indar handiagoa agertzen da, eta nazioetan sentimendu handiagoa eta, batez ere, zuzenagoa euren eskubideekiko. Legeak hobeto eratuak dira; gutxiago ematen dute zirkunstantzien eta apeta-

ren lan itxuragabea: jakintsuek eginak dira, oraindik filosofoek eginak ez diren arren.

Italia, Ingalaterra eta Frantzia asaldatzen dituzten herri mugimenduek zein iraultzek filosofoen atentzioa lerratu zuten politikaren atal horretarantz, behatzen eta aurreikusten duenerantz egiturek, legeek eta erakunde publikoek herrien askatasunean, oparotasunean, estatuen indarrean, euren independentziaren mantentzean, euren gobernuen forman duten eragin hori. Batzuek Platon imitatzen dute, hala nola, Morok eta Hobbesez, deduzituz, printzipio orokor batzuetatik, ordena sozial sistema oso baten plana, eta aurkeztuz eredu bat, praktika horri hurbildu beharko zaiona etengabe. Beste batzuek –esaterako, Makiavelok– bilatuko dituzte, historiako gertaeren azterketa sakonaren bidez, etorkizuna menperatzeko erabilgarri irizten zituzten arauak.

Zientzia ekonomikoa ez zen oraindik existitzen; printzeek ez zuten pertsona kopurua kontatzen, soldaduena baizik; finantza ez zen ezpada herriak, erreboltan ezarri gabe, bipiltzeko artea; eta gobernuak ez ziren merkataritza arduratzen, ezpada zergak ezartzeko, pribilegioen bidez suntsitzeko, edo haren monopolioa lehiatzeko.

Europako nazioek –arduratuta, biltzen zituzten interes amonunez, itxuraz zeuzkaten aurkako interesez– euren artean zenbait arau finkatzeko beharra sentitu zuten. Arau batzuek, tratatuetatik independente, euren bakezko harremanak zuzenduko zituzten; aldiz, beste arau batzuek, gerra garaian errespetatu beharko ziren, ankertasuna samurtu, harrapakariak txikiagotu, eta behintzat alferrikako gaitzak ekidingo zituzten.

Hortaz, existitzen zen jendearen eskubideen zientzia bat; baina zoritxarrez lege horiek nazioetan bilatu ziren, ez arrazoimenean eta naturan, herri independenteek onar ditzaketen autoritate bakar horietan, baizik eta finkaturiko azturetan eta antzinakoen iritzietan. Gutxiago arduratzen dira gizateriaren eskubideez eta gizabanakoenganako justiziaz, gobernuen askonahiaz, urguiluaz eta irrikez baino.

Horregatik garai horretan bertan ez ditugu ikusiko moralistak gizakiaren bihotzari itaun egiten, haren ahalmenak eta sentimenduak analizatzen, aurkitzearren haren natura, jatorria, eta haren betebeharren araua eta berrespena. Baina badakite eskolastikaren sotiltasun osoa erabiltzen aurkitzeko –zalantzazko legitimitatea daukaten akzio-

en bidez— inozentziaren bukaera eta bekatuaren hasiera muga zehatzak; determinatzeko zein autoritatek duen pisu nahikoa justifikatzeko, praktikan, zalantzazko ekintza horietako bat; metodikoki sailkatzeko bekatuak, bai genero eta espezieetan, bai elkarrekiko duten grabetasunaren arabera; batez ere, bereizteko horietako ekintza bakar bat nahikoa dena galmen eternalerako.

Moralaren zientzia ezin zen oraindik existitu, apaizak interprete eta juje bakar izateko pribilegio eskusiboaz gozatzen baitzuten. Baina sotiltasun horiek berek, modu berean irrigarriak eta eskandalagarriak zirenek, eroan zuten ikertzer, lagundu zuten ezagutaraztera ekintzen edo berorien kausen moralitate maila, betebeharren ordena eta mugak, horiek elkarri aurka egiten diotenean, zein printzipioren arabera hautatu behar den. Horrela, makina zatar bat ikertzerakoan, zoriak bere eskuetara iritsarazi duelarik, mekaniko trebe batek sarritan lortuko du egitea beste makina bat ez hain inperfektua eta benetan erabilgarria.

Erreformak, suntsitzen dituenean aitortzak, induljentiak, monjeak, apaizen zelibatoa, arazten ditu moralaren printzipioak, eta txikiagotzen du ohituren ustelkeria, hari atxiki zitzaizkien herrialdeetan. Herrialde horiek libratuko ditu apaizek inposaturiko penitentziez, krimenerako sustatzaile horretaz, eta erlijio zelibatoaz, bertute guztien suntsitzaile den horretaz, etxeko bertuteen arerio baita.

Garai hori beste edozein baino gehiago zikindu zuten zenbait gehiegikeriak. Erlijio masakreen, gerra sakratuen, eta mundu berriaren despopulatzearen garaia izan zen.

Garai horrek antzinako esklabotasuna berpizten ikusi zuen, baina esklabotasun basatiagoa, naturaren aurkako krimenetan oparoagoa. Ikusi zuen merkatarien askonahiak gizakien odolarekin salerosoten, eta gizakiak jenero balira moduan saltzen; traizioz, lapurretaz edo erailketaz erosiak izan ostean, hemisferio batetik aterek eta beste batera eroanak, bertan akabatzeko laidoaren eta beheratzearen artean, deuseztapen geldo eta krudel baten tormentu etengabearen artean.

Aldi berean hipokresiak Europa sutzarrez eta eraileez beteko du. Fanatismoaren munstroak —zauriek suminduta— bere ankertasuna bikoizten du eta biktimak bizkor metatuko ditu, arrazoimenak laster bere eskuetatik kenduko baitizkio. Hala ere, azkenik ikusten da berragertzen direla bertute gozo eta ausart horietako batzuk, gizateria oho-

ratzen eta kontsolatzen dutenak. Historiak ematen ditu izen batzuk, lotsatu gabe aipa ditzakeenak; arima puru eta indartsuak, goreneko talentu eta izaera handikoak lantzean behin agertzen dira saldukerien, ustelkerien eta sarraskien artetik. Giza espezieak oraindik ere asaldatu egiten du haren koadroa kontenplatu duen filosofoa; baina ez du gehiago umiliatzen, eta gertuko esperantzak erakusten dizkio.

Zientzien martxa azkarra eta distiratsua bilakatzen da. Lengoaia algebraikoa orokortzen, sinplifikatzen, perfektionatzen da, edo, hobeto, ordura arte ez zen osatu ere egin. Ezartzen dira ekuazioen teoria orokorraren lehen oinarriak; horiek ematen duten emaitzen natura sakontzen da; hirugarren eta laugarren mailakoak askatzen dira.

Logaritmoen asmakuntza zoliak, aritmetikako ariketak laburtzerakoan, erraztu egiten du kalkuluaren aplikazioa objektu errealetara, eta zientzia guztien hedadura zabaltzen du. Horietan, ezagutu nahi den egia partikularrari egiten zaion aplikazio numerikoa baliabide bat da erkatzeko, gertakariekin, hipotesi baten edo teoria baten emaitzak, eta, erkaketa horren bidez, naturaren legeak aurkitzera iristeko. Izan ere, matematiketan, kalkuluen luzerak, konplikazio puruki praktikoak, badaukate muga bat, haratago denbora, edo indarrak ere, ezin dira iritsi. Muga horrek, zorioneko laburketa batzuen laguntzarik gabe, zientziaren beraren muga ezarriko du, eta jeinuaren ahalmenek iragan ezin dezaketan hesia.

Galileok aurkitu zuen gorputzen erorketaren legea, hartatik deduzitu ahal izan zuelarik mugimendu uniformeki azeleratuaren teoria, eta kalkulatu abiadura jakin batekin, eta norabide paraleloa jarraitzen duen indar konstante bat aplikatzen zaiolarik, hutsean jaurtitzen den gorputz batek marrazten duen kurba.

Kopernikok berpizten du munduaren benetako sistema, luzarotan aiantzia zena; deuseztatu zuen, itxurazko mugimenduaren teoriaren bidez, sistema horrek zentzumenentzat arrotza zuena; sistema horretatik sortzen diren mugimendu errealean erabateko sinpletasuna oposatzen dio Ptolomeoren hipotesiak eskatzen zuen konplikazio ia irigarriari. Planeten mugimenduak hobeto ezagutu ziren, eta Keplerren jeinuak aurkitu zuen orbiten forma, eta orbita horiek jarraitzen dituzten lege eternalak.

Galileok, berak perfektionatzen duen lenteen asmakuntza egin berria astronomiari aplikatuz, gizakien begiradari zeru berri bat ireki-

tzen dio. Eguzkiaren diskoan aurkitzen dituen orbanak haren errotazioa ezagutzen laga zioten, haren periodoa eta legeak determinatzen ere. Venusen faseak frogatzen ditu; Jupiter inguratzen duten lau ilargiak aurkitzen ditu, planeta horrek bere orbita itzelean lagun dituen horiek.

Ikasi zuen denbora zehaztasunez neurtzen pendulu baten oszilazioen arabera.

Hortaz, gizakiak Galileori zor dio aldi berean uniforme eta lerrozuzena ez den mugimendu baten teoria matematikoa, eta naturaren lege mekanikoetako baten lehen ezagutza; Keplerri zor dio lege enpiriko bat, berorren aurkikuntzak abantaila bikoitza duena, batetik, haien emaitza adierazten duen lege mekaniko baten ezagutzara eroatea, bestetik, ezagutza hori osatzea oraindik ere lortzerik ez dagoenean.

Airearen pisuaren eta odolaren zirkulazioaren aurkikuntzek markatzen dituzte fisika esperimentalaren –Galileoren eskolan sortzen dena– eta medikuntzaren –jada anatomiatik bereizteko lain zabalena– aurrerakuntzak.

Historia naturalak, kimikak –horien esperantza kimerikoa eta lengoia enigmatikoa gorabehera–, medikuntzak eta kirurgiak liluratu egiten dute euren aurrerakuntzen bizkortasunagatik; baina sarritan kezka sortzen dute, oraindik ere mantentzen dituzten aurreiritzien ikuskizunagatik.

Alde batera utzi gabe Gesner-en eta Agricola-ren lanak, bertan baitira benetako ezagutzak, errore zientifikoek edo popularrek hain gutxitan nahasten dituztenetakoak, Bernard de Palissy ikus daiteke erakusten, bai gure eraikuntzetako materialak ematen dituzten harrobiak, bai gure mendiak osatzen dituzten haitz masak, animalien aztarnak osatuak, globoaren antzinako iraultzen sekulako monumentuak; bai azaltzen lurrinketak itsasoari kendu dizkion urak, euriak lurrari itzuli dizkionak, buztin geruzatan geratzen direnak, mendietan izotz moduan metatuak, iturrien, erreken eta ibaien fluxu eternala mantentzen dutenak. Bestetik, Jean Reyk aurkitu zituen airearen eta substantzia metalikoen konbinazioak; zenbait urte geroago, kimikaren mugak zabaldu dituzten teoria distiratsu horien lehen hazia.

Italian, poesia epikoaren arteak, margolaritzarenak, eskulturrenak, lortu zuten perfekzio bat antzinakoek ezagutu ez zutena. Corneille-k iragartzen zuen Frantzian arte dramatikoa perfekzio are handiagoa lortzeaz zela; ezen antzinatearekiko liluramena dela-eta pen-

tsatzen bada, beharbada justiziaz, maisu-lanak sortu dituzten pertso-  
nek gorentasuna dutela, zeharo zaila da –pertsona horien obrak Italia-  
ko edo Frantziako ekoizpenekin alderatuz– arrazoimena ez kontura-  
tzea arteak modernoek eskuetan izan duen aurrerakuntza horretaz.

Italiar hizkuntza erabat osatua zegoen; gainontzeko herriek  
egunero nabaritzen zuten euren antzinako basakeria apurka ezabatzen  
zihoala.

Konturatzen hasi ziren metafisikaren zein gramatikaren beha-  
rraz; bai arauak, bai hitz eta esaldien osaeran erabileran ezarriko  
prozedurak filosofikoki azaltzeko eta analizatzeko artea ezagutzen  
hasi ziren.

Leku guztietan, garai horretan, ikus genitzake arrazoimena eta  
autoritatea elkarren arteko lehian, agintea lortzearen, borroka horrek  
arrazoimenaren garaipena prestatzen eta iragartzen duelarik.

Horrela, bada, orduan sortuko zen kritika espiritu hori, berak  
soilik erudizioa benetan probetxugarri egiten duena. Oraindik beharra  
zegoen ezagutzeko antzinatekoek zer egin zuten; eta hasi ziren jakiten,  
haiek miretsi behar ziren arren, haiek juzgatzeko eskubidea ere baze-  
goela. Arrazoimenak –oraindik ere batzuetan autoritatearen laguntza  
zuenak, haren aurka sarritan erabiltzen zen arren– baloratu nahi zuen,  
bai berarengandik espero zen laguntzaren balioa, bai harengandik espe-  
ro zen sakrifizioaren kausa. Euren iritzien oinarritzat zeukatenek auto-  
ritatea, euren jarrerarako gida bezala, sentitu zuten zein garrantzitsua  
zen euren armen indarra segurtatzea, eta ez berehala ekiten ausartu,  
ikusteko nola hausten ziren arrazoimenaren lehen erasoaldiaren azpian.

Zientziei, filosofiari, jurisprudentziari eta historiari buruz ere  
latinez eskusiboki idazteko ohiturak apurka-apurka lekua uzten dio  
herrialde bakoitzeko hizkuntza erabiltzeari. Eta hau da unea aztertze-  
ko zein izan zen, giza espirituaren aurrerakuntzan, aldaketa horren  
eragina, zientziak herrikoia goak egin baitzituen, baina jakintsuei era-  
gotzi zien martxa orokorra zein zen jakitea; eragin zuen liburu bat  
herrialde berean ahulki heziriko pertsona gehiagok irakurtzea, eta  
Europar pertsona ilustratuagoek liburu hori gutxiago irakurtzea; lati-  
na ikastetik dispensatzea hezte gura duten pertsona kopuru handi  
bat, ez duena ez astirik, ez baliabiderik heziketa zabal eta sakon bat  
jasotzeko; baina jakintsuak behartzen ditu denbora gehiago ematen  
hizkuntza ezberdinen ikasketan.



Erakutsiko dugu nola, ezinezkoa zen arren latina hizkuntza arrunta egitea, Europa osoari amankomuna, zientzietan latinez idazteko ohiturak ez zuela izanen, horrela egiten zutenentzat, erabilgarritasun iragankor bat baizik: nolabaiteko hizkuntza zientifiko baten existentziak –hizkuntza hori berdina litekeelarik nazio guztietan, nahiz eta herrialde bakoitzeko jendeak hizkuntza ezberdina mintzatu– gizakiak bi klasetan bereiziko zituen, herriarengan aurreiritziak eta erroreak betikotuko zituen, eta benetako berdintasunari betirako oztopoa ezarriko zion, baita arrazoimenaren beraren erabilera berdinean ere, eta beharrezkoak diren egien ezagutza berdinean. Gizateriaren masaren aurrerakuntza horrela geldituzterakoan, azkenik, Ekialdean legez, zientziei berei bukaera ezartzen amaituko zuen.

Luzaroan ez zen existitu heziketarik ezpada elizetan eta berorien klaustroetan. Ondoren, unibertsitateak ere apaizek dominatuak izan ziren. Euren influentziaren zati bat gobernuari ematera behartuak, eurentzat gorde zuten lehen heziketa eta heziketa orokorra; horrela euren esku zegoen gizaki guztiei komun zaizkien ogibide guztietarako beharrezko argiak, eta haurtzaroaz eta gaztaroaz jabetzen ziren, euren nahierara moldatzen zituzten adimen malgua, arima zalantzatsu eta erraza. Botere sekularrari soilik uzten zioten jurisprudentziaren, medikuntzaren, zientzien formazio sakonaren, literatura- ren eta hizkuntza kultuen ikasketa; ikastetxe txikiagoak ziren, apaiz uztarpera moldatuak ziren gizakiak iristen ziren bertara.

Apaizek influentzia hori galdu zuten erreformatutako herrialdeetan. Izan ere, heziketa komunak –gobernuaren menpe zegoen arren– oraindik ez dio utziko espiritu teologikoak zuzendua izateari; baina jada ez zen eskusiboki presbiteroen korporazioko kideen esku uzten. Heziketa horrek jarraitzen du espirituak erlijio aurreiritziekin usteltzen, baina ez ditu jada apaizen uztarpean makurrarazten; oraindik sortzen ditu fanatikoak, iluminatuak, sofistak, baina jada ez ditu superstizioaren esklaboak sortzen.

Nolanahi ere, hezikuntzak –leku guztietan makurtua zegoelarik– espirituaren masa orokorra usteltzen zuen, haur guztien arrazoimena zapalduz, euren herrialdeko erlijio aurreiritzien pisupean; aurreiritzi politikoaren bidez, itotzen zuen formazio zabalago baterako gai ziren gazteen askatasun espiritua.

Norbere kasa abandonaturiko gizaki orok ez zuen soilik norberaren eta egiaren artean bere herrialdeko eta bere mendeko errorean

falange trinko eta ikaragarria topatzen; erre horietatik arriskutsuenak, gainera, pertsonalak zitzaizkion jada. Gizaki bakoitzak, gainontzeko pertsonenak ezabatu baino lehen, norberarenak hauteman beharko zituen; naturak egiaren aurkikuntzari ezartzen dizkion oztipoak gaingitu baino lehen, lehenik berreskuratu behar zuen nolabait bere adimena. Formazioak jada zenbait argi ematen zuen; baina erabilgarri izan zitezen, horiek araztea beharrezko zen, superstizioaren lanbrotik bereiztea, tiraniak hartaz inguratzen jakin baitzuen.

Erakutsiko dugu zeintzuk izan ziren giza espirituaren aurrerakuntzei ezarri zizkieten oztipo gutxi gorabehera boteretsuak, formazio publikoaren bizio horiek, elkarren aurkakoak ziren erlijio sinesmen horiek, gobernu mota anitzen eragin horiek. Ikusiko da aurrerakuntza horiek hainbat eta geldoagoak izan zirela, arrazoimenaren menpe ziren objektuak zenbat eta gehiago ikutu interes politikoak edo erlijiozkoak; filosofia orokorra eta metafisika, horien egiek zuzenki eraso egiten baitiete superstizioei, are irmoago geldotuagoak izan zirela euren martxan, politika baino, azken honen perfektzionamenduak erreegen edo senatu aristokratikoen autoritatea baizik ez zuen mehatxatzen; ohar bera aplikagarria zaiela zientzia fisikoei.

Aztertuko ditugu ezberdintasunerako gainontzeko iturriak, zientzia bakoitzak dauzkan objektuen naturatik, edo erabiltzen dituen metodoetatik, etor daitezkeenak.

Zientzia beraren kasuan, herrialde ezberdinetan, berdin hauteman dezakegun diferentzia hori, kausa politikoen eta kausa naturalen ondorio da halaber. Ikertuko dugu, diferentzia horietan, zer dagokion erlijioen aniztasunari, gobernuaren formari, nazioaren aberastasunari edo botereari, bere izaerari, bere kokagune geografikoari, antzoki zaien gertaerei, azkenik, zoriari, berorren magalean jaioarazi baititu horiek lako gizaki bikainak, eta, berorren eragina, gizateria osoaren hedatzen den arren, haiengan energia handiagoarekin hedatzen baita.

Bereiziko ditugu, batetik, zientziaren beraren aurrerakuntzak, neurri baitauzkate zientziak dauzkan egien batuketa, eta, bestetik, nazio batek zientzia batean dauzkan aurrerakuntzak ere; horiek neuritzen dira, ikuspegi batetik, egia ohizkoenak eta garrantzitsuenak eza gutzen dituzten gizaki kopuruagatik eta, beste ikuspegi batetik, orokorki eza gutzen diren egien kopuruaren eta naturaren arabera.

Izan ere, iritsi gara zibilizazioaren puntu batera, jendea argiez profitatzen denera, ez soilik pertsona argiengandik jasotzen dituzten zerbitzuak direla eta, baita ere herriak jakin izan duelako patrimonio moduko bat egiten, eta argi horiek erabiltzen bere burua defendatzeko errearen aurka, bere beharrak asetzeko, babesteko bizitzako gaitzez edo horiek gozatzeko atsegin berrien bidez.

Ez dugu inolaz ere ahanztziko garai horretan egiaren defendatzaileek pairatu zituzten jazarpenen historia. Ikusiko dugu nola jazarpen horiek zabaltzen diren egia filosofiko edo politikoetatik medikuntzakoetara, historia naturalekoetara, fisikakoetara eta astronomia-koetara. Zortzigarren mendean, Aita saindu ezjakin batek diakono bat jazarri zuen lurraren biribiltasuna defendatzeagatik, Agustin erretorikoak zioenaren aurka. Zazpigarren mendean, beste Aita saindu baten ezjakintasun lotsagarriagoak inkisidoreen esku utzi zuen Galileo, konbentzitua zegoelarik lurraren eguneroko eta urteroko mugimendua frogatu zuela. Italia modernoak zientziei eman dien jeinurik handiena, zahartzaroak eta gaixotasunek akitua, behartua izan zen, tormentua edo kartzela ekiditeko, Jainkoari barkamena eskatzera gizakiei haren obrak hobeto ezagutzen irakasteagatik, hark unibertsoa gobernatzen duen lege eternalen sinpletasuna miretsarazteagatik.

Baina teologoek absurdoa hain zen nabaria, ezen giza errespetuari amore emanez, Lurraren mugimendua defendatzen laga zuten, beti ere *hipotesi* moduan mantentzen baldin bazen, eta fedea kolpatzen ez zen artean. Baina astronomoek justu alderantzizkoa egin zuten: Lurraren benetako mugimenduan sinetsi zuten, eta haren higie-zintasunaren *hipotesiaren* arabera kalkulatu zuten.

Hiru gizon handik markatu zuten garai horretatik hurrengorako pasaera: Bacon, Galileo eta Descartesek. Baconek natura ikertzeko benetako metodoa erakutsi zuen, hark eman zigun naturaren sekretuetan barneratzeko hiru instrumentu erabiltzeko modua: behaketa, esperimentzia eta kalkulua. Baconek gura zuen filosofoak, unibertsoaren erdian jaurlaria delarik, jaso dituen sinesmen guztiei uko egitetik hasia, eratzeko nolabait ulermen berri bat, horretan ez dituelarik gehiago onartu behar ideia zehatzak baizik, nozio zuzenak, segurtasun edo probabilitate maila zorrozki ezarria daukaten egiak. Baina Baconek, filosofiaren jeinua mailarik garaienean zeukan horrek, ez zeukan zientzien jeinua; eta egia aurkitzeko haren metodoak, hark etsenplurik

ematen ez digun arren, filosofoek miretsiak izan ziren, baina ez zuten batere aldatu zientzien ibilbidea.

Galileok aurkikuntza probetxugarri eta bikainekin aberastu zituen zientziak; irakatsi zuen, bere etsenpluaren bitartez, naturako legeak ezagutza mailara igotzeko bidea, metodo seguru eta oparo baten bidez, ez duena behartzen arrakastaren esperantza sakrifikatze-ra huts egiteko beldurragatik. Zientzientzat sortu zuen lehen eskola, bertan zientziok jorratu egin ziren aurreiritzien zein autoritateen superstizio nahasturarik gabe; bertan baztertu egin zen, zorroztasun filosofikoarekin, esperientzia eta kalkulua ez zen beste edozein bide. Baina zientzia matematikoetara eta fisikoetara mugatu zelarik soilik, ezin izan zien komunikatu espirituari espero zuten mugimendu hori.

Ohore hori Descartesentzat erreserbaturik zegoen, filosofo zoli eta ausart horrentzat. Zientzietarako jeinu handia zuelarik, etsenplua eta araua bildu zituen, egia ezagutzeko, aurkitzeko, metodoa emanez. Metodo horren aplikazioa erakutsi zuen dioptrikaren legeen aurkikuntzarekin, gorputzen talkarenekin; azkenik, muga guztiak gaindituko zituen matematikaren adar batekin.

Bere metodoa zabaldu nahi zuen giza adimenaren objektu guztietara: Jainkoa, gizakia, unibertsoa, bata bestearen atzetik haren haunarketen gai izan ziren. Zientzia fisikoetan haren ibilbidea Galileorena bezain segurua ez den arren; bere filosofia Baconena bezain zentzuduna ez den arren; aurpegira dakioken arren baten lezioetatik eta bestearen etsenplutik ez ikasi izana; dena dela, balio izan zuen bere imajinazioaz mesfidantza izateko, naturari esperientzia bitartez soilik itauntzeko, kalkuluan soilik sinesteko, unibertsoa eraiki ordez behartzeko, gizakia asmatu ordez ikertzeko, eginiko errorearen ausardiak berak giza espeziearen aurrerakuntzarako. Bere arerioen jakituriak esnatzen jakin ez zituen espirituak mugiarazi zituen. Gizakiei esan zien autoritatearen uztarpetik irteteko, aurrerantzean, soilik arrazoi-menak ontzat ematen duena onartzeko; eta jaramon egin zitzaion, bere ausardiarekin menperatzen baitzuen, bere suhartasunarekin erakartzen baitzuen.

Giza espiritua ez zen oraindik libre; baina bazekien libre izateko sortua zela. Ausartu zirenak kateatuta mantentzen, edo saiatu berriak ezartzen, behartuak izan ziren frogatzera hark mantentzen edo jaso behar zituela; eta ordutik iragar zitekeen laster hautsiak izanen zirela.

## BEDERATZIGARREN GARAIA

### *Descarteseetik frantziar errepublikaren sorkuntzara arte*

Ikusi dugu nola giza arrazoimena poliki osatu den zibilizazioaren aurrerakuntza naturalekin batera; nola superstizioa hartaz jabetu den hura usteltzeko, eta despotismoak nola beheratu eta moteldu dituen espirituak beldurraren eta zoritxarraren pisupean.

Herri batek soilik ihes egiten dio eragin bikoitz horri. Askatasunak jeinuaren sua piztu duen zorioneko lurralde honetan, giza espiritua, bere haurtzaroko loturetatik aske, egiarantz doa urrats irmoarekin. Baina konkistak laster berarekin batera dakar tirania, horri jarraitzen dio superstizioak, haren kide fidel horrek, eta gizateria osoa berriro ere dago eroria, betirakoak diruditen lanbro horietan murgilduta. Hala ere, eguna berpiztuko da poliki-poliki; begiek, luzaroan iluntasunera kondenatuek, sumatzen dute, ixten dira, apurka ohitzen doaz, azkenik argia finkatzen dute, eta jeinua ausartzen da mundura itzultzera, fanatismoak eta basakeriak hemendik erbesteratu baitzuten.

Jada ikusi dugu nola arrazoimenak bere kateak altxatu dituen, eta batzuk lasaituz eta etengabe indarberrituz, bere askatasunaren unea prestatzen, bizkortzen du.

Falta zaigu kurritzea kate horiek hausten dituen garaia; orduan, oraindik ere hondakinak arrastan eramatera kondenatua, horietaz libratzen da astiro-astiro; orduan, bere martxan aske azkenik, ezin da geldiarazi, ezpada aurrerakuntza ororen aurka halabeharrez agertzen diren etengabeko oztopo horiek direla eta, gure adimenaren egikera baitute derrigorrezko kausa, esan nahi baita, naturak ezartzen duen erlazio hori, batetik, egia aurkitzeko gure baliabideen artean eta, bestetik, egiak gure ahalmenei jartzen dien oposizioaren artean. Erlijio kontuetan tolerantzia ezak behartu zituen Belgikako zazpi probintzia Espainiaren uztarpetik irtetera, eta errepublika federatibo bat osatzera. Tolerantzia ezak berak bakarrik esnatu zuen ingeles askatasuna; liskar luze eta odoltsuek gogaituta, filosofiak luzaroan miretsi duen egitura bat sortuz deskantsatu baitzuen Ingalaterrak, nolanahi ere, aurrerantzean lagun bakarrak izan ditu superstizio nazionala eta hipokresia politikoa.

Azkenik, suediar nazioak ere apaizen jazarpena dela-eta izan zuen kuraia bere eskubideen zati bat berreskuratzeko.

Nolanahi ere, liskar teologikoeak eraginiko mugimendu horien artean, Frantziak, Espainiak, Hungariak eta Bohemiak euren askatasun ahulak –edo, behintzat, hori ziruditenak– deuseztatzen ikusi zituzten.

Aske deritzaten herrialde horietan alferrik bilatuko da askatasun hori, ez diona gizakiaren eskubide natural bati ere minik egiten; ez diona soilik jabegoa ziurtatzen, baita ere haren gauzatzea zilegi egiten duena. Herrialde horietan ediren den askatasunak, desberdinki partekatua den eskubide positibo batean oinarritzen denak, gizaki bati pribilegioak eskaintzen dizkio gutxi gorabehera, hiri batean edo beste batean bizi bada, etxe batean edo bestean jaio bada, aberastasun kopuru bat edo beste badu, ogibide bat edo beste badu; eta bereizketa bitxi horien koadroa da oraindik ere horien beharra eta abantailak defendatzen dituztenei oposa geniezaiekeen erantzunik onena.

Alabaina, herrialde horietan beretan, legeak askatasun indibiduala eta zibila bermatzen dute. Gizakia oraindik ez den arren izan daitekeen guztia, bere naturaren duintasuna ez da han bilautua; eskubide horietatik batzuk behintzat aitortzen dira. Ezin esan genezake gizakia esklaboa denik, soilik esan behar dugu oraindik ez dakiela zer den benetan libre izatea.

Garai berean, askatasunak galera gutxi gorabehera benetakoak izan dituen nazioetan, herriaren masak gozatzen zituen eskubideak hain muga estuen artean zeuden zarratuak, ezen herriaren kexua eragin zuen aristokrazia ia arbitrario baten suntsipenak dirudienez erruz konpentsatu du askatasun haren galera. Gizakiak hiritar titulua galdu zuen, desberdintasunak jada ia irudimenezkoa egiten zuen hori, baina gizakiaren izaera errespetatuagoa izan da. Errege despotismoak ekidin dio zapalkuntza feudala, laido horretaz libratu du, hainbat eta mingarriagoa zena, bere tiranoen kopuruak eta presentziak sentimendu hori etengabe berritzen baitzioten.

Legeak perfektionatu behar izan dira gizarte egitura sasi-libre-etan, ezen benetako boterea duten horien interesa ez baita izaten normalean herriaren interes orokorreko aurkakoa; eta estatu despotiko-etan, bai oparotasun publikoa sarritan despotarenarekin elkartzen delako, bai hark nobleen edo kleroaren botere aztarnak suntsitzea xede duelako, legeetan berdintasun espiritua ematen ohi da: kausa zen denei esklabotasunean berdintasun bat ematea, efektuak sarri osasun-garriak izan zitezkeen baina.

Azalduko dugu European despotismo hori produzitu duten kausak, horren adibiderik ez dagoelarik ez aurreko mendeetan, ez munduko beste leku batzuetan. Bertan autoritate ia arbitrario batek –iritziak geldiaraziak, argiek arautuak, norbere interesak apalduak– sarritan lagundu du aberastasunaren, industriaren, formazioaren, eta batzuetan libertate zibilaren beraren aurrerakuntzara.

Ohiturak samurtu egiten dira aurreiritzien ahultzeagatik, zeukaten ankertasuna mantentzen baitzuten; merkataritza eta industria espiritu horren eraginagatik, aberastasuna ihesarazten duten biolentzia eta kalapiten arerio baita; aurreko garai igaro berrien koadroak eragiten duen izuagatik; ideia filosofikoetan, berdintasunaren eta gizatasunaren barreiatze orokorragoagatik; azkenik, argien aurrerakuntza orokorraren efektu geldo baina seguruagatik.

Erlijio tolerantzia ezak iraun du, baina giza zuhurtasunaren asmakuntza bezala, herriaren aurreiritziei eginiko omenaldi bezala, edo haren eferbeszentziaren aurkako kontu hartzea bezala. Galdu du ankertasuna; suak, oso gutxitan pizten direnak, jazarpen arbitrarioagoak, baina ez hain basatiak, ordezkatuak izan dira; eta, azken garai hauetan, ez da jazarpenik gertatu ezpada lantzean behin eta, nolabait, ohiturgatik zein atsegin hartzeagatik. Leku eta puntu guztietan gobernuen praktikak jarraitu du –baina geldiro eta nahigabe bezala– iritziaren ibilbidea, eta baita filosofiarena ere.

Izan ere, zientzia moral eta politikoetan, existitzen bada une bakoitzean distantzia handi bat, batetik, filosofoek argia eraman duten puntuaren artean eta, bestetik, euren espiritua jorratzen duten gizakiak iritsi diren batez besteko puntuaren artean, azken horien doktrina amankomunak osatzen duelarik orokorrean hartzen den sinesmen hori, *iritzia* deritzaguna, orduan, afera publikoak zuzentzen dituztenak, berehala herri osoaren zorian eragina dutenak, edozein delarik ere egitura, urruti daude iritzi horren garaieraraino igotzetik. Iritzi horri jarraitzen diote, baina hartara iritsi barik. Urruti daudelarik hari aurrea hartzetik, etengabe topatzen dituzte euren buruak haren atzetik; ez bakarrik urte batzuetan atzetik, baita egia askotan ere.

Horrela, filosofiaren aurrerakuntzaren eta argien hedapenaren koadroak –berorren efektu orokorrenak eta sentigarrienak jada azaldu ditugu– eroango gaitu garai batera, orduan aurrerakuntza horien eraginak iritzian, eta iritziaren eraginak nazioetan eta bere buruzagien-

gan, bat-batean geldoa eta sentiezina izateari uzten diotelarik, zenbait herriren masa osoan iraultza bat dakarte. Iraultza horrek iragartzen du beste halako bat giza espeziearen orokortasunean.

Errore luzeen ostean, teoria osagabe edo lausoetan galdu ostean, publizistek azkenik ezagutuko dituzte gizakiaren benetako eskubideak, egia bakar honetatik deduzituz: *gizakia izaki sentikorra dela, arrazonamenduak eratzeko eta ideia moralak jasotzeko gai*. Ikusi dute eskubide horien mantentzea zela gizakiak elkarte politikoetan biltzearen arrazoi bakarra, eta arte soziala izan beharko dela lege horien mantentzea bermatzea, berdintasun osoenarekin, zabalera handienarekin. Sentitu dute bakoitzaren eskubideak segurtatzeko bide horiek gizarte bakoitzean arau amankomunen menpe egon behar dutela; bide horiek aukeratzeko boterea, arauak determinatzekoa, gizartearen beraren gehiengoari dagozkiola; ezen pertsona bakoitzak ezin duelarik, bere aukeran, bere arrazoimen propioa jarraitu gainontzeko pertsonen eragin barik, gehiengoaren botoa da denek egiazko ezaugarri duntzat har dezaketen bakarra, berdintasuna mindu gabe.

Pertsona bakoitza aurretik lot daiteke benetan gehiengoaren botori, botoa pertsona guztien adostasunez hartua izanen delarik orduan; baina ezin du berea baino lotu: ezin ditu konprometitu –gehiengo horrekin ere ez– bere eskubide pertsonalak, aintzatetsiak izan ostean, kaltetzen ez baldin badira baino.

Horiek dira aldi berean gehiengoaren eskubideak gizartearen gan edo bere kideengan, eta eskubide horien mugak. Hori da guztien adostasun horren jatorria, soilik gehiengoak harturiko konpromisoak derrigorrezko egiten ditu: betebeharrak horrek legitimo izateari uzten dio, gizabanakoen aldaketagatik, guztien adostasun hori bera jada existitzen ez denean. Zalantzarik gabe, gai batzuetan beharbada gehiengo sarrago agertuko da errearen alde eta guztion interes amankomunaren aurka; baina gehiengoari dagokio, halaber, erabakitzea zeintzuk diren bere erabakiak berehala gauzatu beharko ez diren gai horiek; berak determinatu beharko du zeintzuk izan behar diren horien arrazoimenak besteena ordezkatu beharko duten pertsona horiek; hari dagokio erabakitzea zer metodo jarraitu behar den egia segurua iristeko; eta ezin dio juzgatzeko autoritateari uko egin pertsona haien erabakiek ez baldin badute denek amankomunean dituzten eskubideak kaltetu.



Horrela, hain printzipio sinpleekin ikusi zen nola desagertu ziren ideia horiek ziotenak herri baten eta bere magistratuen arteko kontratua ezin dela ezeztatu ezpada bien adostasunarekin, edo alderdi baten fideltasun ezagatik. Desagertu zen, halaber, iritzi hori ez hain morroia, baina absurdoa nolanahi ere, kateatzen dituen herri bat eta bere egitura, behin finkatua denean, egitura hori aldatzeko eskubidea ez balitz bezala gainontzeko eskubideen bermea; bazirudien, giza erakundeak, halabeharrez akastunak eta perfekzionamendu berri baterako gai direnak, gizakiak argiagotzen doazen eran, euren haurtzaroaren iraupen eternalera kondenatuak zirela. Horrela, behartuak izan ziren uko egitera politika maltzur eta faltsu horri, ahanzten zelarik gizaki guztiek euren naturatik beratik datozkien eskubide berdinak dituztela, politika horrek nahi zuen bai gizakiei uzten zitzaizkien eskubideen hedadura neurtu, lurraldearen zabaleraren arabera, klimaren tenperaturaren arabera, izaera nazionalaren arabera, jendearen aberastasunaren arabera, industriaren eta merkataritzaren perfekzioaren arabera, bai partekatu, desberdinki, eskubide horiek berak gizaki klase anitzetan, jaiotzaren, aberastasunaren edo ogibidearen arabera, eta horrela sortu aurrakako interesak, botere oposatuak, haien artean beranduago oreka bat ezartzeko, soilik erakunde horiek posible egingo zuelarik oreka hori eta, gainera, ez lituzkeelarik zuzenduko haien eragin kaltegarriak.

Horrela, ez zen inor ausartu gizakiak bi arraza desberdinetan bereiztera, bata gobernatzera destinatua litekeelarik, bestea obeditzera; bata gezurra esatera, bestea sinestera. Beharrezkoa egin zen onartzea pertsona guztiek eskubide bera dutela egia guztiak ezagutzeko, argituak izateko norbere interesen inguruan; eta gizakiek euren buruengan ezarritako ezein boterek ez duela eskubiderik egia bat bera ere ezkutatzeke.

Printzipio horiek, Sydney eskuzabalak bere odolarekin ordaindu zituenak, Lockek bere izenaren autoritatea atxikitzen dizkienak, geroago Rousseauk garatu zituen, zehaztasun, zabalera eta indar handiagoaz, eta hari zor zaio printzipio horiek ezartzea ahanzi edo aurka egin ez dakiekeen egia horien artean.

Gizakiak beharrak ditu, eta ahalmenak behar horiek asetzeko; ahalmen horietatik eta euren produktu desberdinki eraldatuetatik, banatuetatik, aberastasun masa bat sortzen da behar komunak ordain-

tzeko. Baina zeintzuk dira aberastasun horiek osatzeko edo partekatzeko, kontserbatzeko edo kontsumitzeko, handitzeko edo xahutzeko, dauden legeak? Zeintzuk dira, halaber, oreka horren legeak, beharren eta baliabideen artean etengabe sortzeko joera horrenak, handik baitator beharrak asetzeko erraztasun handiagoa, aberastasunak handitzean ongizate handiagoa, harik eta beharren handitzeak parekatzen dituen arte; eta, alderantziz, aberastasunak gutxiagotzen direnean, zailtasun handiagoak sortzen dira, eta ondorioz sufrimendua, harik eta despopulatzeak eta gabeziek maila lehengo egoerara erooten dutenera arte? Nola, lan eta produktu, behar eta baliabideen aniztasun liluragarri horretan; interesen konplikazio beldurgarri horretan, interes horiek gizartearen sistema orokorrarekin erlazionatzen baitute gizabanako isolatuaren biziraupena eta ongizatea; naturaren akzidente guztien menpe, politikaren gertaera guztien menpe ezartzen dutelarik; nola-bait, mundu osora hedatzen dutelarik haren gozamenerako edo gabeziarako ahalmena; nola, itxurazko kaos horretan, dena den, mundu moralaren lege orokor bat dela medio ikusten da bakoitzak guztion ongizateari zerbitzu egiteko burutzen duen esfortzua, eta, aurkako interesen kanpoaldeko talka hori gorabehera, interes amankomunak eskatzen duela bakoitzak jakitea eta ulertzea norberaren interesa zein den, eta oztoporik gabe lortzeko aukera izatea?

Horrela, gizakiak izan beharko du bere ahalmen guztiez baliatzeko aukera, bere aberastasunez baliatzekoa, bere beharrak askatasun osoz asetzekoa. Gizarte bakoitzaren interes orokorrak, egikaritze hori mugatzetik urruti, aldiz, debekatu egiten du galerazpen hori; eta, ordena publikoaren atal horretan, bakoitzak naturaz dauzkan eskubideak bermatzeko kontu hori da, aldi berean, politika komenigarri bakarra, botere sozialaren betebeharrak bakarra, eta borondate orokorrak gizabanakoen gainean gauza dezakeen eskubide bakarra.

Baina printzipio hori onartua denean, botere publikoari oraindik geratzen zaizkio zenbait betebeharrak betetzeko. Legeak onarturiko neurriak ezarri behar ditu, horiek balioko baitute, mota orotako elkartrukeetan, ezartzeko trukaturiko gauzen pisua, bolumena, zabalera eta luzera.

Balioentzat neurri komuna sortu behar du, guztiak ordezkatzeko dituen; aldaeren eta harremanen kalkulua errazten duena; berezko balioa duelarik, balioa izan dezaketen gauza guztien ordezkari truka dai-

tekeena; baliabide hori barik, merkataritzak, zuzeneko elkartrukeetara mugatua delarik, ezin izanen du erdietsi aktibitatek edo hedadurarik.

Urteroko ekoizpenak zati erabilgarri bat eskaintzen du, zati horrekin ez baita ordaintzen, ez ekoizpen hori sortzeko lana, ezta ekoizpen berri bat –berdina edo oparoagoa– ziurtatuko duen lana ere. Zati erabilgarri horren jabe denak ez dio zuzenean zor bere lanari; bere ahalmenekin egin dezakeen erabileratik independenteki dagokio, bere beharrak ordaintzeko. Hortaz, urteroko aberastasun zati erabilgarri horretatik, ezein eskubideri kalte egin barik, botere sozialak ezar ditzake fondo batzuk beharrezkoak direnak estatuaren segurtasunak, barne lasaitasunak, gizabanakoen eskubideen bermeak, legearen formaziorako eta egikaritzarako hautaturiko autoritateak, azken finean, oparotasun publikoaren mantentzeak eskatzen dituen gastuetarako.

Existitzen dira lan jarduerak, establezimenduak, erakundeak, gizarte orokorrari probetxugarri zaizkionak; gizarteak ezarri, zuzendu edo zaindu behar dituenak, eta osatzen dutenak borondate pertsonalek edo interes indibidualen parte-hartzeak zuzenean egin ez dezaketena, bai nekazaritzaren, industriaren edo merkataritzaren aurrerakuntzarako, bai naturaren gaitz ekidinezinei edo ezusteko akzidenteez gainera dezaketenei aurrea hartzeko edo horiek arintzeko.

Aipatzen ari garen garaira arte, baita luzaro beranduagora arte ere, objektu horiek zoriaren menpe zeuden, gobernuen askonahiaren menpe, kalakarien trebetasunaren menpe, klase boteretsu guztien aurreiritzien edo interesen menpe; baina Descartesen dizipulu batek, Jean De Witt ospetsu eta zorigaiztoak, ulertu zuen ekonomia politikoak, zientzia guztiek bezala, filosofiaren eta kalkuluaren zehaztasunaren menpe egon behar zuela.

Zientzia horrek aurrerakuntza txikia izan zuen harik eta Utrechtetako bakeak Europari lasaitasun iraunkor bat ekarri zion arte. Garai horretan, ikusi zen nola espirituek ia orokorki hartzen zuten norabidea ordura arte baztertu zen ikasketa horretarantz. Stewart-ek, Smithek, eta batez ere ekonomista frantsesek, zientzia berri hori erotan zuten, behintzat, printzipioen zehaztasun eta purutasunagatik, hain azkar lortuko zuela espero ez zitekeen maila bateraino, halako axolagabetasun luze baten ostean.

Baina politikan eta ekonomia politikoan izandako aurrerakuntza horiek lehen kausa zuten filosofia orokorrean edo metafisikan

–azken hitz honen adiera bere zentzurik zabalenean hartuta– izaniko aurrerakuntzak.

Descartesek arrazoimenaren eremuan sartu zuen filosofia; oso ongi ulertu zuen osoki irten behar zuela egia argi eta lehenetatik, gure espirituaren behaketak errebelatu behar dizkigunetatik. Baina laster bere imajinazio urduriak baztertzen du berak trazatu zion ibilbide horretatik, eta bazirudien filosofiak ez zuela berreskuratuko bere independentzia ezpada errore berrietan galtzeko.

Azkenik, Lockek aurkitu zuen filosofia gidatu behar zuen haria. Erakutsiko du nola ideien analisi doi eta zehatz bat –ideiak hurrenez hurren euren jatorrira zuzenago bihurtuz, edo euren osaeran sinpleagoak eginez– dela modu bakarra ez galtzeko zoriak ordenarik gabe eskaintzen dizkigun eta guk hausnarketarik gabe jasotzen ditugun nozio osagabe, inkoherente, zehaztugabe horien kaosean.

Analisi horrekin berarekin frogatzen du jaso ditugun sentsazioekin gure adimenak egiten dituen ariketen ondorio direla ideia guztiak, edo, zehazkiago, memoriak aldi berean agertzen dizkigun sentsazioen konbinazioekin, atentzioa geratzen delarik edo pertzepzioa mugatzen delarik soilik sentsazio konposatu horien zati batean.

Idea bakoitzari –analizatu eta mugatu ostean– hitz bat ezartzen dionean, erakusten du nola ideia hori beti modu berean gogoratuko dugun; hau da, gogoratuko dugu beti ideia sinpleenez osatua, beti muga berdinen artean zarratuta, eta, hortaz, Lockek erakusten digu nola erabiltzen ahal den arrazonamendu segida batean, galtzeko arriskurik gabe.

Aldiz, hitzek ez badute adierazten ongi zehazturiko ideia bat, espiritu berean ideia ezberdinak piztu ditzakete hurrenez hurren; eta hori da gure akatsen iturriarik emankorrena.

Azkenik, Locke lehendabizi ausartzen da giza adimenaren mugak finkatzera, edo, hobeto, determinatzera ezagut ditzakeen, bere irismenera diren, egien natura.

Metodo hori laster filosofo guztiena bilakatu zen. Moralari, politikari, ekonomia publikoari aplikatuz, zientzia horiek ia zientzia naturalena bezalako ibilbide segurua hartu zuten. Ez zuten jada onartzen egia frogatuak baizik; egia horiek bereizten ziren zalantzarria eta dudazkoa zen orotatik. Azkenik, jakin zen baztertzen oraindik –edo beti– ezagutzea ezinezkoa den hori.

Horrela, gure sentimenduen analisiak eragiten digu deskubritzea, plazera edo mina esperimentatzeko dugun ahalmenaren garapenaren bidez, gure ideia moralen jatorria eta –ideia horietatik sortzen delarik– egia orokorren oinarria, azken honek determinatzen dituelarik zuzenaren eta bidegabearen lege aldaezin eta beharrezkoak. Azkenik, deskubritzea eragiten digu, halaber, gure jarrera eratzeako kausak, gure sentsibilitatearen naturan bertan ezarriak direnak, nolabait, egikera moral dei diezaiokegun horretan.

Metodo hori bera bilakatzen da, nolabait, instrumentu unibertsal bat. Metodo hori ikasi zen nola erabili zientzia fisikoena perfektionatzeko, printzipioak argitzeko, frogak baloratzeko; gertaeren azterketara eroan zen, gustuaren arauetara.

Horrela, giza adimenaren objektu guztietara aplikatzen zen metafisika horrek ezagutza genero bakoitzean espirituaren prozedurak analizatzen zituen, sistema osatzen duten egia guztien natura ezagutarazten zuen, baita lor dezakegun segurtasunarena ere. Filosofiarren azken urrats horrek nolabait altxatu du gizateriaren eta beronen haurtzaroko akats zaharren artean hesi bat; aurreiritzi berriak direla eta antzinako gizateriari ez dio inoiz ezjakintasunera itzultzen lagako, modu berean ziurtatzen du oraindik dauzkagun aurreiritzi horien erortzea –oraindik guztiak ezagutzen ez ditugun arren–, baita horiek ordezkia ditzaketen aurreiritziarena ere, ez baitute izanzen ezpada eragin txikia eta existentzia iragankor bat.

Hala ere, Alemanian, jeinu zabal eta sakoneko pertsona batek doktrina berri baten oinarriak ezarri zituen. Bere imajinazio bizia, ausarta, ezin zen geratu filosofia xume batean, zalantzak utz zitzakeenean espiritualtasunaren edo giza arimaren iraunkortasunaren gainean, gizakiaren edo Jainkoaren askatasunaren inguruan, adimen ahalguztidun batek gobernatutako unibertso batean minaren edo krimenaren existentziaren inguruan, Jainkoaren zuhertasunak, justiziak eta ontasunak itxuraz krimena eta mina baztertu beharko baitzituzketen. Analisi zoli batek askatu ezin izan ez zuen korapiloa ebaki zuen. Izaki simple, deuseztazekin eta naturaz berdinez osatu zuen unibertsoa. Izaki horietako bakoitzak unibertsoaren sisteman harekin dagoen beste gainontzeko izakiekin daukan erlazioak determinatuko ditu haren nolakotasunak, gainontzekoetatik bereizten dutenak; giza arima zein harri bloke bat bukatzen duen azken atomoa monada horietakoak dira

berdin. Ez dira desberdintzen ezpada unibertsoaren ordenan betetzen duten leku diferenteagatik.

Izaki horien konbinazio posible guztien artean, adimen infinitu batek bat nahiago izan du, eta soilik bat nahiago ahal izan du, guztietarik perfektuena. Existitzen denak sumintzen bagaitu krimenaren eta zorigaiztoaren ikuskizunagatik, horrek esan nahiko du beste edozein konbinaziok emaitza mingarriagoak emango zituzkeela.

Azalduko dugu sistema hori, Leibnitzen aberkideek hartua edo, behintzat, defendatua, haien artean filosofiaren aurrerakuntza berandutu duena. Ingeles filosofoen eskola oso bat ikus genezake berotasunez hartzen eta elokuentziaz defendatzen optimismoaren doktrina; baina ez direlarik Leibnitz bezain trebeak eta sakonak, hark funtsean oinarritzen baitu adimen ahalguztidun batean, honen naturaren beharrak eragiten duelarik unibertso posible guztietarik hobeena aukeratzeko, haiek gure naturan bilatu zuten haren nagusitasunaren frogara. Sistema horrek dauzkan abantaila guztiak galduta, orokortasun abstraktu batean baitatza, sarriegi galdu ziren zehaztasun asalagarri edo irrigarrietan.

Hala ere, Eskozian, beste filosofo batzuek, konturatuta gure benetakoa ahalmenen garapenaren analisiak ez zuela errotik printzipio batera, ematen dionera gure ekintzen moralitateari oinarri nahikoa purua, nahikoa solidoa, beraz, giza arimari ahalmen berri bat eman zioten, arrazoitzeko edo sentitzeko horietatik ezberdina, baina horiekin konbinatzen zena; ahalmen hori ezin zuten frogatu ezpada hura gabe aurrera egitea ezinezkoa zitzaielako. Azalduko dugu iritzi horien historia, eta agertuko dugu nola, filosofiaren martxari eragozpenak jarri dizkioten arren, ideia filosofikoen hedakuntza azkarragoari probetxugarriak izan zaizkiela.

Honaino filosofiaren aurrerakuntzak azaldu ditugu, filosofia jorratu, sakondu eta perfektionatu duten pertsonen bitartez soilik: falta zaigu erakustea zeintzuk izan diren efektuak iritzi orokorrean, eta nola arrazoimenak –egia ezagutzeko, aurkitzeko, metodo seguruaren ezagutzara iristen zen bitartean– ikasten zuen bere burua babesten imajinazioak eta autoritatearekiko errespetuak eragin zioten erroreetatik. Aldi berean, gizabanakoen masa orokorrean deuseztatzen zituen giza espeziea luzaroan mindu eta usteldu duten aurreiritziak.

Azkenik, baimendu zen mendeetan zehar ezezaguna izandako eskubide hori modu irekian aldarrikatzea, iritzi guztiak gure arrazoimenaren menpe ezartzea, hau da, egia aurkitzea, erabiltzea berori ezagutzeko eskaini zaigun instrumentu bakarra. Gizaki bakoitzak ikasi zuen, urguilu tankerako batekin, naturak ez duela inolaz ere destitatu beste norbaiten hitza sinestera; eta fede supernatural baten aurrean arrazoimenaren beheramendua zein antzinateko superstizioa desagertu egin ziren gizartetik zein filosofiatik.

Europar laster pertsona mota bat sortu zen gutxiago arduratzen zena egia aurkitzeaz edo hartan sakontzeaz, hedatzeaz baino. Arduratzen zirelarik aurreiritziak aurkitzen –kleroak, eskolek, gobernuak, antzinako korporazioek gorde eta babestu zituzten lekuetan–, eurentzat loria gehiago zegoen errore herrikoiak suntsitzean, giza ezagutzaren limiteak zabaltzean baino. Giza ezagutzen aurrerakuntza zerbitzatzeko zeharkako modua zen; ez arrisku gutxien zeukana, ezta probetxu gutxienekoa ere.

Ingalaterran, Collins eta Bolingbroke-k, Frantzian, Bayle, Fontenelle, Voltaire eta Montesquieuk, eta pertsona ospetsu horiek sorturiko eskolek, egiaren alde borroka egin zuten, hurrenez hurren erabiliz erudizioak, filosofiak eta espirituak eskainitako arma guztiak, idazteko talentuak arrazoimenari lagun baitiezaioke. Tonu guztiak hartu zituzten, forma guztiak erabili, isekatik patetismora, bilduma eruditua eta zabalenetik nobela edo eguneko liburuxkara. Egia estaltzen zuten belo batez, begi ahulenak prestatzeko moduan, hura aurkitzen uzteko plazererako aukera emanez. Aurreiritziak trebetasunez ferekatzen zituzten, horiei kolpe zehatzagoak ematearren; aldi berean mehatxatu gabe aurreiritzi asko, ezta bat osorik ere. Batzuetan arrazoimenaren arerioak kontsolatzen zituzten, itxura eginez erlijioan ez zutela nahi ezpada sasi-tolerantzia bat. Despotismoaz baliatzen ziren, hark erlijio eremuko absurdokeriak konbatitzen zituenean, eta gurmeha, tiraniaren aurka altxatzen zenean: bi izurrite horiei berorien printzipioan eraso egiten zieten, bazirudielarik kontra egin nahi zietela soilik abusu asaldagarri edo irrigarriei, eta adur txarreko arbola horien sustraletan kolpeak emanez, adar galduak inausi nahi bailukete; bai erakusten askatasunaren lagunei superstizioa –despotismoa ezkutu iragangaitz batekin estaltzen duen hori– dela lehendabizi immolatu behar den biktima, hautsi behar duten lehen katea; bai, aldez, supers-

tizioa denuntziatuz despoten aurrean, esanez hori dela euren boterearen benetako arerioa, eta ikaratuz euren konplot hipokriten eta ankerkeria odoltsuaren koadroarekin. Ez zioten, ordea, inoiz ere uzten aldarrikatzeari arrazoimenaren independentzia, idazteko askatasuna, giza espeziearen eskubide eta osasun bezala. Altxatu egiten ziren, energia nekaezin batekin, tiraniaren eta fanatismoaren krimen guztien aurka. Aurka egiten zuten erlijioan, administrazioan, azturetan eta legeetan, zapalkuntzaren, gogortasunaren eta basakeriaren izaera duen ororen kontra. Agintzen zieten, naturaren izenean, errege-erreginei, gerlariei, magistratuei, apaizei, gizakien odola errespetatzeko. Aurpegiatzen zieten, zorroztasun kementsu batekin, haien politikak edo axolagabetasunak guda eta tormentuetan oraindik ere isurtzen zuten odol hori. Azkenik, guda irrintzi bezala hartzen zuten: *arrazoimena, tolerantzia, gizatasuna*.

Halakoa izan zen filosofia berri hori, erroreez bizi diren, sinesgarritasunagatik boteretsu diren, eta soilik aurreiritziak direla-eta existitzen diren klase ugari horien gorroto komunaren objektu; ia leku guztietan jaso, baina jazarria; errege-erreginak, apaizak, handikiak, magistratuak zeuzkana dizipulu eta arerio. Filosofia horren aitzindariak egunero izan zuten trebetasuna mendekutik ihes egiteko artean, gorrotora arriskatuz; jazarpenetik ezkutatzeokan, norbere burua erakutsiz, loriarik batere galdu barik.

Sarritan gobernu batek esku batekin saritzen zituen, bestearekin haien kalumniatzaileak ordaintzen zituen bitartean; proscribatzen zituen, eta ohoratzen zuen zoriak euren lurraldean jaioarazi izana; haien iritziengatik zigortzen zituen, eta umiliatu egiten ziren pentsatzen bazen ez zirela iritzi berekoak.

Iritzi horiek laster pertsona ilustratu guztienak bilakatuko ziren; batzuek aitortuak, besteek disimulatuak, hipokresia gutxi gora-behera gardenarekin, euren izaera herabeago edo irekiagoaren arabera, eta euren profesioaren eta banitatearen interes kontrajarrien arabera. Baina jada euren banitatearen interes hori bazen nahikoa boteretsu –aurreko garaietako disimulu sakonaren orde– kontentatzeko, batzuetan, norberarenganako eta, sarri, gainontzeko pertsonenganako diskrezio zuhur batekin.

Jarraituko dugu filosofia horren aurrerakuntza Europako alderdi ezberdinetan; horietan gobernuen eta apaizen inkisizioak ezin izan



zuen ekidin hizkuntza frantsesa, ia unibertsal bilakatu zena, laster hedatzea. Erakutsiko dugu zer-nolako trebetasunarekin politikak eta superstizioak filosofia horren aurka erabili zuten gizakiaren ezagutzak eskaintzen zien guztia gizakia bere arrazoimenaz mesfidati izateko, argumentuen arloan eskaintzen ziena haren mugak eta ahultasunak erakusteko; eta nola jakin zuten pirronismoaz ere baliatzen sineskortasunaren kausarako.

Sistema hain simple hori, askatasun mugagabe beten gozamena ezartzen zuena merkataritzaren eta industriaren sustatzaile handiena bezala, libratzen zituen herriak halako desberdintasun bidegabean banaturiko zerga batzuen izurrite suntsitzaitetik eta uztarpe umiliagarritik, zerga horiek gehiegizko gastuarekin biltzen baitziren, eta sarritan basakeria izugarriarekin, ordezkatuak izan behar baitziren kontribuzio justu, berdin eta sumagaitz batekin; teoria hori erlasionatzen zuena estatuen benetako boterea eta aberastasuna gizabanakoen ongizatearekin, eta horien eskubideekiko errespetuarekin; elkartzen zituen, na, zoriontasun amankomun baten loturarekin, gizarteak naturalki bereizten dituen klase horiek; ideia hain kontsolagarri hori, gizateriaren anaiartekotasunari buruzkoa, ezein interes nazionalek haren harmonia gozoa ez duelarik asaldatuko; printzipio horiek, seduzigarriak euren eskuzabaltasunagatik zein euren hedaduragatik; horiek guztiak, berotasunez zabaldu zituzten ekonomista frantsesek. Haien arrakasta ez zen filosofoena bezain azkarra eta orokorra izan; konbatitu behar zituzten aurreiritzi ez hain zatarrak, errore sotilagoak. Desengainatzeko baino, argitzeko beharra zuten; eta sen ona heztekoa, berau juje moduan hartu baino lehen.

Baina euren doktrinaren osotasunerako ez zituzten lortu jarraitzaile gutxi batzuk baizik. Nahiz eta izua sortu zuten euren maxima gehienekin, euren printzipioen malgutasun ezarekin; eurek kalte egin zieten arren euren kausaren ontasunari, lengoia ilun eta dogmatiko bat erabiliz; ematen zuelarik gehiegi ahazten zituztela, merkataritzaren askatasunaren interesen izenean, askatasun politikoaren interesak; aurkezten zituztelarik, modu absolutuegian eta magistralegian, euren sistemaren zati batzuk ez zituztenak larregi sakondu; dena dela, gutxienez nardagarri eta mespretxagarri egin zuten politika koldar, maltzur eta ustel hori, nazio baten oparotasuna ezartzen zuena auzokideen txirotzean, erregimen debekatzaile baten

ikuspegi estuetan, administrazio ekonomiko tiraniko baten antolamendu txikietan.

Baina filosofia, politika eta ekonomia publikoa aberastu zuten egia berriek –pertsona ikasiek modu gutxi gorabehera orokorrean jasoak– urrutiago eroan zuten euren eragin osasungarria.

Inprentaren artea horrenbeste lekutara hedatu zen; hainbeste ugaritu zituen liburuak; ezagutza, aplikazio eta zorion mailatara hain ederki egokitu zituen liburuok; gustu guztietara, espirituaren genero guztietara, horren trebetasun handiarekin moldatu zituen; hain hezkuntza erraza, sarritan baita atsegina ere, aurkezten zuten; hainbeste ate ireki zizkieten egiari, ia ezinezko egin baitzen guztiak ixtea, eta ez zegoen jada klase zein ogibiderik hura irits ez zitekeenik. Orduan, beti geratzen zen arren pertsona kopuru handiegia borondatezko edo halabarrezko ezjakintasun batera kondenatua, gizateriaren zati ezjakinaren eta zati ilustratuaren arteko muga ia ezabatu zen, eta degradazio sumaezin batek bete zuen bi muturrak –jeinua eta ergeltasuna– bereizten zituen espazioa.

Horrela, gizakiaren eskubide naturalen ezagutza orokor bat; eskubide horiek alienaezinak eta preskribatuezinak direlako iritzia bera; boto kementsuki adierazia, pentsatzeko eta idazteko askatasunaren alde, merkataritzaren eta industriaren askatasunaren alde, herriaren sufrimendua arintzearen alde, erlijio disidenteen aurkako lege penal oren proskribatzearen alde, torturaren eta tormentu basatien abolizioaren alde; legeria kriminal gozoago baten desira, errugabatasunari segurtasun osoa emango dion jurisprudentzia batena, arrazoi-menaren eta naturaren arabera goa den kode zibil sinpleago batena; hipokresia eta fanatismoarekiko higuina; aurreiritziekiko mespretxua; argien hedakuntzarako arreta; printzipio horiek guztiak apurka-apurka pasako dira filosofoen lan izatetik gizarteko klase guztietara. Horietan hezkuntza katekismotik eta idazketatik haratago zihoalarik, printzipiook profesio amankomun bilakatu ziren, pertsona guztiak makiavelikoak edo ergelak ez ziren seinale. Zenbait herrialdetan printzipio horiek iritzi publiko ia orokor bat osatu zuten; herriaren masa bera, itxuraz hari men egitera eta hark zuzendua izatera prest baitzegoen. Gizatasun zentzua, hau da, gizateria sumintzen duten gaitz guztiekiko bihozberatasun gozo eta aktibo hori, eta erakunde publikoetan, gobernuaren ekintzetan, ekintza pribatuetan, naturaren min ekidinezi-

nei gaineratzen zaien minekiko nazka; gizatasun sentimendu hori, bada, printzipio horien ondorio naturala da. Idazki guztietan arnas daiteke, diskurtso guztietan, eta jada bere zorioneko eragina agertzen da legeetan, erakunde publikoetan, baita despotismoaren menpe diren herrietan ere.

Nazio anitzetako filosofoek euren hausnarketetan gizateria osoaren interesak hartzen zituzten kontuan; herrialdearen, arrazaren edo sektaren arabera bereizketarik egin gabe, osatu zuten, euren iritzi espekulatiboak gorabehera, falange bat estuki elkartua errore guztien aurka, tirania mota guztien aurka. Filantropia unibertsal baten sentimenduak animatuta, konbatitu zituzten justizia eza, euren atzerrian arrotz zelarik ere, eta ez zituenean zuzenki kaltetzen; konbatitzen zuten, halaber, euren aberria erruduna zenean beste herri batzuekiko: askonahiak Amerikako, Afrikako edo Asiako kostaldeak zikintzen zituen krimenen aurka altxatu ziren European. Ingalaterrako eta Frantziako filosofoek ohoratzen zuten *lagun* izena hartu izana, eta *lagun* bezala zeuzkaten betebeharrak konplitzea, euren tirano ergelek beltz horiek gizakitzat ere ez zeuzkaten arren. Idazle frantsesei eginko lausenguak Errusian eta Suedian erdietsiriko tolerantziaren sari ziren, Italian Beccariak frantses jurisprudentziaren maxima basatiak errefutatzen zituen bitartean.

Frantzian saiatzen ziren Ingalaterra ateratzen berorren aurreiritzi komertzialetatik, berorren legeen eta egituraren akatsen errespetu biziotsutik; aldiz, Howard ohoragarriak frantsesen axolagabekeria salatzen zuen, haien ziega eta ospitaletan horrenbeste giza biktima immolatzen baitziren.

Gobernuen indarkeria edo sedukzioa, apaizen tolerantzia eza, aurreiritzi nazionalak berak, galdu zuten botere deitoragarri hori, egiaren ahotza isilaraztekoa, eta ezerk ezin izanzen zuen ekidin arrazoimenaren arerioak zein askatasunaren zapaltzaileak Europa osokoa izanzen zen epaiketa batean juzgatuak izatetik.

Azkenik, doktrina berri bat garatzen ikusi zen, aurreiritzien eraikin jada kulunkan zenari azken kolpea emango ziona: giza espeziearen perfektibilitate mugagabearen doktrina. Turgot, Price eta Priestley izan ziren doktrina horren apostolu lehenak eta ospetsuenak; hamargarren garaiari dagokio, eta bertan agertuko dugu zabale-  
ra handiagoarekin. Baina hemen azaldu behar dugu filosofia faltsu

baten jatorria eta aurrerakuntza; filosofia horren aurka, aipaturiko doktrinaren laguntza beharrezkoa izan zen arrazoimenaren garaipenerako.

Batzuen kasuan, urgulitik eta, besteenean, interesetik sortua, helburu sekretu duelarik ezjakintasuna betikotzea, eta erreoren agintea luzatzea, filosofia haren jarraitzaile ugariak ikusi ditugu, bai paradoxa zolien bidez arrazoimena usteltzen, edo seduzitzen pirronismo absolutuaren nagitasun erosoarekin; bai giza espeziea nahikoa mespretxatzen, esateko beste argien aurrerakuntza ezdeusa edo arrisku-tsua dela haren zorionerako zein askatasunerako; bai, azkenik, gizateria galdarazten imajinaziozko handitasun baten edo zuhurtasun baten berotasun faltsuarekin, aldentzen baitute bertutea argitua izatetik, eta sen ona benetako ezagutzatan laguntzetik. Hemen, ikusi ditugu mintzatzen filosofiaz eta zientzia sakonez, horiek diruditelarik teoria batzuk garaiegiak izaki batentzat, berau, mugatua, beharrez inguratua, eta eguneroko betebeharrak neketsuen menpekoea denarentzat; beste leku batzuetan, horiek erdeinatzen, zalantza espekulazio neurritz gainerako saldoa balira bezala, desagertu behar direlarik aferetan esperientziaren zein estatu gizonaren trebetasunaren aurrean. Entzuten genituen etengabe kexatzen argien dekadentziaz, argi horiek aurrerakuntzan murgilduak zirenean; giza espeziearen degradazioaz auhendatzen, gizakiak euren eskubideez gogoratu eta euren arrazoimenaz baliatzen ziren neurrian; iragartzen gertu zetorrela aldaketa horietako bat, basakeriara, ezjakintasunera eta esklabotasunera zeramana, denak aditzera ematen zuenean horiengatik beldurrik ez edukitzeko unean zirela. Bazirudien filosofiaren perfekzionamenduak umiliatzen zituela, ez baitzuten partekatzen harekin zerikusia izateko loria; edo, haren aurrerakuntzek izututa, euren garrantziaren eta boterearen erorketa iragartzen baitzuen. Hala ere, esku zatar batekin antzinako aurreiritzien eraikina –filosofiak eraikuntza horri oinarriak jan baitzizkion– zurkaizten saiatzen zirenak baino trebeagoak zirenez, zenbait kalakari saiatu ziren aurriak erabiltzen erlijio sistema baten eraikitzeko, bertan ez zitzaiolarik arrazoimenari –bere eskubideak berreskuratuta– eskatuko ezpada sasi-mendetasun bat; bertan arrazoimena ia libre izanen zen bere sinesmenean, beti ere ulertezin litzatekeen zerbait sines-tera prest zegokeen artean. Bitartean, beste batzuk saiatzen ziren berpizten, euren elkarte sekretuetan, antzinako teurgiaren misterio ahan-

tziak; eta, herria errore zaharretan lagata, jarraitzaileak superstizio berriekin lotuz, ausartzen ziren berrezartzen saiatzera –jarraitzaile batzuen mesedetan– Indiako eta Egiptoko errege-pontifizeen antzina-ko tirania. Baina filosofiak –zientziek prestaturiko oinarri hautsezin horretaz lagunduta– hesi bat jarri zien aurrean, haren aurka haien aha-lerin indargabeek laster porrot egingo zuten.

Alderatzen badugu espirituen disposizioa, haren zirriborroa jada trazatua izan baita, gobernuen sistema politikoarekin, aise igar genezake iraultza handi bat saihestezina zela. Eta ez zen zaila juzga-tzea bi modu ezberdinetan soilik egin zitekeela: beharrezkoa zen, edo herriak berez ezar zitzala arrazoimenaren eta naturaren printzipioak, filosofiak maitagarri egin zizkion horiek, edo gobernuak bizkortzea haiek ekiditen, eta euren martxa herriaren iritziei egokitzea. Iraultza horietako batek osoagoa eta lehenagokoa izan behar zuen, besteak, geldoagoa, osagabeagoa, baina lasaiagoa. Batean, askatasuna eta zoriona gaitz iragankorrekin ordaindu beharko ziren, bestean, gaitz horiek ekidingo ziren, baina beharbada luzaroan berandutuz halabe-harrez ekarri beharreko onuren zati bat.

Gobernuen ustelkeriak eta ezjakintasunak lehen bidea nahiago izan zuten; eta arrazoimenaren eta askatasunaren garaipen azkarrek mendekatu dute giza espeziea.

Sen on soilak erakutsi zien britainiar kolonietako biztanleei, ozeano Atlantikoko bestaldean jaioriko ingelesek naturarengandik jaso zituztela Greenwichean meridioan jaiotako beste ingeleseen eskubide berak, eta longitudean hirurogeita hamar graduako diferen-tziak ezin zituela eskubide horiek aldatu. Bazekiten, beharbada euro-parrek baino hobeto, eskubide horiek amankomunak zirela gizateria-ko banako guztientzat; eta ulertu zuten ez zutela ordaindu behar zer-garik, lehenik euren onarpena eman gabe. Baina britainiar gobernuak dirudienez pentsatzen zuen Jainkoak Asia bezala sortu zuela Ameri-ka, Londreseko biztanleen atseginerako, eta nahi zuen, izan ere, bere eskuen artean heldu, itsasotik haratago, nazio menperatu bat, hartaz baliatuko zelarik, une egokia iristean, europar Ingalaterra zapaltzeko. Ingalaterrako ordezkari otzanei agindu zien Amerikako eskubideak zapaltzea, eta borondatez aurkako zergak ordainaraztea. Amerikak injustiziak loturak hautsi zituela aldarrikatu, eta bere independentzia deklaratu zuen.

Orduan, lehen aldiz ikusi zen herri handi bat bere kate guztiez askatua, norbere buruari ematen modu baketsuan bere zorionerako egokienak iruditzen zitzaizkion egitura eta legeak; eta bere kokagune geografikoak zein bere antzinako estatu politikoak behartzen ziotenez errepublika federatibo bat osatzea, aldi berean ikusi zen nola bere baitan sortzen zituen hamahiru errepublika egitura, oinarri zutenak giza-kiaren eskubide naturalen aitorten solemnea, eta, lehen helburu bezala, eskubide horien mantentzea. Trazatuko dugu egitura horien koa-droa; erakutsiko dugu zer zor dioten zientzia politikoen aurrerakuntzari, eta hezkuntzan diren aurreiritziek zer gaineratu izan dieten antzinako erroreetatik; zergatik, esaterako, botereen orekaren sistemak oraindik ere bere sinpletasuna aldatzen duen; zergatik izan duten printzipio bezala interesen identitatea, oraindik ere eskubideen berdintasuna baino gehiago.

Baina bi herrialde ilustraturen artean sortzen den gerran, batek gizateriaren eskubide naturalak defendatzen dituelarik, besteak, eskubide horiek preskripziopean, interes politikoen menpe, konbentzio idatzien menpe ezartzen dituen doktrina maltzurra jartzen dio aurka. Kausa handi hori substantziatu zen iritziaren tribunalaren bidez, Europa osoaren aurrean; gizakien eskubideak ederki defendatuak eta gartuak izan ziren mugapenik edo erreserbarik gabe, Neva-ren bazterretik Guadalquivirreneraino libreki zirkulatu zuten idazkietan. Eztabaida horiek eskualde menpekotuenetara iritsi ziren, herrixka urrutikoenetara, eta bertan bizi ziren pertsonak harrituta geratu ziren ulertzera-koan eskubideak zeuzkatela; ikasi zuten horiek ezagutzen; jakin zuten beste pertsona batzuk ausartzen zirela horiek berkonkistatzera edo defendatzera.

Amerikar iraultza laster hedatuko zen Europara. Baldin baze- goen herri bat amerikarren kausarekiko zeukan interesak gainontzeko herrietan baino gehiago hedarazi zituen haien idazkiak eta printzi- pioak, aldi berean ilustratuena eta askatasun gutxienekoa zena; berta- ko filosofoek benetako argi gehien dutena, eta gobernuak ezjakinta- sun ozarrena eta sakonena; herri bat, berorren legeak espiritu publi- koaren zeharo azpitik dauzkana, urguilu nazional batek, aurreiritzi batek, bere antzinako erakundeenganako atxikimendua eragiteko lain; herri hori, ez al zegoen destinatua, gauzen naturagatik beragatik, giza- teriaren lagunek horrenbeste esperantzaz eta pazientziaz espero zuten

iraultza horri lehen bultzada emateko? Hortaz, iraultza hori Frantzia-tik hasi behar zen.

Frantziako gobernuaren baldartasunak iraultza hori azkartu zuen; filosofiak haren printzipioak zuzendu zituen; herriaren indarrak suntsitu zituen mugimendua gera zezaketen oztipoak.

Iraultza hori Amerikakoa baino osoagoa izan zen, eta, hortaz, barnean ez hain baketsua, ezen estatubatuarrek, Ingalaterratik jaso zituzten lege zibil eta kriminalekin pozik zirelarik, zerga sistema akastun bat erreformatu behar ez zutelarik, tirania feudalik, jaraunspenezko bereizketarik, korporazio pribilegiatu, aberats edo boteretsurik, edo erlijio intolerantzia sistematik suntsitu behar ez zutelarik, botere berriak ezartzera mugatu ziren, nazio britainiarrak haiengan ezartzen zuena ordezkatzera mugatu ziren. Berrikuntza horietatik bat ere ez zitzaion iristen herriaren masari; ezerk ez zituen aldatu gizabanakoen artean zeuden harremanak. Frantzian, kontrako arrazoia dela eta, iraultzak gizartearen ekonomia osoa hartu beharko zuen, harreman sozial guztiak aldatu, kate politikoko azken uztaietara iritsi. Iritsi zen gizabanako horietaraino, euren ondasunekin eta euren lan jardunarekin bakean bizi zirelarik, ez dutenetaraino ardurarik mugimendu politikoei ez euren iritziengatik, ez euren ogibideagatik, ez aberastasunen, askonahiaren edo loriaren interesengatik.

Amerikarrek, itxuraz ez ziotelarik borroka egiten ezpada ama aberriaren aurreiritzi tiranikoei, Ingalaterraren botere arerioak aliatu zeuzkaten; besteak, haren aberastasunez eta urguiluaz bekaizti, erabaki sekretuen bidez justiziaren garaipena bizkortzen zuten: horrela, bazirudien Europa osa zapaltzaileen aurka elkartzen zela. Frantziarrak, berriz, aldi berean eraso egin zieten errege-erreginen despotismoari, sasi-libreak ziren egitura batzuen desberdintasun politikoei, nobleen urguiluari, apaizen dominazioari, intolerantziari eta aberastasunei, feudaltasunaren abusuei, ia Europa osoa estaltzen baitzituzten; eta Europako botereak tiraniaren alde elkartu dira. Horrela, Frantziak bere alde ez ditu jaso zenbait jakintsuren ahotsa eta herri zapalduen boto herabeak baizik, eta kalumnia saiatu izan da laguntza horiek ere ebasten.

Azalduko dugu zergatik diren Frantziak eraturiko egitura eta legeak, seguruagoak, zehatzagoak eta sakonagoak, amerikarrek zuzendu dituztenak baino; zergatik ihes egin dioten aurreiritzi mota

orotako eraginari; nola eskubideen berdintasuna horietan ez duen inon ere ordezkatu interes identitate horrek, ez denak horren gehigarri ahul eta hipokrita baino; nola horietan botereen mugaketak ordezkatu duen luzaroan miretsia izan den alferrikako oreka hori; nola, nazio handi batean, halabeharrez biltzar isolatu eta partzial kopuru handi batean barreiatuan eta partekatuan, ausartu diren, lehenengo aldiz, herriari ematera subiranotasun eskubidea, ez obeditzera berehalako baieztape-nak legitimatu duen osaketa eredua duten legeak baizik, osaketa hori ordezkari batzuen esku jarri den arren; nola herriaren eskubideak edo interesak kaltetuko balitu, beti erreforma egin litekeen, herriaren borondate subiranoaren ekintza erregular baten bidez.

Descartesen jeinuak espirituei bulkada orokor hori eman ostean, giza espeziearen etorkizunean iraultza baten lehen printzipio horren ostean, harik eta gizakiak –esklabotasun eta zoritxar mende asko igaro ondoren– bere independentzia naturala berreskuratu duen askatasun sozial oso eta puruaren garai zoriontsura arte, zientzia matematiko eta fisikoen aurrerakuntzen koadroak horizonte itzela aurkeztu digu, beharrezkoa delarik horren zati anitzak banatu eta ordenatzea, nahi bada osotasuna sumatu, eta erlazioak ongi behatu.

Algebra geometriari aplikatzea ez zen soilik bi zientzia horietan asmakuntzetarako iturri oparoa izan; etsenplu paregabea emanda, frogatu zuen halaber nola magnitudeen kalkulu metodoak orokorki aplikatu zitezkeela zabaleraren neurria objektu zuten gai guztietara. Descartesek aurretik iragarri zuen erabiliko zirela –arrakasta berdinarekin– horien erlazioak zehaztasunez neur dakizkiekeen objektu guztietara. Aurkikuntza handi horrek, lehen aldiz erakusterakoan zientzien azken helburu hori –egia guztiak kalkuluaren zorroztasunaren menpe ezartzea–, berori erdiesteko esperantza ematen zuen, eta baliabideak sumarazten zituen.

Laster aurkikuntza horri jarraituko dio kalkulu berri batenak, horrek erakusten duelarik nola aurkitu kantitate aldakor baten hurrenez hurreneko hazkuntzaren edo txikiagotzeen erlazioak, edo kantitatea bera aurkitzen, erlazioaren ezagutzaren bidez; bai suposatzen badiugu hazkuntza horiei magnitude mugatu bat, bai erlazioa bilatzen bada deuseztatu egiten diren une horretan; metodo horrek, zabaltzen delarik magnitude aldakorren konbinazio guztietara, aldakuntza guztien hipotesietara, berdin daramana determinatzera, neurri zehatz bat



eman dakiekeen objektu guztietan, bai euren elementuen erlazioak, bai objektuen beren erlazioak, elkarren artean duten erlazioaren eza-gutza ematen denean, eta euren elementuen erlazioa soilik ezagutzen den arren.

Newtoni eta Leibnitzi zor diegu kalkuluen asmakuntza, aurreko belaunaldiko geometren lanek asmakuntza hori prestatu zutelarik. Haien aurrerakuntzak, mende bat ondoren etenik gabe izan direnak, jeinu gehiagoren obrak eragin eta horiei loria ekarri die, eta beha eta jarrai ditzakeen filosofoari aurkezten diote giza adimenaren indarren monumentu liluragarria.

Azaltzerakoan algebraren lengoaiaren formazioa eta printzipioak –lengoaia hori baita oraindik ere existitzen den egiazko bakarra, analitiko bakarra–, zientzia horren prozedura teknikoen natura, prozedura horien eta giza adimenaren arteko erkaketa, erakutsiko dugu metodo hori ez dela berez kantitateen zientziaren instrumentu partikularra baino, instrumentu unibertsal baten printzipioak dituela barne, ideia konbinazio guztiei aplikagarriak zaizkienak.

Mekanika arrazionala laster zientzia zabal eta sakona bilakatu zen. Gorputzen talken benetako legeak –Descartes haietan tronpatua zen– azkenik ezagutuko dira.

Huyghensek gorputzak zirkuluan duen mugimenduaren legeak aurkitu zituen; aldi berean ediren zuen, halaber, edozein kurbatako elementu bat zein zirkuluri dagokion determinatzeko metodoa. Teoria bi horiek elkartuz, Newtonek mugimendu lerromakurraren teoria aurkitzen du; planetek euren orbita eliptikoetan jarraitzen duten lege horiei, Keplerrek aurkiturikoei, aplikatzen die teoria hori.

Planeta batek, suposatzen dugularik une jakin batean espaziora jaurtia dela, abiadura eta norabide jakin batekin, eguzkiaren inguruan elipse bat jarraitzen du, astro honekiko zuzenduriko indar bat dela medio, distantzien karratuaren alderantzizko arrazoiaren proportzionala delarik. Indar berak sateliteak euren orbitetan mantentzen ditu, planeta nagusiaren inguruan. Gorputz zerutiarren sistema osora hedatzen da, berau osatzen duten elementu guztietan elkarrekikoa da.

Planeten elipsearen erregularitasuna nahasten du indar horrek, eta kalkuluak azaltzen ditu, zehaztasunez, perturbazio horien detaile ttipienak ere. Kometetan eragiten du, teoria berak haien orbitak deter-

minatzen irakasten baitu, haien itzulera iragartzen. Lurraren eta ilar-  
giaren errotazio ardatzetan ikusiriko mugimenduek indar unibertsal  
horren lekukotasuna ematen dute halaber. Hura da, azkenik, gorputz  
lurtarren pisuaren kausa, horietan konstantea dirudielarik, ezin baiti-  
tugu behatu ekimen zentrotik distantzia diferentetean.

Horrela, gizakiak azkenik ezagutu du, lehendabizi, unibertsoa-  
ren lege fisikoetariko bat; eta bakarra da oraindik, errebelatu duen  
horren loria legez.

Ehun urteko lanek konfirmatu dute lege hori, fenomeno zeru-  
tiar guztiak haren menpe daudelarik zehaztasun ia mirakuluzko bate-  
kin; horietako bat lege horretan salbuespen dela iruditu izan den  
bakoitzean, zehaztasun falta hori berehala garaipen berri baten sub-  
jektu bilakatu da.

Filosofia ia beti dago behartuta bilatzera, jeinudun pertsona  
baten obretan, hura zuzendu duen haria; baina kasu honetan, interesak  
–miresmenak inspiratuta– eragin du anekdota baliosak aurkitzea eta  
gordetzea, horiek zilegi egiten dutelarik Newtonen ibilbidea urratsez  
urrats jarraitzea. Balioko digute erakusteko nola patuaren zorioneko  
konbinazioak tartean sartu diren, jeinuaren ahaleginekin batera, aurki-  
kuntza handi baterako; eta nola konbinazio ez hain faboragarriek gel-  
dotu zezaketen edo beste esku batzuentzat laga.

Baina Newtonek, beharbada, giza espirituaren aurrerakuntzaren  
onerako, naturaren lege orokor hori aurkitzea baino zerbait gehiago  
egin zuen: gizakiei irakatsi zien fisikan ez admititzen teoria zehatz eta  
kalkulatuak baizik, azaltzen dutenak ez soilik fenomeno baten existen-  
tzia, baizik eta haren kantitatea eta hedadura ere. Dena den, aurpegira-  
tu zitzaion antzinakoen ezkutuko nolakotasunak berpiztea, mugatu bai-  
tzen fenomeno zerutarren kausa orokorra gertaera simple batean biltze-  
ra, horren egiazkotasun zalantzaezina behaketak argi frogatzen zuen  
arren. Eta akusazio horrek berak frogatzen du zientzien metodoek zen-  
batean zuten filosofiaren bidez argituak izateko beharra.

Estatikako eta dinamikako problema saldoa hurrenez hurren  
proposatua eta ebatzia izan zen, D'Alembertek topatu zuenerako prin-  
tzipio orokor bat, soilik nahikoa zena edozein puntu kopururen mugi-  
mendua determinatzeko, edozein indarrek mugitzen dituelarik, eta  
elkarren artean zenbait baldintzak lotuak direlarik. Laster printzipio  
hori bera figura determinatu baten gorputz mugatuetara zabaldu zuen;

baita –elastiko edo malgu– figuraz alda dezakeenetara ere, baina aldaera hori zenbait legeren araberakoa delarik, eta atalen artean baldintza jakin batzuk mantentzen dituztelarik; azkenik, fluidoetara ere, bai dentsitate bera mantentzen badute, bai hedagarritasun egoera batean badaude. Kalkulu berri bat beharrezkoa egin zen azken gai horiek askatzeko; ez zion haren jeinuari ihes egin; eta kalkulu puruko zientzia baizik ez zen izan mekanika ordutik aurrera.

Aurkikuntza horiek zientzia matematikoen arlokoak dira; baina, batetik, grabitazio unibertsalaren zein mekanikaren printzipioen natura eta, bestetik, unibertsoaren ordena eternalerako ateratzen ditugun ondorioak filosofiaren eremukoak dira. Jakin zen gorputz guztiak derrigorrezko lege batzuen menpe direla, horiek oreka eta mugimenduen erregularitasuna sortzen edo mantentzen dutelarik.

Fenomeno zerutiarrak zuzentzen dituzten legeen ezagutza; analisi matematikoaren aurkikuntzak, itxuren kalkulua egiteko metodo zehatzetara zeramatenak; doitasun hori, berorren esperantza ere ez baikenuen, bertara iritsi baitira optikako instrumentuak zein bereizketen zehaztasuna behaketen neurri bihurtzen duten horiek; denbora neurtzeko makinaren zehaztasuna; zientziekiko gustu orokorra, berorri elkartzen zaiolarik gobernuen interesa astronomoak eta astronomi behatokiak ugaritzeko; kausa horiek guztiek, bilduta, astronomiaren aurrerakuntza segurtatu zuten. Gizakiak zerua astro berriekin aberastu zuen, eta jakin zuen determinatzen eta iragartzen, zehaztasunez, bai horien posizioak, bai mugimenduak.

Fisika, apurka-apurka askatzen zelarik Descartesek emaniko azalpen lausoetatik, absurdotasun eskolastikoez libratuta, ez da jada izanen ezpada naturari esperientzia bidez itaun egiteko artea, hortik deduzitzen saiatuko direlarik, kalkuluaren bitartez, gertaera orokorragoak.

Airearen pisua ezagutua eta neurtua izan zen. Aurkitu zen argiaren transmisioa ez dela berehalakoa, eta berorren abiadura determinatu zen. Kalkulatu zen gorputz zerutiarren itxurazko kokagunetik ateratzen diren ondorioak. Eguzki-izpiak izpi sinpleagoetan deskomposatzen dira, desberdinki errefraktagarriak eta kolore diferentekoak. Ortzadarra azaldu zen; eta bere koloreak sortzeko edo desagerrarazteko modua, kalkuluaren menpe ezartzen da. Elektrizitatea, substantzia jakin batzuen propietateetatik ezagutzen zena soilik, igurtziak izan

ostean, zenbait gorputz erakartzen zituztelarik, unibertsoko fenomeno orokorretako bat bihurtzen da. Tximistaren kausa ez da jada sekretua; eta Franklinek gizakiei irakasten die berau desbideratzeko eta norbere nahierara zuzentzeko artea. Instrumentu berriak erabiltzen dira neurtzeko atmosferaren pisuaren aldakuntzak, hezetasunarenak eta gorputzen tenperaturarenak. Zientzia berri batek, meteorologia izenekoak, irakatsi zuen ezagutzen, batzuetan iragartzen, atmosferako fenomenoak, eta oraindik ezezagunak zaizkigun legeak agertuko dizkigu egunen batean.

Aurkikuntza horien koadroa aurkezterakoan, erakutsiko dugu nola fisikoak euren aurkikuntzetan gidatu dituzten metodoak araztu eta perfektionatu diren; nola esperientziak egiteko arteak, instrumentuak egitekoak, ondoz ondo zehaztasun handiago lortu duten; modu horretan fisika ez da soilik aberastu egunero egia berriekin, bestalde, jada frogatuak diren egiek zehaztasun handiagoa lortu dute; ez da soilik gertaera ezezagun andana bat behatu eta analizatu, bestetik, guztiak ere, euren zehaztasunetan, neurri zorrotzagoen menpe ezarri dira.

Fisikak ez zituen borrokatu izan behar eskolastikaren aurreiritziak baizik, eta nagitasunari hain erakargarri zaion hipotesi orokorren xarma. Beste oztopo batzuek atzeratu zuten kimikaren aurrerakuntza. Imajinatu zuten zientzia horrek urrea egiteko sekretua eta ezilkortasunarena emango zituela.

Interes handiek gizakia superstiziotsu egiten dute. Ez zen sinesten halako promesak, arima arrunten bi pasiorik bortitzenak ferekatzen dituztenak, eta gainera loriarena ere pizten dutenak, bide arruntetatik lor zitezkeenik; eta eldarniozko sineskortasunak asma zitzakeen ameskeria guztiak zeuden bilduta kimikoen buruetan.

Baina kimera horiek astiro-astiro lekua utzi zioten Descartesen filosofia mekanikoari, eta hori ere baztertua izan zelarik, lekua utzi zion kimika benetan experimental bati. Gorputzen elkarrekiko osaketak eta deskonposizioekin batera doazen fenomenoek behaketak, operazio horien legeen bilaketak, elementu gero eta sinpleagoetan substantzien analisiak, guztiak ere gero eta zehaztasun eta zorrotzasun handiagoak lortu zituzten.

Baina kimikaren aurrerakuntza horri gaineratu behar zaizkio zientzia oso baten sistema osoa hartzen duten perfektionamendu horiek, gehiago dautzanak metodoak zabaltzean, osotasuna eratzen

duten egia kopurua handitzean baino, eta zorioneko iraultza bat iragartzen eta prestatzen dutenak. Orain arte ezkutukoak zitzaizkigun fluido zabalgarriak gordetzeko eta esperientzietara lerratzeko metodo berrien aurkikuntza halakoa izan da; aurkikuntza horrek, ahalbideratzen duelarik izaki klase berri oso batean erabiltzea –baita jada ezagunak zirenetan ere, gure ikerketei alde egiten zieten egoeran baitzeuden–, eta ia konbinazio guztiei elementu gehigarri bat eskaintzen die-larik, aldatu du, nolabait esatearren, kimikaren sistema osoa. Halakoa izan da lengoia baten sorrera, substantziak izendatzen dituzten hitzek adierazten dutelarik, bai elementu amankomun bat dutenen erlazioak edo diferentziak, bai euren klasea. Halakoak dira bai lengoia zientifiko baten erabilera, bertan substantziak adierazten direlarik analitiko konbinaturiko karaktereen bitartez, eta gainera operaziorik komunenak ere adieraz ditzaketelarik; bai afinitateen lege orokorrak; bai bitarteko guztien eta instrumentu guztien erabilera, horiek fisikan balio dutelarik kalkulatzeko –zehaztasun zorrotzarekin– esperientzien emaitza; bai, azkenik, zenbait gorputzen elementuek, biltzerakoan, hartzen dituzten forma erregular eta konstanteak gidatzen dituzten legeei eta kristalizazioaren fenomenoei kalkuluaren aplikazioa.

Gizakiek, luzaroan ez baitzuten jakin adierazten munduaren formazioa, ezpada ameskeria superstiziotsu eta filosofikoekin, berau ondo ezagutzen saiatu baino lehen, azkenik, sentitu zuten beharra arreta eskrupulotsu batekin ikertzeko, bai azala, bai euren beharrek hartara zuzentzea eraginiko barnearen zati hori, bai bertan diren substantziak, bai horien distribuzio ausazkoa edo erregularra, bai osatzen dituzten masen disposizioa. Ikasi zuten itsasoaren, lurreko uren eta suaren ekintza geldo eta luzearen aztarnak ezagutzen; bereizten globoaren azalaren eta kanpo geruzaren zatiak, bertako desberdintasunak, bertan topatzen diren substantzien disposizioa. Sarritan substantziak berak, suaren, lurreko uren edo itsasoko uren obra dira, aldiz, munduaren beste zati horretan, hein handi batean substantzia heterogeneoz osatua, eta antzinagoko aldaketen trazak dituenean, horien eragileak ezezagunak zaizkigu.

Mineralak, begetalak eta animaliak espezie askotan bereizten dira, horietan banakoak aldaera sumaezinen, eskaski konstanteen, edo kausa osoki lokalen bidez bereizten direlarik: espezie horietako gehienak hurbiltzen dira amankomunean dituzten nolakotasun gutxi gora-

behera handia dela eta, nolakotasun horiek hurrenez hurreneko bereizketa gero eta zabalagoak ezartzeko balio dutelarik. Naturalistek ikasi dute banakoak metodikoki sailkatzen, jasotzen errazak diren ezaugarri jakin batzuen arabera; izaki anitzen talde zenbatezin horretan aurrera egiteko modu bakarra. Metodo horiek lengoaia erreal moduko bat dira, objektu bakoitza izendatzen delarik bere nolakotasun konstantetako batzuen bidez, eta lengoaia horretan, nolakotasun horiek ezagutuz gero, objektu batek konbentziozko lengoaiaren daraman izena jakin genezake. Lengoaia horiek berek, ongi eginak direnek, erakusten digute halaber izaki klase bakoitzarentzat zeintzuk diren nolakotasun benetan esentzialak, horien bilketak ematen duelarik antzekotasun gutxi gorabehera osoa bere gainontzeko nolakotasunetan.

Noizbait ikusi den arren urguilu horrek –gizakien begietan handitu egiten dituenak ikerketa eskusibo baten objektuak eta neketuki jasotako ezagutzak– metodo horiei garrantzi gehiegizkoa ematen diela, eta zientziazat jotzen duela ez dena nolabait berorren lengoaia errealaren hiztegia eta gramatika baizik; sarritan, halaber, alderantzizko gehiegikeriagatik, filosofia faltsu batek larregi beheratu ditu metodo horiek berak, izendadura arbitrarioekin nahastuz, eta alferrikako bilduma neketsutat jo dira.

Naturako hiru erreinu handiek ematen duten substantzien analisi kimikoa; horien kanpoaldeko itxuraren deskribapena; horien nolakotasun fisikoen, ohizko propietateen, azalpena; gorputz antolatuen –animalia zein landare– garapenaren historia, euren elikapenarena eta euren ugalketarena; horien antolaketaren zehaztasunak; horien atal anitzen anatomia, eta atal bakoitzaren funtzioak; animalien ohituren historia eta elikagaiak, beroki eta babeslekuak lortzeko, ehizakiak lortzeko edo euren arerioetatik babesteko euren historia; haien artean sortzen diren familiaren edo espeziearen araberako elkarteak; izakien kate itzela kurritzerakoan topatzen den egia saldo hori; hurrenez hurreneko uztaien erlazioek daramatelarik materia zakarrenetik antolamendu maila ahulenera, materia antolatutik sentikortasun eta mugimendu espontaneoaren lehen zantzuak agertzen dituenara; azkenik, hortik gizakiraino; izaki horien guztien harremanak gizakiarekin, bai haren beharrekin, bai haienganako hurbiltzen duten analogietan, edo bereizten dituzten diferentzietan: hori da egun historia naturalak aurkezten digun koadroa.

Gizaki fisikoa bera zientzia bereizi baten objektu da: *anatomia*. Bere adiera orokorraren arabera, barne ditu fisiologia, hildakoen errespetu superstiziotsu batek atzeratu egin duen zientzia hori, profitatu dena aurreiritzien ahultze orokorretik, baina, zorionez, norbere iraupenak sortzen duen interesa oposatu zaiolarik, pertsona boteretsuen laguntza jaso du. Bere aurrerakuntzak hain izan dira handiak, badirudi akitu ere egin dela, instrumentu perfektuagoen eta metodo berrien esperoan; badirudi mugatu dela bilatzera –animalien eta gizakien atalen arteko erkaketan, espezie diferenteen organo komunaren artekoan, antzeko funtzioak burutzeko duten moduari artekoan– gizakiaren zuzeneko behaketak egun errefusatzeko ei dizkion egia horiek. Behatzailearen begiak mikroskopiak lagunduta aurki dezakeen ia guztia jada argitua da. Badirudi anatomia esperientzien laguntzaren beharra duela, beste zientzietan hain probetxugarria izan dena, eta ematen duenez bere objektuaren naturak urrundu egiten du orain bere perfektzionamendurako hain beharrezkoa den baliabide horretatik.

Odolaren zirkulazioa luzaroan ezagutu izan da; baina haren galerak konpontzeko destinatua den kiloa daramaten odol-hodien antolaketa; baina urin gastrikoaren existentzia, urin horrek elikagaiak prestatzen baititu beharrezko deskonposaketa horretarako, fluido biziekin edo materia organikoarekin asimilatze egokia den zati horren beharrezko bereizketa horretarako; baina atal ezberdinek, organo diferenteek, izaten dituzten aldaketak, bai ernalketa eta jaiotza bereizten dituen espazioan, bai, garai horren ostean, bizitzako garai ezberdinetan; baina sentikorrak diren atalen bereizketa, edo suminkortasun hori, Haller-ek aurkitutako hori, ia izaki organiko guztiei amankomuna zaiena; hara fisiologiak, garai bikain honetan jakin duena aurkitzen, eta behaketa seguruen laguntzaz topatzen; eta horren beste egia garrantzitsuk barkamena emango diete azalpen mekaniko, kimiko, organiko horiei, hurrenez hurren, fisiologia gainzamatu dutenei zientziaren aurrerakuntzarako hain kaltegarriak diren hipotesiekin, arriskutsuak direnekin horien aplikazioa medikuntzara hedatzen denean.

Zientzien koadroari arteena gaineratu beharko zaio, zientziez baliatzen direlarik, martxa seguruagoa baitaramate, eta egunerokotasunak ezarri zizkien kateak hautsi dituzte.

Erakutsiko dugu zer eragin izan duten mekanikako aurrerakuntzek, astronomiarenek, optikarenek eta denbora neurtzekoek, itsasontziak eraikitzeko, mugitzeko eta gidatzeko artean. Azalduko dugu nola behatzaile kopuruaren ugaltzeak, nabigatzailearen trebetasun handiagoak, posizioen determinazio astronomikoan eta metodo topografikoetan zehaztasun zorrotzago batek, eragin duten azken mendera arte ia ezezaguna zen mundua ezagutzea azkenik; zenbat zor dieten arte mekanikoek orokorki instrumentuak, makinak edo tresnak egiteko artearen perfektzionamenduei; eta horiek mekanika arrazionalarenei eta fisikarenei; arte horiek ere jada ezagutzen diren motorren erabileraren zientziari –galera eta gastu gutxiagoarekin– edo motor berrien asmakuntzari.

Ikusiko da nola hartzen dituen arkitekturak orekaren zientziatik eta fluidoen teoriatik bobedei –eraikuntzen solidotasuna eraldatzeko arriskurik gabe– forma erosoagoak eta ez hain garestiak emateko baliabideak, ziurrago kalkulaturiko erresistentzia bat, uren indarrari oposatzeko, uraren ibilbidea gidatzeko, kanaletan erabiltzeko trebetasun eta arrakasta handiagoaz.

Ikusiko da arte kimikoak prozedura berriekin aberasten; antzinako metodoak arazten, sinplifikatzen; gainetik kentzen errutinak ekarritakoa substantzia ezdeus edo kaltegarritan, praktika hutsal edo inperfektuetan. Aldi berean, aurkitzen ditugu arriskueta zati bat ekiditeko baliabideak, langileek dauzkaten arrisku horiek sarri izugarriak baitira. Horrela, gozamen eta aberastasun gehiago eskainiz, ez ziren ordaindu behar horrenbeste sakrifizio mingarriekin, eta hainbeste alhadurarekin.

Hala ere, kimikak, botanikak eta historia naturalak argi eman kor bat zabaltzen zuten arte ekonomikoetan; behar ezberdinetara zuzenduriko begetalen laborantzan; etxeko abereak elikatzeke, ugaltzeko, mantentzeko artean, arrazak perfektzionatzekoan, ekoizpenak hobetzekoan; lurraren ekoizpenak prestatzeko eta mantentzekoan, edo abereak ematen dizkiguten jeneroenean.

Kirurgia eta farmazia arte ia berriak bilakatzen dira, anatomiak eta kimikak gida argiagoak eta seguruagoak eskaintzen dizkieten unetik.

Medikuntza, praktikan arte bat kontsideratu behar dena, libratzen da teoria faltsuez, bere argot pedanteaz, bere errutina hilkorraz,



gizakien autoritatearekiko duen mendekotasun morroiaz, fakultateen doktrinez; ikasten du esperientziaz baizik ez fidatzen. Baliabideak ugaritzen ditu; badaki horiek hobeto konbinatzen eta erabiltzen; eta, zenbait alderditan, bere aurrerakuntzak nolabait negatiboak diren arren, nahiz eta soilik mugatzen diren suntsitzera praktika arrisku-tsuak edo aurreiritzi higuingarriak, medikuntzak dauzkan kimika ikasteko eta behaketak konbinatzeko metodo berriek iragartzen dute aurrerakuntza benetakoagoak eta zabalagoak.

Batez ere, saiaturako gara jarraitzen zientzien jeinu hori, batzue-tan, aplikazio jakintsu eta delikatuena teoria abstraktu eta sakon bate-tik datorrena, ondoren, bere baliabideak sinplifikatuz, beharretara moldatuz, azkenik bere ontasunak praktikarik arruntenetara hedatzen dituelarik; besteetan, praktika beraren beharrek bultzatuta, espekula-ziorik garaienetan bilatuko ditu ezagutza komunek ukatuko zizkieten baliabideak.

Erakutsiko dugu nola teorien hutsaltasunaren aurkako dekla-mazioek, baita arte sinpleenen kasuan ere, ez dutela frogatzen ezpada deklamatzaileen ezjakintasuna. Agertuko dugu ez dela teoria horien sakontasuna, baizik eta euren inperfekzioa, eragiten duena horrenbes-te zorigaiztoko aplikazioen hutsaltasuna edo efektu deitoragarriak.

Behaketa horiek ondoko egia orokor honetara daramate: arte guztietan, teoriaren egiak derrigorrean aldatzen direla praktikaren bidez; existitzen direla akatsak benetan saihestezinak, horien efektua sentiezina egin beharko delarik, jausi barik horiek aurreikusteko espe-rantza kimerikoan; beharren, baliabideen, denboraren, gastuaren ingu-ruko datu kopuru handi bat, teorian halabeharrez alde batera uzten dena, sartu behar dela berehalako eta benetako praktikak dakartzan arazoetan; eta, azkenik, datu horiek sartzerakoan benetan praktikaren jeinua den trebetasun batekin, aldi berean, arteak gelditzea mehatxa-tzen duten teorien muga estuak igaro daitezkeela, eta aurreikusi teo-riaren erabilera dorpe batek eragin ditzakeen akatsak.

Zientziak, bereiztuak zirelarik, ezin ziren zabaldu elkarri hur-bildu barik, elkarren artean kontaktu puntu batzuk sortu gabe.

Zientzia bakoitzeko aurrerakuntzen azalpena nahikoa litzateke ondokoak erakusteko: Zein izan den horietako gehienetan kalkulua-ren berehalako aplikazioaren probetxua. Ia denetan, zenbat erabili den esperientziei eta behaketei emateko zehaztasun handiago bat. Zer

zor dieten mekanikari, instrumentu perfektuagoak eta doiagoak eman baitizkie. Zenbat lagundu duen mikroskopioen eta instrumentu meteorologikoen aurkikuntzak historia naturalaren perfektzionamenduan. Zientzia horrek zenbat zor dion kimikari, honek soilik gidatu baitu hark kontuan hartzen dituen objektuen ezagutza sakonago batera; kimikak natura gertuagoko bat erakutsi dio, diferentziarik esentziale-nak, elementuen osaera erakusterakoan; berriz, historia naturalak kimikari hainbeste produktu erakutsi dizkio bereiztekoak eta biltze-koak, horrenbeste eragiketa egitekoak zirenak, erakutsi dizkio natu-rak eraturiko hainbeste konbinazio, horien benetako elementuak bereiztu behar zirelarik, eta batzuetan sekretua aurkitu edo imitatu ere. Azkenik, zer-nolako laguntza eman dioten elkarri fisikak eta kimikak, eta zenbat jaso duen anatomiak, bai historia naturaletik zein zientzietatik.

Baina ez dugu azaldu ezpada aplikazio horretatik espero dai-tezkeen abantailen zati txiki bat baino. Geometra askok eskaini dituz-te metodo orokorrak, behaketen ostean, fenomenoen lege enpirikoak topatzeko; zientzia guztietara hedatzen diren metodoak, berdin eroan baitezakete ezagutzera, bai une edo posizio segida batentzat kantitate baten hurrenez hurreneko balioen legea, bai objektu kopuru jakin batentzat propietate ezberdinak edo antzeko kalitateko balio anitzak banatzen dituen legea.

Jada zenbait aplikaziok frogatu dute arrakastaz erabil daitekee-la konbinazioen zientzia, bilketaren harremanak eta emaitzak erraz-kiago edireteko moduan ezar daitezen behaketak.

Probabilitateen kalkuluaren aplikazioek iragartzen dute zenba-tean lagun diezaieketen gainontzeko zientziei; hemen, determinatuz ohiz kanpoko gertaeren egiazkotasuna, eta juzgatzen irakatsiz ukatuak izan behar diren edo, aldiz, egiaztatuak izan behar dien; han, kalkula-tuz arteen praktikan maiz agertzen den gertaeren itzulera konstantea, horiek ez direlarik berez lotuak jada lege orokor bezala kontsideratua den ordena bati: hori da, esaterako, medikuntzan, zenbait sendabide-ren efektu osasungarria, zenbait profilaktikoren arrakasta. Aplikazio horiek erakutsiko digute, halaber, zein den fenomeno multzo baten bilketa bat izaki adimentsu baten intentzioaren ondorioa izateko pro-babilitatea, edo harekin batera edo aurretik doazen fenomeno batzuen araberakoa den; eta zer egotzi behar zaion zori deritzagun kausa beha-

rezko eta ezezagun horri; kalkulu horren ikerketak erakutsiko digu adiera horren benetako zentzua.

Aplikazio horiek erakutsi dute, halaber, lortzea espero geneza-keen zehaztasun maila anitzak ezagutzen; iritzi bat hartzeko orduan zein egiazkotasun maila daukagun, gure arrazoiketen oinarri egiteko, kalte egin barik arrazoimenaren eskubideei eta gure jarreraren arauari, zuhurtasunari huts egin gabe, edo justiziari ofentsa egin gabe. Erakusten dituzte aukera forma anitzen abantailak edo eragozpenak, ahots aniztasunaren arabera harturiko erabakien modu diferenteenak; hortik sor daitezkeen probabilitate maila ezberdinak; interes publikoak gai bakoitzaren natura jarraituz eska dezakeen probabilitatea; baliabideak, bai modu ia seguruan probabilitatea lortzeko, ez denean beharrezkoa erabakitzea, edo, aukera bien eragozpenak ezberdinak direlarik, horietako bat ezin denean legitimoa izan, probabilitate horren azpitik baitago; bai probabilitate hori sarritan lortzeko aurretik ziurtatzeko baliabidea, aldiz, erabakia beharrezkoa denean, eta egiazkotasun ahulena ere nahikoa denean hartara moldatzeko.

Aplikazio horien artean ezar dezakegu ere gertaeren probabilitatearen azterketa, behaketez lagunduta soilik adostasuna oinarritzerik ez dagoenean; lekukotasunen autoritatetik edo gertaera batzuk segidan behaturiko beste batzuekin lotzetik dator probabilitate hori.

Zenbateraino ez ote dira gizakien iraupenari buruzko ikerketak; iraupen horretan sexuen diferentziak, tenperaturenak, klimak, ogibideek, gobernuek, bizitzako ohiturek duten eraginaren ikerketak; gaixotasun anitzetatik datorren hilkortasunaren inguruan eginiko ikerketak; populazioak dauzkan aldaketen ingurukoak; aldaketa horiek eragiten dituzten kausa anitzen ekintzaren hedaduraren ingurukoak; adinaren, sexuaren edo ogibidearen arabera, herrialde bakoitzean duen banaketaren gainekoak; zenbateraino ikerketa horiek guztiak ez ote dira probetxugarri izanzen gizakiaren ezagutza fisikorako, medikuntzarako, ekonomia publikorako!

Zer-nolako erabilera egin duen ekonomia publikoak kalkulu horiekin, ezartzeko biziarteko errentak, mutualitateak, akumulazio kutzak eta sorospenak, mota orotako seguru ganberak!

Kalkuluaren aplikazioa ez al da beharrezkoa halaber ekonomia publikoaren atal horrentzat, barne hartzen dituenarentzat neurrien teo-

ria, monetena, bankuena, finantza operazioena, eta zergena, legeak horiekin egiten duen banaketarena, sarritan legetik alderatzen den benetako banaketarena, sistema sozialeko alderdi guztietan dituen eraginena?

Zenbat gai garrantzitsu, zientzia horretan bertan, ez ote dira ongi erabaki historia naturaletik, nekazaritzatik, fisika begetaetik, arte mekanikoetatik edo kimikoetatik jasotako ezagutzen bitartez!

Hitz batean, halakoa izan da zientzien aurrerakuntza orokorra, ezin baita esan baten bat dagoenik bere printzipio guztiak, bere zehaztasun guztiak, bil ditzakeena gainontzeko guztien laguntzarik gabe.

Koadro hau aurkezterakoan –bai zientzia bakoitza aberasten duten egia berriak, bai partikularragoki beste ordena bateko ezagutzei ei dagozkien teoria edo metodoen aplikazioari zor diona zientzia bakoitzak–, ikertzen dugu zientzia bakoitzean behaketak, esperientziak, hausnarketak haietara garamatzaten egien natura eta muga zein den; ikertzen dugu halaber zertan datzan zientzia bakoitzean askakuntzaren talentua, *jeinu* deritzagun giza adimenaren lehen ahalmen hori; zer operazio bidez irits daitekeen espiritua bilatzen ari den aurkikuntza horietara, edo, batzuetan, bilatzen ez dituen horietara, aurreikusi ez zituenetara. Erakutsiko dugu nola aurkikuntza horietara garamatzaten metodoak agor daitezkeen, zientzia nolabait gelditzera behartua egongo delarik, metodo berriek ez baldin badiote jeinuari instrumentu berri bat eskaintzen, edo errazten orain denbora eta esfortzu larregi eskatzen dizkioten horiek.

Mugatuko bagina erakustera zientzietatik erdietsi diren abantailak, zientzia horien berehalako erabileran, edo arteekin eginiko aplikazioetan, bai gizabanakoen ongizaterako, bai nazioen oparotasunerako, ez genukeen oraindik ere haien onuraren zati txiki bat baizik ezagutaraziko. Beharbada garrantzitsuena da aurreiritziak suntsitu izana, eta nolabait giza adimena berzuzentzea, bortxatua baitzegoen men egitera belaunaldi bakoitzaren haurtzaroan transmititzen diren sineskeria absurdoek emaniko norabide faltsuei, superstizioaren terroreei eta tiraniaren izuari.

Politikan, moralean, errore guztiek oinarri dituzte errore filosofikoak, horiek aldi berean errore fisikoei lotuak direlarik. Ez da existitzen, erlijio sistemarik edo bitxikeria supernaturalik, ez denik

oinarritzen naturaren legeen ezjakintasunean. Absurdokeria horien asmatzaileek, defendatzaileek, ezin zuten aurreikusi giza espirituaren perfektionamendu etengabea. Pentsatuta euren garaiko pertsonen bazekitela inoiz jakiterik zen guztia, eta beti sinetsiko zutela orduan sinesten zutena, konfiantza handiarekin, euren herrialdeko eta euren mendeko iritzi orokorreaz lagundu ziren euren ameskerietarako.

Ezagutza fisikoen aurrerakuntzak oraindik okerragoak dira errore horientzat, sarritan suntsitu egiten baitituzte eraso egiten ez dietela dirudien arren, eta horiek defendatzen dituztenen gainean ezjakintasunaren irigarritasun bilautzailea hedatzen dute.

Aldi berean, zientzia horien objektuen gainean zuzen arrazoi-  
tzeko ohiturak, euren metodoek ematen dituzten ideia zehatzek, egia bat ezagutzeko edo frogatzeko baliabideek, horiek guztiek naturalki eroan behar dute erkatzera, batetik, sinesgarritasun kausa erreal horietan funtsatzen diren iritziei atxikitzen behartzen gaituen sentimendua eta, bestetik, ohituraren iritzietara atxikitzen gaituena, edo autoritateari men egitera behartzen gaituena: erkaketa hori nahikoa da ulertarazteko azken iritzi horiez mesfidati izateko beharra, sentiarazteko ez ditugula benetan sinesten, nahiz eta harrotzen garen horiek sinesteaz eta zintzotasun osoz estimatzeaz. Alabaina, sekretu horrek, behin agerian geratzen denean, berorren suntsipen azkarra eta segurua dakar.

Azkenik, pasioek eta interesak eragotziko ez duten zientzia fisikoen ibilbide hori –ibilbide horretan jaiotzak, ogibideak eta lekuak ez dute aukerarik ematen batek uler ez dezakeena juzgatzeko–, ibilbide seguruago hori ezin zen behatu beste zientzietan pertsona ilustratuak ez balira etengabe saiatu hartara hurbiltzen. Urrats bakoitzean eskaintzen zien eredu bat, jarraitu behar zutena, haren arabera juzga zitzaketelarik euren ahaleginak berak, gal zitzakeen bide okerrak ezagutu, babestu bai pirronismotik zein sineskortasunetik, baita lehia itsu batetik ere, argien edo ospearen autoritatearekiko mendekotasun ia oso batetik.

Zalantzarik gabe, analisi metafisikoak emaitza beretara zerman, baina ez zituen ematen manu abstraktuak baizik. Printzipio abstraktuak berak, jardueran ezartzerakoan, etsenpluak argitzen zituen, eta arrakastak indartzen.

Garai horretara arte zientziak ez ziren gizaki gutxi batzuen jabego baino; jada komun bilakatu dira, eta gerturatzen ari da unea

haien elementuak, haien printzipioak, haien metodoak, benetan herri-koi bihurtuko direna. Orduan haien aplikazioa arteetan, haien influentzia espirituen zuzentasun orokorrean, erabilgarritasun benetan unibertsalekoak izanen dira.

Jarraituko dugu nazio europarren aurrerakuntza heziketan, bai haurrenean, bai helduenean; oraindano aurrerakuntza ahulak, begiratzeko badiogu soilik heziketa horren sistema filosofikoari, ia leku guztietan oraindik ere aurreiritzi eskolastikoen menpe baitago; baina zeharo azkarrak, kontsideratzen badugu hezkuntza objektuen hedadura eta natura, hezkuntzak soilik barne dauzkanez ezagutza errealak, barne ditu ia zientzia guztietako elementuak, horrela, adin guztietako gizakiek hiztegietan, bildumetan edo egunkarietan topatzen dituzte beharrezko dituzten argiak, bertan beti egoera guztiz puruan agertzen ez bazaizkie ere. Aztertuko dugu zein izan den zuzenean liburuetatik edo ikasketatik jasotzen den probetxua eta ahozko hezkuntza batzetik datorrena; aztertuko dugu, modu berean, abantailarik ateratzen den bildumak egiteko jarduera benetakoa ogibide bilakatzetik, bizibide izatetik, maila kaskarreko lanak ugaritu egin baititu, baina ugaltu ditu, halaber, gutxi heziriko pertsonentzat, ezagutza komunak jasotzeko baliabideak. Azalduko dugu zer eragin izan duten jakintsuen elkarte horiek giza espirituaren aurrerakuntzan, hesi bat baitira luzaroan aurka egingo diona hitzontzikeriari eta jakintza faltsuari; azkenik, gobernuak giza espirituaren aurrerakuntzei eman dizkieten suspengarrien historia egingo dugu, eta sarritan herrialde eta garai berean jarri dizkieten oztopoena ere; ikusaraziko dugu zein aurreiritzi edo zein makiavelismo printzipiorenkin oztopatu den espirituen egiaranzko mar-txa; zein politika interesatuko edo on publikoko ikuspegik gidatu dituen gobernuak, aldiz, itxura egin dutenean bizkortu eta babestu nahi zutela.

Arte ederren koadroak emaitza bikainak eskaintzen ditu hala-ber. Musika nolabait arte berri bat bilakatu da; aldi berean, gorputz soinu-dunaren bibrazioetara kalkularen aplikatzearen eta konbinazio-aren zientziak, eta airearen oszilazioenak, teoria argitu dute. Marrazkiaren arteak, Italiatik igaro zirenak Flandesera, Espainiara eta Fran-tziara, azken herrialde honetan, Italiak aurreko garaian eramane zituen leku berberera iritsi ziren, eta Italian baino distira handiagoa eman zitzaizkien gainera. Gure margolarien artea Rafaelena eta Carracherena

da. Baliabide horiek guztiak, eskoletan kontserbatuak, galdu ordeztu, hedatuagoak izan dira. Hala ere, denbora larregi igaro da produzitu gabe ezer jeinudunik harekin erkatu daitekeenik, antzutasun luze hori zoriari baino ez egozteko. Ez da arteetako baliabideak agortu direnik, baizik eta arrakasta handiak benetan gero eta zailagoak bilakatu direla. Ez da naturak ukatu dizkigunik XVI. mendeko italiarrek zeuzkaten organo perfektu batzuk; soilik gertatzen da politikan zein azturetan izan diren aldaketei egotzi behar zaiola, ez artearen dekadentzia, ekoizpenen eskastasuna baizik.

Letrak –Italian endekatu ez ziren arren, arrakasta txikiagoaz jorratuak–, frantses hizkuntzan aurrerakuntzak izan dituzte mereziarazi dietenak nolabait Europako hizkuntza unibertsal bihurtzeko oho-rea.

Arte tragikoa, Corneilleren, Racinen, Voltaireren eskutan, igo da, aurrerakuntza jarraituarekin, ordura arte ezagutu ez zen perfektzio batera. Arte komikoak Moliéren zor dio iristea hain azkar nazio ezei- nek inoiz lortu ez duen garaiera batera.

Inglaterra, garai horren hasieratik, eta Alemanian, gurearenetik denbora gertuagoko batean, hizkuntza perfektzionatu zen. Poesiaren artea eta prosa idaztekoarena –baina Frantzia baino otzantasan handiagoarekin– arrazoimenaren eta naturaren arau unibertsalen menpe egon dira, horiek gidatu behar baitituzte. Berdin dira benetakoak hizkuntza eta herri guztientzat, nahiz eta oraina arte gutxi batzuek soilik ezagutu dituzten, eta iritsi diren gustu seguru eta zuzen horretara, ez dena arau horien sentimendua baino, Sofoklesen eta Virgilioren idazkietan agertzen dena gidari, baita Popenean eta Voltaire-renean ere: greziarrei eta erromatarrei, frantziarrei bezala, edertasun berek liluratzen eta akats berek asaldatzen irakasten diete.

Azalduko dugu nazio bakoitzean zerk sustatu edo geldotu duen arte horien aurrerakuntza; zer dela eta poesiaren genero ezberdinak edo prosako obrak, herrialde diferenteetan, lortu duten perfektzio hain desberdina; eta nola arau unibertsal horiek, horien oinarri diren printzipioei kalte egin gabe, eraldatuak izan daitezkeen ohiturak direla eta, arte horietako ekoizpenak gozatu behar dituzten jendeen iritzien arabera, eta genero ezberdin horiek zuzenduak diren ohituren naturagatik beragatik. Horrela, esaterako, ohizko tragediak –egunero errezitatzen zelarik entzule kopuru txiki baten aurrean sala txiki batean– ezin

zituen eduki –jai solemne batean herri osoa inbitatua zelarik– antzoki itzel batean abesturikoaren arau praktikoak. Saiatuko gara frogatzen gustuaren arauak orokortasun zein konstantzia bera dutela, baina alda-keta bera ere paira dezaketela unibertso moral eta praktikoko gainon-tzeko legeek bezala, ohizko arte baten berehalako praktika zuzenari aplikatu behar zaizkienean.

Erakutsiko dugu nola inpresioak, ugaltzen edo hedatzen ditue-nean publikoki irakurriak edo errexitatuak izatekoak diren obrak, entzuleen kopurua baino arraz handiagoa den irakurle kopuru bati transmititzen dizkion; nola ia erabaki garrantzitsu guztiak, jende fran-ko duten biltzarretan hartzen direnak, determinatuak diren berorien kideek irakurketaren bidez izan duten heziketagatik, hortik dator, bai antzinakoen zein modernoek konbentzitzeko artean, diferentzia ana-logoak eman behar izan direla arte horrek sortutako efektuan eta era-bilitako baliabideetan; nola, azkenik, baita antzinakoen kasuan ere, obren irakurpena mugatzen diren generoetan –hala nola, historia edo filosofia– inprentaren asmakuntzak eman dituen erraztasunak –garapen handiagoa eta zehaztasun gehiago emateko orduan– arau horietan ere eragina izan beharko zuen.

Filosofiaren eta zientzien aurrerakuntzek zabaldu eta faboratu egin dituzte letrenak, eta azken horiek zientzien ikasketa erraztu, eta filosofia herrikoitu dute. Elkarri laguntza eman diote, ezjakintasunak eta ergeltasunak horiek bereiz eta arerio izan daitezen egin dituzten ahaleginak gorabehera. Erudizioak, giza autoritatearekiko mendekota-sunak eta antzinako gauzekiko errespetuak bazirudielarik aurreiritzi gogaikarriak sostengatzeko destinatzen zutela, erudizioak, nolana-hi ere, lagundu du horiek suntsitzen, zientziek eta filosofiak kritika osa-sungarriago baten zuzia eskaini baitiote. Bazekien jada autoritateak haztatzen, horien artean erkatzen; amaitu du horiek arrazoimenaren epaimahai berean ezartzen. Gauza liluragarriak, kontu absurdoak edo egiantzekotasunaren aurkako gertaerak baztertu zituen; baina horiek oinarri dituzten lekukotasunei eraso eginez, beranduago jakin du arbuizatzen, lekukotasun horien indarra gorabehera, amore eman gabe ezpada ohiz kanpoko gertaeren egiantzekotasun falta fisikoa edo morala gailentzen duen egiantzekotasun horren aurrean.

Horrela, gizakien jardura intelektual guztiak, daukaten objek-tuen, metodoaren, edo eskatzen duten espirituaren nolakotasunen ara-



bera diferenteak diren arren, giza arrazoimenaren aurrerakuntzarako elkartu dira denak. Izan ere, gizakien lanen sistema osoan, ongi egini-ko obran legez, atal guztiek, metodoz bereiziak izan behar dutenek, dena den estuki lotuak egon behar dute halaber, osotasun bakarra eratuz, eta helburu bakarrera joz.

Giza espeziearen gainean begirada orokor bat zuzentzen badugu orain, agertuko dugu nola zientzia guztietan benetako metodoen aurkikuntza, horiek barne dituzten teorien zabalera, horien aplikazioa naturako objektuei, gizakien behar guztiei, elkarren artean sortzen diren komunikazio lerroak, jorratzen dituztenen kopuru handia, azkenik, inprimategien ugaltzea, horiek guztiak nahikoak direla erantzun dezagun horietako bat bera ere ezin dela jaitsi orain iritsi den puntutik behera. Ohartaraziko dugu filosofiaren printzipioak, askatasunaren maximak, gizakiaren eskubideen eta benetako interesen ezagutza, horiek guztiak nazio kopuru handiegi batean hedatuak direla, eta horietako bakoitzean pertsona ilustratu kopuru arras handiaren iritziak zuzentzen dituela, beldur izateko, noizbait ahanztziak izanen direlakoan.

Eta zer beldur izan genezake gainera, ikusita hedatuen diren bi hizkuntzak direla gainera askatasun handiena gozatzen duten bi herrien hizkuntzak, askatasunaren printzipioak hobekien ezagutzen dituzten herrienak; modu horretan, tiranoen ezein ligak, ezta posible diren konbinazio politiko ezeinek ere, ezin izanen du ekidin tinko defendatzea, bi hizkuntza horietan, arrazoimenaren zein askatasunaren eskubideak.

Baina denak esaten badigu giza espezieak ez duela itzuli behar bere antzinako basakeriara; denak ziurtatzen bagaitu sistema koldar eta ustel horren aurka, kondenatua den hori, egia-aren eta errearen, askatasunaren eta morrontzaren, oszilazioen artean eternalki egotera; aldi berean, ikusten dugu argiek ez dutela betetzen ezpada munduaren zati txiki bat, eta benetan argi horiek dituzten pertsonen kopurua desagertu egiten da aurreiritzien eta ezjakintasunaren menpe direnen masaren azpian. Eskualde itzelak ikusten ditugu esklabotasunaren azpian intzirika, eta ez dizkigute erakusten ezpada nazio batzuk, batzuetan, haien martxa geldotzen duen ustelkeria duten zibilizazio baten bizioekin endekatuak, bestetzueta, lehen garaietako haurtzarotan begetatzen. Ikusten dugu azken garai hauetako lanek asko egin

dutela giza espirituaren aurrerakuntzaren alde, baina gutxi giza espeziearen perfektionamendurako; asko gizakiaren loriarako, zertxobait bere askatasunaren alde, ia ezer bere zorionerako. Puntu batzuetan, gure begiak liluratuak dira argi distiratsu batez, baina lanbro ilunek estaltzen dute zeruertz zabala. Filosofoaren arimak atseden hartzen du objektu gutxi batzuekin; baina ergeltasunaren, esklabotasunaren, bitxikeriaren eta basakeriaren ikuskizunak sarriago sumintzen du oraindik; eta gizateriaren lagunak etorkizunaren esperantzan abandonatzerakoan topatzen du soilik nahasturarik gabeko atsegina.

Horiek lakoak dira giza espirituaren aurrerakuntzen koadro historiko batean egon behar duten objektuak. Horiek aurkezterakoan saiaturako gara erakusten batez ere aurrerakuntza horien eragina iritzietan, nazio anitzen masa orokorraren ongizatean, euren existentzia politikoaren garai ezberdinetan; erakusten zer egia ezagutu dituzten; zer erroretatik desengainatu diren; zer ohitura bertutetsu hartu dituzten; ea euren ahalmenen zein garapen berrik ezarri duen zorionekoago proportzio bat euren ahalmenen eta beharren artean; eta, alderantziko ikuspegitik, zein aurreiritziren esklabo izan diren; zein erlijio edo politika arloko superstizio izan diren sartuak; zer bizio dela-eta ezjakintasunak edo despotismoak usteldu dituen; zein miseriatarata bultzatu dituzten biolentziak edo euren endekatzeak berak. Oraindaino, historia politikoa, baita filosofiarena eta zientziena ere, ez da izan gizaki batzuen historia baino. Benetan giza espeziea osatzen duena, ia osoki euren lan jardunaren bidez bizi diren familien masa hori, ahanztzia izan da; eta berdin ogibide publikoetan diharduen klase horrekin, ez eurentzat baizik eta gizartearentzat lan egiten dutenekin, horien ogibidea delarik hezte, gobernatzea, beste gizakiak defendatzea, laguntzea. Buruzagiek soilik jaso dute historialarien arreta.

Gizabanakoen historiarako nahikoa da gertaerak jasotzea, baina gizaki masa baten historia ezin daiteke behaketetan soilik funtsatu, eta, behaketa horiek aukeratzeko, traza esentzialak jasotzeko, beharrezkoak dira argiak, eta ia beste horrenbeste filosofia, argi horiek ongi erabiltzeko.

Bestalde, behaketa horiek hemen objektu dituzte gauza komunak, begi guztietara iristen direnak, bakoitzak nahi duenean bere kabuz ezagut ditzakeenak. Gainera, jaso diren ia guztiak bidaiariei zor zaizkie, atzerritarrek eginak dira, ezen gauza horiek, existitzen diren

lekuan hain arruntak izanik, haientzat bitxiak dira. Alabaina, male-ruski, bidaiaari horiek ia beti ez dira behatzaile zorrotzak; objektuak azkarregi behatzen dituzte, euren herrialdeko aurreiritziekin, eta, sarritan, dabiltnan herrialdeko pertsonen begien bitartez. Zoriak haiekin elkartu dituen pertsoneri itauntzen diete; eta erantzuna ia beti interresak, alderdiaren espirituak, urguilu nazionalak edo uneko aldarteak erabakitzen du.

Ez zaio hortaz historialarien zitalkeriari soilik egotzi behar –monarken kasuan zuzen egin den arren– dokumentuen urritasuna, gizakiaren historiaren zatirik garrantzitsuena trazatzen uzten digun horrena.

Dokumentu horiek inperfektuki soilik ordezkia daitezke legeen zein ekonomia publikoaren eta gobernuaren printzipio praktikoen eza-gutzarekin, edo erlijioen zein aurreiritzi orokorrenarekin. Izan ere, lege idatzia, eta lege egikaritua; gobernatzen dutenen printzipioak, eta gobernatuak direnen espirituak haien jardueran aldaketak ezartzeko modua; osatzen duten pertsonetatik datorren erakundea, eta erakundea errealtate egina; liburuetao erlijioa, eta jendearena; aurreiritzi baten itxurazko unibertsaltasuna, eta benetan duen atxikimendua; horiek guztiak horrenbesteko diferentzia izan dezakete, ezen ondorioek ez diete absolutuki erantzungo kausa publiko eta ezagunei.

Giza espeziearen historiaren zati horri –ilunena, baztertuen, eta monumentuek horren material gutxi eskaintzen digutena– atxiki behar gatzazkio koadro honetan; eta, berri ematen badugu teoria garrantzitsu baten aurkikuntza, legeen sistema berri batez, edo iraultza politiko batez, arduratu behar gara determinatzeaz zer ondorio izan duten gizarte bakoitzeko gehiengoan; hori baita filosofiaren benetako objektua, kausa horien tarteko efektu guztiak ezin baitira begiratu ezpada giza espeziea benetan osatzen duen gizartearen zati handien horrengan eragiteko baliabide legez.

Katearen azken maila horretara lerratzerakoan, iragandako gertaeren behaketa, eta hausnarketaren bidez lorturiko ezagutzak ere, bilakatzen dira benetan probetxugarri. Puntu horretara iristerakoan balora ditzakete gizakiek loriarako duten benetako titulua, edo gozatu, plazer ziur batekin, euren arrazoimenaren aurrerakuntza; soilik orduan juzga daiteke giza espeziearen benetako perfektzionamendua.

Idea hori, dena azken puntu horretara lerratzearena, justiziak eta arrazoimenak agintzen du; baina sentitu daiteke kimerikotzat jotzeko tentazioa. Hala ere, ez da kimerikoa. Hemen nahikoa zaigu bi etsenplu argi aipatzea.

Kontsumo objekturik ohizkoenen jabegoa, gure zorua eman-kortzen duten gizakien beharrak erruz asetzen dituzten horiena, zor zaie argiek eta zientziek lagundu duten industria baten luzaroko aha-leginei; eta jabego hori historiak Salaminako gerrari egozten dio, hura gabe ekialdeko despotismoaren lanbroak lur osoa estal baitzezakeen. Longitudearen neurketa zehatz batek naufragiotik babesten duen marinelak teoria bati zor dio bizia; teoria hori, egia kate baten bidez, Platonen eskolan eginiko asmakuntzetara lerratzen da, asmakuntzok hogei mendez alferrik gorde izan direlarik.

## HAMARGARREN GARAIA

### *Giza espirituaren etorkizuneko aurrerakuntzez*

Gizakiak iragar baditzake lege ezagunak dituen fenomenoak ia segurtasun osoarekin; ezezagunak diren arren, ahal baditu, iraganeko esperientziaren bidez, probabilitate handiarekin aurreikusi etorkizuneko gertaerak; zergatik iruditu behar zaio eginkizun kimerikoa dela trazatzea, nolabaiteko egiantzekotasun batekin, giza espeziearen etorkizunaren koadroa, gizakiaren historiaren emaitzak ikusi ostean? Zientzia naturaletan sinesmenerako oinarri bakarra honako ideia da, unibertsoaren fenomenoak arautzen dituzten lege orokorrak, ezagun zein ezezagunak, halabeharrezkoak eta konstanteak direla; eta zer dela eta printzipio hori ez da hain egia gizakiaren ahalmen intelektual eta moralen garapenerako, naturaren gainontzeko operazioekin lain? Azkenik, iraganeko esperientzian oinarrituta osatzen diren iritzi batzuk –ordena bereko objektuen inguruan– direnez gizakirik jakintsuenen jokaera arau bakarra, zergatik debekatuko zaio filosofoari bere usteak oinarri berean funtsatzen, betiere ez badie ematen ziurtasun bat handiagoa dena, behaketen kopurutik, konstantziazatik eta zehaztasunetik sortzen dena baino?

Giza espeziearen gainean dugun esperantzak ondoko hiru puntu garrantzitsu hauetara lerratzen dira: nazioen arteko desberdintasunaren deuseztapena, herri berean berdintasunaren aurrerakuntzak eta, azkenik, gizakiaren benetako perfekzionamendua. Hurbilduko al dira

egunen batean nazio guztiak herri ilustratuenak, askeenak, aurreiritziez gabetuenak –frantses edo angloamerikarrenak legez– iritsi diren zibilizazio egoera horretara? Herriak bereizten dituen distantzia itzel hori –erreegen morrontzara menpekoturiko nazioena, afrikar populazioen basakeriarena, basatien ezjakintasunarena– apurka-apurka desgertuko al da?

Ba al da munduan eskualderik naturak haren biztanleak kondenuatu dituenik inoiz ere askatasunaz ez gozatzera, euren arrazoimenaz inoiz ere ez baliatzera?

Argien, baliabideen edo aberastasunen diferentzia hori, egundaino ikusi dena herrialde zibilizatu guztietan beroriek osatzen dituzten klaseen artean; desberdintasun hori, gizartearen lehen aurrerakuntzek handitu egin dutena, eta, nolabait esatearren, sortu ere egin dutena; zibilizazioari berari egotzi behar zaio, ala arte sozialaren egungo inperfekzioei? Etengabe ahuldu behar al da, benetako berdintasun horri lekua uzteko, arte sozialaren hazken helburu den horri, ahalmenen diferentzia naturalaren efektuak txikiagotuz, ez duelarik lagako ezpada guztion interesarentzat baliagarria den desberdintasuna, zibilizazioaren, hezkuntzaren eta industriaren aurrerakuntza faboratuko baitu, ekarri gabe dependentziarik, beheramendurik, txirotzerik; hitz batean, gizakiak hurbilduko al dira egoera horretara, guztiek ere izan dutenera argi beharrezkoak euren arrazoimenaren bidez bizitzako afera komunak gidatzeko, eta aurreiritzietatik salbu mantenduz, euren eskubideak ezagutzeko eta gauzatzeko euren iritziazen eta kontzientziazen arabera; hurbilduko al dira egoera horretara, guztiek ere ahal izan dutenera, euren ahalmenen garapenaren bidez, euren beharrak asetzeko baliabideak erdietsi; edo, azkenik, egoera horretara, ergeltasuna eta miseria ez direnera izanen akzidenteak baizik, eta ez gizartearen zati baten ohizko egoera?

Azkenik, hobetu behar al da giza espeziea, bai zientzietan eta arteetan gertatuko diren aurkikuntza berrien bidez, eta, halabeharrezko ondorio batez, ongizate partikularrera eta oparotasun amankomunera daramaten baliabideen bidez; bai jarrera printzipioetan eta moral praktikoan emango diren aurrerakuntzen bidez; bai, azkenik, ahalmen intelektual, moral eta fisikoen perfektzionamendu errealaen bidez, berau izan baitaiteke ondorioa, batetik, ahalmenen erabilera gidatzen eta intentsitatea handitzen duten instrumentuena, bestetik, gizakiaren antolakuntza naturalarena?

Hiru galdera horiei erantzuterakoan, aurkituko dugu, iragana-  
ren esperientzian, zientziek eta zibilizazioak orain arte eginiko aurre-  
rakuntzen behaketan, giza espirituaren ibilbidearen eta bere ahalme-  
nen garapenaren analisisan, motiborik indartsuenak pentsatzeko natu-  
rak ez dizkiola gure esperantzei azken puntu bat ezarri.

Begirada bat ematen badiogu munduaren egungo egoerari, iku-  
siko dugu, lehenik, European frantziar egituraren printzipioak pertsona  
ilustratu guztiek ezagutzen dituztela. Zeharo hedatuak ikusiko ditugu,  
eta arras miretsiak, tiranoen eta apaizen ahaleginek eragoz dezaten  
printzipiok haien esklaboen etxoletara ere iristea; eta printzipio horiek  
laster esnatuko dute sen on aztarna bat, eta sumindura gor hori, zapal-  
duen ariman beheramenduaren eta terrorearen ohiturak isilarazi ezin  
izanen duena.

Nazio anitz horiek zeharkatzerakoan, ikusiko dugu bakoitzean  
zer oztopo partikular oposatzen zaion iraultza horri, edo zein antola-  
ketek laboratzen duten. Bereiztuko ditugu zeintzuetan euren gober-  
nuen zuhurtasunak –beharbada beranduegiak– gidatu behar duen  
gozoki, eta zeintzuetan, gobernuen erresistentzia dela-eta indarkeriaz-  
koa bilakatzen delarik, iraultza hori mugimendu izugarri eta azkarre-  
tan egin behar den.

Zalantza egin ahal dugu nazio europarren zuhurtasunak edo  
bereizketa zuhurtasunik gabeak, euren kolonien efektu geldo baina  
hutsezinak lagunduta, mundu berriaren independentzia ekarriko dute-  
la? Eta, hortik aurrera, europar populazioak, lurralde itzel horretan  
aldaketa azkarrak izanen dituelarik, ez al dituzte zibilizatuko edo  
desagerraraziko, baita konkistarik gabe ere, oraindik ere eskualde  
zabalak betetzen dituzten basatiak?

Guren enpresen, gure Afrikako edo Asiako establezimenduen  
historia jarrai ezazue; ikusiko dituzue gure merkataritza monopolioak,  
gure traizioak, gure mespretxu odoltsua beste kolore bateko edo bes-  
te sinesmen bateko gizakiekiko; gure usurpazioen ozarkeria; gure  
apaizen proselitismo bitxiak edo jukutriak nola suntsitzen duen gure  
merkataritzaren abantailek eta gure argien nagusitasunak eskainiriko  
errespetu eta mira sentimendu hori.

Baina iritsiko da unea, zalantzarik gabe, uzten diogunean haiei  
tiranoak eta usteltzaileak baino erakusten, haientzat bihurtuko garena  
instrumentu probetxugarri, edo askatzaile eskuzabal.

Azukrearen laborantzak, Afrikako kontinente itzelean ezarri denak, suntsituko du hamar mendez despopolatu eta usteldu duen lapurreria hori.

Jada Britainia Handian gizateriaren lagun batzuek etsenplu eman dute. Euren gobernu makiavelikoa, arrazoi publikoa errespetatzera behartua, ez bada ausartu aurka egiten, zer ez da esperoko espiritu horretatik beretik, egitura morroi eta salgarri baten erreformaren ostean, nazio bihozbera eta eskuzabal batentzat duin bilakatuko delarik? Frantzia ez al da bizkortuko ekintza horiek imitatzen, Europako filantropiak eta interes ongi ulertuak ere agindu dituenak? Espeziategiak uharte frantsesetara, Guaianara eta zenbait kolonia ingelesetara eramán izan dira, eta laster ikusiko da holandarrek horrenbeste traizioren, laidoren eta krimenen bidez mantendu duten monopolio baten erorketa. Europako nazio horiek azkenean ikasiko dute konpainia eskusiboak ez direla eurei inposatzen zaien karga bat baizik, euren gobernuen tirania instrumentu berri bat emateko.

Orduan, europarrek, merkataritza libre batera mugatuko direlarik, norbere eskubideei buruz ilustratuegiak gainontzeko herrienei mespretxu egiteko, independentzia hori errespetatuko dute, orain arte halako ausardiaz zapaldu duten hori. Euren establezimenduak, bete ordeztu gobernuen kuttunez, emaniko leku batez edo pribilegio batez baliatuz, lapurreriaren eta saldukeriaren bidez aberastasunak metatu, eta Europa ohoreak eta tituluak eroatera itzultzen diren horiez, aldiz, pertsona langileekin populatuko dira, zorioneko klimetan bilatuko dutelarik euren aberrian ihes egin zien ongizatea. Askatasunak mantenduko ditu han; askonahiak ez ditu gehiago deituko; eta lapurtegi horiek hiritarren kolonia bilakatuko dira, Asian eta Afrikan zehar zabalduko dituztelarik Europako argiak eta arrazoimena. Monje horiek, herri horietara superstizio lotsagarriak baizik errotan ez dituztenak, eta mendekotasun berri batekin mehatxatuz asalatu egiten dituztenak, ordezkatuak izanen dira, nazio horietan zehar zorionari probetxugarriak zaizkion egiak hedatzeaz arduratu eta haien eskubideez eta interesez argituko dituzten pertsonen bidez. Egiarekiko ardurara pasioa da halaber, eta pasio horrek urrutiko eskualdeetara eroango ditu bere ahaleginak, inguruan ez dituenean ikusten aurka egin behar zaien aurreiritzi zatarrik, desagerrarazi behar diren errore lotsagarriak.

Herrialde zabal horiek eskainiko dizkie, hemen, herri anitz, eta itxuraz emango du herri horiek jarraibideak espero dituztela zibilizatuak izan daitezen, espero dutela baliabideak jasotzea, eta europarren gan anai-arrebak aurkitzea, haien lagun eta dizipulu bihurtzeko; han, nazio morroituak despota sakratuen edo konkistatzaile ergelen menpe, horrenbeste mende ostean, euren askatzaile deritzaten horien menpe; haratago, herri ia basatiak, euren klimaren gogortasunak aldentzen dituenak zibilizazio perfektionatu batetik, aldi berean, gogortasun horrek alendu egiten ditu abantailak ezagutaraziko zieketen horietatik; edo horda konkistatzaileak, ez dutenak ezagutzen indarraren legea baizik, lapurreria ez den ogibiderik. Azken herri mota horien aurrerakuntza geldoagoa izanen da, alboan ekaitz gehiago izanen baitute; apika, kopuru txikiago batera murriztuak, nazio zibilizatuak aterazten dituzten heinean, modu sumagaitzean desagertuko dira azkenean, edo haien baitan galduko.

Erakutsiko dugu nola gertakizun horiek halabeharrezko ondorio izanen diren ez soilik Europako aurrerakuntzena, baita ere frantses errepublikak eta iparraldeko Amerikak aldi berean duten interes erre-alarena eta Afrikako eta Asiako merkataritzari askatasuna emateko boterearena; erakutsiko dugu nola gertakizun horiek berdin sortu behar diren halabeharrez, bai nazio europarren jakinduriatik, bai euren merkatal aurreiritziekin duten atxikimendutik.

Ikusaraziko dugu nola konbinazio berri batek –tatariarrek Asia berriz ere inbaditzeak– iraultza hori gera zezakeen, eta konbinazio hori aurrerantzean ezinezkoa izanen dela. Bizkitartean, denak prestatzen du ekialdeko erlijio handien dekadentzia azkarra, eta leku guztietarik herriaren eskutan abandonatuak direlarik, euren apaizen bilautzea partekatzen dutelarik, eta eskualde gehienetan murriztuak direlarik –pertsona boteretsuen begietan– asmakuntza politikoak izatera soilik, ez dute giza arrazoimena mehatxatzen esperantza gabeko esklabotasun batean zein haurtzaro eternalean mantentzearekin.

Herri horien martxa gurea baino azkarragoa eta seguruagoa izanen da, gugandik jasoko baitute gu aurkitzera behartuak izan garen hori, eta, egia sinpleak ezagutzeko, metodo ziur horiek guk ez ditugunak erdietsi erre luzeen ostean baizik, nahikoa izanen zaie gure diskurtsoetatik eta gure liburuetatik garapenak eta frogak hartzearekin. Greziarren aurrerakuntzak galduak baldin badira gainontzeko nazio-



entzat, herrien arteko komunikazioaren akatsei, erromatarren dominazio tiranikoari, egotzi behar zaie. Baina elkarrekiko beharrek gizaki guztiak gerturatzeko dituztenean; naziorik boteretsuenek euren printzipio politikoen artean ezartzean berdintasuna, bai gizartearen bai gizabanakoen arteko berdintasuna, baita estatu ahulen independentziarekiko errespetua, eta ezjakintasunarekiko eta miseriarekiko gizatasuna ere; giza ahalmenen baliabideak estutuzera jotzen duten maximak ordezkatuak direnean akzioa eta energia faboratzen dutenen bidez; oraindik ere beldur izan al gaitezke munduan argia sar ez daitekeen lekurik egoteaz, edo despotismoaren urguiluak egiari hesi luzaroan iragangaitzak ezartzeaz?

Iritsiko al da unea eguzkiak lurrean ez dituen argituko gizaki libreak baizik, horiek ez dutelarik beste nagusirik onartuko euren arazoimena baizik; tiranoak eta esklaboak, apaizak eta euren instrumentu ergel edo hipokritak, ez direna existituko ezpada historian eta antzokietan; haietaz ez dena axola beharko ezpada haien biktimez eta haiek engainatuez urriki izateko; izateko zaindaritza komenigarri batean euren gehiegikerien horrorea; ezagutzen eta itotzen jakiteko, arrazoimenaren pisupean, tiraniaren eta superstizioaren lehen haziak, noizbait ausartzen badira ostera agertzen!

Gizartearen historia aztertzean, abagunea izanen dugu ikusarazteko sarritan existitzen dela tarte handi bat legeak hiritarrei ematen dizkien eskubideen artean eta benetan gozatzen dituzten eskubideen artean; erakunde politikoez ezartzen duten berdintasunaren artean eta gizabanakoez daukatenaren artean. Azpimarratuko dugu diferentzia hori dela antzinako errepubliketan askatasunaren suntsitzearen kausa nagusietako bat, horiek asaldatu dituzten ekaitzena, tirano atzerritarren menpe geratzearena.

Diferentzia horiek hiru kausa nagusi dituzte: aberastasun desberdintasuna, egoera desberdintasuna –batetik, bizibideak familiari transmititzen dizkion pertsona horren kasuan eta, bestetik, baliabide horiek norbere bizitzaren iraupena edo lanean aritzeko gaitasuna duen arteko iraupena duten pertsonaren kasuaren artean– eta, azkenik, hezkuntza desberdintasuna.

Beharrezkoa izanen da, beraz, frogatzea hiru benetako desberdintasun mota horiek etengabe txikiagotzen joan behar direla, desgertu behar ez diren arren. Kausa naturalak eta beharrezkoak baitira,

eta horiek suntsitu nahi izatea absurdoa eta arriskutsua litzateke. Ez da komenigarria ere efektuak erabat desagerraraztea, desberdintasun iturri emankorrakoak sortu, edo gizakien eskubideei kolpe zuzenagoak eta okerragoak eman baitiezaiekete.

Aise frogatzen ahal da aberastasunek naturalki desberdintasunera jotzen dutela, eta horien desproporzio gehiegizkoa ezin dela existitu, edo laster desagertu behar dela, baldin eta: lege zibilek ez badituzte baliabide artifizialak ezartzen horiek betikotzeko eta metatzeko; merkataritza eta industria askatasunak desagerrarazten badu lege debekatzaile orok, eskubide fiskal orok, jasoriko aberastasunari ematen dion abantaila; konbentzioen gaineko zergek, horien askatasunari jartzen zaizkion mugek, horiek formalidade laidogarri batzuen menpe ezartzeak eta, azkenik, egikaritzea lortzeko ziurtasun ezak eta beharrezko gastuek, ez baldin badute txiroaren jarduera gelditzen eta bere kapital eskasak jaten; administrazio publikoak pertsona gutxi batzuei ez baldin badizkie oparotasun iturri emankor batzuk irekitzen, gainontzeko herritarrei itxiak direnak; aurreiritziek eta zikoizkeria espirituak, zahartzaroan ohizkoak direnek, ez baldin badituzte ezkontzak zuzentzen; azkenik, azturen sinpletasunagatik eta erakundeen zuhertasunagatik, aberastasunak ez baldin badira banitatea edo askonahia asetzeko baliabideak, eta, edonola ere, gaizki ulerturiko herstura batek, ez duenak uzten aberastasunez atsegin bitxiari baliabide egiten, ez baldin badu behartzen mantentzera beste garai batean metaturiko horiek.

Erka ditzagun Europako nazio ilustratuetan euren egungo populazioa eta euren lurraldearen zabalera. Ohartuko gara, euren laborantzak eta industriak aurkezten duten ikuskizunean, jardueren eta bizibideen banaketaz. Ikusiko dugu ezinezkoa izanen dela baliabide horiek maila berean mantentzea eta –derrigorrezko ondorio bat dela medio– populazio masa bera ere mantentzea; gizabanakoen kopuru handi batek, euren beharrak edo familiarenak ia osoki asetzeko, ez baleuzka bere industria zein produktuak lortzeko edo handitzeko kapitala baizik. Alabaina, baliabide bataren zein bestearen mantentzea familia buruaren bizitzaren eta osasunaren beraren menpekoa da. Jabego iragankorra da nolabait, edo baita zoriaren arabera ere; eta diferentzia oso erreala sortzen da pertsona klase horien artean eta baliabideak arrisku beren menpekoak ez direnen artean, luraren

ekoizpenak zein euren industriatik erabat independente den kapital baten interesak azkenen beharrak asetzen baitituzte.

Existitzen da, beraz, desberdintasun kausa halabeharrezko bat, baita dependentzian eta miserian ere, etengabe mehatxatzen duena gure gizarteetako klaserik ugariena eta aktiboena.

Erakutsiko dugu nola deusezta daitekeen hein handi batean, zoria zoriaren aurka ezarriz; zahartzarora iristen denari bere aurrezkiek eskainiriko pentsio bat segurtatuz, pentsio hori handitua delarik gizabanako horienekin, sakrifizio bera egiten dutelarik, fruitua jasotzeko beharra izan baino lehen hiltzen direnekin; emanez, antzeko konpentsazio baten efektuz, emakumeei eta haurrei –euren senarra edo aita galtzen duten unerako– halako baliabide berdin bat eta prezio berean jaso, bai heriotza goiztiar bat duten familiengandik, bai euren familia burua denbora gehiagoz bizi zaien horiengandik; azkenik, prestatuz euren buruentzat lan egiteko eta familia bat sortzeko adinera iristen diren haurrentzat, euren industriaren garapenerako beharrezko den kapital bat, eta handiagotuz heriotza goiztiarregiak hartara iristea utzi ez dienarekin. Bizitzako probabilitateekin zein diruaren koka-guneekin eginiko kalkuluaren aplikazio hori, baliabide horien ideia ematen digularik, jada arrakastaz erabilia izan den arren, inoiz ere ez da erabili hedadura horrekin, forma aniztasun horrekin, benetan baliagarri egiten dituztenekin, ez soilik gizabanako batzuentzat, baita gizartearen masa osoarentzat ere, ekiditen baitute familia kopuru handi baten porrot ekonomiko periodiko hori, beti ustelkeriaren eta miseriaren iturri den hori.

Ikusaraziko dugu establezimendu horiek, eratuak izan daitezkeenak botere sozialaren izenean, eta botere horren ongintzarik handienetakoa bihurtu, elkarte partikularren emaitza ere izan daitezkeela; arriskurik gabe osa baitaitezke, establezimenduak zuzendu behar dituzten printzipioak jendarteratzen direnean, eta elkarte horietako asko suntsitu dituzten erroreek elkarte horiek izutzeari uzten diotenean.

Aurkeztuko ditugu berdintasun hori segurtatzeko beste baliabide batzuk, bai saihestuz kreditua eskusiboki dirutza handi bati atxikirik zerbait izatea, nolanahi ere, oinarri solidoa emanez; bai industriaren eta merkatal aktibitatearen aurrerakuntzak kapitalista handien existentziatik independenteago eginez. Kalkuluaren aplikazioari zor zaizkio baliabide horiek ostera ere.

Erdiestea espero daitekeen hezkuntza berdintasuna –edonola ere, nahikoa izanen dena– dependentzia oro –bai bortxatua zein borondatezkoa– baztertzen duena da. Erakutsiko ditugu, giza ezagutzen egungo egoeran, helburu horretara iristeko bide errazak, baita euren lehen urteen kopuru txiki bat soilik ikasketetan jardun dezaketentzat ere, euren gainontzeko bizitza osoan, aisialdi ordu gutxi batzuk izanen dituztenentzat. Ikusaraziko dugu zorioneko aukeraketa batekin, bai ezagutzetan beretan zein irakasteko metodoetan, posible dela heztearen herri baten masa osoa gizaki batek ezagutu beharra duen orotan: etxeko ekonomian, bere aferen administrakuntzan, bere industriaren eta ahalmenen garapen askean; ezagut, defenda eta gauza ditzan bere eskubideak; jakin ditzan bere betebeharrak, eta ondo bete; bere argien bitartez, bere ekintzak eta gainontzeko pertsonenak juzga ditzan eta giza natura ohoratzen duten sentimendu garai edo delikatuetakoa bat ere ez dadin harentzat arrotz izan; ez dadin itsuki menpekoea izan bere eskubideen gauzatzeaz eta bere aferetaz kontu hartzen duten horiekiko, horiek hautatzeko eta zaintzeko egoeran izan dadin, izu superstiziotsu eta esperantza kimerikoz bizitza betetzen duten errore herrikoi horiek ez dezaten iruzurtu; defenda dadin aurreiritzietatik arrazoimenaren indar soilekin; azkenik, hitzontzikiaren amuetatik ihes egitea izan dezan, bere aberastasunei, bere osasunari, bere iritzien eta bere kontzientziaren askatasunari, tranpa ezarriko baitiote, aberastuko, sendatuko edo sorotsiko duten aitzakiarekin.

Une horretatik, herrialde bereko biztanleak ez direlarik egongo elkarren artean bereiztuta hizkuntza finago edo zatarrago baten erabileratik baizik; berdin goberna ditzaketenez euren buruak nork bere argien bidez; ez direlarik jada mugatuak arte baten prozeduren ezagutza oharkabeetara edo ogibide baten errutinara; ez direnez jada –ez afera txikerretan, ez hezkuntza txikiaren lortzeko– euren gan duten halabeharrezko eraginaren bidez gobernatzen dituzten pertsona trebe-en menpe; horregatik guztiagatik benetako berdintasun bat sortu behar da, argien edo talentuen diferentziak ezin baitu hesi bat eraiki gizakien artean, euren sentimenduek, euren ideiek, euren lengoaiak, elkarri ulertzea zilegi egiten baitute. Batzuek besteek heziak izatea nahi izan dezakete, baina ez dute zergatik haiek gidatuak izateko beharrik izan behar; pertsona jantzienei eman nahi izan diezaiekete haiek goberna-

tzeko ardura, baina ez dute zergatik gura izan behar haiengan konfiantza itsua ezartzea.

Orduan nagusitasun hori probetxuzkoa bilakatzen da, abantaila partekatzen ez duten horientzat ere; horien onerako existitzen baita, ez horien kontra. Gizakien ahalmenen arteko diferentzia naturalak, adimenak jorratzen ez direnean, kalakariak eta inuzenteak sortzen ditu, pertsona trebeak eta tronpatzen errazak diren pertsonak. Zalan-tzarik gabe, diferentzia bera existitzen da hezkuntza benetan orokorra duen herri batean, baina gizaki ilustratuen eta espiritu zuzeneko gizakien artean ematen den desberdintasuna da, gizaki horiek argien balioa ezartzen dakite, argi horiek itsu ditzaten laga barik; talentuaren edo jeinuaren eta horiek preziazten zein gozatzen dakien sen onaren arteko diferentzia da; eta diferentzia hori handiago bilakatzen denean ere, soilik erkatuz gero ahalmenen indarra eta zabalera, ez litzateke sumagarriagoa izanen, alderatzen baditugu gizakien arteko harremanen efektuetan zer dagoen interesgarri haien independentziarako eta zorionerako.

Berdintasun kausa horiek ez dute eragiten modu isolatuan; elkartu egiten dira, elkarren barnean sartu, elkarri eutsi, eta euren efektu konbinatutik akzio indartsuago, seguruago, konstanteago bat sortzen da. Hezkuntza berdina goa bada, berdintasun handiagoa sortzen da industrian, eta, hortaz, aberastasunetan; eta aberastasunen berdintasunak halabeharrez eragiten du hezkuntzarena; aldi berean, herrien arteko berdintasunak, eta gizabanakoen artekoak, elkarren artean eragina dute.

Azkenik, hezkuntza ongi gidatuak zuzendu egiten du ahalmenen diferentzia naturala, indartu orde, lege onek konpontzen duten moduan bizibideen diferentzia naturala; erakundeek berdintasun hori eskaini duten gizarteetan, askatasuna, nahiz eta egitura erregular baten menpe, zabalagoa, osoagoa izanen den moduan, bizitza basatiko independentzian baino. Orduan, arte sozialak bere helburua bete izanen du, gizaki guztiei eskubide amankomunak helaraztea eta gozatzeko aukera ematea, naturaz horiek baitagozkie.

Esperantza ia ziurra dakarkigutelarik, erakutsi berri ditugun aurrerakuntzetatik heldu behar diren benetako abantailak helmuga bakar izan dezakete giza espeziearen beraren perfekzionamendua, ezen, berdintasun mota ezberdinek perfekzionamendu hori ezartzen

duten eran, gure beharrak asetzeko bide zabalagoekin, hezkuntza hedatuagoaren bidez, askatasun osoago baten bidez, hainbat eta erre-alagoa izanen da berdintasuna, hainbat eta prestago egongo da giza-kien zorionari benetan interesatzen zaiona bere baitan hartzeko.

Hortaz, perfekzionamendu horren martxa eta legeak aztertuz soilik ezagutu ahal izanen dugu gure esperantzen muga edo zabalera.

Inork ez du inoiz pentsatu espirituak agor ditzakeenik naturako gertakizun guztiak, eta –gertakizun horien analisisian– azkeneko neur-keta baliabideak, eta objektuen arteko erlazioak, eta ideia konbinazio posible guztiak. Soilik magnitudeen erlazioak, ideia bakar horren kon-binazioak, kantitateak edo hedadurak, horiek guztiek sistema bat osa-tzen dute handiegia dena inoiz giza espirituak bere baitan har ahal dezan osoki, edo sistema horren zati bat ere –beti izanen delarik hark ikertu duena baino zabalagoa– ez dakion ezezagun izan. Baina uste izan da gizakiak ezin duelarik bere adimenaren naturak zilegi egiten dizkion objektuetara baino iritsi, dena den, azkenik, muga batera hel-du behar dela, jada ezagutzen dituen objektuen kopuruak eta konpli-kazioak bere indar guztiak akitu dituenek, aurrerakuntza oro ezinez-koa egingo baitzaio.

Baina, gertakizunak ugaltzen diren neurrian, gizakiak ikasten duenez horiek sailkatzen, gertaera orokorragotara txikiagotzen; horiek behatzeko, zehaztasunez neurtzeko, instrumentu eta metodoek doitasun handiagoa lortzen dutenez; objektu kopuru handiago baten erlazio kopuru handiagoa ezagutzen denez, eta erlazio zabalagoetara erreduzitu ditzakegunez, adierazpide sinpleagoekin bil ditzakegunez, eta kopuru handiagoa hartzea ahalbideratzen digun formetan aurkez-tea daukagunez, nahiz eta buruan gaitasun bera eta arretarako kemen bera daukagun; espiritua konbinazio konplikatuagoetara iristen den heinean, formula sinpleagoek laster konbinazioak errazago egiten diz-kiotenez; hortaz, ahalegin handiena kostatu duten aurkikuntzak, hasie-ra batean hausnarketa sakonetarako gai diren gizakiek baino ulertu ez dituztenak, laster adimen komun baten moduko metodoen bidez gara-tuak eta frogatuak dira. Konbinazio berrietara daramaten metodoak agortzen badira; oraindik irtenbidea aurkitu gabeko arazoetara meto-do horien aplikazioek eskatzen badituzte denbora edo lanak, jakin-tsuen indarrak gainditzen dituztenak, laster metodo orokorrageok zein baliabide sinpleagoek jeinuari eremu berri bat irekiko diote. Giza adi-

menen kemena eta benetako gaitasuna berdinak izaten jarraituko dute; baina erabil ditzaketen instrumentuak ugaltu eta perfektionatu egingo dira; ideiak finkatzen eta determinatzen dituen lengoaiak zehaztasun eta orokortasun handiagoa lortzea dauka; eta, mekanikan, indarra ezin den bezala handitu abiadura jaitsi gabe, metodo horiek –jeinua egia berrien aurkikuntzara daramatenak– aldi berean jasoko dute bai euren indarra, bai euren eragiketen azkartasuna.

Azkenik, aldaketa horiek detailezko egien ezagutzaren aurrerakuntzarako ondorio beharrezkoak direnez, eta baliabide berrietarako beharra dakarren kausak aldi berean sortzen dituen baliabide horiek lortzeko bideak, horrek eragiten du esperientzia, kalkulu edo behaketa zientzien sistema osatzen duten egien masa erreala etengabe handitzeko posibilitatea; eta, hala ere, sistema horren beraren atal guztiak ezin litezke etengabe perfektionatu, gizakiaren ahalmenei indar bera, aktibitate bera eta hedadura bera suposatzen badizkiegu.

Hausnarketa orokor horiek zientzia ezberdinei aplikatzerakoan, haietako bakoitzarentzat, hurrenez hurreneko perfektionamenduen adibideak emango ditugu, ez dutenak dudarik utziko iristear direnen inguruan. Aipatuko ditugu, bereziki, aurreiritziak agortzeaz daudela kontsideratzen dituen horientzat, esperantza posibleena eta hurbilekoena duten aurrerakuntzak. Garatuko dugu kalkuluaren zientzien aplikazio orokorrago eta filosofikoagoak giza ezagutzei zein ezagutzen sistema osoari ekarri behar dieten hedadura, zehaztasuna eta batasuna. Ohartaraziko dugu nola herri bakoitzean hezkuntza unibertsalago bat –ematerakoan pertsona kopuru handiagoari ezagutza oinarritzkoak, inspira ditzaketenak, bai ikasketa alor batekiko gustua, bai aurrerakuntzak egiteko erraztasuna– esperantza horiei gehitu beharko zaien; zenbatean handituko diren esperantzok, aisialdi orokorrago batek zilegi egiten badie gizabanakoei jarduera horietan aritzea, ezen, izan ere, herrialde ilustratuenetan ere, naturak talentua eman dien horien berrogeita hamarrenak jasotzen du talentu horiek garatzeko hezkuntza, eta, hortaz, zientzien mugak zabaltzera destinatuak diren gizakien kopurua proportzio horretan hazi beharko litzateke halaber.

Erakutsiko dugu hezkuntza berdintasun horrek eta nazioen artean ezarri behar denak zenbatean azeleratuko duten zientzien mar-txa; kopuru handian errepikaturiko behaketen arabera-koak baitira aurrerakuntzak, eremu handi batean hedatuak. Erakutsiko dugu, hala-

ber, mineralogiak, botanikak, zoologiak eta meteorologiak erdietsi behar duten guztia. Azkenik, ikusiko dugu zein desproporzio handia existitzen den zientzia horietan, batetik, edonola ere hainbeste egia probetxugarri eta garrantzitsuetara daramaten baliabideen eta, bestetik, gizakiak orduan erabil zitzakeen handitasunaren artean.

Azalduko dugu, hausnarketa soilaren sari diren aurkikuntzak izan dituzten zientzietan, gizaki kopuru handiagoak jorratuak izatearen abantailak zenbateraino eragin dezakeen haien aurrerakuntzan, asmatzaileei adimeneko esfortzurik kostatzen ez zaien detailezko perfektionamendu horien bidez, berez aurkezten baitzaizkie hausnarketa sinpleari.

Pasatzen bagara euren teoria zientzia horien arabera den arteetara, ikusiko dugu aurrerakuntzek teorien ibilbidea jarraitzen dutela, eta ez dutela beste mugarik; arteen prozedurek perfektionamendu bera izan dezaketela, metodo zientifikoek dauzkaten sinplifikazio berak; instrumentuek, makinek eta ogibideek gero eta gehiago lagunduko dietela gizakien indarrari, trebetasunari, produktuen perfektzioa eta doitasuna handituz, horiek erdiesteko denbora eta lana txikiagotuz. Orduan desagertuko dira aurrerakuntza horiei aurkezten zaizkien oztopoak, baita aurreikusten ikasiko dugun akzidenteak ere, eta osasungaiztasuna, bai lanena, bai ohiturena, bai klimena.

Orduan, lur eremu gero eta murriztago batek jenero masa probetxugarriago eta baliotsuagoa emango du. Atsegin handiagoak erdietsiko dira kontsumo txikiagoarekin. Industriaren ekoizpen berak lehengaien suntsipen txikiagoa eskatuko du, edo produktu hori irauten handiagokoa bilakatuko da. Zoru bakoitzarentzat jakingo da auke-ratzen haren beharrei egokienak zaizkion ekoizpenak; genero bereko beharrei erantzuten dieten ekoizpenen artean, masa handiagoa asetzen dutenak, lan jardun txikiagoa eta kontsumo erreal txikiagoa eskatzen dutenak. Horrela, inolako sakrifiziorik gabe, kontserbazio baliabideek zein kontsumo ekonomiak jarraituko dituzte substantzia anitzak erreproduzitzeko, prestatzeko, eta produktuak ekoizteko arteen aurrerakuntzak.

Horrela, lur eremu espazio berak ez ditu soilik gizabanako gehiago elikatuko; horietako bakoitza –lan ez hain neketsuan diharduelarik– produktiboagoa izanen da, eta bere beharrak hobeto asetzea izanen du.



Baina industriaren eta ongizatearen aurrerakuntzetan, horietan proportzio abantailatsua sortzen baita gizakiaren ahalmenen eta beharren artean, belaunaldi bakoitzak, bai euren aurrerakuntzengatik, bai aurreko industria baten ekoizpenen kontserbatzeagatik, atsegin handiagoak izanen ditu, eta, hortaz, giza espeziearen egikera fisikoa dela eta, gizabanakoen kopuruan hazkunde bat sortuko da; orduan, ez al da iritsiko une bat lege horiek, beharrezkoak berdin direlarik, elkarren aurkako izanen direna; edo gizakien kopuruaren hazkundeak euren baliabideena gaintutuz, ez al du eragingo halabeharrez, populazioaren eta ongizatearen txikiagotze etengabea, martxa benetan atzerakoa, behintzat, ongiaren eta gaizkiaren arteko oszilazio moduko bat? Oszilazio hori –puntu horretara iristen diren gizarteetan– ez al da beti izanen miseria nolabait periodikoen iturburu? Ez al du markatuko hobekuntza ezinezkoa izanen den muga, eta, giza espeziearen perfektibilitateari dagokionez, mendeen itzeltasunean lortuko duen helmuga, handik inoiz iragaterik izanen ez duelarik?

Ez dago inor, zalantzarik gabe, ez duenik ikusten une hori gugandik urruti; baina ez al gara inoiz puntu horretara iritsi behar? Berdin, ezinezkoa da gertakizun baten etorkizuneko errealitatearen alde ala aurka egitea, errealitate hori ez baita gertatu behar gizakiek imajina ez ditzakegun argiak izanen dituzten garai batean baizik. Eta, izan ere, nor ausartuko da iragartzen egunen batean zer ez ote den bilakatuko elementuak guretzat probetxugarriak diren substantzietan bihurtzeko artea?

Baina, suposatuz muga hori iritsiko dela, ez da izua eragitekoa izanen, ez giza espeziearen zorionarentzat, ezta bere perfektibilitate mugagabearentzat; suposatuz garai hau baino lehen arrazoimenaren aurrerakuntzak batera joan direla zientzia eta arteenekin, superstizioaren aurreiritzi irigarriek utzi diotela moralaren gainean herstura hedatzeari, herstura horrek usteldu eta endekatu egiten baitu araztu eta hobetu ordez, orduan, gizakiek jakingo dute, betebeharririk baldin badute oraindik existitzen ez diren izaki batzueganako, betebeharririk ez dautzala existentzia ematean, zoriona ematean baizik; betebeharririk objektu daukate giza espeziearen ongizate orokorra, edo gizakiak bizi diren gizartearena, edo euren familiararena, eta ez lurra izaki ezdeus eta zoritxarrekoek zamatzeko ideia funsgabe hori. Bizibideen masa posibleak muga bat izan lezake, eta, hortaz, posible den

populazio handienak ere, horren ondorioa ez da izan behar hondamendi goiztiarra, bizia jaso duten izakien zati baten naturarentzat eta oparotasun sozialarentzat hain aurkakoa.

Metafisikaren, moralaren edo politikaren lehen printzipioen asmakuntza, edo, hobeto, analisi zehatza, oraindik egin berria denez, eta detailezko egia askoren ezagutza aurretik eman denez, ezarri da aurreiritzi bat dioena azken muga errazki iritsiko dela. Suposatu da ez dagoela ezer egiterik, ez baita falta larregi errore zatarrak suntsitzeko, eta ez da geratzen oinarrizko egirik aurkitzeke.

Baina aise ikus daiteke gizakien ahalmen intelektual eta moralaren analisisa zenbateraino den oraindik inperfektua; zenbateraino heda daitekeen betebeharren ezagutza, norbere gizartean zein kideen ongizatean norbere ekintzek duten eraginaren ezagutza dakarrena, oraindik ere behaketa finkoago batekin, sakonago batekin eta zehatzago batekin; zenbat geratzen den irtenbidea topa behar zaien gaietan, aztertzeaz erlazio sozialetan, zehaztasunez ezagutzear gizakiaren eskubide indibidualen hedaduran, eta bakoitzarenganako egoera sozialak guztioi ematen dizkigunean! Orain arte finkatu al dira nola-baiteko zehaztasunez eskubide horien mugak, bai gizarte ezberdinen artean, gerra garaian, bai gizarte horiek euren kideekiko dituztenean, kalapita eta desakordio garaietan, bai, azkenik, gizabanakoen eta bilera espontaneoaren eskubideenak, formazio libre eta primitibo baten, edo beharrezko bilakatu den bereizkuntza baten kasuan?

Hurrengo pasatzen bagara printzipio horiek gidatu behar dituen teoriara, arte sozialaren oinarri izan behar denera, ez al da beharrezko ikusten lehen egia horietan zehaztasun bat lortzea, nahiz eta egia horiek ez diren hartarako gai, kontuan hartuta euren orokortasun absolutua? Iritsi al gara puntu horretara oinarritzat jotzen ditugunera legeen xedapen guztiak, edo justizia, edo erabilera frogatu eta onartu bat, eta ez balizko abantaila politiko batzuen ikuspegi lausoak, zehatzgabeak, arbitrarioak? Finkatu al ditugu arau zehatzak aukeratzeko, segurtasunez, konbinazio posibleen kopuru mugagabe horren artean, berdintasunaren eta eskubide naturalaren printzipio orokorrak erresetatuak direlarik, eskubide horien mantentzea ziurtatzen duten konbinazio horiek, haien gauzatzeari eta gozatzeari zabalera handiena ematen dietenak, aurretik ziurtatzen dutenak gizabanakoen ongizatea, nazioen indarra, bakea, oparotasuna?

Zientzia horietan konbinazioen eta probabilitateen kalkuluaren aplikazioak agintzen ditu aurrerakuntza garrantzitsuagoak, aldi berean modu bakarra baita haien emaitzei zehaztasun ia matematikoa emateko, eta neurtzeko zehaztasun edo egiantzekotasun maila. Emaitza horiek oinarri dituzten gertakizunek batzuetan ongi eraman dezakete, kalkulurik gabe eta behaketa soilarekin, egia orokorretara; ageritu ea kausa jakin batek produzituriko efektua faboragarria ala kontrakoa den; baina, efektu horiek ezin izan badira kontatu ez pisatu, efektu horiek ezin izan badira neurketa zehatz baten menpe ezarri, orduan ezin izanen dugu jakin kausa horretatik datorren ontasuna edo gaitzaren neurria; eta bata eta bestea nolabaiteko berdintasunez konpentsatzen badira, diferentzia ez bada lar handia, ezin izanen dugu esan, nolabaiteko zehaztasunez, zein alderantz inklinatzen den balantza. Kalkuluaren aplikazioa barik sarritan ezinezkoa izanen da aukeratzea, nolabaiteko segurtasunez, helburu bera erdiesteko dauden bi konbinazioen artean, aurkezten dituzten abantailek ez baitute agertuko desproporzio ageririk. Azkenik, baliabide hori gabe, zientzia horiek beti jarraituko dute zatar eta mugatuak izaten, egia iheskor bat harrapatzeko instrumentu finen faltan, bertan bere aberastasunak gordetzen dituen meategiaren sakontasunera segurtasunez iristea ahalbideratzen duen makinaren faltan.

Hala ere, aplikazio hori, geometria batzuen ahalegin zorionekoak gorabehera, oraindik ere ez dago, nolabait esatearren, lehen elementuetan baino, eta ireki beharko du, datozen belaunaldientzat, argi iturri agortezin bat, kalkuluaren zientziarena lakoa, konbinazioen, erlazioen eta gertakizunen kopuruak menderatu ezin izanen duena.

Bada zientzia horien beste aurrerakuntza bat garrantzi berekoa: euren lengoaiaren perfekzionamendua, oraindik ere hain lausoa eta iluna dena. Alabaina, perfekzionamendu horri esker izan dute benetan hedatuak izatearen abantaila, baita euren lehen elementuetan ere. Jeinuak gailendu egiten ditu lengoia zientifikoen zehaztasun falta hori zein beste oztopo batzuk; egia ezagutzen du, ezkutatzen edo moztortzen duen maskara hori gorabehera; baina bere hezkuntzari unetxo batzuk baizik eskaini ezin dizkion pertsona horrek, jaso, kontserbatu al ditzake noziorik sinpleen horiek, lengoia zehaztugabe baten bidez adieraziak badira? Ideiak zenbat eta gutxiago bil eta konbinatu ahal izan, hainbat eta behar handiagoa dute justuak eta zehatzak izateko;

gizakiak bere adimenean ezin du topatu egia sistema bat errearen aurka defendatuko duenik, eta bere espirituak –gizakiak ez badu indartu, ezta ariketa luze batekin zaildu ere– ezin du iluntasunen arte-  
tik, hizkuntza inperfektu eta akastun batetik, ihes egiten duten distira-  
txoak baizik harrapatu.

Gizakiek ezin izanen dute ilustratu naturari buruz eta euren sentimendu moralen garapenari buruz, moralaren printzipioei buruz, euren ekintzak egokitu behar zaizkien arrazoi naturalei buruz, interesei buruz, bai gizabanako bezala, bai gizarte baten kide bezala, moral praktikoan egin gabe aurrerakuntza batzuk zientziarenak berarenak bezain errealak direnak. Gaizki ulerturiko interesa ez al da on orokorraren aurkako ekintzen kausarik ohizkoena? Pasioen bortxakeria ez al da sarritan kalkulu faltsu baten arabera eginiko ohituren efektu, edo horien lehen mugimenduei aurre egiteko, txikiagotzeko, desbideratzeko eta euren akzioa zuzentzeko baliabideen ezagutza ezarena?

Norberaren jarreraz hausnarketa egiteko ohitura, berorren arabera norberaren arrazoimenari eta kontzientziari itauntzeko edo entzutekoa, eta gure ongizatea besteenekin elkartzen duten sentimendu gozoen ohitura, ez al dira ongi gidaturiko moralaren ikasketaren beharrezko ondorio, hitzarmen sozialaren baldintzetan berdintasun handiago batenak? Norbere duintasunaren kontzientzia hori, gizaki libreari dagokiona, hezkuntza bat, oinarritzen dena gure egikera moralaren ezagutza sakon batean, ez al dituzte horiek komun egin behar ia gizaki guztientzat justizia zorrotz eta puruko printzipioak, ongintza aktibo eta ilustratu baten zein sentsibilitate fin eta eskuzabal baten mugimendu ohizkoak, naturak horien hazia bihotz guztietan ezarri dituenak, eta garatzeko ez dutenak behar ezpada argien eta askatasunaren influentzia gozoa? Zientzia matematikoei eta fisikoei balio duten moduan gure beharrik sinpleenak asetzearren erabiltzen diren arteak perfektionatzeko, ez al da naturaren beharrezko ordenakoa zientzia moral eta politikoen aurrerakuntzek ekintza bera eragingo dutela gure ekintzak eta sentimenduak gidatzen dituzten arrazoietan?

Zientzia horien aurrerakuntzetatik datorren legen eta erakunde publikoen perfektionamenduak ez al du efektutzat gizaki bakoitzaren interes komuna guztion interes komunarekin identifikatzea, gerturatzetza? Arte sozialaren helburua ez al da oposizio hori deuseztatzea? Eta naturaren eta arrazoimenaren ahotsari gehien hurbiltzen zaizkion

legeak dituen herrian, ez al da bertan bertutea errazen izanen, hartatik aldentzeko tentazioak arraroagoak eta ahulagoak izanen baitira?

Zein da ohitura biziotsu hori, fede onaren aurkako usadioa, zein da haren jatorria erakuts ezin dezakegun krimena eta kausa lehe-na, usadio hori, ohitura hori edo krimen hori duten herrialdearen aurreiritzietan, legerian, erakundeetan?

Azkenik, arte erabilgarriek duten aurrerakuntza horri darraion ongizateak, teoria osasuntsu batean oinarritzen denak, funtsatzen denak zientzia politikoen egietan, ez al ditu prestatzen gizakiak giza-tasunerako, ongintzarako, justiziarako?

Azkenik, obran bertan garatuko ditugun ohar horiek ez al dute frogatzen gizakiaren ontasun naturala, haren antolaketaren ondorio halabeharrezkoa, gai dela –beste gainontzeko ahalmenak lain– per-fekzionamendu mugagabe baterako, eta naturak kate hautsiez in baten bidez lotzen dituela egia, zoriona eta bertutea?

Zorion orokorrerako garrantzitsuenak diren giza espirituaren aurrerakuntzen artean sartu behar dugu aurreiritzien suntsipen osoa, horiek sexu bien artean eskubideen desberdintasun kaltegarria ezarri baitute, kaltegarria baita faboratzen duten sexuarentzat ere. Alferrik bilatuko ditugu justifikatzeko arrazoiak euren antolaketa fisikoan, euren adimenaren indarrean topa gura ditugun desberdintasunetan, euren sentsibilitate moralean. Desberdintasun horrek ez dauka beste jatorririk ezpada indarraren abusua, eta alferrik saiatuko gara sofisma bidez desenkusatzeko.

Erakutsiko dugu zein puntutaraino aurreiritzi horrek baimen-dutako usadioen suntsipenak, aurreiritzi horrek eman dituen legeak, lagundu duten familien zoriona handitzen, gainontzeko guztien lehen oinarri diren etxe eremuko bertuteak komunak egiten; hezkuntzaren aurrerakuntzak sustatzen, eta batez ere hezkuntza benetan orokor egi-ten, bai berdintasun handiagoarekin zabal zedin sexu bietara, bai ezin zelako orokor bilakatu, ezta gizonezkoentzat ere, sendietako amen partizipazioa barik. Beranduegiko omenaldi horrek, berdintasunari eta sen onari azkenik ematen zaionak, ez al zuen lehortuko injustizia, kru-delkeria eta krimen iturri oparoegi bat, desagerrarazten zuelarik opo-sizio hain arriskutsu bat, batetik, joera naturalik bizienaren eta erre-primitzen zailenaren eta, bestetik, gizakiaren betebeharren edo gizar-

tearen interesen artean? Ez al zuen, azkenik, eragingo orain arte kime-  
ra bat baizik izan ez dena: aztura nazional gozo eta puruak, osatuak,  
ez gabezia harroz, itxurakeria hipokritaz, desohoreak edo erlijio arlo-  
ko terroreak eraginiko beldurrak inposaturiko erreserbez, baizik eta  
ohitura libreki hartuez, naturak inspiratuez, arrazoimenak onetsiez?

Herririk ilustratueneke, euren odolaren eta euren aberastasunen  
jabe izateko eskubidea berreskuraturik, apurka-apurka ikasiko dute  
gerra ikusten izurrite kaltegarriena legez, krimenik handiena legez.  
Desagertzen lehenak izanen dira nazioen subiranotasunaren usurpa-  
tzaileek eragiten zituztenak, ustezko jaraunspenezko eskubide  
batzuen izenean.

Herriek jakingo dute ezin direla konkistatzaile bihurtu euren  
askatasuna galdu gabe; betirako konfederazioak direla euren indepen-  
dentzia mantentzeko modu bakarra; segurtasuna bilatu behar dutela  
eta ez boterea. Poliki-poliki merkataritza arloko aurreiritziak desager-  
tu egingo dira; merkataritza interes faltsu batek galduko du lurra odol-  
tzeko boterea, eta lurra aberasteko aitzakiarekin nazioak hondatzekoa.  
Herriak azkenik politikaren eta moralaren printzipioetara gerturatuko  
direnez, haietako bakoitzak, norbere probetxurako, atzerritarrek dei-  
tuko ditu elkarrekin berdintasunez partekatzeko naturari edo indus-  
triari zor zaizkion ondasunak; kausa horiek guztiak gorroto naziona-  
lak eragiten, pozoitzen eta betikotzen dituztenak, apurka-apurka desa-  
gertuko dira; jada ez diote ankerkeria oldarkorrari eskainiko ez elika-  
gairik, ez aitzakiarik.

Erakunde batzuek –hobeto antolatuak bake eternaleko proiektu  
horiek baino–, zenbait filosofoen aisialdia bete eta espiritua kont-  
solatu dutenek, nazioen kidetasun horren aurrerakuntza bizkortuko  
dute; herrien arteko gerrak, erailketak legez, natura laidoztatzen eta  
asaldatzen duten sekulako ankerkeria horien artean izanen dira;  
herrialdearen izena, baita haren historia lohitzten duten mendea ere,  
zikintzen dituztenen artean.

Mintzatu garenean Greziako, Italiako eta Frantziako arte ede-  
rrei buruz, ohartarazi dugu beharrezkoa dela bereiztea, haien ekoiz-  
penetan, zeintzuk diren berez artearen aurrerakuntzak, eta zeintzuk  
egotzi behar zaizkion artistaren talentuari. Hemen azalduko ditugu  
arteek oraindik espero behar dituzten aurrerakuntzak, bai filosofia eta  
zientzienak, bai arte horien baliabideei, ondorioei eta objektuari

buruzko behaketa ugariagoenak eta sakonagoenak, bai azkenik haien esfera itxi egin duten aurreiritzien deuseztapenarena; aurreiritzi horiek oraindik ere arteok autoritatearen uztarpean mantentzen baitituzte, zientziek eta filosofiak uztarpe hori jada kolpatu duten arren. Aztertuko dugu ea, sinetsi izan den bezala, baliabide horiek agortu egingo diren, edertasunik sublimeenak eta ziragarrienak jada jaso izan direlako, subjekturik zorionekoenez jada jardun delako, konbinaziorik sinpleenak eta harrigarrienak erabili direlako, ozenkien ebakitako karaktere orokorrenak jada trazatu direlako, jada ekin zaielako pasio bizienei, horien adierazpide natural eta egiazkoenei, irudirik distiratsuenei, ea horregatik arteak kondenatuak diren, edozein delarik ere euren baliabideen ustezko oparotasuna, lehen ereduaren imitazioaren monotonia eternalera.

Ikusaraziko dugu nola iritzi hori ez den aurreiritzi bat baino, literatoek eta artistek gizakiak eta ez obrak juzgatzeko duten ohitura horretatik sortua; plazer erreflexibo horretatik zerbait galtzen bada ere, mende eta herrialde desberdinetako ekoizpenen erkaketagatik, jekuaren ahaleginek edo arrakastek eragiten duten miresmenengatik, hala ere, ekoizpen horiek berez ematen dituzten gozamenak biziak izan behar dira, egileak berak meritu gutxiago izan dezakeen arren perfekzio maila horretara iristerakoan. Ekoizpen horiek, gordetzea benetan merezi dutenak, ugaltzen diren heinean, prefektuago bilakatu dira, belaunaldi bakoitzak bere jakin-nahiari eta miresmenari bide emango die, belaunaldi horren zaletasuna piztea merezi duenarekiko; bitartean, poliki-poliki, gainontzekoak aherentziak izanen dira modu sumagaitzean; eta gozamen horiek, edertasun sinpleago eta harrigarriago horiei zor zaizkienak, lehenak jasoak baitira, ez diote horregatik utziko belaunaldi berrientzat existitzeari, nahiz eta belaunaldi horiek ekoizpen modernoagoetan bakarrik ediren dituzten.

Zientzien aurrerakuntzek hezkuntzako artearen aurrerakuntza ziurtatzen dute, eta horrek aldi berean zientziena bizkortzen du. Elkarrekiko eragin hori, berorren ekintza etengabe berritzen delarik, giza espeziearen perfektionamendurako kausarik aktiboenen eta indartsuenen artean sartu behar da. Egun, gure ikastetxeetatik irteterakoan, pertsona gazte batek badaki, matematiketan, Newtonen ikerketa sako-nekin, edo bere jekuari esker, ikasi zuena beste; badaki kalkularen instrumentua lehenago ezezaguna zen erraztasunarekin maneiatzen

halaber. Ohar bera aplika dakieke zientzia guztiei, nahiz eta desberdintasun batzuekin. Horietako bakoitza handitzen doan eran, egia kopuru handiago bat espazio ahalik eta txikienean sartzeko baliabideak, haien ulermena hobeagotzekoak, aldi berean perfektzionatzen dira. Horrela, zientzien aurrerakuntza gorabehera, jeinu berdineko pertsonak, euren bizitzako garai berean, ez dira soilik zientziaren egungo egoeran berdin aurkitzen, bestalde, belaunaldi bakoitzean, adimen berarekin eta arreta berarekin denbora tarte berean ikas daitekeena halabeharrez handitu egin behar da, eta zientzia bakoitzaren zati oinarritzakoa, denek ere erdietsi behar dutena, gero eta hedatuagoa bilakatuko da; modu osoagoan bere baitan izanen du bakoitzak jakin behar duena, bizitza komunean aurrera egiteko, bere arrazoimena independentzia osoz gauzatzeko.

Zientzia politikoetan, badago egia ordena bat, batez ere herri libreetan (hau da, herri guztietan, belaunaldi batzuetan), ezin dena probetxuzkoa izan orokorki ezagutzen eta onesten ez den artean. Horrela, zientzia horien aurrerakuntzak askatasunean, nazioen oparotasunean, nolabait neurtu behar dira ondoko egia hauen arabera: oinarritzko hezkuntza baten efektuz espiritu guztietan amankomun direnen arabera. Hortaz, oinarritzko hezkuntza horretan beti hazten doazen aurrerakuntzak, aldi berean zientzietan beharrezkoak diren aurrerakuntzatarako lotuak direnak, bermatzen digute giza espeziaren hobekuntza, beharbada mugagabea, ez baitu beste mugarik aurrerakuntzenak baino.

Oraindik geratzen zaigu bi baliabide orokorreaz mintzatzea, horiek aldi berean eragiten dute, bai hezkuntza artearen perfektzionamenduan, bai zientzienean: bata, metodo tekniko deritzaten horien erabilera zabalduago eta ez hain inperfektua da; bestea, lengoiaia unibertsal baten ezarpena.

Metodo tekniko diodanean esan nahi dut antolaera sistematiko baten pean objektu kopuru handi bat biltzeko artea, zilegi egiten duena begirada batez erlazioak jasotzea, konbinazioak azkar aurkitzea, berriak errazago osatzea.

Printzipioak garatuko ditugu, arte horren erabilgarritasuna sumaraziko dugu, oraindik ere bere haurtzaroan baitago, eta, perfektzionatzen doalarik, eskain dezake, bai abantaila, koadro baten espazio murriztean biltzekoa sarri liburu zabalago batean bezain azkar eta



ondo biltzea arras zaila litekeena, bai baliabidea, oraindik baliagarriagoa dena, gertaera isolatuak aurkeztekoa horien emaitza orokorrak deduzitzeko moduko antolamendu egokienean. Azalduko dugu nola, koadro horietako gutxi batzuen laguntzarekin –horien erabilera ikas-tea erraza izanen baita–, hezkuntza oinarrizkoenetik harago joan ahal izan ez duten gizakiek, bizitza komunean probetxugarriak diren detailzko ezagutzak jasotzeko aukerarik izan ez dutenek, horiek aurkitzea izanen duten, euren nahierara eta behar dituztenean; nola, azkenik, metodo horien erabilerak oinarrizko hezkuntza erraztu dezakeen hezkuntza hori oinarritzen den genero guztietan, bai egien ordena sistematiko bati, bai behaketa edo gertaera segida bati dagokionez.

Lengoaia unibertsal bat da, zeinu bidez adierazten dituen, bai objektu errealak, bai multzo horiek ongi determinatuak, ideia sinple eta orokorreaz osatuak direlarik, beti berdinak direnak, edo gizaki guztien adimenean berdin osa daitezkeenak, bai, azkenik, ideia horien, giza espirituaren operazioen, zientzia bakoitzarenak propioak direnen, edo arteen prozeduren arteko erlazioak. Horrela, zeinu horiek, beroriek konbinatzeko metodoa eta osaketaren legeak ezagutzen dituzten gizakiek ulertuko dute zer dagoen idatzia lengoaia horretan, eta erraztasun berarekin adieraziko dute euren herrialdeko hizkuntzan.

Ikus daitekeenez lengoaia horrek balio dezake azaltzeko, bai zientzia baten teoria, bai arte baten arauak; berri emateko esperientzia edo behaketa berri batez, prozedura baten asmakuntzaz, egia baten zein metodo baten aurkikuntzaz. Algebrak legeaz, zeinu berriez baliatuta behar denean, jada ezagunak direnek emango lukete balioa azaltzeko modua.

Lengoaia horrek ez du hizkuntza arruntetik diferentea den mintzaera zientifiko baten eragozpenik. Jada azpimarratu dugu mintzaera horren erabilerak derrigorrean bitan banatuko lituzkeela gizarteak, elkarren artean diferentetia diren bi klasetan: bata osatuko lukete, lengoaia hori ezagutzen dutelarik, zientzia guztien giltza izan dezaketen gizakiek; bestea, ikastea ezinezko zaielarik, argiak jasotzeko ia ezintasun osoa luketenek. Kasu honetan, aldiz, lengoaia unibertsala zientziarekin berarekin ikasiko litzateke, algebraren kasuan legeaz; zeinua ezagutzen da objektuaren, ideia-aren, hark adierazten duen operazioaren aldi berean. Zientzia baten elementuak jaso dituen horrek, aurrerago egin nahi duelarik, liburuetan topatuko ditu, ez bakarrik jada ezagu-

tzen dituen zeinuen laguntzaz uler zitzakeen egiak, baita beste egiatara iristeko beharrezkoak zaizkion zeinuen azalpena ere.

Erakutsiko dugu nola halako lengoaia baten eraketa, mugatzen bada adieraztera proposizio simple eta zehatzak, zientzia baten sistema osatzen dutena lakoak, edo arte baten praktikakoak lakoak, ez den inolaz ere ideia kimeriko soila izanen; haren egikaritzea erraza izanen dela objektu kopuru handi baterako; gainontzeko zientzietara hedatzea eragotziko dion oztoporik errealea izanen dela behar hori, apur bat umiliagarria dena, daukaguna onartzeko zein ideia gutxi, nozio ongi zehaztu, espirituek adosturiko dauzkagun.

Azalduko dugu nola, etengabe perfektzionatuz, egunero hedadura handiagoa erdietsiz, lengoaia horrek balioko duen giza adimenak barne hartzen dituen objektu guztietara eroateko zehaztasun bat egia-  
ren ezagutza erraz egingo duena, eta errorea ia ezinezko. Orduan, zientzia bakoitzaren ibilbideak matematikek daukaten segurtasuna izanen luke, eta sistema osatzen duten proposizioek, ziurtasun geometriko osoa, hau da, euren objektuaren eta euren metodoaren naturak baimentzen dien guztia.

Giza espeziearen perfektzionamenduaren kausa horiek guztiek, perfektzionamendu hori ziurtatzen duten baliabide guztiek, euren naturagatik, akzio etengabe aktiboa eragin behar dute, eta beti etengabe handitzen den hedadura.

Agertu ditugu frogak, obran bertan, euren garapenagatik indar handiagoa jasotzen dutenak; hortaz, esan genezake gizakiaren perfektibitate mugagabea dela; eta, hala ere, orain arte, ez dizkiogu suposatatu ezpada ahalmen natural berak, antolamendu bera. Zeintzuk izanen ziren, orduan, bere esperantzen ziurtasuna eta hedadura, pentsatzen ahal badugu ahalmen natural horiek, antolamendu hori ere, hobetzeko gai direla? Eta hori da aztertzeke geratzen zaigun azken itauna.

Begetaletan, animalietan, arrazen perfektibitate edo endekatzeko organikoak naturaren lege orokor kontsidera daitezke.

Lege hori giza espezieari lerratzen bazaio, eta inork ez du zalan-tzan jarriko medikuntza prebentiboaren aurrerakuntzek, elikagai eta bizileku osasungarriagoek, gehiegikeriek hondatu gabe indarrak ariketaren bidez garatzen dituen bizimodu batek, azkenik, endekatzearen bi kausa aktiboenen –miseria eta neurritz kanpoko aberastasuna– suntsipe-

nak, horiek guztiek ere, gizakientzat bizitza komunaren iraupena luzatu behar dutenik, osasun iraunkorragoa, egikera indartsuagoa bermatuko dietenik. Espero daiteke medikuntza profilaktikoaren aurrerakuntzek –arrazoimenarenak eta ordena sozialarenak eraginkorrak egin dituzten horiek– luzarora desagerraraziko dituztela eritasun transmitigarri edo kutsakorrek, baita kliman, elikagaietan, lanen naturan jatorria duten gaixotasun orokor horiek ere. Ez da zaila izan frogatzea esperantza hori ia gainontzeko gaixotasun guztietara hedatu daitekeela, egiantzekotasunekoa baita pentsatzea egunen batean jakingo dugula ezagutzen zeintzuk diren urrutiko kausa horiek. Absurdoa al litzateke, orain, suposatzea giza espeziearen perfektzionamendu hori aurrerakuntza mugagabe baterako gai dela, iritsiko dela garai bat heriotza ez dena izan ezpada akzidente ezohikoen zein bizi indarren ahitze gero eta geldoagoaren ondorio, eta, azkenik, jaiotzaren eta heriotzaren arteko tartearen iraupenak ez duela izan ezar daitekeen muga bat? Zalantzarik gabe, gizakia ez da hilezko bilakatuko; baina ezin al da etengabe hazi, bizitzen hasten denetik eta naturalki, gaixotasunik gabe, akzidenterik gabe, gizakiak izatearen zailtasuna sumatzen duen garai komun horretara doan distantzia? Hemen aipatzen ari garelarik aurrerakuntza bat, zehaztasunez adierazi daitekeena kantitate numerikoen bidez edo lerroen bidez, hau da unea *mugagabe* adieraren zentzu biak garatzeko.

Izan ere, etengabe hazi beharko den bizitzaren batez besteko iraupen horrek, etorkizunean barneratzen garen heinean, luzatzeak izan ditzake, lege bat jarraituz, berorren arabera iraupen hori etengabe hurbilduko da luzera mugagabe baterantz, inoiz iritsi barik; edo jarraituko du beste lege bat, berorren arabera iraupen horrek, menden itzeltasunean, erdietsiko du luzera determinatu bat edonork muga bezala jarri diezaiokeena baino handiagoa. Azken kasu horretan, luzapenak benetan mugagabeak dira zentzurik absolutuenean, mugarik ez baita existitzen, horiek geratu behar diren puntutik honantzago.

Lehen kasuan, guri ere badagozkigu luzapenok, ezin badugu ezarri muga hori, luzapenek inoiz lortuko ez dutena, etengabe hartara hurbiltzen diren arren –batez ere, jakinik ezin direla puntu batean geratu–, ez dakigu *mugagabe* adiera zentzu bi horietako zeini aplikatu behar zaion. Halakoak dira, izan ere, giza espeziearen perfektibilitateari buruz dauzkagun ezagutzak; hori da mugagabe deitzean darabilgun zentzua.

Horrela, hemen kontsideratzen ari garen adibidean, pentsatu behar dugu bizitzaren batez besteko iraupen hori etengabe hazi behar dela, ez badiote iraulpen fisikoek aurka egiten; baina ez dakigu zein den inoiz igaroko ez den muga; ez dakigu ere ea naturaren lege orokorrekin ezarri duten muga bat, haratago iragaterik ez dagoena. Baina ahalmen fisikoak, zentzumenen indarrak, trebetasunak, fintasunak, ez al dira norbanako perfektionamenduko nolakotasunak, transmiti daitezkeenak? Etxeko abereen arraza anitzen behaketak hori sinestera garamatza, eta giza espeziean eginiko behaketa zuzenek konfirmatzen dizkigute.

Azkenik, esperantza horiek luza al ditzakegu ahalmen moral eta intelektualetara? Eta gure gurasoek, euren osaeraren abantailak edo akatsak transmititzen dizkigutenak, haiengandik jasotzen ditugularik, bai egikeraren traza bereizgarriak, bai afekzio fisiko jakin batzuetarako joera, ezin al dizkigute transmititu halaber antolamendu fisikoko zati hori, berorren arabera direnak adimena, gaitasun intelektuala, arimaren energia edo sentikortasun morala? Ez al da egiantzekoa hezkuntzak, nolakotasun horiek perfektionatzen dituelarik, antolamendu horretan eragin dezakeela, berori modifikatuz eta perfektionatuz? Giza ahalmenen garapenaren analisiak, analogiak, baita zenbait gertaerek ere, antza, susmo horien egitasuna frogatzen dute, gure esperantzen mugak oraindik gehiago zabaltzen dituztelarik.

Gai horien azterketak amaituko du azken garai hau. Eta koadro honek, giza espeziearenak, berau aske delarik bere kate guztietarik, zoriaren agintetik aldentua, bere aurrerakuntzen arerioetatik lain, eta urrats irmoarekin doalarik egiazen, bertutearen eta zorionaren ibilbideetik, koadro honek, bada, aurkezten dio filosofoari ikuskizun bat kontsolatzen duena lurra oraindik mintzen duten erroreetatik, krimenetatik, bidegabekerietatik, sarri oraindik ere horien biktima baita! Koadro hau ikusterakoan jasotzen du arrazoimenaren aurrerakuntza-ren alde, askatasunaren defentsan, eginiko bere ahaleginentzat saria. Orduan, ausartzen da ahalegin horiek giza etorkizunaren kate eternalarekin lotzen: hor topatzen du bertutearentzat benetako ordainsaria, on iraunkor bat egitearen plazera, patuak ez duena suntsituko zoritxarreko neutralizazio baten bidez, aurreiritziak eta esklabotasuna berrezarritik. Beretzat ikuskizun hori aterpe bat da, bertan bere jazarleen oroitzapenak ez du ukituko; bertan, bere pentsamenduan bizi delarik

eskubideetan zein naturaren duintasunean berrezarria den gizakiarekin batera, ahanzten du askonahiak, beldurrak edo bekaizkeriak tormentatu eta usteldu duten gizaki hori; bertan bizi da benetan bere antzekoekin, bere arrazoimenak sortzen jakin duen Eliseo batean, berak daukan gizateriarenganako maitasunak gozamen puruenekin edertu duen horretan.



# *Aurkibidea*

ZER DA ILUSTRAZIOA? ITAUNARI ERANTZUNA.....	7
Immanuel Kant	
OHARRAK.....	14
 BILTZAR NAZIONALEKO KIDE BATI GUTUNA BURKE	
JAUNAREN PARTEZ HONEK FRANTSES AFEREN GAINEAN.....	15
Edmund Burke	
OHARRAK.....	52
 PALMIRAKO AURRIAK, EDO INPERIOEN IRAULTZEN GAINEKO	
HAUSNARKETAK.....	53
Volney	
OHARRAK.....	229
 GIZA ESPIRITUAREN AURRERAKUNTZEN KOADRO	
HISTORIKO BATERAKO ZIRRIBORROA.....	261
Condorcet	

